"ELIZA ZAHARRA BIDE BARRIETAN" AITA BEOBIDE

AITA BEOBIDE

"ELIZA ZAHARRA BIDE BARRIETAN"



Elizaren argi eta ilunak
Gogoetak

Eliza ere, dagoeneko, honako larriune urdurian bahiturik dakusgu. Ez da maitatua. Semeak bertan bera itzitako ama zaharra dirudi. Sorgin haize guztiak bere gain apurtzen dira. Nahigabeturik dago bere semeen igesarekin.

Seme onari dagokion lez, maitez hartu behar dogu Ama besoetan. Ahuldura horretatik aupatzeko geure esku sendoa luzatu; bizia emoteraiño maitatu, salbamen urak emoten dituan harkaitza, Kristoren begi ninia, Haren irudi eta jarraipena dalako lurrean.

Minez hurreratu Eliza Amagana, eremuko bakartadean, neke larriz, guri deika daukagu eta.

Askok ez deutse begi onik erakusten. Eskuraezinaren irudipean ikusten dabe azken aldiotan.

Urrun geratzen da askoren bihotzetatik. Lekune zabaletan, abegitasuna eta ederrikusia baino ugariago hoztasuna eta etsaikeria aurkitzen ditu.

12462

EUSKAL BIBLIOTEKA DERIO BIZKAIA LABAYRU

Euskal Biblioteka Labayru

1011508

LITERATURA / N. 1034

AITA BEOBIDE

ELIZA ZAHARRA BIDE BARRIETAN

Elizaren argi-ilunak. Gogoetak

© Ediciones El Carmen
ISBN: 84-7305-079-7
Legezko Gordegailua: BI-1952-96

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1°

Silutegia: A.G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4
48950 Erandio (Bizkaia)

Irudiak: Estudio Unzalu

AITA BEOBIDE

ELIZA ZAHARRA BIDE BARRIETAN

Elizaren argi-ilunak. Gogoetak

BILBO
1996

Patxi Uribarren eta Julen Urkizari
eskerrik beroenak emondako laguntzagaitik

AURKEZPENA

Barriro ere euskeraz naiatortzue idaztiño honetan. Kimu barria emon dau euskal enbor zaharrak. Maitasunaren beroak bizi arnastuta jaio da.

Odol barria sartu nahi dogu zugatz zaharraren zanetan eta gazteturik jarri, igarrak jota inoz lurreratu ez dadin.

Gerenon ajolagabekeriaren erruz, hilzorian daukagu aitona agurgarria, hilobirako bidean. Ez nenduke neure begiz hilik ikusi nahi.

Eliza, dagoeneko, honako larriune urdurian bahiturik dakusgu. Ez da maitatua. Semeak bertan bera itzitako ama zaharra dirudi. Sorgin haize guztiak bere gain apurtzen dira. Nahigabeturik dago bere semeen igesarekin.

Seme onari dagokion lez, maitez hartu behar dogu Ama besoetan. Ahuldura horretatik aupatzeko geure esku sendoa luzatu; bizia emoteraino maitatu, salbamen urak emoten dituan harkaitza, Kristoren begi ninia, Haren irudi eta jarraipena dalako lurrean.

Minez hurreratu Eliza Amagana, eremuko bakartadean, neke larriz, guri deika daukagu eta.

Askok ez deutse begi onik erakusten. Eskuraezinaren irudipean ikusten dabe azken aldiotan. Urrun geratzen da askoren bihotzetatik. Lekune zabaletan, abegitasuna eta

ederrikusia baino ugariago hoztasuna eta etsaikeria aurkitzen ditu.

Gizaldietan izan dauan nagusitasun hori galdua dau gaur. Ez datoz bat, mila gauzetan, Eliza eta mundua.

Batez ere, pentsaera, irizpide eta moral arazoetan dabiltzaz haserretuta. Pentsaera eta irizpide horreek alkartezinak dira hainbat arlotan. Zu hortik eta ni hemetik, inoz aurkituko ez diran bideetatik doaz. Zidor labana hau aitumen onerako.

Kontzilioaren ames bat Eliza gaurko mundu honekin hartu-emonetan sartzea izan zan. Eliza gaurkotu, bide barrietan ibiltari jarri, gizadiaren zerbitzurako dan ezkero.

"Elizak, egiaz eta benetan, bere-bereak egiten ditu gizadiaren arazo eta gertakizunak" (GS.1).

Gogo zintzo eta jator hau dago kontzilioaren oinarrian. Hortik doa bere gogoa. Baita gurea ere.

Jentil aro barri baten sartuta gagoz. Zerua sinisgabekeriak estali dau. Hil aginean dago Jaungoikoagan dogun siniskera. Gizakia bera ageri da jainko bakar eginik. Bera munduko jaun eta jabe bakarra. Ez dau onartzen beste Jainkorik.

Erlijioari, gaurkoz, jendartean biziteko baimena emoten jako, baina inguruan muga batzuk jarriaz.

Gizakiak ez ditu ahaztu behar, esaterako, honako zenbait gauza: erlijioa antxinakoen ezjakintasunetik sortutako lorea dala; gaur gainditurik dagoan ohitura zaharra; oinarri ziurrik ez izatean, bere sinisgarritasun guztia hutsean gelditzen dala; pixkanaka-pixkanaka bazterreratu behar dan zaharkeria dala. Siniskeriazko hitza da erlijioa.

Onbidean gaixoaren antza emoten dau gaurko gizarteak.

Geure bizieran okerrune eta aldaketa handiak sartu ditugu. Batez ere, moraltasunean atzerakada izugarria nabari da.

Gaberdiko ilunak itsututa gabiltz; gizaldian zehar, moraltasunean erabiliak izan diran araubide eta legeak baliotasunik gabe gelditu dira, baztertuta onarpen txikienik gabe.

Zer dan ona eta zer dan txarra neurtzeko, arau barri hau darabilgu: neure kolkorako ona dana, hori onaren barruan dago, bedeinkapen guztiak ditu. Niretzat kaltegarri dana, ostera, hori txarraren gibelean doa. Hori da gaitzetsi beharrezkoa.

Edo eta gehiengoak zer pentsatu, zer esan eta egiten dauana kontutan izanik, norberak ere horixe egin; jokabide horretan jarri gure egintzen moraltasuna.

Lege honeen esanera erabagiten ditugu ona eta txarra.

Sexu hartu-emonetan mugarik gabe goaz; atseginkerian norberen nahiaren haizera; honetan arauak eta ertzak norberak jarten deutsoz bere buruari.

Geuretik datorkigun eskubide ikutuezina lez ikusten da gaur sexu ingurumari hori. Baratz horretan norberak bakarrik jarri leikez oinak, norberak jarten deutsoz jokoari legeak.

Kultura eralgitzaile, hondatzaile baten menpeko eginik dago gaurko gizakia. Aukera guztien erreztasunean bizi nahi dogu. Zorionari ezer ukatu gabe.

Inori aurpegira begiratu gabe, lehenbailehen aberastu, ezker-eskumakin ondasunak pilatuz. Arin aberastu eta irabaziak atseginkerietan erre. Asko euki, asko eralgiteko.

Baina bonbokeria guzti honek ez dau, antza, gizakiaren barren hondoa asebetetzen. Hutsaren saminak gainez egiten deutso.

Pentsalari askoren ustez, gaurko gizakiaren gaixorik zabalena lez barruko bakerik eza, zorionik eza izendatu daiteke. Gizon eta emakume askoren gogoa beti ilun, beti artega, beti larri.

Zerk eroan ditu egoera horretara? -Eta pozoia gizakiagan beragan aurkitzen dabe jakintsuok: gogoa hutsik, antzu, frutu onik gabe, bizitzako amesak alperkerian erretetik ei jatorke barruko ondoeza hori.

Goitiko itxaropenak galtzean, bizitzako izarra estalirik geratzen jake. Etorkizunaren hondar ilunak irentsitako gogoak dira.

Gizarte horretan ezetsita dagoz Elizaren irakatsiak. Hortik sortu da Eliza eta munduaren arteko hoztasun hori, borroka hori.

Bakoitzak bere legea jarri nahi dau nagusi eta hortik datoz alkarren arteko aituezin eta urruntasunak.

Horraitio, egiari omen eginez, munduaren harrigarriak ere autortu beharrean gagoz. Gauza on eta ederrik asko egiten ditu gizakiak. Hoba ez. Baina, hortik ez dator hasarrebiderik. Horretan ados, besotik doaz biak, Eliza eta mundua.

Beste arazo batzuk dira auzitan dagozanak.

Sinisgeak alde batera itzita, gai askotan ulertezina bihurtu da gaurko Eliza hau kristau herriarentzat.

Kristau herria ere ondoezak, urduritasunak jota ikusten dogu. Ez dator bat Elizak dituan joera askorekin; zenbait gauzatan Elizak darabilen entzungorkeria zarratuarekin.

Lehenengo eta behin, Kontzilioak mundurantz idegitako zubi eta leihoak zarratu nahian dabilenaren zurrumurru bizia dabil. Honen abarrotsa mundu guztira zabaldu da. Elizaren jokaerak ezbaida gogorrean dagoz.

Kontzilioaren irakatsietatik ehuneko hogei bakarrik jarri dira oraindik jokoan; gainetiko guztiak giltzapean gorderik dihardue.

Hainbat gaitan eta arlotan Elizaren irakatsi eta aginduak onartu gabe dagoz herriaren aldetik, ezetsita dagozala ez esatearren.

Kristau herriak itaun asko ditu gaur Elizari egiteko:

Zer dala eta hainbeste tirabira eta ezezko emakumearen abadegoari? Zergaitik hain garesti pekatuen parkamena? Zergaitik ez jaitsi ahalguztiduntasunaren lainotik eta demokrazia bideetan sartu?

Gaur inortxok ere ez dau ahalguztiduntasunik onartzen; gaurko kultura barria demokrazian oinarrituta dator.

Gatazka asko ditu gaurko Eliza honek.

Beste gauza askoren artean, honako eta beste galdera batzuei argibide batzuk aurkitzeko asmotan idatzi dogu liburuxka hau.

Elizaren teologia herri mailan azaldu nahi izan dogu.

Elizaren kerizpean eginiko gogoetak dira. Maitez eta ederrez eginak, gainera.

Elizaren ona, hori da gure helburu bakarra. Lortu ahal bagengi, zoriontsu ginakez.

"Munduaren argia zaree zuek". Mt. 5,14



ELIZA GAURKO MUNDUAN

Gaurko gizon eta emakumeen poz eta itxaropenak, atsekabe eta larrialdiak, batez ere txiroenak eta era askotako atsekabetuenak, erabat Kristoren jarraitzaleen poz eta itxaropen, ilunaldi eta atsekabe dira; eta ez da giza mailakorik ezer, hareen bihotzean oihartzunik ez dauenik. Elizak, egiaz eta benetan, bere-bereak egiten ditu gizadiaren arazo eta gertakizunak. (GS 1).

Gizakia dago, beraz, Elizaren ikuspegian. Gizakia dau helburu. Gizakiaren zerbitzurako dago. Munduaren gatza eta argia izateko agindua dau.

Orain, kristautu nahi dogun mundu hau, gaur eta hemen, zelakoa dan eta zelan dagoan ikusi behar dogu.

Goitik behera eta alderik alde begiratu behar deutsagu, beragan oinak jarri aurretik. Bere barrunbeak ondo ezagutu gabe bertara sartzea, arriskugarria izateaz gainera, guztiz alperrekoa litzakegu eta. Bertatik etsimenduko ginakez.

Mundu hau da jorratu eta kristautu behar doguna. Munduaren narru gainean dabiltzan gizon eta emakumeei oihukatu behar deutsegu Kristoren ebanjelioa. Ba ete da guri entzuteko gauza? Ba ete dauko belarririk entzuteko,

ala honezkero gorturik ete dago? Ez ahal daukoz bihotz ateak, barrutik trangaurik, Kristo bertara sartu ez dadin?

Hemen itaun ilun asko datoz, laino baltzez inguraturik. Ez da aurrea argi ikusten. Edozein zulotara jausteko arriskua daukagu.

Horregaitik oihukatuko dogun mezu ebanjeliotarra ondo eta sakon ezagutu behar dogu. Baina honez gainera, behar-beharrezko dogu guri entzun edo ez entzun egingo deuskun mundu hori ere ezagutzea. Mundu horretan barru-barruraino murgildu behar gara berari, ondo ezagutu ostean, zer esan eta zelan esan jakiteko.

Mundu gaina eta mundutarrak gainagotik ikusten dituan Jaunak berak daroa, bere esku, mundu honen gidaoina.

Jesus ez dago urrun. Lagun artean nahasturik doa, ezezagun eginik. Ez dau, gaur, jendaurrean hitzaldirik egiten, gaixorik osatzen; ez ditu bere aldiko harrigarriak egiten. Gaur beste era batera dago gugaz.

Gaur seinale batzuk jarten ditu bidegurutzetan munduak nondik joan eta ibili behar dauan izendatuz.

Guk seinale horreei "aldien ezaugarriak" deritxoegu. Gizartea ibilian dabil beti. Aldian-aldiango higidura eta mugimenduak sortzen ditu. Aro bakotxari dagokiozan mota bereziak.

Gizartearen aro aldi bat moldatu, jantzi eta zuzendu daben indar bizi guzti horrei deritxoegu "aldien ezaugarriak".

Hau da, aro baten aurpegia koloratzen daben pentsaera, uste, asmakizun, helburu, eritxi, jazoera, aurrerakuntza, joera, ohitura, ekandu, ibilera, bizikizun eta abar, oro-

kortasunean hartuta, historiaren aro bat ezagutzeko ezaupide ditugu.

Eta bizikizun guzti horreen bidez zuzentzen dau Jaunaren Espirituak gizadiaren martxa eta historia. Seinale horreen bidez gidaritzen dau gaurko gizadia.

Esaterako. Gaur hitz handiok idatzi ditu horreetariko seinale baten: *"Giza-baliotasuna", "giza-eskubideak", "giza-duintasuna", "giza-askatasuna".*

Han eta hemen, munduko bazter guztietan idatzi ditu, idatzi ere

Eta gizonak begiz jo dituanekoxe, argiz dizdizka lotu dira askoren buruetan.

Berba horreek mezu bat daroe barruan: gizakia ez dala edozer, ezin geinkela aberea balitz lez tratatu. Gizaki bakotxa, nor zein dan begiratu barik, goitiko duintasun eta haunditasunez jantzita dagoala, beraz, gizakia irain-tzea, zauritzea, jotea, zapaltzea, menperatzea, txarrez erabiltea, izugarrizko doilorkeria dala; ebanjelioaren kontrakoa dala.

Jaungoikoaren seme-alaba dan lez, Jainkoari deutsagun itzala eta begiramena zor deutsaguzala gizakiari ere. Eta holantxe, irakatsi honen berora eta eraginera, mundu guztian zehar gizakiaren aldeko olinpiada bat sortu da.

Horra hor *"aldien ezaugarri"* bat.

Beste baten, *"anaitasuna eta solidaritza"* idatziko ditu eta bertatik, borondate oneko gizon eta emakume guztiok holako sendi handi bat, anaidi bakar bat egiten dogula konturatzen gara eta sendiko lege nagusia alkarri lagundu beharra, alkar maitatu beharra dogula. Hortik, senitartekotasun orokor bat sortuko da gizakien artean.

Inoz *"errien eskubideak"* aitatuko ditu. Eta honek esan nahi dau ez dogula inongo herririk indarrez menpe-

ratu behar. Herri bakotxak bere askatasuna eta burujabetza dituala. Erri hori besteak aina dala. Hortik, gaur, herri zapaltzaileak higuingarri eta jasanezinak egiten jakuz.

Beste behin, *"ezeukien ardurakizuna eta herri pobreen jasokuntza"* jarriko ditu begitan.

Jesusek pobreen ogia bere gorputza bestean sagaratua dala bizikiro oihukatuko dau. Eta atzapar luzez ogi hori norberaganatzea, lapurtzea, Epulonen pekatuan amiltzea dala. Eta herri pobreetara, lapurretan barik, laguntza eta aurrerapena eroaten joan behar dala.

Inoz emakumeari ere eskua luzatuko deutso, bere aulkira eroateko. Emakumea beste edozein beste da handitasunean eta ez inoren mirabe.

Jaungoikoaren alaba kutuna da, gizona seme kutuna dan neurri berean. Biak gorengoenak. Biak bete-betean alkar osotzeko eginak, lehenengo eta bigarren barik. Hortik, emakumearen eskubideen aldeko mugimendu bat hasiko da mundu osoan.

Holantxe jarraitu geinke, etenik gabe, aldien ezaugarriok bilatzen.

Argi dago, ba, Jaunaren Espirituak gizakiari norabideak urratzen diharduela. Gure bidelagun doa gizakiari bide barriak erakutsiz. Jaungoikoak bere asmo eta gurariak ezaugarri horreen bidez agertu eta iragarten deuskuz. Guri hitz egiteko aurkitu dauan era barri bat da hau. Haren gaurko agerpenak dira. Jesusen berbotsa dabil hor oihartzunean durdurika.

Beraz, Jaunaren eskua dabilen ezkero hor lanean, garrantzi handikoa da "aldien ezaugarriok" kontutan edukitea. Hemen entzungor, edota ezjakinean egotea, ebanjelizatze lanari hilobi bat zabaltzea lez litzake. Hondamendi ikaragarriak letorkioz Elizari. Jaunaren asmoai dagitsaguen saldukeria lez aitu beharko genduke jokera hau.

Bestetik, aldien ezaugarriok ez ditugu norberen uste eta eratara aitu eta azaldu behar. Ebanjeliotarrak diran ala ez jakiteko, aurrezdik ebanjelioaren orratz begitik sartu behar ditugu. Lan hori egiteko, barriz, bere profetak ditu Elizak.

Kontzilioaren ames bat gaurko mundu honegaz hartu-emonetan sartzea izan zan. Nahitanahiezkoa lez ikusten zan Elizaren eta munduaren arteko alkarrizketa eta alkartasun hori.

Bien arteko aitumen estu eta barruko bat eskatzen zan han bien onerako. Hau dala eta, eguneroko zeregina dau Elizak, barren-barrenetik, aldien ezaugarriok azterkatzea, abots horrek dinoan ezertxo ere galdu ez dadin.

Hortik, Elizak munduratu beharra dauko mundu horren taupadak adi-adi entzun eta mundua ahalik eta ondoen ezagutzeko.

Galderak hemen arrapaladan datoz:

Zelakoa da gure gaurko mundu hau? Zer adierazo nahi ete deusku Jaunaren berbotsak mundu zelaian dantzan dabiltzan hainbeste jazoera eta zurrunbiloen agoz? Zer itxaroten dau mundu horrek fedeagandik, Elizagandik? Legamina, gatza, argia ala kutxan gordetako harri bitxia ete da Eliza hau?

Eta mundura begira jarten garanean, begiak lausotuta, bera ezagutu ezinik gelditzen gara. Mutil kozkor bat zala uste genduan eta gizontzar eginik aurkitu dogu.

Asko daki; ezinbestean aurreratuta dago. Laino guztien gainetik eta ur guztien azpitik ibilten ikasi dau.

Sinistu ezinezko aurrerakuntzat egin ditu urte gitxiren buruan. Azkeneko urteotan bakarrik, beste gizaldi guztietan baino aurrerakuntza gehiago eta harrigarriagoak egin ditu.

Honetan txapela kendu behar dogu bere aurrean.

Zeharo aldatuta ageri jaku gizakion bizileku hau. Guztiz aldatuta gizakia bera ere. Nok ezagutu gizaki hau?

Ez dira azaleko edo gaineko aldakuntza batzuk, antxinakoen ordez sartu diran moda barri edo ohitura batzuk, ez. Barru eta kanpo, goitik beheraino aldatu da mundua. Molde barrietan sartu dogu. Mundua eta mundukoak ikuspegi barri batetik ikusten ditugu gaur.

Eta aldaketa honeek ez dira hemengoak edo hangoak, olatuen antzera, orain etorri eta orain joan dabiltzanak. Ez. Zeharo tinkatuta, lur zabal osoan bertako eginik dagoz.

Lehengo mundu zaharra bere pentsaera, erizpide, molde, zaletasun, jolas, jokera, langintza eta enparauakaz batera zokora bota eta haren hautsetan, mundu barri hau jaso dau gizakiak.

Eta aldakuntzarik handiena fede-sailean egin dauala deritxat.

Bere huts eta guzti, gehientsuenak fededun autortzen ziran lehengo baten. Baita askok zintzoro bete ere euren erlijiotasuna. Banakak ziran ateoak. Gaur, barriz, bestetara da: ateoak ugaritu eta fededunak urritu egin dira.

Batzuek ez Jaungoikoagan, ez Kristogan, ez betiko bizitzan ez dabe sinisten. Ateo hutsak.

Beste asko euren gurariz eta eskabidez bateatuta dagoz. Fedea hartu dabe eta, gitxi asko, fedean trebe jarraitzen dabe.

Hirugarren batzuek bateatuak dira, zelanbaiten fededun ere autortzen dira, baina ez dira egileak. Elizatik urrunduta bizi dira; bakarrean, euren gogo eta nahira bizi dabe fede hori.

Nondik sortu da fedeak izan dauan atzerakada hau, ilunaldi hau?

Jainkoari eta erlijioari uko egitetik dator hainbaten. Gaurko kulturaren barrunbeak eta gizakiaren ikuspuntuak azterkatzen ditugunean, hau da, gizasemearen bizitza osotzen daben atal guztiak begiratzean, zutoin guzti horreek Jainkorik gabe aurkitzen ditugu.

Dana dago atzekoz aurrera jarrita. Gitxi asko, kristautasunetik sortutako kultura bat izan da gurea. Jaungoiko egilea, Jesus Salbatzailea eta Honen Barri Ona zituan oinarri. Giltzarri honeen gainean biraka ebilen gizartearen haize-orratza. Bide horretatik joian mundua.

Gaur, ez da holan. Gaurko gizakiak Jainkoa urrundurik bakarrik ez, gugandik guztiz bazterturik ikusi nahi dau.

Ez dagiala gizartean jabetzarik izan; ez daitela gizon eta emakumeen arazo eta bideetan sartu.

Goitiko edo alboko indar guztietatik askatuta ikusi nahi ditu bere burua eta izatea.

Bera lurreko jaun eta jabe; bera lurreko gauza guztien ardatz eta gidari. Berak bakarrik egin nahi dau munduko etxe hau, berak zuzendu eta gidaritu, bere asmo eta gurarien arabera. Ateak itxi deutsoz Jainkoari, barriro gure artera sartu ez dadin.

Begiak zabalduaz batera ikusten da, Elizak aintzakotasuna galdu dauala gaurko gizartean. Bazter samar geratu da.

Oraintsurarte erakunde gidaria izan da munduaren martxan. Nahiko zan bere hitz erditxo bat edo agindu bat mundua bera gelditzeko. Guztialduna zan hainbat arlotan. Goitiko igurtziz eta ahalmenez hornidutako zerbait zan Eliza. Hortik, berezko menpekotasuna eskeintzen jakon.

Gaur, hori galdua dau. Ezer gitxi agintzen dau mun-

duan. Bere irakatsi eta agindu askoren aurrean protesta gogorrak sortzen dira, hasarrez eta saminez.

Munduko arazoetan sartzea zeharo galerazota dauko. Hori, gaur, ez deutso inok parkatzen. Etsaigo handia dauko inguruan.

Antxina iragarri eban Jesusek otso artera lez bialtzen zituala mundura bere oihulariak. Holako zerbait ikusten da gaur.

Hor dago gure lantegi hori. Mundu horretara sartzeko ateak aurkitu eta bideak egin behar ditugu. Ez gaitu begi onez ikusten. Ez deusku parterik emon nahi mundugintzako lanetan. Sakristia barruan gura gaitu geldirik, baina handik kanpora isiltasuna eskatzen deusku.

Mundu horren parte da Eliza ere. Mundu hori da ebanjelizatu behar dauana, mundu hori Kristoganatu.

Mundu barri bat da gaurko hau. Molde zahar guztiak hausturik, ibilbide barriak zabaldu deutsoz gizakiaren bizimoduari. Historia aro barri bat hasi dogu.

Era berean, Elizak ere barriztau eta gaurkotu beharra dauko mundu barri horregaz alkartzeko, bat egiteko, gizarteagaz dituan zereginak oparotasunez betetzeko.

Batak eta besteak alkarrizketa gozoan, aitumen zabalean, eskutik joanez, hasarre eta gorrotorik gabe, alkarri lagunduz, alkarri eder eginez, egin behar dabe ibilaldi hori.

Horretarako Elizak ere bere pentsaera, irizpide eta ibilbideak barriztatu, jantzi zaharrak erre eta barriak jantzi, eta gaurko mundu honen neurrian eta mailan jarri beharra dau, munduak eskatzen deutsan zerbitzu hori leialtasun eta egokitasunez eskeintzeko.

Ez dogu nahi, horraitio, Gobernu eta Elizaren arteko sasiezkontzarik, ez jauntxo eta aberatsen besorik, ez alderdi politiko eta ekonomikoakaz maitekeriarik.

Guztiok herriaren onaren bila, baina bakotxa askatasun osoz, bere esparru eta bideetatik, bakotxak bere nortasuna eta berezitasuna zainduz.

Honek ez dau esan nahi etsai izan behar dabenik. Etsaikeria berez da ustela. Ondoren txarrak ditu beti ere.

Hortik Elizak, mundua etsaitzat hartu barik, Jainkoak munduko hegaletan jarririk itzi dituan urrats, seinale eta ezaugarriak aurkitzen ahalegindu behar dau, gaur egun, Jaungoikoaren dei, gurari eta erabagiak seinale horreetan idatzita dagoz eta.

Jauna deadarka doa gizakien aurretik, ilunak argituz, okerrak zuzenduz, bide zidorrak zabalduz. Seinale horreetan dagoz dizdizka Jaunaren asmo eta egitamuak. Ebanjelioa, munduaz batera, biraka, martxan doa.

Baina, Elizak oraindik ere mundu hori menpe eukitea nahi badau, bere besartetik iges egin deutsalako hasarre bada, ustelduta dagoala eta madarikatzen badau, ez alkarrizketarik ez aitumenik nahi ez badau, seme galduari lez begiratzen badeutso, horma izugarri bat jasoko dau bitarteko eta ateak giltzez itxita geldituko dira. Hor ez da egongo aitzeko modurik.

TRABAK KENDU

"Zoaze eta egin ikasleak herrialde guztietatik".

Hona hemen Jesusek bere Elizari emondako agindua. Elizak Jesusen Barri Ona iragarri eta zabaldu behar dau munduan zehar. Ebanjelizatze hau da Elizak daukan egitekorik nagusiena.

Bere izate eta etorkizuna ditu hor jokoan. Jesusen asmoetan Eliza ebanjelizatzeko jarria da.

Beti hartu dau ardura handiz Elizak Barri Onaren zabalkunde hau. Eten bako bideetatik, eginahalak egin ditu beti, munduko bazter guztietara eroatearren. Ez dau inoz arnasarik galdu honetan.

Gure Euskalerri hau ere aurrelari ibili da beti ebanjelio lanetan. Zenbatuezin beste misiolari emon ditu gure herriak. Lurbira osoan entzun da heuren abotsa, euskera gozoaren doinuz ederturikoa.

Baina, gaur eta hemen, premiatasunaren deadarrak entzun dira Elizan. Arrisku handian sartu da ebanjelizatze hori, munduak uko egin bai deutso Jesus eta Haren Barri Onari.

Federik eza jaubetu da gaurko gizakiakin eta, honen ondorioz, erlijio iturriak agortzean dagoz. Sorbaldak emonda dago Jainkoari eta Elizari. Ez dau ezer jakin nahi horretaz. Borroak hartuta dago, hasarre balitz lez Elizarekin.

Eta honek larritasun bat sortu dau Eliza eta kristau arduratuen artean. Zerbait gogogabeturik ikusten da jendea, mendi tontorra gainditu ezin izan dauan mendigoizalea lez.

Giro baldarra eta nahastua da gizartean sortu dana. Urte gitxiren buruan, zehatz aldatu jaku mundu hau. Helburuak, ohiturak, jolasak, zaletasunak, balioak, portaerak, gustoak, herri bizitza, etxe bizitza, hezikuntza, kultura eta abar, dana atzekoz aurrera jarrita dakusgu.

Eta aldakuntza honek sakon-sakonetik ikutu eta eragin deutso kristau fede eta bizitzari.

Gure Gotzainen Pastoral Idazkiak -1994- dinoan lez "asko dira beren bizitza Jainkorik gabe bizi dutenak. Ez dau ematen Jainkoaren beharrik daukatenik beren izateari zentidua emateko. Indiferentziak eta erlijioarekiko maitasunik ezak koloratzen du gaur nagusi dan kultura, eta berdin pertsona askoren pentsakera, usteak, portaera eta bizimoldea ere".

Baina ez dago atzera egiterik. Bihotzak arnasaz bete eta aurrera jo behar dogu. Premiatasun hotsa dakar Jesusen hitzak: "Zoaze mundu guztira eta iragarri Barri Ona gizaki guztiei".

Herrialde askotan ezbaian dago kristautasunaren etorkizuna. Hiltamuan. Horregaitik, ahaleginak ahalegin egin behar ditugu mundua barriro Jesusen Espirituaz arnasteko. Barriro Jesuseganatzeko.

Baina, ebanjelizatze jatorra egiteko, lehenengo eta behin horretarako eragozpen diran traba guztiak garaitu behar ditugu. Ezinbeste traba eta mota guztirikoak dagoz egon ere. Eta traba horreek baztertzen ez ditugun bitartean, ezin izango dogu ebanjelizatze onik egin.

Lehenengo eta behin, Eliza eta munduak alkar baketu

beharra dauke, bata eta bestea alkarrengandik urrundurik bai dagoz. Aspaldion, alkarren arteko harremanak nahiko ahuldurik ikusten ditugu. Bakotxa bere bidetik banazean doala dirudi.

Beraz, Eliza eta munduaren arteko alkarrizketa eta aitumen hori hil edo bizikoa da. Aitumen batera heltzen ez diran bitartean, egunetik egunera, alkarrengandik urrinago aurkituko dira eta orduan ebanjelizatze hori ames hutsean galduko da.

Kontzilioan argi gelditu zan Eliza eta munduaren arteko ezkontza hau, alkartasun behar-beharrezko hau. Eliza gizakiaren zerbitzurako dan ezkero, biak ondo aitzera beharturik dagoz.

Halan da guztiz ere, kexu astunak ekarten dira gaur gizatalde handi baten aldetik Elizaren portaeraren kontra. Elizak agintzeko dituan era eta moldeak dagoz hemen, batez ere, auzitan.

Artzain onaren zereginetan jardun beharrean, gizakiaren epaikari zorrotz eginik ikusten dabe askok. Errege tankera eta ohikuntzak hartu dituala eredugarri herriaz tratatzean. Herriaganako urruntasuna eta isila jarri dituala bitarteko.

Betiko umaro baten balego lez, abotsik emon gabe, eritzirik eskatu gabe, ezetan tarteko egin gabe, umekiro eskutik daroala herria, ahalmen eta eskubide guztiak bereganatuz.

Jakina, kritika hau ez dabe askok onartzen. Aho beroa susmatzen dabe hor azpian.

Dana dala, eritziburu honek kristau asko urrundu ditu Elizaren ataritik. Ezer gitxi esaten deutse honakoei Elizak. Horregaitik, Elizaren esanetatik kanpo antolatzen dabe euren bizimodua eta erlijiotasuna. Aintzakotasuna galdu deutse jerarkiari.

Horregaitik neketsua egiten jako gaurko munduari Elizaren hizketa hori ulertzea. Topeka lez dabiltzaz gauza askotan.

Ez ditu gaurko gizakiak ez arrazoizkoak, ez legezkoak aurkitzen Elizak honi edota hari buruz dituan hainbat eta hainbat pentsaera eta eritxi. Hortik, ez ditu ontzat hartzen.

Beste kezka eta itaun asko dagoz argitasun eske, beste zenbait puntutan. Batez ere, ebanjelioko esaldi batzuk agertzen dira hemen auzitan, bai teologo eta bai kristau askoren irizpideetan.

Zelan aitu Jesusen esaldi batzuk?

Eta ez datoz bat Elizaz azalpenak egiteko orduan. Gauzak Elizak bere mugarrirantz narrazten ditualakoan dagoz.

Ulergatxak dira izan ere. Modu askotara aitu daitekezanak, horretarako oina emoten bai dabe. Ez dakigu ziur Jesusek zer adierazi nahi izan eban esaldiok agoan erabiltean.

Zer zan Jesusek argi eta garbi esan nahi ebana? Zein bere asmoburua, zein bere esanahi berezia?

Esaterako: "Zu Pedro zara, eta harri honen gainean jasoko dot nire Eliza. Zuri emongo deutsudaz Zeru-erreinuko giltzak; zuk lurrean lotu dagizuna, zeruetan ere lotua izango da, eta lurrean askatu dagizuna, zeruetan ere askatua izango da".

Zabalotea eta iluna da, askoren esanean, esakun honen barrua. Ez dau zehatz eta mehatz agertzen Jesusen asmo osoa. Zer esan nahi eban honegaz?

Dana dala, esaldi hau hitzez hitz hartuta, Elizari mugabako erregetza bat, hau da, munduko epaikuntza

bakarra damotsola esatea, gehiegi esatea dala eta dagoz asko.

Inoz holako zerbait egin daualako, salakuntza batzuk jausi dira behin edo behin Elizaren gainera. Eta salatzaileen artean kristau on asko, teologo, apaiz eta gainetikoak dagoz.

Pedro deunak berak dagisku, bere epistolan, esaldi honen azalpena, zeharka baino ez bada ere: "Zaindu egizue zuen ardurapean izateko emon jatzuen Jaungoikoaren artaldea, gogorrez zaindurik ez, samur-samur baino, Jaungoikoaren eraz, ez, gero, zuen elizen jauntxo lez, artaldearen eredu izanez baino" (1 Pe. 5,2).

Ebanjelioan oinarrizko eta puntako ez diran egia eta aginduekaz gizon eta emakumeen kontzientziak zamatzea, ebanjelioaren kontrako pekatu bat izateaz gainera, gizakiari egiten jakon irainezko zapalketa bat lez hartzen da gaur.

Eta, beraz, neurtu ezinezko kalteak dakarkioz Elizari berari, gaurko gizarte heldu eta aurreratuak holako joko lohirik ez daualako onartzen, ez parkatzen.

Gehiegikerietan sena galtzeak beti ditu ordain garestiak.

Gure eliztarrakaz ere gure hartu-emonak ondu beharrean gagoz. Jainko herriaz ditugun harremanak, alkar ikusteak eta egoteak, urriak izateaz gainera, gehien baten, hotzak, urrunekoak, eskasak izaten dira, izan ere.

Eliztarrik gehienak ezezagun ditugu, parrokia txikietan ere; eliztar askogaz ez dogu inoz hitzik egin; ez ditugu ezagutzen euren biziera, ezta bizitza barruan dituen bizikizun eta arazoak ere. Burokratiko hutsak dira gure hartu-emonak. Papelen bat edo beste, bateoren bat, edota

ezkontzaren bat bitarteko sartzen danean ikusten dogu alkar.

Ikuspuntu honeen harira ikusten gaitu jendetza handi batek. Beraz, zelan irabazi bere ederrikusia? Zelan alkar onartu eta aitu? Noizko adiskidetu? Ba ete daukagu biderik aitumen baterako? Noiz izango ete gara artalde bat, artzain bakarraren abotsa eta mezua barriro entzuteko? Ez ahal dira izango mendi tontor igon ezinak gurari honeek? Sortuko ete da herri hau zuzpertu eta onbideratuko dauan profetarik? Gaurkoz, behintzat, ilunpe baltza ikusten da hor erantzun argirik emoteko.

Agintaritza ez da egin inor zapaltzeko, zerbitzeko baino.

"Zuei zerbitzera naiatortzue, oinak garbitzera, Aitaren Barri Ona ekartera, Jainko-bizitza zelan bizi erakustera eta ez zama astunak leporatzera". Hauxe da, hainbestetan, ebanjelioan agertzen dan Jesusen autorra.

Indarrez sartzen dan egia ez da inoren aldetik onartua izango, ez da sinisgarria, iturritik bertatik lohirik datorrelako. Herriaz batera, lagun artean bilatu eta kutsutu dan egia da ona, askatasuna eta gogo ona ditualako oinarri.

Orpo horretatik dator, ziur baten, Jesusen egia ere, horregaitik da munduko argia. Hor janaritzen da kristau herria, hor gogoz argitu. Guzti hau kontutan izan beharko dogu ebanjelioa iragartean. Kristau herriak badau horraitino, teologoak "sensus fidei et boni" diñoen hori. Hau da, fede eta onaren zentzun berezia dauala kristau herriak.

Jaungoikoari begiratzeko ere, era barriak aurkitu beharko ditugu ebanjelioa oihukatzean. Antxinako Jaungoiko zigortzailearen ordez, Aita onaren irudi samu-

rra jarri beharko dogu aurrerantzean gizakien begi-bihotzetan. Ez dogu inoz galdu behar barruko poza eta irrikitasuna, gogo minez, maitasunaren eskutik, zeruko Aitarengana urreratzean, Jauna txastatuteko.

Jaungoikoak ez ditu gizonari parkatzeko, ordainez, odol eta oinazeak eskatzen, jentil-aroko gizonak uste izan eban lez. Ontasun hutsa da; maitasuna dau izena; bere atsegina gizakiekaz egotea.

Betiko lurperatu behar dogu, gure hitzaldietatik, Jaungoiko bildurgarri horren irudi itsusi eta gorrotagarri hori. Kontziliorarte, Jaungoiko garratz hori ateraten izan dogu jendearen aurrera: Jaungoikoa borreru eginik bildurra sartzeko.

Eta horregaz izugarrizko kalteak egin deutsaguz herriari. Oraindik, antza, ez dogu ebanjelioaren mamia txastatzen ikasi. Jansenista hutsak izan gara honetan.

Beste arazo latz bat autortzari buruz sortzen da. Zergaitik dira epaiketak gure autortzak eta ez parkamenak?, itauntzen dau gaur kristau herriak. Zer dala eta horrenbeste korapilo, buruhauste eta gogo zapaltze autortzaren inguruan, holakorik Jesusek sekula ez ebala egin jakinik?

Buru itxikeriaz, agintekeriaz, gizakiaren duintasuna eratsita ikusten dabe hor gaurko kristauak eta, honen hasarrera, ez dabe maite gaurko autortzaren buztarripe hori.

Parkamena, Jesusen baimenik gabe, garestiegi saltzen ei da.

Jauntxokeriaren etsai da gaurko gizartea. Errextasunak nahi ditu eskubidetik datozanean, eta ez loturak. Hesia bere neurrian

Neke honek eta ezezpen honek uxatu dau, hainbaten, kristau herria autortegitik. Hemen ere bide barriak egin beharko ditugu ebanjelioa iragartean, bestela autortzako sakramentua betiko galduta geratuko da.

Beste buruhauste mingarri bat munduko goseak dakarkigu. Goseak ia mundu guztia baltzez margotzen dau. Irudirik negargarriena pertsona bat, hazur huts bihurturik, gosez hilten ikustea da.

Bat bera gosez hiltea nahiko litzake gizakiok lotsaz gorritzeko, zenbat gehiago miloikak diranean urteburuan!

Zenbat gizon eta emakume, zahar eta gazte, lur zabalean, handiki batzuen morroitzapean betiko katigu, ezerezturik, etorkizunaren jokoa galduta, zigorraren opagai, hazur hutsean negargarri, handiki batzuek odol guztia atera deutselako!

Eta orain txarrago dana, aberatsak geroago eta urrunago dagoz pobreakandik. Pobreak, barriz, eten barik ugalduez doaz. Lur osoa betetzen dabe, alderik alde.

Soto eta txabola zikinetan bizi dira, lurrari josita, ezerezaren nahigabe gordina iruntsi ezinean. Haurrak ogi eske, eta ogirik ez haurrai emoteko!

Noizko ordaindu eta zuzenduko ete dogu herri pobreakaz dagigun injustizia izugarri hori? Dagozaneko atzerapenetik aterata, noiz jaurtiko ete ditugu jasokuntza zabal eta aberats batera?

Hori egiten ez dogun bitartean, ebanjelioaren zabalkundea porrotean egongo da.

Justizia bide horreek, zelan edo halan, aurkitu beharko ditugu behartsuei erantzun ebanjeliotarra emotea nahi badogu.

Beste sail eta arazo asko dagoz ebanjelizatze bidean, eskualdi sakon baten zain. Baina honeek, joanean-joanean, ikusiko ditugu.

ARTZAINTZA ONA EGIN

Agintea zerbitzea dala esaten dogu. Eta hau esatean, agoa eztiz betetan jaku. Zoratzeko bestekoa da, izan ere, Jesusen irakatsi hau.

Jainko baten buruak bakarrik asmau leikean honako altxor bat.

"On eginez igaro zan mundutik", dino ebanjelariak Jesusen goratzarrez. Egia da. Jesusen bizitzako une bakotxa gizaki guztiei egindako opari bardingabea izan zan. Kurutzeko oparirarte heldu zan Jesus.

Eta azken orduan, maitatzeko aginduaz batera, batak besteari oinak garbitzeko eskatu euskun: "Ikasbidea emon deutsuet, nik zuei egin deutsuedanez, egin dagizuen zuek ere. Zorionekoak izango zaree hori egiten badozue"

Oinarrizko irakatsia da. Ebanjelioaren bihotza dabil hor taupadaka. Horregaitik hartzen dabe hain benetan hainbeste gizon eta emakumek Jesusen irakatsi hau.

Ondo agintzen jakiteko, lehen eta behin zerbitzen ikasi behar dogu, bestela agintaritza jauntxokeria bihurtu geinke.

Hona hemen agintaritzak daukan bigarren arpegia, hemen bere arriskua: zerbitzeko barik, jauntxokeriarako erabili, askoren gatxari jarraituz. Agintaritza lortu daben askok, agintearen bidez, besteen menpetasuna eskuratu nahi izaten dabe.

Honen argibide bat, bizitza aldian, hainbesteko aldiz emon jakuzan aholku zahar honeetan aurkitzen dogu. Gure irakasle eta hezitzaileak nekegatxak ziran honetan: "menpetasuna gorde egiozue beti nagusiari. Esanekoak izan zaiteze"

-Nagusia Jaungoikoaren ordez dago, horregaitik bere esanak egitera beharturik gagoz. Jaungoikoaren esana eta nagusiarena bat bera dira.

-Jaungoikoa pozik euki nahi badozu, egin zuzen eta artez nagusiaren esanak. Esanak egiten badituzu, ez dozu hutsik egingo, okerra beti nagusiaren aldetik egongo da, egotekotan.

-Esanak egitean, Jaunaren ederra eta atsegintasuna zeureganatzen dituzu...

Menpetasunean eta begiramenean haziak eta heziak gara. Gure ikasletzako garaian, hauxe izaten zan ordu guztietako leloa. Zugatz hori ondo sustraitu behar zan bihotz lurrean. Eta holan, menpetasunaren atxakiz, zertxobait gizon-gurtzaile bihurtu ginduezan.

Menderik mende, esan ezinbeste bidegabekeria egin dira menpetasunaren izenean.

Erru honen damua askotan agertu dau gaurko Elizak.

Aita Santua buru dala, hots eta ondore handiko une garrantzidunetan, Jainkoaren aurrean apalik, Jesus artzain onaren oinetan minez, gizatalde askori parka eskatu beharrean ikusi dau bere burua, emondako ikasbide txarrakaitik.

Gure anaia judutarrei, Elizaren enborretik bananduta-ko kristauei eta, aginduz, isildu eraginazotako jakintsu batzuei egindako irain, kalte, destaina eta garrazkeriakaitik.

Begi onez ikusi dau munduak Elizaren damuzko bular jote hau.

Baina, oraindik, ez dau guztiz amaitu damu egintza eta parka eskatze hori. Oraindik zorrak ditu kristau herriaz; bere barrutian, zintzo eta leial, jarraitu dauan artaldeari ere apaltasunez parka eskatu beharrean aurkitzen da, zalantzarik gabe. Kanpokoekin aina zor ditu etxekoekin.

Beti ere ez dau jakin artzain ona izaten. Artzain onaren oin nekatu eta izerdituak barik, koroi eder dizdiratsuak sarriago ikusi jakoz buruan.

Jesusen ebanjelioa eta salbamena bide dirala, kristau herria eta munduko gizon eta emakume guztiak Jaungoikoarengana hurreratu eta hurbiltzea, hauxe da soil-soilik Elizaren zeregina. Salbamena irakatsi. Gainetiko guztia azala baino ez da.

Baina Elizak, artzaintzarako baizen zaletasun, aginte eta legegintzarako agertu dau. Gizaldiak zehar, ebanjelioan tokirik ez dauken hainbeste eta hainbeste agindu, lege eta zama astun jarri ditu kristauen lepo gainetan. Hainbeste lege dagoz hor agindu astunpean ezarriak.

Salakuntza honen aurrean, honelantxe mintzatzen da sarritan Aita Santu Joan Paulo II.a

-Neure izatez, atsegina eta bihozbera naz, eta ez garratza eta bihozgogorra.

Elizaren gidari eta arduradun nagusi izateak behartzen nau askotan zorrotza eta amorekaitza izatera. Kontuizu. Nahitaez, gizadiaren bizitzarako gidari eta oinarrizko diran printzipioetan, ez dago beste biderik zuzena, arteza eta amorekaitza izatea baino.

Lur labanean gagoz. Hor bigunkeriaz kili-koloka ibiltea, neure aldetik behintzat, saldukeria litzake.

-Gaurko merkatari gaiztoak, gizakiaren makaltasunaz baliatuz eta Jesusen ebanjelioari muxin eginaz, gizadiaren argi eta norabide diran printzipio nagusi horreek zapuztu eta suntsitzen dihardue, horretarako eginahalak eginez.

-Nik ezin ditut onartu eta baimendu, esaterako, izate edo naturaren kontra diran alkar hartzeak; ezin ditut onartu bizialargunen ezkontzak, bizitzaren kutsadurak, abortoak, gizonezkoen edota andrazkoen arteko sasiezkontzak, eta abar.

-Honakoetan ezin dot atzerarik egin, artaldearen otso bihurtuko nintzake eta. Oinarri eta printzipio honeek inondik suntsitu ezinak dira, giza eskubide guztien euskarri eta zutoin diralako.

Ebanjeliotik datorren ur garbia da. Edonok txaloz izenpetuko leukez hitz ederrok. Baina, salakuntza ez doa hortik. Azala mami lez saltzetik eta erdikina printzipio mailara jasotetik dator.

Sarriagotan irakurri behar genduke S. Mateoren 23. atalburua.

"Zuek ez hartu "Rabi" izenik, bat bakarra da zuen Irakaslea eta; zuek, barriz, anai-arrebak zaree guztiok. Esan ere, ez esan lurrean inori "Aita", bat bakarra da zuen Aita eta: zerukoa. Zuzendari izenik ere ez hartu, bat bakarra da zuen zuzendaria eta: Kristo. Zuen artean nagusiena, zuen zerbitzari izan daitela".

"Goratzen dana, beheratua izango da; beheratzen dana, barriz, goratua izango da".

Gaur, zorionez, normalagoak dira gure arteko harremanak. Erre dogu bedar txar hori. Baina, oraindik arriskua ez da guztiz urrundu, eta zuhur ibili beharrean gagoz bertan laban egin ez daigun.

Zorrotz sartu jatan gogora, batzar baten, herri gizon honek esandako hau: "ez dotrina eta moral gaietan, baina bai organizazio lanetan, apaizak oraindik ere jaun eta jabe izanik jarraitzen dabe. Kontziliotik hona, abegi ona egiten deutse eliztarren parte hartzeari eliz zereginetan, baina eurak nahi dabena edo eta gogoko jakena egiten dabenean bakarrik, holan zerbitzari barik, agintari jarraitzen dabela agertuz".

Antza dan lez, ez ditugu oraindik hautsak guztiz astindu.

Dana dala abadegoak, nahitaez, zelanbaiteko agintaritza bat daroa beragaz. Eliz erabagi eta zuzendaritzan aurrelari ibiltera behartzen gaitu. Hortik, kontuz ibili ezik, errez jausi geintekez agintekeria txiki baten sareetan. Beraz, ardura handiz bota behar ditugu oinak lur labanean gagoz eta' Edozer gauza geure artekoak zorrozkeriaz minberatu baino lehenago.

Egia da, bestetik, kristau herriak, herri lez, ez dauala oraindik behar dan neurria emoten Elizako mugimenduen gidaritza eta zuzendaritza bere gain hartzeko.

Artaldea, ez zurea ez nirea, Kristorena da: Abadegintzako egunean emon euskun Jesusek eskura artzain makila hori, artaldea ondo zaintzeko aginduaz.

Artzain onaren doai eta baldintzak zeintzuk ziran ere argi esan euskuzan.

Artzain onak bere ardiak maite ditu, bakotxa bere izenez ezagutzen dau, artaldearen alde bizia emoten daki.

Otsoa agertzean, ez dau igesik egiten; ardi galduaren bila doa eta, aurkitutakoan, lepo gainera bota eta pozez barriro artaldera dakar.

Artzain onak izatekotan, Kristoren bihotz berberaz maitatu behar dogu guk ere artaldea. Hotz nahiz bero, euri nahiz aterri, gabaz nahiz egunez, beti zain artaldearen ondoan. Artaldearentzako gara.

Maite dogunari zerbitzeko beti gagoz prest, ari ez deutsagu txarrik egiten, ez goitik behera begiratzen, itzala eta begiramena jarten ditugu bere gain.

"Zuek, barriz, neba-arreba zaree guztiok", esan deusku Jesusek. Hortik bardintasun bat daukagu danok Jainkoaren aurrean.

Ez dago lehenengorik ez bigarrenik. Bateo bat hartuak gara guztiok, fede bat, ebanjelio bat, salbamen bat. Kristorenak gara eta Kristo Jainkoarena.

Zereginak ditugu desbardinak Elizan. Bakotxak geure talentua hartu dogu. Eta talentu hori jokoan jarri behar dogu, Jainko Erreinuaren alde lan egiteko emona da eta. Ez da geure apaingarrirako, besteen zerbitzurako baino.

Bakoitzak bere txokotik eta bizibidetik, Jainko herri hori jasotzen agortu behar ditugu gure indarrik onenak.

Ardurakizun hau oso-osoan kristau guztion esku dago. Ahaztuta edo baztertuta lagatzea, Jesusi uko egitea lez litzake.

Hortik, abadetza bat dauka Jainko Herriak, nahiz eta altarako egitekoak abadegintzako sakramentua hartu dabenentzat geratu.

Eta eskubideak, ardurakizuna dakar ondorioz, betebeharra. Beraz, kristau guztion egitekoa da Elizaren ardura. Horregaitik esaten dogu: zu eta ni eta haragokoa Eliza garala.

Eskubide hori kentzea, ukatzea, barriz, herria zapaltzea litzake, lapurreta mingarria.

Behar bada, herria, Eliz bizitzan, betiko umaroan isil, apal eta menpeko euki dogu. Ez deutsagu kantxarik emon Elizan. Zeregin guztiak geure esku gorde ditugu, eliztarrei isilik egoten irakatsiz.

Eta horretaraxe gizaldirik gizaldi. Eta honen ondorioa, herriaren eliz garra itotea izan da.

Elizak, aldien igaroan, pastoral sailean egin dituan okerrik handienetarikoak honeexek biok izan dirala deritxat: liturjia latinez erabiltea eta herria isilean bahituta eukitea.

Horraitio badau meritua gure kristau herriak, menderik mende, hainbestetan eta hainbestetan, tutik aitzen ez eban hizkuntza baten jarritako liturjia entzutera eta egitera etorri danean. Nekez ondu leike marka hau.

Eta orain meritu handiagoa damotsat, horrez gainera, Elizari gorde izan deutsan menpetasun isil eta apalagaitik.

Eta, jakina, herria gaurko mundu honen martxa geldiezinean gorputz eta arimaz sartu danean, kultura barri horren odola edan dauanean, mundu horren ederraz liluraturik, katigu eukan kaiola zahar hori apurtu, amaren etxea itzi eta hegoak zabal-zabal eginik, mundu barri horretara iges egin deusku.

Elizak emon ez deutsana, mundu horretan aurkitu dau antza.

Ez dago urrunera joan beharrik, abade eta laikoen arteko zerikusietan, alderik onena abadearena izaten zala jakiteko. Abadea nagusi lez agertzen zan, laikoa menpeko; abadea irakasle, laikoa ikasle; hartu-emon guztietan agertzen zan abadearen aldeko onura hori.

Nabarmenkeria hau ez zan Elizan abadearen erruz sartutakoa; ez zan berak jarritako joko araua. Ez. Teologiaren erraietatik etorren horren haria. Teologian

aurkitu behar dogu iturri hori. Teologiak elizgizona eliz lanetan Kristoren ordezko lez ikusten eban; Kristoren aulkian jarrita eukan eta gain horretatik, ikuspegi horretatik begiratzen ziran abade eta herritarren arteko hartu-emon horreek. Kristo buru eta eliztarrak haren soin-atal; elizgizona Kristoren ordezko eta eliztarrak haren artalde. Horrek markatzen eban aldea.

Gaur pentsakera hori guztiz baztertuta geratu da Elizan. Kontzilioaren ostean, beste gain batetik ikusten dira gauza honeek.

Gaur bateotik neurtzen dogu kristaua. Bateoa da gizakiari gorengotasuna, duintasuna damotson giltzarria. Bateoan hartzen dogun Jaungoikozko seme-alabatasunak, doai izugarri horrek bardintzen gaitu guztiok.

Harrezkeroztik, ez dago ez lehenengorik ez bigarrenik, ez jaunik ez morroirik, ez hemengorik ez hangorik, ez baltzik ez zuririk, ez gizonezkorik ez andrazkorik... "Jaun bakar bat da zuena eta zuek guztiok neba-arrebak zare" esaten eban Jesusek.

Jainko seme-alabatasun horrek maila eta leinu guztien gainetik jarten gaitu. Zer da, ba, beraz kristau lez, bata besteagandik bereizten gaituana? -Zereginak ditugu desbardinak Elizan. Doaiak ditugu desbardinak.

Bakoitzak geureak ditugu. Inok besteak baino hobeak, goragokoak, aberatsagoak, baliotsuagoak hartzen ditu. Jaungoikoak zelan emon, guk halantxe hartu. Baina, ez dira geure ederrerako. Bakotxak hartu dogun guztia, Elizaren irabazirako, onerako, zerbitzurako ipinteko aginduaz emon jaku.

Eliztarrek ere doai horreek ugari eta aberats hartzen ditue. Askok ezinbestekoak. Baina doai horrek loretu eta frutua emoteko lur ona behar dabe, zabaldi egokia, bestela agortu egiten dira lur onik ezean.

Eta lur hori, zabaldi hori, eratasun horreek, eskubide horreek, txarto aitu bategaitik, ukatuak izan jakoz Elizan laikoari. Ez dau ederrespenik izan bakotxaren tartekotasunak. Ez jako eskurik emon eliz arazoetan.

Ives Congar-en hitzak jatorkidaz hemen gogora. Minez inoan Congarrek: "Ez dogu ikasi laikoen laguntza baliotsua bide honetik eroaten. Lotsagarri erabili dogu eliztarra. Ze eskubide emon deutsagu Elizan? Igandetan abadeari entzun eta diru batzaileak azpil edo erratilua aurrean ipintean, kata narrua atara eta txanpon batzuk erratiluan itzi. Hortik gora, ezer gitxi".

Pentsakera honetan jarraitzen dabe, gaur ere, hainbat eta hainbat elizgizonek. Lehenari josita, buruak aldatu ezinik dabiltzaz. Bildur handiak ditue laikoari ateak irikitzean. Arriskua ikusten dabe edonon. Eliza hondamendi batera eroango ete dabenaren bildurrez dagoz antza.

Abadea, gaur ere, eliz legeen zaintzaile lez ikusten dau Eliz Legadi Nagusiak. Legeak guztion aldetik dira onargarriak. Legekeria, agintekeria da onartzen ez dana, ezetsiten dana. Aitakeria gitxiago eta anaitasun gehiago.

Hori baino zeregin hoberik badau elizgizonak eliz lanetan. Fede bizi eta sutsu baten jabe izan, eliztarren fede garra zuzpertu, bizkortu, herria alkartasunean bateratu, guztien zerbitzari izan.

Agintari gabe, zerbitzari. Zerbitzariaren irudian ikusi nahi dau herriak gaurko abadea. Zorionez, gaur gauzak hobera etorrita dagoz.

Gaur egun, artekotasun barri bat sortu da abade eta laikoen artean. Hurrago, ezagunago, bardinago ikusten dabe alkar.

Parrokia lanetan eta eliz ardurakizunetan eliztarra

laguntzaile eta morroi izatetik lagunkide eta egile izatera heldu da. Hurkoago sentitzen dira gaur.

Elizgizonak heurak izan dira honetan aurreratu diranak. Okerrak zuzendu dituenak. Laikoari ateak zabaltzeaz gainera, lagun eta partaide lez ikusi nahi dabe parrokiako pastoralgintzan. Euren tokian jarri nahi ditue, ezer kendu barik, eurena dan guztia emonaz.

Gainera, pastoralgintzako alor guztietan sartuta euki nahi ditue: haurtxoen katekesian, gazteen fede hezikuntzan.

Nok jakituria eta zentzun handiagoz gertau gure gazteak ezkontzako sakramentua hartzeko ezkonduak eurak baino? Non maisu hoberik sendia kristautzeko gurasoak eurak baino?

Sakramentuen muinetan gorderik dagozan aberastasunak ondoragotik ezagutzen emoteko, liturjigintzan parte bizi eta ugariagoa hartzeko; parrokiako diru eta ondasunen ardura eroateko, parrokiako konseilu, talde eta harreman guztietan lagun eta partaide euki nahi ditue laikoak.

Lau ezaugarri edo bereizgarritasun izendatuko nendukez gaurko Elizaren inguruan: Eliztarren artean sortu dan taldekidetasuna, danen ardurazko lankidetza, laikoaren jasokuntza edo goratasuna eta munduaganako zabalkunde eta betebeharrak.

Nekez eta pausuka, baina, hortik doa bidea; ez da, egiaz, bide erraza. Laiko asko dagoz eliz bizitzan parterik hartu nahi ez dabenak; ez dagoz horretara ohituraturik. Dana eginda emotea nahiago dabe.

Gaur eta hemen, ez dago ugaritasun gehiegirik parro-

kia lanetarako. Edo gogo eza dala, edo gertakizunik eza, edo astirik eza, edo zeresanaren bildurra, edo zerbitzeak daroan nekeari erantzuteko adorerik eza, dana dala, gehientsuenak igesbideren bat beti aurkitzen dabe euren buruak parrokiako lanetatik askatuta ikusteko.

Holan, parrokiako lan eta arazoak beti gitxi batzuen esku geratzen dira.

Askorentzat Eliza oraindino abadeen zeregina da.

Abade eta laikoa biak dira Kristoren jarraitzale. Horregaitik, batak eta besteak, Kristoren antz-irudiko izanik, euren egitekorik behinena lez Kristoren artaldea, herria, Eliza jasotzea izan behar dabe.

Eliztarrak, gaur, abadea gizonen artean gizon ikusi nahi dabe, gizatasun handiko gizona izan daitela, hau da, toleskorra, buruz ondo jantzia, oinak lurrean dituana, berbarako zabala, bihotz biguna, aurrera begiratzen dakiana, eliztarrekin egotea poz jakona, bakarrean barik eliztarren aholku, eritxi, esan eta laguntzaz parrokia eroaten dakiana.

Ez da abaderik onena dana berak bakarrik egiten dauana, eliztarrekin batera lanean dakiana baino.

Ebanjelioaren ereintza eta zabalkuntza bere bizitzako arnasa lez egin dituan abadeak bere eliztarren bihotzak beti zabalik aurkituko ditu laguntzarik beroena emoteko.

Ostera, abade eta eliztarren arteko hartu-emonak urriak, ergelak, ganorabakoak badira, anaitasun bizi eta benetakorik ez badago, horrek parrokiako martxari oker handiak dakarkioz.

Ez dago zetan bereiztasunik egin abade eta eliztarren artean, bitzuek helburu eta zeregin berbera dabelako: Elizaren zerbitzua.

Bakoitzak geure doaiak hartu ditugu, anaitasunean eta

alkartasunean, nor zein dan begiratu barik, Elizaren onerako erabili daiguzan. Gainetiko guztia orbela da.

Aldakuntza eta desbardintasun handiak ikusten ditugu lehendik ona parrokietako hartu-emonetan.

Batez beste, agirikoenak honako batzuk izan daitekez: abade eta eliztarren arteko harremanak hurkoagoak, beroagoak, zintzoagoak, zabalagoak dira.

Gure berbeta eta ibilerak bardinagoak; ardura bizibizi bat ikusten da abadegoan laikoari eliz ateak zabalzabal egin eta elizako arazo eta zereginetan partaidetza eta aitzindaritza urtenago bat emoteko guraritan.

Baina, bestalde, artaldeko zati handi bat motel samar dabil Elizarekin.

Gure aldamenera begiratzea nahiko da , gure arreta eta begiramen ezagaitik edo, kristau herria minduta lez ikusten dala susmatzeko. Uste dot arantza bat daroala barruan Elizak horrela erabili daualako. Muker samar dabil jendea.

Oso gatxa izango dala deritxat Kristoren artaldea barriro etxeko harresian pilatzea. Asko ikusten ditut Elizatik urrundurik; beraganako maitasuna hilik edo hilzorian daroenak. Amaren etxea zapaldu ez nahirik dagozanak.

Elizaren agintaritza hori da ezin onartu dabena. Ez jakez begiko Elizak aginteko dituan erak, moduak. Horregaitik aldendu dira Elizatik.

Baina, arrazoiak arrazoi, kristau onari ez doakio Elizatik iges egitea. Nahitaez, Elizari loturik jarraitu behar dau, hori dalako Jesusen nahia.

Jesusek "artzain" izenez bateatu zituan Elizako buruak. Honela esango deutso Pedro, lehenengo Aita Santuari: "Zaindu nire artaldea; zaindu nire ardiak"

Eta Pedrok artzaintza hori, apaltasunean eta txirotasunean egin eban, Erromako baztertxo baten pobre eta umil biziaz.

Honez gainera, Pedrok Jesus beragandik ikasi eban artzaintza hori zelan egin: "Herrien erregeak herrien jabe lez agertzen dira. Baina, zuen artean ez bedi horrela izan, bestetara baino. Zuetariko handiena txikiena lez egin bedi, eta nagusiena morroi lez"

Eta gero, Jesusek apostoluei oinak garbitzen deutsez, esanez: "Hara nik zer egin dodan: zuen Maisu honek oinak garbitu deutsuedaz. Ba, zuok ere horixe egiozue: alkarri oinak garbitu".

Elizan beti ezagutu dogu Kristok berak jarritako artzaintza edo agintaritza bat. Ez dago hau ukatzerik. Gainera, agintaritza hori gabe ez litzake Elizarik egongo, buru bako gorputzik ez dago eta.

Orain agintaritza hori gizonen esku dagoan lez, baliteke nozbaiten zuzengabea, okerra, akasduna izatea. Artzaintza egiteko modu hori ebanjeliotik urrun gelditzea.

Eta hortik sortzen da, inozkoetan, kristauen urduritasuna agintaritza horren aurrean. Agintaritza bera baino, agintaritza egiteko modu hori dago zalantzan, kexuan.

Holako agintaritza oker edo bidegabeko baten aurrean zer egin?

-Inoz ikusten badogu, argi-argitan, egiten dan agintaritza bat ez dala ebanjeliotarra, orduan salatu beharrean egongo gara, horretarako erabiderik onenak aurkituaz, arpegiz arpegi jokatuz, baina beti apaltasunez, pertsonarentzat itzal eta begiramenik handienaz.

Eta, inoz ere ez, hasarrez edo gorrotoz, Elizari deutsagun maitasunaz baino; Eliza hobetuta ikustearren.

Baina, gauza bat ez dogu inoz egin behar: Eliza horrekin ditugun lotura eta hartu-emonak apurtu. Hori inoz ere ez, hori egitean, zelanbaiten, Elizatik kanpo gelditzen gara eta.

Gaurlako gauzak, eta txarragoak ere, askotan jazo izan dira Elizan. Eta Eliza okertu hori zuzendu eta ondu dabenak neke asko eta handiak, borroka eta persekuzino biziak hartu dituela dakigu, baina gizon-emakume eta santu horreek ez dabe Eliza itzi, Elizatik igesik egin.

Kurutzearen azpian minez, baina Eliza maitatuz jarraitu eben.

Horretaraxe onbideratu dabe Eliza. Horra hor zabalik gure bidea ere. Kristok irakatsitako bidea da. Ez dago besterik.

KONTZILIOA ETA BERE ILUNAK

Aita Santu Joan XXIII.ak, Erroman, Eliz Batzar Nagusi bat - Kontzilioa- egingo zala iragarri ebanean, kristau herri osoa poz-algaraz zutundu zan.

Kontzilio bat! Baina, zertarako?

Eta kristau fedea sendotu, ohiturak barriztatu, Elizan eta munduan batasuna eta bakea deiadar egin, eta eliz bizitza oraingo aldien eratara gaurkotu eta egokitzeko.

Helburu honeek ebiltzazan, beste askoren artean, kezkati Aita Santu zaharraren buruan, kontzilioa batzea erabagi ebanean.

Larogei urte zituan Aita Santuak. Zaharra zan. Bere adina kontutan izanik, ezer gitxi egingo ebanaren ustea egoan.

Aldaketa egiteko aukeratua izan zala esaten zan. Baina ez eben tutik asmau.

Bere begirakun argiak, bere iribarre zerutarrak, apaltasunak, berbetak barruan eroian itsasoa lakoxe gizatasun zabalak, berehalaxe beraganatu eban munduaren bihotza.

Mundua maiteminduta geratu zan aguretxo harekin. Bidean aurkitzen zituen guztiekin berbetan gelditzen zan, esanez: ez niri bildurrik izan, ni zeuek lakoxea naz.

Bere aurreko Aita Santuek, antxina-antxinako ohitura zaharrari jarraituz, errege-aulki baten jesarrita egiten eben euren jendaurreko sarrera.

Joan XXIII.ak, kontzilioa hasi zan egunean, Vaticanoko ateetan baztertuta itzi eban, behin betiko, aulki harro, pirpin hori, ha ez zala Aita Santu batek erabilteko tresna esanda.

Jesus ez zala sekula holako aulki baten jesarri. Gehien baten, astotxo baten gainean, eta hori ere behin baten bakarrik.

Handik lasterrera, mundu erdia harrituta itziko eban Erromako "Regina Coeli" bahitegira, hango presoak ikustera joan zanean.

Elizaren aro barri bat hasi eban Joan XXIII.ak. Itxaropenezko egunsenti barri bat.

Kontzilioaren hasierako eguna benetan gogoangarria gertatu zan.

Ikustekoa zan, egun haretan, Erromako uria, batez ere, Vaticanoko inguruak.

Herri eta hizkuntza guztietako jentetzak etorri ziran Erromara. 2. 500 gotzain, mundu guztikoak, buruan mitra zuriak zituela aldarerantz erreskadetan, Aita Santua erdian zala...

Lau ordu t' erdikoa izan zan hasierako elizkizuna.

-"Ez dogu kontzilioa inor kondenatzeko zabaldu; zigorra baino errukia nahiago dogu erabili"- esan eban Aita Santuak bere hitzaldian.

Kontzilio hori gertau egin behar zan eta horretarako 15 Batzorde edo komizio eratu ziran. Elizako zerrendan, gorengo mailetan ebiltzazan gizon argi eta urtenak, bai gotzain, bai teologo eta aholkularik osotzen eben Batzorde hori.

Eta gizon argi honeen lehengo helburua Kontzilioa Vaticano I.aren haritik, azatzetik eroatea izan zan, haren

jarraipena lez. Asmo horren inguruan gertau zituen txosten eta aurrelan guztiak. 70 txosten guztira.

Baina, ustegabeko gertakizun bat jazo zan lan eta txosten honeek Batzar Nagusira aurkeztuak izan ziranean: Batzarrak ez zituala onartu.

Okerreko bidetik joiazan. Ez etozan bat Joan XXIII.aren asmo eta gurariakaz. Aurrera begira barik, atzera begira eginda egozan lan hareek. Guztiz atzerakoiak. Eta Kontzilioa, hain zuzen ere, horretara etorren: Eliza aurrera begira jartera.

Kontzilioa ez zan izango egiak markatzeko, dogmak seilatzeko. Eliza aldatu, barritu eta mundu erdian danen jakinean eta ikusian jarteko baino.

Eliza barrutik eta kanpotik garbitu eta barriztatu. Salbamen misterioa dan lez, bere izatea sakonagotik barrendu eta azterkatu; hainbesteko bide luzean batutako hautsak eta lohiak astindu; gaurkotu bere erakunde eta jokabide zaharrak; gaztetasuna emon, aldakuntza burutsu eta barriak eginez; oinarri barriak jarri teologiari, liturgiari, pastoralgintzari, ebanjelizatzeari...

Mundura begira jarri, ate eta leiho guztiak zabaldu, gizakiari bere etxean egoala iragarriaz; alkarrizketa anaikor eta gozo baten bizi munduaz; gizakiaren zerbitzuan jarri bete-betean...

Hemetik joian Elizako Gurasoen asmo eta pentsakizuna. Bide hori hartu behar zan.

Eta hementxe sortu ziran lehenengo oztopoak. Ageriagerian pentsakera desbardin bi ikusten ziran Kontzilioari buruz. Atzerakoia bata eta aurrerakoia bestea, honela berba egiteak balio badau.

Eta hasieran bertan, Kontzilioa Babel torre baten galdu ez zedin, Aita Santuak berak arindu eta zuzendu

eutsazan bideak. Batzorde guztiak aldatu eta barritu zituan, jende barria sartuaz. Kontzilioko lanak eta egitamuak onez eta jakituriaz eroateko, hango Gurasoekin batera, aholkulari modura, garai haretan punterengo ziran teologo jakitun eta urtenak sartu zituan bateko eta besteko batzordeetan.

Honetara arnasa barria; indar barria emon eutsan Kontzilioari. Gizon honeen pentsaera eta irakatsiak izango ziran Kontzilioaren ardatz eta gidari; Kontzilioko lana moldatuko ebenak. Teologo honeen laguntzaz eta Gurasoen eraginez heldu zan azken onera Kontzilioa.

Kontzilioa amaitu zan goiz haretan, Jesusen antz-irudiz jantzita, gazte-gazte, eder eta maitagarri agertu zan Eliza, Jesusen eskutik, munduaren aurrera.

Hau bai zala ebanjeliotik jaiotako Eliza! Hau bai Jesusen asmoen arabera egina!

Liluragarria zan Kontziliotik urtendako Dokumentu bakotxa! Liluragarria Elizako Guraso eta teologoak eginiko lana! Liluragarria Eliza barri honen edertasuna!

Joan, Aita Santuak, esku dardaraz ereindako hazi txikiak, frutu eder hau emon dau!

Baina, gizakion hartu-emonetan jazoten dan lez, ez eben danak onez hartu Kontzilioaren jaiotza hau.

Joan XXIII.ak ustekabean harrapatu eban Eliza osoa Kontzilioa batzeko asmoa agertu ebanean. Aita Santuak bakarrean amestu eban kontzilio hori.

Horregaitik, bere inguruan ebiltzan eliz talde batzuek barri hori muker samar hartu eben lehenengotatik. Ez eben onez hartu. Ez eben nabaritzen horren beharrizanik ere.

Honeetariko taldeen artean, kristau fedea, oker eta ilun guztitik, garbi zaintzeko sortua izan zan erakundea,

hau da, "Ofizio Santua" eritxona egoan, bere lehenengo buruetan behintzat.

Ofizio Santu hau araubide gogorrean oinarritutako epaitegi zorrotza da, entzuteak dinoan lez.

Erakunde horrek, izenez aldatuta, oraindik zutik jarraitzen dau. Gaur Fede Dotrinarako Batzordea lez ezagutzen dogu. Eta dinoen lez, honek ere ez ditu haren jokabide eta ohiturak galdu.

Kristau askok erakunde hau beharrezko lez ikusten dabe; beste askok Eliz kalte; inok higuingarri, bere jokabide eta egintzetan.

Gaur berton, ezbaian dagoz bere egikera eta erabagi asko. Ez dau, behintzat, atxikitasun handirik sortzen teologo eta jakitun batzuen artean.

Erakunde hau fedea eta fede inguruak garbi eta zindo zaintzeko sortua izan zan ezkero, bere egiteko nagusia Elizaren egintza eta irakaskuntzari aurrerabideak aurkitzean eta zabaltzean jarriko genduke.

Hain zuzen ere Kontzilioak emoniko aholku, esan, onu, itun, agiri, paper eta argibide guztiak egintza bidean jarri kristau fedearen ezaupide eta aurrerakuntzarako.

Honetan muker edo nagi jokatzea Kontzilioari irusako egitea lez litzakela usteko genduke.

Jakintzan arranoak diran teologorik sonatu eta argienak lan horretan jarri, Eliza eta munduaren arteko alkar bilera eta aitumen hori onurakor, baketsu eta pozgarri izan dedin. Txalogarria eta bete-betekoa litzake lanketa hori. Gaur eta beti, beharrezko dana.

Teologiaren barren-barrenera jatsi, barrunbe guztiak arakatu, ondo guztiak jakintzaz goraino bete, Eliza gaurko jantziz apaindu eta dotore-dotore, bide barrietatik, munduaren aurrera atera. Teologia sakondu, barritu, gaurkotu...

Sarritan esaten eban Joan XXIII.ak: "Kontuan izan Eliza ez dala museo bat, gaurko gizonari ebanjelioa iragarteko jarria baino".

Bestetik, kontzilioa amaitu eta gero, bere frutua eroanez, munduan zehar, parrokiarik parrokia, hegalari ibilten hasi zanean, gauzak ez ziran patxada handiz egin.

Kontzilioak bideratutako irakatsi eta ibilbideak ondo aztertu eta hausnartu barik, presaka eta itxumustuan gauzatzen, hau da, eliz bizitzara eroaten hasi ziranean, erdiak eta bost txarto egin ziran.

Bakoitza, jauntxo eta maisu eginik, gauzak bere burutera egiten hasi zan; dana hankaz gora botatzen.

Idekitze honen haizetara, sena galduta ebilan jendea.

Eta hortik, urduritasun bat sortu zan hainbat alderditan. Zelan edo halan, bazterrak jo baino lehen, martxa horri galgea jarri behar jakon; geldierazo.

Gaurko Aita Santua dabil, bere aholkulari eta lankideekin, lan horretan; ertzak mugatzen teologia barriari. Kontzilioak zabaldutako itxaropen eta aberastasunetatik ehuneko hogeia bakarrik jarri ei da martxan. "Ulertzaile onari hitz gitxi" esan beharko hemen.

Baina, ez zan horraitio, dana ustela izan. Nahaspil honek erabat mesede handiak ekarri zituan; bide eta ikusmira barriak zabaldu eutsazan, ba, Elizari.

Hainbat frutu eder batu ditugu kontzilio zugatz horretatik. Eta oraindik batuko ditugunak, maisutasunez plazaratzea lortzen badogu.

Elizak, bere mezuaren ondoa galdu gabe, kultura barriok bereganatu egin behar ditu. Ez deuko beste biderik gaurko mundu hau ebanjelizatzea nahi izatekotan. Atzeraka ibiliaz ez da ezer aurreratzen.

Ateetan daukagun gizaldi barria inok ez daki zelakoa izango dan, baina ziur gagoz ez dala izango hilzorian daukagun honen antzekoa.

Horregaitik txarrik handiena, datorrenari bildur izatea litzakigu. Atzean gelditzea.

Gelditzea baino hobe dogu gauza batzuetan huts egitea, eta gizakiarekin batera bidean jaustea, bestela muga batetik bestera salto egiteko orduan, bitarte zabalegia aurkituko genduke eta.

Hau dala eta, begiak zabalik eta belarriak zuhur eroan behar ditugu aldien ezaugarriak bildu eta susmatzeko.

Honek ez dau esan gura munduan jazoten dan guztia Jainko nahiaren ezaugarri danik, ezta gitxiagorik ere; horregaitik gauza honeek bereizten ikasi behar dogu.

Gauza bat dago hemen argi: kontzilioa ez zala izan nasaikeriari eta arlotekeriari zabaldutako ate bat.

Fede bizitza garbitu, aberastu eta sendotzeko egin zan.

Elizak mundurantz daroan idekitze hau, ideketze mixiolari eta salbatzailea da.

Munduari maitasunez begiratu behar deutsagu bere goibehe eta inguruak argi ikusteko.

Gizakiak bere kontzientziari entzun behar deutso eta honek dirautsana egin. Kontzientzia da gure epaikaria. Ona eta txarra bertan agertzen dira idatzita.

Kontzientzia da, baita ere, gure eginen araubidea. Hortik, zer dan ona eta zer dan txarra bereizten ikasi behar dogu.

Egia eta ona dira kontzientzia onaren irakasle eta gidari. Beraz, beti ere, egia eta onaren bila, ahalegin handiz arduratu behar gara, gauzak kontzientzia zuzen eta argiz egiteko.

Ebanjelioan eta Jesusen eginetan daukagu horretarako eskolarik onena. Han janaritu behar dogu gure gogoa. Horregaitik, oso mesedegarri da ebanjelioa eta Jesusen egintzak ondo ezagutzea.

Izparringia egunero irakurten dogun lez, ebanjelioa ere, era berean, egunero esku artean erabili behar genduke.

Honez gainera, arazo bati buruz, egia eta ona non dagozan ez badakigu, dakiarengana jo behar dogu, beti kontzientzia artez eta jatorrez jokatzeko. Ilunak eta kezkak argitu, gizon burutsuari dagokion lez.

Eta ez inoz ezer egin asmo txarrez.

Askatasunez eta sinistez egin behar ditugu gauzak; fedea ere sinistez da, bihotzez, eta ez indarrez eta bortxakeriaz. Sinisteak dira bizitza gidaritzen dabenak.

Hortik, siniste onez janaritu eta jantzi behar dogu kontzientzia.

Orduan emongo dogu giza neurri oparoa. Orduan jakingo dogu kontzilioa zelan aitu eta zelan bizi. Zelan egin bizitzako ogi.

Kontziliora itzuliaz, gaur, salaketa gogorrak egiten dira haren gertaketa zelan egin zan azterkatzean. Gauza larri asko esaten deuskue bertan ibilitako gizonak. Eta ez dira susterbakoak gizon horreek.

Hor dago, esaterako, Bernard Haring, moralista jakintsua, Elizak gaur daukan gizonik argi eta Jainkozaleenetarikoa, Elizaren bideak hausteagaitik hainbeste jasandakoa eta Elizak hainbestetan doakabetua. Honela dino, minez, Haring-ek:

-Ofizio Santuan sartuta egozan gizon batzuk, barruz, zeken eta txatxar ikusten nintuen. Kontziliorako txosten eta eskemak diskutitzean ageri zan hareen zikoizkeria.

Pentsabide hareek mingarriak ziran niretzat.

Esaterako, bateatu barik hilten diran haurrai buruz honako hau esaten zan txosteneko lerro baten: Bateatu barik hilten diran umeak ez zirala salbatzen, erdainketa -zirkuntzisioa- hartutako juduen haurrak izan ezik.

Orduan, murrikaturik, aho garratzez, itandu neban: -Eta zer jazoten da erdainkatu gabe hilten diran judutar neskatxakin?

-Zantarkeria da zuk esan dozun hori-, esan eustan mahaiburu egiten ebanak.

Neure indar guztiak agortu nintuan pentsakera hori gelditzeko ahaleginetan. Eta, jarraitu neban: -Ez ahal daukazue ezer hoberik munduari eskeintzeko?

-Alde batetik Jaungoikoak gizaki guztiak salbatzea nahi dauala dinozue eta, jarraian, mundu erdia salbamen horretatik kanpo izten dozue, eurentzat hori iritsiezina egiten dozue eta.

Hor, gitxienez, arrazoibideak atzekoz aurrera jarrita dagoz.

Hau esatean, Ottaviani kardinalak, batzarreko buru zanak, hasarre bizian, batzarraren aurrean zemaitu ninduan: -Holan jarraitzen badozu, batzarreko hitza kenduko deutsut.

Egun hareetan, jarraitzen dau Haring-ek, holako ezbehar mingarri batek lurra jota itzi ninduan. Nire arreba batek seme bikoitzak izan zituan, baina bata hilik jaio zan. Eta hemen kontuak!

Herriko parroko jaunak aurra bateatu barik hil zala eta, ez eutsan ezegaitik kristau sepulturarik emon nahi haurtxo errukarriari.

Neure atsekabean, hiru proposamen honeek txostenean sartzeko eskari mindua egin neban batzarraren aurrean:

-Jaungoikoak, egiz eta benetan, gizaki guztien salbamena nahi dau.

-Gizaki guztiekaitik hil zan Kristo, beraz guztien Erosle da.

-Pekatua ugaria izan bazan, ugariagoa salbamena.

Azken baten, txosten hori ez zan kontziliora joan; baztertuta geratu zan, zorionez.

Kontziliora eroateko gertau ziran 70 txostenetatik liturgiazkoak bakarrik betetan ninduan, dino Haring-ek.

Kontzilioa gertau eben gizonetatik asko teologia zaharrekoak ziran; ez eben ezeri ikutzerik nahi; euren era eta gustora egin ebezan gauzak, ertz guztiak ondo lotu ostean.

Baina, etsimen izugarria eroan eben lanak Batzar Nagusira aurkezteko orduan.

Leger, Montreal-go kardinalak, txostenak ikusitakoan, hauxe esan eutsoen: "Gu, zuek idatzi dozuenari onarpena emotera etorri bagara, ni bertatik etxera noa"

Eta aterantz zuzendu zanean, danak inguratu jakozan holakorik ez egiteko eskatuz.

Honaino Haring-en autorra.

Hemen ikusten da Ofizio Santuko buruak kontzilioa motel hartzeaz gainera, euren eratara maneatu nahi izan ebela.

Kontzilioak bizitako beste ordu garratz bat, Elizan goiko agintaritza norengan egoan hizka-mizkatu zanekoa izan zan.

Gotzainen alkarte orokorrean dago, *Lumen Gentium* txostenean esaten dan lez.

Gai barria zan eta horregaitik lehenengotan gogaitzez eta mukertasunez hartua izan zana.

Ez dira Aita Santua eta gotzainak bakarka agintaritza

hori daukenak, ezta Aita Santua bakarrean. Aita Santua ere gotzain bat da, nahiz eta buru izan. Pedrok eta beste hamaikak batera zuzentzen dabe Eliza. Agintaritza daukan nor hori gotzainen alkargo orokorra da.

Orain, alkarte honek era bitara egiten dau agintaritza hori, gaurkoz behintzat: bata Aita Santuak, bakarrean, gotzain buru dan lez, eta bestea, gotzain alkargoak orokortasunean parte hartuaz dagiana.

Hortik, gotzainak zelakoak Eliza ere halakoa izango da.

Garrantzi handia dau gotzainen izentatze honek. Egiteko hori ezin daiteke halan-holan bete.

Norbait begiko jakulako, edo adiskide, edo gure ardatzeko, edota goikoen aginduetara, men eginaz, erraz egongo dan bat izendatu ezkero, ez litzake hori biderik onena izango.

Gotzaina herriaren artzaintzarako dan lez, honen abegia eta onarpena euki behar ditu, aukeraketa ondo egina izateko.

Herriari entzun eta gero, honen eskabide eta eskubideen arabera izendatu behar da, eliztarren artean nahaspil eta hasarrebiderik sortu ez dadin. Araubide hau erabili ez dalako, elizalde askotan iskanbila gogorrak nagusitu dira fedearen kaltez.

Bi mila urteko historia baltza daroa gainean Elizak gotzainen izendatzeari dagokion aldetik.

Ulergatx egiten diran arrazoi eta maltzurkeriak tarteko diralarik, nazioetako gobernuak parte hartu izan dabe, oraintsurarte, gotzainen izendatze horretan.

Gaur, aituezina egiten jaku Elizaren itsukeria hau.

Elizaren honako hutsak aideratzen diranean, etsaikeriaz edota gogo makurrez eginak dirala uste izaten dogu.

Baliteke inoz holakoren bat jazotea, baina ehunetik larogeta hamarrean, ziur nago, maitez eta penaz eginak izaten dirala.

Arerioaren hutsak beti hartzen ditu pozez etsaiak, maitearenak, ostera, beti penaz eta saminez. Arinkeriaz, ikusiezinez edo gorrotoz egiten dan kritika beti da kaltegarri, eta askotan higuingarri. Horregaitik, kritika, inoz egitekotan, beti maitez eta asmo onez egin behar dogu.

Gaurkora etorriaz, eliz legediak honako hau jasoten dau arazo astun honi buruz: "Aurrerantzean ez jake emongo ezelako eskubiderik, ez baimenik herri agintariei gotzainen hautamen, izandatze eta honeen aurkeztean".

Mentasunez hartu dabe, antza, herri agintariak kontzilioak eginiko eskakizun apal hau. Oraingoz, behintzat, ez da urruma txarrik entzun.

Eliz legediak, hain zuzen ere, Aita Santuaren esku izten dau arazo astun hori. Aita Santuak aukeran izendatzen ditu gotzainak, edota legeztatu legebidez autakeratutakoak.

Gaur egun, ohitura hau sartu da: Estatu bakotxeko Nuntzioak, bertako gotzain eta enparauei entzun ostean, isilpean, hiru izen bialtzen ditu Erromara, hiruetatik bat izendatua izan dadin.

Erabide hau, baina, ez da onartzekoa askoren ustetan. Gaur modu demokratikoagoak eskatzen dira.

Jerarkia herriari dagokion zerbitzu bat da. Herriarentzat da.

Kristoren mezua osorik zaindu beharra deuko eta horretan zuzen jokatzea dagokio, baina, era berean, kristau herriaren sentimentuak mindu eta zauritu barik.

Herriari entzun egin behar jako; bere arrazoibideak abegiz hartu; bere eskubideak errespetatu; bere nortasuna aurretik jarri, herriak onartuko ez dauanik egin gabe...

Elizaren agindu eta legeei lotsa gorde behar jake, zelan ez. Baina, lege horreek kristau herriak orokortasunean, edota alderdi gehientsuaren ahoz onartu barik edo ezbaian ezeztatzen baditu, lege horreek aldatu beharra deukee.

Herriak, herri lez onartzen ez dauana, usteltzat jo behar dogu.

Eliz erakunde eta egiturak, geldian barik, beti eginean egon behar dabe, aldian-aldiango gizakiari zerbitzeko. Herriaren zerbitzurako ez bada, ezetarako ere ez da Eliza.

Jesusen antzera, gizakiaren zerbitzuan bizia emotea dagokio.

Elizan, gitxienez, pentsaera bi ageri dira. Eliza zaharraren bideetatik doana bata eta eliz barriari bideak urratu nahian dabilena bestea.

Bata eta bestea alkarrengandik urrun samar ikusten ditugu. Eta urruntasun hori saminez daroagu, mailetatik begira gagozanok.

Salakuntza hau dabil bizi-bizi jende askoren artean: Erromak Eliza zaharraren alde egin dauala postura.

Hortik, kontzilioak zuzpertutako amesak loran erreta jausi jakez askori.

Eliza atzera begira ikusten dabe. Bakartadean lehenaren irrikitasunean. Gaurko giro eta aurrerakizunak bildurtu egin dabe, antza.

Eliz hormak geroago eta gorago doaz, eta mundu eta Elizaren arteko bitartea zabalagoa.

Hormak barik, zubiak jaso behar ditugu; ateak ireki mundurantz.

Gaur egun, Elizak, gogortasunaren ordez, errukia erabiltea nahiago dau. Gizakia honez hartu, gizon eta emakumeei eskua emon, guztiak Jaunarengana eroateko.

Betiko egiak, oinarrizko irakatsiak gaurko hizkuntzara itzulita irakatsi..., honako zerbait esaten eban Joan XXIII.ak Kontzilioaren hasierako hitzaldian

Gauzak, gaur, larrian dagoz. Europa erdialdean protesta hotsa entzun da. Holanda, Suiza, Austria, Colonia eta abar zutik jarri dira Idatz-Agiri bat Erromako Elizaren gehiegikerien aurka agertuz.

Izkribuaren izenburuak berak turuta soinua dakar: "Babeskeriaren kontra eta katolikotasun iriki baten alde"

Izkribua punta-puntako lau teologok idatzita dator: Haring, Schillebeeckx, Hans Kung eta Jean Metz. Beste 172 teologok ere sinatzen dabe

Batez ere, hiru puntu astun salatu nahi ditu Agiriak.

Lehenengo puntuak, gotzain barriak izendatzeko erabideak salatzen ditu.

Erromako goi erakundeen aldetik, gotzain barrien izendatzeari dagokionez, han eta hemen, gehiegikeria agerikoak egiten dirala.

Nausigoaren zapaldiz, gotzain barria hartuko dauan elizbarrutiak aukeratutako gotzaingaiak kontutan izan gabe, lekuko kristau talde eta erakundeei entzun gabe, bertako kristauei begiramena galduz, nausitasunez gotzainak izendatzen jakez, holan eliz barruti bakotxaren itzal eta eskubideak zapalduz.

Eta jokabide hau ebanjelioan aitatzen dan zuzentasunaz eta gotzainen arteko anaitasunaz ez dator bat.

Ez jako Aita Santuari gotzainak egiteko eskubiderik ukatzen; hemen salatzen diranak erabideak eta aukeratu-

takoak dira. Elizbarruti bakotxak zer agerturik asko deuko hemen.

Demokrazia goratua izan da kontzilioan; herrien eskubide eta bizikerak ere bai. Jainko Herri lez agertu da Eliza; herrien hizkuntza eta izakerak onartuak izan dira.

Agintekeria zan han betiko hondatuta ikusi nahi zana.

Neu nazena nazalako, neuk neuretara, inoren bitartekotasunik gabe, jauntxo modura gotzain barriak izentatzeak, horrek, gitxienez, ondoeza, urduritasuna, Elizaganako higuina eta igesa sortzen ditu kristauen artean.

Ez da ebanjeliotarra joko hori, dino Agiri horrek. Eta jarrai dagi.

Aita Santuak menpetasun itsua eskatzen deutse gotzainei, azken urteotan. Baina, gotzainak ez dira Aita Santuaren meza-mutil; beraien elizbarrutietan artzain nagusiak dira.

Eta artzaintza hori oso-osoan bete behar dabe, artaldearen kalterako dan guztiari ezetza emonaz.

Gogora daigun, behin, Paulok Pedrori egindako hasarrea: "Barri Onaren egiari dagokionez zuzen ez ebizala ikusi nebanean, guztien aurrean Zefasi hauxe esan neutsan: "Juduar zaran hori, jentil eraz eta ez juduar eraz bizi beharra"? Ga1,2,11.

Bigarren puntuan, teologia irakasteari buruz egiten diran bidegabekeriak salatzen dira.

Teologia irakasteko txartela, baimena emotea edo kentzea, bertako gotzainen eskubide eta zeregina da, dino agiriak, eta ez Erromako Elizarena. Unibertsitate bakotxean araudi bereziak egoten dira eta legedi hori itzaldu behar da.

Gotzainen alorrean eskua sartzea, Erromak askotan egiten dauan lez, auzoko etxera lapurretan sartzea lez

ikusten dabe teologo horreek, gotzainari bere dedu eta eskubideak kentzea lez dalako.

Gutxien-gutxienez, bai gotzainari, bai teologoari, bai edozein gizakiri itzala eta begiramena zor jakoz.

Itsusia da inoren etxera agintzen joatea.

Teologia sail hori guztiz zabala eta labana da, dino agiriak. Bestalde, teologoa ez da nahastatzailea; egiaren bila dabilen gizakia da. Egiak, barriz, mila arpegi eta ikuspuntu izaten ditu. Eskutuan gordetzen da. Harri bitxiak errazago dagoz.

Inok ere ez dauka egiaren giltzarik. Bakotxak txataltxo bana daroagu. Zurea beste nirea da, eta nirea beste zurea...

Beraz itzal osoa borondate onez egiaren bila dabilen gizakiari. Ez dago egia dala eta, zetan makilaka ibili; gitxiago oraindik gizon-emakumeak beheratu eta zigortzerik.

Agiriak itaun bat dagi hemen: zegaitik ez jarri nazio arteko erakunde gorengoko bat Erromak emoten dituan erabakiak eta hutsak epaitu eta zuzentzeko?

Agiriaren hirugarren puntuan, hain zuzen ere, salakuntza hau dator: norberen egia eta eritxiak garaile ateratearren, besteak hartzera behartzeko asmoz, egia hori Jaungoikoagandikoa dala esatea.

Teologo honeek dinoen lez, Joan Paulo II.ak sarritan erabilten ei dau argudio hau bere hitzaldi batzuetan.

Bere pentsaera eta irakatsiak sinisgarriagoak egitearren, eutsigarri lez, bere eritxi pertsonalak fedeko egiakaz bat eginik jarri eta agertu. Teologia mailan dagoana, fede mailara jaso.

Sexu gaiak ikutzean erabilten ei dau, gehien baten, argudio hau, batez ere, senar-emazteen sexu harremanei buruz diharduenean.

Nik ur zaratea bakarrik entzuten dot, uretzak norainokoak diran, hori jakitunak esan behar.

Teologoen salakuntza eta ondoezak gehituez doaz Europan zehar.

Paris, Lille, Lyon eta Lovainako 182 irakaslek arduraz eta minez ikusten ditue Erromak munduko aginpidea beraganatzeko egiten dituan ahalegin etengabeak.

Kontzilioak ebagitako bideetatik kanpo ikusten dabe Erromako Eliza.

Tiki-miki eta zertzalada guztien gainetik, arazo astun bat ikusten da borroka honen barruan: gaur eta hemen, pentsaera bi, ikuspegi bi dagozala Elizari buruz.

Eliza barruz zatituta aurkitzen dala dino Haring-ek.

Inok ez dau nahi zatiketa hori. Baina argi dago alderdi bien artean ez dagoala aitumen onik.

Eta zatiketa honek ondorengo galgarriak dakartsoz herriari. Ez daki nori sinistu; noregaz gelditu; goietan holan badabiltz, guk zer egin geinke?

Artzain bako artaldearen antzera ikusten da askotan herria: sakabanatuta. Bakotxa bere aldetik, bere kontzientziak dirautsana eginez.

Gure eztabaida eta aituezinik gehientsuenak teoria mailakoak dira. Burukada hutsak. Misteriotik ateratako egiak diran lez, inok ez daki ziur zelan diranik, ezta jakingo ere.

Beraz, gogorkeria eta itsukeria guztiak alde batera itzi behar ditugu honako eztabaidatan.



AITA BERNARD HARING, teologoa.

BERNHARD HÄRING

Eritxien erruz zatituta gabiltzanean, egurra eta irainaren ordez batasuna eta bakea bilatu behar ditugu.

Beti bakezaleak. Eta oraindik bakezaleagoak hasarrebide hori Elizako gizonen artean sortzen danean. Honako irakatsi onak hartu nahi gendukez guk kristauok Elizaren aldetik.

Badaki Elizak holako ikasbide onak emoten, baita inozkoetan hutsak egiten ere.

Honako zauri batzuk Aita Häring teologo ospetsu eta beneragarriak daroaz, aspaldi danik, bere bihotz barruan.

Aita Häring alemandarra dogu, 1912-an jaioa. Hamabi seme-alabetatik hamaikagarrena. "Nire gurasoak, dino berak, oso Jaungoikozaleak ziran. Gurasoen otoitz artean hazia naz ni".

Behartsuekin errukiorra eta esku zabala izaten erakutsi eutsoen gurasoak sehaskatik bertatik.

Gazterik sartu zan San Ligorioren Ordenan. Europa barriro odolez gorrituko zan garaian egin zan apaiz, 1939-ko maiatzean, eta irailean, gerra hasitakoan, gerrarako aginduari erantzunez, gerra burura eroan eben, han zaurituta jausten ziran mutilen ekarlari eta andari lez.

Polonian, Frantzian, Errusian, nor-nor zan eta ze alderditakoa zan itandu barik, danen adiskide, laguntzaile eta ongile bihurtu zan.

Gizatasuna eta errukia dariola agertzen zan beti;

beretzat ez egoan etsairik, areriorik, anaiak bakarrik. Batekoak eta bestekoak anai ziran, zeruko Aitaren semeak.

Behin baten, errusiarrak euren orpo gainetan eukeezala, estualdiaren beharrak eroanda, halako etxe baten deitu eben gaba igaroteko baztertxo bat eskatuz.

Etxe haretako jendeak euren semeak balira lez hartu zituen, txeratsu eta ederrikusi guztiz.

-Zergaitik hartu gaituzue hain jator? itandu eutsoen Häring-ek.

-Eta jende kristau hareen erantzuna: -Hara, lau seme daukaguz geuk ere gerra buruan eta egunero eskatzen deutsagu Jainko onari bizirik eta sano ekarri dagizala etxera. Zuen gurasoak ere bardin egingo dabe ziur asko, zuekaitik. Zelan txarrik egin alkarri, Jainkoaren semealaba bagara guztiok? Guk ez deukagu etsairik!

Gerran ikusitako gauzak eta eukitako bizikizunak laguntza handikoak izan jakozan gero "moral jakintzari" oinarri eta bide barriak aurkitzerakoan. Gaurko moralisten maisu lez ezagutua da Häring.

Liburu asko eta ezin ederragoak idatzi ditu; esan ezinbeste idazkai aldizkarietan; esan ezinbeste hitzaldi emon mintza-lekuetan; munduko unibertsitaterik entzutetsuenetan irakatsi, eta bitartean, herririk herri, misiolari ibili. Lanean geldiezina.

Bere larogetaka urteak arte, jakintza arloan, oinarrizko gizona izan dogu.

Jaungoikozale sutsua, Kristoren Eliza, bere huts eta oker guztien gainetik, jator maitatzen jakin dauana.

Baina, ez da beti ondo aitu Erromatarrekin.

Häring-ek idatzitako lehenengo liburua, hiru atal

marduletan, "Kristoren legea" deritxona izan zan. Dudarik gabe, bere obrarik onena. Moral liburu apartekoa.

Arrakasta izugarria izan dau jakintza munduan. Hamalau hizkuntzetara itzulita dago. Ikuspegi eta oinarri barriak jaso deutsoz bertan moral jakintzari.

Garai haretan ohiturazko ziran kasuistikaz beteriko moral liburu zaharrak alde batera itzita, gizakia bera, bere orokortasunean harturik, moral guztiaren etorburu eta oinarri lez aurkezten dau liburu horretan.

Kontzientziaren jabe izanik, jakintzan eta aurrerakuntzan buru-belarri sarturik, Bibliaren arabera, Jaungoikoaren aurrean daukan goitasunean, duintasunean, errege aulkian ikusten dau gizakia. Zapatua gizakiarentzat egina da eta ez gizakia zapatuarentzat. Legeak gizakiarentzat, ez gizakia legearentzat.

Häring-entzat fedea eta bizitza beti alkarrekin doaz; beti aurkitzen dira eta beti alkar osotu.

Jaungoikoak eta nik alkarrekin ditugun hartu-emonak ditu gurpil moralak; Kristorekin bizitea da, Haren antzera bizi eta eginez.

Gerora, beste liburu asko idatzi ditu, bata baino bestea zein hobeak. Erromako maisuen teologiatik urrun, beste mundu baten mugitzen da Häring.

Horregaitik entzun behar izan ditu Dotrinarako Batzordeak eginiko dei eta aholkuak.

Häring ez da gauza bere jakintzari eta bere kontzientziari saldukeririk egiteko. Honek ez dau esan nahi buru gogorra danik, gauzak benetan eta jatortasunez hartzen dakiala baino.

Inok baino hobeto daki bere eritxi eta pentsaerak dauken oihartzuna eta ondorena bai teologo eta bai gainetiko jende artean.

Gehiegi ekian, jakintsuegia zan edozein kaskarroren

aurrean burua makurtzeko Elizaren ona eta etorkizuna arriskuan ikusten zituanean.

Gizonegia zan holako gauzetan atzera egiteko. Elizagazko maitasuna gori-goritan eroan eban bere bizitza guztian, bai onaldian eta bai nekealdian.

Bere topaketarik gogorrenak Dotrinarako Batzordeaz "Humanae Vitae" Enziklikaren inguruan izan zituan.

Enziklika hori agertu zanean, Häring Estatu Batuetan aurkitzen zan. Irakurri ebanean, lausoturik eta bihotz beheraturik geratu zan. Sinistu ezinik.

Ha ez zan batzordean gertau ostean, gehiengoak onartutakoa enziklika. Bera ere batzordekoa zan enziklika horren antolaketan.

Guztiz aldatuta etorren, batez ere, gairik garrantzizkoenetan. Minduta geratu zan, eta bere lehenengo irrikia isilik geratzea izan zan.

Enziklika horretan, beste gauza askoren artean, hasarre guztien iturburu izango zan irakatsi hau emoten zan: Ezkontzaren helburua seme-alabak ekartea zala. Beraz, ezkontza beti eta beti seme-alabak ekarteko erabili behar zala. Ez zala zilegi bestetara erabilterik.

Enziklika hau ezagutu zanean, holako ekaitzaldi arriskugarri bat jaso zan kristau herri osoan. Txingor zaparrada bat lez jausi zan.

Gogoak urduri, ondoezean, galdezka ia gizakientzat ala aingeruentzat egina izan zan enziklika hori... Kristaugoaren zatirik handienak ezetzik garbiena emon eutsan.

Osagileak, teologoak, albistariak, herri gizakiak zer egin itaunka.

Bertatik konturatu zan Aita Häring, enziklika horren erruz, herria Elizatik mordozka urteteko zorian egoala.

Honez gainera, hori egiteko deiak entzuten ziran Eliza zaharraren barruan ere. "Erabide honeek, hau da, edozelako kontrolak erabiltea, nahiz eta ezkontza salbatzeko izan, debekatuta dagoz, eta hori dagiana erru astunean jausten da beti, eta Jaungoikoaren eta Haren santutasunaren aurka jarri", honelan idatzi eban Carlo Caffarra, Fede Batzordeko teologoak.

Eta Felici Kardinalak, orain gogorrago: "Enziklika hau onartzen ez dauanak, itzi bedi Eliza".

Giroa irikiten egoan, ba. Eta honek emon eutsan bildurra Aita Häring-i.

Zer dala eta isilik egon enziklikak jaso dauan lurrikara izugarri honen aurrean? Zelan itzi hainbeste kristau zintzoren kontzientziak holako irakatsiekaz zapuztuten? Zelan geldirik begiratu artaldearen igesari?

Kontzientziaren agindura hautsi eban, ba, bere lehenengotako isila. Argi eta garbi agertu zituan bere eritxi eta pentsaerak, enziklikaren hainbat puntutan argia jarriaz.

Lehenengo eta behin, Häring-en eritxian, enziklikan emoten ziran irakatsiak ez ziran fedeko egiak. Gauza bat dira Aita Santuaren irakatsiak, nahiz eta gogoangarrienak izan, eta beste gauza bat fedeko egiak, dogmak. Enziklikan irakasten dana, ez da fedeko egia.

Häring-ek araubide hau emon eban Enziklikaren inguruan.

-Kontzientziaren esanera, enziklikaren irakatsiak onartzeko prest dagozanak, jarrai begioe bide horri.

-Kontzientzia zintzo eta jator baten arabera, enziklikan datozan irakatsi eta erabideak onartu ezin dituanak, jarrai bedi gogaldi eta siniste horretan.

-Uste on eta arrazoi sakonetan kontzientzia oinarri-

tuz, ernaldura barri batetik alde eginaz, senar-emazteak haragi edo sexu harremanak beste erabide batez erabiltea erabagiten badabe -abortoa kenduta- eurentzat hori egokiago aurkitzen dabelako, egin leikee hori ere horregaitik euren buruak errudun ikusi gabe.

Häring-entzat senar-emazteen haragi hartu-emonak ez dira, lege zaharreko teologoak nahi daben lez, mundura seme-alabak ekarteko bakarrik.

Seme-alabak ekarri, hazi eta hezi. Ondo dago hori. Horretarako egina da ezkontza. Eta ezkontzara doazen guztiak, batez beste, beteten dabe eginbehar hori. Beraz, jaiotzak arautzea gurasoen eskubidea da, eta ez beste inorena.

Baina, horrez gainera, ezkontza maitasunaren ezaugarri eta betegarri da. Maitasuna da ezkontzaren oinarri eta zutoin. Eta sexu harreman horreek beharrezkoak ditue senar-emazteak maitasunari eutsiteko.

Berez da gatxa maitasunean luzaroan irautea. Erraz apurtzen da ontzi bitxi hori. Horregaitik begiramen handia behar dau senar-emazteen maitasunak, bidean jarritako oztoporen baten jausi eta apurtu ez dadin. Maitasuna arnasatu, hil ez daiten.

Häring-en susmoa bete zan.

Askok eta askok alde egin dabe Elizatik, Elizak neurriz gainetiko irakatsiak jarri ditualako ezkonduen bidean.

Häring-en irakatsiak jakituriaz eta zentzun handiz jantzirik etozan, eta oihartzun eta arrakasta handia izan eben giza maila guztietan.

Hainbat nazioetako Gotzain Batzarretan onartuak izan ziran, teologoen artean bardin, eta guraso eta kristauen artean zetan esanik ere ez.

Inkesta serio baten esanez, berrogeta hamar urtetik

beherakoen artean, ehunetik hamabik bakarrik, eta berrogeta hamarretik gorakoen artean, ehuneko hogeta bostek bakarrik onartu ditue, gaur, Joan Paulo Aita Santuak sexuari buruz emoten dituan irakatsiak.

Häring goietan dabilen arranoa da; handik ikusi zituan Elizari etorkiozan kalte eta ondorengo larriak. Horregaitik entzun zan hain sendo eta garratz igarlearen abotsa.

Häring-en esanean, Erroman goietan dabiltzan askok ez dabe Kontzilioa eurena egin.

Kontzilioan agertzen dan Eliza gazte eta jatorra ez da eurena. Eurena lehengo Eliza zaharra da. Haren izakerak, araudi eta jokaerak ageri dituana.

Batez ere, sexu sail hori ez dau oraindik Elizak ondo argitu. Gizarteak ez ditu onartzen gaur Elizak irakasten dituan moralbideak.

Oinarri ziurrik ikusten ez jakon rigorismo bat ei darabil sexuaren inguruan. Eta horregaitik, munduak ez deutso entzunik egiten. Bakotxa bere bidetik doa. Eta bakotxa bere bidetik badoa, nekez alkar bat egingo dabe, eta nekezago ebanjelioa ereiteko lurra gertau.

Pozoitutako uretan ez dago arrain bizirik, dino Häring-ek.

Häring-ek ere bere kurutze bidea aurkitu dau.

"Minez aurkitzen naz, dino berak, Dotrinarako Erakundeak salatu nauałako.

Gainera, salakuntza guztiak guzurretik datoz, eta hau gitxi balitz, nik, hain maitez, hainbeste urtetan zintzozintzo zerbitu dodan Elizaren aldetik datorkidaz".

Benetan minez dago larogeta urteetako maisu argia.



AITA PEDRO ARRUPE, LAGUNDIKO BURUZAGIA.

PEDRO ARRUPE

Gure Aita Pedro Arrupe da, gaur, kurutzeak azpian hartu dauana.

Jatorriz mungiarra eta jaiotzez bilbotarra, eusko endaren eredu jatorra dogu Aita Arrupe. Bihotz alai eta ameslaria, buruz argi eta sakona, suzko begi zorrotz bi eta euskaldun sudur luze eta bizkarduna goibehe eta barrunbeak urrundik eta sakonez susmatzeko.

Zalantzarik gabe, gure egunetako gizonik handienetariko bat izan da. Elizgizon gitxik lortu ahal izan dabe berak lortu dauan ospe eta entzutea.

Goraldua askoren aldetik, beheratua gitxiren berbatik. Autor daigun Jaungoikoak bere Elizari egindako doai miresgarria izan dala.

Estatu Batuetan gongotzain den Rembert Weakland beneditarrak, honako hitzak eskini eutsazan Aita Arruperi, hil barri zala: "Hilda zagozan ezkero, esan neike zutzaz dodan eritxia: nik ezagutu ditudan pertsona guztien artetik, zeu izan zara santutasunetik hurbilen ikusi zaitudana"

Gaixo aldian, berbea galtzeko egoala, bere bizitzaren irudigarri, totelka, oinazearen kurutzetik, hauxe entzun jakon: "Oraingorako, Amen!, eta gerorako Aleluia!"

Aita Arruperen entzutea Hiroshima gainera atomozko leherkai hiltzailea jausi zan egun berean zabaldu zan

lurbira osora. Egun negargarri haretan emon eban bere gizatasunaren neurri oso eta betea. Leherkaiaren hotsa baizen arin zabaldu zan mundu guztira jesuita jator harek, suzko inpernu bizi haretan izandako portamena eta eginiko lan harrigarri eta baliotsua. Harrezkero, Aita Arruperen izena eta Hiroshimarena beti batera joango dira. Dedu eta omenak bereak ditu, goratzarrerik onenakaz.

Japonera misiolari joateko gogoa Loiolako nobizitegian etorri jakon, oraindik praile barri zala. Karta batzuk idatzi zituan Erromara, Ordenako nagusiei Japonera misiolari joateko mesedea eskatuaz, baina beti hitz erdiz erantzuten eutsoen Erromatik, beste asmo batzuk eukeezan, ba, gazte argi hari buruz.

Baina, maite diran gauzak lortzeko kemen handia behar dala eta, Arrupe gazteak ez eban gogorik galdu horregaitik. Beste karta bat bialtzen dau Erromara eta, oraingoan, baietza dakar erantzunez.

Pozaren pozez erdi negarrez, kapilara doa, ukituta eukan bihotza, sagrario aurrean baketzera, San Pauloren berbak bereak eginez: "Barri Onaren iragarle egina izan naz ni, Jaungoikoak bere indarraren eraginez, honetarako grazi-doaia emonda. Niri, kaskarren honi, grazia hau emon izan jat: Kristoren aberastasun ulergatxa jentilai iragartea"

Japonera heldu zanean negar egin eban, bere bihotz zarrastari eutsi ezinik: "Hamar urte luze eske eta eske Japonera etorteko eta orain hemen nago! Hau poza!"

Mundu barri baten, kultura barri baten sartu zan. Beretzat bigarren jaiotza bat lez izan zan. Gatx egin jakon bertako hizkuntza eta ohiturak beraganatzea. Gogortasun honen intziria honelan azaltzen deusku Arrupe berak:

"Nik jakin izan baneu zenbat sufritu beharko neban Japon, nire maiteiño horretan, nire eskuak dardaraka egingo eben, mezako orduan, ostia santua zerurantz jasotean. Kurutzearen antza hartzen neutsan neure bizitzari"

Hogeta bost urtetan esan ezinbesteko lana egin eban misiolari lez.

Ez zan bape erraza misiolaritza japondarren artean. Herri oso aurreratua, herridi guztien artean aurrenengo tokietan dagoana da. Guztiz aberkoia. Bere jatorri, erlijio, kultura, ohitura, kultu eta gainetiko bizi-agiri guztiai zeharo lotua.

Neketsua zan herri horren gogo barrura sartzea, bere barrunbeetan mugitzea. Herriaren gorengotasunari kultua emoten eutsan jendea zan. Gugandik opoz-opozko herria.

Atzerritarrentzat, barriz, oso itxia. Nekez onartzen eban kanpotik etorritako ezer, bai erlijio arloan, bai kultura arloan. Horregaitik doa hain neketsu eta hain astirotsu kristau misiolaritza lurralde horretan.

Berez zan argia eta jaioa gure Arrupe. Itxasoak besteko gizatasuna eukan, bihotzak beraganatzeko doai eta berezkotasun aparta. Horretarako isilpeko bat eukan.

Aita Arrupe bertatik konturatu zan jarraitzaleak egiteko modurik onena jendea maitatzea zala, danen adiskide izatea. Horixe zala apostoladutzarako biderik artez eta zuzenena.

Izan zituan, bai, horretarako berebiziko aukera aldiak. Batez ere, Hiroshimako ordua heldu zanean. Hantxe jarri zan agerian bere bihotzaren goibehe eta zabaltasun guztia, atomozko leherkaiak Hiroshima erreta, hondatuta, hauts eginik itzi eban egunean.

Bere etxeko nobizitegia hospital bihurtuta, leherkaiak jendearen gorputzetan eginiko triskantza eta zauri moltzoak osatzeko mediorik gabe, etxeko botikinean zituan osagai apurrakaz, labaina txiki baten laguntzaz, berak osagiletzan ikasitakoaren argira, ez jan, ez lorik, ez atsedenik, gau eta egun, eten barik egunetan eta egunetan, agortuta jausi arte, beragana etorten jakozan guztiak, gozo eta txeratsu hartu, eta zelan edo halan osatzen ahalegindu zan.

Eta bai harrigarriak egin jende errukarriaren gorputzetan!

Leherkai harek Hiroshiman eginiko hondamendiaren antzekorik ez da oraindik lur gainean ezagutu.

Eta hondamendi horren gainean, kurutze salbatzaile baten antzera, Aita Arruperen irudia, besoak zabalik, zerura begira, Jesusi deika, jende nahigabetu hareentzat zeruko argia, osasuna, laguntza, janaria eta bakea eske eta eske.

1945-ko abuztuaren 6an, Golgota mendia Hiroshimara aldatu zan. Han agertu zan bere gordintasun osoan, mundu guztiaren aurrean. Han hil zan, bigarren aldiz, Kristo Jauna eta beragaz batera milaka eta milaka neba-arreba errugabe, odoletan, zauri bat eginik, haragiak minez erreta, txikituta, sufrimentuan aieneka.

Gizon eta emakume hareek errugabeak ziran: haurrak, emakumeak, gexoak, ezindunak, zaharrak...

Ordutik hona, Hiroshima eta Aita Arrupe beti eskutik joango dira.

Munduko gerra amaitu zanean, amalau hilebeteko ibilaldi luze bat egin eban mundu guztia zeharkatuz. Lehendik ere horrenbeste egina zan.

Hiroshiman jazorikoa munduari ezagutzen emon behar jakon, eta zehatz gainera. Gizadia lohituta geratu zan leherkai haren hautsez.

Doilorkeriari jasotako oroitarria zan bonba hori. Gizakiaren jakituria eta asmaketa guztiak Hiroshimako basatikeria hori egiteko erabili ziran.

Eta hori parkaezina zan; gizakiaren duintasunari eginiko irainik gordinena, betiko hilobiratu behar zan zerbait. Horrelakoak egiten dituan gizadia bere hondamendirantz doa.

Mezu hau eroan nahi izan eutsan Aita Arrupek munduari bere hitzaldien bidez. Bera zan hango lehenengo testigua eta bere agoz eta zuzenean salatu nahi eban Hiroshimako basatikeria baltza. Honetzaz saiatu zan bere mintzaldietan.

Naziorik nazio, munduaren inguruan egin eban joanetorri horrek herridien egoera eta erlijiotasunari buruz barri, argitasun eta informazio ugaria eta aberatsa eskuratu eutsan. Inok baino hobeto ekian zelan ebilan munduaren pultsu hori. Non zer egoan eta zer falta zan.

Gauzak honan, 1964-ko urriaren bostean, Erroman, Joan Bautista Janssens, ordenako jenerala hil zanean, haren ordez, ordenako Batzar Nagusiak Aita Arrupe aukeratu eban buruzagi.

Inazio, Jabier eta Arrupe, horra hirukoitz euskalduna, Jesusen Lagundiko hiru izar dizdiratsu.

Buruzagi barria asmo eta burutapen handiz beterik dator. Kemena eta azkartasuna ditu bere bultzatzaile; geldiezinak ikututa dago; asko ikusia eta asko ikasia.

Lagundiari begiratu eta itaun hau eginez hasten dau bere agintaritza: "Gaur eta hemen, zeren beharrean dago gure Lagundia"? Zahartuta geratu da; mundua, ostera, guztiz aldatuta ageri jaku. Zelan gaztetu, zelan barriztatu, zelan bide barrietan jarri, zelan munduaz neurkera baten sartu?

Eta bere helburuak lortzeko, bere gogoaren isilean,

hainbestetan irrikaz hausnartutako tankera eta era barriak jarriko ditu jokoan.

Lehenengo pausua, Lagundia demokrazia bidean sartzea izango da. Persona bakotxarengana ederrikusiz, adiskide lez, gizatasuna opatuz aurreratu. Senide lez hartu beti pertsona, ezelango aurrengotasunik agertu gabe. Mailakeriak ebagi.

Buruz-buruzko hartu-emonak zituan atsegin, horretara alkarren arteko aitumena eta adostasuna lortzea errazago eta gozoago izaten zalako.

Menpekotasun itsua eskatzen jaken Lagundiko semeai; menpekoari ezer esan barik hartzen ziran askotan erabagiak.

Lege eta araudi zaharrak soineko barriz dotoretu zituan, aginteari era gizabidezkoagoak aurkituaz. Gauzak egiteko tankera eta modu leunagoak, hurkoagoak, bardintsuagoak sartu zituan Lagundiko bizitzan. Leiho guztiak zabaldu, etxea haize barriz bete daiten.

Batez ere, ohikeriaz onartuta egozan mailakeria txiki batzuk, esaterako, mezadun eta mezabakoen arteko goibeheak ebagi zituan, nahiz eta hau ez izan askoren gustukoa.

Ni jaun eta zu morroi!, hizkuntza hori aituezina zan Arruperentzat. Gizaki zapalketa bat dago hor. Ez jako duintasuna inori lapurtu behar. Jaunak bardinak egin gaitu.

Honexek izan ziran Aita Arrupek egindako pekatu astunak. Hementxe aurkitu eben oina bere kontra salakuntza gogorrak egiteko.

Kanpo aldetik ere aldakuntza handi eta garrantzizkoak egin zituan. Lagundia zugatz sendo eta adartsua zan bere helburuetan. Eliz-lurrean, arlo guztiak jorratu ditu

Lagundiak, hasieratik bertatik, aldien beharrizanai erantzunez.

Gaur, jakintzatik eta aurrerakuntzatik jaiotako gizarte harro eta hezigatxa aurkitu dau aurrean Aita Arrupek. Mundu hori zan landu behar zana. Ezagunak ditu mundu horren bizi-agiri eta taupadak. Lurbiraren inguruan eginiko erromesaldiak agertu eutsazan gizadi barri horren akats eta premina ugariak.

Gizartean nabari ziran gatx guztien artetik handiena eta galgarriena zuzentasunik eza zala ekian Aita Arrupek. Eta hurrengoak, honen erraietatik jaiotako etsaikeria, gogorkeria eta pobretasuna.

Hortik, Aita Arruperen asmobideetan lehenengotasuna zuzentasunak -justiziak- eukan. Zuzentasunaren ereile eta egile izango zan lur zabalean Jesusen Lagundia. Ikurrin hori jarriko eban tente bihotz bakotxean. Eta gurari honen arabera, zuzentasunaren aldeko ekintza edo borroka hori jarri eutsan helburu nagusi lez bere Lagundiari.

Munduko injustiziaren kontrako ekintza edo borroka hori aspalditik ebilen dantzari Arruperen buruan. Mila bidar aitatzen dau bere idaztietan. Berak esaten eban Jaungoikoak belarrira esan baleutsa lez argi ikusten ebala arazo hori.

Gizaldi erdia baino gehiago gosearen erpapean aurkitu eban herririk herri erromes ibili zanean. Hilobi handi baten antza eukan munduko goseak.

Ateokeria eta erlijiogabekeria ere, munduko errege eginik, gizon eta emakumeen bihotzetara guztiz ugalduta ikusten zituan.

Ateokeriatik jaiotako kultura barri hau da gaur jaun eta jabe.

Giro ustel hau arnasatzen da edonon.

Fedea ere, abiadan, atzeraka doa. Gizalege eta ekandu onak galduta dirudie. Moralbide eta gizalegeak, sexua barruan dala, pentsaera, lege eta eritxikera barrietan oinarritu eta sustraitu ditugu.

Moral barri baten sutoinduta dator sexu mundu hori; aurrez aurre eta otoz-oto Elizaren irakatsiekin. Inoz ez beste beharrizan eta premina ditu gaurko gizarte honek.

Lur zati legor eta antzu hau zan Jesusen Lagundiak atxurtu behar ebana. Mundu hori hartu bere ardurapean. Mundu hori kristautu.

Eta horretarako era barriak nahi ditu Aita Arrupek; tresna barriak; kultura barriko mundu horrek aituko dauan hizkuntza bat aurkitu; apostoladutza barri horren giltzak non egozan jakin, erabide barriak urratu...

Gizadiaren etorkizuna azken onera eroatea zan bere goiburua.

Eta goiburu horretan, buru-belarri sartuta, ikusi nahi eban bere Lagundia.

Baina Lagundiari ekarri eutsazan arnas eta haize barri honeek, nahiz eta Lagundiko gehiengoak pozez eta esker onez hartu, beti bat eta bera nahi izaten daben aldagatxak, mukur eginik bizi diranak ez zituen ondo ikusi, ezta gitxiagorik ere.

Ez ziran geldirik egon gizon honeek. Isilpean, Vaticanon salatu eben Aita Arrupe.

Beti ibilten da isilean saltzailea, bere guzur baltzetan kirikinoturik. Zurrunbilo ederra sortu zan Lagundikoen artean.

Inpernuko keia ikusten eben bazter guztietan morroi honeek eta Elizaren azkena etorrelakoan, estu eta larri ebiltzan estali ezinik.

Halako baten, Paulo VI.az izandako ikustaldi batetik, negarrez urten zan Aita Arrupe. Zer jazo zan han?

Aita Arrupe lako gizon bat negarrez jarteko gauza astunen bat bideratu zan. Antza, Aita Arruperen metodoak egozan auzipean.

Hementxe gelditu zan Aita Arruperen erlojua. Hementxe hasi bere azken kalbarioa.

Hementxe jausi zan zaurituta, Elizari bide barriak zabaltzeko doetuta egoan gizon argi eta eragilea. Kontzilio osteko ondoeza eta larriunea argitu eta zuzentzeko berebiziko gizakia zana.

Joan Paulo II.a da orain Elizako Buru.

Bere aurrekoaren bideari jarraituz, Aita Arruperen goimailea aintzat hartzen ebanarren, ez etorren bat hau ere Aita Arruperen ikuspuntu eta jokabideakaz.

Birriteko aldiz egin eutsan alkar ikusteko eskabidea eta Aita Santuak ez eutsan erantzunik emon. Era ederra jokoan egozan arazo hain astunak onez konpontzeko.

Ilunpe zarratu honetan, argi pizka bat ikusi nahian gogo-jardunak egiten ditu. Astirotsu pentsau nahi ditu gauzak, astirotsu begiratu berak egin dauan bideari. Zer egin behar dauan argitu.

Eta azkenean, ondorio hau atera dau garbian: "Nire aginteko erak, nik Lagundiari ezarritako norabidea Aita Santuaren gogokoa ez bada, ni aginteari uko egin beharrean nago; agintea iztea dagokit".

Ez zituan, Vaticanon esanera, bere erabideak aldatu,

eta ez zituan aldatu hainbaten ziur egoalako bere sistema horreek zuzen, egoki eta beharrezkoak zirala.

Aita Santuak ez eban, behingoz, aintzakotzat hartu agintea izteko eskabide hori.

Halako baten Tailandiatik honantzean, lurrera jausi zan tronbosis batek jota. Gatxa handia zan; berba barik egoan; ekizan zazpi hizkuntzak galdu zituan; idaztea ere ahaztu egin jakon.

Egoanez egonda, ez zan gauza Lagundia gidatzeko. Nahi eta ez, ordezko bat behar zan bere hutsunea betetzeko, eta horretarako Aita Vicent O'Keefe aukeratu eban.

Baina, hau ere ez zan Aita Santuaren gustukoa izan, eta ez eban bedeinkapenik hartu.

Beste asmo batzuk eukazan gordeta Joan Paulok. Lagundia bere agindupera ekarteko, Aita Paolo Dezza, larogei urteko gizona, Vaticanoko bazterrak ondo ezagutzen zituana jarri eban Lagundiaren buruzagi, jeneral barria izandatu arte.

Bere zerbitzu onak, Kardinal eginez ordaindu eutsazan Aita Santuak Paolo Dezzari.

Aita Arruperekin egoan gehiengoa. Honen adierazgarri, buruzagi barria izendatzeko, Erroman, Lagundiko Batzar Nagusia bildu zanean, eta Aita Arrupek, gaixoak eratzita, baina bertan presente, bere ordezkari baten bidez, Lagundiari egiten eutsan agurra irakurri ebanean, eskuak txispak botatzen hasi ziran; saloi haretan, egundo entzun izan dan txalo zaparradarik handi eta luzeena entzun zan, Aita Arrupe beneragarriaren omenez.

Gutxi batzuk ez eben maite, gainetiko guztiak bai. Elizak ere ibilian hautsak batzen ditu.

Nok esan Joan Paulo, Aita Santua, gizon on, zuzen, Jaungoikozalea ez danik?

Nok esan Aita Arrupe ez dala izan Elizak izan dauan gizon argi, santu, gaur egungo profeta begi zorrotza?

Zergaitik, beraz, gaizpide eta iskanbila honeek?

Aita Arrupek ez ete eban maite bere Lagundia? Eta Eliza?

Ez ahal eban beste edonok baizen ondo ezagutzen bere ordena? Eta Eliza? Ez ahal zan onenaren bila ibili bata eta bestearentzat? Ez ahal zan gidari argi, jakintsu eta paregabea? Zergaitik zapuztu holako gizonak? Zer lortzen dogu horrekin?

Tiki-miki honeekaz Elizak berak egiten deutso kalte bere buruari. Azken baten, bere kontra doaz sortzen dituan ekaitzaldi horreek.

Munduari pultsua hartzeko, etxeko leihotik begira egon barik, gizakiakin eskutik erromes ibiltea da onena.

Ondo litzakigu Pedro apalaren urratsai jarraitzea.



TERESA DEUNA, AMA TA IRAKASLE.

LEKAIME KARMELDARREN OINAZEAK

Vaticanok, nozean behin, holako izualdi batzuk emoten ditu. Holako errebeskeria bat Lekaime Karmeldarrekin egina izan da.

Atsekabearen minez, bihotza odoletan ito jakon goiz horretan Karmeldar sendiari. Laino baltzez ilundu zan Karmelo mendia eta oraindik ere laino artean jarraitzen dau

Urrinera begiratu eta itaunka hasten zara: Daitekena ete da Vaticanok hau egitea? Nor sartu da hor bitarteko? Noren ausardiz egin da guzti hori? Ordenaren ona ala beste interes batzuk egon dira hor jokoan?

Gauzak aingeruen begiz begiratuta ere, ez dozu ikusten gogo onik auzi honetan. Hondoari zenbat eta gehiago eragin, eta zikinago agertzen da gaina.

Jarraitu deiogun, ba, orpoz horpo, arazo honek egin dauan bide makurrari.

Kontzilioan deuko, jakina dan lez, bere sorburua auziak.

Kontzilioak, bere batzarraldietan, lekaideen eta baita lekaimeen biziera egokitasunez barriztatzeko erabagia hartu eta emon eban.

Bai lekaidegoa eta bai lekaimegoa barriztau behar zan, gaurko gizarteari hobeto jarraitu eta zerbitzeko.

Azken baten, Eliza eta gizartearen zerbitzurako dira ordena guztiak.

Kontzilioaren Agiri harek honako eskakizun edo baldintza batzuk jarten zituan oinarri antzera, barrikuntza hori egokitasunez eta zentzunez egiteko.

Lehenengo eta behin, kristau iturri zaharretatik ur gardena hartu eta edan behar zan, hau da, ebanjeliotik bertatik hartu zuku barri hori.

Gero, ordenak hasieran eukitako argitasuna, ederra, kemena, jatortasuna galdu barik, gaurko aldien gorabehera aldakorren eratara egokituta jarri ordena bakotxa.

Lekaidetzari udabarri argi, eder, itxaropentsu bat zabaldu. Zahartuta egoana gaztetu.

Gogo onez hartu zan Eliza osoaren aldetik Kontzilioaren erabagi txalogarri hau. Ordena guztiak hasi ziran, behingo baten, begi argiz eta gogotsu, Kontzilioak eskatutako barrikuntza honi bideak urratzen.

Lanak zerikusi garrantzitsua eukan berez ere. Goibehe eta ertz latzak eukazan egiteko horrek. Urteetako lan zail, zorrotz eta minberatia izango zan.

Ez da bape erraza ordena bateko hainbeste aburu desbardin, goizetik gabera alkarganatzea, bateratzea.

Ez zan erraza hainbeste buru, orratz baten buruan zutik jartea. Ez zan, ez, zirri-zarra behingo baten egitekoa, ordena bakotxaren etorkizuna egoan jokoan eta.

Kontzilioak bialdutako araubideak zentzunez, ajolaz, arreta handiz ikustatu, azterkatu, eztabaidatu, orraztu eta alkar aituz gertau behar ziran Kontzilioak eskuratutako txosten horreek.

Ordena bakotxaren geroa egoan jokoan.

Beharrezko ziran ikutu eta proba guztiak adikortasunez egin ostean, danen artean jantzi barria aurkitzen ebenean ume jaiobarriarentzat, araudi eta legedi horreek Erromako baietza jasoten eben. Legeztuta geratzen ziran.

Holantxe, hurrengorik hurrengora, ordena guztiak barriztatu zituen euren legediak.

Tirabira batzuk tarteko egon ziran arren, eta hori berezkoa zan, neke guztiak ontzat emonez, zoriontsu heldu ziran, azken baten, helmugara.

Gizaldien buruan, Elizako lore gardena, santutasunaren kabia izan dan ordena beneragarri bat geratu zan, horraitio, bidean, helmugara heldu ezinean: Lekaime Karmeldarren ordena.

Ustekabean sortutako ekaitzaldi zakar batek azpian hartuta, hor dabiltzaz, gaur ere, gure karmeldegiak, olatu artean, gora eta behera, ontxitxo baten antzera, helmugaratu ezinean.

Argi dorrea ikusi ezinik, oraindik lainopean, gaba zarratuan nora ezean, babes barik dagoz.

Gauza bat da hemen ziurra: Santa Teresaren alabak ez dabela ekaitzaldi honen zurrunbilo hau biztu.

Beste batzuk izan dirala Karmelo mendiaren su emoileak.

Aldakuntzari bidea egiteko, eredu antzera, proba bidez galdekizun batzuk tarteko zirala, egindako Idazki-Agiri bat bialdu zan munduan zehar zabaldurik dagozan Santa Teresaren Karmeldegi guztietara. Agiri horren asmobidea honetan egoan.

Lekaime guztiak horren jakitun jartzeaz gainera, guztien artean, galdekizunetan aurkitzen ziran egin-gaiak azterkatu, eztabaidatu, alde onak eta txarrak azpimarratu eta, batez ere, euren eritxipean, ikuspuntu eta gainetiko

gehigarriak argi eta garbi agertzeko eskabidea egiten jaken Idaztian.

Holantxe egin eben, egin ere, lekaime karmeldarrak

Gaiaren inguruan batutako erantzunak, ugariak izateaz gainera oso interesgarri eta aberatsak izan ziran.

Pozez txalotua izan zan, askoren aldetik, lekaimeen lana. Ezin hobeto jokatu eben Santa Teresaren alabak. Zeozergaitik daroe Teresak berak eukan zuhurtasun hori.

Lehenengo ikerketa honen emaitza lez jasotako erantzunen arabera, liburuxka bat argitaratu zan Lekaimeen usariorako "Adierazpenak" eritxona.

Liburuxka hori lekaimeak eginiko zuzentze, hobekuntza, aldakizun eta aldaigarririk baliotsuenak aurrean eukirik egina izan zan.

Jakituria eriela etozan lekaimeen ikuspuntuak.

Legedi barriaren oinarri lez izango ziran bertan agertzen ziran oharpen eta azalpenak. Inok baino hobeto dakie eurak euren etxeko barri. 1977an baieztua eta onartua izan zan "Adierazpenak" liburuxka hori.

Mementoz, proba bidez, bost urterako izango zan legedi hau. Azterpen aldi hau igarotakoan, egokizko ziran zuzenketa eta hobekuntzak egin ostean, azken onarpena hartuko eban Santa Teresaren ordenako Legedi barriak.

Egun hori noiz etorriko, itxaropen gozo honetan egozan komentu guztiak, baina oraindik ere ez da argitu egun hori.

Zer jazo da, ba?

Usterik onenean, "Maravillas de Jesus" izeneko lekaime karmeldar baten jarraitzaleak sartu zirala bitarteko.

"Maravillas" izeneko moja hau 1974an hil zan eta,

bere aldian hamar mojetxe iraiki zituan. Bere jarraitzalei "Las Maravillosas" deritxoe. Izen horrekin ezagutuak dira gaur ere.

Moja talde honek, txikia bada ere, bere historitxoa deuko.

"Adierazpenak" liburuan aurkezten ziran hazi-orraziak, araubide eta abarrak bazterreratu, ezetsi, eta, euren kontura, 1581an Alcalá de Henaresen egin zan legedia eredu eta oinarritzat harturik, euren pentzu eta nahira, egitamu eta eskema barria egin eben ordenaren barrikuntzarako.

Holan idatzi eben Erromarra, Erlijiosoen ardurakizuna daukan Batzar Nagusira, eurak ez ebela onartzen Adierazpenetan etorren legegai hori eta, beraz, baztertuta izten ebela egitamu lez esanez.

Erromatik, ordukoan, ezetz biribila hartu eben. Ez zala deduzkoa ezetz eta ukamen hori.

Egoki-egoki eta ondo biribildurik agertzen zala Kontzilioaren gogoa Adierazpenak deitu horretan.

Aintzakotasuna zor jakola bertan bildutakoari. Adierazpenak hori, egokia izateaz gainera, bide bakarra zala ordenaren erabarritzerako.

Santa Teresaren burubideak eta izpiritua osoan hutsituta egozala bertan. Eta gainera, eurak kontra jarritako arrazoibide eta argudioak kontutan hartzeko ergelak eta hutsak zirala. Egonarri gabeko trikimailuak zirala.

Erromako ezetz honi gainetik eginez, Adierazpenak deituen pareko beste idatzi eta egitamu bat gertau eben euren pentzutan, legegai barri bat.

Noren eskuz? Noren laguntzaz?

Goragoan esan dogu, Adierazpenak direlakoei, proba gisara, bost urteko epea emon jakela. Baina, bost urteak

igaro ziran arren, Adierazpenak legedi hori oraindik geldirik.

Besteko barik, euren baliotasuna, egunik gabe, luzatua izan zan.

Bitartean, nazio arteko Batzorde batek, beren-beregi horretarako jarritakoak, munduko karmeletxe guztietatik bialdutako erantzunak ikertu eta taiutu zituan.

Erantzun horreen bilduma mardula Pironio Kardinalari, garai haretan Erlijiosoen buruzagi zanari, eskura emon jakon.

Ehuneko larogei Adierazpenen alde agertu zan osoosoan, aldakuntza txiki batzuk gogoratuz. Ehuneko hogeiko bat Adierazpenak horreen kontra. Ez da alde makala.

Egunak eta urteak aurrera doaz; 1984an gagoz eta Erroma oraindik ere isilik, mutu. Zeozer ez dabil ondo.

Karmeldarren Jeneralak patxara bako nagitasun hori ikustean, idazki berezi bat bialdu eutsan Aita Santuari lehenbailehengo ebazpena eskatuz.

Begien bistan egoan satorren bat ebilala isilean Karmeloko lur azpia zulotzen; horren susmo txarra hartu eben itxaroten egozan guztiak.

Ez ziran oker ibili. Laster etorri zan lehenengo etsimena. 1984ko urrilaren 15an, Casaroli Kardinalak idazki bat emon eban argitara Adierazpenak legegai hori zokoratu, baztertu eta Maravillastarrei abegitasuna, aurreratasuna emonaz.

Tximistarriak jota lez ilunetan geratu zan barriro ere Karmengo mendia. Ezer ulertu ezinik jendea, ia nor izan leitekean gauza holako maltzurkeria bat egiteko itaunka.

Albiste hau jakin baizen laister, lurbira osoan, hain-

beste eta hainbeste praile, moja eta teologo aurrez gogor jarri ziran, erabagi hau iruzur gordin lez epaituz.

Jokaera honek sortutako ekaitzaldia izugarria izan zan. Elizaren bihotza bera zartada gogorrez jota agertu zan.

Haizete gaizto honek arduratuta edo, sei prailek osotzen eben Batzorde bat bideratu zan auzi larri honi irtenbide bat aurkitzeko.

Talde honek, ikutu eta orraztu bat emon ondoren, eztabaidan egozan gaiburu guztiei buruz, munduko Karmelo guztietara galdekizun honeek bialdu zituan.

Lehenengo eta behin, ia izkribu honetan idatzita doana, bai hitza eta bai hitz ingurua, Teresa Deunaren ames, helburu, gurari, espiritu eta asmobideakaz bat datorren ala ez; ia zehatz eta zuzen jasoten dituan Teresa Amaren gogo eta ikuspuntuak; ia Ama Teresak, euren eritxiz, horretara ikusi eban berak iraikitako Karmelo hori.

Eta bigarren itauna: Kontzilioaren irakatsiak kontutan izanik, ia ados egozan Alcalá-ko Konstituzioakaz.

Handik luzaro batera, Erromara heldu ziran erantzun guzti-guztiak, tartean esku lohirik sartu ez zedin bitarteko, praile salestar bati eskura emon jakozan.

Han ez egoan tranpa zulorik; legezkoa dan lez, han argi eta garbi jokatu zan.

Zein izan zan eritxi-azaltzea, galdekuntzaren ondorioa, erabagia?

Aurrean daukazun hau:

Gehiengo nagusia, hau da, 615 komentu barrikuntzaren alde autortu ziran.

Gutxiengo bat bakarrik, hau da, 186 komentu doi-doi,

ez etorren bat izkribuarekin. Honeetatik erdikin batek ez eban nahi Alcalá-ko Legediari ezetariko ikutzerik egiterik.

Ia ehuneko larogeta amar lekaime Adierazpenen alde agertu ziran. Adierazpenak ontzakotzat hartu eta baieztuteko eskatzen eben ageri-agerian.

Egunak eta urteak aurrera joiazan, eta lekaime karmeldarren legedia irtenbiderik gabe, halako zulo baten ito aginean aurkitzen zan.

Eta zulo horretan, deslaiturik usteltzen egoala eta, guztiz usteldu ordukoxe Karmeldarren Legediaz zirt edo zart egin behar zala esan eutsan J. Hamer Kardinalak Aita Santuari.

Erantzun bidez, Aita Santuaren aldetik beste bitxikeria bat: 26 gizon deitzen ditu Aita Santuak beste Batzorde bat egiteko.

Gizonik ospetsuenak egozan sartuta Batzorde honetan: ordena askotako Jeneralak, gotzainak, kardinalak. 26 gizonok, gai guztiak ikertu ondoren, guztiak aho batetik hitz egin eben: dan-danak, hogeita seirak, Adierazpenen alde agertu ziran, ezbairik gabe.

Eritxi horren harira, azkeneko idazketa bat egin eben guztien artean eta, oraingoan, Aita Santuaren aldetik onartua eta bedeinkatua izango zanaren pozez, J. Hamerek, bere eskuz, eroan eutsan idazki hori Aita Santuari.

Guztien ustean egoan, Aita Santuak Hamer-ek eskuratutako idazti hori, behingo baten onartu, bedeinkatu, legeztu eta argitara emongo ebala.

Baina, oraingoan ere, etsimena; azpia zulotzen ebilan satorrak iges egiten deutse.

Handik egun gitxira etorri zan karrask-hotsik handiena.

Casaroli Kardinalak Sáinz de Baranda, Karmeldarren ordenako Jeneral zanari deitu eta, bere aurrean, eskutitz bat irakurten deutso.

Eskutitz horrek honako hau inoan, gitxi gorabera:

-Maravillastarrei Konstituzioak ontzat hartuak eta baimenduak izan jakezala. Beraz, aurrerantzean, Legedi horren eratara antolatuko ebela euren Karmeloko bizitza. Eta, gainetiko karmeldar komentuak ere, eskubidea ebela, nahi izan ezkero, Konstituzio hori eurena egiteko.

Bien bitartean, 615 komentu, eurak onartu eta eskatutako Adierazpenak Legedi horrek bedeinkapena eta argia noiz ikusiko itxaroten dagoz.

Ehunetik larogeta hamar lekaimek eskatzen ebena ukatuta gelditu da, eta ehunetik hamarrek eskatzen ebena onartua eta bedeinkatua.

Hemen arrazoibide guztiak gainezka eginik geratu dira. Hemen Jesusek esan ebana esan beharko dogu: ulertzeko gauza danak, ulertu bedi.

Eliz jazokizun hau sakonetik azterkatu dabenak, gatazka guzti honen errudun, gizon bi jarten ditue, batez ere: Eduardo Martínez Somalo bata eta Opus Dei-ko Nagusia izandako Alvaro de Portillo bestea.

Biak ere nahiko ezagunak ditugu. Nik ez dakit nor izan dan. Gauza bat, bai, badakit: Karmeloko ordena zakabanatuta geratu dala.



OSCAR ROMERO, Gotzain martirea.

AMERIKETAN JAIOTAKO TEOLOGIA. I

AITA RUTILIO ETA OSCAR ROMERO.

Haize hotzak datorkioz Elizari Amerika aldetik ere.

Ez ditugu geure begiz ikusi, ez eskuz ikutu, ez oinez zapaldu Ameriketako lurralde zabalak. Ez daukagu, beraz, bertan ibilitakoaren ezaupiderik.

Baina, baditugu adiskide on eta jatorrak Txilen hasi eta Guatemalaraino. Egunero datoz gure etxera hango albiste eta barriak. Egunero egiten dogu harantz maitezko hegazaldi bat.

Gogoz geurea dogu, hainbeste gizalditan, ilunpearen menpean egon ostean, gaur, argitara datorren anaidi hori. Elizaren itxaropena handik datorkigu. Kristaudi erdia han bizi da. Garra eta bizitasuna darioko kristaudi horri. Maiz gorritzen da Ameriketako lurra kristau odolez.

Gaurko pastoralgintzan eredu ditugu. Ez da harri edota arantza artean jaiotako pastorala. Lur onean jaiotakoa da. Ebanjelioaren bihotz-bihotzean errotuta dator, aberats eta jakintsu. Ameriketako teologi-eskolan sehaskatua izan da. Gaur bizitza eginik dabil, herririk herri, amerikar kristauen artean. Ogi erre barria, usain gozoa dakarkigu gure buru-bihotz zahartuetara.

Maisu asko eta onak ditu gaur, ugari eta jator idatzi daben maisuak. Euren eskutik sartzen gara teologia horren barrunbeetara eta, han barnean, galburuz beteriko garitzak eta mahasmordoz ederturiko mahatsondo emoileak aurkitzen ditugu.

Kristoren bihotz taupadak entzuten dira han. Jesus, bidondoan jesarrita, jendez inguraturik. Entzuleen artean ez dago jakitunik, ez entzutetsurik, ez aberatsik, ez goimailakorik; jende pobrea da: gosetiak, ezeukiak, ezindunak, baztertuak, pekatariak···

Hau dala eta, Ameriketako Eliza horrek "pobreen Eliza" dau izena. Eta hango ebanjelioari "Askapen Teologia" deritxoe, ekintza horren goiburua gizakiaren jasokuntza orokorra dalako. Horretan sartuta dabil Ameriketako Eliza hori.

Benetan pobreen Eliza da. Kultura eta aurrerapenaren ondasun eta hobariak ez dira oraindik herri horretara heldu.

Jenderik gehiena jauntxo haundikien morroitzan bizi da, lanerako diran abereen neurrian, ezetariko eskubiderik gabe. Beste asko, teilape bat bagarik, ugerraren janari eginik, txabola antzekoetan, behar gorrian, narru gorrian eta kale gorrian.

Baina, gaur, gizaldietan zehar, handikien oinpean menperaturik egon dan herri horrek, bere kateak apurtu eta zutik "nahiko da" esan dau

Urteetako loak bota ditu. Askatasunaren oihu-hotsak zurtu dau. Gaur, herri-mina borborrean daroa gogoaren amesean. Alde batera edo bestera zirt edo zart egiteko zorian dago.

Goiak hartuko ditu edo beheak jo, baina gaurkoz, herriaren indarra geldiezina deritxat. Herri aurreratuen artera sartu nahi dabe.

Urolde handi baten antzera zabaldu da bazter guztietara herritasunaren kontzientzia. Bere burujabetza eta eskubideak eskatzen ditu. Askatasunaren haize kirria arnasa betean gozamenduten dabe.

Handikien oinpean egoteaz nazkatuta, higuinduta, orain handikien jauntxokeriak moztu; lurralde eta ondasunen zatikuntza zuzenagoa lortu; langintza eta aurrerapenari ateak zabaldu; kultura eta ekonomia aurrenengo tokietan jarri; herriaren aintzakotasuna beste herridien neurkeran sartu.

Amerika zutik dago gaur, askatasun eta goratzapen tontorrera heltzeko prest.

Eta mugimendu hau ez dabe sortu, ez biztu politikari eta herrietako liderrak. Ez da sekular erakunderik sartu mugimendu honen sorkeran, ez gertaeran. Elizarena da meritua. Elizaren asmo eta bihotzetik jaioa da. Kontzilioaren urrezko frutua; behar bada fruturik ederrenetarikoa. Amerika guztia azpian hartzen dauan zugatz aberatsa.

Kontzilioan Elizaren irudi barria egin zan. Gizaldietako hautsak eta okerrak kenduta, ebanjelioaren antz-irudi eta arabera eginiko Eliza gazte bat atera eben mundura Kontzilioko gurasoak.

Eta Eliza horren bihotzean, toki berezian, behartsuak ikusten ziran. Eta Amerika behartsuz beterik egoan. Hartu ezinean hainbeste behartsu.

Eta Amerika aldean, ebanjelio lanetan ziharduen elizgizon, gotzain, misiolari, lekaime, kristau jator, Jaunaren

otseintzara zinaturiko guztiak, behartsuen Eliza hori Amerikan bertan egoala konturatu ziran.

Jende haren arpegira begiratzea nahiko zan ha jendea gosez erreta bizi zala konturatzeko; hirugarren edo laugarren mailako mundua zala jende harena; lurrezko eta lastozko txaboletan moldatzen ebela euren bizimodu kazkarra; kendu gabeko gosea eta miseria euren haragietan titakatuta, barrura sartuta eroiela; ez eskolarik, ez ospitalerik; abereak lez tratatuak zirala; abotsik gabeko gizakiak, hitza kenduta eukeelako...

Jo, zauritu, zigortu, lanpetu jauntxoaren kapritxora, hau da, zoritxarrez, abereak baino txarrago erabilitako gizon eta emakumeak zirala herritar errukarri hareek.

Hantxe egoan, ba, pobreen Eliza hori. Ordu ona zan, beraz, herriaren kontzientziari sua emoteko. Gogoak zuzpertzeko. Injustizia horren kontra borrokan zutitzeko.

Jaunaren Espiritua ere, han ebilan, ziur asko, hegoak zabalik, Ameriketako Eliza horri bide barriak izendatuz.

Era batez, holako orduetan ohi izaten dan lez, Jaunak bere herriari profeta jator eta argiak bialdu eutsazan; herri gidari azkar eta kementsuak.

Gidari horreen esan eta aginduetara pilatu zan herria, eta hareen aginte eta berbara jokatu. Uste osoa euken euren buruzagiengan herritik urtenak ziralako.

Orain, eremuko basartetik zehar, askatasunerako bidean sartuta dagoz. Nik eztakit askatasun egunsenti hori inoz ikusiko daben ala ez, baina euren gogoak eta bihotzak, gaurgandik, aske ikusten dituela bai; gogoz askatuak sentitzen diralako.

Bitartean, martiren odol asko jausiko da bidean.

San Salvador, Ertamerikako herrialde txikitxo bat da. Gitxi gorabehera Euskalerriaz neurtzekoa. 250 kilometro luzeran eta 100 zabaleran.

Hementxe jausi zan pobreen Eliza horren alde isuritako lehenengo odola, 1977-ko martxoaren 12an. Antxe hil eben militarrak Aita Rutilio Grande, jesuitea, Aguilaresko parrokoa.

Hamasei sendi jauntxo dira Salvadorreko nekazaritzako lur guztiaren jabe. Gainetiko guztiak hareek emondako apurretatik bizi dira.

Lurralde guzti horreek, jakina, bertako luginai indarrez ostutakoak dira, garai baten, luginak erabili eta landutakoak, gurasoekandik hartutako sortetxeko ondasunak ziran eta.

Injustizia hau zan Aita Rutiliok salatzen ebana. Baina, beti lez, salakuntza hau ez zan jauntxoen gustokoa izan. Eta arratsalde baten, meza emotera joiala, militarrak bidera urten eta bertan tiroka garbitu eben Aita Rutilio, bere laguntzaile biekin batera. Jesusi ezarri eutsoen pekatu berbera leporatu eutsoen Aita Rutiliori ere: "Jendea gure kontra sutu eta matxinatzen dau"

Aita Rutilioren heriotz doilor eta zitalak, herria suminaldi bizian jarri eban. Otsoari hortzak ikusi eutsoezan, baina ez eben haren bildurrez atzerarik egin. Euren eskubideen alde hasitako iraultza baketsua aurrera eroateko adorez beteago egin ziran.

Ez zan indarrezko iraultza. Ez eben inor joko, gogor hartu edo eta barregarri erabiliko. Ebanjelioaren kontrakorik ezertxo ere ez zan egingo.

Ekintza bakotxa, egingo zan guztia, ezer baino lehen, danen artean ebanjelioaren argira ikusi, azterkatu, alkarrizketa zabalean berbatu, alde onak eta txarrak begiratu,

otoitz egin, argia eskatuz eta, azkenez, kontzientziak bururatutakoaren arabera jokatu.

Ez ziran ez, jauntxo handiki hareek esaten eben lez, eta beste asko sinistuta egon diran lez, Leninen kabian jaiotako txakurkumeak.

Mundu zuzenago baten alde ekintzan sartutako Jesusen jarraitzale jatorrak ziran. Beraien duintasuna eta eskubideak eskatzen zituen beste ezeren gainetik.

Antxinako jakitun baten esana da: martiren odola, kristau barrien hazia izaten dala. Eta holako zerbait jazo zan Aita Rutilioren odolaz ere. Bertatik frutuak emoten hasi zan.

Bere hiletak egiteko ordua zan. Arratsaldeko zazpirak. Han egozan hiru martiren gorpuak alkarren ondoan. Handikiak eta militarrak izan ezik, beste gainetiko guztiak han egozan, gorpuen inguruan.

Beste martiri ospetsu bat izango zan hiletako mezea emongo ebana: Oscar Romero, gotzaina.

Gotzain egin barria zan Romero. Behar bada, gotzain lez, harexek izango ziran bere lehenengo hiletak. Goibel eta ilun agertzen zan Oscar.

Rutilio, bere adiskide mina, abade zintzo, langile eta Jainkozalea modu haretan erailda ikusteak bihotza minez leherturik itzi eutsan. Negarrari eutsi ezinik egoan.

Askok dinoe Oscar Romeroren bihotz-barritzea, "konbertsioa" hementxe egin zala. Ordurarte, Romero bere eritxi, pentsaera eta egintzetan, gartsua eta aurrerakoia barik, erdiko edota epel aldeko gizon lez izendatzen eben. Gizon baketsu eta bihotz zabala. Gotzain neurritsua.

Jon Sobrinok dino, ez dakit non, Aita Rutilioren gorpu hilaren aurrean egoala, jausi jakola Oscar Romero Jaunari begietako lausoa.

Rutiliok arrazoia eukan. Haxe zan fedea zabaltzeko eta herriak askatzeko eredutzat hartu behar zan pastoralgintza Amerika aldean. Haxe zan bide zuzena; ebanjelioa usaintzen zan Aita Rutilioren inguruan.

Aita Rutilio Jesusen antzera hil bada, bere anaiakaitik odola emotean maitasunik handiena erakutsi badau, horregaz bere bizitza eta misioa ere Jesusenaren antzekoak izan dirala argi erakutsi dau. Jesus Jaunaren jarraitzale jator eta benetakoa izan dala...

Eta hementxe erabagi eban Oscar Romerok Aita Rutilioren urratsai jarraitzea. Gaurtik, beste gizon bat da Oscar Romero.

Gobernuak herriaz egiten zituan injustizia, basatikeria eta gehiegikeriak agorik ago ebiltzazan.

Espetxeratzeak, zigorketak, bahikuntzak, erailketak eguneroko barri bihurtu ziran. Eta Oscar Romerok, gobernu eta militarrak holako zereginetan jarraitzen eben bitartean, Eliza eta gobernuaren arteko hartu-emonak, zubiak ebagita, isilik egongo zirala iragarri eban. Giro horretan ezinezkoa zala aitumena.

Igandetan, bere katedralean egiten zituan homilia mamitsu eta argiak irratiaren bidez herri guztiak entzuten zituan.

Eta, bai, pozik entzun ere bere hitza; txingar goriaren antzera sartzen zan herritarren bihotzetara. Gidari jator eta kementsuaren neurria emoten eban Romerok. Fidatzeko pertsona zan. Artaldearen ondoan beti zain egoan artzaina.

Azkenbako injustizia eta barrabaskeriak egiten zituan oligarkiak, baina danak aurkitzen eben erantzun egokia Romeron agoan.

"Elizak, egintza honeek salatzen dituanean, abotsik ez daukenen abots egiten da. Herriaren egiazko onari zerbitzen deutso, eta herriak hori eta gehiago merezi dau. Pobre eta behartsuen eskakizunai ezin daikeoe Elizak gorrik egin, horreen agoz Espiritu Santuaren deadarrak datoz eta.

"Elizak, nahitaez, salatu behar ditu "erakundezko pekatuak", hau da, gizarteko erakunde bihurriak, nahiz ekonomiazko nahiz politikazko erakunde ustel eta galgarriak izan, herriaren kaltetan eginak direlako".

Elizgizonen artean ere, bildurti eta koldar asko dago. Otsoak etorten ikusi arren, ez dira artaldera hurreratzen. Bururik nekatu gabe, etxeko bero gozoan egon nahiago izaten dabe. Ez dira aurrelari ibilteko jaioak. Kasta honetakoak diranak nekez onartu eta bedeinkatzen ditue arrisku eta zemai artean dabiltzazanen lan eta burubideak.

Kasta hau edozein tokitan aurkitzen dozu. Bideko txindurriak beste dira.

Romero gotzainaren inguruan ere agertu ziran holako hainbat. Bere kontra egiteaz gainera, Erromara salatzeko bideak ere aurkitu ebezan. Betikoa!

Holako gizakiak beti behar izaten dabe norbaiten izena hagin artean triska-triska egiteko. Noiz konturatuko ete gara anaia martiritzan errete hori pekaturik baltzena dala.

Gaur ere, Jesusek antxina esandakoa hutsik gabe, hitzetik hitzera betetzen da: "Ni jazartua izan banaz, zuek ere jazartuak izango zaree".

Salakuntza gogorregiak egiten zituala, urrinegi heldu zala, itsukeriak lausotuta ebilala, nahaste eta hasarreak sortzen zituala herritarren artean, eta abar. Honako esa-

mesak entzuten ziran albotik gotzainaren kontra. Otsoz ingurututako bildotsa emoten eban.

Gauzak halan ikusita, bere senditarrak ere, dana bertan behera itzita, handik iges egiteko esaten eutsoen.

Baina Romero, bere eginbeharra zan lez, tinko eta sendo, inoz baino ziurrago aurkitzen zan artzain lez, bere artaldearen ondoan.

Berak inotsen: "Zer nahi dozue zuek, gobernuari gizakiak hilten iztea ala?

Nik ez dot inor ofenditzen; ni egiari zor naiako. Ez deutsat bildurrik heriotzari. Jesusen oinetan otoitzean egonaz, beragandik hartzen dodan egia iragarten deutsat herriari. Inor ofenditzen bada horregaitik, pekatua berea izango da".

Romero ez zan gizon politikaria. Ez ezkertarra, ez eskubitarra. Herriak, demokrazia garbi baten bidez, bere burujabetza eta eskubideak lortzea zan bere amesa. Demokraziaren lege eta araubideak jarri herrian, herria bere duintasunera jaso, horixe zan Romeroren politika.

Baina, hauxe da politikarik arriskugarriena goiko oligarkiarentzat.

Horregaitik, behin herriaren onerako Jesusen odola eskatu zan lez, gaur Salvadorren Romeroren heriotza eskatu da herriaren bakerako. Azken aldian, egunero heltzen jakozan heriotz zemai eta mehatxuak.

Eta azkenean, aldaran atrapau eben, meza emoten egoala. Aldaran bertan, tiroka eratzi eben. Beste behin, odolez gorritu zan aldarako harria. Romero izan da, gaur, aldaran herriaren alde opari eginik eskeini dana.

Baina ez zan nahikoa Romeroren odolaz. Odol gehia-

go behar zan oligarkiaren odol egarria asetzeko. Bere hiletako elizkizunak egiten egozala eta herri osoa katedral inguruan batuta, militar basati hareek barriro etorri eta barriro metraletak herriaren gainera hutsitu zituen.

Hemetik dakigu ze narrutakoak diran militar eta oligarka horreek.

Rutilio eta Romerorekin batera, beste askok ere sufritu zituen jauntxo eta militar doilor horreen eraso basatiak.

Zigortuak, espetxeratuak, erbesteratuak, bahituak, jazartuak, herriaren askatasunagaitik erailak...

Odol barik, antza, ez dakigu ezer onik egiten. Ez dogu piztien mailatik goragora igon. Betiko hortxe gelditzeko arriskuan gagoz.

Salvadorreko herriarentzat Oscar Romero, gaur, santua da. Herriak jarri dau santutegian. Santuen hiru ezaugarri edo marka aurkitu ditu beragan: Artzaina, profeta eta martirea.

Herriak berak egin deutso hitzaldirik onena: "Romero Jaunak egia esan dau, pobreak eta herria defenditu ditu, eta horrexegaitik hil dabe".

Romero lakoxe gizon asko behar ditugu gaur, Eliza aurrera aterateko, bere antzeko artzain eta gidariak Jesusen ebanjelioa sinisgarri egiteko.

UCA-ko Unibersitatea.

Zorionez, Ameriketako lurrak, azken aldiotan, holako gizon argi asko emon ditu.

Oraingoan, izarrak Amerika aldera jo dabe. Han batu dira zein baino zein diztiratsuago. Romerorekin eginikoa izugarria izan bazan, UCA-ko Unibersitatean egin dabena ere ikaragarria izan da. Militar anker batzuk, gauaren babesera, Unibertsitatera sartu eta goizaldeko bostak

aldera, lurrean agoz behera jarteko agindu ostean, tiroka zatituta itzi ditue sei jesuita jakintsu.

Unibersitateko goi-mailako irakasleak ziran, eta euren artean Aita Elakuria, Portugaleteko seme jatorra.

Etxeko sukaldaria eta bere hamabost urteko alabatxoa ere bertan garbitu ditue.

Mundu guztia harrituta itzi eban dongakeria honek. Zergaitik doilorkeria hau?

-Eta Oscar Romerogaitik esan doguna berbera esan behar: Traba egiten ebelako! Ez dago beste arrazoibiderik.



PEDRO CASALDALIGA, Brasilgo Gotzain Misiolaria.

AMERIKETAN JAIOTAKO TEOLOGIA. II

PEDRO CASALDALIGA

Hegoamerika guztian zehar pil-pilean dabil Elizaren pastoralgintza. Gure begiak harantz begira dagoz.

Kontzilioak eskatutako Eliz barritzeak kontzientzia zabala aurkitu dau, hainbaten, Ameriketako elizbarrutietan. Elizaren eztanda egite bat lez izan da, ziur baten, azken urteotan han jazo dana.

Herriaren aurrerakuntza eta jasokuntza daroaz ardatz lez Elizaren ekintza horrek. Ezpata bako askatzaileak dabiltz han. Gaurdanik, Amerika aro barri baten sartuta dago.

Gizaldietan etsaiaren oinpean azpiratuta egon dan herriaren antza emoten dau. Ez dau askatzailerik izan. Handikien morroitza apalean isildurik, bereizpendurik, beti ezinean bizi izan diran herrialdeak dira.

Ez dabe aurkitu nork jaurti askatasun haizetara; nork gidaritu jasokuntzara, nork irakatsi giza-duintasunaren eta nortasunaren ederra.

Menpetasunean biziteko jaioak zirala sinistuta egon dira. Honetaratuta egozan. Gaur, eremu hori itzi eta askatasun lurra iritsi nahian dabiltzaz. Menpeko kateak apurtu eta askatasuna eta gizabizitza duin eta deduzko baten bila dihardue, ekintza bizi eta gogorrean.

Pastoral ekintza honen erabideak eta metodoak jakin gura gendukez guk, geure ebanjelizatze lana zelan egin asmatu eta bide onean jarri ahal izateko.

Frutu ugari eta ezin hobeak emon ditu, nahiz eta beti kurutzapean narrazka martiri asko itzi.

Egia da, Eliza herri horren ondoan egon dala, gizaldi askoren buruan. Baina, nahiz eta lan ederra izan Elizak egin dauana, ez da izan, halan ere, lan askatzailea, zuzpertzailea, aurreratzailea.

Ez da gizartearen muinera sartu; ez ditu ikusi eta hartu bereak lez gizon eta emakumeen arazo, ezintasun, neke, gehiegikeria, sufrimentuak eta abar.

Ez dau izan gizakiaren egoera larri hori ikusteko begirik. Lausoak jota egon da horretan. Aurrez aurre, agerian eukazan mundu errukarri hau zorigaiztoko egiten daben erakunde gaizto eta ustel horreek, baina, antza danez, Elizak ez eban hor pekaturik aurkitu. Dana dala, gizakiaren jasokuntza eskutik joan jakon.

Jaungoikoaren inguruan biribildu dau erlijiotasun guztia: fedea, otoitza, sakramentuak, kultoa, kristau erakunde eta morala... Gorantz doan erlijiotasuna landu dau.

Lurreko arazo, zeregin eta enparauak, ostera, ez ziran hainbestean Elizaren ekintzan sartzen. Ez jaken haibesteko garrantzirik emoten; gizakia zerbait estalita lez geldítzen zan orduko pastoralgintzan.

Hau esatean, ez dogu Eliza errudun egin nahi, ez; holantxe ziran gauzak, eta kito!

Gaurko teologian, barriz, gizakia eta mundua lehenengo tokian agertzen dira. Jesusen salbakuntzan, gizaki osoa da salbatzen dana: gorputz eta arimaz. Jesus, erabat, munduko gatxa, pekatua kentzera etorri zan; Jaun-

goikoak, bere asmobideetan ikusitako mundu barri bat egitera. Salbamena bere orokortasunean biribildurik azaltzen dau gaurko teologiak.

Teologia hau kontziliotik honantzakoa da; han ditu sustraiak. Baina Amerika aldean eztanda egin da agertu da. Hots handiko izena ezarri deutsoe: "Askapenaren Teologia". Teologia honetan oinarrituta dator gaur Amerika aldean eginean dabilen pastoral guztia.

Agintedun, indardun eta dirudunen eskupean gizaldietan menperaturik egon dan herria eta erlijioa askatzea da teologia honek lortu nahi dauan helburu nagusia.

Nahiz eta gotzain eta elizgizon batzuk ikutu eta apainketa txiki batzuek tartekatu pastoralgintza honi, ehun milatik gora dira praile eta lekaime, Amerikan zehar, CLAR Erakundean sartutakoak, bertako abadetzarekin batera, Medelin eta Pueblan eginiko aukeraketa eta erabagiak kontutan izanik, pastoralgintza honi zintzo eta jator jarraitzea euren bihotzeko gurari egin dabenak. Honez gainera, pastoralgintza hau asmatu, eratu, dotrina egin, irakatsi eta beren gain hartu daben teologoak asko eta puntakoak dira. Izen batzuk jarri gehinkez hemen: Gustavo Gutiérrez, Leonardo Boff, Herder Cámara, Pedro Casaldaliga, Oscar Romero, Inazio Elakuria, Jon Sobrino, eta abar.

Amerikarren teologia honek ere, jakina zan lez, Erromako maisuen aldetik, oharpen eta gaitzespenak jaso ditu. Baina, ez ditugu hemen kontutan hartuko.

Interesgarriagoa izango jaku, zalantzarik gabe, esaterako, Pedro Casaldaligak Elizari buruz dituan ikusmira, eritxi eta pentsaerak jakitea.

Zelan egiten dauan bere misiolaritza han Brasil-go Mato Grosso zabalean, Sao Felix misio lurraldean. Zelako

Eliza ikusten dauan bere begi-bihotzetan, suzko igarle olerkari honek; zeintzuk diran, bere ikusmiran, gaurko Elizaren ibilbideak; zelakoa litzaken Eliza hoberen hori...

Soinez txikia eta argala da, baina berbaz eta gogoz Elias igarlea lakoxea. Ebanjelioa Jesusen agotik zuzenean edan dauan gizon itzalgarria dirudi.

Munduko bazter baten galduta dagoan lurralde basati baten dauko misio-lurra. 150.000km2 ditu bere misio barrutiak.

Jakintsua da, hizlaria, idazlea, olerkaria, gotzaina, baina bere izakeran, apala, erraza, launa, berezkoa. Handi-mandikeriak aspaldi zinautsi dituana.

Berak dirausku zelakoa dan hango jendea.

Alde batetik handikiak eta jauntxoak dagoz. Hango lurralde eta aberastasun guztien jaun eta jabe diranak. Gainontzekoak jopu-morroi dira: indioak, baltzak, luginak, alogerekoak, beso-langileak... Oinpean zimaurra zapaltzen dan lez tratatuak diranak.

Bildurra hazurretaraino sartuta dauka jende hareek. Beti zigorpean, makilapean, pistolapean, heriopean dabildez jauntxo hareek, horretarako erosita daukeezan pistoleroen bidez.

Lege bako lurra da; gogorrenak jarten dau legea. Eguneroko arazorik handiena jateko zertxobait eskuratzea izaten da, gosez ez hilteko.

Ez etxerik, ez lantegirik, ez medikurik, ez errepiderik, ez tximistargirik, ez eskolarik, ez ospitalerik, ez merkaturik, ez urrutizkinik... Jaungoikoak mundura bota eban lez dago lurralde hori.

Eta hantxe dago gotzain lez, artaldea zaintzen, otsoakandik babestuz, gure Pedro Casaldaliga.

"Militarren agindupean, gobernuak bost bidar bota

nahi izan ninduan Brasildik -diño berak-. Lau aldiz hartu eben armapean misioa. Estukuntza eta bildurra sartu nahi eben indio errugabe hareen artean.

Bahituak eta torturatuak izan gara, baten baino gehiagotan misioko arduradunak, inoz heriotzaz zemaituak ere bai. Mato Grosson, martiri asko gelditu da bidean".

Gotzain egin eben egunetan, gotzain idazti bat argitaratu eban, guztien jakingarri.

Idazti horretan, ausartasun ikaragarriz, hurrengorik hurrengora, edonork ulertzeko eran, bera herririk herri pastoral zereginetan ebilala aurkitutako feudalismo eta menpekeria azalpentzen zituan.

Ugazabak eta handikiak langileekin egiten zituen basatikeria eta ankerkerien bilduma luze bat zan izatez. Berak bere begiz ikusi eta egiztatutako gertaera larriak. Maisterren herriak ziran gehientsuenak.

Langileei iruzurrez lan-saria ostuten jaken; edozein ergelkeriagaitik alogerekoa murriztu; eginezin ahalako lanak pistolapean eraginazo; gizakiari zartako bat emotea barre egitea lez zan; txarrez zauritutakoak erreskadan; abereen tratamena gizakiena baino hobea zan; borreru batzuen kasketaldien pentsura, babes gabe, lege gabe, eskubiderik gabe herri osoa; askotan erbiak lez arrapatuak, heriotza edo bizia halako anker-basati baten eskuetan giltzatuta.

Tximista bat lez jausi zan idazti hau handiki eta lurdunen artean. Bertatik etorri jakozan oharpen eta adiera garratzak, haginak erakutsiz, handiki horreen aldetik.

Bere lagun batzuek ere horrenbestean ez sartzeko inotsen, azken baten, arazo horreek politikoenak zirala eta. Bide horretatik jarraitzekotan, laster eukala heriotza gaizkin horreen eskuetan.

Baina, Paulo deunaren doai eta ausardiz jantzitako

gizakia da gure gotzaina. Zertarako nago ni hemen ebanjelioa iragarteko ez bada? Nok debekatu leist hori? Horretarako bialdu nau ni Kristok. Ebanjelioa osoan iragarri eta osoan bete behar da.

Eta bere misio lana, taiuz eta buruz egiteko, bere lagunkide eta partaideentzat holako araubide batzuk jarri zituan, inor bidean galduta ibili ez zedin.

Lehenengo eta behin, misiolaritza gaurko eratara egingo zan, ohikuntza zaharrak alde batera itzita. Kontzilio aldian amestutako Eliza gazte, azkar, egile, ireki, buruz behartua, itundua, konprometitua lehenbailehen bere elizbarrutian lanean jarrita ikusi nahi eban.

Amerikarren zanetatik askatasun ames bat, itxaropen abesti bat ebilala susmatzen eban. Bihotzak bat eginik joiazala eremutik zehar askatasun mendira. Beraz, kolonialismo guztiak ezetsita gelditu ziran. Bolborrera botata.

"Amerikari bere arpegia, bere nortasuna, bere izakerea, jatorriz berea dan guztia emon beharrean gagoz justiziaren indarrez" inoan.

Orainarte egin dana ebanjelizatzea barik, desebanjelizatzea izan da, errege baten zerbitzuan eta kanpotik ekarritako hizkuntza eta kultura baten buztarripean egin dalako, bertako hizkuntza eta ekandu zaharrak hilaraziz. Bertako kulturatik sortutako misiolaritza bat egin behar da, gauzak legez egitea nahi badogu.

Gizakiaren beharrizanak, batez ere txiroenak izango eben lehenengotasuna ebanjelizatzeko orduan, Medelin eta Puebla-ko Batzarretan erabagita geratu zan lez.

Gizakiari duintasunez eta begirunez biziteko behar dauan guztia emon behar jako: askatasuna, eskubideak, itzala, lana, bizilekua, aurrerakuntza, gorengotasuna, hau da, Jaungoikoak emona bihurtu behar jako gizakiari, bestela ez dago misiolaritza onik. Jaungoikoatzaz mintzatu, baina behartsuen neke-minetatik.

Eliza barriaren zutoin lez, herri eta parrokietan, kristau alkarte txikiak sortu nahi ditu, bakotxari ardurakizuna eta burujabetza emonaz, tokian tokiko elizaren legamin eta bizigarri izan daitezan. Hortik katekista jator eta eginak moldatu eta antolatzearen garrantzia.

Herriaren itxaropenak, amesak, helburuak, nekeak, txirotasuna, borrokak eta abar norberenak egin, partaide izan holakoetan. Elizgizon, lekaime, gidari sekular, gotzain eta gainetikoak beti bateginik herri eta Elizaren aldeko ekintzetan.

Bitartean, Casaldaligaren kontrako erasoaldiak geroago eta gordinagoak, izuagoak ziran. Sao Felix-ko gotzaina komunista nahastatzaile hutsa zala zabaldu eben herririk erri lurdunak, euren bizkarrak zaintzeko zituen ogimutilen agoz.

Baina salakuntzak ez datoz handikien aldetik bakarrik. Zoritxarrez Eliza ere partaide da honetan. Sigaud, Brasilgo gotzainak, Lefelvren adiskide minak, Casaldaliga erbestera bialtzeko eskatu dau.

Erromara kartak joan eta kartak etorri dabiltz. Heriotza hurbilduez dator herrietara. Odol erretenak ikusten dira zokoetan; kristau asko bahituta eroan ditue; gotzainaren laguntzaileen bila dihardue batez ere armadunak...

Gotzainaren etxe apala ere askotan armaz hartu dabe eta goitik beheraino arakatu; lekaimeen etxea ere bardin. Metraletak dira nagusi. Etxetik urtetea galerazota dauka. Bost eta sei egun holantxe.

Bitartean irainak, agokadak, zartakoak, apalmenak, danbatekoak hartu ahalak emon. Piztiak ere ez dauke haibesteko odol egarririk.

Bildurra sartu gorputzeko unetaraino. Estutasunez bihotza ito. Hantxe hil eben Joao Bosco, jesuita, buruan tiro bat emonda.

Casaldaligak laster ulertu eban noren kontra joiazan erasoaldi hareek. Honela idatzi eban: "Mato Grosson jazarpean dabilena ez da gotzaina, ez eta Eliza ere; Brasilgo herria bera da jazartuta dagoana. Beti lez pobre, isil, menpeko euki nahi dabe indarraren eta bildurraren ahalmenez eta eraginez"

Bitartean, arazoak pilatuaz doaz gotzainaren mahai gainera. Erromatik dei zorrotza datorkio "ad limina" deritxon ikustaldi hori egitera joateko. Casaldaligak ez dau baten ere egin Erromako agerraldi hori, eta egiteko gogorik ere ez eukan. Eritxi kazkarra eukan horri buruz; handi-mandikeriaren usaina hartzen eutsan eta bera ez zan horren zale.

Baina, dei hau zala eta, bere txabola zaharretik Vaticano handira, karta bat idazten deutso Joan Paulo II.ari.

Benetan ikusgarria da karta hori. Berari entzunaz bakarrik harritasuna eta itzala sortzen ditu. Gizakiak nekez emon leike neurri handiagorik.

Guztiz Jaungoikozale dala emoten dau. Apala, otzana, nekezko zanakaz eginikoa, behartsuen babesa, bere elizta-rrakaitik mila bidar bizia emoteko gertu dagoana; pobrea gorputz eta arimaz, maisterrakin lurrean jarrita ogia jaten dauena. Jainkozko gizakia.

Igarle handi bat lez agertzen da Aita Santuari dagitson ageri horretan. Itzal handiz diñoz gauzak, baina ezer gorde gabe. Gotzainen eredugarri lez ikusten dot nik hemen.

Eskutitz luzea da. Berak Elizari buruz dituan burutapen eta irizpideak agertzen deutsoz Aita Santuari. Laburpen antzeko bat egiten saiatuko gara.

-Jesusen Aita dan Jaungoiko biziak epaituko gaitu. Halan ere, itzi, arren, neure bihotz hau nire anai eta Artzain zaran horren aurrean hutsituten. Zuretzako dodan gogorik zuzen eta onenaz, maitasunik zintzoenaz idazten deutsudala autor dagitsut.

-Jaunari eskerrak eta bere laguntzaz, ez dot itzi neure eguneroko otoitza, unerik gogor eta larrienetan ere. Sinistean gogor nago; tinko eta asmo biziz zaindu dot neure bokazioa arrisku guztietatik. Honetan neure anaien laguntza baliotsua izan dot. Etenik gabe aurkitzen izan gara alkar geure ikastaro, batzar, otoitzaldi eta ospakizunetan.

Guzti honi esker, ez naz Jesusen bidetik inoz aldendu, eta aurrerantzean ere, hil arteraino, Egia eta Bizitza dan Jesusen bide horri jarraitzea zin eginda daukat.

Nuntziotegitik, hiru aldiz hartu dot, premiazko deia "ad limina"-ko ikustaldi hori egiteko.

Dei honek naroa eskutitz hau idaztera. Erromatik hartutako hiru agirietan, nire misio lana eta nire tankera eta erabide asko, ezbaidan ezeze guztiz ezetsigarriak lez aitatzen dira.

Txiki eta kaxkar sentitzen naz hain ulergatxa dan Brasilgo Amazonia baztertxo honetan, eta hainbeste zalaparta, iskanbila eta zaramar dabilen Amerika ezezagun honetan. Ez da bat ere erraza hemengo gorabehera, gertaera eta giroaren goibeheak ondo jakin eta ulertzea.

Horra joan aurretik, zuri eskutitz agiri hau idaztea erabagi dot. Honelan gauza guztiak, argi eta garbi, ezer gorde barik, idatziz eta ezagutuz, txutxu-mutxuak alde batera itzita, biok biotara alkar hobeto aitzeko bidea izango dalakoan nago.

Ez ausarditzat hartu nire ergelkeria, Elizari arrotz eta

minezko jakozan gai, arazo eta gertaera batzuk hemen ikutu eta argitaratzen baditut.

Horreetariko tema asko Elizan aspaldian eztabaidan dagoz, baita uko eginda ere, batez ere gaurko egunetan, pluralismoaz batera, gauzak ikertu, azterkatu eta eritxiak emoteko ohitura eta eskubidea gizartean ohizko egin dan garai honetan.

Arazo mingarriok Aita Santuarekin barriro berbaroan jartea, niretzat ardurakizun handi bat da une honetan, arazo horreekin larriturik dagozan gotzain asko, miloika kristau, eta kristau ez diran beste erlijioetako eta munduko pertsona askoren hitza eta ordezkaritza neure gain daroadala ziur nagoalako. Une honetan askoren abots eginik nagoala deritxat.

Elizako gotzain nazan ezkero, zor deutsat Elizari zerbitzu hau: neure sinismena danen aurrean autortu eta oihukatu eta, gotzain bati dagokion askatasunez, Elizari buruzko neure irizpideak agerian jarri.

Baina ez neuskio Elizari zerbitzu onik egingo isiltzeaz, gauzai joaten izteaz.

Badaezpadako erakundeen aurrean itsu eta mutu egitea, errazago litzakit niri, baina hori ez litzake kristauago eta, oraindik gitxiago, onuragarriago izango Elizarentzat.

Gauzak esatea, aldakuntzak eskatzea, egikera barriak asmatzea eta abar, jende kikil eta berenean mugatuta dagoanarentzat oztopide, jauspide izan daiteken lez, era berean, Elizaren barrikuntza eta aurrerakuntzaren zain dagozanentzat oztopide eta jauspide izan daitekez isilik egotea, badaezpadako egiturak onartzea, zirkinik gabe betikoan lo gelditzea, ezeri ikuturik ez egitea, salakuntzarik ez egitea...

Mundu honekin konformagatxa izanik, Elizak

Jesusen ebanjelioari zintzotasuna eta leialtasun oso eta betea zor deutsoz herrialde bakotxari, bere izakeraren arabera, iragarri behar deutso Jaunaren Hitza.

Herri bakotxak bere nortasuna eta bere gogoaren odoletik datorkiozan berezitasunak ditu, esaterako, bere hizkuntza, historia, kultura, ohiturak, ekanduak...

Eta Elizak ebanjelizatzean berezitasun horreek itzal eta begirune handiz zaindu eta gorde behar ditu. Kultura horregaz jantzi ebanjelioa eta ez bestetara, hau da, kanpotik ekarritako kultura arrotz bat ezarri eta harrerazo herriari, orainarte egiten izan dan lez.

Honetan Elizak huts edo hanka sartze bat egitea, herri hori Elizaren kontra jartea litzake. Ebanjelizatzea egitean lehenengo jakin behar dan araubidea da.

Eta hau herriarekin egonaz eta herriarekin batera ibiliaz ikasten da, eta ez urrinetan egonaz. Arrano guztien erpa artetik zaindu behar dogu geure ardurapean daukagun herria. Holantxe bakarrik egiten da sinisgarri ebanjelioa.

Sozial mailari dagokionez ere, ezin geinke esan oraindik pobretasuna urrundu eta uxatu dogunik. Ez da ikusten pobretasun hori ez gure bizitzan ezta gure erakundeetan.

Honez gainera, aberastasun gaiztoaren aurrean ez ditugu Jesusen tankera eta egikera bizi eta zorrotzak hartzen. Haren odola eta garra zor jakuz aberastasunak kondenatzean.

Ez da hemen aberatsa kondenatzen, ez. Aberatsa ere Jaungoikoaren seme da; Jesusen salbamenean sartuta dago. Hemen kondenatzen dana, aberatsen bizikerea da, pobreentzako irain gordina dan bizimodua.

Aberatsak aberastasunak egiteko erabilten dituen

lapurbideak, lapurbide horreekaz baliatuz, sendi eta herrialde osoak gose eta miseripean hondatuta gelditzen diralako. Gizarteko gaizkinak dira.

Ez naz "ad limina" deritxon ikustaldi hori egitera joan, nahiz eta horretarako deia neure esku euki. Ez jat begiko ikustaldi hori gaur dagoanez. Neure ustez erabarritu beharrean dago. Eta hau lortzearren atzeratu dot neurea.

Gotzain asko eta askori entzunda nago, ikustaldi horretatik baliozko ezer gitxi ateratzen dala. Ez dala ikusten hor gotzain eta Aita Santuaren arteko kolegialtasunik; ez dirala hartu-emonak bardintasunean eroaten; epaiketa antza dauala; oharpenak, aholkuak eta aginduak emoteko urtenbide bat dala. Tradizio bat bete bai, baina hortik gora ezer gitxi lortzen dala.

Ez ahal dago gaur era egokiagorik Aita Santua, mundu zabalean eta elizbarruti bakotxean jazotzen danaren jakitun jarteko? Ez ahal dago tokian tokiango Elizak Erromako Elizarekin hobeto alkartu eta aitzeko erarik? Jakina baietz, baina horretarako arautegia eta egikerak aldatu behar. Eta horren zain gagoz gotzain asko.

Ezinezkoa da Aita Santuak, nahita ere, munduan zehar zabaldurik dagozan Eliza guztien eta bakotxaren ezaupide zehatzik eukitea. Ez dago horretarako tokirik onenean.

Beraz, ez deuko aukera onik, eliza bakotxean agertzen diran arazo eta beharrizanei erantzunkizun egokiena emoteko. Horretarako dagoz lekuko gotzainak, pastoral batzarrak eta kristau alkarteak, horretarako baita Gotzainen Bazkunde orokorrak ere.

Baina, neure eta beste askoren ustetan, Gotzainen Bazkunde orokorrei beren baliotasuna eta garrantzia

murriztu nahirik, baztertu eta esku hutsik izteko azpilanetan ikusten dogu Erromako kuria. Eta, uste dogu, Gotzainen Bazkundeak badabela Erromako kuriak besteko izatasunik.

Aita Santuak, beste gotzain guztiak lez, talde laguntzaileak behar ditu bere goi mailako lanari erantzunkizun egokia eta bizkorra emoteko; baina, talde horreek apalagoak nahi gendukez eta, batez ere, besteekin lotuagoak.

Guretariko askorentzat talde horreek ez datoz bat ebanjelioak eskatzen dauan xalotasun eta umiltasunaz, ezta Jaunak nahi dauan anaien arteko alkartasun eta kidegoagaz ere.

Ez dabe Elizaren orokortasuna adierazten. Elizaren ardurakizuna eta zuzendaritza beste taldekideekaz, orokortasun zabal baten arauz zatitu eta eginean jarri beharrean, besteen eskubidei uko eginaz aginte osoa euren eskuetan bakarrik bateratu nahi dabelako.

Sarritan alderdikideen txutxu-mutxuak aintzakotzat hartu eta besteen arrazoibideai muxin egiten jake.

Zuzenak eta artezak izatekotan, emakumea Elizan zeharo baztertuta dagoala autortu beharko dogu. Elizako legedian, liturjian, pastoralgintzan, erakundeetan...

Elizak emakumearekin egiten dauan bereizpen hori inondik ere ezin daiteke ez zuritu, ez legeztu. Ebanjelioak ez dau gizonaren eta emakumearen arteko bereizpenik egiten. Han bat dira biak.

Gizonezkoak izan dira, gizaldien joanean, Elizako lege, araudi eta tradizioak egin dituenak, garaian garaiko giro eta kulturaren goibeheak kontuan izanik. Gizona izan da andrazkoa Elizako zereginetatik baztertu dauana, gizarteko giroaren orratzari jarraituz.

Eliza eta gizartea, gizaldiak zehar, batera joan dira

emakumearen bereizkuntza horretan. Biak errudun dira pekatu horretan.

Eta orain erru handiagoa litzake badaezpadako ekanduak, ustel kiretza darioen ohiturak ebanjelio eginik, teologia anpurutsu baten mailara goratuz, adarbiko arrazoibide hau emakumeari Elizako ateak ixteko erabiltea. Jokabide hori emakumearentzat irain gordin bat izateaz gainera, gaurko kulturak, alderik alde, ezetsiten dauan txarkeria bat da. Ez da serioa Eliza holako makurkerietan lohitzea.

Azatz honi jarraituz, beste hainbat gai eta irizpide aurkezten dautsoz Aita Santuari bere karta luze horretan.

Abadetza itzi daben elizgizonak aitatzen ditu, esaterako, euren alde orain arteko gogortasun larriaren ordez bihotz zabal eta errukitsuago bat eskatuz. Zauri hori itxi barik edota txarto itxita ikusten dau. Berrikuste baten eske dago. Elizak urtenbide erosoago bat aurkitu behar deutso, nahitaez, arazo astun honi.

Kardinalak atzaparrez izendatzea zertara dator? itauntzen dau gero. Zeren bila doa jokabide hori? Mailakeria horreek beharrezkoak ete dira? Handi-mandikeria hori ez ahal da norberen artaldea loditzeko era bat?

Nazio bakotxean Gotzain Bazkunde bat dagoan ezkeroztik, zertarako behar dira, gaur, Aita Santuak nazioetan dituan ordezkoak, nuntzioak? Ez ditu begiko. Altaran dagozan alperreko ontziak lez ikusten ditu.

Usarioz antxinatik sartuta dagozan arren, ez datoz bat gaurko aldien gustoakaz, ohi dan lez, goi mailakoak izendatzeko, izen handiak, "Aita guztiz santua", "Aita Santu hori", "Txit bikaina", "Gorentasun hori", eta abar erabiltea.

Deitura honeek ez dira ebanjeliotarrak, eta arrotz eta nabarmen sartzen dira gaurko belarrietara. Eliz-jantziai

buruz ere, garbiketa on bat ez litzakela txarto etorriko diño.

Aita Santuak egiten dituan bidaiai buruz ere itaun dagi: Ez ahal dira garestiegiak eta gora handikoak? Jasangatx eta hasarregarriak beste kredoetan dabiltzanentzat? Ez ahal da hori handikeriaren gorengo puntara igotea? Ekumenismoari oztopoak jartea? Zergaitik ez etxean itzi bonbokeria guzti hori? Zergaitik ez egin artzaintza isil eta apalago bat?

Gaurko aldien arabera, Erromako Kuriaren aldakuntza zabal, sakon eta egiazko bat ere eskatzen deutso Aita Santuari.

Beste toki baten, bere nahigabe eta kexa larria erakusten deutso Erromak Ameriketako Elizarekin darabilen jokabide arriskugarri eta zakarragaitik.

Gizaldi luzeetan, menpetasunaren morroitzapean egon diran herriak askatasun itxaropenera itzartu dira gaur. Askatasuna dabe ames eta goiburu. Hori lortzearren bizia eskeintzen dihardue. Ez dagoz bakarrik.

Elizagan ere laguntza eta gidaritza zuzena aurkitu dabe. Elizaz batera doaz askatasun egunerantz.

Beraz, itsua ez dan edonork daki, Elizaren zeregin nagusi eta berebizikoa, gaur eta hemen, herria helburu horreek lortzeraino eskutik eroatea dala. Askatasun eguzkitara eroatea.

Elizaren babesa daukan bitartean, herria Elizarekin egongo da. Babes hau ukatzen badautso, barriz, Elizak Amerika galdua leuke; kristau hareek Elizatik iges egingo dabe. Ameriketako kristautasuna hilko da. Eta, gaurkoz, kristaudi erdia Ameriketan dago.

Gauza honeek ez dira ikusten siloi handietan jesarrita egonez, bertako jendartean hortozik ibiliaz baino.

Minduta agertzen da Casaldaliga gotzaina Erromak dabilen bidegabekeriagaitik. Bere misiolaritza bide horretatik eroango dauala esanez, agurtzen da Casaldaliga jatorra.

Karta honen erantzun-sariz, Erromatik hiru koskorreko hartu zituan gure misiolari trebeak.

Amaitzeko, gogoratu daiguzan Sebastià Bardolet, Montserrateko Abataren hitzak: "Jaungoikoa eskertzeko da gaurko Elizari Pedro Casaldaliga lakoxe gotzain ebanjeliotar bat emon izatea".

GIZA ESKUBIDEAK ELIZAN

Iraultza bat daukagu oraindik egin gabe: giza-duintasunaren aldeko iraultza.

Askatasunaren eta zuzentasunaren alde iraultza asko eta gogorrak egin dira historian zehar. Ondoren onakaz batzuetan; txarrakaz besteetan. Itxaropenak eta etsipenak erdizka eroan ditugu borroka honetatik.

Honen hurrengo, eginik gabe dagoan giza duintasunaren aldeko iraultza egin behar dogu: askatasunaren eta zuzentasunaren eskutik, gizakiaren eskubideak begiramenduz, gizonaren eta emakumearen goratasuna eta duintasuna lortu. Horretan jarri behar ditugu gure gurari eta helburuak. Gizon edo emakumearen eskubide bat zapaltzen dogun bitartean, gizakia bera zapaltzen dogu eta.

Baina, nok egingo dau iraultza hau? Ez edozeinek. Gizakiagan sinisten dabenak izan beharko dabe hemen partaide. Gizonaren eta emakumearen jasokuntza eta duintasuna lortzearren, bakezko bideetatik, bihotzean daroen onena emoteko prest dagozan jendeak.

Giza duintasuna geure helburuen haragi eta odol egiten ez dogun bitartean, gizartean giza zapalketak jarraituko dabe. Mundua beti hankaz gora ikusiko dogu.

Giza duintasunaren ingurumaria, barriz, giza eskubideekin horniduta dator. Eskubiderik gabe, ez dago gizata-

sunik. Gure nortasunaren zaindariak lez dira. Horregaitik ditugu hain begiko, horren ezkutuko.

Prestaera luze baten ondoren ONU-ko Batzar Nagusian jaio ziran giza eskubideok. Han ikusi eben argia 1948ko abenduaren 10an.

Gizadia gerra ikeragarri batetik urten barri egoan. Miloikak eta miloikak izan ziran lurperatutako hilak. Izugarriak egin ziran egin ere gerra haretan. Gizadi osoa lotsaz eta larriz erreta lez gelditu zan hondamendi haren aurrean.

"Ez gehiago gerrarik", entzun zan orduan lurreko lau alderdietan. "Ez barriro honako basatikeriarik!"

Baina, zelan lortu gurari hori, helburu hori? Zer egin gerrak menperatzeko?

Bere handitasuna eta duintasuna autortu eta aintzakotzat hartu ondoren, gizakia, berari dagokion goiko aldarean jarten dogun egunean, orduantxe lortuko dogu ames hori.

Aldare hori bere eskubideen harriakin egina da. Bere izatetik datorkiozan eskubideak ditu. Salduezinak, ukaezinak! Edonongo tokitan, gizakia bere duintasunaren arabera tratatzen dogun egunean, gizarte barri bat agertuko da mundu zelaian.

Maitasunetik eta anaitasunetik jaiotako izaki barri bat. Orduan beteko da Jesusen esana: "zeuretzako nahi ez dozuna, ez inorentzat gura izan". Jesusen asmoetara bizi-ko dan gizarte bat.

ONUko Ageri nagusian gelditu ziran zehatz idatzita eskubide guzti horreek. Han dagoz pilatuta zerrenda luze baten. Ordutik hona, ahotik kendu barik darabilguz eskubide horreek. Ahoko ogia eskatzen dogun lez eskatzen ditugu eta, arrazoiz eskatu ere, ogia bestean beharrezko

ditugun ezkero biziteko, nahiz eta gehienetan papel errea izan.

Sarritan, bideko hautsa lez zapaltzen ditugu, batez ere, azken aldiotan.

Eta, Elizan zer? Zelan gorde ditu Elizak giza eskubideok? Egiari berea emotekotan, giza duintasun eta eskubideen sustrai eta agerpenak Biblia guztian zehar aurkitzen ditugu. Han daukee sorburua.

ONUko Batzarrak bildumatu egin zituan. Zerrendatu. Baina, etorburua Bibliatik eta, batez ere, ebanjeliotik bertatik dakarde. Han dago ur garbi horren iturria.

Beraz, beti egon dira zabalik eta danen jakinean eta ikusian Elizaren begi eta irakatsietan giza eskubideok.

Gizakia Jaungoikoaren seme-alaba lez agertzen da Biblian. Bere antzirudira egin gaitu Jainkoak. Kristogan bere seme-alabatasunera jaso; Kristoren odolaz betiko bizitzarako erosi. Jaungoikoak bere maitasunean hartu eta bere sendiko egin gaitu.

Senitartekotasun honek anaidi handi eta estu baten lotzen gaitu munduko gizon eta emakume guztiok. Hortik jatorku gure handitasuna, gure duintasuna. Honek oinarrizko bardintasun bat damosku guztioi.

Kristautasunaren ardatz diran puntarengo irakatsi honeek, lehenengo egunetik hasita irakatsi eta zabaldu ditu Elizak gizartean zehar.

Baina ez, horraitio, beti bardintsu bete. Aldiak aldi, eskubideen betekizunean bere hutsak egin ditu Elizak berak ere. Baina, joanak joan dira eta, ez ditugu barriro auzitara ekarriko.

Nik esango neuke, batez ere, Joan XXIII.a agertu

zanetik, giza eskubideak holako sagaratasun bat lortu dabela Elizaren aldetik.

Joan XXIII.ak bere "Pacem in Terris" enziklika goragarrian giza eskubideei kantu zoragarri bat eginez gainera, gizartearen eta Elizaren oinarri eta zutoin lez jarri zituan.

Biziteko eskubidea, iñoan Joan XXIII.ak, gizaki guzti-guztiei dagokiena da. Beste hainbeste bizitza duin eta egoki baten jabe izateko behar dituan bizibide eta eskugainak, batez ere, zer jan eta zer jantzi beretzat eta beretarrentzat izatekoa.

Baita ere bizileku duin bat, eguneroko ogia irabazteko lanpostu bat, atsedenerako aukera eta gaixoaldian nahiz ezbeharraldian gizartearen aldetik holakoetan behar izaten diran laguntzak eskuratzekoa.

Pertsona bakotxari bere itzala gorde behar jako. Bere izen ona gauza sagaratua lez zaindu; zuzentasunaren esparrutik dabilen askatasunari mentasun osoz bideak ideki.

Zauririk, irainik txikienik ere ez egin gizakiaren handitasunari...

Eta holantxe, beste mila gauza eder dirauskuz Joan XXIII.ak enziklika zoragarri horretan giza eta herrien eskubideak hurrengorik hurrengora aipatu eta azalduaz.

Kontzilioak ere, jakina, bere-bereak egin zituan, orokortasun osoan, giza eskubideok.

Baina, danen artetik, bat aipatu eta nabarmendu eban berarizko oihartzunez, hau da, "erlijioari buruzko askatasuna".

Geroztik, Elizako dotrina eginik gelditu dira eta barra-barra oihukatzen ditugu munduaren aurrean.

Gaur ez da egingo hitzaldi bakar bat ere gure elizetan giza eskubideak aitatuko ez dituanik. Era batera edo bestera, egintza guztietan aitatzen dira giza eskubideok. Gaur, liturjiaren bihotz eginik doaz.

Dakigun lez, Eliza ez da mundutarra, izatez goitarra da. Gizon eta emakumeen salbamenerako jarria. Horretarako dago batez ere munduan.

Baina, mundukoak egiten dogu Eliza hori. Beraz, buru bat eta aginte bat behar-beharrezko ditu Elizak. Ez dago buru bako gorputzik. Ez dago horren zalantzarik.

Bestalde, guk kristauok agintaritza zer dan eta zelan egin behar dan Jesus maisuagandik ikasita daukagu. Jesusentzat agintea zerbitzea da. Gizakiari zerbitzea.

Eta agintaritza honi, gaur, demokrazia deritxogu, hau da, gizakiaren eta herriaren aldeko zerbitzua.

Gaur demokraziari harrera ona egiten jako alde guztietan, zalantzarik gabe, agintaritza egiteko aurkitu dogun erarik onena dalako.

Horregaitik eskatzen dogu, gaur, aginte erabide hau munduko herridi guztientzat.

Minez begiratzen dogu oraindik ere holako diktadore basatien agindupe gogorrean bizi diran herrietarantz. Higuingarria jaku gizon basati horreen doilorkeria.

Gizartea, teoriaz, behintzat, demokrazia haizez bete da, bere onurak beharrezkoak dirala autortuz.

Eliza ere demokrata eginik ikusi nahi genduke. Herriagandik hurrago, batuago. Diktadura gisan gauzak egiten dituanean beti itsusi geratzen da herriaren aurrean.

Begikoago eta sinisgarriago litzake bere lana, Kontzilioak erabagi eban lez, herriari, eliz gauzetan, partaidetza, eskuhartze zabalago eta benetako bat emongo baleuskio.

Kontzilioan egon ziranak argi ikusi eben agintekeria ez zala biderik onena Eliza gidaritzeko. Horretara jokatuz, oker eta kalte agerikoak letorkiokezala Elizari gainera.

Baekien gizon hareek ezinezkoa zala, gaur, Erdi Aroko erregeen erabideakaz baliatzea agintaritzan.

Eta agintaritza hori gaurkotzeko, Kontzilioko Gurasoak erabide bi aurkitu zituen.

Lehenengoa, aurrerantzean, mundu guztiko gotzaingoak, Aita Santuarekin bazkunean, egingo eban Elizako agintaritza hori. Ez Pedrok bakarrik; Pedrok beste apostoluekin batera. Gotzainekin erdibanatu agintza hori.

Honetara gotzain bakotxak eskuak libreago eukiko zituan bere elizbarrutiko zeregin eta arazoei erantzuna emoteko. Erditik zabaleratu agintaritza.

Honez gainera, nazioetan, gotzainen arteko bazkundeak sortuko ziran, nazio bakotxeko Elizaren ardura eta zuzendaritza euren esku hartzeko.

Laguntza handikoak dira gotzainen bazkune honeek Elizaren martxarako. Ondore onak emon ditue jokoan sartu diran tokietan.

Garrantzi handikoak dira Elizaren joanaldirako herrialde bakotxeko gotzainen batzarraldi honeek. Artzaingoa egiteko era berebizikoa da.

Gotzainak ez daukee ahalmenik inoren eskurik burdinez lotzeko.

Baina, mendi gainetatik beheko lur zabaletan jazoten dan guztia arranoen begiz ikustatzen dabe. Horretara artaldearen jagole azkar eta ezin hobeak ditugu. Herriaren kontzientzia izanik egiten dabe euren artzaintza.

Artaldea ebanjelioko larralde gozo eta ugarietan jana-

ritu, irakatsi argi eta jakintsuak emonez. Otsoen erasoetatik zaindu.

Galtzeko arriskuetatik atara; ekaitzaldian gordelekua emon. Txarra eta ona azterkatu, epaitu. Zein dan onbidea eta zein galbidea ziurtasunez argitu eta izendatu. Herria ebanjelioan eskolatu munduko huts eta pekatuetan jausi ez daiten...

Legamina izan, herriaren gogoa eta kontzientzia onean hazi eta handituz.

Zalantzarik gabe, Kontzilioaren fruturik onenetarikoa dogu herridi arteko gotzaigoaren Bazkune hau.

Beste aldakuntza handi bat Kontzilioan herriaren alde egin zan.

Eliza Jainko herri lez azaldu zan Kontzilioan. Beraz, ez ditugu nahastu edo bardindu behar jerarkia eta Eliza. Jerarkia da bat eta Eliza beste bat, zelanbaiten biak batera doazen arren.

Alde guztietan egiten da agintaritza, Elizan ere bai. Ez dago honetan zer esanik. Baina, agintaritza hori Jesusen izenean egiten danean, Elizan gertatzen dan lez, ez da inor azpian sartzeko, menperatzeko erabili behar, zerbitzeko baino.

Elizak ezin leike mundutarren antzera agindu. Ebanjelioaren arabera egin behar ditu gauzak. Eta ebanjelioak nahiko lorratz eta aztarna damoskuz agintetza ona egiten jakiteko.

Lege nagusi lez, alkarren maitasuna dakar. Hurko laguna geure burua lez maitatu. Geuretzako nahi ez dogu-na, ez beste inori opa izan. Neba-arrebak garala gogoratzen deusku.

Askatasuna, zuzentasuna, bardintasuna, alkarren arteko ederrikusia, bihotz zabaltasuna, errukia, alkar onar-

tzen jakitea, alkar parkatzea eta abar, onoimen honeek egiten dabe ebangelioaren espiritua eta odola.

Espiritu honen arabera eroan behar dira Elizan alkarren arteko hartu-emonak. Munduak berak ere, gaur, oneritxi, begiramen eta sentikortasun berarizko bat agertzen dau balore honeen aurrean. Begi-begiko ditu, beretzat hartuak bai daukoz.

Tankera hau ikusi nahi dau kristau herriak Eliz agintaritzan. Honetara ikusi, aitu eta herriratu behar dau agintaritza. Kristau herriak begien bistan jarten dituan irizpide, pentsaera eta sentimenak jerarkiak benetan eta aintzakotasunez hartu behar ditu.

Herriak partaidetza handia behar dau Elizan, hobeto esateko, berak egiten dau Eliza.

Eliza, hitz leunez esanda, Jesusegan sinisten dabenen batzarra da; Jesusen jarraitzaileen lagundia. Hitza asko mehetuz, esan leike Elizako agintari bakarra Jaungokoaren HITZA dala. Ez dago, azken baten, beste agintaritzarik.

Elizan agintaritza baino lehenagoko eta goragoko zereginak dagoz.

Bakoitzak Elizarekin ditugun zereginak. Jesusek berak, bere ahoz eta eskariz jarritako zereginak. Lehenengoa eta oinarrizkoa: Jesusen Barri Ona mundu guztiari iragartea. Hauxe da lehenengo zeregina.

Eta Barri Ona hartu dogunaren ezaugarritzat, Jesusen jarraitzaileen ikur lez, bere izenean hartzen dogun bateoa dator. Honez gainera, bere azken apari eta heriotzaren oroigarri dan "eukaristia" ospatzen dogu.

Eta bateoaren eta eukaristiaren pozera, behar dogun guztietan, gure atsedena, poza eta bakea dan pekatuen parkamena. Eta azkenez, gizakiari eta gizarteari dagitsagun eguneroko zerbitzua. Honeexek dira Elizak dituan zereginik nausi-nausienak; gainetiko guztia beste maila baten gelditzen da.

Betetzen ete ditugu, gaur, Jesusen gogoaren eratara zereginok? Ez ahal gabiltz beste arazo hutsago batzuek astintzen Jesusen orpotik urrun? -Lainotzatik ete goazen gauza onerako!

Egia da, kontzilioaren babesera, zerbait zabaldu dana herrirantz Eliz esparrua.

Elizbarrutietan "abadeen kontseiluak" sortu dira. Abadeak batzen dira Elizaren martxari ibilbide zuzen eta egokiak aurkitzeko. Baina, euren lana estimagarria izan arren, urri eta murri gelditzen da azken baten, erabagiak hartzeko eskubideak mugatuta daukeezalako,

"Laikoen kontseiluak" ere badira. Oraindik hartukizun eskasa izan dabe eliz lanetan. Gaurkoz, behintzat, ez dirudi zugatz emonkor diranik. Laikazgoaren heldutasunik eza ager dagie askotan. Badira, horraitio, eliztar batzuk neurri paregabea emoten dabenak ere. Holako asko behar gendukez Kristo barriro gure artera ekarteko.

Elizbarrutiko "pastoral kontseiluak" ere hor dabiltz nonbaiten. Abade eta laikoek osotzen ditue kontseilu honeek. Orainarte, behintzat, ez dabe hegada luzerik izan Eliz barruan. Parrokietako kontseilu eta pastoral taldeak ere zutik ditugu parrokia lanetan. Gaurkoz, frutu ugaririk batzen ez badabe ere, gogo onik ez da falta euren artean. Kristau asko lanerako gertu dagoz; ateak zabaltzea besterik ez dabe eskatzen arraintzan hasteko.

Pitin bat iriki dira, baina ez guk nahi gendukezan beste. Horregaitik mailukatzen dogu untze hori liburuan zehar, baina ez da hau maiña irrikiz egiten doguna, gatxaren oina hortxe dagoalakoaren susmoak bultzatzen gaitualako baino.

Kristau eta Elizaren arteko beste konponezin bat lege eta kontzientziaren artean sortzen dan eztabaida edo aituezina da. Ez da inondik ere arazo makala. Kristau

batentzat kontzientzia sagaratua da. Nortasunaren sorburua. Ona eta txarraren epailea. Gure bizitzaren gidaoina. Barrenengo indarra. Giza izatea dakarrena.

Haren argi eta esanera egin behar ditu gizakiak bere egite guztiak. Hori eskatzen dau gure gizatasunak. Hor huts egiteak, gizon edo emakume lez, zikindurik, lohiturik izten gaitu. Hortik kontzientziari zor deutsagun itzala, begiramena, sagaratasuna.

Ikutuezina da inoren eskuz; Jaungoikoa bakarrik sartu daiteke gizakiaren txoko ezkutu horretan.

Kontzientziaren aginduetara jokatu behar dogu beti. Hauxe da beti kontuan izan behar doguna, horregaitik, egiaren eta onaren eskolan jantzi eta trebetu behar dogu kontzientzia. Zuzena eta arteza izan dadila.

Baina, inoz edo beste, kontzientzia ez dator bat Elizaren irakatsi, agindu edo eta aholkuekaz. Horrela bada, zer egin? Kontzientziari jarraitu, jakina.

Horregaitik kontzientziari heldutasunera etor dedin, ahalik eta ondoen gauzen jakinean egon daiten, erabide guztiak eskuratu behar deutsaguz.

Honez gainera, bere eritxi eta pentsaerak agerian agertzeko eskubide ukaezina dau; bilaketak eta azterkuntzak egiteko askatasuna. Itzal handia zor jako kontzientziari.

Abade sekularizatuak:

Honegaitik edo haregaitik, azken urteotan, ehun mila mezadunek abadetza itzi dabe eta, ondorioz, Eliz zerbitzua.

Munduan zehar 212.500 parrokia ei dagoz eta euretatik 53.100 abade barik.

Daroagun martxan gu ere laster gara abade barik.

Ikusten dan lez, oraindik hor jarraitzen dau gordin-

gordinik altaratik urrundu diran mezadunen arazo larri horrek. Hor dagoz ehun mila abade nora ezean, artaldea galdu daben ardiak lez.

Batzuek Erromako baldintza eta baimenakaz, beste batzuek, gehiagoko barik, euren burutetik egin dabe hori.

Salakuntza handiak deukez, antza, Elizaren aurka.

Esaterako:

Gaurko Elizak hartu dituan handikeria haizeak; bere demokraziarik eza; abadeen ezkongabetasunari zentzunezko irteera bat emon gura eza; gizon ezkonduen abadegintza bideratu eza; emakumeak Elizan hartzen dauan bazterkuntza; herria adinean gora eroan beharrean, beti adinbakoen sehaskatxoan mantarretan eroatea; jakintza barriaren aurrerapenari jarten jakozan trabak; kristau ekintzari hegoak moztutea; moralari ertz barriak aurkitzeko dagoan bildurra; sexu sailean darabilen urritasuna; Elizaren etorkizuna gogo hilez hartzea, eta abar.

Eliza hau, antza, onartezina da eurentzat eta honen arabera hanka jokoa hasi dabe.

Zergaitik urten daben abadetzatik hainbeste gizonek? Nok daki hori. Esanak esan, seguru asko, bakotxak bere zio eta arrazoibideak izango ditu. Bakotxak bere mundutxoa.

Umetan sartu ziran seminariora; seminarioa, barriz, gaztelu santu bat lez zan munduko haize eta hautsik bertara sartu ez zedin.

Hantxe bizi izaten ziran aingeruzko bizigiro baten, munduagandik babestuta. Beti bihotzak helburu eta burutapen ederrez beterik, lorategiko lora antzera.

Eta, goiz baten, ameslari, gazte zintzo, tolesgabe, jator eta bihotz zuridunak, birjintasunaz betiko ezkontzen zirala jakinik, abadegintza hori hartu eben. Gaztetako amesak beteta egozan.

Eta bertatik, abadegintzari hasiera emonez, munduan zehar zabaldu ziran. Eta behin munduko itsas zabalean murgildu ziranean, ikusiak ikusi eta ikasiak ikasi, seminarioan haibestetan amestutako aingeruzko mundu hori karrask eginik lurrera etorri jaken.

Eta, goiz baten, aldara aurrean agindutako garbitasunezko eskeintza hori ezaguera eta heldutasun handirik gabe egina izan zala eta, indargabetu eta ezeztatutzea nahi izan eben eta horretarako baimena Aita Santuari eskatu.

Batzuei emon jaken, beste askori ez; hirugarren batzuek eskatu ere ez eben egin.

Gaur, Erromak tantaka baino ez ditu emoten baietzak.

Mundu gogor horretan sartzean konturatu ziran seminarioan egindako ikaslaritza ez zala guztiz egokia izan; gizartea kulturabide barrietan sartuta egoala; zeharo barriztatu behar zala pastoralgintza.

Abadegintzari berari ere oinarri barriak aurkitu behar jakozala; abade izateko bide eta tankera barriak aurkitu eta bideratu.

Ekaitzaldian kulunkan dabilen ontzitxoa lez, itsas erdian, norabidea galduta aurkitu ziran. Gogo ilunaldi baten suminduta, aurrera egin ezinik. Eta, holantxe, azken baten, agur esan eutsoen abadetzari.

Gaur danok dakigu abadeen ezkongetza ez dala Jainko legetik datorrena. Esaterako: Sorkaldeko Elizan abadeak betidanik ezkondu dira. Gaur ere araubide hori dabilde.

Gure Eliz aldean ere, lehenengotatik luzaro baterarte, ezkondu egiten ziran. Abadeen ezkongetzako legea berandu-berandu baten emona da.

Orain, bada, Elizak emoten dituan lege guztiak aldakorrak dira.

Gaur jarri eta bihar kentzekoak, egokitasunari dagokionez. Elizaren esku dago, beraz, lege hori aldatzea edota baztertzea.

Hemetik dator gai honi buruz, gaur, kristauen artean dabizen eritxi desbardinak, honako eta halako eztabaidak.

Gaurkoz, Eliza ezetzean gogortuta dago.

Gaur dagoan abaderik ezak kezkatuta, arduratuta, gotzain askok agerian eskatu dabe lege horri ikutu barriren bat egitea; hoba dala baztertuta iztea Elizaren onerako.

Gaur eritxi honen inguruan dabiltzaz gehientsuenak: ezkongetzako lege hori abade izan nahi dabenentzat norberen gurazkoa, opazkoa izan dadila. Norberak aukeratzen dau bide bata nahi bestea.

Dana dala, ordua dala diñoe honezkero zirt edo zart egiteko. Arazo astunegia ei da holan usteltzen eukiteko.

Bizi-alargunak

Ezinbestean ugarituaz doaz herridi aurreratuetan bizi alarguntzak. Hau da, ezkontza hausteak.

Ezkontzaren gaixo astun bat da berau. Sendien arteko hasarrebidea. Umetxoen atsekabe, negar eta tristura baltza!

Zenbat ume errukarri, irribarrea, bizipoza eta amesak galduta, aita-amaren eztabaidakaitik! Etxe asko negar iturri bihurtuta dagoz.

Banandu aurretik gurasoen artean sortzen diran tirabira eta ezbai latzak; isiltasun hotza batzuetan, zarata beroa besteetan; garraztasuna, hasarrea, iluntasuna, hizketa gordina...

Guzti hori umetxoen bihotzean sartzen dan ezpata zorrotza da.

Herrialderik gehienak onartuta dauke gaur ezkontza

hausteari dagokion legedia. Gure artean ere legeztuta dago bizi-alarguntza.

Eta senar-emazteak legez banatzen diranean, euren gogoa bada, bigarren ezkontza batera joateko legeztuta gelditzen dira.

Baina, kristau barrutian ez da horrela. Kristauentzat, izatez, ezkontza askatuezina da. Betikoa. Horregaitik Elizan ez dago onartuta bizi-alarguntzarik, ezkontza hausterik.

Elizan egiten dan ezkontza, tarteko oinarrizko hutsen bat edo eragozpen agerikoren bat dagoanean bakarrik ezeztatuten da, usteltzak emoten.

Lehen, kristauen ezkontza seme-alabak ekarteko zala esaten zan; horixe zan izan ere ezkontzaren goiburua.

Gerora, Vaticano IIak esparru askozaz zabalagoa ezarri eutsan: senar-emazteen arteko maitasunaren eta bizitza-alkartasunaren irudi eta ezaugarri lez aurkeztu eban. Ezkonduak maitasuna eta bizitza alkarganatuta bizi behar dabe. Eta seme-alabak maitasun horren frutu eta dirdaiak dira. Ezkontzaren gailurra.

Gure Elizarentzat berez askatuezina izan arren, noz edo nozko baten, ezkontza ezereztatu, ustel eginik itzi leike. Gaur, askotan jazoten dana da. Edo askatasunik eza, edo heldutasunik eza, edota behar ainako ezaugerarik eza lege-atxakitzat harturik ezkontza asko ustel lez botaten dira eliz auzitegietan, eta honen arabera, doakienak, elizaz ezkontza barri bat egiteko moduan gelditzen dira.

Senar-emazteen maitasuna hutsean dagoanean, zeharo erreta, amaituta dagoala ikusten danean, ezkontza hori hilda lez emoten da, beraz, nahiko errez askatzen dabe ezkontzako lokarri hori eliz auzitegietan.

Hortik doa baita ere teologo askoren haria.

Maitasunik gabe ezkontza hilda dagoala uste dabe. Ez ei dakar ezer onik alkarregaz jarraitzeak eta bai, ostera, oker handiak. Holakoetan ezkontza oinazegailu bihurtzen da.

Elizatik ezkondu diranak eta gero herritik bizi alargundu, honeek arazo astunak izaten ditue gero Elizagazko hartu-emonetan. Ezkontza haustea, Elizako legediaren arau barik, herri legetik lortzen badabe, Elizak ez dau ontzat emoten herri legez egindako ezkontza banatze hori. Eta hortik kontuak.

Bigarren ezkontza bat egitea balitz, ezkontza hori herri legearen arauz egina litzake eta Elizak ez leuke ontzat emongo, alkar nahastuta, kateatuta bizi balira lez ikusten bai ditu horrelako ezkontzat eta, besteko barik, sakramentuak hartzetik urrunduta izten ditu holakoak.

Pertsona horreen egoera lazgarriak Elizaren aldetik ulermen errukitsuago bat eskatzen dauala esan leike. Erabagi zuhurragoak, bestela ez dogu inoz ilunpeetatik urtengo eta.

Elizak bere legediak barriztau egin beharko ditu, bestela ez da aituko sekula ere gaurko eta biharko mundu horregaz.

Sarri askotan gogorik eta gertakizunik onenaz eginiko ezkontzak eurak ere, bikotea bata bestearentzat egina izan ez dalako edo, ezkontza askok porrot egiten dabe.

Ezbehar honek samintasunean birrinduta izten dau bikotea. Munduak azpian hartuta lez.

Baina, holan da guztiz ere, ez dabe lurperatuta bizi nahi. Bizi egin nahi dabe. Euren bizitza barriro hasi eta zutundu. Besteak beste izan eta bizi.

Baina, euretariko batak, edo biak, bidondoan maita-

sun barri bat aurkitzea balitz, eta ez da hori gatxa izaten, maitasun horri gor eginik, lurra bota beharko leuskioe gainera, bestela gatxak haizetara botata, bigarren ezkontza bat egingo balebe, Elizaren hasarre eta zigorpenakaz aurkituko litzakez eta. Horrek parrokiako bizitzatik jaurtita jarriko leukez, kristau taldetik urrunduta

Egoera honek kristau baten bihotza odoletan jarten dau. Honek zerikusi gitxi dauko ebanjelioan gainezka dabilen errukiaz, parkamenaz.

Gaur mileka asko dira egoera horretan dagozan gizon eta emakumeak; mileka asko. Gainera, egunetik egunera gehituaz doaz.

Jainkoak daki zenbat kristau urrundu diran Elizatik, Eliza gorrotogarri egin jakelako.

Arazo astun honi irtenbide eroso bat aurkitzen ez badeutso Elizak, beretzako kalte izugarriak leporatuko ditu.

Ezinduak.

Soinez eta buruz ezinduak diranak ere hor dagoz Elizan. Ez dira gitxi kristauen artean. Eta honeek ere euren eskubideak ditue Elizan. Elizaren zatirik kutunena dira.

Bateo hartzerakoan ez da eragozpenik izaten. Umeumetan hartzen dabe eta gainera gurasoen ardurapean.

Geroagora datoz arazo eta aituezinak. Bai ahal dauke adikuntza aldirik? Buruz ergel dana gauza ete da sakramentuak hartzeko?

Eta hemen zatitzen dira eritxiak.

Zein jarriko dogu aurretik: legea ala gizakia? Ezbeharrean jaio dan gizakia jarri ete leike legepean? Egin ete leike legerik ezinduentzat? Ez ahal dagoz lege guztien gainetik?

Ez dot uste Jainkoa holako lelokerietan ibiliko danik. Bakotxa dan lez hartzen dauala diño ebanjelioak.

Hala ez ahal ditu maite Jaungoikoak gizaki errukarri horreek? Ez ahal ditu bereak? Amak jaurtitzen ete ditu bere ondotik? Ez ahal dira gauza mosu batek zer esan nahi dauan ulertzeko?

Gu beti pikondoari sagarrak eskatzen!

Arazo larriagoa agertzen da ezkontzaren aurrean. Soinez ezindua izanik, ezkontza burutu eta bukatzeko gauza ez danak ba ahal dauko ezkontzeko eskubiderik?

Gaurko Eliz legediaren begietan holako ezkontzak ez dauke baliorik. Hutsalduak dira.

Bestetik, ezkontza gizaki guztien eskubide bat da. Bestalde ez da zilegi Elizaren arauetan inor legortzea, inor agortzea. Zer egin, beraz?

Ez da erreza erantzuna: kasu bakotxa ikusi behar.

Hona hemen Elizaren legea topo eginik soinez gitxituta dagozanen eskubideekin. Bihotz eta argitasunik asko beharko dogu hutsune horreek eraz bete gura baditugu.

Homosexualak.

Euskeraz ez da berba hau ezagutzen. Ez da izan gure herriaren agoan ibilia; grezitarra da jatorriz. Gaur hizkuntzarik gehienak hartu dabe euren hiztegietan. Guk ere ongi etorria emongo deutsagu oraingoz, euskerazko hitzez bateatu arte.

Danok dakigu zer esan nahi dauan berba horrek. Sexu bereko pertsoneaganazko joera edo zaletasuna da. Gizonezkoa gizonezkoagana doa eta andrazkoa andrazkoagana.

"Gay" izeneko mugidak zabal-zabal eta indartsu dabiltz alde guztietan. Oraintsurarte herriaren aurrera

agertzeko lotsagarritasunean isilpetuta ibili dan muginendu hau, gaur ohore bat balitz lez, harro eta farrandari sartu da bazter guztietara.

Ez da talde txiki eta apaltxo bat, bide bazterretan batutako hautsa. Gizon eta emakume ospetsu eta sonatuak dagoz bertan.

Astrapalari eta erronkari ere baditugu. Euren eskubideen eske kaleratzen diranean izugarrizko ikuskizunak asmatzen ditue. Badauke gatza eta piperra euren ateraldiak.

Uste genduan munduko bedar txarra zala homosexualitate hori. Grina txarren baten sustraitutako gaixo itsusia. Giza nabarmenkeria.

Azken urteotan, baina, fenomenu honen inguruan aurrerapen garrantzitsuak egin dira. Ez da ibaiak daroan lohia. Giza nortasunaren atal bat da, sortzeratik bertatik gizakiak beragaz daroan bereizgo bat, besteakandik desbardin egiten deutson zerbait.

Holakoxe izateaz jaioak dira.

Sarritan gure gustokoak izan ez arren, beti itzalez eta errespetoz tratatu behar ditugu. Lehenengo gizon eta emakumeak diralako; bigarren, holantxe jaioak diralako. Guk ez daroagun zerbait daroe zanetan. Eta horrek begirunea eskatzen dau.

Honen jakitun dagoz eurak ere eta ez dabe nahi jendearekiko banakuntzarik. Normaltasunez ibili edozein bizigirotan.

Denpora gitxian, bidaldi luzea egin dabe giza eskubideen esparruan. Gaur ez dira atzoko gautxoriak; ilunpeak itxi eta indartsu urten dabe eguzkitara.

Euren ekinari eta borrokari esker esan ezinbeste eskubide eta abantaila eskuratu ditue eurentzako.

Ontzat hartuta dagoz gizartearen atalkide bereziak lez. Ezkontzako ateak ere zabalik daukoez legedi askotan.

Ezkontzarako gogorik ez dabeenak, barriz, bata besteagaz biziteko baimen eta eratasunak eskuratu ditue. Legearen aurrean eta gizarte bizitzan beste ezkonduekin bardinduta dagoz.

Batzuk inoren umeak euren semetzat edo alabatzat hartzeraino heldu dira, haurzaleak diralako hainbaten, nahiz eta gizarterik gehientsuena honen kontra egon.

Umearen ona kontuan izanik, aita edo ama izateko gaitasun behar ainakorik ez dabeela eta, herriaren asmotan, behintzat, ukamenduta dauke zeregin hori.

Eliz esparruan, homosexualitate honi buruz eritxi guztiz desbardinak entzuten dira. Teologo asko, aurrez aurre eta aldatzeko asmorik gabe, bat-batean ezetzean dagoz. Ez dabe ezelan ere onartzen jokabide hori.

Ratzinger jaunak gai honi buruz idatzitako azken ageriak dinoan lez, gizon eta emakume horreen sexu-harremanak bereztik lizunak, lohiak, pekatuzkoak ei dira. Gauzen izatearen kontrakoak.

Beste batzuek zabalagoak dira eta, arazo oso astuna dan lez, usteltzen itzi barik, zelan edo halan, irtenbide bat aurkitu nahian dabiltzaz.

Baina ez dagoz urak bare. Tarteka-marteka olatu durundua entzuten da. Kristau asko ez datoz bat Elizak hemen daroan jokabideaz. Gogorregi, zorrotzegi ikusten dabe.

Jende hau oso minduta dago Elizarekin.

Orratz zorrotz baten antzera sartzen dira barrura, Madrilen, 1989an egin zan IX. Teologiako Batzarrean egin ziran salakuntzak.

Hizlariari itzal santuz entzun ostean, bakotxak geure erabagiak aterako ditugu.

Emili Boils jauna da hemen hizlaria, teologoa; elizgi-

zona, jainkozale sutsua, homosexuala. Zintzo eta jator ager jaku bere mintzaldian. Honela diño:

"Gu ez gara ez inor, ez ezer Elizarentzat. Izurridunak, lizun zabarrak. Ez gaitu ikusi nahi. Hitz gorriak eta destainak bakarrik entzuten ditugu bere agotik.

"Eliztar nazen aldetik, apalik, baina gogo biziz eta sutsu eskatzen deutsat Elizari benetan hartu dagiala gure egoera larri hau eta atera gaizala lehenbailehen sartuta aurkitzen garan zulo honetatik.

Gogoratu dagiala gu ezin gaituala isilpean gorde, bakartadean itxi; gure giza sentimenak ezin dituala hilobira bota, geure bizia eta nortasuna diran ezkero. Ezin gaituala gu baztertuta euki, gu besteak aina garalako bai Elizaren begietan, bai gizarte esparruan, bai Jainkoaren aurrean.

"Jesusek ez eban, behin ere, gure gain salakuntzarik jaurti; ez zituan pertsonak bereizten, ez eban nor nor zanik begiratzen, eta Elizak, bai, egiten dau, ostera, jerarkiaren eskutik. San Pablo jerarkia da; Jesus eroslea.

Arren eta otoizka eskatzen deutsat Eliz jerarkiari ez dagiala erabili behin ere gugaz orainarte erabili dauan hizkuntza iraingarri, mingarri eta gorrotagarri hori. Ebanjelioan zeharo debekatuta datorren hizkera.

Gu ez gara "ustelduta gagozan batzuk", ez "orbanduak", ez "ilunpeko lotsa". Gure pekatua "ez da esan ezinezkoa, ez dago "zeruari deika"

Ez gagoz "ustelkeriaren erpinean", "ez gara gaixoak", ez gara "higuingarriak", "leize zuloetako mamutzarrak". Ez gara holako ezer, nahiz eta Eliz jerarkiak beti eta beti honakoxe hizketa nardargarria erabili gure aurka, jakinik hizkera hori guretzat matrailako bat dala".

Bihotzetik zuzenean datorren testigantza garbi eta jatorra da.

EMAKUMEAREN ABADETZA

Emakumea Elizaz hasarretuta daukagu. Bazterrean itzita aurkitzen da. Nortasunik gabe. Bere mailatik eratsita. Elizako mirabe balitz lez, bazterrak garbitzeko erabilia da.

Elizaren jauntxokeria hau salatu nahi dabe, gaur, emakumeak munduaren aurrean. Minduta dago joko honekin. Aituezina egiten jako Elizaren entzungorkeria hau.

Gizaldietako lausoari jarraituz, Elizak ergeltasunaren irudia bakarrik ikusten dau, antza, emakumeagan.

Arimarik ez daukala, tentaldirako bide dala, arriskugarria dala ondoan, ikutzen dauan guztia tximur bihurtzen dauala, gizonaren menpean egoteko egina dala; Jesusek ez eutsala abadegorik emon, Paulok Elizan isilik egoteko agindu eutsala, zerbitzu apalak betetzea dala bere zeregina...

Honakoxe pentsaerak ibili dira gizaldietan Elizako jakitun eta jauntxoen buruetan. Joko lohi hau egin dau Elizak emakumearen lotsarirako.

Tamalgarria da Elizaren hutsune hau. Zuhurtasunez, jakituriaz, santutasunez, zuzentasunez, ontasunez beterik agertzen deuskue herriaren aurrera Ama Eliza Santa.

Baina, antza dan lez, begien aurrean eguzkia baizen argi dagozan hainbeste eta hainbeste gai eta egikizun ikusteko ez da gauza izan.

Ez da igarle handia izan behar emakumeaz dakarren auzi honek, azkenean, eskuetan eztanda egingo deutsala jakiteko. Geldiezinezko abiadan dator, bideak eginez, andrazkoen eskakizun hori.

Gaztelurik sendoenak lurreratzeko indarra dakar.

Askoren ustegoan ez da bape zuhurra izan Aita Santuak auzi honi emon deutsan ezezko ebatzia.

Askoren ahotan bizi-bizi dabilen eztabaida bati, aitumenera heltzeko bideak egin beharrean ateak giltzez ixtea, ez da egiz zuhurtasunaren aintzagarri. Zauria ustelean ixtea da hori. Laister entzungo da, barriro ere, horren abarrotsa Eliz ateetan.

Lurbira osoan garratz dabiltzaz gure emakumeak euren eskubideen aldeko borrokan. Herririk txikienetan ere oihartzun sendoa jaso dabe. Pixkanaka-pixkanaka, behetik gora igonez, gizarteko goi maila guztiak hartu ditue. Herriaren bihotz barru-barruraino sartu dira.

Iraultza baketsu eta eredugarria da eurena. Ez dabe harririk inoren gainera jaurti, ez dabe inor tiroka hil, ezta bahitegirik etsaiz bete. Gizakiaren buru eta bihotzera joan dira zuzenean.

Euren goiburu bakarra argia eta erreza da: sail guzti eta bakotxean gizakiak dituan eskubide berberak izatea!

Sexu batekoa edo bestekoa izatetik pertsonak bereiztea onartezinezko gangarkeria dala iragarri deutsoe gizakiari. Ez dirala gizonen nahierak egiteko; haren mirabe izateko; umeak zaintzeko; etxe lanak atontzeko.

Hori ere bai, baina gizonarekin batera. Gizonaren ondoan baita ere politikan, gobernutzan, irakaskintzan, hau da, bizibide, langintza eta gainetiko sail guztietan. Lehenengo eta bigarren barik, legez dagokion bardintasunean.

Gaur esan geinke, iraultza hau irabazita daukala emakumeak. Batez beste, nazio guztiek legez onarpenduta daukeez emakumearen eskubideak, gizonarenakin batean.

Hor ditugu gure emakumeak, txairo-txairo, gizonarekin buruz buru kideturik, lanbide guztietan sartuta. Gizonarekin ukondoz ukondo doaz unibertsitateetan, medikuntzan, sozial ekintzetan, gobernutzan eta abar. Gudarostean eta ertzaintzan ere jator dihardue gure emakumeak.

Elizak ere legez onarpenduta daukaz emakumearen eskubideok. Elizaren ederra dauke ziur baten. Aintzakotasunez beterik dator bere irudia Elizaren begietan. Ago batez goraldua agertzen da eliz literaturan. Honen zalantzarik ez dago.

Baina baditu, horraitino, isilgune batzuk eskubide horreek osoan eskeintzean. Sail batzuk mugatu egin ditu Elizak, eta alor horretara ez deutso sartzen izten emakumeari.

Abadetza da bere ondorengo guztiekin lur debekatu hori. Ezin dau hor oinik jarri emakumeak. Mugarri hori gaurkoz zapalduezina jako.

Eta hemetik dator emakumearen hasarrebide latza. Zergaitik ez?, dino emakumeak. Nor da hor ertzak jarten dituana? Zer dala eta eragozpen horreek Elizaren aldetik? Nok daki zein dan hemen Jesusen nahia?

Ez ete ditu emakumeak gizonak aina gaitasun eta baliamen abadetza duintasunez eta egokitasunez eroateko? Halako aurreraldi batek kristau herrian sortu ahal leiken ekaitzaldi nahastuaren bildur?

Baliteke hori ere. Baina, gitxien uste danean, zurrunbiloka etorriko da emakumearen abarrots hori, lurrikara baten antzera.

Dana dala, herriko gehiengoa, batez ere aurrerakoiena, emakumearen alderdian lerrokatzen dala deritxat.

Beste alderdian borrokatzen diharduen taldea, ostera, Goi Eliza buru dala, Elizak emakumearen abadetza hori baimentzeko aginpiderik ez daukala esanez defenditzen da. Jesusen asmoetan bertan dagoala idatzita ezetz hori, Jesusek ez ebalako emakumerik abade egin. Aldietako eliz kondairan ere ez dala horren lorratz izpirik ageri.

Beraz, Jesus eta tradizioaren magalpean dagoala gordeta ezetz hori.

Jokaera honekin, emakundearen eritxian, Elizak ar eta emeen arteko borroka bat bideratu dau.

Zuk, arra zaralako, aldareko atea zabalik dozu; zuk, ostera, emea zaralako, ate hori giltzaz itxita. Ez dabe aurkitzen emakumeak beste arrazoibiderik Elizaren portaera hori azaltzekoan. Gainetiko arrazoibide guztiak usteltzat joten ditue.

Noren aldetik egia?

Dana dala, horra hor erantzun eske dagoan arazo honen arantza zorrotza.

Gaurko kultura barrian sartzeko bidea da emakumearen abadetza.

Anglikanoen artean onartua izan da andrazkoen abadetza hau. Aspalditik dihardue hango Elizan abade lanetan horretarako aukeratuak izan diran emakumeak.

Ez da dana bakez etorri. Aurrenik eztabaida eta hasarre biziak ibili dira eliztarren artean. Herriak, batez beste, onikusia egin deutso abadetza barri oni; elizgizonak izan dira hasarretu diranak.

Eta honen bultzadara, emakume katolikoen borroka hori ere arnasbarritu eta biziagotu egin da.

Bihotz barruan daroe, minez, Aita Santuaren ezetza.

Goibel gelditu dira gogoak, baina ez menperaturik. Borrokari jarraitzeko indar barriz jantzi dira.

Egia euren aldetik dagoala uste dabe; sinistuta dagoz eskubide horren jabe legezkoak dirala. Eurena dana baino ez dabela eskatzen. Ezetzaren errua Jesusi ezartea, barriz, ausardi kazkarra dala eta dagoz.

Gauza on bat egingo leuke Elizak, aurre-eritxi guztiak alde batera itzita, arazo garrantzitsu hau berrikusi eta leialtasunez azterkatuko baleu. Ez da ona sasipeko arrazoiakaz etortea. Gaurko kulturaren arauetara egin behar da jokoa. Gaurkotasunari erantzun.

Elizak, gehien baten, kondairaren harian sartu diran antzinako ohitura eta ekandu zaharrak ekarten ditu sinispide edo proba lez emakumeari abadetza ukatzeko.

Ekandu horreen joan-etorrietan, inon ere ez ei da agertzen abadetza hori.

Indar handikoa da proba hau, zertzelada hau, Elizaren begietan emakumeari ukamena baldinpetzeko. Beraz, ezinezkotzat joten ditu emakumearen amesak.

Eliz tradizioa ez da kutxa baten geldirik, hilik eukiteko altxorra. Zerbait bizia da. Giza bizitzaren erakusgarria, idaztiñoa. Ekandu zaharren erroa galdu gabe, hareen ildotik, gizartearekin batera, egunetik egunera, eginean-eginean jarraitu behar dau.

Gure esakun zahar batek diñoan lez: aldiak zelako, hazi-orraziak halako. Horregaitik, tradizioa bera ere eginean-eginean doana da, gaurkotuaz, aldian-aldiko gizakiaren beharrizan, ames, gurari eta eginkizunai erantzun bete eta egokia emoteko. Zeregin hori bete behar dau tradizioak.

Bideak egin etorkizunari, aurrerakuntzari, bestela kutxa barruan hilik dagoen erlikia bat besterik ez da izango.

Tradizioa fedearen gordeleku bat lez, gordeleku ikutuezin, aldaezin lez hartzea, tradizioa baliorik gabe iztea litzake.

Jaungoikoaren argia, espiritua, hitza, agerpena Elizan egunero egiten dana da, Eliza gizadiarentzat gidari, argi, legamin eta gatza izateko jarria dan ezkero. Zeregin hori egunero eta uneoro jatortasunez burutu behar dau.

Tradizioa Jesus eta apostoluekan hasi eta Espiritu Santuaren eskupean gizaldirik gizaldi gaur arteino heldu da. Era horretara historiako aro guztiak arakatu eta kultura guztiak bere arnasaz bete ditu.

Ez dot uste ondo aitu dogunik tradizio eta emakumearen arteko arazo larri hau. Albotik hara, ur lohi asko sartu da eztabaida horretara. Gizonezkoa ibili da hor, bakarrean, txokolategintzan.

Berak nahi izan dauan guztia esan eta egin dau bere jauntxokeriaren zaldi gainetik. Beraz, iturritik bertatik dator ura lohirik.

Honen arabera, teologia barri bat jaso behar dogu gai honen inguruan, orainarteko gizakiaren lanak eta portaerak zalantzan dagozan ezkero. Ez dira duinezkoak izan, hortik, eskualdi baten beharrean dagoz.

Ona litzake, gauza guztiak euren tokietan jarri arte, alderdikeriarik gabe, barriro azterkatu eta begiztatzea.

Gizona idazten hasi zanetik, idaztortza ezpata lez erabili dau emakumea minez zauritzeko. Halan dirudi literatura zaharra irakurtean. Berba eta eritxi gozo gitxi aurkitzen ditugu andrazkoari buruz eskola zahar horretan.

Nondik eta zergaitik sortu zan gizonagan emakumeaganako gibelmin eta aurkatasun hau ez da erreza jakitea. Indartsuago izatetik? Makalagoa menpe euki nahi izatetik? Nok daki. Guk, beintzat, ez dogu andrazkoaren

pekatu hori ezagutzen. Ez deutsagu inongo arrazoibiderik aurkitzen.

Minberaturik irakurten ditugu emakumearen irainez idatzi diran lerro baltzak.

Sortaldean agertutako erlijiokera guztiak emakumeari gizatasuna ukatzeraino heldu ziran; abereen izatekoa zala eta egozan.

Erromatarrentzat jolaserako "jostailua" zan; grezitarrentzat gizaki "akasdun eta erdikina". "Txarretan txarrena". "Nahasmena eta iluntasuna sortu ziran erro gaiztotik jaioa da", Pitagoras jakintsuaren esanean.

Emakumearen goralmenez egiten zan aipurik handiena honako hau zan: "emakumea etxean, goruetan".

Ebraitarren erlijioan ere gizona zan aurrelari eta egile bakarra. Honetara joten dabe, behintzat ezagutzen ditugun zehaztasun guztiak. Eliz jaietan ez eukan parterik; debekauta eukan erlijio liburuak erabiltea, elizako zereginetan sartzea.

Idazti Deunak eurak ere honetan nahiko nahasturik datoz. Siraken liburutik jaso ditugu esaldiok: "Alabea aitarentzat loa kentzen deutsan ardurea da: gaztea bada etxean geratu ez daiten; ezkondua bada, higuindu ez dagien; neskatila bada, liluratu ez dagien; ezkondua bada, saldu bat izan ez daiten; senarraren etxean, sabel-agor geratu ez daiten". Sirak 42,9-11.

Emakumea gizonaren ogasuna lez zan, etxe lanetarako mirabea; etxetik, beharrezko zereginetarako irtetean, buruan hasi eta oinetaraino ondo estalita urtengo zan; ez jakon zilegi gizonakaz berbetan geratzea; holakorik bazan, ezkon hauslea lez salatua izan leikean.

Judutar gizonak honetaraxe egiten eben otoitz hiru aldiz egunean: "Bedeinkatua zu, Jauna, ez nozulako egin ez jentil, ez emakume, ez jopu".

Oraintsurarte luzatu da gizaldien ilunpeetatik zehar emakumeagazko bereizkeria lotsagarri hau. Orain urte gitxi dira amaitutzat emon zana.

Eliza bera ere kutsututa ageri da hemen, gitxienez bere egipenetan.

Emakumearen jasokuntza Jesusi zor deutsagu. Jesus izan zan emakumearen askatzailea. Berak uxatu ditu emakumearen gainera batutako laino, irain eta gordinkeriak. Bera izan jako babestailerik onena. Bera gizakiaren maila eta duintasunera jaso dauana. Ez da jaio gizonetan emakumearen alde Jesusek aina egin dauanik.

Txeratasuna, ederrikusia, adiskidetasuna, bihozberatasuna, errukia, kutuntasuna aurkitzen eben Jesusegan berarengana hurreratu ziran emakume guztiak. Batxo bat ere ez eban bere bihotzetik urrundu.

Arrimena eta zeresana sortu zituan herritarren artean emakumearentzat eukan ederrikusi eta begiramen honen erruz.

Jesus, herririk herri, ebanjelioa oihukatzen ebilala, andra talde bat eroian beragaz lagun hara eta hona, bera joian alde guztietara.

Zintzo jarraitu eutsan andra talde honek predikaldi guztian; heriotza orduan ere, han aurkitzen ditugu kurutzearen ondoan.

Berbabide bihurtu zan Jesusen egikera hau. Askok txarrez eta hasarrez hartu eben; ez zan, ba, sekula honakorik ikusi judutarren artean.

Esan dogu goragoan, juduen ekanduetan debekatuta egoala andrazko batekin bidean edo kalean berbetan geratzea; emakumeagaz lagun izatea; haren ederrikusiak hartzea. Horregaitik itsusi eta nabarmen ikusten zan Jesusen urteera hori.

Baina Jesusek ez eban horregaitik bere sena galdu, atzerarik egin; ez zan kikildu.

Emakumeagazko hartu-emonok berezkoenak balira lez, inori jaramonik egin barik, berenean jarraitu eban. Mormor hotsak ez eban ikaratu.

Emakumeagan, beste inok ikusten ez ebana ikusten eban berak: haren duintasuna, gorengotasuna, Jaungoikoaren bihotzean daukan alabatza kutuna. Horren goian ikusten eban Jesusek emakumea!

Horregaitik, Jesus eta emakumearen arteko jardunak beti dira gozoak, bigunak, eskuzabalak. Honen lekukorik onenak ebanjelioak eurak dira.

"Samariako emakume bategaz berbetan zihardualako bere ikasleak harrituta geratu ziran" diño Joan apostoluak.

Andrazkoekin eta gizonezkoekin bardin jardun eta moldatzen zan, ezeren bereizkeriarik gabe. Bitzuak ziran bardinak beretzat.

Osatu ere, bardin osatuko ditu andrazkoak eta gizonezkoak, "Jauna, oraintxe hil jat alabea, baina, zatoz, ezarri egiozu eskua eta bizi izango da", diñotso Jairok bere doluminean. Eta Jesusek neskatila bizirik zutuntzen dau.

Hamabi urtean odol jarioz gaixorik egoan emakumea, Jesusi fede biziz soineko ertza ikutuaz batera, osatuta geratu zan.

Jesusen hartu-emonok, inozkoren baten, hasarregarri eta jasangatxak izateraino heldu ziran herritar batzuentzat. Gogoratu daigun, esaterako, Simon pariseoaren etxean jazorikoa.

Txori ona egoan gure Simon, Jesusi bere mahaira bazkaltzen deitu ostean, Jesus mahaian jarri zanekoxe, emagaldua lez ezagutzen eban andrazko gazte bat, Jesusen oinetan ahuzpeztu eta bere malkoakin oinak garbitu eta

bere buruko uleakin oinak legortzen eutsazala konturatu zanean.

Simon bekoki astun eta hasarrez bitsetan egoan. "Hau profeta balitz, daragoion Simonek mormoxean, jakingo leuke nor eta zelakoa dan ikutzen deutsan emakume hori, emakume pekataria da eta". Han egozan pariseuen txundioa ez zan txantxetakoa izan.

Gogoan eukitekoa da, baita, emakume ezkontza hauslearen alde egin eban babeskuntza ere. "Zuen artean pekatu barik egon daitenak jaurti dagiola lehenengo harria". Baina, harririk ez zan jaurti, danak alde egin ebelako.

Honez gainera, Jesusek bazituan bere kutuntxoak ere. Adiskidetasun estu-zintzo bat bizi izan eban emakume batzukaz. Esaterako, Jesus eta Mari Madalen maite-maite ziran.

Betaniako Marta eta Maria ere hantxe ziran Jesusen bihotzaren beroan. Lazaroren hilobi aurrean, Maria negarrez ikustean, Jesusek berak ere negarrari emon eutsan.

Adiskidetasunari arren bizia egiten ekian Jesusek; ederrez gurtzen eban. Hortik ezagutzen dogu guk Jesusen bihotzaren neurribakotasuna.

Baina, Jesus oraindik urrunagora doa. Berarekin ebiltzan emakumeak, Mari Madalen buru zala, Pazko goizean, bere berbizkundearen lehenengo lekuko eta barriemoile egiten ditu. Bere biztueraren oihulari.

Esan dogu, emakume baten testigantzak ez eukala baliotasunik; legez alperra zala bere hitza edozein auzitan. Eta halan ere, Jesusek, bere bizitzako gertakizunik handiena apostoluei jakinerazoteko, emakume honeek egiten ditu barriemoile.

"Gurutzean hil eben Nazareteko Jesusen bila zabize;

biztu egin da, ez dago hemen. Ikusi ipini eben tokia. Joan zaiteze Haren ikasleei eta Pedrori esatera, Galileara zuen aurretik joango dala; hantxe ikusiko dozue, Berak esan eutsuen lez".

Lau ebanjelariak aipatzen dabe jazokizun hau, hainbaten, adierazgarria dalako eliz edestian.

Hemen gauza barri bat ageri da: aurrerantzean emakumeak erlijio barruan, Jesusen gurariz, zer ikusi eta zer esan urtenago bat daukala; mandatu barri bat daukala eliz zereginetarako.

Hemetik etorriko da Pabloren esana ere: "orain ez dago judarrik ez gerkarrik; ez dago jopurik ez askatua danik; ez dago gizonezkorik ez andrazkorik, Kristogan guztiok bat zaree eta".

Guzti hau, ebanjeliokoa dan lez, neke barik onartzen da jendearen aldetik. Hemen ez dago zer esanik.

Baina, Jesusek ez eban emakumerik abade egin. Eta hemen dator untzea, barru-barruraino sartuta. Hemen eztabaida guztiaren ama.

Eta koska hau da argitu nahi gendukena, alderdikeriarik gabe, egiari bidea eginez. Elizaren onaren ederrez.

Gaur emakume askok abadetzan sartzea nahi leukee, horren irrikia dauke; minez dagoz Elizaren ezetzagaitik; minez zuzenbakokeria gordin horren azpian bizi behar izateagaitik.

Abadetzaren egarri hau ez da gaurko emakumearena bakarrik; antxinatik dator Elizan. Gaur Elizako santutegian goraturik ditugun santa batzuk ere horren egarriz bizi izan ziran euren egunetan.

Baina, ez eben inoz ames hori beteta ikusi. Euren etxe eta komentuetan isil-isilik giltzapeturik egon ziran, ebanjelioa oihukatzeko eskubiderik gabe.

"Neke-oparitzat eskeintzen dan arimak, bere barne ondoko isiltasunean, "abade izateko" dei bizi eta ezkutua ohartzen dau". Honela inoan gizaldi honen lehenengoetan hil zan Irutasun Deunaren sor Isabelek, mistikako goi-goiak gainditu zituan lekaime karmeldarrak.

Eta gurari hori beretzat lortuezina zala jakinik, irrika bizian lehiatuta, hauxe autortzen eban: "Lurrean dagoan gauzarik santuena abadetza da".

Lisieux-ko Teresa deunak ere lerro sutsu eta gogoangarriak idatzi zituan bere bizitzako liburuan.

"Beste dei batzuk ere sentitzen ditut neugan: "gudalari" deia sentitzen dot; "elizgizon" deia; "apostolu" deia; "irakasle" deia; "martiri" deia.

Apaiz deia somatzen dot neugan; benetako maitasunez eroango zindukedaz nik zu eskuetan, o Jesus, neure agoaren hotsera zerutik jatsitakoan. Nik bai Zu pozik arimai eroan!

Txikia nazala ere, arimak argitu nahi neukez igarleen antzera; ikasleak lez "apostolu" deia daukat... Lurra zeharkatuko neuke; zure izena oihukatu eta sinisbakoen lurrean zure gurutz aintzatsua jarri... Baina, ene Maitea, ez litzakit misio bat nahiko izango, ebanjelioa iragarri gurako neuke, aldi berean, munduko bost alderdietan, urrinen dagozan ugarteetaraino".

Baten baino gehiagotan entzuten dira honakoak andrazkoen agotik: "zure bekaitzez naukazu, apaiz zaralako".

Baina, emakume hareek ez eben eztabaidarik sortu, euren agoetan ez zan Elizaganako mormorrik entzun, isil eta apal, santutasunaren itzalera jasan eben bereizkeria hori.

Baina gaur, gauzak guztiz aldaturik ageri dira. Gaur

egun, emakumeak ezinbestezko premiatasunez eskatzen ditu bere eskubideak bai herri eta kultura mailan, baita Eliz mailan ere.

Emakume askok eurekan aurkitzen dituen doai eta baliagarritasun guztiak Elizari emotea nahi leukie, haren zerbitzuan jarri.

Eliza emakumearen beharrean dago, egon ere. Honen hutsa nabaritzen da, bere sorkeratik Eliz egitura eta antolakizunetan.

Hemen ez dira onartzekoak adarbiko arrazoibideak, Elizaren atxakiak. Elizak, emakumearen deadarrak ez entzutearren, bere izate eta egituretan besteak ez moduko aparteko batzarra dala diñoanean, emakumearen eskabideari aurrez-aurrezko erantzun zuzena emon beharrean, gauzak trabatzen, atxakiak bilatzen, arazotik igeska nahian ei dabil, emakumearen esanean.

Sinisgarriagoa litzake Elizak, bere esan, egite eta gainetikoetan, emakumearen barditasuna onartzeaz gainera, eguneroko bizitzan bere partaide lagun hartuko baleu. Oso aberasgarria litzakio Elizari emakumearen partaidetza hau.

Ulergatx egiten da Elizaren portaera hau.

Herri aurreratuetan emakumea eragozpenik gabe mugitzen da gaur. Gorengoetan hasi eta beherengoetaraino, gizarte maila guztietan bertako eginik dabil. Edozein zeregin, edozein lanpostu, duintasunez eta trebetasunez betetzen daki. Izugarrian aberastu ditu gizarte alorrak.

Eliza bakarrik gelditu da bide erdian. Itsu eta setati. Eta honek sinisgarritasuna ostuten deutso eta, gainera, hasarrebideak sortu.

Berenez, Eliza aurreak hartuta ibili behar leukena da gai honetan. Aurrelari eta eredugarri, besteentzat ikasbide izanik, Erreinuko eskatimai dagokioenez. Baina ez dago honen antzik.

Gai honen irtenbide baterako, argitasunik asko emongo deusku Rahner teologo urtenak dakazan arrazoibide mardulak.

"Emakumea abade ez egiteko Eliza katolikoak dauan ohitureak ez dauka beharrezko oinarri teologikorik. Gaur eregita dagoana, barriz, ez da sinisbeharrezkoa. Ohitura hori Elizgizonen asmo eta egikeratan sorburututa dator antxina danik. Orduko garaietarako ona izango zan; gaurko kulturan eta egikeratan ez dauko sarrerarik; joandako garaien lurruna da.

Gai honetan alderdikeria guztiak, batekoak eta bestekoak baztertuta, adiskidetasun abegitsuan alkarturik, sasijoko eta adarbiko arrazoibide lohirik erabili barik, egiaren eta zuzentasunaren arauetara, Elizak bere Jaun Jesukristori zor deutsan leialtasunezko kondairan sartzen diran onezko aldakuntzak egin beharrean dago".

Kontuan hartzekoa da teologo jakintsu honen eritxia.

Egiz ez dira Elizako pentsalariek beti adikortsuak eta gozoak izan emakumearekin eta hori mingarria izan da emakumearentzat.

Beti gogoan eroateko aldakuntza bat nahi genduke alor honetan. Aldiaren igaroak berak eskatzen dau aldakuntza barriak egite hau.

Bizitzako lege bat da. Bestela gizarte hau aurreratu ezina litzake. Hortik, aurrerapen eta aldakuntza guztiak gizakiaren ona eta zoriontasuna dabe helburu.

Emakumea abade? Daitekena ete da?

Hona hemen argiturik ikusi gura genduken arkaitz zuloa. Honen bila dihardugu guk, eta honen atzetik dabiltzaz baita emakume asko ere.

Han eta hemen, gurari honen egarrira egindako emakume askoren autorketak batu ditugu.

Batez ere, anglikanoen Elizan emakumeak abadetza hartu ebenetik, gurari hau biziagotuta daroe.

"Beti kilikatu nau abade izateko gurariak..."; "neure barruan abadetzarako deia daroat..."; "nik Jaunari eginiko eskeintzak betetasun osoagoa aurkituko leuke abadetzan..."; "nigan abade izateko guraria ez da ilargi aldi bat, barruan bizturik daroadan sugar izugarria baino..."; "gazte batengan abadetzarako ezaugarriak lez hartzen diran aztarnak, emakume batengan kasketaldi bitxi baten keinuak lez begiratzen dira".

Argi dago abade izateko gurari hori ez dala liluramen bat, zerbait sakonagoa baino. Jesukristori oso-osoan eskeindua izateko amesa da. Eta Elizaren erruz, gurari irrikatsuok trabatuta ikusten ditue. Benetan minduta ikusten dogu emakumea.

Mariaren antzera, euren eskuz, Kristo biziago egitea nahi leukee gizon eta emakumeen artean; eukaristia egin; Jesusen agoz gizataldeari Erreinuaren barri emon; pekatuak parkatu; jausita dagoana jaso; behartsuai eskua emon; gaixo eta ezinduai biotzeko beroa...

Kristogaz batera munduaren alde bizia emoteko prest dagoz, baina ez pertsona konsagratuak lez bakarrik, abade lez baino, horixe dalako euren eskubideen neurria.

"Ezinezkoa da emakumea abade izatea. Ezin dau oparirik eskeindu. Bera da oparia", erantzun deutse Elizak. Hitz honeek oso mingarriak dakioez emakumeei. Injustizia baten agergarriak lez hartzen ditue.

1942.an, Hitlerren jazarraldian heriotza hartu eban Edith Stein, lekaime karmeldar entzutetsuak, emakumeari, emakumea izateagaitik soil-soilik, Elizaren aldetik aba-

detzarako ateak ixte hori, emakumeen eskubidei egiten jaken "lapurreta bat lez ikusten eban.

Zergaitik jazoten da hau? itanduten eban berak. Eta bere erantzuna, aizkora zorrotza lez, sustrai-sustraira doa: "Elizak inoz benetan hartu ez daualako arazo hau".

Baina, inongo aldetik ez eban aurkitzen arrazoibide seriorik emakumeari abadetza ukatzeko. Eta egunen baten, aldakuntza hori etorriko zanaren itxaropenean hil zan.

Lisieux-ko Teresa donea ere, bigarrenez datorkigu bere sentimenak agertzera. Diño berak: "Ah, emakume gaixoak! zein arbuiatuak diran! Eta, halan da guztiz ere, Jaungoikoa maite dabenen artean andrazkoetan gehiago dira gizonezkoetan baino. Eta Jesusen nekaldi aldian, apostoluak eurak baino ere barren gehiago izan eben.

Behar bada, Jesusen nahia da lurrean emakumeen ondare bakarra destaina izatea, hain zuzen ere, hauxe berau izan zalako berea ere.

Baina zeruan agertuko dau bere gogapenak ez datozala bat gizakiarenakaz, han azkenengoak aurrenengo izango dira eta.".

Elizak, barriz, arazo astun honetan bere burua zuritzeko, Jesus berari botaten deutsoz erruak. "Jesusek ez eban emakumerik abade egin", diño. Hamabi apostoluen artean ere ez dago emakumerik. Hau dala eta, Eliza ez da Jesusen nahia aldatzeko "eskubidetuta" aurkitzen.

Hauxe da Elizak auzi honetan daukan arrazoibide bakarra. Gainetiko arrazoibide guztiak, azken baten, hutsak eta putzak litzakioz. Gaur inon agerrezinak.

Hementxe dago, ba, arazo honen kakoa. Gauzak ez dagoz argi, ezta gitxiagorik ere.

Elizaren eskabidez, Bibliaren ikerketarako sortu zan Batzordeak gai honen goibeheak ondo-ondo arakatu

ondoren, ebazpen hau emon eban: Idazti Deunean ez zala aurkitzen auzi hau ebazteko aztarren ziurrik. Beraz, Elizak aldatu leikela ohitura zahar hori eta emakumea abadetzan hartu".

Baina, Erromako Kuriak ez dau Batzorde honen ebatzipen hau argitara emon. Zergaitik ez?

Gure jakinahia asetzeko, elizako maisu zaharrak idatzi zituen pitxikeria batzuk batuko ditugu hemen. Txotil-txotilak dira eta gauzak hobeto ulertzen lagunduko deuskuenak.

Esaterako, Vaticano bigarrenerarte Eliz maisuetan maisu nagusia izan zan Aquinotar Tomasek honako ergelkeria batzuk dirauskuz:

"Emakumea, berenez, makala eta mengela da; txarto egindako zerbait; gizonaren ondoan erdikina; honen menpean dagoana; gizona ez ainekoa, gizona dala emakumearen hasiera eta amaiera, Jaungoikoa gizadi guztiarena dan lez".

Hau da, ergela eta emea dalako, abadetzatik botata dago. Vaticano bigarrenerarte pentsamolde hau ibili da aurrelari eta goiburu bai Elizako eta bai herriko jakintsuen artean. Honen doinura egin dau dantzan Elizak.

Etorriko da, ziur nago, Elizak apal eta damuz emakumeari, berari egindako irain eta destaina guztiakaitik parkamena eskatu beharko deutsan eguna.

Gaurkora etorrita, 1983.an argitaratu zan Elizako Legedi nagusiak hauxe dino: "Eliza katokikoan, bateatuta dagoan gizonezkoak bakarrik hartu leike legez abadetza".

Honek esan nahi dau Eliza gaur ere lehengo marratik doala. Ez dauala ezelango aldakuntzarik egin honetan. Hitz jokoa aldatuz, antxinako pentsamoldeetan gogortuta jarraitzen dauala.

Ikusitako honen ildora, kristau alderdi handi batek itaun hau dagitso Elizari: ziur-ziurra ahal da Jesusek ez zituala nahi izan emakumeak abadetzarako?

Entzun dogu goragoan Bibliaren barrunbeetan jakintsuak diranen eritxia: Idazti Deunean ez dagoala horren aztarren ziurrik.

Rahner buru dala, teologo asko dira gaur, beste irizpide hau aldezten dabenak: lau sakramentu honeetzaz -ezkontza, abadetza, gaixoen igortza eta sendotza- ez daukagula Jesusen hitz batxo bat ere.

Jesusek, azken aparian, apostoluei eukaristia egiteko damotsen eskubidea ez zala izan abadetza sakramentuaren sortzerarako.

Lau sakramentu honeek dira, ba, Jesusen aldetik sorkera hitzik gabe aurkitzen diranak.

Hitz honeekaz magalpe ederra emon deutse Rahnerek andrazkoei; bere eritxiari eder eginez, Jesusek gizonezkorik ere ez ebala abade egin dirauskue orain. Ez gizonezkorik ez andrazkorik. Rahner-ek guk baino gehitxoago ekian ezkero, bere hitzari ez deutsagu sinisgarritasunik ukatuko.

Dana dala, apostoluen abadegintza eta gaurko Elizan hartzen dana ezin ditugu bardindu. Ez dira hari batekoak. Bata besteagandik lurretik ilargira besteko bidea dago. Aroa, ohiturak, siniskerak, kulturak zeharo desbardinak dira.

Jesusek era berezian deitu zituan bere apostoluak, era berezian eskolatu; zeregin eta egikizun berezietarako gertatu. Aukeraketa bakana izan zan hareena; ezin daikegu beste inorenarekin bardindu hareen egitekoa. Munduan zehar ereingo eben ebanjelio hazia Jesus beraren eskutik hartu eben, Espiritu Santuaren arnasa beroz bizituta ernekо zan hazia; hareen ibil-inguruak eta gureak ez dauke ezeren antzik.

Ikusi dogu goragoan, emakumea nor eta zer zan garai haretako kulturan. Ez zan inor, ez ezer. Hutsa zan bere berba, hutsa bere sinisgarritasuna; hutsa bere autormena; hutsa bere nortasuna; hutsak bere eskubide guztiak.

Nora joan leitekean emakume bat garai haretako egoeran? Ebanjelioa zelan oihukatu? Zelan hartuko zituan jendeak aurrean ikustean? Iseka, txistuka, harrika?

Emakumea izanik, ba ete eukan indarrik apostoluak egindako bideak egiteko, hareen ezbehar, neke eta arriskuak iraunteko?

Garai haretan, emakumea egoan eritxiburuan egonda, egokia ete zan egiteko hau berari eskeintzea? Baietzik ezin esan.

Jesusek egin ebana, zentzun onak eskatzen dauana besterik ez zan izan. Ez genduke, beraz, Jesus oztopo harritzat jarri behar. Zentzun onetik datorrena da, beti ere, arrazoirik onena.

Jesus neurriak zaintzen ekian gizona zan. Ezinezkorik ez eban inoren lepora botatzen. Hori berori egin eban emakumeekin ere.

Baina andrazkoen esku eta lepo egozan gauzetan, zeresanari entzungor eginik, andrazkoa zeregin askotarako erabili eban. Zeregin goi mailakoak gainera. Apostoluekin batera joiazan Jesusen inguru eta bideetatik.

"Egia esan, gure arteko emakume batzuek harrituta itzi gaitue", diño argi Lukasek. Lk. 24,22.

Ezin dogu zalantzan jarri emakumeak Jesusen ikasle izan ziranik. "Amabiak joiazan Jesusegaz, baita emakume batzuk ere, euren ondasunakaz Jesusi lagun egiten eutsoenak". Lk. 8,1-3. Marta lakoxe emakumeak: "Sinisten dot mundu honetara etorteko zan Kristoa, Jaungoikoaren

Semea, zeu zarana". Jn 11,27. "Rabboni" deitzen eutsoenak, benetan bere ikasleak ziralako. Ebanjelioak hitzez urriak ditugu emakumeen eginenak azaltzean. Judutarren ohitura zaharrari jarraituz, ez deutse ezetan aitzindaritasunik emon nahi; garrantzi handiko gertakizunen bat bitarteko dagoanean bakarrik dakardez gogora.

Esaterako, Jesusen nekaldi, heriotz, hilobiratze eta berbizkunde aldian ageri dira aitzindari.

Apostoluen jokaera ez zan guztiz txalogarria izan Jesusen azkeneko egunetan. Koldar eta igeslari ikusten ditugu, uxo eta kikil, maisua bakarrik itziaz.

Emakumeak, ostera, gertakizun guzti hareetan lekuko ditugu. Jesusengandik hurrean ibili ziran. "Herriko laguntalde handiak jarraitzen eutsan Jesusi, baita emakume talde haundiak ere negar zotinka". Lk. 23,26.

Kurutzapean amaitu eben, han jazoten zan guztiaren lekuko izanik, Jesusi jarraituz eta zerbiduz, Galilean, haren ondoan hasitako ibilaldi luzea.

Gero, Golgota gainean aurkituko ditugu Jesusegaz batera maitasunezko heriotza hartzen. Azkenez, hilobiraino lagunduko deutse.

"Mari Madalen eta Joseren Maria gorpua non ipinten eben begira egozan".

Jesusen berbizkundearen barri aingeruak emonda jakin eben. Handik lasterrera, Jesus berbera agertu jaken berbizturik.

Ez Pedrok, ez Joanek ez eben bakarko agerraldirik izan Jesus berbiztuaren aldetik. Emakumeakandik jakin ondoren, joan ziran hilobira hilobia hutsik aurkituaz.

Horra, ba, apostoluak emakumeakandik jakin eben Jesus bizirik egoala eta Galilean itxaroten eukiela. Jesusen nekaldi, heriotz, hobiratze eta berbizkundean lekuko nagusiak emakumeak ditugu.

Ames arin bat egin daigun hemen. Gaur Jesus biziko balitz, eta emakumeari buruz gizartean dabiltzan pentsaera, kultura, giro, adikortasun eta begiramena bere begiz ikusi; emakumeak lortu dauan gorengotasuna bai eskubide eta bai gizarte mailan eta bestetik, emakumeak abade izateko dituan gurari bizi, orokorrak gogoan izan ondoren, ukatuko ete leuskioe Jesusek abadetza hori?

Hor gelditzen da zutik itauna. Ustean nago, Jesusek ez leukela kezka eta eragozpen gehiegirik ipiniko emakumeari abadetza emoteko.

Holan aitu dabe protestantismoaren sustraietatik jaiotako hainbat eliz taldek. Kristau elizak aurreratu egin jakoz eliz katolikoari.

Horreetariko elizarik gehientsuenetan, emakumea gizonaren parean doa bai eliz artzaintzan eta bai eliz zuzendaritzan. Eskutik doaz bata eta bestea..

Baina, ez da hau Erromako Kuriaren gustukoa izan. Hortik oharpen bat bialdu deutse beragandik bananduta dagozan beste elizai, egin daben hori kristauen batasunerako eragozpen haundia izan daitekela esanez.

Ulergatxa da kristau herriarentzat Elizaren portaera hau. Aituezinezko nahasketa.

Ez dakit non irakurri neban gerturiko hau. Gotzain jauna parrokia batera doa hango neska-mutilei sendotza emotera. Aurretik, dotrinako itaun batzuk, azterketa modura.

Badiñotso neskatxa bati: zenbat dira sakramentuak? - Eta neskatxak, ikaratu gabe, bere gibel handiz: mutilentzat zazpi, neskentzat sei. Ago zabalik geratu zan gotzain jauna.

Horra hor herriaren teologia. Tomas deun jakintsuari berari ere ez jakon honakorik burura etorri.

Elizkide asko, emakumearen arazo honetan, Eliza

Erdiaroraino atzeratu dala eta dagoz, zelanbaiten, erdiaroan, gangar ziran pentsaera itsusiai zutik iraunazoten deutsoe eta, hau da, emakumeak arimarik ez daukala, ez dituala gizonak aina doai eta gaitasun, gizonaren menpe egoteko egina dala, ezinezkoa dala bere artekotasuna eliz gidaritzan...

Agoz ez bada ere, egitez behintzat holako zerbait agertzen dau.

Bada-ezpadako teoria bat dakar oinarri lez bere ezetza aldezteko. Eta herriaren gehiengoak ez deutso joko hori onartzen.

Emakumearen doai eta gaitasunak ondo ezagutuak ditugu, lelo horren inguruan beti biraka ibilteko. Memelkeria guztiak alde batera itzita, zergaitik ez aurrera egin herriaren beharrizan larriak begiratuz?

Badago, ba, gure herrietan zerbitzari on batzuen beharrizana! Kristaudia zutik dagoanetik geroz, gaurkoa dala deritxat arorik baltzena. Europa aldean, batez ere, ez da inozko alditan, fede ingurumaria hain larri eta beheraturik egon.

Hainbeste zerbitzari prest lanera sartzeko eta gu zoztorrak jarten langilei. Harrimena bakarrik dakar Elizaren jokabide itsu honek.

Apostoluak hilda gero eta gero, Elizan sartu ziran ohitura, araudi eta legeak, zetara edo hatara, zutik gorde nahi ditugu eta, ostera, apostoluen egunetan, beraien irakatsiz eta eginez lehenengo kristauen bihotzean erein eta garaututako ekandu eta bizikerak antxinatik baztertuta daukaguz.

Joan Bateatzailea kamelu narruz jantzita ikusten dogu Jordan ibaian; Jesus ere herritar apalen antzera; Pedro tunika bategaz; Paulo eta beste apostoluak bardin.

Elizan ardurakizunen bat euken guztiak edozein

herritar lez apal eta umil jantzi eta bizi ziran. Lehenengo kristauen ezaugarria zan ekandu eder hau, antxina-antxinatik haizetara botata daukagu.

Errege ginala ames egin genduanetik eta geroz, jantzi eta enparauetan handi-mandikeriak jota gabiltz. "Jaungoikoak dana merezi dau", esaten dogu, gero, geure harrokeria mozorro kapatxaz estalduteko.

Fedea zelan aitu eta zelan bizi behar zan -gaurko teologia eta morala- arautu eta ataldu behar zanean, edota kristau taldean sortutako beste edozein arazo larri ikusi behar zanean, apostolu guztiak alkartasunean ebatziten zituen holako gauzak.

Artzaintza alkartua, kolegialtasunean eroana egiten eben apostoluak. Hori ere gaur galduta daukagu, nahiz eta kontzilioak gauza bera eskatu.

Honako irakatsi eta ekandu eder asko itzi ditugu bidean galduta.

Elizak inoz benetan hartuko ete dau emakumearen abadetza hau?

Ona litzatekena da, arazo hori ebatzi baten eske dago eta. Itsu eta gor egiteak ez dakarkio onik. Aitumena luzatzeak ere ez. Itxura txarrean geratuko litzake Eliza.

Emakumea ez dago atzera egiteko. Berea lortu arte ez da isilduko. Edur montorra lez jausiko da Elizaren gainera. Burrukari azkenerarte eutsiko deutso. Amaibako burruka bat izan daiteke. Baliteke emakumea abade egin da ikuste hori, lehenengotan arrotz eta nabarmen izatea herriarentzat. Harritasun apur bat sortuko leuke ziur.

Baina lainoa haizeak garbitzen dauan lez, arin-aringa hilko litzake harrimen hori ere. Aurrean ikusten ohituratuaz batera, onartuko leuke herriak emakumearen abadetza hori. Herri gehiengoak, behintzat.

Holako harrimenak Eliza barruan bakarrik sortzen

dira gaur, aurrera egitea ahaztuta daukalako. Herriak antxina zapaldu eban jomuga hori.

Honez gainera, esanezinezko mesedeak ekarriko leuskioz bai Elizeari eta bai herriari. Gizonak ez ainako ikutu, samurtasun, kirmentasun bat ezarriko leuskioe bere egiteko guztiai emakumeak.

Amak etxean jarten dauan biguntasuna, beroa, gozotasuna. Gizona eta emakumea, biak eskutik lanean, bakotxak dituan doai eta gaitasunik onenakin, izugarriro aberastu eta osotuko leukie Eliz alorra.

Elizkideen arteko hartu-emonetan ere emakumearen eskua ikusiko litzake; beste gatz eta doinu bat entzungo gendukez elizako hitzaldietan; apainagoak eta biziagoak litzakez gure liturjigintzak; emakumearen bihotzari darion bero eta amatasunak eliz inguruak ederrez jantziko leukez zalantzarik gabe.

Tamalgarria da emakumeagan daukagun ondasun mendi hori alperrik galtzea.

Abade urritasuna itzelean zabaldu da. Herri osoak abade barik dagoz. Eta beherantzako abiada hori hasi baino ez da egin eta, gaurkoz, gelditzeko itxurarik ere ez dauko.

Ez da eukaristiarik egiten herri asko eta askotan eta eukaristia barik ez dago kristau herririk, ez dago kulto osorik.

Ez Jaungoikoaren hitzik, ez liturjiarik, ez katekesiarik, ez ezer. Erlijio aldetik ilunpean dagoz, ezeren laguntzarik gabe. Gizona Jaungoiko bagarik gelditzeko bidean doa.

Eta guk etxean harrobi aberatsa alperrik galtzen! Hor daukagu emakumea urritasun hori betetzeko prest. Lanera sartzeko irrikitan.

Zabaldu deioguzan, beraz, ateak. Askok txalotuko genduke Elizaren baietza.

Gainera, pausu hori Eliza herriaren zerbitzuan dagoanaren ezaugarri handi bat litzake. Asko igongo leuke beraganako sinisgarritasunak.

Herriak, gaur, sinisgarritasuna eskatzen deutso Elizari eta ez hitz jarioa. Hitzak hutsak dirala esaten dogu, haizeak eroatekoak.

Jesusek, barriz, sinisgarritasuna egintzetan jarri eban. "Euren egiteetatik ezagutuko dozuez". Egiteak diñoe nor zein dan. Hortik, Jainko herriak aitzen dauan hizkuntza bakarra egiteena da.

Elizari ere egintzak eskatzen deutsaz herriak eta askotan ez ditu aurkitzen egintza horreek Elizagan.

Honako zerbait jazo zan "Humanae Vitae" enziklika ospetsuaren inguruan ere. Enziklika hori antolatu, landu eta gertau eban Batzordeko jakitunak, ia ehunetik ehun, enziklika horrek ekarren dotrinaren kontrakoak ziran oso-osoan. Beste enziklika bat zan izatez hareek gertaurikoa. Baina Paulo VI.ak jakitun horreei entzungor egin, eta berak nahi izan eban lez argitaratu eban.

Zer dala eta euki ainbeste jakitun eta hainbeste denporan enziklika horren gertakizunetan, gero norberena egiteko?

Joan Paulo II.ak ere holako eritxi eskatze bat egin eutsan munduko gotzaingo guztiari. Opus Dei kongregazioari buruz zan itaunketa hori.

Opus Dei, elizbarruti bakotxean, bertako gotzainaren esanpean ala, hau barik, zuzenean, Aita Santuaren agindupean jartea nahi eben, izan zan itauna.

Ehunetik larogeta hamarrek gotzainen esanpean jartea eskatu eben baina Aita Santuak, bere borondate santuari jarraituz, munduko gotzain-talde guztiari iruzur eginik, azkenean, Opus Dei hori Aita Santuaren agindupean jarri eban. Karmeldar lekaimeakin ere beste hainbeste egin eban. Sinisgarritasun barik, ezin zara etxetik urten.

Esku artean dakargun arazo hau astuna dala dakigu. Eztabaida latza eta garratza. Hoba amaituta balego. Baina hor dago oraindik zutik. Danon laguntzaz bakarrik eroan geinke azken onera. Elizari zor deutsagun ardurak eta maitasunak behartzen gaitu horretara.

Askok uste dabe Eliza maitatzeko erarik onena bere erabagi eta esanai men egin eta isil-isilik onartzea dala. Eliza lar sagaratua dala kritika barruan sartzeko. Baina hori ez da holan, hori ez da Eliza maitatzea; hori gehien ere geldokeria bat da.

Eliza Kristorena da eta Kristok danon esku eta arduran itzi deusku.

Danok gagoz beharturik Elizaren aurrerakuntzan eta zabalkuntzan. Danok daukagu hitz erditxo bat, maitez eta bihotzez, Eliza Amari esateko.

Geure uste, eritxi eta itxaropenak agertzeko. Minberatu gabe, hasarretu gabe, baina geure ikuspuntu eta hausnarpenak zintzo eta leial agertuz.

Eta hauxe da niretzat Eliza maitatzeko erarik onena. Isilak geldotasuna dakar; mugimenduak bideak urratzen ditu. Hoba beheko elizaren oihartzuna goiko elizaraino helduko balitz eta arazo hau onez amaitu.

Baina ez dago honen antzik, Elizaren aldetik, behintzat. Geroago eta gogorrago agertzen da Eliza arazo astun honetan. Auzia behin betiko ebatzita izteko asmoz, hitz

biribil-biribilak aideratu ditu bere ezetz aldaezina munduari jakinerazoteko.

Laster entzungo ditugu hitz garratz horrek baina, bitartean, emakumeak ere ez dagoz geldirik. Gogortu egin dabe euren burruka hori eta gerra lurra egin.

Gauza sagaratua lez ikusten dabe euren eskubide hori. Ez deukee saltzeko. Urteetan eta urteetan horren eske dihardue, teologo, jakitun eta herriaren arartekotasuna lagun dabela.

Aita Santuaren agindupean, gotzaingoa ere muker, isil eta geldo ikusten dabe. Ez dabe laguntzarik hartzen Elizaren aldetik.

Aspertu dira beti itxaroten egoteaz, eta orain gerrara sartuta dagoz.

Gotzain eta gainetikoei jaramonik egin gabe, eurek euretara, katolikoen artean, izen eta abizenak biltzen dihardue. Batez ere Suitzan, Austrian, Alemanian, Frantzian eta beste hainbeste tokitan...

Gotzain asko sor eta gor, harri eta zur dagoz oldartze horrek dakarren indarraz; zer egin ez dakiela bere aurrean. Zer egin eta zelan geratu olatu izugarri hori?

Lehenengo eta behin, emakumearen abadetza eskatzen dabe. Gero, emakumearen partaidetza eliz erakunde eta zuzendaritzan. Bidezkoa, legezkoa egin daitela abadeen ezkontza. Antxinako ekandu zaharrari jarraituz, gotzain barriak aukeratzeko eskubidea, elizbarruti bakotxarena izan dedila, Erromatarrena barik.

Azterlari askoren esanean, kristau herriaren oihu eta deadar eginik ei dagoz hemen aitatu ditugun eskakizunak. Geldiezinezko abiada baten ei dator olatu handi hori.

Gotzain asko estualdi larrian aurkitzen dira. Alde batetik, ezin dabe isildu herriaren deadarra eta horrek ondorengo negargarriak ekarri leikezala ikusten dabe Elizaren etorkizunerako, hau da, herria Elizatik urruntzea. Bestetik, ez dago euren esku herriaren eskakizun guzti horrei erantzuna emotea, ez badeuke horretarako eskubiderik, ez ahalmenik, hori Kontzilio nagusi baten lana izango litzake eta.

Dana dala, Aita Santuaren bedeinkapenaz, Ratzinger Kardinalak emon deutse, gaurkoz, agiriko erantzuna. Erabat erantzun gogorra eta bitxia.

Gure irakasle batek esaten eban agintaritza mimenaren antzekoa zala. Batek nora gura eta haraxe bihurtzen zala.

Ratzinger-ek ere holako erantzun bihur bat emon dau; bidean hauts asko astinduko dituan erantzuna.

Ratzinger Kardinalak, Aita Santuaren baietzaz, argitaratu dauan Idatzi-Agiriak, munduko gotzain eta katoliku guztiei zuzendurik datorrenak, Elizak fedeko gaietan dauan goitiko hutsezintasuna agoratuz, emakumearen abadetza hori, Jesus beraren borondatez, ezinezkoa dala jakinerazi deutso munduari.

Gaurgandik aurrera, altararako ate hori betiko giltzaz itzita gelditzen dala emakumearentzat.

Aurrerantzean, inok ezin leike ez eskatu, ez aldeztu emakumearen abadetza hori. Gai hau erabat betiko ebatzita gelditzen dala.

Gaurko Aita Santuaren hurrengo etorriko diran Aita Santuak eurak ere ezin izango dabe aldatu lege hori. Inork ere ez.

Gaurko Elizak siniskintzako egi autormendu dau. Beraz, kristau guztiok sinistera beharturik gagoz.

Ezetz honen arrazoibideak lehendik ere jakinak dira, sarritan entzun ditugu eta.

Jesusek ez ebala andrazkorik abade egin eta jokabide honetan argi ikusten dala Jesusen eritxi eta guraria, hau da, emakumea abadetzatik aldenduta eukitea.

Hori da, gaur, Elizaren esana. Baina, azterlarien esanez, Elizaren arrazoibide hau bere orpotik atarata ei dator. Arrazoibide bat baino gehiago, gogorik ezaren atxakizko argudio bat ei da. Zutik nekez iraun leiken arrazoibidea.

Egia da Jesusek ez ebala emakumerik abade egin. Eta ez eban egin, Jesus hainbaten zentzun handiko gizona zalako. Orduko garaietako emakumearen egoera larria gogoratzea nahiko da, andrazkoa aurkitzen zan giro haretan, andrazkoari abadetza emotea zentzuna galdutako gizon batek bakarrik egin leikeana zala. Zentzunezko batek ez. Eta Jesus zentzunduna izan.



JESUS GUGAITIK ZIGORTUA.

PARKAMENA GARESTI

Autortzaren inguruan iluna egin da. Baratz hostotsuan igartu dan zugatzaren irudi da gaur. Jesusek gure bihotzen poz eta onerako emon euskun sakramentua hor dogu guk bazterturik, triste eta ilun.

Lehen goraino beterik egoten ziran autortegiak, gaur hautsez beterik dagoz eliz zokondoetan. Bakea eta atsedena hainbestetan edan ditugun iturri garden hori agortu aginean dakusgu. Geure esku lohiakin ikutzean zakartuta itzi dogu.

Lege eta araudiak ondo dagoz; beharrezkoak dira, baina ez ditugu erabili behar, inoz ere, Jainkoaren Espiritua amatatzeko eran, hutsik izteko eran. Hori Jainkoari ordeak harzea litzake.

Hau dala eta, pekatariekin zelan moldatu jakiteko, barriro ebanjeliora eta Jesusek irakatsitako erabideetara jo beharrean aurkitzen gara. "Bilatu egizue egia, eta egiak askatuko zaitue".

Markos deunaren salakuntza gogorra datorkit hemen gogora: "Herri honek ezpanez goratzen nau, baina bere bihotza nigandik urrun dago... Jainkoaren agindua alde batera itzita, gizonen ekanduari eusten deutsazue zuek. Oso polito hausten dozue Jainkoaren agindua, zeuen ekanduari eusteko"(Mk 7).

Atsekabe saminez hartuko zituen Jesusen hitzok pari-

seu on eta zintzo hareek. Sinistuta egozan euren kultua orbanbakoa zala, garbia, atsegingarria.

Baina, Jesusek akats handi hau aurkitu eutsan: Jainkoaren agindua itzi eta gizonen irakatsi eta eritxiak oinburu jartea!

Honeek ez dira antxinako gauza zaharrak. Elizaren aldi guztietan ezagutu ditugu onako okerrak. Ez ahal da, gaur, kristaudia artalde zakabanatua honako edo halako eritxi batzuen erruz? Ez ahal da izan gizona bera huskeria bategaitik kristaudia nahastau dauana?

Gaur berton, bat eta bi baino gehiago aurkituko gendukez eliz alorrean, Trentoko pasarte bati, edota Aita Santuaren esanari ebanjelioari berari baino garrantzi handiagoa damotsenak.

Ebanjelioa ondo jatorkunean erabili, eta besteetan, norberena egin, Jaunaren Espirituari sarrerak itxiaz.

Makurkeria guztioi erantzun argia damotse Jesusek Markos deunaren agoz: "Larunbata gizonarentzat izan da egina, eta ez gizona labunbatarentzat".

Beste kukurruku bat entzungo zan gaur mundu zelaian Elizak irakatsi zoragarri hau bere esan, agindu eta egintzetan zehatz zaindu baleu. Autortzako sakramentua ere jokera maltzur honen harrikadak hartua da. Hemetik ekin eta handik ikutu, guztiz hutsalduta daukagu. Daukan zigor hautsa kendu eta, berari dagokiona emonaz, gizakiaren onerako barriro poztasun ezti bihurtu behar dogu.

Autortza zelan erabili jakitea ez da zaila: Ebanjelioa eskuetan hartu, Jesusek pekatariak zelan hartzen zituan begiratu eta Jesusek egiten ebana, haxe egin.

Zer dala eta, aldendu bide horretatik? Jarraibide ere-

dugarri asko emon euskuzan Jesusek arlo honetan. Parkatzera etorri zan ez zigortzera.

Autortza une oso larrian dago. Hilzorian. Hemen guztiok gagoz atrapauta. Eskurik luzatzen ez badeutsagu, ziur-ziurrik heriotzara joaku autortza. Gaixoalditik ateratzeko eske daukagu.

Gaurko teologoak osakai edo urtenbide batzuek aurkitu ditue. Gaur gehien aipatzen dabena hauxe da: agozko autortzarik gabe, parkamen orokorraren bidez egiten dan lagunarteko autortza.

Erriari atsegin jako era hau; egin dan guztietan, behintzat, begiko dauala agertu dau.

Baina, Elizaren aldetik, agintarien ezetza dau era barri honek. Ez jake begiko izan gure agintariei eta debekatu egin dabe.

Autortza, aldakuntzarik gabe, lehengo jantzi zaharrakaz ikusi nahi dabe. Eta hor dago sakramentu gaixoa, eztabaidaren adarretatik dingilizka, ez aurrera ez atzera egin ezinik, hil aginean.

Beraz, auzia honetan dago gaurkoz: lagunarteko autortza horrek badau baliotasunik ala ez? Jesusen irakatsietan sartzen da ala ez? Fedearen arauz, erabiltekoa da ala ez?

Hauxe da, fededunen honerako, hemen argitu nahi gendukena.

Elizako lehenengo sei gizaldietan, autortzako sakramentua, bizitzaldian behin bakarrik hartzen zan. Bigarren bateoa lez zan Elizaren begietan. Eta bateoa behin hartzen dan lez, autortza ere baten bakarrik baietsiten zan.

Ohitura hau nagusitu zan lehenengo sei edo zazpi gizaldietan.

Honez gainera, autortza zigor antzera, modu gogorre-

an, emoten zan. Pekatariari ezarten jakon hoben-nekea -penitentzia- neurriz gorakoa izaten zan. Ez egoan kristaurik hoben-ordaina hori betetzekorik.

Hona holako zigor batzuk.

Autortzako nekepean egoan bitartean, galerazota eukan kristau batek: ezkontzea, ezkontza erabiltea, langintzan eta salerosketan jarduntea...

Zigorpe horretan jausten zana, aldikada luze baterako, behintzat, bere bizimodua deseginik aurkitzen zan.

Lagunarteko hartu-emonak ebagita; herritarren aurrean lotsa gorrian; bere etenak eta hobenak auzokoen mormoxean. Ezinbeste kalte eta ondorio etorkiozan berari eta bere sendiari.

Guzti hori eroangatxa zan edozein kristaurentzat, jasanezina. Honen ondorenak asmatzea erraza da: zahartzaroan aurreratuak eta hilzorian egozanak bakarrik urreratzen ziran autortzako sakramentua hartzera.

Parkamena garesti saltzen zan Elizan. Autortza bera baino, autortzari ezarritako neke-lan eta zigorrak ziran sakramenturako bidea ezinez zarratzen ebenak.

Egoera larri hau zazpigarren menderarte luzatu zan.

Zazpigarren gizaldian, autortza guztiz aldatuko eban era barri bat zabaldu zan, pixkanaka-pixkanaka, han eta hemen, Europan zehar.

Irlandatik Europa aldera misiolari etorritako praile batzuk ekarri zituen ohitura barriok. Hareen irakatsien eraginera apurtu zan bizitzaldian behin baten bakarrik autortzeko lege eta ohitura hori.

Beharrizana euken guztietan aurreratzen ziran elizatarrak sakramentua hartzera. Penitentzia bidez ezarten ziran zama astunak ere arinduta , bigunduta geratu ziran.

Apurka-apurka, giza lege hobera etorri zan autortza;

hurrago, bigunago, errukitsuago egin zan giza neurrikoa. Pozez hartu eben era barri hau bai abadeek eta bai herriak.

Urte gitxi barru, herri guztietara zabaldu zan era barri hori.

Egoera bardinean aurkitzen gara gaur ere.

Banan-banango autortzari ezer kendu gabe, era hau zutik zainduaz, herriak atseginez hartu eban autortzeko beste era barri bat zabaldu zan elizbarruti askotara.

Kontzilio ostean, autortza egiteko era barri eta egokiagoak bideratu ziran abade eta herriaren ekitez eta onarpenez.

Lagunarteko autortza da honeetariko bat. Horretarako deitua izan dan herria elizara dator, batez ere, abendu eta garizumako aldi berezietan.

Jarraian, danen arteko damugintza sakon eta benetakoa: irakurgaiak, otoitzak, abestiak, azterketak, damu hitzak, onbideratzeko deiak, alkarri parkatzeko erreguak, damu agerpenak eta, honen ondoren, guztientzat bapateko parkamen orokorra; gehienetan ospakizuna meza santuaz amaituz.

Autorketa honek onespen guztiak hartu ditu herriaren aldetik. Hauxe da, hain zuzen ere, gaur eta hemen, beretzat hautatu dauan autorkuntza. Hemen aukeramena herriak berak egin dau, autorketa honetara elizak betean etorriaz.

Hau gehikeria barik, seinale on bat dala esango genduke. Elizari begiak zabaltzeko eske datorren ezaugarrideadarra.

Inozkoetan, Espiritu Santuak herri apalaren agoz dagi berba eta hemen oihartzun sendoz, nire ustez. Bide barrien bila dator. Hau sarritan jazo da, alditik aldira, autortzak izan dituan gorabeheretan.

Ez gabiltzaz hemen autortza errazago edo gatxago egiteko arazoetan. Beste jomuga batzuk ditugu begi aurrean. Esaterako: Jaungoikoagaz zelan ondoen baketu, egiazko onbideratze bat zelan lortu, autortzera doanari parkamenaren poza zelan bizi eragin, benetako kristau bizitza arduradun batera zelan bultzatu gaurko gizon eta emakumeak... Hemen dago muga-tontorra.

Eta tontor hori lortzeko lagunarteko autortza bide egokia bada, herriak agertu dauan lez, zer dala eta bazterrera bota? Autortza ez da pekatuen zigorra, parkamenaren poza baino.

Fede aldetik ez dago lagunarteko autortzaren kontrako eragozpenik, ez eta teologiaren aldetik, teologorik gehienak diñoenez. Baina, herritik gora sortutako ospakizun barriok, eta indarrez etozanak, jerarkiak ez ditu onez ikusi. Debekatu egin ditu, herria mingor eta atsekabez itzirik.

Autorkera hau ontzat emoteko, aurrezdik banan-banango autortza eskatzen dau. Honela diño gaurko eliz lege nagusiak: "Pekatu astunean dagoala uste dauan kristauak, Jainkoaz eta Elizeaz baketzeko, ohi dan lez, lehenik pekatu guztiak eta bakotxa autortzera beharturik dago, parkamena hartzeko" (C. 960).

Trentoko kontzilioak sagaratu eban autorkera hau. Harrezkero, autorkuntza honegaz ohituta bizi izan da kristau herria. Oraindik ere zutik dihardu eta, egiz, ez daukagu horren minik.

Gizaldietako itzala dauko kristau herrian. Askorentzat, gaur ere, biderik onena eta ohituena da. Zergaitik, beraz, bazterreratu? Mundu guztia gitxi litzake arimetan berak egin dituan mesedeak ordaintzeko.

Luterok berak ere oso begiko eban banango autorketa hau. Goratzarre hunkigarriak dagitsoz arnasa beroan:

"Ez dot nahi, iñoan berak, niri ahopeko autortza inok kentzerik; munduko ezegaitik ez neuke itziko, badakit bada, zenbat indar eta poztasun ekarri deustan... Ahozko autortza ez da, beraz, ezetsitekoa, goraltzekoa baino, guztiz onuragarria baita".

Lutero ez dago, ikusi dogun lez, norberen gurariz eta kabuz egiten dan agozko autortzaren aurka.

Harek ezetsiten dauana beste zerbait da. Alde batetik, Elizak autortza agindu astunpean jartea, eta bestetik, fededuna pekatu guztiak autortzera behartzea.

Hori gogoarentzat pozgarri eta aringarri izan beharrean, bihozmina eta estualdia sortzeko bide ziurra lez ikusten eban Luterok.

Autortzako sakramentua, gaur dagoeneko, krisialdi larri baten sartuta dakusgu. Krisialdi hau ez da, zinez, bakarreko autortzaren erruz. Bakarreko autortza, esan dogu, ikutuezina dala.

Krisialdia beste erro batetik dator. Zintzoak izatekotan, agozko autortzaren areriorik handiena, pekatu astun guztiak eta bakotxa autorrentzuleari esan beharretik sortzen da.

Mandatu hau gehiengoarentzat, neketsua izanez gainera, oinaze gorri bihurtzen da. Ezin dabe garaitu oinazaldi hau.

Jaungoikoak eskatu ezean, zetan legez ezarri honako mandatuak gizakiari?

Zentzunezko azterketa baten ondoren, gogoratzen ditugun pekatu astun guztiak eta bakotxa autortu behar hori, Jaungoikoagandiko agindua dala diño Trentoko batzarrak.

Elizako zenbait agiri eta irakatsitan ere horretaraxe esaten da. Izatez, erdiarotik gora, autorkuntza hau ohitu da Elizan. Holan dira gauzak.

Baina, itaun borobil bat dator hemen kezkati eta salatari: gure egunetatik urrun baino urrun geratu diran aldietan emondako lege eta araubideak, gure egunetarako gauza ete dira? Ba ete dauke baliorik? Egokiak ete dira? Ez ahal dira zaharregiak? Ba ete dauke gaurko kultura aurreratuan toki onik?

Hauxe da jakin gura gendukena.

Ezin ukatu Trentoko Guraso hareek pekatu guztiak autortu behar hori, Jaungoikoagandikoa zala uste ebenik. Hemetik atera eben, hain zuzen ere, horretarako norberen esku egoan guztia egin eta gero, parkamena hartzeko pekatuen autorpena nahita-nahiezkoa zala.

Eta hau gitxi balitz, Guraso batzuek isilpeko autortza hori ere Jaungoikoagandikoa zala sinisgai lez izendatzea eskatu eben.

Zorionez, ez eban onarmenik aurkitu burukeria honek; ez ziran horrenbesteraino ausartu.

Gauzak argi eroatea nahi badogu, ona izango jaku Trentoko batzarra ze girotan egin zan eta zeintzuk izan ziran bere barneinguruak jakitea.

Hain zuzen ere, gudako ikurrinpean egin zan.

Alde batetik, Erroma ebilan, handiminak jota, eskereskumaz, hezigatx guztiak Elizatik jaurtitzen; bestetik, Lutero menperakaizkerian itsututa, Erromari aurrea emoten.

Elizako kondairan ohizko izan dan lez, batez ere, teologiaren inguruan izan zan burrukaldi hori. Eliz jakintza zan armarri. Batzuek honetara zirala gauzak; besteak bestetara zirala. Hor egoan burruka burua.

Hain zuzen ere, hauxe zan eztabaidaren adarra: fededuna ez egoala pekatuak esatera beharturik, hemetik joian protestanteen esana; Trentok, ostera, baietz, esan beharra

egoala. Eta alderdi biak, bakotxa berean setati gogortu ziran.

Trenton esan eta idatzi zanari buruz ere ariketa batzuk egin geinkez: orduko une eta giroaldi berezia azterkatu, han emondako dotrinaren ziurtasuna norainokoa zan ikertu, edota Trento zahar eginik geratu dala esan, gaur guk bere irakatsiak plazaratzeko.

Guzti hau ona litzake ilunak argitzeko. Azaletik bada ere, horretan saiatuko gara, gaiaren joanean.

Dana dala, Trentoko irakatsiokin ez datoz bat teologo asko eta asko. Zenbait puntutan ebanjelioarekin ezkondu ezinak dirala diñoe, baita Elizako ohitura zaharrakin ere.

Pekatu guztiak autortu behar hori Jaungoikoagandikoa dala esateko ez ei dago proba ziurrik, ez gitxiagorik ere ebanjelioan.

Gainera, araubide hau ez dator bat, urrundik ere, Jesusek ohizko zituan jokaerakin ere.

Trentok honetan gidari ibilitako esaldi edo pasarteak, honexek dira: "Zuri emongo deutsudaz zeru-erreinuko giltzak. Eta zuk lurrean lotzen dozuna, lotua izango da zeruan ere; eta zuk lurrean askatzen dozuna, askatua izango da zeruan ere" (Mt 16,19).

"Benetan dirautsuet: lurgainean lotzen dozuena, lotua izango da zeruan ere. Eta lurgainean askatzen dozuena, askatua izango da zeruan ere".

Gaurko biblilarien eritxian, esaldi honeek ez deuke zerikusirik autortzarekin. Ez ei da autortza ikuspuntu horretan bereizten dana, beste zerbait zabalagoa baino.

Esaterako, zerbait egiteko ahalmena emotea edo ukatzea legoke esaldi horreen esanahian; gauza bat txarra ala ona dan ebatziteko eskua; kristau taldetik inor bota edo

barriro hartzeko eskubidea eta honako aginpideak ikusi leikez pasarte horreen barruan.

Parkamena baino gehiago, agintearen arloan legoke bere esparru berezia.

Halan ere, gauzak ertzetaraino eroanaz, autortza ere sartu daiteke pasarte horreetan, baina ez Trentok onartu eban lez.

Trentok esaldiok oso-osoan autortzaren oinarritzat hartu zituan. Autortza egoan hitzon azpian. Eta, jakina, zer askatu edo zer lotu jakiteko, aurrezdik gizakiaren barruan dagoana jakin behar. Hortik legetu eben pekatu guztiak autortu behar hori.

Baina biblialarien agoz, ez ei da heltzen horrenbesteraino esaldi horreen asmoa, luzera.

Beste hainbeste esan geinke Joanen esaldiaren inguruan ere. Trentoko Gurasoak autortzaren iturburu lez ibilitako beste pasarte bat da Joanen hau ere:

"Zuek pekatuak parkatu dagiezuezanai, parkatuta geratuko jakez; zuek pekatuak lotu dagiezuezanai, lotuta geratuko jakez" (Jn. 20,23).

Goragoan azalpendutako esaldiak eta aurreko hau parekoak ditugu. Iturri bateko urak.

Erdiaroan, bere garrantzia izan eban Santiagoren pasarte bat dakargu orain, autortzaren nondik norakoak zehaztasun handiagoz ezagutzearren.

"Autortu egizuez, ba, alkarri zuen pekatuak, eta otoitz egin alkarren alde, osatuak izan zaitezen" (Sant. 5,16).

Erdiaroko garaietan, pasarte honen arabera, abaderik aurrez etzanean, eliztarrak pekatuak alkarri parkatzen eutsoezan. Beraz, parkatzeko era hau ere erabili izan da inoz Elizan.

Pasarte honetan errotuta dator gaurko gaixoen oliadura ere.

Joan deunak beste aholku hau damosku: Jainkoaren aurrean agertu eta autortu daiguzala gure pekatuak.

"Gure pekatuak autortzen badoguz, zintzoa eta zuzena da Bera gure pekatuak parkatzeko eta gaiztakeria guztitik gu garbitzeko" (1 Jn. 1,9).

Hemen ez da autorrentzulerik agiri; Jaungoikoa bera da parkatzailea.

Aipatu ditugun esaldi danotatik ezin daikegu oinarririk, arrazoibide ziurrik atera, pekatu guztiak eta bakotxa autorrentzuleari esan behar hori Jaungoikoagandiko agindua dala aldeztekorik.

Arrazoi txiki eta epelak dira gizakia horrenbesteraino behartzeko. Gizakiaren duintasunean zauriren bat, urruturen bat egin geinke holako aginduekin; zuhur ibili beharra dago hemen, bestela onduezinezko kalteak etor daitekez fededunentzat eta.

Holako zerbait ikusi dauala esan leike gaurko gizakiak autortzaren erraietan. Behar bada, horregaitik urrundu da hainbestean autortza hartzetik.

Autortza epaiketa baten antzera aurkezten jaku Trentoko batzarrean. Autorrrentzulea da bertako epaile eta osagile.

Epaile lez, hobendunaren erruak ezagutu behar ditu eta osagille dan lez, haren gaixoak osatu.

Eta erruak eta gaixoak jakiteko, pekatariak bere huts eta argalkeriak autorrentzuleari agertu behar, bestela honek ezin jakin zer parkatu, ez zer osatu.

Ardatz honen gainean dago zutundurik autortza. Beraz, parkamena auzi bidez jatorku, autorrentzuleak gure pekatuen zorra zein dan erabagitzean.

Epai honetan pekatariaren damua eta mina baino behinago, pekatuaren errua eta astuntasuna epaitzen dira.

Honela begiratuta, autortza ebanjelioko lora bitxia barik, zesarkeriaren emoi ustela gehiago dirudi.

Zenbat buru hainbat aburu, esaten da. Esakera hau egi bihurtzen da autortza jokoan jartean.

Bakotxa geure liburutxo kaskarroa eskuetan dogula ibili gara. Batzuek autorrentzule gogorrak, eritxi itxitakoak; inor estuegia ere bai; gehiengoa errukitsu eta bihotzbiguna, baina, azken baten, guztiok pekatari. Pekatarien tartekoak.

Eta guk pekatariok, Jainkoari eskua kenduta lez, pekatarien epaile eginik. Kontutan izan behar dogu beti, Jaungoikoa dala parkatzaile bakarra, eta gu haren esku apala, agirikoa.

Autortzari jarri deutsagun izena bera ere higuingarria da: "Penitentziako auzitegia", deritxogu zenbaitetan, eta bihotzean ezeren minik hartu gabe deitu ere, behar bada, gure irakasleakandik hartutako berba itsusi hori, geure barruan orraztu gabe daroagulako.

Batez ere errukizko auzitegia deitu izan deutsagu. Eta ziur nago, itxasoko urak aina erruki isuriko ebela gure autortegiak, baina erabat, bai bildurra, estualdia, lotsa, garrazia eta nekea ere.

Zenbat gogo kurutzatuta auzitegi horren aurrean, bildurrez, lotsaz. Hain garestia ete da parkatzea? Zer egin dogu Jesusen sakramentuarekin?

Jesusentzat autortza Aitaren eta semearen arteko maitezko besarkadea da. Pekatariari bakea eta poza dakarkion besarkadea.

Damuz beraganatzean damosku maitezko besarkada hori. Horren bila doa sakramentua. Hortik gorako guztia, gizonok ezarritako azalutsa besterik ez da.

Goragoan esan dogun arren, barriro ere aitatu beharko dogu, eragozpenaren akatsa hementxe dago eta.

Trentoko gurasoen agotan, pekatu astun guztiak eta bakotxa autorrentzuleari esan beharra Jaungoikoagandiko agindua da. Jainkoak eskatzen dauan betebehar bat. Siniskera hau ebilan kantari, goiburu lez, Trentoko batzarrean.

Honek ez dau esan nahi guraso hareek egiaren jabe ziranik; egia beraien esku eukeenik. Eta oraindik gitxiago, egi hau hutsezina danik, eta hutsezina lez, beragan sinistu beharra daroanik. Ez da horrenbesteraino heltzen.

Idazti Deunak ez dau horretarako oinik emoten. Elizako kondairan ere, ez da beti horretara izan. Hainbat eratara hartu izan da autortza.

Honen arabera, Trentoko irakatsi batzuk aldatu eta zuzendu beharra izan dabe. Ez dira sartzen izan gaurko jakintzan.

Kontzilio asko egin dira Elizaren bizitzaldi luzean. Baina, kontzilio bakotxak erabagi dauan guztia aldatuezina eta sinistu beharrekoa balitz, honezkero, teologiaren alorra agortuta legoke.

Hustutako meatza genduke teologia.

Kontzilio bakotxak bere garaia izan dau, bere bizigunea. Garai haretako pentsaera, arazo, bizigiro eta ingurumariak izan ditu burpil eta ikuspegi.

Bakotxa noizkoa eta zeri buruz eginikoa izan zan dakigu. Zeintzuk ziran une haretan, Elizaren premina, oztopo, kezka, ezbehar, ardura eta nondik norakoak.

Arazo eta premina horrei erantzunkizuna emotea izaten da kontzilio bakotxaren egitekoa.

Aldian-aldiango beharrizanai erantzun. Elizari, behin eta barriz, bideak zuzendu eta egokitu. Aldiko gizartearen zerbitzuan bizi... Egoitz horreetan kokatuta geratzen da kontzilioaren zeregina.

Baina, ohizkoa dan lez, gaurko ona dana, biharko txarra izan daiteke. Aldi bakotxak bere nortasuna dau, bere ibilbide berezi eta aldakorrez egina. Haugaitik, Elizaren ibilbideak beti eginean egon behar dabe. Eliza beti aurrera begira herriaren eskutik, herriari oparotsu zerbitzeko, horretarakoxe da eta.

Esan dogu Trentoko batzarrean protestantismoa zala garaitu behar zan etsaia. Gurari hau ebilen kinulari Gurasoen buruetan.

Elizarentzat sagaratuak ziran hainbat gauza zalantzan jarrita egozan. Honeen artean, batez ere, autortzako sakramentua.

Pekatuen parkamena hartzeko, honeen autorkuntza ez zala beharrezkoa irakasten eban protestantismoak. Nahiko zala, bitarteko barik, Jaunarekin zuzenean autortzea, parkatua izateko.

Eta honen aurka jaso zan batzarra. Dotrina hau zan zeharo ezeztatu behar zana. Eta hau argi geldi zedin, marratu zituan hain sendo bere irakaspenik nagusienak, batez ere, autortza eta eukaristia arloan.

Ezin deutsaguz ezarri lagunarteko autortzari Trentoko irakatsi eta araubideak. Horretara ez genduke zuhur eta zuzen jokatuko. Beste hari batetik doa lagunarteko autortza.

Ez da zentzunezkoa aldi bateko giro eta ingurumarien arabera emondako lege eta araudiak, gaur eguneko beharrizan eta arazoak konpontzeko eskura ekartea.

Beste maila batera igonda dago gaurko gizartea, nondik norako bereziak ditu, arpegi barria; biziagiri berekizkoak.

Hain zuzen ere, agozko autortzak dituan hutsune eta okerrak zuzentzeko gurariz asmau eta sartu zan lagunarteko autortza hau eliz bizitzan.

Autortzeko era barri bat da, isilpeko autortzaren gehikeria eta ekandukeriak garaitzera datorren era barria.

Odol barria sartuaz, hiltamuan egoan sakramentuari bizi barria emon gura izan jakon, ahulerian gaixo hil ez zedin.

Eta hau ona dala deritxat. Guztiz mesedegarria Kristoren Elizarentzat; autortza zutik eta gazte zaintzeko modurik onena.

Zer dala eta hainbeste bildur eta atxaki lagunarteko autortzari?

Honetan Eliza atzekoz aurrera ez ete dabilen susmo bizia dago.

Gehiengoaren gurariak ezetsiz, gitxi batzuen esanetara ez ete dagoan. Zoritxarrez, honangoak gehiegitan ikusten dira gaurko egunetan. Elizaren ibilaldian, hainbestetan erabarritu dan sakramentua, zergaitik ezin daiteke gaur barritu, barritze hori ebanjelioko araubide eta espirituaz bat badator?

Alboko hondar apurrakaitik, autortzako sakramentuari hilten iztea, izugarrizko hondamendia litzake kristau herriarentzat.

Sarritan, esanahia eta hitz ingurua iruntsi eta mamia eta gauzen izaera bera alboratuta izten dakigu. Azalean gelditu, barrura, espiritura begiratu barik. Azala espirituaren aurretik jarri.

Pekatuen parkamenerako eta Jaungoikoagandiko bakea eta adiskidetasuna geureganatzeko gauza bi honeek opa ditugu: geure bizitza hobera aldatu eta Elizaren bitartekotasuna. Baldintza bi honeek dira beharrenak; beste guztia gehigarri da.

Egiazko damutasuna agertzeko, barriz, era asko dagoz, pekatuak esanez gainera.

Autorrentzulearen oinetan apal-apalik parka eske dagoan gizon edo emakumeak, edota damu negarrez zizpuruka dagoanak, hitz guztiak baino argiago dagie berba.

Nekez hobetu daiteke hizketa hori, damu hori.

Zergaitik, beraz, ez zabaldu gizon edo emakume honi parkamenaren iturri gozoa, zergaitik ez bultzatu Aitaren besoetara haren irrikitasun beroa hartu dadin, pekatuen azalpenik eskatu gabe? Ez ahal da hauxe berau Jesusek egiten ebana?

Hau ez dala beti honetara izaten? Hau ere egia da. Damu agertze hori ez da beti hain arranditsua izaten. Ez dira beti honako damu biziak ikusten.

Baina, ez ahal da nahikoa gizona edo emakumea bere kabuz, pekatari ikusten dalako, Jainkoagaz baketzea nahi daualako, bere kemenez autortzera etortea? Ez ahal dago hor onduteko asmo zintzorik? Zetan dator bestela?

Egiazko damutasunaren ezaugarririk zindoena, gizakia onbidean zeharo sarturik ikustea da.

Kristau egintzetan sendo dabilena, onduta dago.

Onbideratze hau eskatzen eutsoen antxinakoak pekatariai parkamena emon aurretik. Penitentziarik onena, bizitzaren aldakuntza da.

Esan leike, gaur egun, Elizak damuari eta onduteko asmoari baino garrantzi handiagoa pekatuak banan-banan esateari damotsola.

Autortzan zatirik onena, pekatuen azalpenak daroa; gainetiko atalburuetan, ez da hainbesteko ekinik ikusten.

Gizakia geure oinetan menperaturik ikusteko grina gaixoa daroagula uste leike.

Mataza nahastu hau argitzeko, gauzarik onena ebanjelioko Jesuseri begiratzea da. Han dago benetako iturria. Han jarraibidea. Han maisurik onena.

Gaur eta hemen, honetara dauko antolatuta eliz legediak autortzaren ingurumari hau. Lehenengo tokian, banan-banango autortza dator, parkamena hartzeko pekatu astun guztiak eta bakotxa autorrentzuleari zehatz esateko agindu nagusiaz. Baldintza honeetan dago sustraituta autortzaren ona. Baldintza honeek betetzean hutsik balego, autortza ustela litzake. Eredu honen arabera moldatu behar da autortza Elizaren esanean.

Honen hurrengo, beste modu bat ere badakar eliz legeak (C. 962).

Hau da: banan-banango autortzez gainera, pekatari bat baino gehiagori -askori- parkamena zelan emon.

Autortza honek baliotasuna, ontzat emona izateko, baldintza honeek bete behar ditu, nahitaez: Hobenduna, gogo onez, gerturik urreratu behar da. Lagunarteko parkamena hartuta euki arren, oraindik agoz autortu barik dituan pekatu astun guztiak, aldi egokian, autorrentzulearri bakarrean esateko asmo sendoa ere agertu beharko dau.

Banango autortza hau lehenbailehen egitea eskatzen da, beste parkamen orokor bat hartu baino lehen, behintzat.

Teologoak huts handi bat aurkitzen dabe hemen. Onartezinezko ezarpentzat joten dabe baldintza hau.

Zintzotasunez damututa parkamena hartzen dauan hobendaria Jaunarekin baketuta gelditzen da, parkatuta dago, teologo honeen eritxian.

Parkamen hori ikutuezina da, Jaunagandikoa dalako. Beste hori, Elizeak ezarritako burukeria bat besterik ez ei da.

Behin eta barriz esango dogu, bakarreko autortzarik gabe egiten dan lagunarteko autortzak daukan eragozpen edo ezetza Trentoko irakatsietatik datorkiola, nahiz eta beste eliz agiri askotan ere ugari agertu dotrina hau.

Txosten honek Trentoko batzarretik dakar bere indarra; han jaio zan eta kabi hori entzute eta omen handiko kabia dozu. Bere izenak bakarrik itzala sortzen dau gure barnean. Haugaitik, jente asko gelditzen da atzean lagunarteko autortzari men egiteko orduan. Kezkati eta bildurkor jarten ditu batzar horren goitasunak.

Baina hau holan dala, bide errez bat daukagu bildur eta ilunaldiok uxatzeko. Egiak argituko gaitu.

Kontutan izan daigun zehetasun txiki hau: Dotrina hori ez dala fedeko egia; araudi baten ondorioa baizik.

Hauxe izan behar dogu beti gogoan: Trenton eztabaidatu zan irakatsi gorengoetarikoa dala, baina azken baten, arau mailan geratzen dan irakatsia. Gauzak honetara argiago ikusiko ditugu.

Trenton bertan eta beste kontzilio askotan emondako hainbat eliz irakatsi eta lege, burukomin handi barik baztertuta geratu dira aldien joanean. Ez dira gaur ezetarako aitatzen. Aldien kerizpean lo dagie.

Gure jakingura asetzeko, bitxikeria batzuk batu ditugu hemen.

Nizeako kontzilioak, esaterako, igande eta jaietan, otoitzak belaunikaturik egitea galerazi eban. Lateranense IV.ak judutar eta mairuen antzeko janzkerarik ez ibilteko diñotse kristauei. Trentoko batzarrak meza santua herri hizkuntzetan esatea debekatu eban... Honako huskeria asko batu geinkez.

Baina, gauza honeek ez ditu gaur inok benetan hartzen. Aldien ilunean galdu ziran.

Pekatuak banan-banan esateari beste, gizakiari berari begiratu behar jako autorraldian. Gizakia da han lehenengo dagoana, arduratzen gaituana.

Erlijioaren lehenengo agindua honako hau da: gizakia ez inoz mindu, eratsi, apaldu, beheratu, txiki bihurtu, ezeztatu... Gizakiari dedu eta lotsa izan.

Gizakia bera makurtuko da Jainkoaren aurrean. Eta makurturik eta damuturik, gizakia parka eske zerura zuzentzen danean, non autortza hoberik!

Eta hau lortu ahal daitekena da, bere orokortasun osoan lagunarteko autortzan. Zergaitik, beraz, ukatu gizon edo emakume horri parkamena?

Emen pekatu guzti guztien azalpena eskatzea, gauzak gatx eta higuingarri egitea litzake.

Baina, Trentoko eta haren haritik sortutako gainetiko eliz esan eta agiriak muinetaraino ondo ulertu ahal izateko biderik onena, autortza, bere joanaldian, Elizan zelan emon eta zelan hartu izan dan gogoratzea izango jaku.

Hainbat eratara hartzen zala dakigu; aldakuntza handiak izan dituala. Baita antza dan lez, askotan gizakiaren eskua Jesusena baino aurrerago ibili dala. Guztiz atsegingarri izango litzakigun ereduzko autortza oraindik asmau barik daukagula esan behar dogu.

Guztion artean jauregi bikain bat jaso behar deutsagu autortzari kristau herriaren onagaitik. Guztion zeregina da autortza ereduzko horren bila jokatzea. Eskertuko genduke ahalegin hori.

Elizak izan dauan bizitzaldi luzean zehar, autortzak aldakuntza handiak izan dituala dakigu.

Lehenengo gizaldietan ohitu ziran autorkuntzak azterkatzen baditugu, oso nekez baieztuko dogu pekatuen parkamena eskuratzeko, pekatuen agermena eta autorrentzulearen askapena beharrezko ziranik.

Gaurko autortzatik urrun baino urrun gelditzen da antxinako era hori. Goragoan esan dogu zelakoak ziran

autortza hareek. Bizitzaldian baten bakarrik hartzen zirala dakigu. Bateoaz parekatzen zirela.

Orduko gizon eta emakumeak, gaurkoak beste, eguneroko hutsegiteak eukiko zituen ziur. Sarritan aurkituko ziran autortza beharrean. Baina, halan da guztiz ere, baten bakarrik emoten jaken.

Zelanbaiten pekatuak esan beharko zituen, gero euren ordaina hartzeko. Ordain zigorrak oso gogorrak, neurriz gorakoak izaten zirala ere hainbatetan esan dogu. Ia beteezinak.

Gogortasun honen erruz, jenteak, gogaiturik, autortzera etorteari itzi egin eutsan.

Azken baten, zaharrak eta hilzorian egozanak bakarrik hartzen eben sakramentu hori. Dana dala, gauza bat geratzen da hemen guztiz garbi: ez egoala pekatuak esatera behartzen eban agindu astunik. Gehien baten, parka eskatzera zerk ekarri eban agertzen eban hobendariak.

Pekatuak barik, hoben nekea begiratzen zan behinago autortza orduan. Eta hobendariak zigor hori betetzen ebanean, parkamena emoten jakon.

Gehienetan agiriko pekatuak, herriaren jakinean egozanak izaten ziran autortzan garbitzen ziranak.

Batez ere, hiru pekatu oso astun sartzen ziran autortzaren zigorpean: Jainko ukamena, giza hilketa eta ezkontza haustea!

Toki bakotxean, kristau talde txikiak ziran lez, danak ekien herrian alkarren barri, alkarren bizitza eta mirariak.

Esandako guzti honetatik, hauxe ateraten dogu garbi: banango autortza osoa ez dala pekatuak parkatzeko bide bakarra. Antxinako kristau zintzo asko ez ziran sekula autortu. Beste era batzuk egozan pekatuak parkatzeko.

Irlanda aldetik etorritako lekaideak Europan zehar

zabaldu zituen autortzeko era barriak ere, ezin esan egiazko autortzak ziranik, hasieratik behintzat. Gogo-ariketak gehiago ziran, autortzak baino.

Santutasunerako bideak urratzeko prest egozan kristau eta praile zintzoak, muga hori hobeto lortzeko bide lagun eta gidari lez, zuzendari edo maisu batzuk aukeratzen zituen.

Hautatutako maisu hori izaten zan santutasunerako bide erakuslea. Haren esan eta irakatsietara gelditzen zan ikaslea.

Alkarren lana hobetzeko, onurakorrago egiteko, barriz, ikasleak bere zailtasun, eragozpen, grina eta goibeheak, hau da, bere barruan eukan ona eta txarra maisuari agertzen eutsan. Ez ziran, baina, egiazko autortzak, borondatez egiten ziran gogo-agerketak baino.

Horretan gelditzen zan dana: parkamenik bako gogo-agerketa baten. Gainera, gogo-zuzendari hori askotan ez zan elizgizona ere izaten

Gizakien pentsaera eta eritxiak alde batera itzita, eztabaida ilun eta laban honetan, Jesuseri begira jartea izango dogu onena. Zein zan Jesusen jarrera eta jokabidea pekatariakaz? Zeintzuk ziren Jesusek arlo honetan erakutsi euskuzan egikerak, jarraibideak?

Miresgarri eta zoragarri ageri jaku Jesus pekatarien artean. Lukas deunak "zerga-batzaile eta pekatarien adiskide" zala dirausku (Lk.7,34).

Damututa aurkitzen eban edonori parkatzen eutsazan, esku zabalez, pekatuak. Nahiko zan garbai izpitxo bat begietan somatzea, besteko barik, errukiz parkatzeko.

Ez deutso itanduten hobendariari zenbat eta zelako pekatuak egin dituan. Ez dau lotsaz gorri jarten, ez hasarrepean minduten.

Nahiko zan keinutxo bat, berbaerditxo bat berehalaxe parkatzeko.

"Zeure sinismenak salbau zaitu, zoaz bakean" (Lk.7,50).

"Maitasun handia agertu dauan ezkero, bere pekatu ugariak parkatuta geratzen jakoz" (Lk. 7,47).

Erregu bakarra egiten dau parkatzeko: "Zoaz, eta ez egin pekaturik aurrerantzean" (Jn.8,11). Horixe zan guztia.

Edozeinek dakien lez, Jesusen irakatsi eta egikerak Trento eta gainetiko erakunde guztien gainetik dagoz, zalantzarik gabe. Gizonen irakatsiak hemen nahi eta nahi ez Jesusenakin bat egin behar dabe, bestela arrotz litzakez guretzat.

Bera da eredu eta maisua. Bera parkatzaile bakarra. Gu haren morroi apalak besterik ez. Lapur onari: "Benetan dirautsut: gaur neugaz batera izango zara Paradisuan" (Lk. 23,43).

Begiak zerura jasoteko arpegirik ere ez eukan zergalariari: "Erruki zakidaz, Jaungoiko hori, pekatari naz eta" esan ebalako zintzotuta bialdu eban etxera.

Aitak seme hondatzailea etxeratu zanean, besartean hartu, bihotz ondoan maitez estutu, mosuz bete eta jai handi bat gertau eban bere omenez: "Nire seme hau hilda egoan eta biztu egin da eta; galduta egoan eta aurkitua izan da eta" (Lk.15,25).

Jesusek pekatariekin eukan gozotasun errukitsu hau ikustean itaun hau datorkit burura: Jaungoikoak, gaur, Jesusek eskatzen eban baino gehiago eskatzen ete dau pekatuak parkatzeko?

Murriztu egin ete da Jainkoaren erruki neurribako hori? Zorrotzago hartzen ete gaitu bere aurrean?

Ezetz biribil batean doa erantzuna. Jesusek egindakoa nok esan txarto eginda egoanik? Biraoka hasiko ginakez.

Jaungoikoak ere, era berean, esku zabal eta errukiorrez parkatzen deutso damuz eta minez gertu dagoan gizakiari, tiki-miki eta eskakizun latzez burua bete barik.

Elizaren aldeko bitartekotasun hori, barriz, gizakumeari laguntzeko da, eta ez trabak eta eragozpenak jarteko damu zintzoz datorren gizon edo emakumeari.

Autorrentzulea erabat epaile eta osagile dala diñoe eta zeregin bi honeek arduraz bete daizan eskatzen ei jako hobendariari pekatuen autortza osoa. Honetan ei dago arrazoi nagusia autortza osoa eskatzeko.

Epaile! Non aurkitu ete dau Elizak ume galdu hau? Hitz hau minez sartzen da belarrietara. Jauntxo kiratsa darioko.

Eskua emoten dakian epailea, bihotz zabala, barruan daroan gozotasuna urolde bihurtzen badaki; arnasea, urkotasuna, laguntza, apaltasun beroa emoten dakiana bada, betor, zorionez, epaile hori; baina hotza, zorrotza, garratza, barruko zauriak zakar zirikatzen dakiana bada, epaile horrek ez dauko aulkirik autortzako sakramentuan.

Epailearen irudia, gehien ere, alegia edota paretasun baten antzera ekarri daiteke hemen, baina ez bestetarako.

Osagilearen irudia ere erkin geratzen da hemen. Gaixoaren barri jakin behar dau osagileak gaixoa osatzeko, horretan gagoz.

Baina hemen alegiak porrot egiten dau.

Ikusten dana hauxe da: pekatu astunez zamatuta aurkitzen diran pekatariak ez dabela osagilearengana etorri nahi. Ez dabe autortegirik zapaltzen.

Oraintsurarte, urtean behin etorten ziran. Gaur hori ere ez. Osagileagandik urrun dabiltzaz. Zelan, beraz,

osatu? Gaixoak berak gatxaurrekoa eta minaldiak agertu gura ez baditu, zelan osatu gaixoa?

Jendeak autortzari dagion ezetz larri honen aurrean, ezetz horren barru-barruko arrazoibideak zeintzuk izan daitekezan itandu beharko genduke hemen, serioak izatekotan.

Zergaitik urruntzen dira pekatariak autortzatik? Pozezko sakramentua dana, zelan bihurtu daiteke nekegarri eta penagarri? Zer jazoten da hor? Non dago estekuzoztorra?

Behar bada, pekatu astun guztiak eta bakotxa esan beharra jasanezina bihurtzen da jente askorentzat. Baliteke arrazoiburua honetantxe egotea. Beraz, zetan euki kaltegarri dan agindu astun bat, bide hobe eta egokiagoak geure esku baditugu? Zer lortzen da horrekin? Ziur-ziur, autortza bapezera eroatea.

Europa kristautzeko, Irlandatik etorri ziran lekaideak Europan zehar zabaldu ziranean, hareen eraginez bizitzaldian behin autortzeko ohitura zahar h ɔri galdu egin zan.

Bide barriak iriki jakozan autortzari. Nahi zan bestetan hartzen zan autortza.

Baina, autorkera barri hau ere ez zan guztiz herriaren begiko izan; bere hutsak eukazan. Araubide gogor baten moldatuta etorren.

Pekatu bakotxari bere ordaina, bere zigorra ezarten jakon. Zenbat pekatu, hainbat zigor.

Araudi honek pekatu guztiak ezagutzen emotera behartzen eban pekataria, gero, ordainez, pekatu bakotxari bere zigorra jarteko. Lerroz lerro jarri pekatuak eta lerroz lerro jarri bakotxari zor jakon zigorra.

Zama astunegia zan hobendiarentzat. Pekatu bakarra bazan, gitxierdi; baina asko baziran, izugarrian ugaritu

edo loditzen zan zigorraldia. Bizitza guztian zorpean gelditzen ziran asko, pekatuen zorrak ordaindu ezinik.

Indarrak ahuldurik dagozanean, kurutze astunegia ezarten badeutsazu gizakiari, gizaki hori, Jesusen antzera, hauspez lurrera doa. Holako zerbait jazo zan autortza horrekin ere.

Pekatuari ezarten jakozan zigor mendi hareek ikustean, jentea autortzatik urrundutzen hasi zan. Jentearen onarpena galdu eban.

Zelan zuzendu bidegabekeria hau? Zelan sartu barriro eliztarrak autortza bidean? Zerbait egin behar zan jausita egoan zulotik autortza ateratzeko.

Eta, hain zuzen ere, bide erne bat aurkitu eben: pekatuaren ordain zorra, nekea arindu, murriztu, ia-ia ezerezean itzi...

Erabagi hau hartzeko gauza bat izan eben gogoan: autortzan pekatuak esan behar hori nahiko neke eta lotsari zala, besteko barik, hobendariarentzat. Hortik dator, azken baten, pekatuen esan behar hori. Beraz, zigor bidez emondako agindu bat da. Pekatariari ezarten jakon lotsarizko zigor bat,

Norberen barru zikina ezagutzen emoteak gizakia lotsaz mingostuten dau; une hori, une gorri egiten jako edozeineri. Baina, parkamena hartzea nahi dauanak, zigorpe horretatik igaro beharra dauko. Ez dago parkamenik, antza, zigorrik gabe,

Honako ekandu edo ohitura bat liturjiaren odol eta haragi egiten danean, gehientsuenetan, luzarorako izaten da. Bizi luzea izaten dau eliz alorrean. Elizaren aldetik ere, holako sagaratasun bat hartzen dau. Liturjiaren bihotza balitz lez begiratzen jako. Gero, sinisgarritasun handiagoa emoteko, Jaungoikoagandik datorren doai zerutarra dala esaten da.

Ondo esanda gainera. Zalantzarik gabe, autortza Jaungoikoagandiko doai ezinbestekoa da. Baina, gaur egiten dana bakarrik?

Ez ahal dago parkamenerako beste biderik? Nor gara gu Jesusen errukibideei mugak jarteko? Hor untzea!

Dana dala, Elizak era bakar hori onartu dau eta, gaur ere, era bakar horretan tinkaturik jarraitzen dau.

Penitentziako Ritualak horretara behartzen gaitu.

Gaur, esku artean, agintari darabilgun Eliz Araudiak autortzako sakramentua ondo egiteko, hiru era berezi dakaz.

1. Zelan egin autortza hobendaria bakarra danean.
2. Zelan eratu hobendariak bat baino gehiago diranean, baina banango autortza eta parkamena tarteko diralarik.
3. Zelan egin lagunarteko autortza, baterako autortza eta parkamenaz.

Antxina danetik ona, Elizak lehenengo era hau bakarrik erabili dau. Gizaldien hautsa daroa gainean. Gaur ere zutik dihardu eta jauntxo bakarra balitz lez dabil.

Beste era biak honen betekuntza eskatzen dabe, baliorik nahi izatekotan.

Gaurko ritualak hainbat aldakuntza sartu ditu bakarko autorkuntzan. Aldakuntza aberasgarriak dira izan, baina bideratzeko orduan baita zailak ere.

Betekuntza nahastua daroe, batez beste, eliz liburuak dakarren lez egin nahi izatekotan. Gitxitan bete leikez bere arau guztiak.

Gauzak liburuaren esanera egingo badira, asti ugaria eta toki egokia eskatzen dabe, lehenengo baldintza lez. Autortegiko txabolea ez da horretarako egokiena, nahiz eta gaurko legediak hori eskatu.

Lehenengo eta behin, autorrentzuleak adikor eta maitekiro hartu behar dau hobendaria eta, ahal dala, bien artean adiskidezko giro beroa sortu.

Hobendaria kurutze santuaren eginaz hasiko da, Aitearen eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean, esanez.

Gero autorrentzuleak, berba gozo eta samurrak bide dirala, Jaungoikoaren ontasuna eta errukia gogoratuz, hobendariagan egiazko damu eta onduteko asmo sendo bat biztuerazoten ahaleginduko da. Batera otoitz egin Jaunaren errukia eta bakea eskuratzeko.

Harrera honen ondoren, Idazteunetik hartutako esaldi batzuk irakurtzen edo buruz esaten dira. Esaterako: "Jaunak ez dau nahi gaiztoaren heriotza, damutu eta bizi dadila baino"

"Urreratu gaitezan, ba, uste onez Jaunaren oinetara, errukia jaristeko laguntza egokirako grazia aurkitzeko". (Hbr.4,16).

Ritualak honako hainbat esaldi dakarz. Guzti hau astirotsu eta zentzunez egiten bada, guztiz onuragarria danik ezin ukatu, baina lortzeko gatxa.

Jaunaren hitza hutsean jausteko arriskua dago hemen. Ez da azti-hitza. Euria lez, leun-leun hartu behar dau bihotzak barruko sentimenak berotu eta bidean jarteko.

Giro horretara ez da heltzen gizakiaren bihotza esaldi batzuk farra-farra entzunez bakarrik. Bihotz lurrean landatu behar dira esaldiok frutua emoteko.

Honen hurrengo, pekatuen autormena egiten dau hobendariak. Ez da pekatuen lerroz-lerrozko zenbaketa hotz bat; honez gainera, fedez, damuz eta txarto eginaren saminez agertu behar dira. Damuaren negarra erakutsi behar dabe batez ere.

Aurrera jarraituz, autorrentzuleak, hoben nekea ezarri baino lehen, holako aholku edo buruzpide batzuk damotsoz hobendariari, bere fede bizitza ondu eta aberastuteko lagungarri izan dakiozan.

Hemen autorrentzuleak hobendari bakotxaren bizikera eta zehaztasunak gogoan izan behar ditu: nor, nor dan, adina, zereginak, fede mailan non aurkitzen dan eta abar...

Dana dala, beti adikor, bihotz zabal, txeratsu eta maitekor. Gauza bat da pekatua ezetsitea eta beste bat hori hobendariari egitea.

Hobendaria sekula ere ez da zapuztu behar. Oker handiak etorri daitekez hemetik. Eta sarritan etorri dira, etorri ere, autorrentzuleak aurrekoa agope gogorrean hartu izan daualako.

Bat baino gehiago dira autortegian harrera txarra egiteagaitik, autortzatik betiko urrundu diranak.

Behin hona heldutakoan, parkamena hartu aurretik, hobendariari damuzko otoitzen bat edo beste esatea gomendatzen deutso ritualak.

Ohitura dabenentzat erraza izango da honako otoitz batzuk tartekatzea, baina gehienentzat gogo nahastagarri.

Hoba parkamena hartu aurretik, eta ez parkamena hartzeko unean, Jesukristo neure Jauna edo holako beste zerbait esatea, gero autorrentzulearen parkamen-otoitza isilean entzuteko.

Hobendariak "Amen" esanez, erantzungo deutso autorrentzulearen askapen otoitzari.

Orain eskerrak emoteko ordua da. Hitzerditxo bat Jaunari gurekin ona izan dalako, parkatu gaitualako, besoetan hartu gaitualako, gugan isuri dauan poz-atseginagaitik...

Esker egite hau barik, autortzak bere goitasuna, bere poza galduko leuke. Ondo eginaren saria.

Agur egitorduan, barriz, honako edo antzeko berbak erabili daitekez: "Jaunak parkatu ditu zure pekatuak, "parkatuta zagoz", "zoaz bakean,.."

Autortzeko era hau oso eder eta aberasgarria dan arren, tamalez, ez dau behar dan besteko ohikuntzarik hartu gure artean.

Naiko nahaspilatua da, batez ere, autortzak entzuteko autorrentzule gitxi eta aurrean jendetza handiak begira dagozanean.

Autorketa hau urrezko altxorra dogu. Inondik ikutuezina. Dongakeria litzake bere gain gure esku pekatariak jartea.

Zentzun onari entzun behar deutsagu hemen. Egin dauan on guztia aurrean jarri. Askok eta askok eguneroko ogia bestean behar dabe santutasun bidea egiteko, gogoaren egarria asetzeko.

Hobendariak onbideratzeko opa dituan lagungarririk onenak aurkitzen ditu banakako autorketa honetan.

Goragoan aipatu ditugun erabideak zuzen-zuzenean bihotz barrura doaz, pekatua aurkitzen dan tokira. Txoko horretan egiten dira Jesus eta hobendariaren arteko bakezko ezteguak.

Hobendaria Jaunaren eta autorrentzulearen oinetan apal-apalik pekatari autortzen da eta bere gaiztakeriak garbaiz esaten ditu. Zehetasun hau bere damuaren negar malkoa lez da. Bere gogo barnean egin dan itzulpenaren ezaugarri...

Neurtuezinezko handitasuna dauko une horretan hobendariak egin dauanak. Ez dago hitzik behar dan bestean goraltzeko. Zeruak jai alaian jarri ditu.

Seme galdua Aitaren etxera bihurtu da eta Aitak mosuka eta laztanka hartu dau pozaren pozez.

Aitak semea barriro aurkitu dau eta semeak Aita. Hor ditugu biak besarkaturik, mahaian jarrita, zezen gizenaren aurrean.

Edertasun hau darion sakramentua ikutuezina, ordeztuezina da. Gaixoen poz emoilea!

Baina, halan da guztiz ere, ez da, askok diñoen eta aldezten daben lez pekatuak parkatzeko daukagun bide edo iturri bakarra.

Badira beste era batzuk ere, Vaticano II.ak irakatsitakoa ontzat hartzeko gerturik bagagoz, behintzat. Zorionez, Jaungoiko gure Jauna ez da esku laburra.

Ritualak dakarren bigarren erabidea, hau da, hobendari bat baino gehiagoren autortza, banango autortza eta parkamenaz, gaur egiten diran lagunarteko autortzetan gehien erabilten dana da.

Jakina, ba, lagunarteko beste erabideak, autortza orokorrak, debekatuta dagoz eta.

Autorkuntza honek bietatik hartzen dau zatitxo bana.

Alde batetik, lagunarteko autortzari dagokiozan alderdi batzuk daroaz: gertakizuna, otoitzak, eskariak, hausnartuko dan Jaunaren hitza, hitzalditxoa, azterketak, damu egintzak..., eta bestetik, lagunartea itzita, autorrentzuleagandik bana-banango autortza eta parkamena hartzen dira.

Hainbat eragozpide aurkitzen deutsoez autorketa honi. Onen-onenean, lagunarteko batasuna eten, hausi egiten dau, banango autortzara sartzeko. Bakotxak berea amaitutakoan, handik urrundu egiten da.

Bestetik, autorrentzule asko behar izaten dira, batez ere, jentetza handia danean, eta hori ez da bape erraza izaten gaurko egunetan.

Pekatuen autormena ere, alabeharrez, laburra izaten da, erdizka egina. Ez da astirik egoten barrua nasai zabaltzeko, gauzak patxadaz esan eta argitzeko, itaunak egiteko eta erabagiak taiuz hartzeko.

Autorrentzulea ere itoka hobendariari aholku eta onutxo berezi batzuk emoteko. Era erdikina dirudi.

Hirugarren era bat, banan-banan egin barik, taldean egiten dan autortza da.

Hemen ez da agozko autormenik egiten, parkamena, barriz, talde guztiari batera emoten jako. Legezkoa da autortza hau ere; gainera, besteak bestekoa edo hobea askoren eritxian.

Baina ez da ohiz eta sarriro erabilten dana, eliz legeak debekauta bai dauka. Arrisku aldi eta ezinezkoetarako bakarrik da. Beraz, gozamen barik, ilik dago eliz bazterrean.

Kontzilio ostetxoan, nahiz hilero nahiz astero, sarritan egiten zan lagunarteko autortza hau eliza askotan. Ohizko ekandu bat lez hartuta eukan herriak.

Kontziliotik sortutako autorkuntza barria zan. Jendearen onespena eukan. Gaur gerozko autortza berau izango zanaren ustea egoan.

Batzorde argi baten lana izan zan.

Penitentziako sakramentua, kontzilioaren arabera, erabarritzeko ardurakizuna hartu eben ordezkari jakitunak honetaraxe antolatu eta eratutakoa, aurrerantzako autorkuntza izango zanaren asmotan. Bestalde, ez zan edozelakoa Penitentziako sakramentua orrazteko agindua hartu eban teologo talde hau. Gorengo mailako taldea osotzen eben: Lècuyer, Heggen, Ligier, K. Rahner, C. Vogel, eta abarrek. Danak puntako teologoak.

Gizon argi honeen jakituriatik jaio zan autortzeko era

garbi eta ebanjeliotar hau. Herriaren txaloa hartu eban lehenengo-lehenengotatik. Atseginez hartu eban beretzat Jainko herriak.

Baina Elizan sarritan jazo dana, era barri hau ezagutu eta hainbat tokitara zabaldu zanean, berak hartu eban indarra ikustean, Elizako maisu batzuk bildurrez bete ziran.

Arriskugarritzat, errazegitzat joten eben bide barri hori; gauzak gainezka jarriko zituala; jausteko harri labana zala; gehikeria eta neurribagekeria sortuko zituala..., eta honako esamesa eta arrozoibideak atxakitzat harturik, ez jaken bape begiko izan Batzorde horrek eratutako lana.

Ahalak egin zituen lan hori bertatik hankaz gora botatzeko. Argia ikusi baino lehen ito behar zan. Ez zedila sartu Eliz Legedi nagusian. Holantxe egin eben egin ere.

Fede Dotrinaren zaintzarako dan Batzorde ahalguztidunak, 1972.an, bere kabuz eta agintez, Penitentziako Rituala plazaratuko zan baino lehen, Agiri berezi baten bidez, lagunarteko autortza hori guztiz aldatuta, murriztuta, argitaratu eban.

Ordutik hona debekaturik jarraitzen dau. Horretan gagoz gaur ere.

Jainko herri osoa sor eta lor geratu zan erabagi honekin.

Oraindik ere ez da argitzen Jainko herria. Aitu ezinean jarraitzen dau.

Goragoan esan dogun lez, autorketa hau legezkoa izan arren, arrisku aldi eta ezinezkoetan bakarrik erabili daitekena da, Elizaren aginduz.

Teologorik onenak ez dabe ontzat hartzen pentsakera hau. Oinarri ustela aurkitzen deutse zutik irauteko.

Gauzak hemetik ikutuz eta handik indartuz, Erromako Kuriak Elizako gotzaingoa ere, gai honetan, bere esanetara makurturik jarri dau.

Bildurra dago, antza danez, autortzeko era hau osoan legeztuteko. Honetara balitz, ziur-ziurrik, herriak berehalaxe berea egingo leuke eta, honen ondorioz, banango autortza hilik geldituko litzake.

Desagertu egingo litzake, eta hori ere ez da bape ona. Onena hiru erabideak aukeran jartea litzake.

Beti ere, ezetza eta zigorra baino errukia eta zentzun ona bide egile hobeak dira. Ez dogu, inoz ere, gizakia nekatu, higuindu eta urrutirako bidean jarri behar.

Artaldea zakabanatu gabe, pilatzeko une larrian dago gaur Eliza.

Bestetik, lagunarteko autortza orokor honek abantaila eta alderdi on asko ditu. Onura ezinbestekoak.

Liturjia aldetik, zalantzarik gabe, tinko, egoki eta osoena da autorketa benetako bat egiteko.

Autorketa honek betetzen dau batez ere Vaticano II.aren eskabidea.

"Liturjia egitean honen arauen aldetik. eragozpenik bideratzen ez danean behintzat, kristau taldearen alkartasun eta jardun biziari esker, bakarreko autortzaren oñdoan lehentasuna, aurretasuna lagunarteko autortzak daukala eliztarrei jakinerazi bekioe" (S. C.,27).

Bertan aurkitzen dabe eliztarrak parte hartzeko erarik onena. Euren otoitz, eskari, irakurgai, alkar aurkitze, parkatze eta gainetiko gertakizunen eskutik ospakizunaren bihotz bihotzeraino heltzen dira.

Ondo antolatu eta ondo gidaritzen danean, itzelezko astinaldia izaten da herriarentzat lagunarteko ospakizun hau.

Hau dala eta, kontzilioak sakramentu hau arduraz eta

begikotasunez barriztatzea eskatu eban. Oraindik lan hori amaitu barik dago.

Penitentziako sakramentua ikerkatu, bere goibehe eta inguruak berrikusi, hau da, autortzari jatorrizko garbitasuna eta jatortasuna berreskuratu behar jakoz, kontzilioak izandako asmoen arabera.

Beste abantaila aipagarri bat ere badeuko lagunarteko autortzak. Ez dira abade asko behar ospakizun hau egiteko. Nahiko da abade bakar bat guztia egiteko.

Bere arriskuak ere baditu. Lagunarteko autortzak maiz egingo balira eta jendea horretara ohitu, banango autortza baztertuta eta galtzeko zorian geldituko litzake. Era hau bakarrik erabiliko leukee askok eta askok.

Arrisku hau egitan ziurra da. Baina hau banango autortzagaitik ere esan geinke.

Menderik mende, gizaldi osoetan zehar, Elizeak banango autortza bakarrik erabili dau eta gaur ere horretan dihardu.

Meza bitartean autortzen zan jentea eta gaur ere horretara jarraitzen dau. Eta honetaraxe, autortza arretarik gabe erabiliaz, bere mami eta esangura guztia galduerazo deutsagu. Eta hau gitxi balitz, Elizak zirkinik ere ez dau egin nahi izan gauzak zuzendu eta hobetzeko.

Dana dala, kaltea eginik dagoala deritxat. Kristau asko eta asko ez datoz, gaur eta hemen, autortza hartzera. Beraz, gatxa sartuta dago kristau sendian. Eta gatx hori guk uste dogun baino haundiagoa da.

Uste dot banango autortza itzi daben asko etorriko litzatekezala lagunarteko autortzetara. Orainarte izan ditugun ospakizunak hori agertu dabe behintzat.

Bizitza aldian banaka batzuetan bakarrik, edota urte-

an behin datozanak ere, gehientsuenak ez datoz euren gogoz eta kabuz.

Agindu bat betetzearren, edota ohituraz edo erdi beharturik datoz, datozanetan ere.

Autortza horreek hain azaleko eta arinak izaten diranez, ez dot uste autortza izena ondo datorkienik ere. Autortzak barik, irri eta atzemonkeriak gehiago izaten dira. Ganorabako autortzak.

Gizaldien buruan ez da egon banango autortzak egiteko ohiturarik, ez aurrelegerik, ez eta urtean behin autortzeko agindurik ere.

Bizitzaldi guztian, sekula autortu ez ziran kristau santu asko egon dira Elizan. Esan ezinbeste izan dira. Hau ere kontutan izatekoa da autortzaren kondairan.

Gitxitan baino autortzen ez diran kristauak, ezer galdu gabe, asko irabaziko leukee ondo gerturiko lagunarteko autortza baten parte hartzeaz: irakurgaiak, aholkuak, giroaren minberatasuna, azterketak, baterako otoitzak, besteen aurrean pekatari autortzeak, autortzaren barru-barruraino gogo beroz sartzeak, ospakizunaren ingurumari honek, nahitaez, gilbera sakona egin behar hobendari bati. Fede pixka bat barruan badauko behintzat. Nok esan ezetz!

Arin-aringa eta suster barik egiten diran bakarreko autortzak baino, honako lagun arteko autortza batek gizon eta emakumeak, onbidera ekarteko indar eta bizitasun gehiago deukeela deritxat.

Bestetara ere izan daiteke; norberagan dago hori. Baina, sorburutik, abantaila lagunarteko autortzak daroala deritxat. Sinistuta nago, gaur eta hemen, arimen ona kontutan izanik, lagunarteko autortza askozaz ere mesedegarriagoa dala banango autortza baino.

Oso gitxi dira, gaurko egunetan, banango autortzara datozanak.

Zintzoak izatekotan, autorkuntza hori zoritxarrez hilzorian dagoala autortu beharko dogu. Hor ez dago amesik egiterik. Gauzak diran lez hartu behar dira.

Eta horixe da gure begiak ikusten dabena. Beraz, zer egin? Autortzako sakramentuari hilten itzi ala era barriak aurkitu eta bideratu?

Aukeramena lehenbailehen, asko itxaron barik, egin beharko dogu, autortzako sakramentua gaurkoz hiltamuan dago eta.

Banango autortza ezinbestean onuragarri eta mesedegarri dala dakigu. Askok eta askok eurena eginik deukee; bera barik bizi ezinik legokez.

Arnasea bestean beharrezko dabe, hau dala eta, nahi daben guztientzat, ezeren atxaki barik, zutik jarraitu behar dau banango autorketa horrek. Hemen ez dago zalantzarik. Guztiok onartu behar dogun altxor aintzagarria da.

Baina, banango autortza hori oinaze eta ezinezko zama astun bihurtzen jakenentzat, Eliza beste erabide batzuk aurkitzera beharturik dago, dana galduta ikusi baino lehen.

Burugogorkeriak ez dau autortza salbauko. Herria ere ez dago gaur, men eginez, Elizearen edozein esanera makurtzeko. Aldi horreek joan ziran.

Beste aldetik, autortzako sakramentuaren aberastasun eta ahalmenak guztiz neurriz gorakoak dira.

Arimen ona bakar-bakarrik bilatu behar dau autortzak. Batez ere horretarako jarria da. Ez dauko beste asmobiderik Jesusen begietan.

Beste edozertarako erabiltea, Jesusi aurretasuna eta gurariak lapurtzea litzake.

Ez Elizak, ez teologoak, ez inok ez deuko eskubiderik autortza Jesusek jarritako bideetatik ateratzeko. Bakezko parkamen laztana da, eta ez gaizkinen zigorra.

Lagunarteko autortza hau legeztutearen alde dago gaur Jainko herria. Teologo gehientsuenen eritzia ere hortik doa. Herriaren gurariak ere bai.

Ikusten dogun lez, fede iturritik dator autortza; fedearen eskakizun larri bat da.

Hantxe ikusten dau hobendariak Kristoren artaldetik urrun dabilela; etxetik iges egindako semea dala; ugerrez eta urrutuz beterik daroala Jainko seme jantzia; bere kristautasunak zugatz igerraren antza hartu dauala; autortzako uretan garbitu beharra daukala; onbideratze zintzo eta orokor baten bila dagoala Jesus bide ondoan jesarrita.

Jaunagana bihurtzeko asmo sendo, bizi batek eroan behar gaitu autortzara, bestela azaletik egiten dogun zirriborro bat litzake.

Honetaraxe ikusi behar dau bakotxak autortza. Gertakizun honegaz ez bagoaz, barriz, nahiz banangoa nahiz lagunartekoa dala autortza hori, guretzat ustela izango da.

Eskola honetan hazi eta hezi behar ditugu kristauak, bestela alperreko lanean gabiltzaz.

Autortzan parkatzaile nagusia, bakarra, Jesus bera da; autorrentzulea, barriz, Jesusen ordezkoa; haren bitartekotasuna daukana.

Jesus da parkatzailea, baina hori autorrentzulearen agoz eta eskuz egiten dau. "Nok parkatu daikez pekatuak, Jaungoikoak izan ezik?".

Eta Jesusek gizakia damutzen bada eta damutzen dan une berean, parkatzen dau; hortxe dago autortzaren izatea, oinarria. Damutasunaren gorabeheran, bihotzean.

Jaungoikoak hobendiaren damu-mina, bihotzeko negar zotinak ikusten ditu eta seinale hori nahiko izaten dau pekatuak parkatzeko. Nok ukatu parkamena damu negarrez dagoan gizonari nahiz emakumeari? Ba ete dago holako bihotzik?

Hartu daigun eredutzat seme galduaren aita.

Seme galdua etxeratu zanean, egindako pekatu guztien zerrenda zehatza eskatu ete eutsan aitak semeari? Etorrela ikustean, bidera urten eta besarkatu egin eban.

Holantxe parkatzen dau Jaungoikoak. Inor apaldu eta lotsaz erabili barik. Hala, ez ahal dogu oraindik Jaungoiko Aitaren bihotza zelakoa dan txastatu?

Damutasunak huts badagitsu, barriz, zetarako esan zure huskeria eta txikerkeria guztiak, egoera horretan, parkamenik ez badozu jasoko?

Eta damututa bazagoz zetan ibili pekatuak esan beharrak dakarren oinaze alperreko horretan? Jaungoikoak Jaungoiko erara parkatzen dau. Baldintza barik.

Gainetiko guztia, autortzaren inguruan egiten dan zeremonia bat da, hauxe ez dogu inoz ahaztu behar, bestela Jesusi aulkia kentzen gabiltzaz eta. Batez ere, autorrentzuleak egon behar dau adi honetan.

Parkamenaren giltzak bere esku dituala uste badau, bera dala parkamena emon edo ukatzen dauana, ezelango jauntasunik bereganduko baleu eta jauntasun horren arabera jokatu, negargariro beteko leuke Jesusek emondako bitartekotasun hori.

Epaile gaiztoaren parean jarriko litzake. Parkamenaren jaun eta jabe baino, autorrentzulea hobendariaren anai-neba da bai pekatuan, bai damutasunean, bai parkamenean. Bera ere besteak aina pekatari.

Bere zeregina, ostera, bihotz damutuen gainera Jaunaren parkamena isuritzea da. Jaunaren poza iragarri

parkatua izan dan errudunari. Jaunak parkatzean hartzen dauan pozaren oihulari izan.

Eta Jesusek parkatzeko eskatzen dauan baldintza bakarra, behin eta barriro esango dogu, gizakia damutasunean tinko dagoala, Aitaren etxerantz datorrela ikustea da.

Autortzaren inguruan biribildu dogun beste guztia, gizonak ezarritako gehigarria baino ez da.

Eta hain txarto egin ditugu gauzak, autortzaren biran gizonak jaso dituan ertzak, baldintzak, oztopoak eta lege araudiak kristaurik gehienentzat nekegarri eta mingarri izan dira.

Noren baimenez, noren eskubidez egin dira bidegabekeria honeek? Nor sartu da hemen Jaungoikoaren ordezkoak egiten? Nok esan dau benetako damutasuna ez dala nahikoa pekatuak parkatzeko? Nor ausartu da Jaunak eskatzen ez dauanik eskatzen?

Gizona ez da nor Jesusek jarritako araudiak aldatzeko edo laburtzeko edo gogortzeko. Ez da inor Jesusen eginai arrerdi ezarteko.

Ez dogu jakin autortza ingurua pozez eta ederrez jantziten.

Inguru iluna eta latza jarri deutsagu. Eta hor gure pekatua. Autortza askatasuna da. Aitaren etxera doan bidea. Ez daigun, geure txatxarkeriaz lotura bihurtu.

Jesusegandik ikasi behar dogu parkatzaile onak izaten. Jesusen eskolara jo barriro hau ikasteko.

Jesusen asmobideetan sartu barriro ere autortza. Harek hartzen zituen lez hartu hobendariak; haren ederrikusia eta txeratasuna ez galdu; haren erruki eta samur-

tasunaz bihotza jantzi; haren modu eta tankerak geure egin pekatariak hartzean.

Jesus geure eredu bikain egin eta haren antzera jokatu parkatzeko orduan.

JESUS ERRUKIAREN IRAKASLE TA EGILE

Jesus pekatari baten aurrean errukia eta samurtasuna eginik dago.

Bigun-bigun begiratzen deutso begietara, gozo-gozo berba egin, damu tanta bat ikusi ordukoxe, bera doa pekataria besarkatzera, seme galduaren aita lez. Pekatariakin aurkitzen zan bakotxean hunkigarritasuna dariokon Jesusen bihotzari. Eztitan lez egoan hareen artean.

ZAKEO

Zakeogaz gerturikoak, esaterako, ipuin bat dirudi.

Zakeo judeua zan; gorputzez kaskarroa, baina makurrez erraldoia. Besteen diruekin aberastuta egoan; zergalarien buru zanez, zerga-txabolan eukan bere lapurzuloa.

Zelan aurkitu zan Jesusekin? Alabeharrez, ustekabean. Jesus, jendetza handi batek inguraturik Jerikora sartzen zan baten, kalera urten eta Jesus etorrela entzun ebanekoxe, Jesus ikusteko gogoa etorri jakon.

Jendetza haretan galdu egingo zala eta, Jesus hobeto ikusteko asmoz, pikondo batera igon zan.

Zerk eroan ete eban Zakeo zugatz adarrera? Ikusmirak, hainbaten, jakinahiak.

Nor ete da hainbeste diñoen gizon hori? Zer ete deuko besteak ez deukenik? Zelan eroan leikez holango jendetzak bere atzetik? Nondik ospetasun hori?

Zakeok bere artean egingo zituan itaunak. Gaur beteko ditu bere amesak. Zugatz adarrera igon eta handixek kukuka jarriko da. Dana zehatz eta mehatz ikusi nahi dau. Begiz begi, aurrez aurre begiratu gizon entzutetsu horri.

Baina norbait Zakeo baino zuhurrago egoan han; ustebakean, eupada bat egiten deutso Jesusek behetik gora Zakeori: "Zakeo, jatsi arin, gaur zure etxean geratu behar dot eta".

Zakeo zor eta lor geratu zan, harrimenez txunditurik. Nondik daki nire izena gizon horrek? Nondik ezagutzen nau? Sena galduta ebilen gure Zakeo, ezer aitu ezinik.

Baina, ez zan izan Zakeo bakarrik harritu zana. Han egoan jendetza osoa, Zakeoren izena entzutean, zelako txoria zan baekien eta, mormorka hasi zan "pekatari baten etxera sartu zala ostatua hartzeko eta".

Ez da erreza Zakeoren barruan egin zan aldakuntza, barruko zurrunbiloak jakitea.

Dana dala, Jesus heldu zanekoxe, Zakeo etxeko atean egoan lotsaz eta begirunez Jesusi itxaroten. Itzal handiz hartu eban Jesus. Eta berbetan hasi ordukoxe, Zakeok ospetsu eta hots handiz esan eutsan: "Hona, Jauna, nik nire ondasunen erdia behartsuei emongo deutset; eta norbaiti zerbait bide txarrez kendu badeutsat, lau halako bihurtuko deutsat".

Ez dakigu zer jazo zan etxe barruan Jesus eta Zakeoren artean; zein izan zan euren hizketaldia; zer esan eutsoen alkarri. Hori ez dogu inoz jakingo.

Baina, gauza bat, bai, badakigu: Zakeok Jesusekin egotean hartutako poza, liluratasuna. Jesusegan aurkitu

eban beroa, adikortasuna, samurtasuna, errukia, aitumena, gizatasuna!

Hori, ziur, sekula ere ez eban ahaztuko Zakeo zergalariak.

Jesus ere pozik egoan, irribarretsu. Galdutako arditxoa aurkitu dauan artzainaren pozkarioan, esan eban: "Gaur etorri da osasuna etxe honetara, hau ere Abrahanen semea da eta. Izan ere, Gizasemea, galdutakoa bilatzera eta salbatzera etorri da".

Zakeok hasi dauan erreskada horretan, bata bestearen ondoren, miloika gizon eta emakumeren izenak dagoz lerrotuta. Miloika gizon eta emakume Zakeoren bideetan galduta, zugatz adarrera igonda.

Jesus ikusi nahi dogu, baina urrunetik, antzerki bat ikusten dan lez, mendi eder bat begiratzen dan lez; urrunetik begiratu ospe handiko "artista" sonatuari.

Izen entzuna jaku Jesusen izen hori. Zenbatetan entzun ahal izan dogun!

Ume ginala, Belengo estalpetxoan, lasto gainetatik geuri begira ikusten genduan eta guk maitezko haur kantak abestu.

Dotrinara ibili gintzazanean ere hainbat gauza polit ikasi Jesusek esan eta eginetatik. Lehenengo jaunartzea ere egin genduan, eta dotore gainera...

Eta hor amaitu ziran Jesusegaz harrezkero izan ditugun hartu-emon guztiak. Gaur ere, izen hori belarri azalean daroagu, umetako jostailu bat lez; urrundian bizi dan gizona da Jesus guretzat.

Ez dogu sinistuten mundura bialdutako Jaungoikoaren Semea danik; Jaungoikotasuna erantzi egin deutsagu gizon hutsez jantziteko.

Ez dogu gure Salbatzailea lez hartzen; Berak irakatsi-

tako ebanjelioak ez dauko guretzat baliorik, garrantzirik; ez da gure bizitzako orratz gidari eta araubide; gure argi eta bizitza.

Jaungoikozale baten irakatsiak emon zituan gizona da guretzat; beste maisu askorenakaz bardinduz, ez hobeak ez txarragoak diran irakatsiak.

Herri kaltegarri izateagaitik, herri agintariak kurutzean hil eben gizon errugabea. Ikuspegi estu, labur horretan marratuta daroagu Jesusen irudia. Gizon hila da guretzat. Antxinako aldietan, herri txiki baten ibilitako maisua.

Gu ere Zakeoren antzera, zugatz adarrean kulunkan gabiltzaz.

Harek, behintzat, baeukan sentimen txiki bat gogoan hara igon ebanean: Jesus ikusteko gogoa.

Guk hori ere ez; gu asperraldiak eroaten gaitu adar gainera.

Ez litzakio txarto etorriko astinaldi on bat gure zugatz igerrari, gu lotatik itzartu eta zabarkerietatik ateratzeko.

Jesusek sarritan aitatu dau gure izena zugazpetik igarotean, baina entzungor egitea izan da gure erantzuna. Hauxe da Jesuseri egiten deutsagun iraina!

Jesusentzat maitasunaren ezaugarria odola da. Maitasunik handiena horretan dago: maitearen alde bizia emotean. Eta horixe egin eban Jesusek gizakiokaitik: kurutze batetik eskegita bere bizia emon.

Jesusen bizitzako une guztiak eta bakotxak maitasunaren akatsa daroe, gizakiokaitik emonak izan bai ziran.

Belen, Nazaret, Galilea, Kafarnaun, Betania, Apaltokia, Golgota..., Jesusen odolaz gorrituta dagoz, Jesusek gizakioi eginiko bizi eskeintzak, opariak izan ziran eta.

Jesusen bihotza kurutzean odolustu zanean, ur tanta batzuk eriozala geratu zan.

Gizakiokaitik bizia emon dauan gizonak, inok izatekotan, sinisgarritasunaren jabetza ziurra dau. Nori sinistu, bestela? Eta berak gure maitasunagaitik hil dala dirauskunean, nahietaez sinistu beharrean gagoz.

Hor gor-mutu egitea, geure jatortasunari ukamena egitea lez litzake. Hor gure giza neurria hutsaren azpitik jarten dogu. Nahiz eta gizarte mailan gorengoak izan, giza mailan epotxak ginakez.

Eta lo galgarri horretatik itzartutearren deitzen deusku Jesusek geure izenez. Zakeok lez, guk ere geure etxean hartzea nahi dau. Geugaz bakarrean agoz ago berba egin: -Zu, jatsi zaitez arin adar horretatik; zatoz hona, zugaz egotea nahi dot eta.

Mozoilotegian ikusi zaitut begiak zabal-zabalik, hara eta hona begira, ezer ikusi barik.

Nondik norakoa galdu dauan pertsonaren antza emon deustazu. Nor zaran ez dakizu, ez zertarako zagozan mundu honetan, ez eta norantz zuzentzen zaran. Bidea galdu dauan txoriaren antzera, aurrera eta atzera, lainopean, hegasaldia zuzendu ezinik ikusten zaitut. Mundu zalekeriak liluraturik zaukaz; gozamenaren ezkurrak bilatzen emoten dituzu egunak. Gora begiratzen ahaztu jatzu.

Hilobiaren gainetik harago ez dozu ezer ikusi nahi. Munduak opatzen deutsun atseginkeria azken tantaraino zurgatu nahi dozu.

Geroko bizitzak ez deutsu burukomin handirik emoten. Hauts pixka bat ikusten zara lurraren sabel ilunean...

Hor zure okerra, zure hutsa. Zatoz ona, egin daigun berba agoz ago adiskidetasun nasaian. Mezu handi bat

ekartera natorkizu. Zuk ez dozu ezagutzen mezu hori, horregaitik zabiltz norakoa galduta.

Mezu honetatik lehenengo ezagutu behar dozuna, hauxe da: Jaungoikoa ez dala mamu bat; Aita dala, Aitarik maitagarriena.

Eta zu eta ni, eta hizkuntza eta enda guztietako gizon eta emakumeak, Aita horren seme-alabak garala; seme-alaba kutun eta maiteak.

Eta maitasun ukaezin honen ezaugarritzat, neu bialdu nauala mundura gizakiak jakin behar dauan guzti-guztia zuoi irakastera.

Ni naz Jesus, Mesias Salbatzailea, zugaitik kurutzean hil nintzana; hor ikusi zeinke noraino maite izan zaitudan. Zugaitik zer egin dodan.

Alkarren lagun, adiskide maite izatea nahi neuke. Bizitzako bidaldia biok batera egitea.

Maite banozu, ni ere zure bihotzean naioatzu; lagunak izango gara; ez zaitut inoz bakarrik itziko. Hartzen nozu adiskidetzat?

Zakeok baietz erantzun eutsan eta gainera bere etxean hartu.

Zuk eta nik, zer?

EMAKUME EZKONTZAUSLEA

Jerusalengo elizpean jazo zan hurrengo hau.

Goiz erdia zan. Jesus bazter baten jesarrita, beti lez, irakasten jende pilo batez inguraturik. Hitz jario gozoa Jesusena! Entzuleak adi-adi, aurrean biribila eginik.

Eta halako baten, plaust! andrazko gazte bat harri gainera; bere ule luzeak nahasturik, erdi biluzik, narrazka ekarri dabe Jesusen oinetara.

Entzuleak txunditurik, urduri eta kezkati, buruak

jasota, hara eta hona begira, han jazoten zana aitu ezinik.

Eskuetan harriak dakarrez gizon hareek; arpegian hasarrea; zer da hemengo hau?

Gizonezkoak ziran emakume errukarria hara ekarri eben guztiak. Hasarretsu eta alkarri zinu handiak eginaz, halako baten Jesusegana urreratu ziran harropuzkeria eriela.

Emakumea eskuaz erakutsiz, badiñotso batek Jesusi:

-Iralasle, ezkontza urratzen aurkitu dogu agiri-agiritan. Honelako emakumeak harrika hilteko agindu euskun Legean Moisesek. Zer diñozu zuk?

Emakumearen pekatua Jesusegana urreratzeko atxaki bat baino ez zan izan. Benetako asmoa, azpikeria erabiliaz, Jesusi iruzurra sartzea zan.

Jesus zan gizataldearen aurrean, lotsa gorrian, erantzunik gabe barregarri jarri behar zana.

Izpi biko ziria zan. Emakumea harrika hilteko esaten badau, Moisesen legearen arauz, iskanbilaka, bihotz bako gizon azalutsa zala esanka hasiko ziran.

Maitasunaren eta errukiaren alde emoten zituan irakatsiak guzur hutsa zirala, bera erruki bako gizona zalako, gaur agertu dauan lez.

Parkatzeko esaten baeban, barriz, Moisesen legearen hauslea zala, eta zarrapasta sonatua aterako eben herriaren aurrean.

Ondo ekien pariseu maltzur hareek Jesus pekatari eta zergalarien laguna zala; andrazkoakin ere bihotz zabal eta txeratsua beti; hortik Jesuseganako etsaikeria hori.

Gogoan euken oraindik, minez, behin Jesusek danen aurrean esandakoa: emagalduak zeruko Erreinuan pariseuen aurretik egongo zirala.

Irain gordin hori mihinpean gordeta euken Jesuseri

nozbaiten arpegira botatzeko. Eta gaur zan horretarako egun egokia.

Pozik dagoz Jesus urtenezinezko zuloan sartuko dabela eta!

Irribarre gaiztoz, begi harroz begiratzen deutsoe, garaipenaren zoramena aurrezdik gozatuz.

Gizajoak ez dabe Jesus ondo ezagutzen. Hainbestetan hartuak hartuta egon arren, oraindik ez dabe haren lepokoak hartzen ikasi.

Jesusen arpegiari begiratuaz batera konturatu ziran ez zala lan erraza Jesuseri hautsa janazotea.

Jesus isildu egin zan; tutik ere ez. Luzerotxoan holantxe egon zan. Gero, makurtu eta hauts artean zirriborro batzuk idatzi edo egin zituan.

Behingoan, basamortuko isila egin zan gizataldean. Arnasarik ere ez zan entzuten.

Jesus zutundu eta, harrokeriarik gabe, baina arpegi zorrotzez, badiñotse: "Zuen artean pekatu barik egon daitenak, jaurti dagiola lehenengo harria".

Esan baeban esan! Lurrak janda lez geratu ziran danak. Ez ekien nora begiratu, ez zer esan, ez zer egin. Eskuetatik jausten ziran harri hotsa besterik ez zan entzuten han.

Hurrengorik hurrengora, zaharrenetatik hasita, hanka jokoari emon eutsoen. Ez zan inortxo ere gelditu. Elizpea txiki geratu jaken hainbeste lotsa gordetzeko!

Eta orain dator zatirik onena. Jesusen argazki bikaina. Andratxoagaz bakarrik geratu zanean, garratz-minik gabe, itzala besteko gozotasunez, esan eutsan: "Non dagoz zure salatariak? Ez zaitu inok ere galdu?

Eta andreak lotsaz beste apaltasunez: "Ez Jauna".

Ez eban parkamenik eskatu; ez eban damu berbarik

esan. Baina, nahiko damu zan bere egoera penagarria, bere begietako negarra.

Horra Jesusen betiko aholkua: Ez egin pekaturik aurrerantzean!

Emakumearen pekatuari Jesusek lurra bota deutso gainera. Lurperatu egin dau. Badaki gizakiak txarra gorrotatu, bertanbeheratu eta onduteko ahalmena daukana.

Horregaitik, aukera eta ate guztiak zabalik itzi nahi deutsoz gizakiari, gure argalkeriak baino luzeagoa dalako Jaunaren errukia. Etxe ondoan jarriko da semearen etorreraren zain.

Pariseu hareek ez ziran nor emakume errukarria horrela erabilteko. Ez euken horretarako ezeren eskubiderik.

Nik uste, ardurarik gabe, Jesusen aurka joateko atxakia edo ziria lez hartu ebela emakumearen pekatua. Jesusen burura joian, ziur baten, abarrotsa. Baina, behin eta barriz, huts egin eben.

Jesusentzat gizon edo emakume baten duintasuna eta izen ona jokoan dagozanean ez dago txantxarik.

Jesusentzat personea beti da sagaratua; ikutuezina, batez ere, bere dedu eta itzala arriskuan dagozanean. Horregaitik hartu eban bere babespean emakumearen zainpena, bere izate eta izen ona arriskuan egozalako.

Zehatz esanda dauko bere ebanjelioan: "Ez epaitu, epaituak izan ez zaitezen. Izan ere, epaitu dagizuen epaiaz izango zaree epaituak..."

"Zegaitik ikusten dozu zure aniaren begian dagoan samarra, eta ez dozu zeure begian dagoan habea ikusten? Azaluts hori!, atera egizu lehenengo habea zure begitik" (Mt 7,1-5).

Ez dago baimenik inor epaitzeko. Jaungoikoarena da

soil-soilik eskubide hori. Kontzientzia barrura Jaungoikoa eta ni, biok bakarrik sartu geintekez. Besteentzat zabalezina da ate hori.

Hauxe da Jesusek argi itzi nahi deuskuna, pariseuak hanka jokoan jarri zituanean.

Nor da gure artean guztiz garbia aurrekoari harri bat lepora jaurtitzeko? Nok emona da eskubide hori? Nor gara gu geure kasketaldi, nahikeria eta aurre asmoen arabera inor geure ago eta egite zikinen epaipean erabilteko?

Zer dala eta behar dogu beti izenen bat hagin artean barautsez zikindu edo txarrez txikitzeko?

Munduko gatxik negargarrienetariko bat giza zapalketa hau dala eta nago.

Kain mundura agertu zanetik geroz, betidanik, lur zelaia giza odolez, nekez eta zotinez gainezka dago. Etsaikeriaren grina pozoindua nagusitu da gizakiaren sentimenakin. Bildotsak balira lez zapustuten ditugu gizakumeak. Otso gaiakoz senideari.

Jaio bako haurrak hilten ditugu amaren sabelean. Esanezin beste haurgaltze egiten da, lur zabalean, egunetik egunera. Geure eskuz hilten ditugu haur errukarriak, horretarako heriotz epaia emon ondoren.

Sortzeratik bertatik umegaiak gizatasuna daukala dakigu. Honetan aituak diran jakitun guztiak ago batez aldezten dabe eritxi hau. Hemen ez dago kezka-biderik.

Eginean dago oraindik, baina gizakia da oso-osoan. Persona da. Eta persona bati zor dakiozan eskubide guztiak ditu hasieratik bertatik.

Beraz, ikutuezina da. Astia behar dau bakarrik, hurrengorik hurrengora, heldutasun mailak lortzeko.

Baina traba egiten deusku, antza, eta harriak hartzen ditugu bere gainera jaurtitzeko.

Edo ustekabean agertu dalako, edo gura ezean, edo ezkon aurretik, edo zoraldi baten zoritxarrez, edo ezkontzatik kanpo, edo arinkeria baten ondorioz, edo hutsaldi baten okerrez, dana dala, haurtxo hori ez da opagarri, guragarri izan eta traba egiten dago.

Mundu guztiak daki gaur haurgaltze horrek gaiztakeria bat daroala beragan. Hori badaki.

Baina, egoera guztiz larria da bertan sartuta dagozanentzat. Garaituezinezko okerrak dakarkioez.

Hortik, arrazoibide batzuk aurkitu nahi izaten ditue, batez ere, gaurko kultura nahastuan, euren burubideak zelan edo halan zuritzeko.

Diñoen lez, umegaltzaileak betiko jota gelditzen ei dira, egindakoa ahaztu ezinik.

Gizakiaren duintasuna harripean sartzeko beste era basati bat gizakia oinazearen zemaipean txarrez erabiltea da.

Horraino bertaraino heldu da gure ankerkeria: oinazegailu bildurgarrienak asmau ditugu gizakia oinazkatzeko, piztietan piztiena gizakumea dala erakutsiz.

Inoz gorrototik edo ankerkeriatik datorren iraina izaten da oinazkatze hori; baina gehienetan, isilekoak erasoteko trikimailu zantarra.

Zalantzarik gabe, isilekoak erasoteko modurik onena da oinazea. Horretarakoxe erabilten da, erabili ere, gehienetan: atxilotuari dakizanak erasoteko.

Zeregin higuingarri horretan diharduenak aurrezdik horretan trebetasuna lortuak izaten dira. Mina non, noiz, noizarte eta zelan emon ikasitakoak.

Gizakiaren ahalmenak hausikorrak, amaikorrak dira; neurri bat, muga bat deukee.

Oinaze ezarpenak ere bere lege eta arauak ditu.

Trebetasunez, jakintsuki emoten dan oinazeak gizakiren egonarria, gogoa, indarrak, kemena hautsita izten ditu. Gizakia, indarrik gabe, menperatuta, borreruen esku gelditzen da.

Honen jakinean erabilten da oinazea atxilotuei diranak eta ez diranak esanazoteko.

Herri aurreratu guztietan legez debekatuta dago oinazkatze hau. Legez holan da, baina ez izatez. Izatez bestetara da. Gorabehera handirik gabe, herrialde guztietan erabilten da, nahiz eta horren arduradunak ezetz esan.

Inoren aldetik salakuntzaren bat datorrenean, barriz, ez dala egia erantzungo deutsue, edota bakarren baten zabarkeriagaitik izan dala.

Horregaitik, atxilotu bakotxak aldezkari edo babesle bat behar dau, legez jarritakoa, hasiera-asieratik, bestela gizona otsoen erpa artean iztea lez litzake, batez ere, diktadurak agintari diran herrialdeetan.

Oinazkatzeak giza duintasuna eta osotasuna oinpean simaur bihurturik izten ditu.

Hortik doa Vaticano II-aren pentsabidea ere.

"Gizakiaren osotasuna hausten dauan edozer, esaterako, mozketak, ebaiketak, gorputzeko edo gogoko oinazaldiak, inoren adimena menperatzeko egiten diran ahalegin setatsuak... egikizun guzti honeek eta antzekoak berez dira lotsagarriak, iraingarriak; herrien bizitza itxustu egiten dabe; hartzaileak baino emoileak eurak zikinduago gelditzen dira eta oso-osoan Egileari zor jakon dedu eta omenaren kaltezkoak dira" (GS. 27).

Nahiz errudun izan nahiz errubako, gizakia zigortzea zeharo debekatuta dago. Basatikeria izugarria da. Honetan ikutuezinak dira gizon-emakumeak.

Beti lez, gaur ere, atxiloturik gehientsuenak politika sailekoak izaten dira, batez ere, jauntzarrak agintzen daben tokietan.

Lur zabaleko espetxeak hitz egiteko ahalmenik balebe, zelakoak entzun beharko ete gendukez!

Gainera, ez daukagu, antza danez, onduteko asmo txikienik ere. Holako izugarrikeriaren bat entzuten dogunean, esaten dogu: ez barriro holakorik!

Eta handik lasterrera, beste herrialde askotan izugarrikeria berberak egiten dirala entzuten dogu. Gizakiaren sen madarikatu hori aldatuko dauan osakairik ez da antza oraindik agertu!

Neurriz gainetiko zigorrakin batera, gaur, "oinaze garbia" deritxona ere erabilten da, hau da, horretarako beren beregi gertautako droga baten bidez gizakiaren adimena eskuperatu eta gizakiari barruan daroan guztia esanerazoteko asmatua da oinaze garbia.

Hori ere ugari dabil bahitegietan. Horrainokoa da gure ankerkeria hau.

Kristo bera ere horretara erabili eben. Badaki oinaze horreek zelakoak diran.

Bihotzez minduten da gizonakin holakoak egiten ditugunean. Anaiaren odolez eskuak lohituta eroatea, zinez, ez jako bape atsegingarri izango.

Jesus parkatzailearen bihotz samurtasuna, gozotasuna, norainokoa zan esateko gure hitzak totelak, ahulak dira. Ez dauke gaitasunik. Esan ezinik, biderdian geldi-tzen dira.

Onena Jesus berari entzun, bere berbak isilean gogora eroan, ingurumariari gor-mutu egin eta, gero, ezti-orrazia ahogozatzen dan atseginez, gogoaren gozaldian miazkatu behar gendukez.

Jesusen bihotzari darion samurtasunetik gure gogoari betekada zerutar bat emon.

Horretarako onena, Jesus beragana urreratu eta adiadi berak esan eta dagianari begiratzea dogu.

ANDRAZKO BAT JESUSEN OINETAN

Gaur, pariseu handiki baten etxean aurkitzen dogu: Simonen etxean.

Jesusen adiskide, miresle, barrizale, begiluze, nor zan gizon hau? Ze tratu eukan Jesusekin? Ez dakigu.

Bakarrik, halako baten, erreguka eta erreguka ekin eutsala Jesusi bere etxera bazkaiten joateko, eta "Jesus pariseuaren etxean sarturik, mahaian jarri zala" (Lk 7, 36).

Jesusen adiskide handia zanik ezin esan geinke. Simonek etxean sartzean egindako harrera hotz samarra izan zan. Bien artean holako bitartetxo bat jarri eban. Gizalegez hartu bai, baina ez txeratsu. Ez eutsan izan mahaikide bati zor jakon abegitasunik.

Mahaian jarri ziraneko, lur ikara batek sortzen dauan bihotz-dartada, zirrara gogor bat zabaldu zan jantokian zehar. Mahaikide guztiak harriturik.

Ustekabean, tximista baizen arin, bazkal tokira emakume gazte bat sartu eta zuzen-zuzenean joan eta Jesusen oinetan belaunikatu zan.

Jendea han jazoten zana aitu ezinik.

Inok ezekian ha emakumea nondik agertu zan, ezta hara zelan sartu zan ere.

Birao kiretsa sentitzen hasi ziran mahaikideak. Emakume bat gizonen jantokian! Holakorik ez zan sekula ikusi pariseuen artean. Legerik sagaratuena apurtzea lez zan. Zelan garbitu orban hori?

Hilobiko isila egin zan jantokian. Simon barruak jaten egoan, lotsari gorrian, arnasa barik, zertara egin ez ekiala.

Baina, oraindik hasarrea goriagoa egin zan, emakumea nor zan konturatu ziranean. Herrian danak ezagutzen eben emagaldua bai zan!

Emagaldu bat bere etxean! Zoratu beharrean aurkitzen zan Simonen burua. Zer egin? Uleetatik heldu eta narrazka kanpora atera?

Pozik emongo eban agindu hori, baina Jesusen bildur zan. Gainera Jesus bera zan aurreratu behar zana.

Ikusiko dogu ia zer egiten dauan andratxo horrekin maisu nagusi horrek!

Andra lotsagabea han egoan Jesusen oinetan; Jesus oinutsik, juduen ohiturari jarraituz, oinetakoak ate ondoan itzita eukazan eta.

Bitartean, bihotz zarrastak jota, beso biakaz Jesusen oinai gogor heldu, eta begietatik behera etorkion negar malko jarioaz Jesusen oinak busti ditu emakumeak.

Harrimenak jota egozan mahaikide guztiak. Zer ikusi behar ete dogu hemen? Noraino helduko ete da andratxo hori? Honakoak ikusi behar otordu baten!

Baina, harrimenak gorago igon eban oraindiño. Emakume harek, beste emakume batek sekula egingo ez ebana egingo dau.

Buruko estalkia, zapia kendu, ule guztiak solte bota eta ule harekaz Jesusi oinak sikatu eutsazan. Hurrunetik, benetan emagaldu baten antza emoten eban.

Baina, oraindik ere ez zan asetu. Su eta gar, Jesusen oinai musuka eta musuka ekin ondoren, balio handiko usaingarriaz oinak igurtzi eutsazan.

Ez da normala andrazko batek guzti hau egitea, nahiz eta galduen artekoa izan.

Zek eroan eban emakume hau Jesusen oinetara eta zek behartu eban egin zituanak egitera, eta guzti hau gizonezkoen batzar baten eta inoren etxean?

Zer ebilan irrika emakume horren buruan?, eta bihotzean?, eta gogo barruan? Zek bultzatu eban horretara? Badiñot, ez zan normala bere portaera.

Nik uste, barruko garbikuntza oso baten egarri aseezina sentitzen ebala bere barruan.

Ustel hatsa dariola eukan gogoa. Gizonen ikutu bakotxak, arnaseak, higuinez baltzituten eutsan bere duintasuna. Basatzan luze jausita, gizonen jostailu asegarri eginik. Danena eta inorena ez.

Ondoan inor ez, lagunik gabe; bakartadearen itzalpean, ames ustelez etsimenduta; bideak erratuta, ilunaren baltzak itsuturik... Egoera negargarria zan berea.

Bihotz eder eta handiko emakumea zanik ezin ukatu. Sentimen biziak behar ditu emakume batek berak Jesusekin egin ebana egiteko. Ez zan neska gangar, kazkarina.

Eroian bide okerrak begiak zabalduerazo eutsazan. Iluna, zakarra, larria, itoa, etorkizunik gabekoa zan.

Ez eban holako uretan betiko itoterik nahi!

Bizitza barri bat hasi nahi eban, haize barriak hartu, eguzki barria ikusi, bizitzaren ederrez jantzi bere bidea.

Zoriontsu izan argiaren eta bakearen besoetan, babesean. Bizitzari ibilbide barriak jarri.

Bizitza aldatzeko gurari bizi-bizia eukan. Beretzat hil edo biziko jokoa zan.

Baina, non aurkitu bere bihotz nekatuarentzat pareko osagile argi, azkar bat? Eta Jesusen izena etorri jakon burura. Ez dakigu, noiz edo noiz, Jesusi entzuna zanik.

Dana dala, Jesusen entzutea ordurako zabal ebilen. Berak esanak eta eginak danen agotan.

Ha gaztea ez zan besteak lakoxea. Goragoko maila baten saiatzen zan. Eguzkia lakoxe argitasuna emoten eben bere irakatsiak; maitasunez itxasoa betetzeko besteko bihotz txukun bat eukan bularpean taupadaka.

Jesusi ikutzeaz bakarrik edurra baizen garbi geratuko zala ames egin eban; bere oinak damu negarrez bustitzean, parkatua izango zala; bizitza barri batera jaioko zala Jesusen laguntzaz.

Eta hain bizi, hain sutsu ikusi eban mirari hori, besteko barik, Jesusen bila joan zan. Haren bila ibili zala argi dago, baekian, ba, Jesus, ordu haretan, non aurkitzen zan. Simonen etxean.

Eta hara joan zan. Eta han ikusi ditugunak egin.

Bestetik, Simon, etxeko jaunaren betondo ilunak, han jazoten zana, beretzat irain gordinegia zala iragarten eban. Azaletik, amurruak jaten egoanaren antza emoten eban, baina barrutik pozik eta harro egoan.

Orain badaki, bere begiz ikusita, Jesus hori nor dan. Zelako gizona dan. Besteak lakoxea da eta ez, diñoen lez, profeta bat. Andratxo horrek arpegiko mozorroa kendu deutso.

Gari garbia balitz, profeta balitz, jakin behar leuke bere oinetan daukan emakume ziztrin hori nor dan, emagaldua da eta.

Holako emakume baten arnaseak berak zikintzen dau gizona, zenbat gehiago horren laztan eta besarkadak...

Pariseuen etsaikeria begietara agertu jakon.

Baina, Jesusek Simonen buruan saltoka ebiltzazan pentsamentu maltzurrak, behingo baten, begiz ikusita lez irakurri ebazan.

Simon oker egoan; azala bakarrik ikusten eban; itsu egoan barruragokoa ikusteko.

Eta, danen aurrean, kozkorreko txiki bat emotea erabagi eban Jesusek, holako susmo txarrak egiteagaitik, sinisgatxa izateagaitik.

Baina, minik ez emotearren, parabola baten bidez esan eutsan.

-"Simon, badot, ba, nik zerbait zuri esateko". -"Esan, ba, irakasle", esan eban Simonek.

Eta Jesusek: "Diru aurreratzaile batek zordun bi ebazan. Batek bosteun denario zor eutsazan, eta besteak berrogetamar. Zorra garbitzekorik ez eben eta, biai parkatu egin eutsen. Bietatik nok izango ete dau ha maiteago?"

"Nire ustez, gehiago parkatu jakonak", erantzun eban Simonek.

"Ondo ebatzi dozu", esan eutsan Jesusek. Eta irribarre bat egin eutsan Simoni.

Hemen kili-koloka hasi zan Simon. Ez ekian nora joian Jesus parabola haregaz. Zerbait durdiduta egoan Jesusen jokoa aitu ezinik.

Eta orain Jesusek, begietara begiratuz, argi egin eutsan berba.

"Ikusten dozu emakume au? Ni zure etxean sartzean, ez deustazu oinetarako urik emon; honek, ostera, nire oinak bere negar malkoakin, busti eta bere uleakin sikatu ditu"

"Zuk ez deustazu laztanik emon; hau, ostera, sartu danetik, ez da aspertu nire oinai mun egiten. Zuk ez deustazu burua orioaz igurtzi; honek, ostera, oinak usaingarriaz igurtzi deustaz. Horregaitik, hauxe dirautsut nik: maitasun handia agertu dauan ezkero, bere pekatu ugariak parkatuta geratzen jakoz. Gitxi parkatzen jakonak, maitasun gitxi agertzen dau".

Isil handi bat egin zan jantokian. Mahaikide guztien

begiak lurrera begira jartea lortu dau Jesusek. Lotsa gorritan egozan. Berarekin izandako txeratasunik eza jaurti deutse Jesusek arpegira.

Eta orain txarrago zana: emagaldua euren gainetik jarri eban, eurak baino Jaungoikozale hobea eta parkatua izateko duinagoa zala esanez.

"Nor da hau pekatuak parkatzeko?", hasi ziran azpitik esanka. Guztiz durdiduta egozan. Ez ekien zer esan ere, Jesusen erantzunaren bildurrez. Euren lakioan atrapauta eukazan.

Baina, emakumea zan hango aitzindaria eta beragana zuzenduaz hauxe esan eutsan Jesusek: "Parkatuta geldi-tzen dira zure pekatuak. Zeure sinismenak salbatu zaitu. Zoaz bakean".

Orain, emakumearen begiak argi-argi egin ziran. Hartuezinezko alaitasun bat, poztasun bat sartu jakon gorputz guztitik zehar. Halako pozaldirik ez eban sekula bere bizitzan gozatu.

Orain argiz eta pozez gainezka eukan gogoa. Ahaztuezinezko une zoragarria txastatzen egoan. Bizitza barri baten lehenengo taupadak, lehenengo oinkadak.

Jesusek bere bihotzean biztu dauan sugarra ez da inoz ere itzaliko. Maiteminduaren zauriak daroaz bihotz barrena kizkaltzen.

Jesusen maitasun horretan Jaungoikoa aurkitu dau. Haren itzalak, bihotzean ikutuaz, bere babespean hartu. Goragoko bizitza bat aurkitu dau. Aurrerantzean inok ostuko ez deutsan bizitza bat. BiIla ibili dan maitasunagandik ez da inoz aldenduko.

Jesusen adiskide eta jarraitzaile izango da hil arteraino.
"Zeure sinismenak salbatu zaitu. Zoaz bakean".

Horra gure Maisuaren irakatsiak: irakatsi horreek ikasi eta geure egin behar ditugu.

Gaur asko dira, munduko lau bazterretan, emakume honen urratsetatik doazenak.

Uroldeak bide ertzera jaurtitako lohi-zikinak balira lez ikusten ditu gizarteak.

Kale erdian, holako txiro edo bada-ezbadako emakume bat otoz otoan aurkitzen dogunean, bihotz gorako bat sentitzen dogu barruan.

Ez jakuz atsegin; ez da begietarako ikuskizun polita. Itxusitu egiten dabe jendarteko bizitza. Horregaitik uri bazterretara bialtzen ditugu ostikopetik kentzeko.

Han batzen dira euren etxe edo txabola zahar eta zikinetan. Ezeukian jaiotakoak dira, bizitzak gogor hartutakoak, ogibide guztiak giltzaz itxita daukeezanak.

Beharraren beharrak eroaten ditu inoz inorenakin jaubetzera, honako edo halako gaiztakeriak egitera, ugerragaz bizitera, ogi mustur bategaitik borroka eta hasarreetan ibiltera eta abar.

Horreek dira uroldeak bazterrera jaurtitako gure neska txiroak. Gure maitasun eta zuzentasun ezagandik jaiotako emakumeak.

Euren zorionik handiena agorako ogi zati bat egunero eukitea da.

Beti egoten da bihotz errukitsuen bat ogi mustur hori emoteko, baina hortik gora gitxi egiten dogu jende behartsu horreen alde.

Holakoxe gizataldeetatik urteten dabe, gehienetan, Jesusen oinetan belaunikatu dan emakumearen antzekoak ere.

Bizitzaren gogorrak, ezeukiak jaurti ditu kalerik kale

euren duintasuna eta izen ona esku bete txanpongaitik saltzera.

Ez jake bape gogoko zeregin hori, baina etxeko beharrizan gorriak jaurtitzen ditu ur zikin horreetara. Bihozbakoen atseginei eder egin behar bizi ahal izateko. Horren zoritxarra!

Gehientsuenak anker batzuen erpapean jausten dira. Guzurrez, engainuz, inoz beteko ez diran opakizun eta eskaintzak eginez atera ditue euren etxe, uri edo aberritik eta beste lurralde batzuetara eroan.

Itxaso gainean galduta dagoan ontzitxoaren antzeko ikusten ditut. Ezeren babesik gabe, lakioan jausi dan erbia lez, ez dagoz inorako ez ezetarako. Esku eta oinez bahiturik gaizkin horreen sareetan.

Txingote edo popinak balira lez, gizonen atseginetarako jostailu lez, lapurtutako emakume errukarriak dira.

Ez da bape harritzekoa Jesusen abegitasunean eurak lehenengotasuna izatea.

Orain aitzen da hobeto Jesusek esandakoa: emakume honeek zeruetako Erreinuan beste askoren aurretik egongo dirala.

Baina, Jesus maitatzailerik onena bera izan arren, ezetz asko entzuten ohituratuta dago.

Gizon eta emakume galduen bila dabil beti. Bila eta bila, gau eta egun, eten barik. Hori da bere eguneroko zeregina.

Geldi bako ekinean, gizakiari deika eta deika ibili arren, gizakiaren askatasunari ez deutso ikuturik egiten; ez dau behartzen, ez dau menperatzen gizakia.

Adeitasuna eta itzala beti gizakiaren nortasunari. Ez dau inoz bihotz aterik apurtzen. Barrura sartzeko baimena eskatzen dau. Jaun baino, nahiago ldau eskeko izan.

Au dala eta, asko eta askoren aldetik etsimen handiak hartzen ditu. Esaterako.

Pariseu eta bere herritarrekin zenbat ames, ibilte, joan-etorri, ahalegin eta izerdi bota zituan Jesusek herritarrak egitara, argitara, Jainko bide zuzenera ekarteko gogotan.

Horretan eukazan jarrita bere amesik onenak; zeregin horretan agortu zituan bere indar guztiak; hil arteraino oparitu jaken herritarrei. Baina, dana alperrik.

Hareentzat Legea zaintzea Jaungoikoa baino goragokoa zan. Jainkoaren otseimena bai, baina, ez Jainkoak nahi eban lez, eurak eginiko legeen arauetara baino.

Pariseu eta herritarrakin huts egin eban. Berak emondako izerdi eta maitasun guztia kurutzera eroanaz ordaindu eutsoen.

Judasekin ere huts egin eban.

Beste apostoluak lez, Jesusek berak aukeratu eban Judas ere.

Besteak aina maiteko eban, ziur, Jesusek, hiru urteren buruan.

Jesusen taldekide izan zan. Jesusek esan eta egindako guztia bere begiz ikusi eta belarriz entzun eban.

Jesusek eginiko harrigarritasun hareek, Jesusek bakarrean apostoluei iragarritako ezkutuko gauza guzti hareek Judasen aurrean esan eta egin zituen Jesusek.

Horren lekuko zan Judas. Zer jazo jakon, ba, Judasi?

Jaungoikozko gizon haregaz hiru urtean ibili, haren taupadak entzun, haren gizatasuna, ontasuna, samurtasuna, besteak ez aineko gizona zala ikusi, haren zuzentasuna, on egiteko eukan taiu eta sugar bizia... Holako ezer ez ete eban Judasek benetan hartu?

Guzti horrek ez eutsan bihotzean ikuturik egin? Harrizkoa ete zan, ba, Judasen bihotz hori? Zelan aitu berari jazorikoa?

Horrenbesteraino heldu ahal ete leiteke gizon baten gaiztakeria?

Burua hemen ezinean galtzen da. Guk ulertu ezin geinken misterioren bat dago hemen hainbaten.

Azken orduan ere, Getsemani gainean, saldukeriazko laztana emon eutsanean, orduan ere Jesusek begietara zuzen begiratuaz, hauxe esan eutsan: "adiskide, zetara etorri zara?

Azkenean, Judas galdu egin zan.

Jerusalen, bere uri maiteakin ere, etsimenik mingarriena eroan eban.

Zer ez eban egin Jesusek bere uri maitearen alde!

Jerusalengo uriak, goizean, txaloka eta goraka hartu eban egun berean, arratsaldez, tontortxo batetik uriari begira egoala, Jesusek negar egin eban, esanez: "Zuk ere ezagutuko bazengi egun honetan bakerako deia!"

"Baina, zure begientzat estalduta dago. Helduko dira egunak eta zure arerioak hesiak jasoko deutsuez, eta inguratu eta alde guztietatik estutuko zaitue; zu eta zure barruan dagozan semeak lurrean apurtuko zaitue, eta ez dabe zugan harririk harri gainean itziko: eta hori, zuri egindako ikustaldia ezagutu ez dozulako!" (Lk 19, 41).

Lehen, emakumea ikusi dogu negarrez Jesusen oinetan. Orain, Jesus bera da negarrez dagoana. Bere uri maiteak huts egin deutso.

"Jerusalen, Jerusalen! Hamaikatxo bidar batu nahi izan ditut, ba, zure semeak, oiloak bere txitak hegapean batzen dauzan lez; eta zuk ez dozu nahi izan! Horra, ba: etxea hutsik geratuko jatzue" (Mt 23, 37).

Parkatzailea beti dago prest parkatzeko. Baina, ezin dau parkatu lehenik pekataria parka bila aurreratzen ez bada.

Jesusek atera deitzen dau, baina aterik bota barik!

Hemetik ondorengo argi bat atera behar dogu guztiok, hau da, Jesusek ekarritako salbamen doaia benetan eta ardura handiz hartu behar dogula. Astunegia da jokoz hartzeko.

Jesus ona dala eta, parkatzailea dala eta, gugaitik hil zala eta, salbauta gagozala eta alperkeriaren gozamenean lo nasaian gelditzea, Jesusentzat irainik mingarriena litzake.

Kurutzean odol gehiegi dago, guk txantxetan hartzeko.

Jesus ez zan bildurra sartzera etorri. Bildurra eta gogorkeria ez dira Jesusen eskolakoak.

Baina, bai, eskatzen deusku, bere arpegiak kurutzean daukan seriotasunez, Jaungoikoari, salbamenari eta gizonari dagokiozan arazo, betebehar eta zereginetan zintzotasun eta benetakotasun arduratsuenaz jarduntea.

Ez deigula lo gaiztorik egin gauza santuen aurrean.

Jesusek hitz gozo eta errukitsurik asko esan eban, baina, nagi, alper eta gaiztoentzat hitz garratz eta lodiak ere bai. Jesusen parabolak irakurtea nahiko dogu onen jakinean egoteko.

Han ikusten dira morroi zintzo eta leialak Aitaren etxera sartzen hartutako talentuai irabazia ateraten jakin ebelako eta beste morroi alper eta ganorabako batzuk, esku-oinak lotuta kanpora botaten, hartutako talentuak, irabazian jarri beharrean lurrean gordeta euki zituelako.

Han ikusten dira eskekoak, aingeruen eskuetan, Abrahanen altzora eroaten, eta aberatsak inpernuko oinazetan negarrez.

Han ikusten dira senargaiaren zain egon ziran neskak, haregaz eztegura sartzen, eta lotan geratu ziranak, ostera, ezteguratze barik.

Gauzak argi dagoz. Arrisku baten antzera aurkezten deusku Jesusek salbamena: "Zetarako jako, ba, gizonari, mundu osoa irabaztea, bere bizia galdu ezkero?" (Mk 8.36).

"Zeruetako Erreinua, sare baten antzekoa da: itxasora jaurtita, guztietariko arrainak batzen ditu; eta beterik dagoanean, itxasertzera ateraten dabe eta, jesarrita, onak otzarara batu, eta txarrak jaurti egiten ditue." (Mt 13,47).

Hainbat honako aholku zorrotz dator ebanjelioan.

"Sartu zaiteze ate estutik, hondamendira daroan atea handia da eta, eta zabala harako bidea, eta bertatik sartzen diranak asko dira.

Bizitzara daroan atea, barriz, haxe bai dala estua, baita harako bidea ere!; eta ate hori aurkitzen dabenak gitxi dira" (Mt. 7,13).

Norbaitek hauxe esan eutsan: "Gitxi ahal dira salbatzen diranak?" -Eta Jesusek: "Ahaleginak egizuez ate estutik sartzen, hauxe dirautsuet eta: askok izango dabe sartzeko gogoa, baina ezin sartu izango dira" (Lk 13, 23).

"Frutu onik emoten ez dauan edozein arbola, ebagi eta sutara jaurtitzen da" (Mt 7,19).

"Neugan irauten ez dauana, kanpora jaurtitzen dabe, aihena lez, eta igartu egiten da; gero batu eta sutara jaurtitzen ditue, eta erre egiten dira" (Jn 15,6).

Tanbor hotsean eta turuta joka zeruko atera deitzeak ere ez dau balio.

"Ez da zeruko Erreinuan sartuko, niri Jauna, Jauna diraustan edonor; zeruko nire Aitaren nahia egiten dauana baino: horixe sartuko da zeruetako Erreinuan" (Mt 7,21).

Hizkera hau gogorra da, oso gogorra. Garrantzi handiko zerbait dago pilpilka hitz handi honeen azpian.

Hainbaten, gure salbamena ez dala txantxetakoa. Jesusen begi eta bihotzagaz ikusi eta hartu behar dogula salbamen hori.

Berak aurrera eroan ebana gogoz eta adorez eroan behar dogula guk ere. Bizitzako lehenengo zeregina dala guretzat.

Horren lormenean agortu behar ditugula gure bizitzako egunak.

Horra gure egiteko nagusia. Gure burruka.

SEME HONDATZAILEA

Seme hondatzailearen parabola hau Jesusek esandako parabolarik ederrena, maitagarriena, txukunena dogu hainbaten.

Bere hitz bakotxak, bihotz txokoan, halako samurtasun dardara, zirrara gori bat sortzen dau. Hunkigarria benetan.

Hamaikatxo malko gozo ixuri ditu gizakiak parabola honen ederrak erasota.

Jesusek zeruko Aitari eginiko argazki paregabea da. Jaungoikoa nor dan eta zer dan iragarteko Jesusek asmauriko parabola bikaina. Orain badakigu Jaungoikoa nor dan, Jesusek esanda.

Aita da, maitasuna, ontasuna, errukia, parkamena! Irudipe honetan margotuta agertzen deusku Jesusek Jaungoikoaren izatea, arpegia.

Horixe da Jaungoikoa! Holakoxea da gure zeruko Aita!

Aita batek seme bi eukazan, diño Jesusek.

Aitagaz bizi ziran biak. Etxe ona zan, pozik biziteko modukoa. Zoriontsu biziteko behar zan guztia eukan.

Baina, sarri askotan, batez ere gaztearo arinean, ez dogu etxeko zorion hori ikusten, estimatzen.

Holantxe, semerik gazteenak, aitaren bihotza negar odoletan itzi eta zorionaren bila mundu zabalera joatea erabagi dau.

Etxetik iges egin gura dau libre izateko. Aitaren begipetik urrun, nasaikeria eta lizuna bete-betean gozatzeko. Bide barriak, mugida barriak ezagutu nahi ditu...

Eta goiz baten, etxetik urten zan urrinetara joateko.

Diru asko eroian beragaz; sakutoa bete-bete. Eta poltsikoan dirua txintxinka eta ugari dagoanean, ez da gauza gatxa izaten adiskideak egitea.

Saiak ustelaren ingurura lez batzen dira holakoaren ingurura ere bere antzeko neska-mutilak.

Erraza izan jakon andrazkoak bereganatzea, lizunkerian hondarreraino sartzea, diruak iraun eutsan arte.

Horixe, diruak iraun eutsan arte, ba, laster eralgi zituan diruok, ura lez joan jakozan eskuetatik.

Dirurik gabe gelditzean behingo baten jausi jakon, mila zatitan, nasaikeriazko mundu ergel hori.

Goian zerua eta behean lurra geratu zan. Bere inguruan ebilan erla mendia, neska-mutilak agur esan barik alde egin eta bertan behera itzi eben mutil errukarria.

Tamala emoteko egoan mutil gizajoa!

Ez lagunik, ez etxerik, ez jantzirik, ez janik, ez pozik, ez ezer.

Gosez ez hilteko, txarrizain joan zan basora. Bai txiki eta estu egin jakola mundua. Txarrizain, etxe oneko semea.

Zenbat negar, zenbat garrazi eta oldospen triste egingo zituan bakartade haretan.

Arteak hartu ezinik, halako baten, bere etxealdera

begiratu eta amesetan hasi zan. Hantxe ikusi eban, ames hunkigarri baten, berak maite izandako etxetxoa, dotore, lirain, maitekor, txeratsu, eguzki argitan.

Etxeko okolu bakotxa, ertz bakotxa, zulo bakotxa gogoratu eban; bere etxeko ogi gozoa, adiskide eta langileak begi aurrean lez ikusi zituan.

Eta, batez ere, bere aita. Ai, bere aita!

Hantxe egoan, sutondoan jesarrita, triste-tristerik, burua esku artean sartuta. Negar malkoak etorkiozan iturri antzera begietatik behera.

Bihotza taupada bizian hasi jakon mutilari, untze gori batek ikututa lez.

Berehalaxe konturatu zan ez zala duin aita horren seme izateko, urrunegi heldu zala, bere portaera negargaria izan zala.

Baina horregaitik ez eban usterik galdu aitagan. Baekian aita onegia zala eta eginak egin arren ere, parkatuko eutsala.

Eta, bertatik zutundu eta arin-aringa, negar zizpuru hutsean, etxerako bidea hartu eban.

Eta aitak zer, zer egin dau bitartean? Aita lurra jota dago. Ez dau ordu onik izan semea etxetik joan zanetik.

Beti ilun, beti nekez, beti semea gogoan. Semea ezin kendu burutik.

"Etorriko da, etorriko da etxera. Bihotz ona deuko, ez da mutil txarra. Gaztetako zoroaldi bat, itsualdi bat izan da hori. Etorriko da nire semetxoa!"

Honakoxe ames eta gogakizunakin poztuten eban aitak bere bihotza han etxe ondoko tontortxoan, semearen zain emoten zituan orduetan.

-Ortixek etorriko da... Bihar etorriko da... Honezkero, bidean dator... Honantxe gaur eta bihar, aita etxe ondoko tontortxoan beti semearen zain. A nahigabea!

Eta heldu zan, halako baten, egun hori. Hor dator seme galdua, errukia emoteko eran. Zer zan ha!

Zikin, argal, trauskil, errukarri.

Aitaren bihotza dardaraka hasi zan, gora-goraka, pozaren pozez lehertu beharrean, zoratu beharrean.

Semea besartean hartu, laztanez bete bihotz ondoan, eta negar sotinka, estu-estu, ito beharrean erabili ondoren, une haretako pozari eutsi ezinik, aginduak emoten hasi zan.

-"Joan eta ekarri bizkor soinekorik onenak, oinetakoak, eraztuna, seme lez jantzi; hil kortako zekor gizena.

Deitu musikalariai, adiskideai, auzokoai; jai handi bat egin behar dogu etxean, nire seme hau hilda egoan eta biztu egin da eta; galduta egoan eta aurkitua izan da eta.

"Holantxe, diño Jesusek, zeruan ere jai handi bat egindo da pekatari bat onbideratzen dan bakotxean".

Aitak ez deutso hasarrerik egin, ez deutso zigorrik ezarri; ez deutso itandu nondik nora ibili dan, nogaz eralgi dituan etxetik eroandako diruak...

Zer da semearen trabeskeria hori semea barriro etxean eukitearen ondoan! Semea bizirik dago eta horixe da dana; beste guztiak joanak dira. Semea, semea da nire bihotz zatia, nire ondasuna!

Zer deritxazue? -Ba, aita hori, Jesusek diñoan lez, zeruko Aita da. Zeruko Aita! Jaungoikoa! Holantxe hartzen dau gure zeruko Aitak bere oinetara doan pekataria. Holakoxe harrera bigun, gozo, maitekor, pozgarria egiten deutso pekatariari.

Nok bildur izan Aita horri? Nor larritu beragana joatean?

Goazen, ba, beragana bihotza zabalik eta uste osoz. Itxaroten daukagu. Poz handi bat emongo deutsagu.

EUSKALERRIA IRAINAREN MINEZ

Beste behin, etsimena hartu dau gure herriak Elizaren aldetik. Gure gotzain barrien izendapena egon da gatazka honen barruan.

Ames gozoak egin genduzan euskaldunok gurera etorriko ziran gotzain barriak geure herriko semeen artetik hartuak izango ziralakoan..

Tokian tokiko gotzainak izendatze horretatik doa Kontziliotik gerora lege eginda dagoan jokabidea. Horixe da, izan ere, biderik zuzen eta zentzunezkoena.

Herri bakotxaren eskubide, eskakizun eta gurariak beteteaz gainera, artzaintza jator eta oparotsu bat egiteko oinarririk opagarriena, biderik onena dozu, ezelango zalantzarik gabe.

Gu ere horretan gengozan: gurera ere bertako semeak etorriko zirala gotzain. Baina, gauzak ez dira hortik joan. Gure herria bereiztua izan da oraingoan ere.

Eta honek ondoeza eta urduritasuna sortu ditu herritar askoren artean, agintariakandik hasita. Erreminaren negarretan dago oraindik.

Besteak beste, gure herria kristautasunean aurrelari ibili da beti. Txikia izanik, beste inongo herrik beste abade, praile, misiolari, lekaime eta kristau ongile eta zintzo emon deutsoz Kristo eta bere Elizari.

Adibidez, hor dagoz Eliza gainean, argi bereziz ingu-

raturik, gure Loiolako Inazio, Jabierko Misiolaria, Berriotxoa, Arrupe eta beste zenbatuezin beste euskaldun izar jator eta ospetsu. Nok zenbatu, belaunaldirik belaunaldi, euskal Elizak emon dituan igarle guztiak?

Eta hemen dator guk argi eta garbi jakin gura gendukena: Noren eskutik doa Vaticano euskalerriari dagokiozan arazoetan? Noregana zuzentzen da? Nori entzuten deutso? Zeintzuk dira bere aholkulariak?

Zelan daiteke, aldien joanaldian, Euskalerriko Elizan sortzen diran berezko arazo eta beharrizanak beti eta beti politika arauz ebaztea?

Zelan erabili daiteke euskal Eliza gure etsai politikoak nahi daben soinura? Horixe da guk onartu ezin dogu-na.

Hemen egia bilatu behar dogu eta, maitasunik handienaz gainera, Eliza bere hutsegite eta okerretatik garbituta ikusi nahi badogu.

Burua hegopean gordeta, arazoei muzin egitea, betiko haurtzaroan geldotuta gelditzea litzake. Ez ginakez horretara kristau aurreratuak izango.

Saiatu gaitezan, ba, egia bilatzen. Geuk geure begiz ikusi eta bizitako jazokizunak bakarrik gogoratuko ditugu hemen.

Goazen gudaldira.

Mateo Muxika jauna zan gure Gotzaina, euskalduna bera. Gerra hasi zan baizen laster frankotarrak erbestera bialdu eben, bestela etsaien armapean ila izango zan.

Zergaitik? -Euskalduna eta euskaldunen gotzaina izateagaitik. Bidegabekeria honen aurrean isildu egin zan Eliza; kale egin eban.

Gerratean, 16 abade euskaldun hil zituen. Zein izan

zan abade honeen errua, pekatua? -Euren herria maitatzea! Ez eben beste ezetariko txarrik egin. Euren herria maitatu eta inguruan gari ona eskuak betean erein.

Gerra ostean, 500 abade, herriak zituan abaderik onenetarikoak, erruki gabe, hara eta hona, alde guztietara erbesteratuak izan ziran.

Zein izan zan abade honeen errua erbesteratzeko? -Eurak maite eben herriaren zerbitzura egotea; beste ezertxorik ez.

Eta abadeakin batera, mileka eta mileka euskaldun, batzuk erbestera, beste batzuk urrunetara; asko eta asko espetxeetara eta beste hainbat hilerriko horma ondoetan erailak izan ziran...

Zein izan zan beraien pekatu baltza? -Euskaldun jaio eta euskaldun bizitea.

Basatikeria honen aurrean Eliza isilik, mutututa, burua hegopean gordeta.

Gauza astunak dira hemen idatzi ditugunak; eta ez ditugu zauriak barritzeko eta gorrotoak biztuteko idatzi. Ez, gauzak ezagutu eta jakinerazoteko ekarri ditugu hona, aurrerantzean geure gauzak zaintzen adore handiagoz ikasi dagigun, nahiz eta Eliza bitarteko egon.

Munduko lau alderdietan entzun ziran jakitun eta borondate oneko gizon askoren deadar eta hasarreak jazokizun eta hil dantza honen aurrean.

Gerora, Gasteizko elizbarruti bakarra zana hiru zatitan ebagitea lortu eben.

Gasteizko elizbarrutia entzute handikoa zan. Seminario ospetsu bat eukan; abadegai eta abadeak ugari; irakaslez ondo hornidua; han egiten ziran jakintza lanak goi mailakoak.

Elizbarruti bakarra izatean, euskaldun abade eta aba-

degaiak alkar ezagutu eta alkarren adiskidetasunean anaiak lez biziteko modu egoki bat zan.

Euskal zaletasunaren mintegia lez, euskalerriaren bihotza lez, herriari eutsigarritasuna eta arnasa barria emoten eutsan erakundea lez ikusten eben gure etsaiak Gasteizko Elizbarrutia bere seminarioarekin.

Urtero-urtero, gazte pilo handi bat bialtzen eban herrietara abade eginda.

Gazte prestuak, jatorrak, buruz eta bihotzez ondo jantziak. Gazte hareek ziran herriaren aberastasuna eta indarra.

Eta guzti hori oso arriskugarri ikusten eben gure auzoak. Habi hori desegindu behar zan, etsaia barruan zatituta itziaz.

Euskalerriko Eliza "politikaria" zalakoaren atxakiz, Elizbarrutia hiru zati eginda gelditu zan.

Baegoan, ba, garai haretan, euskaldunen artean abadetalde ugaria, jakintsua, doetasunez oso jantzia hiru Elizbarruti barrietan bertako semeak gotzain izendatzeko. Bai, horixe! Baina, holakorik amesetan ere ez!

Susmoak kilikatzen eban lez, hiru gotzain espainiar ekarri zituen, bata baino bestea espainiar zaleagoak. Euskeraren arrastoa bera ere errautsiteko prest egozanak. Eukal Eliza politikaria zala!, hauxe zan gure aurkako betiko leloa, eta gangar hori ebagiteko, euskera buruan jo.

Politika hitz honi nik ez deutsat begi onik erakusten. Buruz behera naiz buruz gora, nahiz hankaz gora nahiz hankaz behera, nahi dogun guztirako erabilten dogu gaur hitz baldar hau. Doilorkeria eta makurkeria guztien ama eginik daukagu.

Aspaldion, itaun bat daukat borborka neure buruan.

Galdezka nago: Goi-Elizak ze irizpide, ze aburumen, ze asmobide erabili ete dituan buruan izentapen honeek egitean.

Norekin hitz egin dau?, norekin ibili da eskutik?, nor edo nortzuk izan ditu aholkulari?, zeintzuk izan dira azterkatu dituan baloreak?

Gure Elizaren onaren bila ibili da soil-soilik, hala beste asmo eta interes batzuk ere sartu dira hor jokoan? Nok erabili ditu, isilpean, arazo astun honen hariak?

Zergaitik ez deutse ezer itandu gure Elizari? Gure kristau talde, gure agintari, gure pastoral batzorde eta aholkulariei?

Zer dala eta, muxin hori, destaina hori, ez ikusi hori gure herriari? Zergaitik ez zituan hartu gure agintariak, gure eliz ordezkariak, behin eta barriro, arazo horretzaz berba egiteko eskea egin ebenean?

Kristoren erreinura ala zesarren erreinura bota dau txanpona?

Batek baino gehiagok esaten dabe: Aita Santuak eskubide bakarra dau berak nahi dituan gotzainak izendatzeko. Berea bakarrik da ahalmen hori. Beraz, zer dala eta sartu beste inor arazo horretan, alboko atetik? Zergaitik ez ontzat hartu, kristau onari dagokion lez, Aita Santuak egindakoa?

Hau pentsaera ergela da, onartezina.

Danok dakigu Aita Santua ez dala izan egile bakarra gure herriko gotzainak izendatu dituanean.

Ezagutzen ete ditu Aita Santuak barru-barrutik mundu guztian zehar zabalduta dagozan gotzain guztiak? Ahalezko gauza ete da hori Aita Santuarentzat?

Mundua zabalegia da gizon baten begiz ikusteko. Laguntzaile eta aholkulariak behar ditu bide hori egiteko,

egikizun hori ezaupidez eta behar dan argitasunez betetzeko.

Eta bide hori eta argintasun horreek Kontzilioko irakatsi eta arauetan datoz zehatz eta mehatz azalpendurik.

Han dago iturria, eta iturri horretatik hartu behar dau ur garbia gauzak taiuz egiteko eta ez beste lohi-putzutik.

Eta sarritan, iturri ona itzi eta iztoki eta osin lohietara joaten gara ur bila, geure interesak aurrera ateratzea danean.

Holakoetan arraintzarrak, arrain txikia jaten dau.

Inongo herritara ez da bialtzen bertako hizkuntza eta ohiturak ezagutzen ez dituan gotzainik. Inongo herritara ez. Zentzun onak dakarren argia da.

Gurera bai, ostera. Geure herria izango da behar bada munduko bakarra gordinkeria hau iruntsiazoten jakona.

Herri bakotxari bere semeetatik hartutako gotzaina, edo, behintzat, bertako hizkuntza eta abar ondo ezagutzen dituan bat emoten jako.

Gaur berton, holako berrogeita hamar bat gotzain euskaldun ditugu atzerri zabalean zakabanatuta gotzaingoa dagienak.

Eta etxerako ez deuskue geure herritar bat emon gura, geure herriaren artzaintza egiteko.

Herri bakotxari bere hizkuntzan iragarri behar jako Jesusen ebanjelioa. Lege eginik dago arau hau gaur eta beti mundu osoan.

Herririk txikienak gozatzen dabe eskubide hau. Zentzuna bera da honen arrazoibide. Baina, guri beti erdeldunak bialtzen deuskuez.

Buruak zuritzearren edo, barrabaskeria honi aurpegia garbitzearren edo, sasi-arrazoi hau entzuten zan sarritan egun hareetan:

Espainiarrak ez dabela inoz ez mindurarik, ez gaitzondorik izan gotzain euskaldunak hartzeko. Eta, adibidez, Uriarte eta Zukia Gotzain agurgarrien izenak jarten zituen eredugarritzat.

Gurera datozan erdal gotzainak, Uriarte Jaunak eta Zukia Jaunak erdera menperatzen daben jakituriaz, euskera eta euskal herria ezagutuko balitue, guk ere ez genduke negarrik egingo.

Sasi arrazoi horretan dago ostenduta pozoia.

Gure artera etorri diran gotzainak ez dakie euskerarik. Iruñekoak ez daki; Bilbokoak ez daki; Arabakoak ez daki, nahiz eta naparra izan.

Gotzain honeen izen eta izendatzeak tiki-miki eta eztabaida asko sortu ditue bazterretan, baita hasarre eta erreminak ere.

Kukukeria asko esan da, bakotxak bere bihotzaren berora abestuz. Gau txori batzuen uluak ere entzun dira. Askok isilean eroan dabe nekearen samina.

Egun hareetan, teologo entzute handiko bat, Hans Kung, agertu zan Madril aldetik. Teologoen arteko batzar batera etorren hizlari elizgizon jakintsu hau. Mihina zoli erabilten dakiana da Hans Kung.

Orduantxe ebilen pil-pilean Bilboko Gotzainaren izena. Eta Hans Kung-i itandu eutsoen ia zer eritxon berak jarritako gotzaina zala eta euskaldunak euken hasarreari.

Eta Hans Kung-en erantzuna: Arrazoi guztia deukee euskaldunak hasarre egoteko.

Eta salakuntza gogor hau egin eban Vaticanon kontra Hans Kung-ek.

-Gotzainak ez dira gainetu behar, harrerazo behar. Eta Vaticanok harrerazo egiten ditu.

Gainera balio gitxiko gotzainak aukeratzen ditu. Bere neurrira jantzitako gotzainak. Atzerakoiak, bigunak, bere esanetara erraz makurtzen diranak. Erromatarren alderdikoak diralako izendatzen dira.

-Gaurko Elizak biharkoari itziko deutsan ondorerik, zamarik astunena hauxe izango da: gotzain "txikiz" beterik aurkituko dala Eliza.

-Herri askori harrerazo jakez nahi izan ez dituan gotzainak; beraz, euren gotzainekan uste ona galdutako abade eta kristau asko dago. Eliza alderdi horretatik asko pobretu da.

-Beste hizkuntza eta pentsaera bateko gotzaina gainez ezarten bajako herri bateri, hor ez jako ikutzen erlijioari bakarrik, hor politikeria ere sartzen da, eta horrek ez deutso ezeren onik egiten herriari. Ulertzen dot euskaldunen hasarrea.

Eta honako hitz handiakaz amaitu eban bere alkarrizketa hori:

- Ez dago zereginik Elizan, Erroman, berak bakarrik munduko beste gizon guztiak baino gehiago dakiala eta gainera hutsezina dala sinistuta dagoan Aita Santu bat daukagun artean.

-Elizak darabilen agintaritza erdiaroko agintaritzaren antzekoa da. Eta gaurko munduak era horreek ez ditu onartzen, ezta inoz aurrerantzean onartuko ere. Horregaitik doa Eliza alde batetik eta gizartea bestetik.

-Elizak agintzeko era guztiak aldatu behar ditu. Batez ere, Aita Santuaren hutsezintasun hori azterkatu eta gaurkotu behar da, bestela beti atzeraka joango gara.

Hans Kung-i egindako alkarrizketa luze hau, argibide lez ekarri nahi izan dogu hona.

Jakintsuen esanean, gotzainen izendatze inguruan, han eta hemen sortu diran hizki-mizki eta matrakak, beti

ere biziak eta ugariak, Elizarentzat onuratsu eta mesedegarriak ei dira, ikasgai hori ikasiezinean dabilelako.

Kristau herriaren heldutasun bat ikusten dabe hor. Kristauen abotsa Elizara zabaldu danaren ezaugarri bat.

Elizako arazoetan, batez ere euren ardurapean dagozan eginkizunetan, entzunak izatea nahi dabe. Euren asmobide, eritxi eta pentsaerak benetan onartzea.

Herriaren berbots hau durundutsu dator, etorri ere. Holan jarraitzen badau, laster ditu gauzak onera ekarri.

Bizkaian ikusiaren arauz, joko honek kontzientziak zuzpertzeko ondorioa ekarri dau, ziur baten.

Hauxe da gatazka honetatik argi ateratzen dan egia: aurrerantzean, ezinezkoa izango dala herria baztertuta eukitea honako hautuetan.

Politikeriaz nahastau nahi izan ditue gure legezko eskakizun eta eskubideak.

Honako zentzunbakokeria batzuk esan dira: Eliza katolikua dala eta gainera Aita Santuak muga bako agintaritza bat daukanez, berak nahi dituan gotzainak izendatzeko eskubide osoa dauala. Aita Santuaren eskubide honeek onartuak izateko dagozala eta abar.

Baina, arazoa hori baino astunagoa eta sakonagoa da. Horretara ikusi dau gure herriak.

Gure eskakizunak eta gotzain barriaren bila egindako bideak, ebanjelioaren argiz jantzita egin dira, eta bestetik euskalerriaren eskubideen sustrai-sustraietan erraiturik datoz.

Euskalerriak gauza bi honeek izan ditu kontutan bere eskabide eta arrazoibideak Elizaren aurrean agertu dituanean.

Herriaren eskubideak beste ezer baino lehenagokoak, beste edozein gauzaren gainetik dagozanak direla. Inoz txarrez ikutuezinak.

Bestalde, Elizak beti onartu eta bedeinkatu dituela bai gizakien bai laterrien eskubideak.

Giza eskubideak ez ditu inongo gizonek asmau, Jaungoikoak gizaki bakotxari emonak dira. Ebanjalioan dagoz araubideturik.

Elizak ere ebanjeliotik hartu ditu eta gero bere oinarrizko irakatsi nagusi egin. Giza eskubide eta laterrienak inoz zainduak izatekotan, hori Elizak egin behar dau.

Ulertezina litzake laterrien eskubideen kaltetan sartutako Eliza bat.

Horregaitik, begiramenez eta arretaz hartu behar ditu beti eskubide horreek. Sagaratuak dira, ikutuezinak, agindte guztien gainetik dagozanak.

Horregaitik diñogu kristau herri bati bere hizkuntza eta bizi taupadak ezagutzen ez dituan gotzain bat, nahitaez harrerazoten jakonean, hor herriaren eskubideak zapuztuta geratzen dirala.

Nahiko abade ditu gure herriak bere semeen artetik bat edo beste gotzaintzarako hartzeko.

Horregaitik herria Elizak egindako irainaren minez dago; berezkoa da sentimentu hau. Hau ulertzeko gauza ez danak ez ditu inoz bere sentimentuak zapalduta ikusi.

Honako orduetan, lehenengo tentaldia, Eliza iztea izaten da; bere altzotik urruntzea.

Baina ez da hori biderik zuzenena. Holakoetan, bihotzari entzungor egin eta kontzientziari entzun behar deutsagu.

Elizak bereak eta hamar egin ditu bere egunetan. Gogo onez batzuetan, arinkeriaz eta temakeriaz beste askotan.

Baina, hau ez da irtenbiderik onena arazoak konpontzeko; bide hobeak daukaguz.

BARRI ONAREN OIHULARI

Barri Onaren oihulari gara; Jesusen bidaliak.

Berauxe da fededun baten zereginik handiena. Jesusen Barriona iragartera beharturik gagoz fedea hartu dogun guztiok. Doan hartu genduana, doan emon behar dogu.

Jesus ezagutzen emote hau lehenbailehengo lana lez ikusten da gaurko Jainko Herrian. Ez da, egiaz, lan erraza. Ardura eta bildur oso handiak sortzen dituan arazoa da.

Ardurak. Mundua, goitik behera datorren edur bola baten antzera, abiadan, Kristogandik urrunduaz doa. Gizakia sekulartuta; herriaren erlijiotasuna hilzorian; gizartea txarraren ilunpetan. Zelan ez arduratu! Egiazko salbatzaile baten beharrean gagoz.

Bestetik, bildurra. Ezinak sortzen dauan bildurra.

Ebanjelizatze hori ez ahal da gure ahalmenaren gainetik dagoan zerbait? Nor heldu tontor horretara? Munduak jarten deuskuzan eragozpen, traba, kontrako haize eta ekaitz erasoak zelan menperatu? Zelan zapaldu izotz horma hori? Lanaren izugarritasunak kikilduta gaukaz!

Gure makaltasuna apalik autortzen dogu. Gure hegada ez doa urrun. Baina, itxaropena eta Kristo doaz gugaz.

Munduko ezereza aukeratu dau bere izena gizakiari hotsegiteko. Beragan dogu gure ustea. Berak egingo dau guk ezin doguna. Haren indarrak zaintzen gaitu zutik lanaren bihotzeraino barneratzeko.

Ebanjelizatzea ez da gaurkoa. Antxinatik dator. Kristok hasi eban. Bera da Jaungoikoaren Hitza.

Behin, Galilea aldera igon eta hantxe jaurti zituan lehenengoz ebanjelio haziak, esanez: "Bete da aldia, eta Jaungoikoaren Erreinua hur dago; bihotz barritu zaiteze, eta sinistu egizue Barri Ona".

Barri Ona zabaltzea! Hauxe izan zan Jesusen egitekorik nagusiena, gorengoena. Honetan agortu zituan bere bizitzako egun eta ordu guztiak. Jesusek egindako gainetiko guztia ebanjelizatze honen gehigarri lez izango da.

Orain ebanjelizatzea zer dan aitzeko moduan gagoz.

Jesusek gizon-emakumeei iragarri eutsen Barri Ona gaurko gizon eta emekumeei oihukatu eta sinisgarri egitea, horrexeri deritxogu ebanjelizatzea.

Eta hemen, ebanjelizatzeari buruz, euskalerriko sukaldeetan goizaro-goizaro ikusten zan liluratasun hunkigarri bat jatorkit gogora.

Amatxo gurea, sutondoan jesarrita, bere maiteñoa altzoan dauala. Han dagoz ama-umeak alkar liluraturik; amak, irribarrez, begi-ninira begiratzen deutso, berba gozoak esan, mosuz bete, bihotz ondoan samur laztandu... Eta gero, bigun-bigun, umetxoaren eskua hartu eta bekokira eroanez Aitearen egiten irakasten deutso. Gerora, Gure Aita eta Agur Maria esaten. Jesus nor dan irakatsi ...Ebanjelizatze ezin hobea ama horrena!

Auzoan edo bidean, behartsuren bat aurkitzen dozu. Beharrizanean dagoala dakizu eta zuk, ezeren minik gabe,

esku bete laguntza emoten deutsazu. Ebanjelio bizia dozu hori ere.

Honako egite txikiak edozeinen esku dagoz. Zergaitik ez ditugu ugaritzen? Beste odol bat jarriko genduke mundu honen zanetan.

Jesusen antzera, mundutik zehar on eginez ibilten ikasi behar dogu. Hauxe da mundua hobetzeko bide bakarra. Hauxe dozu ebanjeliorik onena.

Zergaitik ez dogu ebanjelio hau gure ames egiten? Horretara gozoago litzakigu gure eguneroko bizitza hau eta zertxobait hobeago inguruko mundua ere. Ebanjelioa testigantza bihurtzea, atalik onena dozu.

Jesusen ebanjelioari Barri Ona deritxogu guretzat albisterik, mezurik zoragarriena dakarrelako: gure salbamenaren barri ona dakarkigu.

Jesusek askatu gaitu, Jesusek gaizkatu; ez urrez edo zidarrez, bere odol santua ordainez emonik baino. Jesusek gu horretara bere anai-arreba egitean, berarekin batera, gu ere Jaungoikoaren seme-alaba egiten gaitu. Jaungoikoari zeruko Aita deitzeko esan euskun Jesusek.

Aita hau ez da harrizko idoloa, edota borreru zigortzailea. Maitasun hutsa da. "Aitak maite zaitue", diño Jesusek. Gizon eta emakume guztientzat eta bakotxarentzat salbamena nahi dauan Aitak. Zeruko pozean, bere ondoan euki gura gaituan Aitak. Kristogan bere seme-alaba kutun egin gaituan Aitak.

Gurari hori beteta ikustearren bialdu eban bere Seme bakarra mundu honetara. Eta Aita horretaz dakigun guztia, barriz, Jesusek esanda dakigu.

Egi honek eskakizun astun bat dakar guretzat. Aita hori benetan hartu behar dogu, Berak bialdutako Jesukristo hartu behar dogun lez.

Ez da nahiko Jainko horregan sinistea, kristau nazala esatea. Hori berez ez da ezer. Kristau izenari egitasuna emon behar jako; eta egitasun hori Jainko Aitarekin ditugun hartu-emon zintzo eta benetakoetan erakusten da.

Aita lez hartu eta Aita lez maitatu. Hortik dator gure ordagoa: Jaungoiko hori onartzean edota baztertzean dago gizakiaren betiko salbamena edo betiko hondamena. Beretzako da guk dogun guztia. Bera da gure Jaun eta Jabe. Bera jartzen dogu gure bizitzako buru eta gidaritzat. Bere babespean bizi gara. Horregaitik, txoko berezi bat dau zeruko Aitak gure bihotz ondoan, maiteminez egindako txokoa.

Hortik Jaungoikoarena dan guztia geurea balitz lez hartu behar dogu.

Jesusek goragoan esan deuskuna: "bihozbarritu zaiteze". Beste era batera esanda: Kristoren antz-irudiko gizonak eta emakumeak izan zaiteze. Jesusen antzekoak.

Zelako gizona zan Jesus?

Ebanjelioan aurkitzen ditugu Jesusi buruzko ezaugarriak. Lehenengo eta behin, bere zeruko Aitarekin holako aitumen estu eta sakon bat eukala dakigu; lotura eta hartu-emon bereziak. "Aitatxo" deitzen eutsan bere baitan. "Aita eta ni, biok bat gara", inoan sarritan maiteminez.

Bere bizitzako helburu nagusia Aita horren nahia egitea izan zan. "Ez al zenkien, nire Aitaren gauzetan egon behar dodala nik?" "Nik Aitaren nahia egiten dot beti". Aitaren gogoaz bateginik beti.

Bigarren helburua, gizakiai zerbitzea zan, neurri barik on egitea. Beti gizakiaren ondoan, hari begira, zuhur eta adi, beharrizanen bat non ikusiko, berehalaxe laguntza eroateko.

Ezeukiak eta ezindunak ziran, batez ere, Kristoren

bihotza dardar jarten ebenak. Hareentzako zan txokorik onena. Gaixoak, itsuak, herrenak, elbarrituak, bazterreratuak... Andrazkoak ere beroa eta babesa, bihotz txukuntasuna, aurkitzen eben Jesusegan.

Pekatarientzat ere txoko berezi bat eukan. Beti prest pekatariekin joateko. Beti prest hareekin jan eta jardateko. Beti prest damu-negartxo bat ikusten ebanean, parkatzeko. Pekatarien bila etorri naz, oihu egiten eban jendearen aurrean.

"Zeu bakarrik Santua, zeu bakarrik Jauna, zeu bakarrik Goigoikoa", esaten dogu kristauok Jesusen goratzarrez.

Gizatasunaren neurri betea Kristogan bakarrik aurkitzen dogu.

Horregaitik, bera dogu gizakion irakasle, eredu eta gidari. Bere antzeko izatean dago egiazko kristautasuna.

Guk ere Kristoren neurri hau geure-geurea egin behar dogu. Gure barruak Kristotu, ahal dogun neurrian. Maila horretara heltzen ez garan bitartean, ezin geintekez izan kristau osoak.

Ez hotz ez bero, beti herrenka ibiliko gara fede bidean.

Kristogaz maiteminduten garan neurrian hartuko ditugu benetan haren gurari eta asmoak, Kristok gure esku itzitako zeregin eta egitekoak. Orduantxe egingo gara ebanjelari. Orduantxe oihukatuko dogu ebanjelioa Jesusen agoz eta haren antzera. Guk ere geure Galilea aurkituko dogu.

Jesusek agirian, jendaurrean, predikatzen eban ebanjelioa. Isilean ere egindo eban, batez ere, bere egintza eredugarrien bidez, baina batez ere jendaurrean izaten zan; inguruan egozanak entzuteko eran oihukatzen eban bere Barriona.

Guk ere jendaurrean, ingurukoak entzuteko eran oihukatu eta iragarri behar dogu.

Argi eta garbi esan eta autortu edozeinen aurrean, Jaungoiko Aitak, bere grazia eta errukiaren doaitasunez, bere Seme Jesukristogan eskintzen deutseela salbamena gizon eta emakume guztiei.

Hau barik, gure ebanjelizatze lana erdi eginean geratuko litzake. Paulo deuna dator hemen gure aholkulari lez: "Zelan sinistu Haren entzuterik ez badabe? Zelan entzun, nok iragarri ez badago? Entzutetik dator sinistea".

Nik iragarri eta zuk entzun, eta entzuna zeurea egin. Holantxe zabaltzen da fedea. Bide hori egiten daki.

Baina, guk iragarten dogun ebanjelio horrek sinisgarritasuna behar dau, bestela hitz hiletan geldituko litzake.

Gure hitzen sinisgarritasuna, barriz, gure egiteen agoz dator.

Nor, nor dan bere egiteak esaten dabe.

Hau kontutan izanik, gure testiguntza onak holako indar kristautzaile bat daukala esango dogu.

Nik holako Jaungoiko zaletasun bete-bete bat dodala erakusten badot; nire egintzak Jesusen jarraitzalle batenak badira; neure bizibidean zuzen eta zintzo jokatzen ikusten banabe; osasun bakoak, bizitzak zigortuak, ez-eukian eta ezbeharrean sufritzen dagozanak nigan uste osoa badabe; nire bihotza, biderik bide, bizitzan zehar, zabalzabalik doala ikusten badabe; jatortasuna badario nire izenari, horrek iragarriko dau, zalantzarik gabe, nik ebanjelioa benetan hartu dodala, eta ni Jesusen antzeko nazala.

Ebanjelioa bizitza eginik eroan behar dogu, harri artean jausitako hazi galdua izan ez dadin.

Honetarako Jesus sakon eta ondotik ezagutzea eskatzen jaku. Hau barik ez dago giza osotasunera heltzerik.

Jesusen bihotzetik edan behar dogu ur garden hau; haren moldean gure bihotza hutsitu.

Eta Jesus ezagutu eta maitatzeko; gure gogo-bihotzak bere eskolan landu, moldatu eta apaintzeko, ebanjelioa erabili behar dogu sarri eskuetan. Gure eguneroko irakurgai egin. Bere barrunbe guztiak buruan eroan. Fede mamiaz janaritu, Kristoren neurria hartu arte.

"Mundu honetako antzik ez hartu", dirausku Paulo deunak.

Betegatxa dirudi gaurko jendearentzat Pauloren aholku hau. Gaur besteak egiten dabena eginaz konformatzen gara. Norberen sinisteak itzita, besteen esanetara dabil gaur egungo gizakia.

Oso nagi eta alper gara gauzak geurenez asmau eta egiteko. Aurreratuenak, zuhurrenak markatzen dabe gizakiaren nondik norakoa, eta gainetikoak itsuan bide horri jarraitzen deutsoe.

Horretara, zelanbaiten, artalde bihurtzen da gizakia; danok moltzoan gabiltzaz hara eta hona.

Baina ez da hau kristau jator baten jokabidea. Guri, munduaren aurrean, konformagatxak, sinesmen sakon eta egintza argiz jantzitako gizon eta emakumeak izatea dagokigu.

Munduan bizi gara, baina mundukoak izan gabe. "Gure bizia zeruan dago", dirausku Paulok.

Munduak geu azpian hartu beharrean, geuk hartu behar dogu azpian mundua. Hortik doa Jesusen irakatsia.

"Lurraren gatza zaree zuek... Munduaren argia zaree. Bego diztiz zuen argia gizonen aurrean, zuen egintza onak ikusi dagiezan, eta zeruetan dagoan Aita goratu dagien". Mt 5,13.

Munduaren menpeko barik, munduaren zuzendari eta gidari ikusi nahi gaitu Jesusek.

Gozo eta nasai, aukeran bizi dan gaurko gizarte honek, egiazko zoriontasuna kotxe eder bat eukitean, edo diru asko, edo jantzi apain eta dotoreak eukitean dagoala badirausku, Jesusek bertatik beste hau gogoratzen deusku: "Gorde zuen buruak diru-gosetatik: gainezka euki arren ere, norbere bizitza ez dago bere ondasunetan indartuta eta". Lk 12,15.

Zoriona lizunkeriaren atseginetan opatzen deuskuenean, Jesusen oharpena dator gure gain: "Emakumea lizunkeriz begiratzen dauan edonok, bere bihotzean andragaltzaile da". Mt. 5,28.

Giza eskubide eta baloreak zapalduta ikusi, zuzengabekeria eta gehikeria solte dabiltzala ikusi, eta gu horren aurrean isil, alper eta sorgor geratzen bagara, Jesusen gogorra hasarrez dator: "Zorionekoak zuzentasunagaitik aurrean erabiliak, zeruetako Erreinua eurena da eta". Mt. 5,10

Besteak baino hobeak garala eta ontasunean goiak hartu ditugula uste dogunean, Jesusek apaltasunera ekarriko gaitu: "Zerga batzaileak eta emagalduak zuek baino lehenago heltzen dira Jainkoaren Erreinura". Mt. 21.

Geure norberekeria, zikoizkeria eta ardura ezagaitik ezeukiak eta gosepetuak aldamenean bertan behera izten ditugunean, Jesusen salakuntza samin dator: "Honeetariko txikiren bati egin ez zeuntsena, neuri ere ez zeusten egin". Mt. 25,45

Gorrotoari ateak zabalduta arerioak ito nahian gabiltzanean, Jesusen gaitzezpena zorrotz datorkigu: "Maite egizuez zeuen arerioak, egizue otoi aurrean zarabilezanen alde". Mt. 5,44

Hona hemen Jesus berak margotutako gizaki ebanjeliotar baten irudia.

Honen arabera, ebanjelioaren bihotzean gizakia dago.

Dana da gizakiarentzat eta gizakiagaitik.

Gizon-emakumeak euren lotura guztietatik askatzea zan Jesusen helburu nagusia. Horretarakoxe etorri zan bera: "Galduta egoana salbatzera etorri naz", inoan Jesusek.

Gizakia bere huts, ahulkeria, txarkeria eta pekatuetatik askatu. Gizakia, barru eta kanpo, erabarritu. Jesusen antz-irudiko jarri mundu erdian.

Zertarako?

Gizakiak Jaungoikoaren asmo eta gurariak bereak eginaz, gizon-emakumeentzat mundu baketsu eta zoragarri bat jaso ahal zedin. Jesusek ebanjelioan margotutako munduaren antzeko bat egin gizon-emakumeentzat.

Jainko herria eraiki munduz mundu, zorionaren gozoa txastatzeko. Gauza bat ez dogu inoz ahaztu behar: gizakia, berak nahi edo nahiez, Jaungoikoaren seme edo alaba dala. Haren esan eta aginduetara beharturik dagoala. Jainkoari gurpena emoteko dala.

Beraz, Jaungoikoaren asmo eta erabagien eratara egin behar dau mundugintza hori, ebanjelioan aurkitzen diran oharpenak kontutan izanik.

Jesusek, barriz, sendi handi eta bakar baten antzera ikusten dau gizadia. Neba-arreba askoren etxea lez. Honen arabera, maite-maite diran etxetarren antzera jardun behar dau gizarteak ere. Maitasunean, senidetasunean, alkarren laguntzan eta ederrikusian bizi indarturik. Bihotz bat eta gogo bat, Jesusek nahi eban lez.

Eta sendi baten bizi-arnasea maitasuna dan ezkero, hortik dator Jesusen agindu barria ere: "Maite egizue alkar, nik maite izan zaituedan lez".

Maitasun gozo horretan urtuta bizi behar dau, ba, Jainko herriak.

Sendian seme-alaba guztiak eskubide bardinak gozatzen dituen lez, gizartean ere bardin. Ondasunetan ere parte bardina daroe.

Zuzentasunaren eta anaitasunaren arabera inguruma-ritzen da sendia maitasunean. Dana, danentzako.

Gizarte ereduzkoa ere oinarri honeetan zutundu eta lotzen da.

Maitasuna, zuzentasuna, bardintasuna eta senidetasuna ditu eutsigarri eta bizigiro.

Zuzentasunetik datorren bakea lortu behar dau gizadiak. Zuzentasuna da gizarte baratzean erne dan lorarik ederrena; bera barik gizartea eremu bihurtzen da.

Munduari sua emon, Kristok nahi eban lez, gizaki guztien bihotzetan maitasuna isuriz.

Ondasunak hobeto zatitu. Zeruko Aitak gizon-emakume guztientzat ipini dau lurreko mahaia; ez dau inor mahaitik jaurti.

Pertsonaren duintasuna eta eskubideak babestu; gazteen etorkizunari begiratu; anaien arteko solidaritza eta laguntza lortu.

Mundu hori oraindik egin barik dago. Urrun baino urrunago ikusten da, ilunabarrean lez.

Eta geu gara mundugintza horretara deituak; geuk egin behar dogu mundu ereduzko hori, geuk ezik beste inok ez dau egingo eta.

Badaukagu hor zeri ekin nahiko. Hor darraio mundu gaixo horrek gaitzondoa dariola.

Eta gu gara, baita ere, Jesusek mundu hori salbatzera bialdutako kristauak. Ebanjelioa gizon eta emakume guztiei oihukatzera bialduak. Horixe da gure beharkizun handia. Mundu hori gu noz helduko dago.

Baina, ebanjelioaren zabalkunde hori gaurko eratara egin behar dogu. Gaurko gizakia eta gizartea aurrean eukiaz.

Ezin geinkez gaur antxinako era zaharrak erabili. Gauza zaharrei begira gelditzea, gaurko trena galtzea litzake. Joanak, joanik dira. Gaur, gaurkoakaz aitu behar gara.

Ebanjelioa izatez bat bera da, aldaezina. Hortik, gure mezua ere zaharra da, antxinakoa. Baina, entzuleak dira barriak. Gaurko mundua da barria. Gaurko kultura, bizikera eta ohiturak dira barriak,

Kolore eta mota askotako gizakiak bizi gara lur zabalean eta gizaki guzti horrei ebanjelioa hotsegiteko agindua hartu dogu.

Baina, zelan?

Non dagoz mundu itxi horretara sartzeko bideak? Zeintzuk dira gure tresnak?

Gaurko gizarteak ba ete dauka ebanjelioa salbamena daroan barri ona lez hartzeko gaitasunik? Zelan entzunerazo, entzun nahi ez dauan gorrari?

Horra gure zailtasunak, gure kezkak.

Zailtasunak hemen iturri askotatik datoz. Lehenengoa eta gatxena, gizartetik bertatik.

Gizadia bere jabe eginik dago. Berak eginiko pentsaera eta irizpideak bakarrik onartzen ditu. Filosofia horretan sartuta bizi da. Erlijiotik eta Elizatik datorkion guztia dudazko lez begiratzen dau.

Fedetik alde bizi diran gizon eta emakume askorentzat kristautasunak ez dauko oinarri ziurrik. Ez dauko ezer barririk gizakiari eskeintzeko. Antxinako ipuin sorta zahar bat lez begiratzen dabe.

Aldi baten, elizan sartuta ibilitakoei ere ez deutse gaur gilbera andirik egiten; mila atxaki aurkitzen ditue euren Elizatik alde egina zuritzeko.

Gaurko gazteak ere ez dabe Jesus atxikitasun gartsuz hartzen.

Badira euren artean gogo beroz eta zintzoro jarraitzen deutsoenak, baina gehientsuenak ez dagoz grinatuta Jesusen irudiaz.

Ez dabe Jesus benetan hartzen, ez ebanjeliorik sakonetik ezagutzen.

Gazteen ames, lilura eta helburuak inok bete ahal izatekotan, barriz, zalantzarik gabe, hori ziur Jesusen pertsona da. Jesusek bakarrik jarri leikez ames garretan gazteen bihotzak. Ez dago bera lakoxe maisu eta gidaririk.

Baina, hemen ere Paulok diñoana betetzen da: zelan sinistu Haren entzuterik ez badabe? Zelan entzun, nok iragarri ez badeuke?

Elizaren agotik ez dabe entzuten, elizara ez datozalako; gurasoakandik ere ez, gaurko gurasoak horretan mutu dagozalako; maisu eta irakasleakandik ere ez, gure eskola eta unibertsitateetan ateismoa nagusitu dalako; gure komunikabideetan ere ez, batez beste, urrezko eta lurrezko idoloak aintzakotuz, zimaurra eta ustela dariola dagozalako.

Gazteak Jesusen pertsoneaz liluratzen diran egunean, mundua, lau alderdietatik, sutan jarriko dabenaren uste onean gagoz.

Inoz gaztedia Jesusegaz amestuteko gauza bagara, egun horretan mundua Kristoganatuko dogu.

Jesusen barri ona ez da gure mingainean hilten dan berba hutsa.

Ez. Barri ona guretzat goitiko ondasun eta mesedez beterik datorren albiste pozgarria da. Gure bizitza eta etorkizunari bizi-bizian ikutzen deutsan albiste ona.

Argia, beroa, zentzuna, norabidea damotsoz gure bizitzari; bide zuzenean jarten gaitu.

Ilunaldiak, ezbeharrak, nekeak, etsipenak, bakarraldiak sarri izango ditugu zuk eta nik bizitzaldian, baina orduan ere, gure tokirik barrukoenean, argitxo bat dirdirka biztuko da: itxaropenaren argia.

Argitxo horrek esan nahi dau ilunaren gainetik zeruko Aita daukagula begira, gure zain; Aitaren besoetan seguru gagozala beti.

Barriona poz-emoilea da eta pozez hartu behar dogu na. Zeruko Aitaren irudia dakarkigu aurrera. Zeruko gure Aita zelakoa dan iragarri.

Aitarik errukior eta maitekorrena jaku. Maitasun horren ezaugarriz beterik dator ebanjelioa.

Gure maitasunarren, bere seme Jesukristo gure artera bialdu eta, Haren kurutzeko heriotzaren bidez, gu pekatuetatik eta ondorengo guztietatik askatu, bere seme eta alaba egin, eta bere Jainkozko bizitzan parte emon deuskun Aita dogu. Amak bere erraietako semea/alaba baino maiteago gaituana.

Gure hemeko aldi hau amaitzean, Aita horren zoriona itxaroten dogu. Honen itxaropenean bizi gara behintzat.

Nok esan hau Barriona ez danik?

Jaungoikoak ona besterik ez dau nahi gizonarentzat. Hau argi jarri behar dogu gure irakatsietan; asko dira, ba, gaur Jaungoikoa gizakiaren arerio lez ikusten dabenak. Jaungoiko zorrotz eta zigortzaile lez.

Uste dabe guri askatasuna kentzeaz gainera, zorigaiztoko egiten gaituala bururaino lege gogorrez bete ondoren. Zabal dabil pentsakera hau.

Jesusen irakatsi batxo bat ere ez doa gizakiaren aurka. Argi ikusten da hau ebanjelioa orriz orri arakatzen dogunean.

Gizakiarentzat kaltegarri dana bakarrik debekatzen da han.

Bestalde, gizonaren jasokuntza, duintasuna, goratasuna, salbakuntza ditu helburu nagusi ebanjelioak.

Agindu bi datoz betegatx diranak: "Alkar maite egizue nik maite izan zaiduedan lez". Hauxe da lehenengoa. Hurkoa maitatzea kristauaren ezaugarri ezinbestekoa dala dakigu.

Bigarrena ere honen antzekoa da."Alkarren otseintzan bizi zaiteze". Jesusen jarraitzallea hurkoaren otseintzarako da. Beharrezko da kristau batentzat bizia besteen alde agortzea.

Agindu bi honeek betetzean dago kristautasunaren zailtasun guztia. Gatxa maitatzea, gatxa zerbitzea! Baina bai, eder eta pozgarria ere.

Hemen itaunak harian datoz.

Daitekena ete da alkarren maitasunik gabe bizitea? Nora joango litzake gizarte hau maitasuna kendutakoan? Nora helduko ete gintzakez?

Maitasunik gabeko munduaren egintzak, zoritxarrez, begi aurrean ditugu. Ez dira, zinez, onez txalotzekoak eta bai txarrez lotsatzekoak.

Alkar zerbitzea ere askorentzat ezinezkoa dirudi.

Norberaren nahiera eta kasketaldiak ukamendu eta besteen zerbitzuan luzaro egotea martiritza garratz bihurtzen jaku; gitxi dira horretarako gertu dagozanak. Gehientsuenok nahiago izaten dogu geuk geuretara bizi. Norberen doinura dantzan egin.

Gogor egiten jakuz, bai, Jesusen irakatsiak, geure buru eta gurarien ukapena eskatzen deuskue eta.

Honen erruz, inoz, Jesus gure arerio lez ikusten dogu;

gure zorionaren lapurra balitz lez. Hortik, Bera gorrotatzeraino heldu geintekez askotan.

Eta, gero, geure hasarreari urtenbideak egiteko, ebanjelioari estalki lodi bat botatzen deutsagu gainetik, Jesusen arpegia ez ikusteko. Jesusen aldetik iges egiten dogu. Bera gabe gelditu, gure bizitzan sartu ez dadin.

Baina hori itsuarena egitea da.

Hain zuzen ere, gizakia oso-osoan Jaungoikoarentzat eta hurkoarentzat egina da. Nahitaez, holantxe da. Alperrekoa litzake hemen ostikoka ibiltea.

Helburu hori baztertuta izten badozu, zeure kontzientzia, lehenago edo geroago, urduri eta kezkati, minez jarriko jatzu, hutsik eta errudun sentitzen dalako.

Gure kontzientzia egite onez bakarrik asetzen da; hutsik egoteak ondoeza eta larria dakarkioz. Minberatuta gelditzen da. Hortik datoz gero gure goibeheak, urduritasunak, gogo-minak. Barruko bakea; poza eta baretasuna galtzen ditugu.

Ostera, gizakiaren alde bizia agortzen diharduenak, zorion eguzkitan bizi dira hemen behean ere, bizitza goraino onez beteta ikusten dabelako.

Teresa deunak diñoana: "Zorionekoak bizitza Jainko eta gizakiaren zerbitzuan jarri dabenak".

Urrunduak etxera ekartea izango da gure lana.

Etxeko berora hartu eliz alkartetik aldendu diranak. Asko samar dira, azken urteotan zehar, kristau batzarretara etorteari itzita dagozanak.

Elizkizunetatik urrundu, igandeetako mezak itzi, alkarren arteko hartu-emon eta loturak hausi egin ditue.

Gure gazteak ere bide berberori daroe. Tamalgarria da

gure gazteon muxinkeria hau, batez ere, harrokerian loratuta datorrelako.

Erlijiorik eza heuren askatasunari ateratako garaipen bat lez hartzen dabe eta gerrako trofeoa balitz lez gorde.

Gehienak fededunak dirala esango deutsue, baina fedea ez dala besteei erakusten ibiltekoa; ez dagoala zetan ibili kristau batzarretan fedea egiztatzeko, ezkutuko siniskera dala eta.

Honako esaera batzukaz estali nahi dabe barruan josirik daroen fede mukertasuna. Elizkizun eta gainetiko fede agerpenak, Elizak asmautako zama higuingarriak dirala eta dagoz.

Baina honetan aituak diranak fedea ez dala bakarrean bizitekoa dirauskue. Bakarrean geure isileko fedea, bai, eroango dogu, baina bereztik, fedea taldean bizitekoa da, alkartasunean.

Fedea berotan zaintzeko eta loratzeko onena kristau alkartasun bateko batzarkide izatea da, beste fededunen laguntzaz eta babespean fedea gartsuago bizi ahal izateko. Hauxe da araubiderik onena. Holantxe osotzen dogu danon artean Kristoren Eliza misiolaria.

Eskakizun honi erantzuteko, gure alkarteak biziak eta zabalak izan behar dabe, bertara datozan guztiak euren etxean baizen pozik eta bertako aurkitu daitezen.

Sendi giro beroa sortu alkartean batzarkideak senditar sentitzeko. Anaitasunezko su handi bat egin bihotzakin.

Urrundu diranentzat ere ateak zabalik euki behar ditu eliz alkarteak, etxean lez aurkituez gainera, eurengan barriro etorteko gogoa ere zuzpertu daiten. Maitekiro hartu. Neba-arreben poztasunean besarkatu. Bihotz taupadea sentierazo. Alkar aurkitze hori une zoragarri bihurtu.

Urrundu diran horreek, sarritan, muker samar hartzen ditugu, datozanetan ere gogorik gabe, edota mesederen baten bila etorriko balira legez. Bateoren bat edo beste zerbaiten eske jatortzuz, baina ez alkartearen minez.

Eta gu honen aurrean zerbait garraztu egiten gara eta arpegiak salatu egiten gaitu. Hitz-jarioa urriago egiten jaku; gure begiak ez dabe dirdizik egiten; irribarrea ezpan gainean hilten jaku; ez ditugu parabola haretako aitak semea hartu eban antzera hartzen. Bihotzak motel dagi berba.

Baina, alkartera etorte horrek, nahiz eta guztiz garbia ez izan, bihotz horretan oraindik fede txinpartatxoren bat badagoala esan nahi dau.

Eta guk ez dogu inoz ere hiltamuan dagoan argitxo hori itzali behar. Huts gordina litzake gure aldetik.

Honako alkar aurkitzeak une egokiak izaten dira kristau lan on bat osotzeko.

Zergaitik ez euki alkarte barruan jende ondo ikasia, gertaua, doaiduna, urrindutako anai-arrebak datozenerako, pariseokeria barik, giza lege onez, harrera atsegintsua, ederrikusiz betea, eurai egiteko?

Urrunduak hurreratzeko abagune eder bat daukagu hor. Ardi galdua artaldera ekarteko ordua.

Eta horretarako gizonagana itzal handiz hurreratu behar da, tartean hormarik jaso gabe.

Kontzientzia zeharo errespetatuz; ezetariko ezarpenik gabe, ezarpenak ez dira gaur ondo ikusiak eta.

Egiaz burua irabazi gizonari eta, gero, buruak bihotza irabaziko deutso. Hauxe da gizakiarengana hurreratzeko era ebanjeliotarra.

Ebanjelioa iragartean, Kristoren mezua argi eta garbi,

ezer kendu eta ezer ezarri barik, osoan iragarri behar dogu, errez eta atseginez entzuteko eran.

Egokien dan eran azaldu ebanjelioa, gaurko aurrerapen eta tresna ugariakaz baliatuz. Gaurko hizkera erabiliaz.

Honetan Jesusen bideak urratu behar ditugu guk ere. Eta Jesusek egia, zuzenbidea, maitasuna, zerbitzua, ederrikusia, errukia, parkamena..., erabili zituan esku artean ebanjelioa ereiteko orduan.

Gure herriak ere Jesusen bide onetan ikusi gura gaitu.

Gure herriko seme-alabak fede handiko pertsonak izan dira. Lurbira osoan ezagutua izan da eukaldunaren jatortasuna eta balioa. Azken urteotan, baina, beste herri askoren antzera sekulartu egin jaku, abiada bizian.

Eta sekulartze honekin batera, fede-zana bigundu egin jako; ez dau lehen beste odol emoten.

Sekulartze hori ez da berez txarra.

Gure nortasunaren zati bat eskuratzea da. Adintasun heldura igotea.

Baina sekulartzeak ez deuko zetan fedeari ikuturik egin.

Ez ditugu gauzak nahastu behar. Biak alkarrekin ibiltekoak dira.

Fedea gizaki guztiei duan eskeintzen jaken opari eta doai goitarra da. Norberen guratan eskuratzen dan hazia.

Norberak hartu behar dau Jaunaren eskutik landara hori; norberak jorratu bihotz lurra; norberak lurrean sartu; norberak ura bota eta ongarritu; norberak zaindu eta sendotu norberen izerdi eta arduraz.

Ez dozu inoz doai hori galduko, zeuk galtzen izten ez badeutsazu. Geure esku eta ardurapean izten deusku

Jaunak altxor hori, azken egunean, bere ehunekoekin barriro eskatzeko.

Dana dala, erlijiotik urrundu dan jendetza hau zelanbaiten oraindik fededun autortzen da, nahiz eta sendotasun gitxi agertu fede bidean.

Bizitzako arlo guztiak Jainko gabe itxi dituan kultura bat zabaldu da munduan zehar, eta kultura honek gu eta guretarrak ere azpian hartu gaitu. Beste herriakaz bardinduta aurkitzen gara gaur.

Jainkoak ez deusku burukomin handirik emoten; dagoanik ere ez dogu itanduten; interes guztia galdu dau guretzat.

Eta Jainkoakin batera, betiko bizitza hori ere ukatu egiten dogu eta gure bizitza honen azkena heriotzan ipini.

Hortik, gure amesa munduko egunok ahalbait ondoen igarotean jarri dogu. Egunetik egunera hobeto bizi, bizitzak dituan atsegin ondoak agortu, lurreko ezkur artean, haragokorik gabe asetu.

Fedea zerbait hila balitz lez, antxinako zaharkeria lez hartzen da gaur.

Jainkoagan sinisten dabela diñoen askok ere, siniste hori zurrumurru baten antzera daroe.

Ez dabe Jaungoikoa Aita eta Salbatzaile lez ikusten. Begiz ikusi eta eskuz ikutzen ditugun gauzen ostean, inor egon ahal daitekenaren ezbaidan bizi dira. Dudape ilun horretan biribiltzen dabe bizimodua.

Elizatik ezkontzen dira, semeak bateatzera dakardez, jaunartzera ere bai eta hildakoei hiletak egin.

Hemen jokoan dabilena, egiazko fedea barik, ohiturakeria dirudi. Gauzak egin, zertarako egiten diran jakin barik.

Jainkoak zerikusi gitxi dauko jende horren portaeratan. Ez dabe etxeko. Buruz eta bihotzez mundutarren bideetatik dabiltzaz. Ebanjelioa sustraitu barik dago euren bihotzetan.

Gauza neketsua benetan gaurko gizon eta emakumeak fedean eskolatzea. Ahaleginak ahalegin egin arren, ezin ditugu fedean sustraitu.

Jesusen eskola baino, gizarteko bizigiroak eskeintzen deutsen diruz eta atseginez beteriko mahai oparoa nahiago dabe. Sasijainkoetan jarri ditue bihotzak.

Erlijio arduragabekeria hau ez da izaten, gehien baten, pentsaera edo erabagi baten ondorioa; batez ere gizarteko giroaren ondorioa baino.

Gizartean girotu eta heldutako frutua da. Gizakiak bertatik hartu eta jaten dau, zer dan jakin barik.

Baina hemen, Jesusek behinola tentatzaileari esandako hitzak gogoratu beharko ditugu: "Gizona ez dok ogi hutsez bizi, Jaungokoaren agotik urtendako edozein berbaz baino".

Gizakiak harriak ogi bihurtzea nahi dau. Gizonaren betiko tentaldia da hau. Horregaitik, Jesusen aldetik ere, beti erantzun bardina aurkitzen dau: "Eure Jaungoiko Jauna bakarrik gurtuko dok".

Gaur gizakiaren agotik ere, honako zerbait entzuten hasita gagoz.

Gaurko mundu honek, daroan martxa hau ikusita gero, gizakumea urduri eta kezkati galdezka hasi da: norantz garoaz gure aurrerapen guzti honek? Balio ete dabe munduaren hobekuntzarako? Lurreko ondasunak nahiko ete dira gure salbakuntza ekarteko ala beste haragoko zerbait dagokio gizakiari?

Jainkoa ukatzean, jakina, gizakia bere bizitzako misterioari erantzuteko arrazoi barik, argirik gabe gelditzen da.

Goitiko argi hori barik ez daki nondik datorren, ezta nora doanik ere. Behar-beharrezko dau munduaren argia izateko etorri dan Jesusen berba hutsezina: "Jainkoak bere Semea bialdu dausku gizon-emakumeoi, Haren bitartez mundua salbau dadin". Seme horren beharra dogu.

Gaurko gizakiak ez deutso bere buruari itanduten zein dan gure izatearen arrazoia, gure bizitzaren zentzuna, zertarako gagozan hemen. Nondik nora goazen.

Ba ete dagoan ezer heriotzaren ostean ala hilobi baten betiko usteltzeko etorri garan...

Honek dauko lehenengotasuna gure jakintzan. Gure zaharrak esaten ebena: hau dakianak dana daki, ez dakianak, barriz, ezer ez.

Nahiz eta hemeko gauzen bila guztiz itsututa ibili, nahiz eta gose-egarri hori inoz ez asetu, mundu guztia geureganatu arren ere, pilatu dogun guzti horrek ez dau gure barruaren sakona betetzen.

Ezaren minetan geratzen da gure gogoa. Betikotasunaren itxaropenak bakarrik bete leike gizakiaren bihotza.

Jainkoak eginak gara eta beragan atseden hartu arte, itxaropenaren eskeko izango gara beti.

Gizakiagan betikotasunaren itxaropena itotea lortzen badau mundu gaizto honek, egun horretan, gizakia hegoak ebagi deutsoezan arrano triste, penagarri bihurtuko da.

Aurrerapenaren lormenak burua galduerazota gabiltz.

Aurrerapenetik sortutako mundu zoragarri eta bete bat itxaroten izan dogu. Gure jakitunak holan opatu euskuen eta.

Mundu eder horrekin egin ditugu guk geure amesik onenak.

Zer jan eta zer jantzi oparoan sartuko zala gure etxeetara, esan euskuen jakintsu horreek. Lana eta zeregina

aukeran egongo zala danontzat, inortxo ere ez zala ikusiko bizileku duin bat bagarik, etenak eta hogenak, hau da, gaitzondo guztiak behingo baten uxatuta ikusiko genduzala lur gainetik..., baina, dana izan da guzur handi bat. Ez da promesa hori bete.

Zalantzarik gabe gauzak txarrera joan dira.

Hainbat arlotan hobekuntza handiak egin dira, baina, oraindik, ez ditugu betiko etsaiak urrundu: langabezia ez dogu garaitu, gosea eta mixeria ere ez; hor dira bazterreratuak, lurra jotakoak, aterpebakoak, bakartadea, norberekeria, desbardintasunak, gorrotoak, erailketak, eta abar. Paraisorik ez, behintzat.

Gaurko gizartearen gaixoa goibeltasuna dala diñoe, honetan aituak diranak. Barruko tristura, pozik eza. Honen susmoa errez somatzen da.

Gure doinu eta abestirik gehienak garratz mingotsa dakarde barruan. Nahigabeari ateratako aienak dirudie.

Gure eder-lanak ere etsimenean bustitako eskuz eginak dirala emoten dabe.

Nahiko da telebistaren orratzari eragitea, kanal guztiak morbokeriaz janaritu eta mamintzen dirala konturatzeko.

Jaungoikoagandik iges eginda dabilelako bizi da goibel gizakia. Zerura begiratzea ahaztu egin jako, horregaitik dabil egonarririk gabe.

Ahal danik eta gehien gozatu bizitza honetan, geroko bizitzari begiratu gabe.

Baina, halan da guztiz ere, badaki ezin dauala albora itzi gure barruan daroagun galderarik larriena: Zer izango da gugaz? Zein gure azkena?

Heriotzaren aurrean agertzen da gaurko gizakiaren bildurra.

Ez daki zer egin heriotzaren aurrean. Ez daki zelan erantzun.

Hortik datorkio bere goibeltasuna.

Ondo letorkio betiko bizitza iragarten daben berbak entzutea: "Neu naz biztuera eta bizitza; Nigan sinisten dauana, hilarren ere, bizi izango da".

Gaur, inoz baino biziago datorkigu Jesusen deadarra: "Garaia heldu da; Barri Ona oihukatu egizue".

Lurbira osora heldu da dei honen hotsa. Alde guztietan zutik dagoz kristau taldeak. Abade, erlijioso eta sekularrak, leial eta zintzo, lan gogor eta zail honi ekiteko prest dagoz.

Jaungoikoak ekarritako salbamena mundu guztiari iragarteko prest.

Gure kristau batzar eta parrokiak ere entzun dabe Jesusen deadar preminazko hau eta lehenengo tokia damotse euren pastoral lanak antolatzean. Helburu honen harira eratuten ditue parrokia-egintzak.

Honek geroago eta kezkatuago gagozala arazo honegaz esan nahi dau. Zorionez, bide horretan sartuta gagoz, nahiz eta lana bildurra emotekoa izan.

Zailtasun honen arabera, gure portaerak ere zerbait desbardinak izaten dira lanari heltzeko orduan.

Batzuek, gaurko gizartean zurgatzen dan bizigiro garratzak larrituta, joandako aldien amesean bizi dira, aldi hareek ebanjelioa predikatzeko errazagoak eta samurragoak ziralakoan .

Beste batzuk, barriz, gaurko mundu hau fedearen aurrean hain urrun eta hotz, arduragabe eta kontra ikusi-

rik, kezka eta zalantzetan urduritata dabiltzaz, aurrera ezin eginean. Berezkoa da goibeltasun hau, buruhauste latzeko arazoa da eta.

Ez daukagu ohiturarik, ez dakigu zelan iragarri Jesusen berba hori. Ez gagoz horretarako eskolatuta.

Gaurko fede eza geldituezina dala eta, Eliza desagertuko ete danaren bildurrez ere baditugu zenbaitzuk.

Beste batzuk gaurko bideetatik hondamendi baterantz goazela eta, ez dabe ezetariko aldakuntzarik egin nahi.

Eliza zaharraren babesean pozago aurkitzen dira.

Honezkero gure jokabideak argitu eta bateratzeko garaia dogu. Ezin geintekez beti haizeari ostikoka ibili.

Batasunak indarra dakar eta indar hori bilatu behar dogu. Ez gaitu zailtasunak gogobeheratu behar.

Jaungoikoaren grazia eta maitasuna doaz gure aurretik ebanjelioari bideak eginez. Hor dago oihuka Jesusen eskeintza: "Ez bildurrik izan. Zuek munduaren argi eta lurraren gatz zaree. Zuekaz egongo naz azken azkenerarte".

Joan Paulo II.ak ere preminazko dei hau egin deusku: "Jainkoaren ordua dozue oraingo hau, hutsegiten ez dauan ordua. Zuen eliz alkarteen barruko bizitza erabarritzeko ordua da. Zuen gizarte inguruan ekintza pastoral eta ebanjelizatzaileari adoretsu ekiteko ordua".

Honetarako, lehenengo eta behin, gure kristau batzarrak, alkarteak ebanjelizatu behar ditugu.

Gure aurretikoak euren elizetan hartzen eben Jesusen barri ona.

Banakak ezik, herri osoa, txiki eta handi, etorten zan, zintzo-zintzo, elizkizunetara. Altarako mahaitik hartzen eban herriak Jesusen maitasuna, adiskidetasuna eta beroa.

Inoz entzun dot gure herriaren erlijiotasuna ohiturazkoa zala. Neuk, behintzat, ez dot onartzen eritxi hori. Azala baino zerbait gehitxoago eukan kristautasun hareek. Erreskadan aurkitzen ziran gure etxe eta herrietan gure mendietako tantai sendoak lakoxe fede sendoko gizon eta emakumeak.

Bakotxari berea. Egi honen sinisgarri hor dagoz, urteetan zehar, gure herriak emon dituan hainbeste eta hainbeste abade, erlijioso eta misiolari.

Gaur banakak gelditzen badira ere, munduz mundu ibili dira euskal misiolariak eten bako bideetatik. Eta bokazioak eta misiolariak ez dira berez ernetzen ezta eremuetan jaioten.

Dana dala, gure herri hau ere, besteak beste, gaur misio-lur bihurtuta dago. Tamalgarria da hau esatea, baina egia hortik doa.

Beraz, Barrionaren beharrean dago, barriro kristautu behar dogu.

Hauxe da, gaur eta hemen, euskal Elizaren lehenengo egitekoa, beste arazo guztien aurretik dagoana.

Horretarako dira gure elizak, ebanjelioa hotsegiteko. Ebanjelioa iragarten ez badau, Elizak ez dau bere egitekoa betetzen. Igartu dan zugatza izango da.

Honez gainera, kristau bakotxa dago ebanjelioa iragartera behartuta. Horretarako dira kristauak eta kristau alkarteak. Guztioi dirausku Jesusek: "Zoaze!"

Duan hartu dogun fedearen doaia, oihukatu ere hutsean egin behar dogu.

Ez danok era batera, hori ezinezkoa da eta. Bakotxak bere eratara, bere tokitik, bere bizibidetik, ahaleginak ahalegin eginaz, baina gure eginbeharra bazterrean ahaztuta itzi gabe.

Badira, horraitio, kristau zintzo eta elizkoi diranak, euren kristautasuna leialtasun osoz daroenak, baina besteen aurrean mutu gelditzen diranak ebanjelioa oihukatzeko ordua heldutakoan.

Hona litzakigu gogoratzea Jesusek bere testigu eta bere Erreinuaren argi eta legamin izateko bialdu gaituala.

Pastoral honen kontzientzia nahitaez esnatu eta zuzpertu behar dogu kristau guztien bihotzetan. Honen kontzientzia zehatza hartu, Jesusi leialtasun osoa gorde nahi izatekotan.

Badakigu hau oso gatxa dana. Baina honetan agertuko dogu gure jatortasuna.

Gogotsu heldu ekintza honi, Jaungoikoak holan nahi daualako, batez ere guk Kristoren ondotxoan gabiltzanok.

Ez dakigu zein izango dan euskal Elizaren etorkizuna, hemetik urte gitxira.

Gaurko martxan jarraitzekotan, hamar edo hogei urte barru abade barik aurkituko da. Gitxi batzuek bakarrik eukiko ditugu elizbarruti guztiari begiratzeko.

Ez da egongo artaldea nok zaindu, ez ebanjelioa nok irakatsi.

Kanpotik ere ez jaku laguntzarik etorriko, gure hizkuntza menperatzeko abaderik ez dalako egongo, ezta herriak euskerarik ez dakienik onartu.

Artaldea artzainik gabe, zakabanatuta aurkitu leiteke. Eta hau astunetan astunena litzake gure herriarentzat.

Zer egin arazo larri honen aurrean? Nondik aurkitu irtenbidea? Zeri bota eskua? Nok jakin!

Neguko gaberdi ilunak argiontzi barik ez ustean hartu gaitu.

Ez deutsagu etorkizunari aurrerik hartu. Edo ezinak,

edota aurreko ilunaren zarratuak menperatu gaitu. Etxea sutan ikusi eta ezer egin ezin.

Hemen behinola ikasleak, itsas hasarratuan galtzeko zorian egozala, Jesusi eginiko eskaria egin beharko deutsagu guk ere: "Jauna, salbatu gagizuz, galduak gara eta!" -Eta Jesusek: "Zeren bildur zaree, siniste hotzeko gizonok?"

Azken-azkenerarte, geugaz egongo zala opatu euskun Jesusek.

Itxaron daigun, ba, Beragan. Bera etorriko da gure ilunak argitzera.

Jesusen eraginaz batera, Eliza jarri beharko da aurrelari arazo garrantzitsu honetan. Bere zereginetako bat da.

Baina beste guztiok ere behartuta gagoz. Arduradun gara gu ere.

Kontuz arrisku honegaz.

Zuk eta nik uste geinke arazo eta eginbehar honeek ez dirala gureak, guk ez daukagula zerikusirik hemen. Egia da aitzindaritza goiko Elizarena dana, baina gure tartekotasunaz

Zeruan barik lurrean bizi garala gogoratu behar dogu lehenengo.

Kristo zerutik lurrera gizakia eta mundua erabat jasotzera, ondutera, garbitzera, salbatzera etorri zan lez, guk ere Jaungoikoa lagun dogula, mundu horretara jatsi eta mundu hori jasotzen, onduten, zuzentzen eta salbatzen ahalegindu behar dugu.

Mundua geurea dogu, beragaz lotuta gagoz eta. Geuk egin behar dogu Jaungoikoak gura dauan mundu barri hori.

Eta hementxe huts egiten dogu kristau askok.

Geureagaz bakarrik arduratzen gara, besteena sasipean itzita. Bakotxa geure bidetik goaz. Eta Jaungoikoak ez gaitu horrela, bakarrean, banakan ikusi gura... Senitartean, alkartasunean, Jainko Herri lez, danok bat eginik ikusi gura gaitu.

Alkarte eta herri lez jarri gaitu mundugintzan eta elizagintzan.

Norberen mundu txiki eta itxitik urten eta mundu zelaira jatsi behar dogu munduko gauza guztiak bakotxa bere tokian eta bide zuzenean jarteko.

Mundugintza hori Jaungoikoaren asmo eta gurariak gidari eta goiburu dirala egin behar dogu.

Baina, ez gaurko hau moduko mundu lohi, gogor, zuzengabe, nahastu eta basatia egiteko, mundu garbi, zuzen, baketsu eta ebanjeliotarra sortzeko baino.

Elizakin ditugun eginbeharrean ere oso itziak eta ardurabakoak gara kristau asko.

Eliza ez da askorentzat meza entzun, bateatu, ezkondu eta hiletak egiten diran toki bat besterik.

Ez dabe ikasi, oraindiño, eliztar guztiok sendi bat, alkarte bat egiten dogunik ezta eliz sendiko eginbehar eta ardurakizunak, neurri bardinean, guztionak, Jainko herri osoarenak direnik.

Hortik ez dira sartzen eliz arazo eta bizitzan. Oso bakartiak dira. Eta guztion neke, lan eta izerdirik gabe, alkartasun orokor bat bagarik, ez dago gaur elizagintzarik.

Horretara, bere haizetara bananduta dabilen artalde bat izango gara. Artalde banatua. Eta artalde hori ez da ebanjeliotarra, Kristok nahi dauana.

Bide horretatik, ez dogu herri-eliza gazte eta jatorrik eukiko.

Arazo handi bat bideratzen jakunean, herritar guztiok

bat egiten dogu larritzen gaituan buru-hauste horri erantzun egokia emoteko.

Aberriaren askatasuna arriskuan badago, edota hizkuntzaren geroa hilzorian, eta guk horren kontzientzia hartzen dogu eta danok bat eginik goaz aberria eta hizkuntzaren alde.

Zutik jarten da erri osoa bihotzean, maite minez daroana aldezteko.

Eta, zergaitik hori? -Ba, herri batentzat goi mailako baloreak diralako. Horregaitik ez dau nahi ez galtzerik, ez inok lapurtzerik. Beste horrenbeste esango dogu herriaren erlijiotasunari buruz. Erlijiotasunak giza baloreen artean goiburutasuna daroa.

Munduaren bizitza guztian zehar jazo dan gertakizunik handiena Jaungoiko Semearen gizakundea izan da. Jesus gizon egin zanekoa.

Jesusek ekarri deutsoz gizakiari salbamena eta duintasuna. Jainko seme zein alaba izatera jaso dau. Zeruko Aitaren etxea erosi deutso bere odolaren trukez. Horra nor dan gizakia, Jesusi esker.

Ezin dau, beraz, gizakiak goitiko aberastasun hori ezetsi, ez saldu. Erlijiotasunean daukoz, azken baten, bere nortasunaren gailur eta jatorrizko oinarriak.

Jainkozko ondare horri uko egitea balitz, bere aulkitik jausita aurkituko litzake.

Hortik, erlijiotasunak gizakiaren bizitzarako daukan balore ezinbestekoa gogotan izanik, geure etxe, aita-amak edo hizkuntza maitatu eta defenditzen ditugun ardura eta grina berberaz, aldeztu behar genduke erlijiotasuna ere.

Gure herri zahar honen taupadak ezagutu nahian gabiltzaz, gure jatorriaren aztarnak jakin guran.

Honen lehiara, leza zuloak eta arakatzen dihardugu gure asaba zaharren hazur, arrasto eta bizi-agirien bila.

Gure ekandu, ohitura, ipuin, erti-lan eta kulturaren zokoguneak jorratzen gure kondaira zaharraren barrunbeak hor dagozalako zakabanaturik. Gure oinarriak bilatu, asaba zaharren gomutaz.

Holakoxe grina bizia jarri behar genduke erlijiotasunean ere.

Ezin geinke memelkeriaz zaramara bota gizaldirik gizaldi gure herriaren biziarnasa izan dan altxor hori. Eguzkiaren argi barik itziko genduke herria.

Baina, zoritxarrez, ez doaz hortik gaurko euskaldunaren pentsaera eta zaletasunak.

Jausita dakusgu gure arteko erlijiotasuna; gizartearen oneretxia galdu dau.

Eta hortxe legoke arriskurik handiena. Zauri horretatik odolustu daiteke erlijiotasunaren zana. Eta, jakina, fedearen heriotza honek baltzez jantzita itziko leuke euskal lurra.

Zelan urrundu arrisku hau? Besterik ezean, kristau jatorren ahaleginez.

Oraindik legamin izateko gauza diran kristau asko ditugu gure artean. Jesusek burututako lanari oso-osoan emonak. Kristau bizitza benetan hartutakoak. Jesusen asmoai jarraipena emoteko prest dagozanak.

Gogo oneko kristauok gertau beharko ditugu ebanjelioaren ereintzarako. Sekularren eskuetan itzi parrokia lanak.

Geratzen jakuzan talde txikiok ondo eskolatu, herritarren artean ebanjelizatze lana duintasunez eta trebetasunez bete ahal izan dagien.

Eliz zereginetan, neurriz gora hazi eta hezitako kristauak bideratu.

Zelan edo halan aurkitu beharko ditugu kristau honeek, eta, zelan edo halan, gertau eta maisutu bai Hitzaren eskolan, bai katekesian, bai liturjian eta abar. Sekularren esku itzi, batez beste, gaur arteraino, elizgizonen esku egon diran zereginak.

Horra hor gaurko Elizak bere etorkizunaren aurrean daukan arazorik premiazkoena. Honi ekin beharko deutso buru eta belarri, mugaraino heldu arte.

Horretarako, kontzilioaren gogoari erantzunez, eliz artzaingoak abegiz eta itzalez onartu eta arnasatu behar ditu eliztarren lanak.

Atseginez entzun euren aholku zentzuzkoak, euren gain leporatu Elizaren zerbitzurako diran zereginak, lanerako askatasuna eta barnegunea emon, baita eliz lanetara beraien kabuz sartzeko gogoa bizkortu eta bultzatu.

Jaunaren aurrean arretaz hartu begiez eliztarren ekinbide, eskakizun eta proposamenak. Aintzakotzat hartu eliztar bakotxak pastoral ekintzetarako daukan eskubide ukaezina.

Guztiz onuragarritzat jo artzain eta eliztarren arteko hartu-emonak, horretara eliztarrak pozago hartzen ditue euren kontura elizako zereginak eta.

Batasun honi esker, Elizak laguntza beteagoa izango dau bere eginkizunak oparo burutzeko. Hortik, alkarren arteko batasuna eta lankidetasuna sortuko dira.

Hari honetatik doa kontzilioaren irakatsia. Eliztar guztien oinarrizko batasuna eta bardintasuna ditu ikusmugan kontzilioak.

Jaunaren herri hautatua bat bera da.

"Jauna bat bakarra da, bat sinismena, bat bateoa; bat da guztion Jaungoiko eta Aita, guztien gainean dagoana, guztien bidez diharduana eta guztiakan bizi dana". Ef.4,5

Jesusen berrerosteari esker, atalkide guztientzat duintasun berbera, guztientzat seme-alabatzako grazia, danontzako santutasunerako deia, salbamen bakarra, itxaropen eta maitasun berean.

Jesus eta Elizaren aurrean ez dago ezelango desbardintasunik jaiotzaren edota endaren erruz, herri maila edo sexu aldetik,

"Orain ez dago judarrik ez gerkarrik, ez dago jopurik ez askatua danik, ez dago gizonezkorik ez andrazkorik, Kristogan guztiok bat zaree eta". Gal. 3,28.

Elizan atalkide guztiak bide bakarretik ez doazen arren, guztiak dagoz santutasunera deituak; guztiak fede bardina lortu dabe Jesukristo gure Salbatzailearen bidez, Pedro apostoluak dirauskun lez.

"Zuek, ba, Kristoren gorputz zaree, eta zuetariko bakotxa Haren atal bat".

Gu guztiok Espiritu bat bakarraz izan gara bateatuak, Kristoren gorputz bakar hori egiteko. Hortik dator gure egitekoaren premiatasuna: Kristoren gorputz hori eraiki, jaso mundu erdian.

Honetarako guretariko bakotxari geure doaiak emoten deuskuz Espiritu Santuak.

"Graziak, barriz, askotarikoak dira... Eta bakotxari Espiritu santuak irakasten deutsana, guztien onerako da. Espiritu horren bidez, batari jakituria hitza emoten jako; besteari, irakasteko berba jakintsua; horkoari, sinismena; hangoari, gaixoak osatzeko grazia; hurrengoari, mirariak egiteko indarra; honi, igartekoa; hari, edozein barrujokera aztertzekoa... Egiteko guztiok, barriz, Espiritu berberak egiten ditu, bakotxari Berak nahi dauanez banaturik".

Baina Jaungoikoak gorputzean atal bakotxa Berak nahi dauanez jarri dau. "Guztiak atal bat balitzaz, non

legoke gorputza? Atalak asko dira, baina gorputz bat bakarra" 1 Kor.l2

Artzainak eta elizkideak Eliza horren egile eta eraikitzaileak dira. Helburu hori dabe ames.

Baina horretarako bakarkeriak alde batera itzita, bakotxa bere bidetik bagarik, alkartasun minean, artekotasun estuan jokatu behar dabe bitzuak.

Bakarkeria hondamena da, batasuna, ostera, indarra.

Elizan ez dago jaubetzarik, jabe bakarra Jesus bera da, beste guztiok zerbitzariak baino ez gara.

Otseintzarako gagoz Elizan; horregaitik esaten dogu agintea zerbitzea dala.

Baina otseintzak ere bere arauak ditu: ez da egin behar nausikeriaz, ez nahikeriaz, ez arrandikeriaz, maitez, gogo beroz eta apaltasunez baino.

Jauntxokeriak, datorren aldetik datorrela, entzute txarra dau gaur. Elizatik nahiz gizartetik jaurti beharrezko mamua da.

Honako ekandu txarrik ikusi balegie elizkideak eliz arduradunekan, bertatik iges egingo leukee eliz zereginetatik. Ez dau inok jauntxo baten azpian egoterik nahi.

Bardintasun zabal baten arabera egin behar da eliz jokoa. Gogo eta bihotz baten alkarturik, Jesusek nahi dauan lez.

Elizak, egunetik egunera, elizkideen beharrizan handiagoa izango dau. Honeen esku geratuko da toki askotan. Horregaitik, ardurakizunaz batera, gauzak beraien kabuz ebatziteko ahalmena ere emon beharko deutse elizkideei.

Euren eskubideak ugariagotu, pastoralgintzarako beharrezko diran erabide eta tresnak eskuratuz.

Ondo hornidu langilea, bere izerdia lur gogorrean jausi ez dadin.

Jatortasuna izan dedila gure jantzia, gure indarburua, mundu erdira jatsitean. Kristau odola zanetan bero, fedea dizdiz eta gizadiagazko maitasuna borborrean bihotzean, holantxe ikusi gura ditu Kristok bere mahastiko langileak.

Bere Erreinuaren minak gaixotuta bihotzak; lana benetan hartzen dakienak.

Jesusen antxina-antxinako asmoa da mundu honetan bere "Erreinu" hori jaso eta zabaldurik ikustea. Agotik kendu barik darabil Jesusek hitz hori. Ehunetik gora agertzen da ebanjelioan: "Jaso nire Erreinua... Zabaldu nire Erreinua... Iragarri nire Erreinua".

Jaungoikoak bere bihotzean eta bere barru-barruko bizitzan daukan alkar maitasunezko bizitza hori gizartean ere gizon eta emakumeen bizitza eginik ikusi gura dau.

Horretarako etorri zan Kristo mundu honetara. Bera Jaungoikoaren Seme dan lez, gu guztiok ere bere antzera, Jaungoikoaren seme-alaba izatea nahi dau.

Eta Bera senide zaharrena dan lez, Bera lez, gu guztiok ere alkarrenganako maitasunean bizitea nahi dau. Egiazko anaitasuna izan dedila gugan.

Gizon bakotxa, persona bakotxa Jaungoikozko semetasun edo alabatasun horren jabe izanik, danok munduan anaitasunean bizitea nahi dau Jesusek.

Hauxe da bere Erreinuaren oinarrietariko bat. Beraz, holako mundu eder bat egin behar dogu guztion artean, erakunde eta gainetiko gauza guztiak horretara zuzenduaz.

Oinarrietatik hasita, etxe barria egin, zuzenagoa, garbiagoa, anaikorragoa, gizatiagoa.

Badakigu mundua beste bide batzuetatik doana.

Munduko erakunde, egitura eta gainetiko gauza asko ez dagozala Jainkoaren asmo eta gurarien arauz antolatuta, eratuta. Jaungoikoaren Erreinu hau jasotea guztiz gatxa dala gaurko munduan.

Baina, horretarako deituak izan gara gu; horretarako emon deuskuz bere argitasunak; horretarako eskeini bere laguntza: "Zuekaz egongo naz munduaren azkenerarte"

Kristo barriro gure bila etorri daiten artean, zeregin horreri ekin beharko deutsagu, jakinik mundugintza hori ez dogula zehatz amaituko mundu hau mundu dan arte.

Guztiz osoturik, amaiturik, ederturik Kristoren etorrerako egunean ikusiko dogu. Artean eginean egongo da beti.

Gizadia ere ez dogu guztiz onbideratuko. Gizona makala, kaskarroa da eta bera dabilen tokian beti agertuko da hutsa, akatsa, okerra, pekatua...

Azken baten, Jesusen odolaz garbituak izango gara guztiok. Baina Jesus etorri daiten arte, bere mahastiko langintzan saiatuko gara gu. Bere gomutaz egongo gara mahastiaren zain: bera izango da gure maisu.

Gaurko mundu zelaira begira jarten bagara, lehenengo ikusten doguna hauxe da: Gizarte honek otso burruka baten antza dauala.

Gerrak hemen, gerrak han. Gerra hotsa isildu bagarik dabil munduan.

Gizadi osoa ehun handikiren oinpean dago.

Gizon arteko gogorkeriak, burrukak, gorrotoak, espetxeak eta torturak; gizakiari pertsonatasuna kentzeak, erruki bako zigor eta erailketak..., eguneroko ogi ditugu munduko lau hegaletan. Hirutik bi, munduan, gose gorrian bizi dira, txirotasun hutsean biluzik.

Zuri eta baltzen arteko burrukak. Aberats eta txiroen arteko alde lotsagarriak; batzuek larregi eta besteak ezer ez.

Herri askotan, emakumea ez da oraindik emakume; oso-osoan gizonaren menpe dago, bere giza mailara heldu gabe.

Honako beste mila eta mila arazo ditugu gainezka mundu gaixo honetan.

Ikusten dogun lez, gizarte hau Jainkoaren asmoetatik urrun baino urrun dabil. Jaungoikoa bihurpen baten zain daukagu. Bihurpen bat bere asmobideetara. Jaungoikoak ez dau nahi holako mundu gaizto eta zitalik. Mundu garbi eta zuzenago bat nahi dau. Eta mundu barri hori egiteko geu hartu gaitu laguntzaile. Gure laguntza barik ez dau mundu barri hori aurrera eroango.

GIZARTE BARRIA

Gizarte barri baten amesean bizi gara danok.

Maitasunean eta anaitasunean biziko dan sendi baten itxaropenean. Jesusek amestutako sendi bakar hori da gure amesa ere.

Jesusek sendi handi bakar hori egiteko, aurretiaz, bihotzen aldakuntza bat eskatzen deusku. Eta hemen dator jende askoren itauna:

-Daitekena ete da bihotzen aldakuntza hau gaur agintari daukagun mundu harro honetan? Aldatzekoa ete da gizarte hau? Ba ete deuko gaitasunik horretarako? Zelan egin, beraz, Jesusek eskatzen dauan gizarte aldakuntza hori? Zelan egin gizarte barri hori? Horretarako gauza izango ete gara?

Hona emen gure arazoa; gure egiteko latza.

Gaur bat baino gehiago dira Jesusen asmo eta gurari honeek beteezinak dirala diñoenak. Txiki gelditzen dirala horretarako Jesusen irakatsiak. Ezinezkoa dala daukagun gizarte zapaltzaile hau onbideratzea.

Zapalduta, baztertuta dagoana nekez aldatuko da zapalduta diraun bitartean; zapaltzaileak ere, jakina, ez dira aldatuko euren gaiztakerian gogortuta jarraitzen daben artean.

Lurreko ondasunak hobeto, zuzenago, egokiago

zatitzen ez diran bitartean, ez dago gizartea onera aldatzekorik.

Hortik urratu behar dogu bidea, zerbait onik atera nahi izatekotan. Bestela alperreko lanetan gabiltzaz. Hori ez da lortzen aldara aurrean erreguka egonaz.

Gaur, lehenengo, ogia, etxea, lana, jantzia, ondasunak behar ditugu gizakiak lez biziteko, eta gero gerokoak.

Eta hau lortzeko etenik gabeko aldakuntza eta hobekuntzak egin behar ditu gizarteak. Eta horixe ez dau egin nahi gizarte honek. Orainarte lortu diran hobekuntzak, gehienak beintzat, danak ez esatearren, iraultza gogorren bidez lortuak izan dira.

Borroka, iraultza, odola eskatu ditu ordez, otso eta bildotsez osotutako gizarte doilor, nahastu eta basatia dalako.

Ez da erraza korapilo hau askatzea; bihurgune asko ditu, zehar eta goibehe nahastuak.

Jesus ez zan politikari iraultzaile bat izan; horretan ziur gagoz. Ez eban herrian matxinada eta zalapartarik jarri, nahiz eta juduak horregaitik kurutzera bialdu.

Ez eban zuzenean ezelako politikarik egin. Ez zan inoz arlo horretara sartu. Ez eban inoz borrokarako adarrik jo. Ez zan bere txiro, behartsu, ezeuki eta zapalduak hartuta, etsaien gazteluak erretzera joan.

Bera goragoko bideetatik ebilen: Jainko gauzetan! Erlijio barruan sartzen zan bere egitekoa.

Jaungoikoa gizon-emakumeei ezagutzen emotea, salbamenaren barria iragartea izan zan bere helburu nagusia. Giza mailatik goragoko mezua zan, beraz.

Bere Barrionaren mezu goitar hori nahi eban Jesusek

mundu barri horren oinarritzat; gizarte barri horren argi, gatz eta legamin. Mundu barri horren hazia ekarren barruan mezu horrek.

Baina mundu barri hori ez eban lortuko Jesusek armak pilatuz, gudarosteak munduan zehar bialduz. Ez zan gerralaria.

Jesusek ez eban ezer indarpean agintzen. Hartu nahi badozu, hartu; ez baderitxazu itzi. Askatasun osoa dozu bata nahiz bestea egiteko. Hemen ez da inor behartzen.

Zelan lortuko dau, beraz, mundu aldatze hori, gizarte barri hori?

Herriak igarletzat eukan Jesus. Entzuleen agoan ebilan autor hau: "Jauna, ikusten dot profeta zarana" dirautso emakume samaritarrak.

"Profeta handi bat agertu da gure artean, eta Jaungoikoak bere herriari ikustaldia egin deutso", esaten eban laguntaldeak Naingo urian ama alargunari hilik egoan seme bakarra bizirik emon eutsanean. "Hauxe da egitan mundura etorteko dan profeta".

Orain ikusi daigun zer zan igarle bat Jesusen eguneta-ko jendearentzat. Gizon aintzakotua, itzalgarria zan; Jaungoikoak herriari bialdutako gizona. Zertarako?

Jaungoikoagandik urrundu dan herria barriro Jaungoikoaren bideetara ekarri, eta herrian egiten diran gaiztakeriak eta zuzengabekeriak salatzera bialdua izan dan Jaungoikozko gizona da.

Zeregin bikoitz hau zan igarlearen egitekoa: Jaungoikoagazko sinisgabekeria, maltzurkeria herriaren aurrean jarri eta herritarrakin egiten ziran txarkeriak salatu.

Batez ere, nausikeriaz eta ankerkeriaz herri apala trinkatu eta zapaltzen eben aundikien salakuntza zorrotz eta garratza egin.

Herri apala azpian erabiltea, idoloak gurtzea besteko pekatua zan, profeten agoan.

Lapurretak, kalteak, kobru txarrak egiten zituen gizon eta emakumeak epai larrian sartzen ditu Idazti Deunak.

Salmoetan, esaterako, zigor latza hartzen dabe gizon eta emakume makur eta donge honeek.

"Jaunak errugabea eta erruduna arakatu egiten ditu, eta gorroto deutso indarkeria "maite deuanari" (Sal 11,5). Herritar apal batek eskerrak agertzen deutsoz Jainkoari: "nire arerioakandik onik atera, eraso egileakandik jaso eta bihotz gogorrakandik onik atara nindualako" (Sal 18,49).

"Zaindu egizue baztartua eta umezurtza; zuzen egizue auzia apalari eta behartsuari; egin txiroaren eta eskekoaren alde, errudunaren eskutik hareek askaturik" (Sal 82,3-4).

"Guzurra esaten deutsoe euren lagun hurkoari; ezpan makurrez egiten dabe berba, eta bihotz bikoitzez" (Sal 12,3). "Guzurtiak hondatu egiten dozuz; gizon odolzale eta ustela Jaunak higuindu egiten dau" (Sal 5,7).

Beste honako esaldi asko batu geinkez Idazti Deunean.

Guzti honeek Jesusek hitz gaizto batez bateatzen ditu: "alde nigandik gaizkileok" (Mt 7,23).

Ezagutzen dogunetik, Jesusen egunetako mundua ez zan gaurko hau baino hobea izan. Han ere gauzak atzekoz aurrera eta hankaz gora ebizan. Zuzentasuna oinpeko hautsa lez zapaltzen zan orduan ere; izenez bakarrik ezagutzen zan. Mailatan zatituta egozan gizonak, gaurkoen antzera.

Alde batetik, herriko jauntxoak, agintedunak, aberatsak, handikiak, omenduak, goratuak. Herria zerga astunez murritzen eben zergalari lapurrak, odolzaleak, atrakalariak, gaizkinak... herriak gorrotoz begiratutakoak.

Era guztietakoak egozan orduan ere. Baina, ez zan Jesus, zuzen-zuzenean, eurekaz sartu bere hitzaldietan.

Ez eban demogogiarik egin horren harira. Ez zituan zartailupean erabili. Munduko arazoak mundutarren esku itzi zituan.

Erlijiotasunaren barren eta inguruan biribildu eban bere irakatsia, mezua.

Eguzkiak lurbira osoa berotu eta argitzen dauan lez eta euriak, jausiaz-jausiaz lurra bustintzen, Jesusen irakatsi eta mezuak ere gizarteko barrunbe eta inguru guztiak bizigaiz, muinez, indarrez loretuta, jantzita itziko zituan.

Irakatsien aurretik, bizitza jarri euskun Jesusek. Bizitzatik hasita irakatsi euskun. Horregaitik, bere bizitza da, era batera, eredu, ikasbide eta jarraibide guretzat.

Bere bizitzatik hara, eguzkiak lez bialduko ditu bere argi izpiak gizadiaren gainera, gizarteko bizitzaldia zelan egin eta zelan eroan erakutsiz.

Egite on bat mila hitz eder baino jakintsuago da. Berbaz urria, baina egitez luzea, horixe da gizakume zuhurraren araua. Jesus ere hortik joian.

Behartsuen odolaz janaritzen ziran zapaltzaileak hitzaldi luze eta mingorrez zigorpean erabili beharrean, hareekin burrukan sartu gabe, zapalduen, beheratuen, makurtuen bizimodua aukeratu eban beretzat. Burrukaren ordez, bizitza jarri eredu.

Pobreetan pobreena eginik, behartsuen lerroetan azkeneko tokian jarri zan. Txoriak abiak ditue, Gizonaren Semeak ez deuka burua non jarri. Pobretasunean beherengo mailaraino heldu zan.

Zer nahi beretzat eta haxe euki leikean: errege jauregi bat jaioteko, aberastasunak, etxalde sonatu bat...

Baina, bonbokeria guzti horrei uko eginaz, pobretasunaz besarkatu zan.

Jaioteko etxerik ez eta aterpe baten, abere artean jaio behar. Esku lanetik bizi dan langile baten etxea hartuko dau beretzat.

Bera ere sasoiratu danean, esku lanetik biziko da. Herririk herri Barriona zabalduez doanean, eskeko lez, emoten deutsenetik biziko da. Hilteko ere ogetxo bat ezean, kurutze baten hilgo dabe eta han ere biluzik, bere soinekoak sotzetara zatituak izan diralako. Inok emondako hilobi baten hobiratuko dabe.

Pobretasunaren azken marra jo eban Jesusek.

Oraindik oihaletan egoala, mantarretako ume zala, gaizkin arriskugarritzat jo eban Herodes erregeak eta bere borreruak bialdu zituan gaizkin handi hori ezpataz hilteko aginduaz.

Eta hau gitxi balitz, horra hor, politikaren erruz, erbestera bialduriko politikari gazteena.

Haur asko izan dira erbesteratuak. Baina umetxo horreek ez dira beraien erruz erbesteratuak izan. Jesus, ostera, bai; Jesus bera izan zan Herodesen asmo-begietan egoan etsaia. Bera izan zan Herodesen azerikeriak larri eta estu erabili ebana.

Gazte-gazterik umezurtz geratu da.Bere eskuz lan egin beharko dau, eguzkitik eguzkira, bere ama eta etxaldea aurrera eroateko. Guztia beharrean biziko ziran, zinez, ama-semeak.

Gero, amaren etxea itzi ebanean, Galilean zehar, ebanjelioa hotsegiteko, gauzak txarrago jarri jakozan. Eskekoen antzera, bihotz onekoak emoten eutsenetik hartuaz, aterperik gabe, ezer bagarik, izarpean gauak emoten zituala ibili zan.

Istorian zehar, mundu zahar honetan, miloika eta

miloika txiro egon dira, behar bada, ondasunez Jesus besteko pobreak, baina inortxok ere ez dau borondatezko txirotasun hori Jesusek aukeratu eban grina eta irrikitasun hain biziz aukeratu.

Gerora, gure aldietan, errege zala eta, Jesusen irudia urrezko koroi eta soingaineko apain eta aberatsez jantzi dabe. Baina hau giza tentelkeriaren hutsa izan da.

Hauxe da Jesusek gizarteko oker eta txarkeria guztiei emondako erantzun nagusia. Munduko zorakeria eta handikerien aurka eginiko hitzaldi bikaina.

Ba ahal dago irakatsi, osakai hoberik, munduko gatxak osatzeko? Ba ete dago salakuntza zorrotzagorik? Ez eban astirik galdu alperreko esamesetan. Bere bizitzaldi guztia, hitzaldi, egitamu handi eta sakon bat izan zan.

Beretzat txirotasuna aukeratzeaz gainera, bere inguruko lagunkideak ere behartsuen artetik hartu zituan.

Bere gurasoak ostatu eske ikusten ditugu Belengo kaleetan zehar Semearen jaiotzarako. Bere sehaskatxora lehenengo aurreratuko diranak artzain landerrak izango dira.

Bere Barri Onaren oihulari eta zabaltzaile izateko, ezeukiz eta buruz lander hutsak ziran apostoluak aukeratuko ditu; bere lanburu eta egiteko astunai bukaera eta amai ona emoteko gauza ez ziran gizonak.

Ez zan joan jakitun eta goikoen artera bere jarraitzaileen bila. Bere entzuleak ere, gehientsuenak behintzat, herritar apal eta tolesgabeak, langile xeheak izaten ziran. Bere miraririk gehienak pobreen artean egin zituan.

Bere berbakeran ere apala zan; guztiz herrikoia, edonok aitzekoa; beragaz jolasten ziran umetxoak ere bai.

Bere berbaldietan azaltzen zituan gai, jardun eta solasgaiak, beti ere, pobreen arazo eta zereginetatik har-

tuak izaten ziran. Berba leunez, alegiaz, parabolen bidez jantziak, entzuleak hobeto ulertu eta gogoratu egiezan.

Mendiko hitzaldi nagusia jendetaldeak harrimenez txundituta entzungo deutso.

Beste baten, argi eta gatzaren parabola esango deutse. Limosna, baraua eta otoitza zelan egin; "gure Aita" irakatsi; benetako ondasunak non dagozan esan. Jaungoikoaren eta diruaren morroi une berean izatea ezinezkoa zala.

Hurrengo baten, ereilearen ipuina; galbedarrena; legaminarena, sarearena...

Ogiak ugaritzen ditu; ur gainean dabil; han eta hemen, hainbat osakuntza egingo ditu; pariseuekin eztabaidan sartzen da; nor dan nagusiena esango deutse.

Ardi galdua; irañen parkatu beharra; aberastasunen arriskua; mahastiko langileak; buruzagiak zertarako diran; bere nekaldia, heriotza eta berbizkundea iragarriko ditu bere entzuleen aurrean.

Beste mila irakatsi interesgarri aurkitzen ditugu ebanjelioan. Ondo esan eban Joan apostoluak, Jesusek esan eta egindako guztia batuko balitz, mundua gitxi litzakela guztiak hartzeko.

Ikusten dogun lez, diru, entzute eta aberastasunen gainetik beste gauza asko dagoz. Urrun baten gelditzen dira ondasun zalekeria eta diru gosea Jesusen asmoetatik.

Goragoko bideetatik ibili zan bera: ze tankera emon bizitzari; nondik eroan oina; zelan zuriz jantzi bizitzako bidea, zelan jarri munduan bere Aitaren Erreinua.

Txiroen laguna zala esateak ez dau esan nahi aberatsen etsai zanik; aberatsakandik iges egiten ebanik. Jesusek ez eban bereiztasunik egiten pertsonen artean.

Bereiztasuna ez da sartzen Jesusen irakatsietan.

Bereiztasunak banakuntza dakar, alkarrenganako urrintasuna; maitasunak, ostera, batasuna, lagun arteko anaitasuna. Eta Jesus batasun honen bila etorri zan: "Aita, bat izan daitezala, zu eta ni bat garan lez".

Pertsonen ordez, egiteak, gizakiaren joerak bereizten ditu Jesusek.

Artzainen ondoren, hiru erregeak datoz Belenera; inoz aberats batzuekin bazkaltzera joaten ikusi dogu; Nikodemo, Jose Arimatea, Lazaro eta abar bihotzeko adiskideak ditu; azken aparia egin eban etxeko jauna ere bai, bere izenik ez dakigun arren.

Zeruko Erreinua begien aurrean izanik, haren arabera neurtzen ditu Jesusek mundu honetako gertakizun, jazoera eta gorabehera guztiak.

Hantxe deuke oinarria, orpoa. Harako ona dana, gizarte honetarako ere ona izango da, eta harako txarra dana, honako ere txarra.

Aberastasunak ez dabe berezko txarrik; zeruetako erreinuaren arabera, haren eskakizunen harira, zelan erabilten diran, hortxe dago kakoa.

Santu asko ondasunez aberatsak izan dira, eta santutasunera heldu badira ondasunak erabilten jakin ebelako heldu dira.

Pobre asko, ostera, aberatsak dira, bihotza ondasunetan jarrita deukeelako.

Gizarte hobe eta zuzenago bat nahi badogu, lurreko ondasunak hobeto banandu beharko ditugu.

Ondasunen txarra euren arriskugarritasunean dago. Arriskugarriak dira gizakia gaiztotasunera eroateko bide diralako.

Aberastasuna erraz jaubetzen da gizakiaren buru-

bihotzakin; konturatu ordukoxe, jaun eta jabe eginik dago bere aulki handian; bere buruari bakarrik damotso gurpena; diruaren hautsak bihotza gogortzen deutso; dana beretzako nahi dau; ingurukoen ardura galtzen dau; begirik ez deuko aurrekorik ikusteko; ez eskurik, ez oinik beharrizanean dagoanari laguntza eroateko.

Gizakia harri bihurtuta, gizatasunik gabe, desegindu-ta izten dau; norberenakin nahiko ez, eta, zelan edo halan, inorenakin ere jaubetu behar. Inoz ase ezin.

Guzti honen erruz, madarikatzen ditu Jesusek aberastasunak.

"Ugazaba biren morroi ezin daiteke inor izan; izan ere, edo batari gorroto izango deutso eta bestea maite izango dau".(Mt 6, 24).

"Sasi artean erein zanak Hitza entzun bai, baina munduko arazoak eta aberastasunen zorakeriak Hitza ito egiten dabe, eta frutu bagarik geratzen dana da", (Mt 13,22).

"Bizitzako buruhauste, aberastasun eta atseginak ito egiten dabe hazia", (Lk 8,14).

"Benetan dirautsuet: nekez sartuko da aberatsa zeruetako erreinuan. Barriro dirautsuet: aberatsa zeruetako erreinuan sartzea baino errazago da ganbelua jostorratz zulotik sartzea" (Mt 19,23).

Pobrea izatea ere berez ez da ona, txarra da. Jaungoikoak ez gaitu pobre izateko egin. Ez dau nahi pobrerik egon daiten.

Danentzako ipini dau, dotore eta aberats, munduko mahaia. Danentzako ipini dau mahai horretan, ugari eta gozo, eguneroko ogia.

Pobrea izateagaitik bakarrik ez da gizakia hobeagoa; bihotz aberatsa daukan pobrea da aberatsik txarrena. Bihotzez izan behar dau gizakiak pobre.

Eta pobre izatea, azken baten, Jesusen antzekoa izatea

da. Bera lez apala, ongilea, eskuzabala, errukiorra, emoilea...

Pobretasunak Jesusen antzeko izatera eroan behar gaitu; bestela beretzat, nahiz eta ezer euki ez, aberatsen artean gagoz.

Jesusek bihotzetik neurtzen dau gizakia.

Diñogun guzti honen adierazgarri, Jesusek aberastasunetzaz daukan pentsaerea argi eta garbi agertzeko, lau parabola aipatzen deuskuz ebanjelioak.

Lehenengoan, Epulon aberatsa eta Lazaro pobrea sartzen dira.

Aberatsaren irudia da Epulon eta harropuzkeriaren kolore guztiakin margotuta dator bere arpegia.

Epulon purpura eta linoz jantziten zan, eta egunero jai ederrak egiten zituan, eta bitartean, Lazaro eskekoa aberats haren ate aurrean zauriz beterik aurkitzen zan, aberatsaren mahaitik jausten ziranakaz asetu nahirik.

Halako baten, biak hil ziran. Eta bata galdu eta bestea salbatu egiten da. Itauna erraza da: Epulon aberatsari hondamena aberatsa izateagaitik etorri jakon ala beste erruren bategaitik?

Aberatsa izateagaitik baino ziurrago, Lazaro eskekoaz ez bihotzik, ez ardurarik, ez errukirik, ez laguntzarik izan ez ebalako galdu zan inpernuko oinazetan.

Lazaro eskekoa, barriz, aingeruak Abrahanen altzora eroan eben. Salbatu egin zan. Baina, zergaitik? Txiroa izateagaitik?

Ez! Apala eta ona izan zalako baino. Bere eroapen onak salbatu eban. Pobretasunean Kristoren antzeko egin zan.

Lehenengo eta behin, beste gauza guztien gainetik, Jesusek gizakiaren moraltasunari, zuzentasunari begiratzen deutso. Horrek ardura deutso batez ere Jesusi.

Halako gizon batek urrunera joaterakoan, bere ondasunak morroien zainpean itzi zituan. Bati bost talentu itzi eutsazan, beste bati bi, eta hirugarrenari bat bakarrik.

Berehalaxe bost talentu hartu zituanak, irabazitan jarririk, beste bost irabazi zituan. Bi jaso zituanak ere, beste bi. Talentu bat hartu ebanak, ostera, joan eta lurrean zulo bat eginik, bere jaunaren dirua gorde egin eban.

Bost talentu jaso zituanak, beste bost talentu ekarri eutsazan jaunari. Eta jaunak goraldu egin eban morroi zintzoa eta zuzena izan zalako. Talentu bi hartu zituenak ere, goratzarre bardina hartu eban. Morroi zintzo eta langilea hau ere.

Azkenez, talentu bat jaso ebana hurreratu zan, baina esku hutsik. Talentua lurrean gorde eta alperkerian eta jolasean galdu eban ugazabak lanerako emondako astia.

Zergaitik zigortzen dau morroi gaizto eta nagi hau? Alperra, nagia, ganorabakoa zalako.

Honek esan nahi dau nahiz aberatsak nahiz pobreak izan, Jaunagandik hartu ditugun talentuak mundugintzan jarri behar ditugula. Jaunak ez gaitu alperkerian ikusi nahi.

Diru zalekeria da, hainbaten, gizarte hau atzekoz aurrera jarten dauana. Gizartearen minbizi osatuezina. Hortik datorkioz bere gatx guztiak. Zuzentasuna hauts eginik izten dau; bere eskakizun eta lege guztiak zapuztuten ditu. Mundua pobrez bete.

Azken auzian ere, Jesusek dirauskun lez, Jaungoikoak ez deusku itanduko ia diru asko ala gitxi euki dogun. Euki dogunakin, asko edo gitxi, lagunurkoari zenbat eta zelan lagundu deutsagun baino.

Nor salbatuko da?

Aberatsa nahiz pobrea dala, hurkoari jaten nahiz eda-

ten emon deutsona, gaixoak poztu dituana; hurkoekin errukitsua izan dana salbatuko da.

Eta, urkoari laguntzarik emon ez deutsana, ostera, nahiz aberatsa nahiz pobrea izan, hori hondatu egingo da Jesusen esanean.

Esan dogunetik, jakin geinkez Jesusek gizarteko arazoen inguruan izan zituan giltzarrizko eritxi eta pentsakera batzuk. Ez zan demagogo gailena, ezta iraultzaile maltzurra.

Jesusentzat zeruko Aitaren gauzak ziran lehenengo, eta bigarren gizakiarenak. Erreinurako ona dana, gizakiarentzat ere ona da. Edota bestetara. Alderdi biak hari batez lotuak doaz.

Honako pentsaera batzuk erraz azpimarratu geinkez. Esaterako: Jesusek ez ditu hari batetik sartzen aberatsa eta txarkeria, txiroa eta ontasuna. Ez.

Aberastasunak onerako dituan arriskugarritasunak jartzen ditu agerian.

Aberats batek ezinezkoa dau ona izatea, aurrenez aberats izateari izten ez badeutso, edota aberastasunak behartsuen artean zatitzen ez baditu.

Eta Jesusen esan honek bardin balio dau diruz pobreak izanda, bihotzez aberatsak diranentzat ere. Honeek ere Jesusentzat aberatsak dira, bihotzez aberats diralako.

Jesusek ez euskun emon ebanjelioan mundu zuzenago, garbiago, bardinago eta politago hori arauz eta taiuz antolatzeko erabide argirik.

Ez euskun esan mundua honetara edo haretara antolatu behar zanik; gizartearen erakunde eta giltzarriak honetara jarriko dituzue.

Hau eta bestea egin behar dozue gizarte jatorra jasotzeko. Holakorik ez eban egin.

Ez zan legegile lez, agintari lez etorri. Zeregin horreek gizakien esku itzi zituan. Ez eban sozial ekintzarik araukundetu.

Baina, ziurtasun guztiz esan geinke, Jesusek izugarrizko mina hartuko ebala gizakien arteko desbardintasunak ikustean.

Ezin ontzat emon ez orduko gizartean ez gaurkoan egiten dan ondasun zatikuntzarik, ez gainetiko zuzengabekeriarik. Erruki nahiako gizatalde honi!

Jesusentzat balorerik handiena besteen zerbitzura egotea da. Hor dago meritua. Aberatsak eta pobreak alkarren zerbitzuan ikusi gura gaitu.

Egiazko txiroa besteei zerbitzen dagoana da; egiazko aberatsa inori zerbitzen ez deutsana.

Alkarren artean neba-arreba izatekotan, alkarren zerbitzari egin behar gara guztiok, hau barik ezinezkoa da mundu zuzen eta baketsu hori.

Txiroen eliza hori ez da batzuek besteen hasarrean jarten dituana, neba-arrebak bihotz eta gogo baten alkartzen dituana baino. Alkarren zerbitzua ikurrin dauana.

Oinarritzat dirua barik maitasuna dauana. Norberekeriari heriotza emoten irakasten deuskuna.

Egiazko zoriona ez dago, askok halan uste arren, lurralde eta aberastasun handiak eukitean. Zoriona ez dator posta bidez, edota bankuko txarteletan gordeta. Ez da inongo dendatan saltzen. Bihotza beti besteentzat zabalik daroenak gozatzen dabe benetako zoriona.

Goizero biztu behar dogu geugan biziteko poza. Eguna hasteko era zoragarria dozu. Goizean, esnatzean, Jaunari eskerrak emon egun barria ekarri deutsulako.

Baina bizitzaren doe hori besteen zerbitzuan erabilteko emona jatzu. Horregaitik, bizitzako poztasunik handiena besteentzat izatean dago; besteen alde zeure bizitza zatika zatika emotean.

Hori egiteko gauza bazara, esan ezinezko atsegina, bizitza guztia osoro beteko deutsun zoriona susmauko dozu zeure barnean. Hortik sortzen da lagunarteko anaitasuna; hortik gizalegezko gizarte baketsua.

Besteen alde bizia emoten dozun neurrian, bakea eta zoriona, iturri garden batetik lez, jausiko jatzuz gogora.

Uste ez arren, norberekeriak biziteko poza ito egiten dau. Norberekeria lur estu, txiki eta agorra da; hor ez deuko non erne alaitasunak.

Bihotz zabaltasuna, ostera, lur zabalean hasitako zugatz emonkor eta aberatsa dozu.

Sarritan ago beteko hitz handi-mandiak erabilten ditugu; azal dotoredunak, nahiz eta barruz hutsak eta ustelak izan.

Esaterako, isildu gabe darabilguz mihin gainean honako berbak: gizakiaren zoriona, bakea, zuzentasuna, askatasuna, anaitasuna, eta honako hitz ederrak.

Baina hitz eder horreek betekizuna eskatzen dabe; bizitzara eroan behar dira; mamiz bete; bihotz bakotxean hazitxo bat bota, izpitxo bat biztu; bestela kanpai hotsa baino ez dira izango gure mihin gainean; haizeak eroango ditu gure eskuetatik.

Zetarako oihukatu zuzentasuna, erakunde eta hartuemon guztiak, ustelez, hatsa dariola baditugu?

Zetarako aitatu anaitasuna, alkar otso bagara? Zetan aldarrikatu solidaritza, mundu erdia gosez hilten badaukagu? Zetan goratu bakea, gogorkeria eta gerra hotsa besterik entzuten ez bada lurbira osoan? Zetarako hots egin maitasuna, gorrotoa jabetu bada gizarteaz?

Egunero-egunero, gure inguru eta aldamenean bizi

diranen artean zatitu behar dogu maitasun lore hori, bestela lotsagarri litzake hitz santu hori gure ahoan agertzea.

Hitzetan gabe, egintzetan gaitezan luzeak. Horretara aldatuko dogu gizartea.

Hona hemen, gain-gainetik marraztuta, Jesusek bere begiz ikusitako gizartearen antz irudia.

Ebanjelioaren neurrira ebagitako gizarte bat nahi eban Jesusek.

Gizarte hori bideratzera etorri zan, etorri ere. Horretan jarri zituan bere bizitza eta arnasa guztia. Horren amesean hil zan, baita ere.

Eta ames hori aurrera eroateko agindua emon euskun bere jarraitzaile guztioi.

-Bete egizue mundua, goi-goiraino, maitasunez eta anaitasunez. Jaso egizue guztion artean nire Aitaren etxea.

-Aita baten seme-alabak zaree. Alkar neba-arreba. Beraz, maitasunean bizi zaiteze, neba-arreba onak bizi diran lez. Zoaze, ba, mundura eta egizue gizon eta emakume guztientzat Aitaren etxe eder, zoriontsu hori; gizarte barri hori.

Daitekena ete da, gaur, mundu bikain, anaikor, ereduzko hori?

Asko eta asko ezetzean dagoz. Ezinezkoa dala. Ertza goiegi dagoala hor.

Ameskerian sartzen dan zerbait dala mundu eredugarri hori. Aingerukeria. Gizakia ez dala heltzen tontor horretaraino.

Hau dala eta, gizatalde handi batek baztertuta itzi dau Jesusen egitamu hori, asmakizun hori.

Baina, Jesusen aginduak tente jarraitzen dau oraindik ere. Hor jarraitzen dau gure begi bistan. Mundura bialdu gaitu Aitaren etxe hori egitera, gizarte barri hori jasotzera.

Berak lurrera ekarritako zereginaren jarraipena da gure hau ere. Horretan jardun behar dogu bere ikasleok munduaren azkenerarte.

Lan gatxa, gogorra, ia ezinari ikutzen deutsana da Jesusek eskuratzen deuskun hau, baina, bere jarraitzaileok, ezer izatekotan, gure adore eta indar guztiak horretan erre behar ditugu Jesus maisuaren aginduz.

Eta nondik hasiko gara lanean? -Gizakia beragandik. Lehenengo eta behin, gizakia kristautu behar dogu.

Gizakia ez da ames hutsa, izen-abizenak ditu; arpegi bat; hor dago gure aldamenean. Gizon eta emakume horreekana hurreratu behar gara Jesusen asmo eta gurariak iragartera. Jaungoikoatzaz berba egitera.

Eta ez da bape erraza gaur Jaungoikoatzaz gizakiari berba egitea. Kristoren mundutik urrun dagoan beste mundu baten bizi da gaurko gizakia. Ezezagun da Kristo jendetza handi batentzat. Ez da bere izenik aitatzen gaurko jauntxoen artean.

Gero, mundu horren bihotza ondotxotik ezagutu behar dogu.

Bere buruan dantzari dabiltzan ames, pentsaera, gurari, izakera eta zaletasunak; burumuinean gorderiko guztia; lur zabalean nahasturik bizi diran ona eta txarra, ilunak eta argiak, gizarteak pil-pilean daroazan mila eta mila arazo eta bihurgune; munduko bizigiroa...

Mundua ondotxotik ezagutu bere itaun eta eskakizunai ziur eta zuzen erantzuten jakiteko.

Berak itaun bat egin eta guk zirto bategaz erantzuten badeutsagu, horretara ez dogu ezer lortuko. Gizakiaren kezka eta ilunak zuzen argitu behar ditugu, bestela alperreko lanean gabiltzaz.

Elizak, gaur, sail honetan, mundurantz holako zabal-

kuntza handi bat egin behar dau. Berean kirikinotuta dago. Eta hasarretu beharrean, hitz egin behar da mundu horrekin. Alkarrizketatu; arazoei erantzuna alkarrekin aurkitu.

Munduaz tratatzean, Jesusek berak irakatsitako erabideak erabili behar ditugu. Bihotza maitasunean bero-bero dogula hurreratu gizakiagana.

"Ez deutsut honeek mundutik ateratzeko eskatzen, gaiztoagandik gorde dagizuzala baino" (Jn 17,15).

"Anaiok, jator, zuzen, garbi, maitagarri, entzun ederreko izan bedi zuen jokera" (Flp 4,8).

San Pedrok ere hainbat aholku eder damoskuz munduaz hizketan sartzerakoan: "Ez egizue zuen arerioen bildurrik izan, ezta artegatu ere; beti zuhur egon zaiteze zuen itxaropenari buruz itandu dagitsuen edonori, bigun eta lotsaz, erantzuteko".

Hau da, alde batetik, maitez eta itzalez hurreratu behar gara mundura eta, bestetik, adorez eta kemenez.

Gugandik aldendu behar dogun jokaera bat euki hemen kontutan: ez bildurrik izan munduari!

Arrisku bi aurkituko dituzu bildur honetan.

Aurrena, munduaren aurka jarriko zara. Mundua gaiztoa da, Jainkoaren etsai; zehatz ustelduta dago; ez da ondutekoa; alperrik dira gure ahalegin guztiak; itzi daigun bere ezinean. Urrundu gaitezan bere kiretsetik...

Tentaldi honetan sartu zaintekez.

Eta orduan zer egingo dau kristau batek? -Ba, Elizaren altzoan ezkutatuko da. Elizaren babesean aurkituko dau bere igeslekua.

Munduaganako ardura galduko dau, borroka horretatik urrundu egingo da. Bildurra nagusitu da hemen . Eta zein izango da orain bildur honen ondorioa?

Gehien baten, parrokia horretan, kristau talde itxiak, zarratuak sortuko dira, lehenari lotuak. Kontzilioak eskatutako aurrerabideak itxutu, hertsituko dituen kristau talde atzerakoiak.

Bigarrenak, munduzale bihurtuko gaitu, munduan bertan jarri bai dogu gure egonarria. Kolkoan karta bi ditugula jokatzen ikasiko dogu. Bata mundurako da, bestea fede orduetarako.

Munduaz lagun egin gara; atsegin jaku bere haizea, bizigiroa. Pozik gabiltzaz bere girabiran. Mahai gainean jarten deuskuzan oparotasun guztiak, higuinik gabe iruntsiten ditugu; bere gozotasunean pozez gabiltz...

Eta fede ordurako, beste karta erabilten dogu. Fedea neure kolkorako da, neure isilpeko arazoa. Inok ez dau zetan jakin zelan dan nire fede bizitza. Neure egokitasunaren harira erabiliko dot, diñogu.

Fede hori ustela da. Kristau zintzo batek onartu ezin daikena. Ez deutso ezer onik ekarriko ez Elizari, ez gizarteari. Azkenerako hil egingo da, urik bako landarea hilten dan lez.

Beraz, zelan jokatu kristau batek gaurko munduan?

Alde batetik, munduari bildurra galdu behar jako; dan bezelaxe hartu; garraztasuna eta handikeria gorde; koldarkeria eta makurkeria ere bai.

Gizalegez eta jatortasunez tartekatu lagun artean; fedea lotsa izpirik gabe autormendu; norberen jakinaren arabera, ona eta txarraren irizpidea emon.

Jesusen mezua argi eta garbi hotsegin, inor mindu, behartu eta ezetsi gabe, anaitasunaren gozoan.

Ez dago inoren aurka jarri beharrik ere. Kristaua ezin daiteke inoren etsai izan. Onaren alde dago beti.

Ona eskeintzen deutso, eskuak betean, hartu nahi dauanari.

Galbedarragaz nahaste gari garbi asko dagoala daki Jaunagandik urrundu dan mundu honetan. Gaiztakeria guztien gainetik, onaren eguzkia ageri dala dirdizka zeru goian.

Bakerako gurariak edonon biztu dira; zuzengabekeria, gosea, zapalketa eta gerra guztien aurkako ekintza geldiezinak ikusten dira mota guztiriko taldeetan; anaitasuna eta solidaritzaren aldeko alkargo indartsuak; mundu ederrago eta hobeago baten eske burrukan diharduen era askotako jendetzat.

Eliza mundurako da eta hemen Eliza geu gara. Horregaitik, mundua eta gizakia benetan maitatu behar ditugu, daukagunik onena eskiniaz. Hauxe da kristau baten arautegia.

Baina inoz, emon dogun maitasun eta zerbitzu horren ordez, iraina, burla, samina hartzen baditugu, orduan, Jesus maisuaren ondora joan eta bere oinetan irain horreek parkatzen ikasi behar dogu.

Txarra onez ordaindu, Jesusek egiten eban lez. Hauxe da gure bide bakarra irainen aurrean.

Kristau zintzoaren ezaugarri ziurra bere adore betea da. Noiz agertzen da adore hau? -Txarto eginari onez erantzuteko gauza danean; irainari, dongakeriari, bedeinkapenez erantzuten deutsanean.

Kristau ez danak txarrari txarrez eta irainari irainez erantzuten deutso. Kristau onak ez dau inoz holakorik egiten.

Jesusen eskolan ikasi dau, azken baten, maitasuna beti garaile gertatzen dala, irabazle. Parkamenean daukala bere indarra maitasunak.

Eta inoz kristau izateagaitik irainik hartzea balitz,

ondo daki Jesus maisuaren esanetan dagoala idatzita fedeagaitik zirikatuak izango garala.

"Zoriontsuak izango zaree, nigaitik iraindu eta aurrean erabili zagiezenean. Poztu eta alaitu zaiteze, zuen saria zeruetan handia da eta" (Mt 5,11).

Baina hemen , beste gauza bat ere kontutan izan behar dogu: kristauok ere geure aldiko seme-alabak garala, mundu honen egileak.

Guk ere ona eta txarra ereiten ditugula egunero zapaltzen ditugun bide ertzetan.

Guk ere hazi txar asko botaten dogula munduko ildo zuloetan. Horren errudun garala.

Jaungoikoaren eskua ikusi behar dogu gizarteko egintza askotan. Gauza on asko eta asko ditu gizarteak. Gaurko kultura honetan balore ezinbestekoak aurkitzen ditugu.

Ez ahal da hor Jaungoikoaren eskua ibili? Ez ahal da hor Espiritu Santuaren arnasa hotsa entzuten?

Honek esan nahi dau Jauna geurekin doala eguneroko historian parte hartuaz. Begia argi erabili behar dogu, ba, Jaunaren itzala, urratsak ikusteko.

Dakargun hariari jarraituz, gaurko mundu honen bereiztasun edo ezaugarri batzuk jarriko ditugu hemen.

Erlijioari dagokionez, sinisterik eza jarriko neuke aurrenengo. Sinisgabekeria askoren gaixo bihurtu da gaur.

Betidanik egon dira sinisgogorrak munduan, baina azken aldiotan, ezinbestean ugaritu eta zabaldu dira gizartean zehar.

Federik eza gaurko kultura eta ohituretan barrubarruraino sartuta agiri da. Gizartearen bekokian jarritako akatsa dirudi.

Gizartearen soina mamitu eta zeharkatzen daben kirio eta zain-hari guztiak jo ditu gaixo honen harrak. Begia non jarri eta han sinisgabekeria aurkituko dogu.

Gizarteko iturburu guztiak zikindu ditu pozoin honek. Gizartearen motorraz jaubetu da. Txiki eta handi, goiko eta beheko dira sinisgabetza hori osotzen daben jendetzak.

Erakunde, egitura, ibilbide, hartu-emon eta joan-etorriak, hau da, gizartearen bihotza sinisge autortzen da'

Askorentzat ganorabakokeriaren ondorioa da hau. Ez dabe gorantz inoz begiratzen, ez lehenari itandu nondik datozen, ez geroari nora doazen.

Gizakiak, nahitaez, betiero egin behar dituan sustraizko itaunak erantzunik gabe hutsean itzi ditu. Eta hori gizatasuna galtzea da. Ez dakie nor, ez zer diran, ez zetarako dagozan hemen .

Abereen antzeko bizitza baten murgiltzen dira. Ez ditu kinatzen betikotasunaren harrak; ez Jaungoikoaren entzuteak, ez Jesusen mundura etorrerak, ez inguruan ikusten daben erlijiotasunak.

Labanean joakie soinean behera gure izateari dagokion arazo garrantzitsu hau. Ilunaren loan dagoz.

Egunak dakarrenaz bizi dira. Besteak beste, lurreko zereginak betetzean zoli eta trebeak dira, baina giza gogoa, muina, kutxa baten giltzapetuta daroe.

Jan, bizi, hil eta desagertu. Pentsaera ilun, biribil honen biran agortuten dabe euren bizitza. Tamalez, holantxe dira asko eta askoren egunak.

Ahaztu egin dabe burua gauzen arrazoibideak aurkitzeko emon jakula. Antza, lurreko ondasunen gozoak asetu ditu euren bihotzak. Ez dabe behar ez goragokorik, ez gerokorik.

Jaungoikoa ez da euren bizitzaren begian sartzen. Danik ere ez jake iruditzen. Ez balego lez bizi dira.

Beste ateo batzuk burua dotoreago jazten dabe. Goi eskoletan dabiltzanak dira asko. Ikasiak, eskolatuak, zetan edo haretan urtenak, jakitunen gangarra daroenak, nahiz eta ergel eta apalote asko agertu euren artean.

Zuhurtasunaren seme-alabak autortzen dira. Ikur hori daroe bekokian euren nortasunaren ezaugarri lez.

Honeek ez dira goragoan aitatu ditugun ateoen antzekoak.

Honeek Jaungoikoagaitik galdetu dabe. Gora begiratu dabe. Jaungoikoaren bila ibili dira. Izarpe guztiak arakatu ditue haren urratsak aurkitzeko irrikitan.

Lurreko izaki eta gizaki guztiei itandu deutse Jaungoikoagaitik eta ezetza hartu dabe erantzunez. Ez zeruan, ez lurrean, ez dabe aurkitu Jaungoikoaren seinale ziurrik.

Gizakiaren adimenak ez dau aurkitzen arrazoibiderik, probarik, seinalerik Jaungoikoa dagoanik egiztatzeko.

Beraz, euren adimenetik kanpo gelditzen dana ez da eurentzat sinisgarri, ez da onartzekoa.

Horregaitik, ameskeriaren lapikoan sartu dabe erlijioa. Gogoz ergel eta ezindunak diranak bakarrik sinistu leikee erlijioko irakatsietan, eskakizunetan, euren esanez..

Jaungoikoak ez deuko tokirik gizaki honeen buruetan, ez bizitzan. Jainkorik gabe bizi dira. Bere beharrik ere ez dabe sentitzen. Euren nahiaren arabera antolatzen dabe bizitza guztia.

Giza duintasunez bizitea da bakarrik euren helburua. Ona eta txarra, pozaldiak eta nekealdiak gizatasunez eroan, gaixoa eta heriotza bera ere bai, gero betiko isilean amiltzeko.

Pentsaera hau da, gaur, gizarte gailurrean dabilena. Munduko profeta eta maisu nagusiok, ago batez, lur zabalera oihukatzen daben ebanjelio barria. Mundutarren teologia.

Norberen buruz ulertzen ez dana, ez begiz ikusi, ez eskuz ikutu; bihotzak ohartzen ez dauan ezek ez dauko sinisgarritasunik; orain gehiago, sinisgarritasunaren ukamena da.

Hor ez da gelditzen ez abegitasunik, ez ardurakizunik, ez begikotasunik erlijioarentzat. Jaungoikoak traba egiten dau munduan; ameskeria baino ez da, beraz, gizartea Jaungoikorik gabe antolatu behar da, gizadiaren aurrerapenerako eragozpen eta traba dan ezkero.

Gizakiak jakintza bidez egiztatu daitekena bakarrik onartzen dau, hortik aurrera dagoana, ezetsigarria lez, ezinezkoa lez hartzen dau.

Gizakiaren burua itxaso nahastua da gaur. Lehen, erlijioak emoten eutsan bizitzarako behar eban ziurtasuna. Fedean aurkitzen eban bere nondik norakoa, egitasuna, argia, atseden betea, bizitzaren gurpila. Erlijioak gidaritzen eban bere bizitza.

Baina, gaur, erlijioa ukatzean, edota ezbaitan jartean, lainopean galduta gelditu danaren antza dauko. Ez daki non dagoan ere, ez nondik etorri dan, ez nora doan, ez norantz egin, ez nori sinistu, ez nori jarraitu...

Gaurko jainkoa teknika dala esaten da. Teknikaren ahalmenak agortuezinak dirala. Horrek salbatuko dauala mundua.

Teknika berez itsua da. Ez ona, ez txarra. Onerako erabilten bada, gauza ezin hobea da; txarrerako erabilten bada, ezin txarragoa.

Baina hemen, oker etorri bat dago: teknika aurrera doala eta gizartea atzera.

Inoz baino gose eta mixeria gehiago, inoz baino gizarte gogor eta garratzagoa daukagu, gure erronkak mututu eta gu buru-makur jarteko moduko mundu mingarri bat.

Gizartea ez da onduko gizakia ontzen ez dan bitartean; eta gizakia ez da onduko ebanjeliora bihurtzen ez dan artean. Horra hor gure egiteko nagusia, latza. Horra gure amesa, zoritxarrez, oraindik urrun dagoana.

Hemen kristauok ere, damuzko negarrez, bularra jo beharrean aurkitzen gara.

Errudun gara gu ere erlijioaren irudi ilun eta negargarria jarri dogulako munduaren aurrean.

Holan dirausku, behintzat, kontzilioak. Gure bizikera eta egintzak ez dira bat etorri fedearen eskakizunakin. Gure ekandu, ibilera eta gizatasunean dana beharrean ikusi gaitue.

Elizan bildots eta kalean otso.

Legez jositako erlijiotasuna erabili dogu, eta lege horreek, gehienak, pekatu astunpean bete beharrekoak ziran. Sinisteakin batera, sinistekeria asko sartu dogu.

Eta zeru goian, Jaungoiko Aitaren ordez, Jesus Salbatzailearen ordez, jendeari bildurra sartzeko edo, Jaungoiko hasarreti, zigor-emoile bat ipini aulki handi baten jarrita.

Pekatu astunean hilten zana, bateatu gabe hilten zana, sinistebakoa, Elizatik kanpo egoana ez zan salbatzen.

Irakatsi honen auzira, mundu erdia salbamenetik kanpo gelditzen zan. Alde batetik, Jesusek gizaki guztiguztiak salbatu zituala esaten zan, eta bestetik, mundu erdia salbamen horretara heldu ezinik gelditu.

Gu salbamenari neurriak hartzen, baldintzak ipinten,

salbatzaiIleak geu bagina lez. Baldarrak izan gara honetan. Zenbat puntutan erlijiotasun ergela, nahastua, ulergatxa, sinauslea irakatsi dogu.

Nire ustez, honen erruz, arrakasta txikia aurkitu dau kristautasunak, batez ere, jende ikasi eta aurreratuaren aldetik.

Hor gure erruak, gure damu beharra. Jaungoikoaren irudia argitu beharrean, ilundu egin dogu.

Kristauak ezeze, Eliza bera ere, erakunde lez, begi bihurrez ikusia da gaur gizartearen aldetik.

Antxinatik ezagutzen dogu etsaigo hau. Gaixo zaharra da gure artean. Elizak, Eliza lez, ez dau gaur berba gozo askorik jasotzen; parre-zaharra gehiago entzunten dau.

Edozein tokitan, txapela bete esakun gordin batu geinkez Elizaren irritan.

Inoz Eliza erakunde indartsua izan da. Abadetza ugaria zan aldietan, neurri bateko agintza maila eskuratu eban berak. Abadeen berba bakarrik entzuten zan pulpitu eta elizetan eta abadeen esana egitekoa izaten zan.

Zelanbaiteko menpetasun bat sortzen eban honek herri eta herritarren artean. Hau zala eta, susmobide txarrak egiten zituan herriak abadetzaren lepotik.

Ziur nago gogo onez, asmo txar barik, jausi zala Eliza gehiegikeria horretan; herriaren ona bilatzearren hainbaten. Bere zeregin nagusi lez hartzen eban ardura hori. Aldi bakotxari bere intzentzoa erre behar.

Baina erantzun bidez, herriaren ezetza aurkitu dau, hoztasuna irabazi. Ziur nago herriak ere ez dauala gogo txarrez egin salaketa hori; zapalketaren aiene larri bat besterik ez dala izan.

Dana dala, herriaren aurrez jarte hau, ez dogu erremi-

nez hartu behar. Geure erruak leporatzea apaltasunaren arauak eskatzen dauana da. Geure erruak damu zintzoz autortu behar ditugu beti.

Hasarrerik gabe, garraztasunik gabe hartu herriaren aldetik jatorkuzan aholku eta ikasbide onak, geure onerako diran ezkero.

Okerrak eta gehiegikeriak zuzentzera behartzen gaitu herriaren kritika honek.

Ahulak eta jauskorrak, buztinez eginak gara gu ere eta, ebanjelioaren gailurrera igoteko prest egon arren, sarritan bidean laprast edo laban egin eta lurrera jausten garan gizakiak gara.

Horregaitik, damuz, pekatari autortzen gara egunero. Geuk parkatzen dogun lez, geuri ere parkatzea eskatzen dogu eguneroko otoitzean.

Gaurko gizarte honen beste ezaugarri urten bat gaur ditugun giza-komunikabide oso aurreratu eta bikainak ditugu.

Eurai esker, mundu guztia geure esku daukagu. Aldik alde arakatzen dogu gure satelite miresgarriok bide dirala.

Zokorik isilenean jazoten dana, ordu gitxi barru, lurbira osora zabaltzen da. Telebista eta irratiak etxera dakarkigue jazokun hori.

Albistez eta izparrez, une oro, bonbakatzen gaitue. Albiste honeek, gainera, nahaste-borraste ikeragarri baten heltzen jakuz; bakotxak bere eratara jantzi eta epaitzen ditualako.

Euren eritxi eta interesen arabera saltzen deuskuez. Honentzat zuria dana, bestearentzat baltza da, eta haragokoarentzat gorria edo orlegia. Ez dakigu egia eta guzurra zeinegan dagozan.

Nahastearen nahastez nahaspildu egiten gaituez.

Itsututa, zein bide hartu ez dakigula, burua argitu ezinean.

Honez gainera, mundua danon etxe bihurtu jaku. Jendea geldiezinak jota dabil. Gaur hemen eta bihar han gagoz, gaurko ibilgailu bizkorren hegoetan.

Mundu guztian zehar jendea errez nahastatzen da. Mundu barriak ezagutzen ditugu. Enda barri eta askotarikoak. Arpegi askotako mundua sartzen jaku gure begiko aingerutik.

Honetara pentsaera, ohitura, bizigiro, kultura eta abar guztiz desbardinak ezagutzen ditugu.

Eta honek dardara eraginkorra dagitso gure barruko munduari. Mundu eta mundutarren ezaupide aberatsago bat dakarkigu, baina, baita arriskugarriago bat ere.

Gaur barria dana, bihar zahar eginda gelditzen da. Gaur ona dana, bihar bazterrean itzi. Abiadan aurreratzen da mundu aurreratu hau.

Alorrik txikienak ere aldakuntza honen erpinean dagoz. Bost urtetik bost urtera aldatzen ei da, zelanbaiten, gizartearen soina.

Nahaspil guzti honek gure sustraiak, gure betiko baloreak galtzeko zorian jarri leikez. Burua nahastu eta sentimenak igertu haize bolada honek erreta.

Honek zuhurrak eta zentzunezkoak izatera behartzen gaitu. Barruan daroagun nahaspil horretan bideak ez galdu; ideiak eta baloreak ordenan jarri; zein dan egiazko altxorra eta zein guzurrezkoa igarten jakin; zein lehenengoa eta zein bigarrena edo hirugarrena; zein baiezkoa eta zein ezezkoa.

Tantaia izan eta ez orbel igerra.

Ederrago, aberatsago, sendoago egin gure gizatasuna.

Munduak eskeintzen deuskun guztia da aberasgarria, nondik eta zelan hartu jakin ezkero.

Eta ikaskai hori ikasi behar dogu guk gaurko mundu honetako lainopean galdu ez gaitezan.

Beste ezaugarri bat herriaren etsimenean aurkitu geinke.

Demokrazia bidean sartu ginanean, kolorezko mundu polit, zoragarri bat amestu genduan danon artean.

Askatasunaren doinura dantzatzen ginan, alaitasunaren plazan.

Oraintxe bai egingo dogula mundu barri, eder, anaikorrago hori! Horixe zan gure poz irrintzia.

Pozkarioz egin genduzan demokrazi-aroko lehenengo hauteskundeak. Uste osoa geunkan jarrita gure politikariengan.

Lanik gabe, ogirik gabe, etxerik gabe, bizitza duin eta dezenterik gabe inortxo ere ez.

Helmuga horretara zuzentzen ziran gure gurari guztiak. Zoriona ekarren haize gozoa sartzen jakun bularretara. Bihotzak pil-pilean etorkizunaren aurrean. Egunak joan eta egunak etorri Tabor mendian gengozan gozatsu, itxaropenaren amesean.

Baina, itxaroten genduan mirari hori ez zan inondik agiri. Pixkaka-pixkaka zerua lainotzen hasi jakun. Ezinaren atxakiak entzuten hasi ginan...

Egoera larrian itzi ebela nazioa aurretik egondako agintariak; gure industriagintza zahartuta geratu zala; lantegiak deuseztuta, erabili ezinean; izugarrizko zorpean gengozala; uste zan baino ilunago ager zala etorkizuna eta abar...

Honantxe, gure ames ederrok, hurrengorik hurrengo-

ra, lurrera etozan. Zerutxo hori eskeini euskuen politikariak ere isiltzen hasi ziran. Herriaren aurrean hitz handi eta durundutsuak, baina egintzetan labur eta nagi aurkitzen genduzan.

Itxaropenaren argiak itzaltzen hasi ziran. Izki-mizki eta esamesa asko zabaldu ziran politikari askoren inguruan. Ez zirala gari garbia; barru-barruraino ustelkeriak jota egozala.

Ekanduetan dana beharrekoak ere baegozala; lapurreta izugarriak egiten zirala goietan; bidegabekeria eta gehiegikeria guztietan sartuta egozala...

Gaur politikari gitxi dira herriaren ederra daukeenak.

Eta politikari badaezpadakoakin batera, lapurrez eta gizon gaiztoz bete da estatu erdia. Gaur moral eta etika bako gizona agertu da gizartean.

Dana beretzako batzen dauana; diruari bakarrik eder dagiona; inoren ardurarik gabe, bere urrezko etxaldean bizi dan gizona.

Nahaspil honen ostean eta ondorioz hegoak hausita jausi jaku arrano baltza.

Lantegi asko lurra jota; langabezia aurrez; sendi asko diru urritasunean urduri; zortzi miloi pobre eta goseti, gainean daroaguzan gatx guztiak ez aitatzearren.

Moraltasuna galtzen danean, gatxa izaten da gizontasuna zaintzea. Moraltasunean beheraka egiten dogun neurrian, galdukerian ere holantxe beheragotzen gara.

Euskalerrian hasita, holako garbikuntza orokor bat behar dau gaurko gizarte honek.

Bide barriak aurkitu; itxaropenak sortu; argitasunerantz ibilten hasi; gizakia onbidera ekarri.

Honen beharrean dago gaurko gizaki gaixoa.

Etsimen honen abarrotsa ez da hemengoa bakarrik,

mundu osora zabaldu da. Muga guztiak gainditu ditu. Lurbira osoaz jaubetu da.

Herridiak armagintzan eralgiten dabena nahiko litzake munduko gosea hilteko; herrien aurrerakuntza gailur-gailurreraino jasoteko; hainbeste gaixo, izurri, ezbehar, zoritxar menperatzeko. Gizaki bakotxari bizitza duin eta alaitsu bat eskuratzeko.

Batek badaki zenbat diru hondatzen dan armagintza horretan!

Eta dana alkar hilteko, gizadia hondatzeko...

Ez da bat ere harritzekoa, honako barrien aurrean, jendea etsiak hartuta egotea.

Bitartean gizartea txarretik txarrera doa. Guztionak diran ondasunetatik lapurretan egiten dogulako, txarto eta zeken banatzen ditugulako, miloika eta miloika gizon eta emakumeren gose eta heriotza ekarri ditugu mundu zelaira.

Langabezia gehituz doa alde guztietan; goseak eraginda, norberen herria itzita, erbestera doa jendea ogi bila, doazen herrietan hasarrea eta ondoeza sorteraziaz.

Izadia, lurra, ezeren zentzun eta errukirik gabe, geure probetxuan erabiliaz, guztiz lorrinduta heriotzara daroagu.

Bitartean, herridietako agintariak berba luzeak bai, baina gainera datorkigun zoritxar handi hau emendatzeko ezer egin barik.

Egoera larri honek, zalantzarik gabe, nahigabea eta etsimena sortzen ditu mundutarren artean.

Baina, oraindik, munduko gaixorik txarrena aitatu barik deukagu. Zein da gaixo hau? -Jendarteko gogorkeria, alkarren arteko gorrotoa.

Mundu osoa gorroto zelai bat dala esan leike.

Gogorkeriaren agintepean dakusgu gizadia. Otso kabi bat dirudi gure bizileku honek.

Egunero datorkigu bere abarrotsa eta hats ustela esan ezinezko egikizunetan ostenduta.

Inoz entzun dot gorrotoa arimako minbizia dala, gaixo izugarria. Gorrotoa, izatez maitasunaren ukamena da. Maitasunaren hilobia. Gorrototzaileak aurrekoa deuseztuta ikusi nahi dau; txar guztiak opa deutsoz; aurrekoa ezbeharrean ikusteaz poztu.

Pozoin horrek bihotzari, barruan, eztanda eraginazoten deutso. Horregatik gorrototzailea, gizaki lez, deuseztuta dago; grina itsu horrek bihotzeko sentimenik onenak erreta, kizkalita izten deutsoz. Hilik dago gizon hori.

Gehienetan, itsukeriaren frutu gordina izaten da gorrotoa.

Zenbat hil ditugu erlijio itsumena tarteko dala? - Zenbatu ezin beste. Endakeriaren erruz? Politikaren erruz? Agintekeriaren erruz? Indarkeriaren erruz? Herridi eta nazio arteko aituezinen erruz?

Hondartzako harea garauak beste.

Atzokoak atzean itzita, gaur berton, zer ikusten dogu Bosnian, Ruandan, Txetxenian, Palestinan, begiratzen dogun edozein alderditan?

Esan leike gorrotoak dabilela abiada geldiezinean gizadiaren motorra. Betidanik izan da holan. Historian zehar gorrotoa nagusi.

Honen jakitun egoan Jesus. Baekian gorrotoaren esku izten baeban gizakia, mundua galdua zala. Gizakiak bagarik otsokumeak biziko zirala lur zabalean.

Eta honangorik jazo ez zedin, emon eban Jesusek arerioei parkatzeko agindu zorrotz hori.

Kristauona da bakarrik lege hau. Kristautasunaren berezitasun bakarra da arerioei parkatzeko lege hau.

Beste erlijioak ez deuke honako legerik. Geure ikurra da; maitasunaren gorengo gailurra.

Horregatik, kristau batek parkatzen jakin behar dau. Ezin deutso gorrotoari, irainari gorrotoz erantzun.

Gatxa, oso gatxa da parkatzea. Hori badakigu. Behar bada, dagoanik eta gauzarik gatxena.

Iraina gordina izan danean, esanak esan eta gero lur jota itzi gaituenean, kalteak neurtuezinak izan diranean, maiteen izan dozuna ostu deutsuenean, zauria zabalik, oraindik odol beroa dariola dagoanean..., holako orduetan arerioari parkatzeko santu baten bihotza behar da bularpean.

Gizaki hori santutasuna ikutzen dago, ziur baten, gorrotoa hausirik, etsaia asenide bihurtzen daualako.

Gorrotoa ez da gorrotoaz azpiratzen, maitasunez garaitzen da.

Nahiko zereginik daukagu arlo horretan. Gizartea, Jesusen aginduz, gorroto eta gogorkeriaren atzaparpetik askatu. Lan gatxa, baina ezinbestekoa.

Gorroto eta hasarrekeriaren ordez, maitasuna, parkamena, txeratasuna eta bakea erein behar ditugu lur zelaian. Agindu hori dogu. Gizartea anaidi eta bakeleku bihurtu.

Gorrotoaren odoletik datorren beste etsai bat norberekeria da. Minbizi bihurria hau ere. Giza bihotzak gaixotzen dituan mozorroa.

Norberekeria hurkoa baztertzea da; ahaztuta eukitea; norberenik inori emon gabe bizitea. Lurreko ondasunak gizaki guztientzat ipiniak izan dirala kontutan euki gabe, esker-eskumaz dana norberentzat pilatzea.

Beharrizan baten aurrean, laguntza emon beharrean, geldirik, beste aldera begira gelditzen dana ez da duin kristau izena eroateko.

Aurrekoa sufritzen ikusi eta geure bihotz ateak giltzez gogortzen baditugu, ezin esan Jaungoikoa gugaz dagoanik.

Norberekeria Jesusen aginduaren etsaia da; alkar batuezinak dira: "maite egizue alkar, neuk maite izan zaituedan lez".

Benetako kristaua beharrizanean dagoanaren ondoan aurkitzen da beti; gizataldearen arazoakaz arduratuta bizi da. Gizonaren kaltean egiten diran txarkeri guztiak ezetsiko ditu.

Kristaua ezin da mutu geratu zapalketa baten aurrean edo inoren odoletik bizi diranen aurrean, edota ankerkeria eta basatikeria lege eginik daukiezanen aurrean.

Gizaki guzti eta bakotxaren askatasuna eta duintasuna, gauza sagaratuak zaintzen diran lez, gorde eta aldeztu behar ditu.

Langabezian, gaixoaldian, drogapean, bakartadean, ezeukian, ezbeharrean dagozanen laguntzaile arduratuak ez bagara, nondikoa da gure kristautasun hau?

Honen inguruan, zorrotz dator Jesusen epaia Mateo deunaren hogeta bosgarren atalburuan: "Nire anai honeitariko txikiren bati egin ez zeutsena, neuri ez zeusten egin".

Norberekeria jaurti eta senideen arteko batasuna eta solidaritza jarri behar ditugu gizarte barriaren oinarri.

Baina, dana ez da orbela horreitio. Ebanjelioaren iragarpenerako ate zabalak diran beste alderdi on batzuk ere baditu gizarte honek.

Kristau fedetik hurrago dagozan ikurburu edo bereizgarri asko aurkitzen ditugu gizartean. Esaterako.

Gaurko gizakiak nortasun aberatsago bat agertzen dau. Ikasiagoa, ibiltariagoa da; pentsaera eta kultura mota gehiago ezagutzen ditu. Goi ikasketak herriagandik hurrago dagoz. Dedu eta ederrikusi handiagoak ditugu gizakiarentzat.

Gaur demokratagoak autortzen gara, egintzaz ez bada ere, senez behintzat. Gehiago irakurten da, gehiago ikusi eta entzun; komunikabideen sarea lurbira osora zabalduta dago.

Mota askotariko kultura eta pentsaerak sartzen jakuz egunero etxera; munduko bizigiroa hobeto ezagutzen dogu.

Honen ondorioz, inoren eritxiekin barik, geureakin jokatzen dogu. Buruz askeagoak gara. Nortasunean asko aurreratu dogu.

Eta guzti hau, zalantzarik gabe, gizartea onbideratzeko ate zabal bat da guretzat.

Ezbeharrean eta ezeukian dagozanakin hurrago eta sentikorrago agertzen da batez ere gaurko gizartea.

Gaur herrien arteko muga urrinak gainditu eta geure eskuz ikutzeko eran ditugu.

Argi daroagu kontzientzian munduko arazo eta ezbeharrak guztionak dirala eta guztion egitez eta laguntzaz garaitu behar ditugula.

Ate zabala dogu hau ere gizarte barri batera sartzeko.

Gizakiaren duintasuna ere goiburu, ikurrin eginik daroagu. Inoz ez beste giza zapalketa egiten da gaur, zoritxarrez, mundu zabalean. Baina, gaurko kultura aurreratuaren oina ez doa hortik.

Ez erlijio sailean, ez beste arlotan, ez da gizon zapalketarik onartzen. Horrek higuina dakar.

Ezin daiteke gaur txantxetan hartu gizakiaren duinta-

suna. Zapalduta bagarik, askatuta ikusi nahi dogu gizakia. Geure jabe egin gaitu Jaunak.

Askatasuna dogu gure doairik gorengoena, ederrena. Giza izatea damoskuna. Gure nortasunaren bizi-odola. Askatasuna lapurtzea gizakiari heriotza emotea lez hartzen da gaur.

Haugatik, burua pertsonatzat daukan edonok zapalketa horreek ezetsi eta borbòrrera botatzen ditu. Ankerkeriaren esku baltza ikusten da doilorkeria horren ostean.

Gizon eta emakume guztientzat egiazko askatasuna lortzen dogun egunean, egun horretan gizartea benetan Jainko herri egin dala esango dogu, bitartean ez.

Ondasunen lorpidean ere aurrerapen handiak egin ditugu. Harriak ogi bihurtzen ikasi dogu. Makinagintzan goiak hartuta gagoz. Ekonomia aberats baten bizi gara. Lorpen izugarriak egin ditugu giza bizitza alorrean...

Baina, zulo handi bat itzi dogu bete gabe: ez da neurri berean joan gizakiaren aurrerakuntza. Gizakia, gizaki lez, atzean geratu da.

Ez da gizakia hobetu; ez ditu gizatasunean goi mailak hartu; betiko grina zantarrak azpiratu ezinean dabil; ez da bizkorragoa, zuzenagoa, idekiagoa, anaikorragoa, bakezaleagoa...

Gogorra, basatia, berekoia ageri jaku. Burua hazi eta bihotza kazkartu jako.

Aurrerakuntzak, ona izatekotan, gizakia bere gizatasun guztian hartu behar dau. Ekonomia eta kultura arloan beste, buru, bihotz, adimen eta ontasunean aurreratu behar dau. Barru eta kanpoko ahalmen guztiak bateratu, kutsutu, bestela eskumotz, erdikin geratzen da.

Gizarte hau da Kristoganatu behar doguna. Horretan

jarri behar ditugu gure amesak. Ez dago iges egiterik. Jesusen Barriona eta mezua gizartearen bihotz eginik ikusi nahi baditugu, mundu hori dan moduan hartu, bertara jatsi, zailtasun guztiei aurrea emon eta ebanjelitzatze lanari gogotsu ekin beharko deutsagu.

Ebanjelizatze lana benetan hartu. Ez daitela izan mihingaineko hitz hila, edota parrokiako papeletan hotzez eta ezinez hilten dan egitamua.

Berbak agoan handitu, egintzetara eroan gabe. Erraza da huts honetan jaustea.

Honako zerbait jazo jaku beste hitz handi eta eder askorekin ere. Esaterako, "Maitasun" hitza agotik kendu gabe darabilgu. Kristaua da, kristautasunaren erdigunea eta bihotza.

Hau holan izanik, maitasun hori ez da gugan ikusten. Hitz mutua da.

Eliza Jainko herri dala esaten dogu. Hitz handia hau ere, eztia dariola diñoguna. Baina sendi txiki, apal hori hotzak hil aginean dago seme-alabak etxetik iges egin eta bertanbehera itzi dabelako.

"Pobreen elizak" ere arrakasta handia dau gaur. Kristau prestu askok txiroen aldeko ekintza hau lehenengo maillan jarri dabe.

Euren kemenaren sariz, txapela kentzea merezi dabe, baina beste asko ez dira inoz pobreekana hurreratu.

Ebanjelizatze hitz honegaz ere barritsukerian jausi geintekez.

Aipatu eta aipatu, idatzi eta idatzi, pastoralgintzarako oinarri lez, turuta soinuz, lau haizetara hotsegin, eta gero, ezinaren erruz, edota ardurakizunik ezagatik, kutxa barruan hautsez beterik gorde.

Ez dogu lana ganoraz eta taiuz hartzen. Ona litzake hemen damu egintza bat edo onduteko asmo sendo bat

hartuko bagendu. Bestela hitz jarioan joango jakuz gure asmo ederrak.

Hona hemen gure lanaren jomugarik gorena, hau da, Jesusen Barrionaren ederra gizakiari jakineraztea; Jesusen salbamenaren gozoa eta poza sentieraztea, txastatzen emotea.

Jaungoikoaren maitasuna eta errukia, ekaitz antzera, ezinbestean, gure gain jausi eta hutsitu dirala iragarri; Jaunak gurekin eginikoak gizakume guztiai iragarri, hauxe da gizakiari irakatsi behar deutsagun Jaungoikozko mezua.

Batez ere, mezuaren alderdirik jakingarrienak kontutan izan behar ditugu ebanjelioa oihukatzean.

Zeintzuk diran hango harri bitxirik baliotsuenak agerterazo.

Gure lehenengo agerraldia, zeruko Aita ezagutzen emoteko izango da, hortxe dagoelako mezuburua.

Jaungoikoa gure Aita da, Aita. Gu bere seme-alabak egin gaitu eta alkar neba-arreba. Jesukristo gure Jaunaren Jaungoikoa eta Aita berbera da gure Jaungoikoa eta Aita ere.

Aita hori ezagutzen eta maitatzen irakatsi behar deutsagu guk gizakiari.

Aitaganako maitasun hori sugar bizi bihurtu gure barruan. Geurea egin. Paulo deunak esaten ebana:

"Ziur nago ez heriotza ez bizitza, ez aingeru, ez nagusi, ez oraingo edo geroko ezer, ez indar, ez gorengo, ez beherengo, ez beste izakiren bat; ez dirala gai Jesukristo gure Jaunagan dagoan Jaungoiko maitasunetik guri alde eragiteko" (Erro. 8,38).

Kontuz hemen zelako irudipean agertzen dogun Jaungoikoaren arpegia gizakien aurrera ateratzean.

Ez daitela izan, gaur arte egin dogun lez, Jainko hotz, gogor, urrun, ahaltsu, zigortzaile, misterioz beteriko baten irudia.

Horrek kalte handiak ekarri deutsoz kristau herriari. Gaur ere, batek baino gehiagok maite dabe guzurrezko Jaungoikoa edo idoloa.

Bai hitzez bai egitez, Jaungoikoatzaz mintzatzean, beti ezaguera eta zentzun handiz egin behar ditugu gauzak, Jesukristok iragarritako Jaungoikoaren ordez, geuk geure kasketean ikusi eta asmautako Jaungoiko antzeko bat iragarri ez dagigun.

Idolo egileak izan gara askotan.

Garrantzi handiko ikuspuntua ikutzen dogu hemen, beraz, ez ditugu hankaz gora bota behar egiaren oinarriak, neurtu ezinezko kalteak sortuko gendukez eta. Argi esango dogu.

Kurutzean hil eta hirugarren egunean hilen artetik berbiztu zan Jesukristogan agertu zan Jaungoikoa eta Aita da hotsegin eta iragarri behar doguna.

Honen lekuko, borobil-borobil dator hemen Joan apostoluaren esaldia:

"Izan ere, Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra emoteraino maite izan dau: Beronegan sinistu dagian inortxo ere galdu ez daiten, betiko bizitza izan dagian baino. Izan ere, Jaungoikoak bere Semea mundura ez dau mundua epaitzeko bialdu, beronen bidez, mundua salbatu daiten baino" (Jn 3,16)

Zeruko Aitak bere Seme Jesus bere maitasunaren ezaugarri eta erakusgarri lez bialdu deusku. Ez dau bialdu mundua epaitzera, beronen bidez mundua salbatua izan daiten baino.

Aitak ez dau bere seme-alabarik kondenatu nahi. Ez dau inortxo ere kondenatzen. Gizakia, inoz kondenatzen bada, bere erruz kondenatuko da.

Jaungoikoak eskeintzen deutsan salbamen doaia egiz ukatu, ezetsi eta zapuztuten dauanean izango da hori.

Barriro entzungo deutsagu Joan apostoluari:

"Auzi-gaia hauxe da: mundura argia etorri zala, eta gizonak argia baino iluna maiteago izan ebela, hareen eginak okerrak ziran-eta" (Jn 3,19).

Aitak eta Semeak inor kondenatzen ez badabe, guk ere ez. Guk gitxiago. Kontutan izateko oharra.

Jaungoikoak deuskun maitasun hau, geure aldetik, bihotz barritze baten eske dago.

Jaungoikoaren maitasunak salbau baneu, Jaungoikoa nigan isuri bada, bere seme edo alaba egin baneu, alkar neba-arreba egin bagaitu, berezkoa da guk ere geure aldetik Jaungoiko hori geure Aitatzat hartzea.

Beragaz maitasunezko hartu-emonak eta ederrikusiak izatea, Beragaz semetasun nahiz alabatasun gozo-beroan bizitea.

Eta honeri bihotz barritzea deritxogu; Jaungoikoaren erreinua gugan hartzea.

Jaungoikoaren erreinua ez da hemengo edo hango lurralde bat; erakunde bat edo beste; ez eta Eliza bera ere

Beste zerbait politagoa, hurkoagoa, txukunagoa da.

Jaungoikoari geure bihotzera, fedearen eta maitasunaren eskutik, sarrera zabal, hunkigarria emotea da. Jauna geugan hartzea.

Jesusen berbak geureak egitea: "Bete da aldia, eta Jaungoikoaren Erreinua hur dago; ondu zaiteze, eta sinistu Barri Ona"(Mk 1,15)

Hementxe dago ebanjelizatzearen oinarria. Jaungoikoa fedez hartu eta maitasunez Haren otseintsara geratu.

Jaunaganatu dan gizaseme-gizalaba Jainko bideetatik doa. Jauna hartzen dau maisu eta gidaritzat. Haren berba eta irakatsietatik bizi da.

Bere gogapen, erizpide eta gainetikoak irakatsi honen inguruan pilatzen ditu. Hari horretatik daroaz.

Munduko arazo eta gorabeherak ere ez ditu handikeria, norberekeria, irabazte, gozamen edo mundu-zalekerigaz grinatutako begiz begiratzen Jesusen begiz baino. Ebanjelioa dau argizuzi.

Ebanjelioko harri bitxiak maitatuaz, bereak egiten ditu; maitasuna, anaitasuna, lagunartekotasuna ditu biziarnasa; lagun hurkoaren zerbitzura lotuta bizi da; bizitza apala eta giza itzala zer diran ondo ikasita deukoz; errukitzen eta parkatzen daki; era guztiriko gogorkerien etsai da; mundu zalekeriak ez dau itsututen...

Bere onaren bestean, besteen onaren bila dabil; bere buruak beste, besteenak ardura deutse.

Ez dabil asko eukitearen atzetik, deukazanak ondo zatitzen baino. Zuzentasunaren bila dabil, bakotxari berea emotearren; gorrotoari uko egiten deutso; hutsegiteak parkatzen daki bere burua ere pekatari ikusten daualako; bakegilea da, bakea munduko eguzkia dalako; Erreinuaren alde dabil, Jainkoaren seme nahiz alaba eta herrikide leial eta zintzoa izan nahi daualako.

Jaunaganatu dan fededun hau, gero kristau batzarrera sartuko da.

Babesleku bat behar dau bere fedea indartu eta sendotzeko. Lagun artean bizi-goritzen da fedea. Horixe da biderik onena eta ziurrena fedea sustraitu eta heldutasunera eroateko.

Kristau batzarrean aurkituko dau fedea aberats bizitzeko behar dauan guztia.

Han eskolatu eta jakintsu egingo da Jaunaren hitza entzun eta hausnartuz, sakramentuak hartuz, otoitzaren eta eukaristiaren odola edanez, gogoa Jaunaren bideetan tinko eta bizkor zaintzeko.

Baina kristau batzarretan parte hartzeko gogorik agertu ez balegi, horren arabera, oraindik ez dala guztiz bihurtu esan beharko dogu.

Ez dauala oraindik Ebanjelioa osoan bereganatu.

Edota, beste hau ere izan daiteke. Kristau batzar hori, Eliza hori ez jakola begiko, gogoko. Horregaitik, neketsu egiten jako bertara hurreratzea.

Honako kristau asko aurkitzen ditugu gaur. Kristogan sinistu, baina ez Elizagan. Kristori entzun, baina ez Elizari. Kristogaz egon, baina ez Elizagaz.

Zerbaitek huts dagi hemen. Oker handiren bat dago, maitasun biak txingar batetik sortzen dira eta.

Nire ustez, honek holako gogoeta sakon batera garoaz. Zergatik jazoten da hau? Zergatik dabil hain zabal gaixo hau?

Erantzunari bazterrak ondo hartzera behartzen gaitu itaun honek, bestela ez daukagu gizartea barriztatzerik ebanjelioaren indarrez.

Egoera eta zori honetan, Elizaren lana beti izango da eztabaidatua.

Honek esan nahi dau, ebanjelizatzean, gizadia Kristoganatzeko lanetan diharduenean, Elizak bere buruari ere begiratu behar deutsala; barrurantz begira jarri bertako hautsak eta lohiak ikusteko. Eliza bera ere ebanjelizatua izateko da, eten bako ekinez gainera. Ahula eta

pekataria dan ezkero, beti dago onbideratu beharraz borrokan.

Zeregin honetatik aske dagoala sinistuta balego, barriz, lainokerian, tolesgabekerian jausiko litzake; arrokerian.

Pekatari jantziz eta itxuran agertu behar dau jendaurrean Elizak ebanjelizatzeko orduan, une guztietan garbitu eta barriztatu beharrean aurkitzen dala apalik autortuz.

Orduan izango da sinistua, maitatua, onartua eta jarraitua.

Elizak beragandik hasi behar dau ebanjelizatzea. Fededunen batzarra lez bakar-bakarrik agertu beti, gainetiko eraskin eta gehigarririk gabe.

Itxaropenaren eta maitasunaren babesle eta iragarle. Adikor entzun eta hartu behar ditu, beti ere, Jaunaren hitza eta Espiritu Santuaren argitasunak eta Jainko herriaren agotik datozen oihu eta eskakizunak.

Orduan gertauko ditu gizartea aldatzeko gauza izango diran kristauak.

Gizartea ondu nahi badogu, beste hau ere egin beharko dogu kristauok: Elizaren ardura hartu.

Bateoa hartu dogun guztiok gara Elizan arduradun. Ez partedun bakarrik, baita arduradun ere.

Elizari dagokion guztia geure esku dago. Gainera, geurez daukagu eskubide hau, ez beste inok emon deuskulako. Ez gara inoren ordezko; ez inok deituak, ezta inok agindutakoak ere.

Bateoa eta sendotza hartu ditugun guztiok gara erabat arduradun Elizan. Hortik datoz gure eskubideak eta hortik baita ere gure eginbeharrak.

Laikoaren apostoladutza eliz apostoladutzaren zati bat da.

Jesus berbera izan da apostoladutza honetara deitu gaituana.

Bere aginduz gara misiolari.

Ardurakizun hau gogoratzen deusku, behin eta berriro, kontzilioak, hau da, Elizaren seme-alaba garan guztiok gagozala erabat beharturik ebanjelioaren ereintza eta zabalkunde hau gizartean egitera.

Hemen hitz argiz eta zorrotzez dator kontzilioaren agindua:

"Gogoratu begie gotzain eta abade diran guztiak apostoladutza egiteko eginbehar hori fededun guztiena dala, nahiz abade nahiz laiko izan, eta laikoak ere berezko partekide dirala Elizaren zabalkundean" (AA.25).

Hau esatean kontzilioak, zalantza barik, abadeei honako hau gogoratu nahi izan deutse: ohitura zaharrak alde batera itzita, aurrerantzean ez dagioela laikoari Elizan aterik itxi, laikoak ere honetan bera bestean arduradun dirala eta

Fede ezak jotako mundu bat daukagu aurrean. Hor dago gure lantegi barria. Guri buruko mina dakarkigun egiteko arduragarria.

Baliteke guretzat, gaur eta hemen, lanik nekegarriena izatea. Ez gagoz gertauta lan hori egiteko, burutzeko. Ez gagoz horretarako eskolatuak.

Beste eskola baten haziak eta heziak izan gara. Lantegi zaharretan saiatutakoak.

Guk orainarte apostoladutza egiteko erabili ditugun araubide eta tresnak, gaur zaharturik geratu dira.

Gaur modu barriak, erabide gaurkotuak erabili behar ditugu. Eta hor dago gure kakoa.

Eskola zaharrekoak garan lez, ez dakigu gaurko apostoladutza honi bide barriak zelan urratu; nondik ibili; zer eta zelan egin.

Gure aldi guztian, apostoladutza egiteko toki egokia

eta bakarra guretzat eliz barrua izan da. Leku sagaratu hori izan da beti gure saio lurra.

Aldara ondotik iragarri eta oihukatu dogu beti ebanjelioa. Giro eta inguru horretan egin ditugu gure eliz lanak.

Bestetik, gure herria kristaua izan da; holan uste izan dogu behintzat. Elizkizunetara zintzo etorten izan da; elizan janaritzen izan dau bere erlijiotasuna, Jaunaren hitza entzunaz eta Jaunaren Gorputza hartuaz.

Herria ere erlijinotasun horretan bizi izan da eta, beraz, ez dago eginda gaurko era barrietara. Ez ditu ezagutzen bide horreek. Ez dago gertatuta gaurko bizigiroan apostoladutza egiteko.

Apostoladutza hori ez da gauza gaurko mundu barri honen beharrizanai erantzuteko. Munduak daroan abiada izugarri horri jarraitu ezinik geratu da Eliza gaixoa.

Bide ezezagunak urratu behar ditu, molde barriak egin; pastoralgintza nahaspil baten ilunean argiak biztu; ilunpeak eguzkitan jarri. Inondik ere ez da lan erraza.

Honen arabera, gure pastoralgintzak gaur aurre bi ditu: alde batetik, euren fedea elizatik bizi dabenak, gure eliztarrak dagoz, eta bestetik, elizatik urrundu diranak edota inoz etorri ez diranak.

Lehenengo eta behin, geure elizkideak gertatu behar ditugu, abadearekin batera, pastoralgintza barri horretarako.

Mundu honetatik eraz ibilten dakien kristauak atara behar ditugu. Gaurko mundua aitzeko gauza izango diran fededunak.

Gaurko egunetarako, ez da kristau ona asko errezatzen dauana, elizan ordu asko emoten dituana; buru ukatze eta barau zalea; munduaren kiretsaz kutsutu ez egitearren, ahal dauan guztian, mundutik urruntzen dana, mundutik datorren guztia txartzat daukana.

Kristau onak hori guzti hori egin behar dau; eta zenbat eta gehiago, hobe. Horretan nekegatxa izan behar dau. Baina horrekin bakarrik ez da nahikoa. Mundurantz ere urten behar dogu.

Jendartean ibili, besteakin nahastu. Eta hortxe, jendaurrean jarri behar dogu agirian eta zutik gure fedearen argia, autormena.

Zelan egingo dogu hori?

-Gizarteko zeregin eta arazoetan parte urtena hartuaz; aurrelari ibiliaz. Kultura ekintzetan, bada, geu aurrenengo; zapalketa bat non eta kristaua han zapalketa hori salatzeko...

Zuzengabekeria, txarkeria, gogorkeria, herri arazo bat non eta kristaua han lehenengo tokian. Beti aurrenengo sozial ekintza guztietan. Aurrenengo beti justiziaren eta onaren bilaketan.

Gizakiaren duintasuna eta jasokuntza jokoan dagozan mugida guztietan tarteko. Gizartearen gorabehera eta joan-etorrietan kristauak beti aitzindari.

Eta honez gainera, eta hauxe da garrantzitsuena, bere egintza guztietan kristau seilua jarri behar dau. Kristau dalako jokatzen dauala horretara jakinean jarri. Bere fedeak eskatzen deutsan portaera besterik ez dala jokabide hori.

Hau da, geure kristautasuna markatu!

Munduak hauxe nabaritu behar dau gugan: gu besteak lakoxeak izanik, gure bizikera ez dala euren parekoa, guztiz desbardina dala.

Ezaugarri hori eroan behar dau fededun baten bizikerak. Hortxe dago akatsa, ikurra, gu besteekandik nabarmendu eta bereizten gaituan marka.

Hauxe da Jesusek emon euskun ezaupidea ere: "Ho-

netantxe ezagutuko dabe guztiak neure ikasle zareena: zuek alkar maitatzean" (Jn 13,35).

Gure bizierak daukan alde handi eta eder hori ikusteaan jarriko da mundua guri begira.

Horixe izan zan lehenengo kristauak egin ebena ere. Euren biziera eredugarriak guztien aurrean agirian jartean, ingurukoen begiak zabaldu eta eurekana begira jarri zituen.

Harriturik egozan orduko paganuak kristauen biziera horregaz. Begira zelan maite diran; zelan laguntzen deutsen elkarri; zelako gauzak egiten dituen, esaten eben kristauen goratzarrez.

Bide hori erabili eben lehenengo kristauak paganuak kristau federa ekarteko.

Hau argi agiri da Apostoluen Eginetan: "Apostoluak Jerusalenen mirari eta harrigarri asko egiten ebezan-eta, guztiak bildurrak hartu ebezan. Fededun guztiak, barriz, bat ziran, eta guztia alkarrentzat euken, eta guztien artean banatzen eben, bakotxaren beharrizanari egokionez" (AE. 2,43).

"Sinistedun-taldearen bihotza, barriz, bakarra zan, baita arimea ere; eta hareitariko inok ere ez eban esaten ezer berea zanik; gauza guztiak guztientzat ebezan, ostera" (Ap. Eg. 4,32).

Gaurko apostoladutzaren bidea ere hortixek doa. Mundua geuri begira jarri behar dogu geure bizitzaren eredutasunez.

Horrek bizkortzen ditu bihotzak. Horrek sortzen dau barruan bizikera hori geurea egiteko guraria. Kristautasunera bihurtzeko gogoa.

Kristau jatorrak bere izakera, pentsaera, eritxi eta portaeretan erakusten dau beraren eta besteen artean dagoan aldea. Berak ez dituala gauzak besteen antzera egiten. Bera ebanjeliotik bizi dala.

Jarraibide eredugarri hori emonaz, ebanjelizatzen dau gaur kristau jatorrak. Urari goitik eginaz doa.

Gogorkeria, mendekua, gorrotoa, heriotza nagusi badabiltzaz munduan, berak, guzti horren ordez parkamena eta etsaien maitasuna jarriz gogorkeriak eta heriotzak bihotzez ezetsiko ditu danen aurrean.

Mundutarra bere interesen bila badabil, egiazko kristaua besteen zerbitzuari adi dago. Mundutarrak lurreko ondasunak pilatzen badihardu, fededun zintzoak goitiko ondasunak eskatzen ditu.

Mila zati eginik dagoan gizarte gaixo honek, agoko ogia bestean anaitasunaren beroa eta besartea nahi ditu.

Alkarren aitumenean, ederrikusian, bakean eta laguntzan, anaitasun horren legean eta eraginean bizi.

Geure bizitza, ebanjelioaren arabera eredugarri eginik badaroagu, ebanjelizatze ona egiten dihardugu. Bide onetik goaz.

Hoba da ilunetan egotea baino argi muskil bat biztutea. Argitxo hori gure itxaropenaren ikurra da. Bidean arnasatzen gaituana.

Gaurko mundu hau ilunez baltz-baltz eginik ageri jaku: itsukeria, herrien atzerapena, jakin-eza, enda eta gizakien arteko bereizketak, gizarteko gosea, gogorkeriaren izualdiak, gerrak, eta munduko gainetiko gatxak hor dagoz aurrean ilun hori zarratuago eginez.

Egoera hori madarikatzeaz eta besoak beso gain jarraitzeaz ez dogu ezer lortuko. Iluna baltzago egin eta irtenbidea galdu baino ez.

Honako orduetan, onena argi txikitxo bat iziotzea izaten da. Argitxo honek, borondate oneko beste gizon eta emakume askok biztutako argitxoekin bat egiten dauanean, ilun hori arindu eta argiune handiak zabalduko ditu.

GIZAKI BARRIA

Kristauok, betidanik, gizadia hobetzeko asmotan ibili gara. Asmo eder horren atzetik gabiltzaz gaur ere, jo eta ke.

Gizarte hobeagoa, zuzenagoa, maitekorragoa, batuagoa, bardinagoa... Jesusen begi-bihotzetan taupadaka dabilen mundu anaikorrago hori gizarteratu, plazaratu. Gure egun eta une guztietako amesa da; gure gogoan lehenengotasuna daroan helburua. Guk laztan dogun guraria.

Aldiak aldi, gizatalde handiak sartu dira borroka honetan. Mota askotako gizataldeak eta era askotako iraultzak egin dira, menderik mende, muga gorengo hori gainditzeko asmoz.

Odol eta izerdi asko isuri da bazterretan; gizon eta emakume trebe eta azkarrik asko erre da bidean, mundu hobeago horren bilaketan ebizala. Diru asko eralgi. Ahalegin izugarriak egin. Lurbira osoa gitxi litzake asmo eder horren irrikaz esan eta idatzi diran harrigarritasunak barruan hartzeko.

Hor gabiltzaz atzera eta aurrera, gure ames nagusi horri ertzak hartu ezinik. Batetik eta bestetik, argiune eta ilunaldiak batera datorkiguz.

Gaur albiste pozgarri bat eta hurrengoan ilunaldiak Ruanda, Burundi, Txetxenia, Sarajevo eta beste hainbeste eta hainbeste tokitatik. Irudi mingarriak, lotsagarriak,

hor ikusi ditugunak; zanetako odola lertzeko bestekoak.

Gure ahalegin guztiak ezinaren horma kontran hausten dirala eta, azkenean, ezinaren sentimena nagusitzen da gugan. Zenbat gogo on eta egintza goragarri iruntsi dituan ezin horren zuloak.

Zer jazoten jaku, ba? Non dago gure hutsa? Zer besterik egin behar genduke? Zein da bide zuzena? Zergaitik ez dogu lortzen mendi gaina?

Nik esango neuke guretzako tontor hori ia-ia zapalduezina dala. Gatxa, oso gatxa. Bakarrean igonezina; laguntza goitar baten eskua behar dogula lan hori amaitzeko.

Ezintasunaren orpoa, sustraia, barriz, geugan dago. Geu gara errudunak. Danok eta bakotxa.

Geure izate-gunean daroagu harra. Zein dan gaixo hau? Gure nortasunaren hazur eta mami dan norberekeria dogu. Geure buruzalekeria. Sustraitik gora norberekoiak gara. Gure izatearen arnasea lez dogu buruzalekeria hori.

Eta horrexek galtzen gaitu. Horrexek gaiztotu. Horixe da, azken baten, gizartearen bihotza, goitik behera eta alderik alde, gaixotzen dauan harra. Gizarte hau onduezina egiten dauan gaizkin erruduna.

Beraz, ez da nahikoa azaletik hara aldakuntza batzuk sartzea; moldaketa, apaindura batzuk egitea. Zuzen-zuzenean, izatearen sustraira jo eta hortxe gaiztotuta dagoan gaixo harra hil behar dogu; erro ustel hori errukirik gabe ebagi.

Grina txar hori haustu eta menperatzen ez dogun bitartean, ez gizaki barririk, ez gizarte hoberik, ez dogu izango. Hil edo biziko baldintza da. Hau gabe ez goaz inora. Beti txarrean geldotuta egongo gara.

Jesus honen jakinean egoan. Eta berak aurkitu eban osakaia gaixo honentzat. Osakai horren izena "maitasuna" da.

Odol txar guztiak atera, norberekeriaren erroa sustrai sustraian erre eta erro gaizkin horren ordez maitasunaren kimu barri, gazte, zindoa sartu gizakiaren izatean, bihotzean. Horixe da Jesusen asmo nagusia.

Maitasuna da, maitasuna bakarrik, gizakia eta, gizakiakin batera, gizartea onera aldatu leiken legamina.

Gizon eta emakumeen arteko hartu-emonetan, giza alkartasunean, alkarren maitasuna oinarri, odol eta bizi arnasa lez sartzen ez dogun bitartean ez dogu lortuko, inondik ere, gizarte itxurazkorik.

Hortik, Jesusen agindu barriak daukan garrantzia.

Horra zergaitik jantzi eban Jesusek maitasun agindua holako premiatasun eta beharkizunez: bere Erreinuaren, gizarte barriaren arnasbide izango zalako.

Hain zuzen ere, gizartearen bizitzarako garrantzi handiko oinarria dalako jaso eban maitasuna lege mailara: "Agindu barri bat damotsuet: alkar maite dagizuela".

Agindu horren barruan doa kristautasunaren zana, izatea. Hortik baita gure ondorioa ere: maite dauana bizi da; maite ez dauana hilik dago. Maitasunik gabe dagoana ez da ez Jaungoikoaren seme edo alaba, ezta hurkoaren senide. Hilik dago.

Maitatzea Jesusekin egotea da; ez maitatzea, ostera, beragandik urrun egotea. Jesusegan egia aurkitzen dogu, eta bidea, eta bizitza. Gure bizitzaren nondik norakoa, zentzun osoa.

Jesusen irakatsietan, danak goitarrak izanik, bi dagoz besteak baino urtenagoak diranak: bata, Jaungoikoari dagokiona da eta bestea maitasun aginduari. Mundua argitu daben eguzki bi lez dira. Munduaren ardatza zeharo aldatu daben egi iraultzaile bi.

Iraultza handiagorik ez da ezagutu gizartean, ez eta ezagutuko ere. Jesusek sortutako gizarte barriaren oinarriak dira. Oinarri bi horreen gainean jasoko dau Jesusek bere Jainko herri barria.

Lehenengo eta behin, Jaungoikoaren irudia garbitu eta argitu deusku Jesusek. Jaungoikoaren egiazko izatea, arpegia iragarpendu.

Jesusi itanduten deutsagu nor dan Jaungoikoa eta Jesusen erantzuna: Jaungoikoa Aita da! Aita!

Iragarpen honegaz erlijioari buruz izan ditugun eskema guztiak hausi ditu Jesusek. Beste Jaungoiko bat sartu dau mundura. Maitagarritasunez eta samurtasunez jantzi dau erlijio baratza. Ordutik hona zenbat "gure Aita" esan dan munduan! Zenbat agotatik urten izen santu horrek!

Ez dago alde txikia aita izatetik epaile izatera. Lurretik zerura bestekoa. Argitasun zoragarri, ezinbesteko hori, Jesusi eskertu behar deutsagu.

Jesusen Jaungoikoa Aita da. Maitatzen eta parkatzen dakian Aita. Jesusen inguruan sendi barri bat pilatu dauan Aita. Eta sendi horren lege nagusitzat maitasuna jarri dauana.

Gure buru gainetan zigorra noiz hausiko begira dagoan Jaungoikoa gogo, bihotz eta indar guztiz maitatzea gogorra ez eze, ia ezinezkoa egiten da. Jainko horri maitasuna baino bildurra gehiago izango deutsagu.

Horixe jazo jakon juduen herriari ere. Jaungoiko zigortzaile horri bildurra hartu eutsan eta hortik beragaz maitasunezko hartu-emonetan sartu beharrean, albotik, lege zaintzaile bihurtu zan.

Legea zaintzean Jainkoa gurtzen ebela eta egozan, baina Jaungoikoarekin aita eta seme-alaben arteko hartu-emonak ebagita geratu ziran.

Lege zalekeria hau sarritan txartzat jo eutsen Jesusek juduei, legearen Jauna barik, legea bera gurtzen ebelako.

Jesusentzat maitatzea ez da legea betetzea, esanak egitea, honetan edo haretan jardutea; zerbait osoagoa, beteagoa, sendoagoa da: bi alkar maite diranean, han ez dago legerik; maitasunak egiten ditu legearen ordeak.

Maitaleak ez dagoz alkarren esanetara, maitaleak alkarrenak dira, bata bestearenak. Gorputz eta arimaz bat izatea da maiteminduen legea.

Halan da guztiz ere, Jesusek legeari itzal handia eutsan. Ez eban ostikoperatzen. Oso-osoan, lotsaz eta arretaz betetzen eban.

Ohitura zan lez, hutsik gabe, larunbata guztietan sinagogan aurkituko dogu; legez agindutako jaietan erromes Jerusalenera joango da. Sinagogetan mintzatuko da; pazko jaiak ospatuko ditu; otoitz, barau eta limosna egiteko legea beste edozeinek lez beteko dau; bere janzkera ere judeu batena izango da; herri agintariei ere men egingo deutse...

Berak esaten eban bere esaldietan, legea kentzera barik legea betetzera etorria zala.

Baina, legearen gainetik, legearen Jauna egoan. Eta Jaun honen arpegia, estalki guztiak kendu eta mila irudi eta eratara ageri-agerian jarri nahi izan euskun.

Jesusek eskatutako maitasun hau hirukoitza da: Jaungoikoagandik gizakiarengana datorren maitasuna, hau da, Jaungoikoak gu maite gaitu. Gizakiagandik Jainkoarengana doana, hau da, guk Jaungoikoa maitatu behar dogu. Gizakiagandik gizakiarengana doana, hau da, guk alkar maite dogu.

Maitasun hau, gainera, zatitu eta banandu ezina da. Jaungoikoa bai eta gizakia ez, edota gizakia bai eta Jainkoa

ez, joko hori ezinezkoa jaku. Hirurak batera joan behar dabe benetako maitasuna baldin bada.

Gaur sarritan jausten gara honako tentaldian. Jainkoa bihotz guztiz maitatu eta gizakia urruntxo itzi. Jainkoari ordu asko eskeini eta gizakiari gitxi. Edo gizonari dana eta Jainkoari hondakinak.

Gizakia maitatzean Jainkoa maitatzen dala agoz ago entzuten dogu gaur. Eta honen araura, gizakiari begiratzearren Jaungoikoa bigarren edo hirugarren maila baten baztertuta izten dogu.

Hemen nahaste barik ikusi behar ditugu gauzak. Ertzak ondo zehaztu.

Jesusen begietan maitasun biak bat bera dirala, esan dogu. Egiazko maitasuna fedetik datorrena da. Fedeak maitasuna sortu bear dau, bestela ez da fedea. Eta fedetik ernetako maitasunak Jainkoa eta gizakia oso-osoan besarkatu behar ditu, hemen Jaungoikoa eta gizakia biak bat eginik doaz eta.

Honela dirausku Joan apostoluak: "Maite dot Jaungoikoa, norbaitek badiño, eta bere anaiari gorroto badeutso, horrelakoa guzurtia da: ikusten dauan anaia maite ez dauanak, ikusten ez dauan Jaungoikoa ere ezin maite daike eta. Agindua dogu Aregandik: Jaungoikoa maite dauanak, bere anaia ere maite izan dagiala" (1 Jn 4,20).

Maitasunez egina da, beraz, Jainko sendiaren bihotza. Zergaitik hori? -Jaungoikoa bera ere maitasuna dalako. Jaungoikoaren izatea, barrua maitasuna da.

Holantxe irakurten dogu Joan deunaren epistolan: "Jaungoikoa maitasuna da, eta maitasunean dagoana, Jaungoikoagan dago, eta Jaungoikoa ere bai haregan" (1 Jn 4,16).

Eta jarrai dagi Joanek:"Honetantxe dago maitasuna.

"Izan ere, Jaungoikoa guk maite ez genduala, Berak maite izan ginduzan lehenen" (1 Jn 4,10).

Horregaitik gara gu sinistedunak: Jaungoikoak deuskun maitasun hori ezagutu eta sinistu dogulako.

Jaungoikoak maite gaituala jakite honek, barriz, poztasuna eta zoriona dakarkiguz bihotzera. Hortixik jagiten da gure bihotzaren edertasuna, alaitasuna, zoragarritasuna.

Jaungoikoak maite gaituala jakin eta zelan ez izan gu zoriontsu? Zelan tristerik bizi? Zelan egon nahigabepean? Noren bildur izan?

Honez gainera, ziurtasun handi bat damosku bizitzarako Jaungoikoak maite gaituala jakite honek. Jaungoikoa gurekin doala, geure inguruan dabilela, pozaldian nahiz nekealdian, osasunean nahiz gaixoaldian, une guztietan Jaunaren besoetan gagozala jakiteak, gu poztuez gainera, gure bizitza zuriz jantziten dau. Hori adiskiderik onenaren begi eta babespean joatea lez da guretzat.

Inoz ere ez gagoz gu bakarrik. "Baina ni ez nago bakarrik, Aita neugaz dago eta" (Jn 16,32).

Gogapen hau da gure bizitzaren bultzindarra, motor bizigarria.

Argiz janzten ditu gure bizitza eta heriotza. Horregaitik, Jaungoikoak maite gaituanaren ziurtasun hau, iragarpen hau, gure bihotzetan barru-barruraino sartuta ikusi nahi dau Jesusek.

Seme txikiak aitagan dauan uste osoa guk ere Jaungoikoagan. Ezbai izpirik ere ez honetan.

"Ni honengan eta zu nigan, oso-osorik bat izan daitezan, eta munduak ezagutu dagian zeuk bialdu nozula, eta zuk ni maite izan nozun lez maite izan ditudala nik honek" (Jn 17,23).

Aitaren guganako maitasun hau izan zan Jesusen hitzaldi guztien ardatza: "Nik zeure izena agertu deutset eta aurrerantzean ere agertuko deutset: zuk izan deustazun maitasuna eurokan egon daiten eta neu ere bai eurokan" (Jn 17,26).

"Aitak maite izan ninduanez maite izan zaituet neuk ere; iraun egizue nire maitasunean" (Jn 15,9).

Bere bizitzako azken hitzak ere, bere Aitari zuzendu eutsazan: "Aita, zeure eskuetan izten dot nire espiritua" (Lk 23,46).

Jesusen iragarpen nagusia Jaungoikoak gu maite gaituala izan bada; bigarren iragarpena, Jaungoikoak maitatua azatea nahi dauala da.

Berezkoa da gurari hau. Maitasunak maitasuna eskatzen dau, esaten dogu. Gure burura berez datorren egia da.

Ezer bagara, maitetu egin behar dogu maite gaituana, horren duin danean; eta nor Jaungoikoa baizen duin?

Horregaitik Jaungoikoak gu maite gaituan lez, guk ere bera maitatu behar dogu, ordezko maitasunez. Jesusen irakatsien oinarrietan dago jakinezko egi hau. Hortik doa ebanjelioaren indar guztia, irakaspen guztia. Hori josi nahi dau sendo Jesusek gure buru-bihotzetan.

Horretara beharturik gagoz, bestela ez ginakez duin izango seme edo alaba izenik eroateko. Zetarikoa litzake aita maite ez dauan seme edo alaba kaskarro hori?

Jaungoikoa gizakiari maitasun eske! Sinistuezina dirudi, baina ukaezina ere bai. Holantxe da.

Honen ezaugarri eta lekuko Jesus bera dogu. Aitak bialduta etorri da mundura, Jaungoiko hori gure maitasunaren egarriz, irrikaz egoala guri iragartera, esatera.

Beraz, benetan hartu behar dogu zeregin hau. Geure

burua jatortzat badaukagu, behintzat, Jaungoikoak bera maitatzeko egiten deuskun eskeari gogo guztiz, bihotz guztiz eta indar guztiz erantzun behar deutsagu. Horren agindu zorrotza dogu legean. Hau egin ezean, ze gizon edo emakume garau ginakez gu!

Zorionez, betidanik, maitatzaile asko eta onak izan ditu Jaungoikoak; gaur ere, izarrak beste ditu lur zabalean zehar. Herrialde barriak zabaldu dira ebanjelioaren argira. Enda eta hizkuntza guztietan goraltzen da Jaunaren izena.

Bestalde, zoritxarrez, ateoak ere ugarituaz doaz bazterretan, batez ere kristau argia aurrenen hartu eben herrietan. Gaurko kultura mundutar hau ez da, zinez, lurrik onena ebanjelioa hartzeko.

Gaurko haize gaiztoak kizkalduta, eremu bihurturik dago: ez lorarik, ez fruturik ez da ernetzen bertan. Bazterrik gabeko hareatza eginik dago.

Jaungoikoari barik urrezko zezenari emoten jako gurpena. Baina, eremuko hareatzan galdu dan gizakia estu eta larri, izerdiz eta nekez ahuldurik, urik gabe, gerizperik gabe, argiaren dirdaiak lausoturik, sor eta lor hara eta hona aurkitzen dan lez; holantxe, gure urietako eremuetan ere, gizon eta emakume asko aurkitzen ditugu sor eta lor etsimenaren gerizpean.

Ez dira zoriontsuak; urduri eta kezkati dabiltzaz barruko bakearen bila. Gogoa legor, ames eta pozik gabe, helburu guztiak bidean galduta.

Zer jazo jake, ba? Eremu bihurtu dira. Jaungoikoari uko eginik dagoz; fedea esamesa da eurentzat; Jainko seme-alabatasuna ipuinkeria; Kristo gizon hutsa; gizakiaren betikotasuna ames polit bat...

Gizakiaren oinarri guztiak dardara egin dabe hor; norakoa hausita jausi da; aurrera begiratzean, lainoa eta heriotzaren ate baltza ikusten dabe, itxaropenaren irtenbidea lez.

Heriotzarako eta ezerezerako mundura bialduak izan diran abereak lez ikusten ditue euren buruak; hortik, euren etsimen eta ilunaldiak.

Hegoak ebagita deukez goietara hegas egiteko. Lurreko ezkur artean atsegin bila egunak emon, ahalik eta ondoen bizi hemen laster hil egingo gara eta.

Azken tristea da izan, baina gaurko kultura mundutarrak gogo, bihotz eta indar guztiz irakatsi eta zabaltzen dihardun erlijio barria da. Eta, zoritxarrez, jarraitzaile asko eta asko ditu, euskalerrian hasita.

Voltaire-na ei da esakun hau: "Jaungoikorik ezpalego, asmatu egin beharko genduke".

Holantxe da izan ere. Oinarri bako etxerik ez dagoan lez, Jainko bako mundu bat ulertezina litzakigu.

Jainkorik gabe, gure bizitza eta heriotza zentzungabekeria hutsa litzakez; gizadiaren historia ere ulertezina. Jainkorik gabe gizakiok alkarren otso bihurtuko ginakez.

Jesusek Jaungoikoa gizaki guztien Aita ona lez agertu euskun.

Iragarpen handi honi esker, gizon eta emakumeok neba-arrebak gara. Jaungoiko Aitagan deuko sorburua gure neba-arrebatasun honek. Aita hori ezean, ezin izango ginakez gu neba-arrebak. Ezin amesik egin Aitaren betiko etxe zoriontsu horrekin.

Jesusen begietan, gizakia Jaungoikoaren seme nahiz alaba kutuna da. Jainko Aitak maite-maite dauan semea nahiz alaba. Beretzako egin dau goietako zeru eder hori. Jesusen kurutzeko odolaz seilatu bere seme-alabatasuna.

Martin Descalzo, idazle finak esaten eban, Jaungoikoak gure arimak banan-banan egiten dituala. Ez dituala danak molde batetik ateraten. Bakotxari bere nortasuna, antz-irudia eta bereiztasunak emoten deutsazala.

Hemen behean, beste edozeinek beste neke, oinaze, larrialdi eta zoritxar igaro beharko ditugu, loraz eta kurutzez egina baita gure bizitza, baina oinaze artean ere itxaropenaren argiak gidaritzen dau gure ilunaldia.

Orduan ere, Jainko Aitaren seme maite garala jakiteak, bakea, baretasuna, poza eta zoriona dakarkiguz gogo barrura.

Jaungoiko Aitak ez gaitu sekula bakarrik izten. Beti geure zain dago; beti geure arduraz.

Liluragarriak dira entzungo dituguzan berbak. Luze samarra bada ere Jesusen hitzaldia, gure pozerako baino ez bada ere, merezi dau gogoratzea.

"Badirautsuet: Ez arduraz ibili bizi izateko zer jango dozuen, ezta gorputza zerez jantziko dozuen ere. Ez da bizitza janaria baino baliotsuagoa, ala?, eta gorputza jantzia baino?

-Horra zeruko hegaztiak: ez dabe ereiten, ez batzen, ezta garautegietan gordeten ere; eta zeruko Aitak hazi egiten dauz. Ez ete dozue zuek areek baino gehiago balio?

-Eta jantziaz, zer dala eta zabize arduratsu? Horra, zelaietako lirioak: begira zelan hazten diran... Ez estutu, ba, zer jango dogu?, zer edango dogu?, zer jantziko dogu esanez... Zeruko zuen Aitak badaki guzti horren beharrean zagozena.

-Bilatu egizue lehenen Jaungoikoaren Erreinua eta Haren zuzentasuna, eta gauza guztiak gainezka emongo jatzuez. Ez estutu, ba, biharkoari buruz" (Mt 6,25).

Kristaua Jaungoikoak maite dauanaren ziurtasunean bizi da. Horixe da bere bizi-poza, bizi- arnasa. Barruko baretasuna dakarkiona. Aurrea argitzen deutsana.

Kristau itxaropenak damotso egiazko zentzuna gure bizitzari.

Tinko eta gogor iraunten badogu itxaropenean, barruko bakea eta poza izango ditugu gure lagun minak bizitzako egun guztietan.

Itxaropenean zindo oinarrituta dagozan kristauak, Aitaren ontasunean eta Jesukristoren erospenean deuke jarrita euren uste on guztia.

Aitaren besoetan aurkitzen dabe euren babesleku ziurra, eta Jesusen berbizkundean itxaropen horren ziurtasun hutsezina. Aitaren ontasunean eta Jesusen salbamenean oinarritzen da gure itxaropena.

Guzti hau sinisteko, barriz, sinismena behar da. Jaungoikoagan eta berak bialdutako Kristogan sinistu. Uste osoa jarri berak esan eta agindutako eskeintzetan.

Aita eta seme-alaben arteko hartu-emonak bizi. Maitasunezko bizitza bat burutu Jainko eta gure artean. Adiskidetasun estu, sakon, zintzo, benetakoa. Aitarekin hitz egitea. Kristorekin hitz egitea. Gure sentimen, asmo eta guraririk barrukoenak uste osoz berari agertzea; ilunaldietan argitasuna eskatzea; jauskeratan parkamena, beharrizanetan laguntza.

Tratu bero bat izan bion artean. Eta tratu honi guk otoitza deritxogu.

Zeruko Aitarekin gure hartu-emonak zelan bizi erakustera etorri zan Jesus. Jarraibide zabal eta aberatsak emon euskuzan honetan.

Batez ere, Jesus gizon otoizale agertzen jaku. Hauxe izan zan bere berezitasunetariko bat: otoilari nekegatxa zala!

Ebanjelioko orrialde bakotxean, edo Aitarekin edo Aitatzaz berbetan aurkituko dogu. Honetan asperrezina zan.

Batu daiguzan holako zehaztasun batzuk, geure jarraibiderako.

Jesus bateatua izan zanean, "otoitzean jarrita, zerua zabaldu zan" (Lk 3,21).

"Oraindino ilun-ilun egoala, jagi eta leku bakar batera joan zan, bakarrik, eta han otoitz egiten hasi zan" (Mk 1,35).

"Laguntaldeari agur eginda gero, mendira igon zan, otoitz egitera" (Mt 14,23).

Honako mila aipamen batuko gendukez ebanjelioan zehar. Jesus edo Aitagaz berbetan edo Aitari buruzko mintzaldian dago beti.

Osotara hartuaz, hiru maila edo atal nabaritzen ditugu Jesusen otoitzean.

Judua zan lez, judutarren artean legez ohizko ziran otoitzak, hau da, herri otoitzak egingo ditu. Edozein juduk lez, otorduetan mahaia bedeinkatuko dau; larunbatak zehatz zainduko ditu herritarrakaz otoitzera sinagogara joanaz; juduak, legez egunean hiru aldiz otoitz egin behar dabe eta berak ere hutsik gabe egingo dau otoitzaldi hori. Judu Jaungoikozale lez ezagutzen eben herrian.

Otoitzarako hartuko dauan bigarren unealdi bat, arazo handiren bat esku artean dakarrenean izango da. Bateoa hartu aurretik; apostoluak aukeratu behar dituanean; "gure Aita" otoitza erakustean; mirari bakotxaren aurrean; nekaldi ordu garratzetan, eta abar.

Azkenez, sakonagora sartuta, Aita-Semeak buruz buruzko otoitzean aurkituko ditugu. Biak bat dira. Une oro, maitasun batean urtuta bizi dira.

"Aita eta ni bat gara" esango dau; "nik beti Aitaren nahia egiten dot; ni horretarako etorri naz".

Aitarekin bat eginik bizi da, hagoz ago mintzatuz. Aita horren esanetara egotea izan zan Jesusen ardura guztia.

Ikasbide hau emon euskun Jesusek. Haren bizitzako zatirik garrantzitsuenetarikoa da berau.

Jesusen antzeko gizon-emakumeak izatekotan, gu ere otoitzaleak izan behar gara. Otoizaletasun hori gure kristautasunaren ezaugarria balitz lez agerian eroan. Egunero-egunero otoitza gure gogoaren janari egin.

Asko dira ohitura eder horretan bizi diranak. Kristoren jokabidea eurena egin dabe.

Otoitzean maitasunak daroa esangura guztia. Otoitza maitasunaren goritasuna da. Barru guztia kizkaltzen dauan sua.

Maitale onak edonon eta edonoz maitatzen daki, bere maitea beti bihotzean daroa eta. Teresa deunaren esanean, maite gaituanaz maitasun solasean egotea da otoitza.

Ez da nozean behinka hitz bat edo beste Jaunari esatea; une danetan maitearekin egotea da; haren irrikitasunean bizitea.

Hitza hotz eta bihotza bero behar dira otoitz orduan. Bihotzari maiteari maite-minak esaten itzi. Jesusen aholkua ere hortik doa:

"Otoitz egitean, ez egin berba eta berba, jentilak lez: honeek berba eta berba eginda, entzunak izango dirala uste dabe eta. Zuek, barriz, ez zaiteze izan harelakoak: badaki zuen Aitak zuek behar dozuena eta, zuek Hari eskatu baino lehen" (Mt 6,7).

Bestalde, gaur, otoitz inguru hori holako beheraldi handi baten jausita lez ikusten dogu. Otoitzari muxin egiten deutse askok.

Liturji orduetan herriak egiten dauan otoitza bakarrik onartzen dabe. Bestea alperrekotzat joten dabe, norberen barruko pozerako bakarrik dala esanez.

Jaungoikoa urrun dago, dinoe; ez ditu gure deiak entzuten. Alperrekoa da bere aurrean egiten dogun egotaldi hori. Sorgortu egiten gaitu, beharrezkoetatik urrundu

astia ostuaz, lanerako kemena kendu... Honako esamesak entzuten ditugu alboan.

Otoizaleak baino egintzaileak izan nahiago dabe. Baina Jesusen irakatsi eta jokabideak beste bide batetik doaz.

Jaungoikoa baztertuta izteko gizonak aurkitu dauan beste atxaki bat bere harropuzkeria da. Ez dau nahi gizakiak inolako uztarririk bere buru gainean. Jaungoikoak ezarritakorik ere ez.

Ujujuka dabil burua askatuta ikusten dauala eta. "Aske" naz dino bularrak betean.

Baina, askatasunak ere, beste gauza guztiak lez, bere muga eta ertzak ditu. Alderdi askotako mataza nahastua da; oso gatxa neurriak hartzeko.

Ezin geinke bekokian altxor eder hori untzez josi eta, askatasunaren izenean, kalera urten gogoak emoten deuskun guztia egiteko prest.

Ertzak mugatuta deukoz. Gauza batzuk egin geinkez, beste batzuk ez; batzuk egitera beharturik gagoz, beste batzuk ez egitera. Mila zatitan txikituta dator gure askatasuna. Sarritan gehiekeriaz nahastatzen dogu.

Lagunarteko bizitzan, agindu eta gauza askori men egitera beharturik aurkitzen gara. Hori barik ez legoke lagunarteko bizitzarik. Otso borroka baten biziko ginakez. Dana atzekoz aurrera joango litzake gizartean.

Nik uste, askatasuna zer dan ezjakitetik datozala gure oker, hasarre eta ondoezak. Gizarteko borrokaldiak. Askatasuna ondo erabiltean dago gure jakituria.

Gaur egiazko askatasuna urri saltzen dala deritxat.

Lan barik, etxe barik, kultura barik, jantzi barik, jateko barik egotea askatuta egotea ete da? Eta zenbat holako, gaur, mundu zabalean.

Drogan sartuta, edo lizunkeriari edo handikeriari salduta egotea, hori ere libre izatea ete da?

Kristau baten bizitza, Kristorena lez, edo zeruko Aitaren nahiari zeharo lotuta dago edo, bestela, ez da kristau baten bizitza.

Hau argi eta garbi eroan behar dogu gure zentzunean, eta geure bizitzako helburu ardatz egin, bestela alperrik daroagu kristau izena. Jesusi jarraitzea, bere antzera bizitea da.

Egunero bizitzak dakarkiguzan zeregin eta eginbeharretan, begi argiz Jaunaren nahia zein dan aurkitu eta gero iraunpetsu eta setatsu nahi hori bete.

Horixe da kristau baten eguneroko egitekoa, ardura. Ardura hori ahaztuta edo baztertuta izten badogu, Kristoren antz gitxi eukiko dau gure bizitzak.

Jesusek bere Erreinuko gizonari, bere jarraitzaileari, buru eta belarri Jainkoaren eta gizakiaren zerbitzari izatea eskatzen deutso. Jaungoikoa eta gizakia biak batera eroan behar ditu besarkaturik bihotz ondoan.

Bietatik bat atarian izten badau, ez da Jesusen benetako Jarraitzaile izango.

Bere burua aurretik jarriaz, eredu eginaz bizitza bikoitz hori zelan egin eta bizi erakustera etorri jakun Jesus.

Zelakoa izango da Jainko-Herri barri horretako gizona? -Jainkozalea batetik eta gizakizalea bestetik. Haren seme-alaba eta honen neba nahiz arreba. Bien eskutik doana.

Eta hau ez da ames bat; irudimenean kili-kilika daroagun gurari lortuezin bat. Gizon hori egiazkoa da; lurrean geurekin bizi izan dana.

"Hona hemen gizona", esan eban behin Pilatok, zer esaten eban ez ekiala. Kristo da gizon hori.

Jesusek berak iragarpendu euskun gizona nor dan eta gizon zelan izaten dan. "Gizona neu nazen hau da, neure antzekoa izatea da" dirausku Jesusek. Kristo lakoxe gizona da, Jaungoiko antz irudiko gizona.

Aitaren nahira makurtua; Haren besarteko beroaz maitemindua; alkartasunean bizi dana; Jaungoikoari zabalik eta gizakiari emona. Holakoxea da Kristok ikusitako gizon edo emakume barria.

Gizon edo emakume hau ez da norberekoia; dana beretzat nahi dauana; besteen ardura galduta daukana; aurrekoa ikusteko itsu dana, bonbokerian bizi dana, ez.

Kristoren gizon edo emakume, oso-osoan besteentzakoa da; bere bizia danen artean zatitzen daki; maitatzeko dan ezkero, senideak maitatzea da bere zeregina.

Horregaitik, bere bihotzari mugarririk jarri gabe, isilka-isilka, tantaka-tantaka bere bizitza gizakiaren zerbitzuan agortzen daki.

Kristau maitasunak ez dauko mugarik, ez azkenik. Maitasunaren besoetan gizadi oso-osoa sartzen da.

Jesusek ez dau bereiztasunik egiten. Egin-eginean ere, horretantxe deuko bere ezaugarria: danena eta danentzako dala Jesus. "Lagunurkoa zeure burua lez maiteko dozu".

Eta lagunurko hori zeure adiskidea edo etsaia izan daiteke, aberatsa edo txiroa, herritarra edo arrotza.

Geure norberekeria alde batera itzita, mundu guztiari zabaldu behar deutsagu geure bihotza. Maitatzeagaitik ez gara inoz damutuko. Zoriontsu egingo gaitu. Gehien baten ere maite ez izateagaitik damutuko gara. Horixe izan leiteke gure arantza-mina.

Lagunurkoari zoli eta adikunez laguntzean dago mai-

tasunaren hazia, bihotza. Adikune eta arreta hau inozkorik beharrezkoenak ditugu gaurko gizarte honetan.

Danok aringa eta presaka gabiltzaz geure arduren atzetik. Ez deukagu astirik alboetara begiratzeko, ez betarik inorekin egoteko, geure kutuntxoakin izan ezik. Begiak bota beharrean goaz kaleetan zehar, baina, beti geure kerizpeari begira, beti geure tranku soinua entzuten.

Besteenganako adikune eta begiramen honek huts egiten deusku, eta hau oso kaltegarri jaku.

Besteei gogoz entzutea, hareekin maitekor egotea, euren pentsaera, asmakizun eta sentimenak itzalez eta ederrikusiz hartzea, beraien bizitza eta arazoekin arduratzea, adikunez eta zolitasunez egin behar dauana da kristau batek.

Inor ezagutzen eta maitatzen ez dogun mundu gaixo honetan, gaur, beharrezkoenentzat jo behar dogu besteenganako ardura hau.

Besteenganako ardura honetan sartzen da baita zuzentasuna ere. Zuzentasuna hitz galdu bihurtu dogu gaur, agotik kendu gabe erabili arren; munduko edurpeetan hotzez hilten dagoela dakigu. Bururik jaso ezinik gizakiaren oinpean. Hondatu beharrean darabilgun gaixoa.

Kristau baten zeregina da justiziaren aldeko borroka hau. Geu zuzenak izan eta besteei ere zuzentasun hori eskatu. Justiziaren oihulari eta jagola egin gaitu Jesusek.

Zuzentasunaren ikurrina bihotz gainean beti zutik eroan behar dau Jesusen jarraitzaile zintzoa danak.

Baina, honetan ere geure argaltasunak deukaguz. Behar bada, geu konturatu gabe, urratu asko egiten ditugu justiziaren soinean.

Egia da, guk justiziaren kontra, jakinez eta zuzenean, zerbait egiten dogunean, hori pekatutzat hartzen dogula.

Baina, era berean, justiziaren eskakizun eta eginbeharrak, ahal izanik, bete gabe izten ditugunetan ere pekatu bardina da. Egitez eta eginbeharrak ez eginez bihurtzen gara pekatari.

Kontutan hartzekoak dira hemen Basilio deunaren hitz garratzak: "Behar bada, ez ahal zara lapur bat? Pentzutan eukiteko emon jatzuna, ez ahal dozu zeuretzat hartu? Jantzi bat edo beste ostutzen deuanari lapurra esaten deutsagu, eta biluzik dagoana, ahal izanik, jantzi gabe izten dauanak ez ahal dau izen berber hori merezi?

Zuk gainez deukazun ogia, gosez dagozenei dagokie; jantzi tokian gainezka dituzun jantziak, biluzik aurkitzen diranenak dira; zure arasan zahar egiten dagozan oinetakoak, oinutsik dagozanenak, zure diru mordoak, ezeukian bizi ezinik dabiltzanentzat.

Beraz, ahal izanik, laguntzarik gabe itzi dituzun guztietan zordun agertzen zara justiziaren aurrean".

Ambrosio deuna ere holantxe mintzatzen da: "pobre bati limosna egiten deutsazunean ez deutsazu zeuretik ederrik egiten, berea dana baino ez deutsazu emoten".

Santu honeen esanean, justiziaren kaltez, egitez eta eginbeharrak ez eginez huts egiten dogu.

Hemen ikuspuntu barri bat ageri da. Ez da pekatu justiziaren kaltez zuzenean egiten dana bakarrik; egin ahal izanik, egin barik itzi doguna ere bai.

Era biak datoz lohirik, era biak doaz justiziaren kaltez eta. Hemen zeri begiratu asko dago. Ez dot uste alderdi hau kontutan izaten dogunik.

Honakorik burura etorri ere ez jaku egiten. Ona litzakigu honetan arduratsuagoak izatea.

Kristoren gizonak nahiz emakumeak ez deutso heriotzari bildurrik.

Heriotza bizitzako muga hori igarotea dala daki; ez betiko hondamena, ez betiko ezereza.

Betiko bizitza hori ez dala ames bat, itxaropen hutsa, zentzunik gabeko iragarpena, eskaintzari merke bat. Hor dagoala zabalik Jesusek guretzat irabazitako betiko bizitza barri hori. Goi horretan dagoala Bera gure zain.

Jesusen alde apostua egin dabenentzat izango da zeru barri hori. Jesusen berbea dago hor zutik, honen lekuko sinisgarritasuna dariola alde guztietatik.

Batu daiguzan hemen, zabal-zabal, geure pozerako, Jesusen esaldi nagusi batzuk:

-Mundu honetako nekealdiak amaituko dira.

-Han ez da negarrik egongo.

-Hildakoen biztueraren gai izatea jadetsi dagienak, hil ere ezin daitekez barriro, biztueraren seme-alabak izanik, aingeruak eta Jaungoikoaren seme-alabak lez dira eta.

-Mundu honetako oinarriak dardara egingo dabe.

-Azkenak, lehenen izango dira.

-Txiki egin daitena, haxe da handiena zeruetako Erreiñuan.

-Gaixoak osatuak izango dira, nekepetuak askatuak...

Jaungoikoaren aurrean ere gauzak guztiz aldatuta agertuko dira:

-Pekatariak parkatuak izango diralako.

-Gaur zakabanatuta dagozan zintzoak pilatuak.

-Jainkoaren seme-alabak Aitaren etxerako bidea aurkituko dabe.

-Gose diranak asetuak izango dira.

-Negar dagienak barre egingo dabe.

-Poztu eta alaitu zaiteze egun horretan, zuen saria handia izango da zeruan eta...

Jesusen agotik jasotako hitzak dira.

Gizaki barri honen igarlea dogu Jesus. Guztiok izan

gara deituak erreinu barri honetara. Zu eta ni ere bai. Beraz, gure erantzunaren zain dago Jesus. Apostuak, hemen, edo Jesusen alde edo munduaren alde izan beharko dau.

Jesusek badaki gaurko mundu hau oraindik ez dagoala ondo gerturik bere erreinu hau hartzeko. Badaki oinarrietatik hasita usteldurik dagoana, eta ustela ez dala gai oinarri izateko. Aldakuntza handi bat egin beharko dauala erreinua hartzeko.

Non dago, ba, ustel hori? Geure bihotzean!

Giltzarria gizakiaren bihotzean dago: gizaki bakotxaren biotzean.

Ona eta txarra batera sortzen dira gure bihotzetan. Maitasuna eta ona sortzen diran lez, grina eta galbedarrak ere bardin ernetzen dira.

Hau guk baino hobeto ekian Jesusek. Horregaitik inoan sarritan esaldi zorrotz hau:

"Gizonagandik urteten danak, horrexek lohitzen dau gizona. Urten ere, barrutik, gizonen bihotzetik urteten dira asmo txarrak, haragikeriak, lapurretak, gizon-hilteak, ezkontza-hausteak, diru-goseak, dongakeriak, maltzurkeriak, nasaikeriak, ikusiezinak, lizunkeriak, harrokeriak, zorakeriak. Gaiztakeria guztiok barrutik urteten dira, eta lohitu egiten dabe gizona" (Mk 7,21).

Bihotz bakotxak egin behar dau honerako aldakuntza hau. Bestela ez dago zereginik. Hau argi eta garbi esan behar dogu.

Gaur gizartea da gatx guztien sorburua eta asmatzailea. Gizartea dago ustelduta burutik oinetara.

Goragoan Jesusek aitatu dituan gatx guztiak daroaz bere kolkoan.

Gizartea da aldatu behar dana, goitik beheraino.

Erakundeak, egiturak, legediak, antolaketak, kultura bideak, langintza, ohiturak, hau da, iraultza soziala izugarri bat egin beharra dago gizartea bere gatx eta pekatuetatik salbatzeko.

Gizakia ezin daiteke ondu gizartea ontzen ez dan bitartean. Gizartearen arnasa ustelak zabaltzen ditu munduko gatxak.

Hortik, gaur, teologiari iraultzaren izena jarten deutse askok.

Hemen egia eta guzurra erdizka doaz hainbaten. Ez litzake legezkoa izango gatx guztien errua gizarteari ezartea. Asko eta asko bai, ziur asko, baina danak ez.

Gizartea geuk egiten dogu. Geure kumea da. Gure zikinak ere itxaso horretara doaz. Gitxi asko, danon artean zikintzen dogu gizartea.

Hemen Jesusi emon behar deutsagu arrazoia: bihotza da, kontzientzia, onduketaren hazia. Hortik hasi behar dogu lana. Bihotza garbitu, barritu, zuzendu; maitasunez eta ontasunez bete...

Bihotz aldakuntza oso bat egin gizaki bakotxagan, eta honen frutua gizarte barri, garbi, zuzen eta ondutako hori izango da.

Gizakia bera aldatzen ez dan bitartean, ez dago gizartea aldatzerik. Geure haragia eta odola daroaz gizarteak.

Horregaitik, Jesusen aizkora, zuzen-zuzenean bihotzeko sustrai gaiztoen bila doa. Bihotz ondora doa Jesusen deia: ondu zaiteze!

Mundua ondutea nahi dauanak bere buruarengandik hasi behar dau; bestela ameslari hutsak izango gara. Zeugandik hasi, zeuri dagokitsun ataltxoa onduz. Horixe da gizartea onduteko biderik onenena.

Ondo be badaki Jesusek ondutze hori oso gatxa dala.

Baina, Jaunaren laguntzaz eta gizakiaren ahalegin zintzoz, lortu ahal daiteken emaitza, mendi gaina.

Jesusek, ezezko asko hartua izan arren, oraindik ez dau gizakiagan itxaropenik galdu. Badaki santutasunera heltzeko gai dala. Askok hartzen dabela bide hori. Harrigarriak egiteko gauza dala gizakia Jesusen deia, mezua benetan hartzen dauanean.

Horretantxe dagoala gizakiaren benetako handitasuna: Jesusen doai hori hartu eta doai horren eraginera miriak egitean. Onbidean mirariak egiteko ahalmena deuko gizakiak. Hor bere handitasuna.

Jesusen parabola guztiak, azken baten, gugan doai eta gurari hau zuzpertzera datoz. Gizaki barriak ikusi gura gaitu. Mundu barri horren arduradun eta egileak.

Gugan jarri ditu bere ames eta itxaropenik ederrenak. Badaki guk lanean dihardugun bitartean, lur zabalean bere erreinuaren hazia ereingo dala. Erreinuko gari arloak ehuneko ehun emongo dabela, nahiz eta askotan galbedarra agertu garitzan.

Jesusen soloetako langileak gara. Eguzkitik eguzkira, beroaren kizkala eta nekeak geure gain hartzen ditugu.

Baina, erreinuko hazi txiki bat ereiteko gauza garan artean, indar guztiak agortu arte ereintza horretan jarraituko dogu.

Eta zein da mundu basati horren bihotzean erein behar dogun hazia? -Maitasunaren hazia!

Jesusen agoa ur garbia emoten dauan iturria da. Ez da filosofo bat, bere irakatsi eta pentsaerak hitz handiz eta dotorez esan eta zehaztuten dakian jakituna. Ez. Bizitza begi zabalez eta pozkarioz ikusten dakian gizona da.

Herririk herri doan hizlaria. Bizitzari josita doan gizona. Honen goi-behak barren-barrenetik ezagutzen

dituan maisua. Bizitzaren sustraitik, ingurutik, ateratzen ditu bere irakatsien mami eta mintzagaiak.

Bizitza zer zan eta zelan egin behar zan azaltzen eutsen Jesusek bere entzuleei. Eta ez eban inoz horretarako hitz handirik erabili. Bere entzuleen neurrira jatsiten zan beti. Hizketa erraza eta leuna berea.

Bere entzuleak herritar apalak ziran, eskola bakoak. Horregaitik, hareek aitzeko erara moldatzen zan beti.

Gaur ebanjelioa, batez beste, munduko hizkuntza guztietara itzulita dago. Eta hizkuntza eta enda guztietako jentetzak erraz-erraz ulertu eta aitzen dabe, nahiz jakitunak nahiz ezjakin eta apalak izan. Borondate oneko gizon-emakumeentzat ez deuko misteriorik.

Aldi guztietako gizataldeentzat mintzatu zan Jesus eta aldi guztietako jentetzat ezeren eragozpenik gabe ulertzen deutse.

Esan dogu, bizitzako igarle eta irakasle dogula Jesus. Gizon barria eta gizarte barria sortu nahi dituala munduan; horretarako etorria dala bera.

Eta gurari hau aurrera eroateko, guztion artean Jaungoikoaren sendia egiten dogula kontutan izanik, lehenengo oinarri lez, lege nagusi lez, motor lez alkarren maitasuna jarri euskun.

Motor horrek bakarrik deuko behar dan besteko indarra mundu galdu hau honera, anaitasunera eta bakera aldatzeko.

Jesusek bere ebanjelioa, bere bitartekotasuna, bere maitasuna eta salbamena ekarri ditu gizarte barri horren zimintarritzat.

Jaungoikoaren sendi horrek maitasunean bateginik bizi beharko dau beti. Maitasunaren ikurrin zuria izango da bere ezaugarri. Hau barik, ez dago Jainko herririk. Bihotz bat eta maitasun bat, horixe da gure helburua.

Eta bihotz horretan eta maitasun horretan munduko gizatalde guztiak sartzen dira. Batxo bat ere kanpo aldean itzi barik.

Jesusen aurretiko gizonak norberen odolekoak, endakoak, sendikoak, auzokoak, herritarrak maitatzeko ekandua eben, baina ez hortik kanpo gelditzen zan inortxo ere. Urrunekoak, kanpokoak, etsaiak, arerioak eta abar, horreek ez.

Jesusek lege hau hutsa, ustela zala eta, mila zati egin eta lege barri bat emon euskun. Lege orokor bat, gizaseme eta gizalaba guztiak behartzen dituan lege zorrotza; luditar guztiok bete behar doguna: "Alkar maite egizue! honetan ezagutuko dau munduak nire jarraitzaileak zareena: alkar maite bazaree".

Ez da inor bereizten lege honetan. Inor kanpoan gelditzen. Inor baztertzen.

Arerioak eurak ere agindu honen barruan sartzen dira. Entzun, bestela, zarta soinua dakarren Jesusen hitz harrigarriok, gizartean sekula entzun ez diran hitzak.

"Entzun dozue esanda dagoan hau: zure lagunurkoa maite izango dozu eta zure arerioari gorroto izango deutsazu. Nik, barriz, hauxe dirautsuet: maite egizuez zuen arerioak; bere eguzkia on eta gaiztoen gainera atarazoten dauan zeruko zuen Aitaren seme izan zaitezen.

-Izan ere, maite zaituenak maite badozuez, zer sari izango dozue? Zergabatzaileak eurak ere ez dabe, ba, hori egiten?

Eta anaiak soilik agurtzen badozuez, zer egiten dozue gehiegikorik? Jentilak eurak ere ez dabe, ba, hori egiten?" (Mt5, 43).

"Maite egizuez zuen arerioak, on egiezue gorroto deutsuenai, bedeinkatu egizuez madarikatzen zaituenak. Erregutu egizue txarto zarabilanen alde...

-Gizonak zuei egitea nahi dozuenez, egizue holantxe zuek ere. Maite zaituenak maite badozuez, zer irabaziko dozue? Pekatariak ere egiten dabe beste horrenbeste...

-On egin, eta emon egizue aurretiaz, ordainaren usterik izan bagarik; eta handia izango da zuen saria, eta Gorengoaren seme izango zaree" (Lk 6,27).

Entzuteaz bakarrik dardaraka jarten dabe gizakia Jesusen hitz honeek. Irakatsi honen gogorrak jota, batek baino gehiagok Jesus zorotzat hartu dabe.

Ezinezkoa ei da gulakoxe batentzat dotrina hau betetzea.

Gatxa, bai, da; ezinezkoa ez. Askok esan dabe kurutzeko habetik Jesusegaz batera: "Aita, parkatu egiezue, zer egiten daben ez dakie eta".

Maitasun legearen gailurra da hau, gorengo mailea. Jaungoikoa dan batek bakarrik emon leike honako irakatsi-agindu bat.

Inongo gizoni ez jako etorri burura beste honako bat. Maitasuna dan Jaungoiko baten txinparta goriena da arerioei parkatzeko lege hau.

Ondo ekian Jesusek zer esaten eban dotrina hau emotean. Beste mundu bat legoke kantari dotrina hau gizon eta emakume bakotxak geurea egin eta beteko bagendu. Zeruaren ataria litzake.

Zelako gizartea nahi neuke nik? Zer egin behar dot gizarte hori lortzeko?

Gizarte zintzo, garbi, maitekor, zuzenago hori egi bihurtuta ikustea nahi badot lur gainean, holako bizileku bero-pozgarri bat nahi badot gizakiarentzat, orratz horretarantz zuzendu behar dot neure bizitza guztia.

Horretan jarri behar ditut nire ames, helburu eta inda-

rrik onenak. Bakotxak geure pizkatxoa aurreratu behar dogu.

Sarritan nahaste-borraste izugarriak egiten ditugu geure pentsaerakin. Ames liluragarriak egiten ditugu gizarte polit, txukun horren loan, baina gero eskuak ezarteko orduan, nondik hasi ez dakigula aurkitzen gara.

Mundu anaikor eta baketsu bat bada nire amesa, ezin neinteke hasarre, eztabaida eta makurraldi guztietan sartuta ibili; ezin neinteke sor eta lor geratu neure senideen beharrizanen aurrean.

Gizarte zuzen eta batuago bat nahi badot, ezin izango ditut etikako lege eta arauak gogora datorkidan guztietan zapuztu; besoak beso gainean gelditu, jendetzaren arazoak neure begiz ikusi eta eskuz ikutzen ditudanean.

Izadia, Jaungoikoaren izpilu dan lez, garbi, eder eta txukun zaindu nahi badot, ezin izango naz joan bazterrik bazter txarrikeria eta lohia dariola.

Kristauok munduko txarraren aurka deadar egiteko gagoz, baina gure oihurik ez da entzuten. Gizon eta emakume ebanjeliotarrak bagina, kristau zentzun onik bagendu, sarriagotan eta sendoago jaso beharko genduke gure salakuntza eta ezetza munduko guzurraren, zuzengabekeriaren, gorrotoaren, gerraren, gosearen, eta beste edozein txarkeriaren kontra; baina ez da entzuten gure deadarrik; dana isilian iruntsiten dogu.

Gure argia moteldu egin da; gure gatza txepeldu.

Zer da gure hau? Zer dala eta isiltzen gara hainbestetan, gure arazoa ez balitz lez, hirugarren munduko gose, behartasun eta txirotasun gorriaren aurrean? Zer dala eta horma barriak, ekialdeko herrialdeak gugandik urruntzeko?

Zer dala eta geurekeria hutsean bizi, hor gure aldamenean bizi dan hurkoa beharrizan gorrian dagoala jakinik?

Geure neurriko kristautasun arlote bat egin dogu eta ez dago gu hortik ateratzekorik. Ebanjeliotik ondo jatorkuna hartu eta bestea orripean gordeta izten dogu.

Gizakiari jazoten jakon edozer geurea lez hartu behar dogu, esaten eban Joan XXIII.ak.

Kristau on bat ezin daiteke bizi giza arazoakandik urrun. Hori fede salduketa bat litzake. Behartsuen ongile eta emoile bihurtzen danak, sariz, barruko zoriontasuna eskuratuko dau.

Gizarte sano, osasuntsu bat eukitea nahi badogu, ekandu txar eta arriskugarriak gizartearen ohitura eta bizimodutik urrundu beharko ditugu.

Jesusek ikusitako gizartearen alde agortu behar ditugu gure bizitzako indarrak. Horretarako emon jakuz gure ahalmenak; egunero zapaldu behar dogu bide hori; helburu horretarantz begira jarri gure ontzitxoa; ez atzerarik egin muga horretara heldu arte.

Fedearen inguruan ere, ilun asko batzen da; ez dira gauzak askotan esaten diran lez; oker-aitu asko dago.

Askok fedea kultura sailean sartzen dabe. Uste dabe fedea erlijio gaietan asko jakitea dala, ezaguera handiak eukitea.

Ona da erlijio gauzetan jakintsua izatea; zenbat eta jakintsuago hobe; laguntza handia da hori fedea behar dan lez biziteko. Baina, fedea horren gainetik dago. Siniskera mailan sartzen da. Jesuseganaino doa.

Azken baten, autor bat, erantzun bat besterik ez da. Jaungoikoak bere seme Jesukristogan eskeintzen deuskun salbamenari baietza emotea; Jesus Jaungoiko Salbatzailetzat autortu eta Harek irakatsitako modura bizitea da fedea.

Jesusek iragarri euskun Jaungoikoagan deuko sorburua fedeak.

Jaungoiko horregan sinistea eta hori autortzea, eta Jesusek irakatsitako maitasun eta anaitasun mezua geure egitea. Hori da egiazko fedea.

Askok uste dabe gaur, erlijioa, Jaungoikoarekin tartekotasunik izan gabe, hurko lagunari eta gizarteari osoosoan emonik egotea dala. Hori dala gaur egungo erlijioa. Oso zabal dabil siniskera hau ere.

Jaungoikoa aldendu eta baztertuta itzi eta, Haren ordez, gizakia aitzindari eta goiburu jarri. Hortik doa gaurko erlijiotasun barria; gainera, jarraitzaile asko ditu munduan zehar.

Hurko lagunari -geideari- zerbitzea gauza ezin hobea da, baina Jaungoikoa ukatzen dauan erlijiorik ezin dogu erlijiotzat hartu. Ez da erlijioa; kultura barruan egon daiteken zerbait izango da, baina ez erlijioa.

Euren buruak kristau autortu eta jentilen modura bizi diranak ere hainbat dira. Honako zerbait ikusiko eban ziur gure Gandhik kristauakaitik honako hau esan ebanean: "Sinisten dot kristautasunean, baina ez nik ezagutzen ditudan kristauengan".

Egintza bako fedea beti da ustela, galdua. Hemen mozorroak alde batera itzi behar ditugu.

Zuzentasunaren araubideak zainduz, ebanjelioaren arabera mundugintza onean sartzea kristau egintzarik behinenetarikoa da.

Horretan uxo eta nagi dabilena kristautasunetik urrun dago. Munduko arazoekin arduratzen ez bagara, gure kristautasuna ergela izango da.

Txarraren eta zuzenbakokeriaren aurrean isilik, besoak besogain egotea Jesusen ebanjelioan zeharo ezetsita dago.

Ebanjelioan sustraituta dator gure fedea, beraz, lurraren argi eta legamin bihurtu behar dogu kristauok.

Jesusek Mateo deunaren hogetabosgarren atalburuan alkarren arteko solidaritza eskatzen deusku eta bera ezinduen eta zapalduen ordezko lez agertzen jaku.

Urkoari egina berari egina lez hartzen dau; hurkoa, barriz, bertan bera, piper eginda izten badogu, Bera izango da kalean itzi doguna. Fedearen sinisgarritasuna egintzetatik dator.

Fedea ez da ondo hil eta gero, zerura sartzeko txartel bat. Aurretiaz, ebanjelioz kutsutu behar dogu mundu guztia. Jesusen zoriontasunak gizakiari irakatsi, gizarte bihurri hau Jesusen erreinu bihurtzeko guraritan.

Era askotako gizon eta emakumeak gabiltzaz gizarte barruan. Pentsaera, eritxi, ekandu, jolas, zaletasun, ibilbide eta hartu-emonak guztiz mundutarrak, Jaungoikoz hutsituak ageri jakuz.

Horregaitik, ez da bape erraza gaur fedea berotan zaintzea, jator bizitea. Gizataldearen aurrean fededun autortu eta agertzea gitxiren esku dago.

Asko lotseak janda, sator zuloetan ezkutatu dira eta euren isilean bizi dabe oraindik geratzen jaken fede apurra.

Gitxi dira agerian, paparra zabalik, fededun autortzen diranak. Ez deuke aurrean aurkitzen daben giro etsaikia gainditzeko adorerik. Euren bidetik ibilten lotsa diralako edo, besteen bideetatik ibili nahiago dabe.

Holako giroaldi bat garaitzea ez da erraza izaten. Odol asko behar da zanetan; ausartiaren adorea.

Goserik ez deukanari jaten emotea gauzarik aspergarriena da. Hainbat nekegarriago munduko janariz eta

atseginez agoraino beteta dagoan jendeari ebanjelioa predikatzea. Ez, ez da erraza ebanjelioaren goserik ez deukanari ebanjelioa oihukatzea. Zer egin honakoetan? - Galderak erreskadan datoz hemen.

Ebanjelioa entzuteko gogo txikienik agertzen ez deuanari ere oihukatu behar deutsagu ala ez? Zelan biztuerazi ebanjelio gosea hilik dagoanari? Daitekena ete da?

Arimako gauzak oso gitxi balio dabe gaurko kristau askorentzat, munduko ondasun eta aberastasunez ase-ase eginik bizi dira eta.

Ez dabe inoz gorantz begiratzen, ez erlijioa inoz benetan hartzen; ezer dagoenik ere ez dira ohartzen; ezjakin hutsak ditugu honetan. Euren fedea azal-azaletik doana da.

Inoz elizan ikusten badituzu, burua agertzearren, edota beste arazoren bategaitik izango da. Kristau honeen buru-bihotzak ebanjelioz betetzea ez da arazo makala. Ia-ia irtenbiderik gabeko zeregina.

Hemen egoki-egoki datorkiguz Casaldaliga, Brasilgo gotzain misiolariaren berbak: "Ez da nahikoa ogia emotea, ezta ebanjelioa iragartea ere. Zeure bizitza eredugarria aurrelari dala, ebajelioa jateko irrikia eta gosea sortu behar dituzu".

Kristauok ogi "banatzaile" onak gara, baina "esnale" txarrak. Ebanjelioa maiz banakatzen dogu, baina ez gara gauza izaten haren goserik biztutzeko.

Jesusen bihotzeko laban goritu eta moldetu dan kristauak bakarrik lortu leike mirari hori. Bere bizitzaren garbi-ederrak egingo dau sinisgarri eta opagarri ebanjelioa. Testigantza onak bakarrik dakar ebanjelioa entzun eta biziteko gosea.

Burutik eta agotik datorrena ez da beti bihotzera heltzen, bihotzetik datorrena bai, ostera. Bihotzetik ez dato-

rren hitza haizeak eroaten dau, bihotzetik datorrena, barriz, eragilea izaten da.

"Hutsean hartu zenduena, hutsean emon egizue", dirausku Mateo deunak. Jaungoikoak hutsean, geuk merezi gabe, emon deuskuz salbamena eta fedea. Eta guk ere duan emotea nahi dau, horretarako gure fede jatorredugarria jarraibide lez aurrean jarririk.

Honek atzeraka barik aurreraka jarri behar gaitu. Gaurko giroan fedea zaintzea oso gatxa dan ezkero, biderik onena, bero-berotan gordeteko, lagunkideekin bat egitea da.

Gogo biziagoz hartu, sakonagotik ezagutu eta azterkatu, argitu ilunik balego, pozkarioan janaritu, txukuntxukun gorde bihotz barruan, eta beste taldekide batzuk aurkitu eurekin taldekaturik fedea alkartasunean biziteko.

Gaur egun taldekidetasun hau behar-beharrezko da fedea zentzunez eta adorez bizi gura dauanentzat. Bakarrean jokatzeak ezer gitxi balio dau hemen.

Bakarrean ere bai, baina, gehien baten, fedea ondoen taldean heldu eta sendotzen da. Fedearen heziketa ez da saltoka lortzen dana; bizitzaldi guztia hartzen dau. Pertsonaren antzera, saltoka gabe, eginez-eginez doa unetik unera. Luzaroko lana da.

Aitak eta amak hasi behar dabe etxean ume-umetatik heziketa hori, irakaste hori, eta etxekoen osasunari lez begiratu.

Gorputzari otorduak emoten deutsaguzan lez, fedeari ere sendian bere otorduak emon behar jakoz. Fede zuzia beti izioturik etxeko argimutilean.

Izatez, gure sendi barruak Jaungoikoari jasotako eli-

zatxoak dira. Gure etxeko aldarean, otoitz eta kultuaren intzentzoa betiko sugarretan zaindu behar dogu.

Fedean aurreraldiak, bapatean barik, zatika-zatika egiten dira. Txango luzea behar izaten dabe; etxekoez gainera, elizatik eta eliztarren aldetik ere edan behar dau gizaki bakotxak bere fedea.

Umeen katekesia, gazteen katekesia, helduen katekesia entzuten da gure elizetan. Elizak erruz emon nahi deutse fededunai dotrinaren ogia. Ogi hori opakan deuko elizak. Kristau eginak eta helduak nahi ditu.

Baina, zoritxarrez, eliztarrak ez deuke, antza, gogo gehiegirik ogi hori hartzeko. Huts handiak egiten ditue eskolatze orduan.

Umetxoak hamar-hamabi urtegaz amaitzen dabe euren katekesia. Gazteegiak diranez, oraindik ezin gauza sakonik buruan hartu eta gorde. Lehenengo jaunartzea egindakoan, gehiengoa ez da barriro elizaldera ezetarako agertzen.

Ikasitako apurrak ahaztu eta barririk ikasi ez. Hor dituzue, ba, gaurgandik, gure bardingoteak analfabeto hutsak erlijio alorrean.

Gaztetxo batzuk ere, ez asko, sendotza hartzeko gurariak irrikatuta, gazteen katekesira etorten dira.

Sendotza hartu arte, prestu-antz jarraitzen deutse lanari hiru urteren buruan. Sasoirik onenean dagoz gauzak ikasi, ulertu, eurekandu eta beraien senaren arabera ebanjelioaren goibeheak, garrantzitasuna eta beharkotasuna norainokoa dan ulertzeko. Jesusekin maitemindu-teko.

Baina, behin sendotza hartutakoan, banakatxo batzuk iraunten dabe Jesusen jarraitzan. Gainetiko guztiei ahaztu egiten jake elizarako bidea.

Milaka gaztek hartzen dabe sendotzako sakramentua.

Horrek esan nahi dau Kristo hartu dabela gidari eta maisutzat.

Jesusen benetako jarraitzaile eginik urtengo balebe sendotzatik, eurak bakarrik nahiko litzakez, behingo baten, munduari sua emoteko, mundu guztia aldatzeko.

Baina, edo sakramentuak ez dau sendotzen edota gazteak ez dabe sendotza hori ondo hartzen.

Ehunetik bost gelditzen dira artaldean, besteak ikusi ere ez dira egiten. Eta hau harritzekoa da. Ez da arrazoizkoa. Ez dakit horren kakoa non dagoan, baina hor hainbaten huts handiren bat estalduten dala bai. Hori ez da normala.

Azkenez, helduen katekesia dator. Gehienak hemen borondate oneko gizon-emakumeak ditugu; fedea sakonetik bizi nahi dabenak; eliz lanetarako prestuak, baina gehientsuenak eskolatu gabeak erlijioan, landu gabeak, eliz jakintzan urri dabiltzanak.

Holan eta guztiz ere, kristau honeek gure parrokietako zutoinak lez dira. Eskerrak eurai badogu oraindik nok biztu fedearen argia.

Asko bagenduz! Baina, eskuekin zenbatzekoak ditugu. Horra hor gure ezintasunaren mina, arantza zorrotza.

Hemen hautsak astintzeko, azterketa modura, itaunketa txiki bat ondo letorkigu guztioi.

Nogan sinisten dot nik? Nogan jarri dot neure ustea, neure itxaropena, neure bizitzaren oinarria?

Erantzun bakar bat bakarrik onartu daiteke hemen. Besteak oinetik kanpo gelditzen dira.

Erantzun soila hauxe da:

"Gure Jaungoiko Aitaren ontasuna iragarri eta bere heriotza eta berbizkundearen bidez gure fedeari sinisgarritasuna emoten deutsan Jesus, Jaungoikoaren Semeagan sinisten dot"

Nire maitasuna gizaki guztiekana heltzen bada, gizartearen ardura benetakoa badot, nire fede-bizitza bide onetik doala esan neike.

Eukaristiaren inguruan, Jesusen salbamena ospatzeko, igandero, neure senideekin, poztasun jaian batzen banaz, neure fedearen testigantza argi bat emoten dot neure herritarren aurrean.

Jarraibide ederra da hori ere ingurukoak fede bidera ekarteko.

Fedea ez da liburu batetik hotzean ikasten. Bihotzeko berotik dator; norberen bizitzaren izpilua da. Egite onez bete-beterik, lirain eta dotore, senideen ikusgarrirako, aldara gainean jarten dogun loraontzi eredugarria da.

Barri handi bat daukagunean, urduri egoten gara barri hori emon arte; holantxe emon behar genduke gure fedearen barri ona ere. Niretzat barri handi eta pozgarri bat balitz lez.

Nire bizitza zentzunez eta alaitasunez beteten dauan iturria da fedea. Zoriona eta adorea dakarkidaz, onaldian nahiz txarraldian, bizitzari gogotsu ekiteko.

Jesusen esanean, bizitzako altxorra da. Ezin neike altxor hori lurpean gorde. Hori egingo baneuke, ugazabaren talentua lurpean gorde eban morroi alperraren antzeko nintzake.

Kristau zintzoa danak, fedearen poza eta gozamena, nahiz troka arrotik nahiz mendi tontor gainetik, oihuka, oihartzun garbi eta sendoz iragarri behar deutse inguruko guztiei.

Andres apostoluak bere anai Pedrori esan eutsana guk ere esan: "Jauna aurkitu dogu! Jesus aurkitu dot!

Kristau jatorraren irudia Jesusek berak margotu euskun ebanjelioan. Ezaugarri honeek jarten deutsoz:

Gatza, argia; bere mahastiko langilea lez ikusten dau; otso artera bialdutako bildotsa lez; soloan hazi ona erein eban gizonaren jarraitzailea; ardi galduaren bila doan artzain ona; urunetan sartzen dan legamina; kandela oinean ipinten dan argi ontzia; zerbitzurako bizi dana; samaritar ona lakoxea; ondasunak egokitzen eta zatitzen dakiana...

Beste honako irudi eredugarri asko jarten ditu Jesusek ebanjelioan. Irudi honekin egiazko kristauaren soina marratu nahi deusku.

Lehenengo eta behin, kristauari jatortasuna dagokio. Bizitza garbi eta eredugarri bat jartea ingurukoen begi aurrean.

Kristoren usain gozoa dariola joan lagunartetik. Aldamenekoak esan dagiela bere goratzarrez: gizon edo emakume honek fedea benetan hartu eta benetan bizi dau. Nortasuna deuko. Beralakoxeak bagina!

Honen arabera, zelan ekarri fede jatorrera gaurko gizakia ez ederrik, ez baliorik, ez ardurarik emoten ez badeutso?

Zelan berba egin zeruko Aita eta Jesus Salbatzaileatzaz, haragoko itxaropenik gabe, hemengo atsegin artean, guztiz zoriontsu bizi diran gizon eta emakumeei?

Salbatuak izatea ur jauziaren soinua lez entzuten daben gizataldeei? Zelan biztu hor fede sugarra? Ze jatortasun eskatu?

Gizon eta emakume horrei fede kili-kilia eta begiramena sorrerazteko, gure aldetik biderik onena holako fede bizitza eredugarri bat eroatea dala esan dogu. Gure bizitzaren autorra, testigantza jarri aurrean.

Lagunurkoaren zerbitzuan zintzo eta gogor ikusten bagaitue, horixe da modurik onena gure ingurumaria fedez kutsututeko.

Batzutan, keixaz izaten gara gure gizarte hau sinisgogorra dala esanez. Errazoiz gainera.

Baina jakin behar dogu, geure aldetik, bizitzara eroan gabeko fede bat aldarrikatzea, frutu ustelak saltzea lez dala; inok ez ditu erosi gura.

Beste horrenbeste jazoten da fedeaz ere. Agoan hilten dan hitzak ez dakar deirik, arnasarik. Egiteen laguntza behar dau.

Gure Elizak ere, eta guztiok egiten eta osotzen dogu Eliza hori, goibehe eta desbardintasun handiak agertzen ditu irakasten dauanaren eta egiten deuanaren artean. Ez doaz batera esana eta egina, irakatsia eta bizitza.

Egintza eredugarriak dira bihotz zabaltzaileak. Elizan beti oihukatu da ideia hau. Elizaren teologia da.

Danen aurrean, bizi-bizian bizitza eginik jarten dan ebanjelioa da gizakia federa ekarteko bide bakarra.

Gure pentsaera, eritxi eta ibilerak ebanjeliotik urrun gelditzen badira, orduan gure mezuak hutsaren soinua, oihartzuna eroango dau. Buruko gangarra bakarrik ikusiko jako.

Ebanjelioko lurrean sustraituta dagoan bizitzak bakarrik sortzen ditu galderak, itaunak, ardurak, gurariak, sentimenak, jakinahia; fede horrek bakarrik emoten ditu kimu barriak.

Zergaitik deuko gure fedeak tirakada hain laburra, kikila?

Gure kristautasuna narraska erabiliaz, lohiaren lohiz ezagutu ezinean daroagulako. Horregaitik, ez da sinisgarria, onartzekoa.

Jakitun ospetsu baten hitzak dira: "Zuek, ikusten dozuenok, zer egiten dozue argiakin? Zuek, bizi zareenok, zer egiten dozue bizitza horrekin?"

Jesusen argia hartu dogunok ezin gehinke argi hori geuretzako bakarrik gorde, ezta Jesusegandik hartutako goi bizitza ere.

Argi mutilak gara, besteei argi egiteko goian jarriak. Baita mahatsondoak ere, besteei bizia emoteko.

Beraz, sarritan egin behar deutsat nik neure buruari galdera hau: Zer egiten dot nik Kristok emondako argiarekin? Zer bizitzarekin?

Argia argi egiteko emon jaku eta bizitza bizia emoteko; horretan agortu behar ditugu, ba, guk geure egunok. Gugana hurreratzen dan inortxo ere ezin geinke argitu gabe itzi, ezta bizitza-arnasarik emon gabe itzi.

Kristo da argia eta bizitza, baina argi eta bizitza hori geure bidez doake gure biran dabiltzanei. Olio bako argiontziak edota hilobi kanpo ederrak izateaz Kristoren atsekabe gorri bihurtuko ginakez. Hemen huts egitea negargarri litzakigu.

Itzi deiogun bizitzari gure ordez hitz egiten. Egintzak hitzen aurretik beti. Horixe da santuen jokabidea. Sermoi handi bat ez dau edozeinek aitzen; zeinu txiki bat, ostera, edonok ulertzen dau.

Daroagun bizikera kontutan izanik, sarritan itandu deutsat neure buruari: gure kristautasun hau fede jantziz apaindu dogun bizitza paganu bat ez ahal da izango? Hain urrun gelditzen dira gehienetan bata besteagandik!

Gure bizitza egunero barriztatzen da; egunero hasten dogu egun barri bat.

Zer ardura deusku atzean geratu dan egunak? Hona

izan bada, zeruko garautegian gordeta eukiko dau Jaunak; txarra izan bada, barriz, damuaren negarrak, olatuak hareatzan egin dogun oin urratsa estaltzen dauan lez, holantxe estalita gelditzuko da betiko.

Geratzen jakun bizitza zatitik, gaurko egun hau da lehenengoa. Eta egun honetan, Jauna omenduaz gainera, asmo eder asko bete geinkez: ereintza ikusgarri bat egin geure ingurumarian: ona eginez agortu bere une guztiak.

Pozez eta zorionez bete bihotzak. Zergaitik beti atzera begira egon? Egunero dator eguzki barria. Helburu hau jarri behar dogu beti egun barriaren atarian.

Geure ardurapean dagozan zereginak bete ondoren, gizaki guztiak senideak garala gogoratuz, senideen arteko maitasun hori gehiagotu geure ingurumarian. Anaitasunez bete bihotzak, anaitasuna erein.

Ez da, zinez, lan erraza. Topekari asko dago gure artean; borrokari gogorrak ere bai; aitzindari ibilteko jaioak ere hainbat; buru gogor eta bihotz kaskarroak ugari...

Ez da erraza, ez, gizaseme-gizalaben arteko senidetasun hori. Lagunarteko bizikidetasun hori gatxa dan lez, horretarako ardurakizun handiz hezi eta gertau behar dogu bihotza. Eskolatu gabe gagoz honetan.

Hortik datoz gure lagunarteko bizitzak dituan hutsuneak, gora-beherak, garraztasunak, aituezinak, hasarreak, eta abar.

Alkarrentzat eta guztientzat jatorrak izaten ikasi behar dogu. Jesusen jokerako pertsonak.

Gizakideen artean duintasunez, gizatasunez, jatortasunez ibilten jakin. Tratu bikain eta gozokoak. Egunetik egunera sentitzen dogu honako gizon eta emakumeen hutsunea, egonik eza.

Gizalege eta ekandu onak baztertu eta, ordez, kultura basati bat sartzen deuskue egunero gure etxeetara irrati eta telebistaren bidez.

Irakasle bi honeek dira, batez ere, gure lagunarteko bizikidetasuna lorrindu, gordindu eta garraztuten dabenak. Gizakia otso bihurtzen diharduenak.

Gure nortasuna ondo jantzi eta apainduta ikusi gura badogu, aurretiaz, gizalege eta hezikuntza zabal eta ikasi baten jabe egitea izango da gure ardura.

Kristoren gizon-emakumeak izan. Eta Kristoren gizon-emakumea barru zabal eta eroapen handiko pertsona da.

Kirio-muina neurriz eta gozatsu maneatzen daki; barruko senaren kasketaldi, pilpilkeria eta borborkadak bide zuzenera ekarten...

Bere inguruan, baretasuna eta bakea gozatzen dira. Zergaitik?

Bera eroapentsu eta zabala izanik, besteen gauzak ulertzeko adikortasun bat egin daukalako.

Munduan askotariko jendetzat gagozala daki; gure izakera, pentsaera, zaletasun eta abarretan danok desbardinak garala; bakotxa geure mundu txikitxoan, itxian bizi garala geure maina eta amesakin; edozein gizakiri, nahiz eta bihurriena izan, itzalaren gainetik ederrikusirik beroena zor jakola...

Gizakiari entzun egin behar jakola eta bere esanak aintzakotzat hartu.

Berba egiteko eta alkar aitzeko gagozala, eta hau hasarre eta berotasunik gabe. Horixe dala biderik onena eztabaida eta arazoak gizakideen artean konpontzeko.

Eroapenaren jabe danak, politika arloan, esaterako, askotariko irizpideak dagozala daki eta itzaltasun benetako bat agertzen dau pentsaera guztientzat, herriaren onerako badira, behintzat.

Bardin erlijio arloan, siniskera guztiak lotsaz eta begirunez errespetatzen ditu.

Araubide hau darabil gizakien arteko arazo eta hartuemonak bide onera ekarteko. Bakezaleak eta bakeegileak dira Kristoren gizon eta emakume honeek.

Ez dabe inoz gogorkeriara eta gorrotora joten.

Gizartearen zutoinak ditugu holako pertsonak. Gizadiaren ongile eta salbatzaileak.

Honek ez dau esan gura halako gizakiak gixajo batzuk diranik, ez; euren ontasuna eta eroapentasuna duan edo merke saltzen dabenik, ez.

Gizakideari zor deutsen aintzakotasunean dator oinarriturik euren hitza eta omen handi hori. Kristoren eskolan ikasita dagoz jokabide hori.

Bestalde, gizon eta emakume amorekaitzak, tematiak ere badagoz gure artean. Ez dira gitxi honakoak ere. Gogorrak eta makurrezinak dira euren pentsaeratan. Ez dago honeek eurenetik aterako dituenik.

Eurenean itsuturik, hage baten inguruan biraka eta biraka dabiltzaz, inorenik entzun barik. Tematia berenean barnetuta bizi da; ez ditu buruko leihoak inorantz zabaltzen.

Entzungor egiten deutse besteen pentsaera eta eritxiai; ez dau ikusten, aurrean euki arren, eguzkiaren argia; egiaren jabe bakarra bera dala uste dau edota bere taldekideak.

Eta hortik ateratzerik ez dago. Mirariak ikusi arren, gizon edo emakume horrek berenean jarraituko dau. Egia oso-osoan berea dala uste dauanez, besteei ere, nahi edo nahi ez, bere egia harrerazoten ahalegintzen da.

Asko-gitxi, goitik beherako indarkeria erabilten dau honetan.

Honako taldeak ugarituez datoz, gaur, munduko lau alderdietan.

Edozer gauza, edozein barrabaskeria egiteko prest dagoz euren eritxi eta jokabideak plazaratzea lortzearren.

Helburu bat lortzeko alkar bat egiten dabenean, bildurgarri agertzen dira. Aurrean aurkitzen daben guztia ostikoperatzen dabe. Dana hondatuta itzi.

Txarkeria honeen erruz, gizartearen etsai eta minbizi bihurtu dira. Ez dira ondo ikusiak.

Ateoak ere maitatzen badakie eta askok oso ondo, gainera. Baina ateoak, maitatze eta zerbitze hori, lagunarteko bizitzarako behar beharrezkoa dalako egiten dabe. Gizakia ederrikusi horren duin dalako.

Kristau batek, horrez gainera, Jesusen agindua dalako, kristautasunaren bizi-arnasa dalako. Horretan dago aldea.

Kristauak Jesus hartzen dau gidaritzat eta Haren jarraitzaile eginik jokatzen dau. Jesusen asmoen betekizuna, osokuntza izan nahi dau.

"Gizasemea zerbitzari izatera etorri da, eta bere bizia askoren alde ordeintzat emotera" (Mt 20,28).

"Zuen Jauna eta Irakaslea nazan honek zeuei oinak garbitu badeutsuedaz, zuek ere alkarri garbitu behar deutsazuez oinak. Ikasbidea emon deutsuet" (Jn 13,13).

Ikasbide hau hartzen dau kristau jatorrak goiburutzat; mundu horretara sartzen da buru eta belarri, gorputz eta arimaz.

Gizakiaren zerbitzuan, nor zein dan begiratu gabe, erre nahi ditu bere bizitzako une eta indar guztiak.

Hori da, behintzat, bere helburu nagusia; gero ikusi beharko noraino heltzen dan, baina, aurreasmoa horixe da, edozelan ere.

Kristo ez zan zerbitzaile bihurtu jarraibide ona emotearren bakarrik, bere bizitzako zeregina, zergaitia lez, hartu eban zerbitze hori.

Lehenengo, bere Aitaren zerbitzuan eta gero gizakiaren arduran. Horretan jarri eban Jesusek kristautasunaren izate guztia eta horretan jarri behar dogu guk ere.

Gure bizitzako azken egunean, Jaunaren aurrean egingo jakun galdera nagusia hauxe izango da: Zer egin dozu zeure bizitzagaz? Zetan emon dituzu, gehien batez, zure egunak?

Zure erantzuna honakoa bada: Jaungoikoa eta lagunurkoa Jesusek irakatsi euskun lez, maitatzen eta zerbitzen, ziur-ziur, ez dozu damurik izango.

Betikoa izango dan Jaungoiko Aitaren besarkada hartuko dozu.

Maitasunak zeruan aurkitzen dau bere betekizun osoa. Horixe da zerua: maite izan diranen zorion betea, Aitaren etxean.

Mundua mundu dan arte, Jesus munduan zehar ibiliko da beti, edozein gizakiren irudipean.

Hauxe da Mateo deunaren hogeta bosgarren atalburuak dakarkigun mezua: gose, egarri, arrotz, biluzik, gaixorik, kartzelaturik, behar handi nahiz txikiren baten nekepean dagoan edozeinegan dago Jesus. "Benetan dirautsuet: nire anai honeitariko txikiren bati egin zeutsena, neuri egin zeusten" (Mt 25,40).

Ezbehar eta neke honeek zeruko izarrak beste ugaritu dira gaurko mundu nahaspil, korapilotsu eta aurreratu honetan.

Zauritu guzti horreen arpegipean dabil Jesus. Zauritu horrei egiten deutsaguna, ona nahiz txarra, Jesus berari egiten deutsagu.

Mundu hau amaira heltzen danean, bakotxa Jesusen agindu nagusian, maitasunean epaituak izango gara. Azterketa horretan, auzia geure alde jartea lortzen bado-

gu, gure bizitzaro guztiak Jaunaren bedeinkapena hartuko dau. Bestetara balitz, ostera, madarikapena.

Beti gogo aurrean eroan behar ditugu etorteko diran jazokizun honeek, gero berandu ibili ez gaitezan. Gure bizitzaren azken auzia dago hemen jokoan. Eskerrak Jauna gugaz beti errukitsua dalako.

Azken muga horretara heltzen garanean, atzera begiratuko dogu egin dogun bide luzeari begiratzeko. Negar handiak egingo ditugu egun haretan, eginbeharrik astunenak ahaztuta euki ditugulako.

Hemengo gure arrapataka ibili behar honek, orain ez dauala ezer balio konturatuko gara.

Hainbeste irrika eta izerdiz eskuratu ditugun ondasun eta bizitzako edergarriak ezin izango ditugu hara eroan. Orduan, geure buru hau lelotzat joko dogu geurekerian buru-belarri sartuta erabili dogulako.

Han goian, hemen eskuzabalez emon doguna bakarrik aurkituko dogu; hemen zatitu dogunarekin beteko dira gure eskuak.

Gure zoriona eta poza bizitza inoren alde eta zerbitzuan emon dogula jakitetik etorriko jaku. Negarra, ostera, maitatu ez egitetik.

Eskuzabaltasuna ere zehaztasun apurrez beterik dator: atsegina, adikorra eta txintxoa da; ez dau inor buru makur jarten, eskeari aurrea hartzen dakialako.

Inoren beharrizanak urrinetik ikusten ditu eta isil eta apal aurreratzen da mesedea egitera.

Prestutasun hori behar dau zerbitzurako kristau jatorrak. Eta, batez ere, gizakia gizakiaren etsai eginik dagoan garai honetan.

Lagunurkoa neure senide lez hartzen dodanean, or-

duantxe naz gizon edo emakume jatorra. Zenbat eta gehiago maitatu geidea eta jatorrago agertuko naz ni.

Anaitasunak gizakia jatorrago egiten dau beti. Eta benetako gizakiak dagozan tokian, gizartea ere, zalantzarik gabe, hobea izango da, jatorragoa, zuzenagoa, anaikorragoa, garbiagoa...

Anaitasunak porrot egiten dauanean, orduantxe sortzen dira porrot horretatik norgehiagokak, temak, borrokak, geurekeriak, eraso beharrak, nahikeriak eta abar.

Nekez izango naz ona, zuzena eta garbia gizakiarekin, gizaki hori aurrezdik senidetzat hartu ez badot. Gizarte hau gizaki jatorren lurra litzake anaitasunaren eskuetan balego. Kristauen zeregin bat da lormen hori ere.

Kristauok beste arazo astun bat bakartadean bizi diranakin daukagu.

Pertsona asko bakartadean bizi dirala entzuten dogu. Uneoroko negarra da. Isil, itun, bakarti!

Batzuek ezbeharrak eroan ditu egoera horretara. Beste batzuk euren erruz heldu dira. Aldamenean jentea ugari ibili arren, eurak bakartade larri, ilunean bizi dira.

Zergaitik hori? Euren inguruan hormak, harresiak, jaso dituelako. Hormak eta hesiak bagarik, zubiak eta mandioak jaso behar ditugu.

Gizakia lagunarterako egina da, lagunartean hazi eta biziteko. Horregaitik lagunartea arrainak ura bestean opa dau; bere arnasea lez da. Bakartadean ez gelditzeko, horma barik, eten gabeko zubigintzari ekin behar deutsagu guretariko bakotxak.

Uri handietan dabil, batez ere, zabal-zabal gaixo bildurgarri hau. Negar zotinak entzuten dira, bakartade

askotan. Mileka eta mileka pertsonez inguraturik bizi dira, eta halan da guztiz ere bakartade izugarrian.

Uri barruan aurkitu dabe eremuko isila. Ez dira inogaz alkartzen, ez deukee ezelako hartu-emonik, ez nogaz hitz egin, ez nogaz ibili. Beti bakartadean, gaur eta bihar, eta hurrengoan. Bizitza guruzbide eginik, etsimenean jausteko zorian.

Sinestezina da hau, gaur, komunikabidez burutik gora gagozan garai honetan. Baina, zoritxarrez, egi garratza.

Gitxi-asko, danok gaukaz atrapauta gaixo honek. Sarritan nahi genduke guk ere holako adiskide on bat alboan berari gure bihotza zabaltzeko, adiskidetasunaren gozoa zurgatzeko, eta adiskide hori ez dogu aurkitzen.

Adiskidearen agotik datorren hitz gozo bat gogotsu entzuten dogu.

Hitz horrek ez deuka guretzat nekerik, berez datorkigu ezpanera, baina itxaroten dagoenagan mirariak egiten ditu.

Askotan hitz erditxo hori adorea, kemena, poztasuna emoteko izaten da; bihotza zabaldu eta gogoa argitzeko, edota txarto egin dogun zerbait gogoratzeko.

Hitza erabilten jakin behar dogu. Ona nahiz txarra erein geinke geure berbakin. Guk beti ona ereiteko erabiliko dogu.

Egoki-egoki esandako berbatxo batek on handia egin leikeo gure ondoan dagoan pertsona bati. Argitasun apur bat, adore pixka bat, bultzada txikitxo bat, esku-emote bero, irribarretxu bat..., holako ikutu batek zelan aldatzen eta goratzen dauan gizakiaren bihotz barrua.

Zenbat on egin leikean une egokian esaten dan berbatxo batek!

Adikorrak izan behar dogu honetan. Hitza da gizon

eta emakumeen bihotzetara heltzeko biderik zabalena. Ez deigula galdu ohitura eder hori.

Batez ere zaharrak, gaixoak, ezindunak, elbarrituak, senditik urrunduak, gizarteak bide bazterrera jaurtitakoak dagoz lurpe ilun horretako bakartadean.

Ageri-agerikoa da gaurko mundutarren ardurarik eza besteen ezbehar eta zoritxarren aurrean. Errukia eta laguntza nahiko urri dabiltzaz mundu zabalean.

Kristauok fede txingar txikitxo bat barruan daroagun bitartean, behintzat, adikor eta errukior jokatu beharko dogu zori horretan aurkitzen diran hurkoekin. Kristo dago pertsona horreen tokian. Kristo da laguntza eske daukaguna.

Usteletan ustelena litzake gure kristautasuna honetan huts egingo bagenduke. Guzurti handi batzuk ginakez, Joan apostoluaren esanetik.

Nahiko garratza eta mingarria da senide errukarri horreen negarra, gu isilik eta geldirik geratzeko.

Baina, lehenago edo geroago, gugana ere helduko da errotarri hori eta, gitxien uste dogunean, azpian hartuko gaitu. Gure atera ere deika etorriko da.

Gaixoa, zorigatxa, ezbeharra, saldukeria, azpikeria, zapuzkeria eta abar, gure bidondoan jarritako gurutzeak dira. Ordu hori heldu daitenerako, ondo gerturik euki behar ditugu gure gogo-bihotzak.

Saio aldi gogorrak egin, tarteka-tarteka, gurutzearen inguruan espiritua sendotzeko. Ondo eskolatu oinazearen jardueratan.

Jesusekin batera eroan gure gaixo, oinaze, bakartade eta gurutzat. Ama Birjinarekin gurutzepean Jesusi begira ordu luzeak emon. Jesusen odolez bihotz ontzia, tantaka-tantaka, goraino bete.

Gogoa tente, fedea eta itxaropena zutik, nahiz eta soina oinaze gorrian haustuta eroan. Oinazea salbatzaile bihurtu.

Gertaketa hau behar-beharrezkoa dogu, gero, samin orduan, gurutzepean hauspez jausita, minaren minez, edota buruko zoroz zer egin ez dakigula aurkitu ez gaitezan.

Gogoa gertau ordu garratza heldu daitenerako.

BAKEA LURREAN

Ebanjelizatze jator bat egiteko bide barriak zabaldu nahian gabiltza gaur. Horretan ditugu jarrita gure ames eta helbururik NAGUSIENAK

Lurbira osoa zapaldu behar dogu ebanjelioa hotseginez. Baina, ezetan hasi baino lehen, gogoratu daigun Jesusek dirauskuna, ereilearen parabolan.

Ereilea hazia botatzera urten zan. Eta hazia botatzean, zati bat bide ondoan, beste bat harritartean, hirugarren bat sastrakatan eta laugarrena lur marduletan jausi zala.

Eta lur gozoan jausi zanak bakarrik emon ebala frutu ugaria.

Bidondoan, harritartean eta harantzartean erori zana, barriz, alperrik galdu zala.

Honek esan nahi dau hazia erein aurretik, lurra jorratu eta gozotu egin behar dogula, bestela gure lana alperrekoa izango dala. Lehen eta behin, oztopo eta lohi guztiak batu eta erre behar ditugula. Oztopo honeek, zetan esanik ere ez, askotan sendoak izaten dira; ezinbestekoak hainbaten. Euretatik bat gogorkeria dala esango neuke. Gizartean jauntxo eginik bizi dogun gogorkeria.

Berau da, zalantzarik gabe, gizarteko gaixorik zitalena eta zabalduena. Egunetik egunera zabaltzen ditu bere zantzu bildurgarriak munduan zehar. Izurriterik baltzena.

Ludi zabalera begiratuz, memoria zerbait freskatzen badogu, munduko herrialde guztiak nozbaiten gerraren bat ezagutu dabela gogoratuko dogu. Lurreko lurralde guztiak hartu dabe zigor hori; odolez gorrituta egon dira.

Danok dakigu gerra bat zer dan. Egunero ikusten ditugu begien aurrean gerrako irudi tristeak.

Sendi eta herriak hondatuta, sua eta odola bazterretan, hondamendia eta negarra, inpernu bizia alde guztietan.

Erbestetuen zizpuru eta nekeak; errefuxiatuak sartzeko jasotako sarezko itxiturak, atxilotuekin egiten diran basatikeriak...

Bakerik gabe ezin izango dogu gizarte onik lortu.

Alkarren aurka egiten ditugun zuzenbakokeria eta maitasunik ezean dago gerra eta gogorkeria guztien iturria.

Lurreko ondasunak, bai materialak eta bai kulturalak, txarrago ezinean dagoz zatituta. Batzuek gehiegi eta besteak ezer ez.

Hortik sortuak dira hainbeste tokitan dagoen gosea, pobretasun latza, menpekotasuna, analfabetismoa, etxerik eza, lanik eza eta abar.

Egoera honetatik biziezina sortzen da, alkarren arteko gorrotoa eta eroanezina, borroka eta armetarako bidea.

Gu, herri aberatsok, geurea eta besteen ogia jaten hasi gara. Eta ogiarekin eta ondasunekin egiten doguna egiten dogu, baita ere, beste eskubide guztiekin ere.

Beste ankerkeria izugarri bat "apartheid" deritxon sistema hori da. Gogorkeriari barru-barrutik darion hats ustela.

Gogorkeria da sistema horretan jaun eta jabe. Baltza abereak baino beheragora eratzita dago herri horreetan. Eskubide gabeko gizakia; lanerako tresna. Lan gogor,

zikin eta arriskutsu bat non, eta han baltzak ikusiko dituzue, lan sari triste eta zeken baten ordainez nekearen nekez okertuta.

Gizakia jo, zapuztu, ostikoperatu, zauritu, atxilotu, aurrean erabili eta kasketak emonez erabiltea nahiz gizakia hiltea eta abar gehiegitan ikusten dana da.

Zergaitik hori? Baltza izateagaitik bakarrik!

Eta hau korbatadun polizia zuri eta dotoreak egiten dabe.

Zein pekatu egin ete dabe baltzak beti eta beti ezeukian eta kale gorrian bizi behar izateko? Nok bota ditu inpernu horretara?

Baltzak eta zuriak, alkarrengandik banatzen gaituezan loturak hausita, giza-eskubideen gozamenean bateginik eskutik joatea lortzen ez dogun bitartean hutsa izango da gure ebanjelizatzea.

Gogorkeriaz grinatuta jaioten gara. Danok daroagu barruan, milla eratara estalduta, gaixo hori. Ez dago gizon-emakumerik nozbaiten, gitxi-asko gogorkeria erabili ez dauanik. Geure kaltetan dabiltzanak geure arerioen artean sartzen ditugu. Gehiegitan, zoritxarrez, gaiztakeriarik baltzenak egin ditugu bere eraginaren indarrez.

Hitler-ek, bere egunetan egindako judutarren erailketak, bere errikide eta jarraitzalleen artean, nahiz eta ankerkeriarik izugarrienak izan, legezkoak lez hartuak izan ziran. Bardin Stalinek egindakoak ere.

Amerikarrak jai-algaraz, handikiro eta harro, ospatu eben Japon gainera atomozko lerkaiak jaurti zituen egun negargarri ha.

Munduak ez eban negarrik egin zigor haren aurrean. Ez zan lotsaz lurpean sartu. Lurpean sartu zituenak

Japoniako ume, emakume, zahar eta biztanle errukarriak izan ziran.

Egun horretan emon eban bere neurria munduak. Hantxe geratu ziran lurperaturik, hilekin batera, gizakiaren duintasuna, gorengotasuna, alkarrenganako itzala, anaitasuna, demokrazia, bakea eta abar, hau da, gaur hitz handiz eta kukurrukuka, oihukatzen ditugun giza-baloreak. Hantxe jausi zan gorrotopean hilda gizakia.

Gaur geroz, mundua behingo baten desegintzeko armak edozein zororen esku dagoz. Gaur berton, ez baten bakarrik, hirurogei bidar haustu geinke mundu hau ditugun armakin. Horretarako badira, hoba zoroetxe baten lotuko bagenduz gure jakituria eta aurrerapen guztiak.

Honez gainera, gizakien eta herridien arteko gogorkeria hau bizitzako arlo eta maila guztietan nabaritzen da. Txoko guztietara jatsita dago. Bildurrez zoaz kale ilun batetik.

Nazio arteko politika eta hartu-emon guztiak ere ildo horretatik doaz.

Langile alkargoak, ekonomiaren barrunbe eta eskakizun guztiak, sal-erosketako bitarte eta zulo guztiak, herri aberats eta pobreen arteko alde eta desbardintasunak, bata besteaganako jardun eta betebeharrak bere esku dituela, hau da, bizitza guztiaren arnasabide lez agertzen jaku gogorkeria.

Beraz, gizakiaren gaixorik handiena lez aipatu behar dogu. Sida, minbizia eta gainetiko izurrite guztien gainetik. Holan aitu dabe, behintzat, gure artera etorri diran gizon-emakume argi askok.

Hor ditugu, esaterako, Gandhi, Luther King, Oskar

Romero eta abar, gaurko bakegile ospetsu batzuk aitatzearren.

Gizon honeek gizakia eta beren herrien eskubide eta askatasunaren alde emon eben odola. Baina, askatasunerako bide horreek egitean, ez armarik, ez odolik, ez mendekurik, ez gogorkeriarik, ez heriotzarik ez eben kalera atera.

Arma eta odolik gabeko burruka baketsua eskatu eutsoen beraien jarraitzalleei.

Arma ordez arrazoiaren indarra, zentzun honetik datorkun babesa, gizakiarentzat begiramena, maitatzeko dogun ahalmena, ebanjelioan oihu gogorrean dabilen bake deia, anaien arteko aitumen ona aukeratu zituen ikurrin lez, injustizia guztien kontra borroka bide lez.

Arazo guztiak, okerrenak ere, bakez konpontzekoak zirala uste eben gizon hareek. Siniskera honen eskutik urten eben mundura bakearen aldeko olinpiada hori egitera.

Baina hemen, itaun bat dator, salatari, gizonen burura. Gaurko mundu hau gauza ete da gizon horreen pentsakera eta jokabideak onartuz eta erabiliz gizartean sartzeko?

Ba ete dago aurrelari horreek aldarrikatu eta egin ebena egiteko adorerik eta asmo onik? Inozkoren baten, gure helburu eta ikurrin egingo ete ditugu irakaspide eta bakezko erabide horreek?

Gaurkoz ez da honen antz handirik ikusten. Agoz ez bada ere, egitez behintzat baztertuta ikusten ditugu sistema horreek.

Sinistuta gagoz bakebidea ez dala baliagarria mundu honetako arazoak onez konpontzeko. Aingeruentzat dala altxor hori. Pentsakera honen menpe bizi gara.

Horregaitik, egunetik egunera, arma barrien bila dabil

gaurko gizakia. Zenbat eta erailkorragoak izan, eta hobe. Buru bihotzak erabat gaixo honek jota daroaz.

Hortik, auzi edo eztabaidaren bat bideratzen jakunean, bakerako bide diran baliatasunen, hau da, aitumen eta gogo onaren ordez, epai-mahaitzat legea eta indarra jarten ditugu.

Eta honen ondorena badakigu zein izaten dan: auziak hasarrez edota odolez ixten dirala. Horregaitik diñot, baketsua eta bakegilea izateko zanik ez daukan gizakia gogoz gaixotuta dagoala eta, edozein gaixoren antzera, osakuntza baten beharrean dagoala.

Izakien artean, gogorkerian geu gara aurrenengoak. Askotan euli bategaitik hilten ditugu aurrekoak; ikurburu batzuei leialtasuna gordetzearren bakarrik. Ipini hor ikurrina, aberria, izen ona, ospea, agintaritza eta abar.

Inor hiltea, zauritzea, txarrez erabiltea beharrezko lez hartzen ditugu. Piztiak heltzen ez diran neurrira heltzen gara honetan.

Beraz, ebanjelizatze jatorra egitekotan, gizakia, ezer baino lehen, gogorkeria eta etsaigoaren grinapetik askatu behar dogu. Berezkoa dauan basatikeria horretatik atera. Hau gabe ezin izango dogu gizarte baketsurik lortu.

"Ez gehiago gerrarik. Jaurti zuen armok eskuetatik. Armak eskuetan dituzuela ezin zeintekeze neba-arrebak izan". Hasarre astun hau egin eutsen Aita Santu Paulo VI.ak ONUko ordezkoei.

Mundua zaintzeko armak behar ete dira? Ez ahal dago beste modurik?

Gizadiak dituan ondasun eta balore gorengoak zaintzeko armak behar baditugu, basatikeria geure odolaren zati bat dala autortu beharko dogu.

Pentsakizunok gugandik uxatzen ez baditugu, bakebide barriak aurkitzen nagi eta muker bagabiltz, lehenago edo geroago, gizadia bere hondamendira eroango dogu.

Jesusentzat "bakea" ez da agur bat, agotik agora esaten dan hitz gozo bat. Gizarte tontorrean tente dagoan ikurrina da. Erreinuko helburu nagusi eta ikutuezina.

Jesusen irakatsi guztiak itxaso honetara datoz.

Zeruko Aitaren semeak garala irakatsiko deusku ebanjelio guztian zehar. Hortik datorku alkarren anaitasuna.

Alkarren zerbitzuan egon, alkarri oinak garbitu. Zeuretzat nahi ez dozuna, ez beste inorentzat nahi izan.

Behartsuei jaten eta edaten emon, biluziak jantzi, gaixoei lagundu. Bidean jausita dagoana lepoan hartu eta ostatura eroan.

Zorionekoak ongile, errukitsu, parkatzaile eta bakegile zareenok. Zorionekoak anaiaren alde bizia emoten dozuenok, odolez ez bada ere, bai gogoz eta bihotzez.

Hauxe da ebanjelioan agertzen dan gizakiaren irudia. Hauxe Jesusek bere begi-bihotzetan ikusitako gizakumea, mundurako egin eban giza-eredua. Mami honetatik sortutako gizon eta emakumeak nahi ditu Jesusek.

Beraz, eskola honetan hazi eta moldatu behar dogu gaurko gizaki gogor eta bihurra.

Hau lortu arte, ezin izango dogu ebanjelio hazirik gizonaren bihotzean erein, harri artean hazirik ezin dalako erne.

Hau dala eta, ebanjelizatze barriaren oinarri bat gizakiaren bihotz gogorra, lur bigun eta guri bihurtzea izango da.

Honetantxe dago kristau legearen mamia.

Auschwitz, alemandarrak, azkeneko gerraldian, gizakiak desagerterazoteko asmatu eta eginiko giza erretegi hori aurkitu eta askatu zanetik, berrogeita hamar urte luze igaro dira. Horren 50. urteurrena ospatu da oraintsu.

Auschwitz-en egin zan giza hil-dantza hori, aurrerantzean, beti gogoratuko da. Gizakiak ankerkeriari jasotako oroitarri lotsagarria lez geratu da lur zati madarikatu hori.

Txarkeria horren hasarrepean sumildurik, gizadi osoa doa, munduko bideetatik zehar, samin uluka: ez barriro holako ankerkeriarik mundu zelaian, hori ez da gizakiona eta. Piztiak ere ez dira horraino heltzen. Ez dagiala barriro inok berbiztu.

Eskabide eta asmo eder honeek ezin hobeak dira; txalogarriak, giza helburu nagusi egin beharrezkoak. Higuinez, lotsaz eta damuz negar egitekoa da Auschwitzen egin zana.

Basatikeria horren kontzientziak gizon eta emakumeen buruetan zutik eta bizirik iraun dagian, lurbira osoa baltzez jantzi eben munduko komunikabide guztiak, egun negargarri horren urteurrena munduko lau haizetara aideratuz.

Arriskua iragarten dauan adar soinua balitz lez bizirik zaindu nahi da jazokizun horren oroitzapena. Ez barriro holakorik!

Baina, tamalgarria dan arren, gaur berton, Europan zehar, Auschwitz asko agertu dira zoritxarrez. Hor Europako ekialdean eta abar, eurekin esan ezinezko basatikeriak egin ostean, abenderri osoak lur gainetik guztiz garbituak, hilortziak izan dira, beste europatarrak berba eta berba, barriketa hutsean, urrinetik begira egon diran bitartean.

Giza lege guztiak zehatzean zapalduak izan dira hor; batxo bat bera ere ez da zutik geratu. Lurrak kentzeko erabilten diran makina indartsuekin hilobi zulo handi, sakon eta zabalak egin ondoren, mileka eta mileka ume, gizon eta emakume, martiritza gogorretan erabili ostean, tiroka hil eta trapu zaharrak balira lez, piloka, danak batera lurperatu izan ditue.

Gudaketan atxilotuekin ere inondiko zatarkeriak, itsusikeriak, nabarbenkeriak egin dira.

Gorrotoa, basatikeria, odolkeria, ankerkeria ertzak apurtuta, gainezka, bideak betean ibili dira Balkanetako lurralde horreetan. Gizakia xentimo baten truke. Giza eskubide batxo bat bera ere ez da errespetatu.

Gudaketan ibilitako herrialde horreetan, giza lege eta eskubideak zelan zaintzen ziran jakinerazoteko, hara bialduak izan ziran nazio arteko oharkari eta begiraleak esan daben lez, etsaia txindurria baizen erraz hilten ei zan hango mendi eta kaleetan. Auschwitz-en egindakoen parekoak bai behintzat.

Aprika aldean ere beste hainbeste jazoten da. Zenbatuezinezko gizataldeak, herri osoak desagertu dira lur gainetik. Piloka hil ditue han ere.

Bihotza daukan bati odola gogortzen jako zanetan hainbeste eta hainbeste ume, gizon eta emakume holan erabiliak ikusita. Teknikarik lotsagarrienak darabilez gizonak hilteko Somalian, Ruandan eta beste toki askotan. Herri osoak odolez itota dagoz.

Beste asko hara eta hona, aurrera eta atzera, otso talde handiak, odol egarriz atzetik datozelako. Ehiztaria erbiaren atzetik lez, holantxe dabiltza gizon-emakumeen bila, gizon-emakumeak txarrez hilteko.

Eta tiroka hil ezin dituenean, bidean gaixoz, ezbeharrez edota gosez hilten dira.

Bitartean, nazio arteko erakunde eta egitura nagusiak diplomaziari adarrak zorrozten, edota aterik ate barriketa hutsean dihardue ezer onik egin gabe egoera eta jazoera larrioi irtenbide egoki bat aurkitzeko gogorik gabe. Turuta soinu luze eta zorrotzak, baina egite ergelak, erkinak, epotxak...

Auschwitz betiko hil zala aditzera emon gura izan zan berrogeita hamargarren urteurren hori ospatzean. Baina, mundu zelaia oraindik ere Auschwitz barriz beterik ageri jaku.

Tokiak eta borreruak aldatu dira, baina Auschwitz-ek bizirik eta agintari jarraitzen dau. Eta gaurko honeek ez dira lehengoak baino hobeak, bigunagoak. Enbor batetik sortu diran adarrak dira. Iturri berberak emondako pozoina.

Geure begiz ikusi ditugu irudi negargarri horreek, han eginiko ankerkeriak; bahitegi horreetzaz esan eta idatzi diran paper eta agiriak, munduan zehar, hara eta hona, biraka ibili dira. Aurkimen honeen ondorioa argia da: oraindik Auschwitz ez dala hil, ez dala amaitu. Gure itauna etsipenez dator: inoz hilgo ete da?

Zoritxarrez, gaur eta geugandik hurbil, Auschwitz gehiegi aurkitzen ditugu. Ez daigun, beraz, ames merkerik egin.

Bekokian haragi eginda daroagun Kainen marka hori betondotik kentzen ez dogun artean, hor jarraituko dabe, gaur hemen eta bihar han, dantza eta dantza, gizakumeak asmatutako inpernu izugarriok.

Inpernu bizi horreek desegintzeko arma bakarra dago:

ankerkeria, gorroto eta basatikeriari heriotza emon, eta harrizko bihotz horren ordez, maitasunez eta anaitasunez eginiko bihotz barria jarri gizakien bularpeetan.

Kainen pekatu hau lur gainetik garbitzen ez dogun bitartean jai dago; ez dogu munduan sekula bakerik ikusiko.

Arimako gaixo izugarria, minbizia lez da gorrotoa. Gizakiaren barrua pozoinez erre erre dagi. Apokalipsian agertzen dan herensugearen antza deuko bere eginetan.

Maitasunaren ukamena daroa oinarri; maitasun txinpartatxo bat bera ere ez dago bihotz horretan; hurkoaganako destainan eta erdeinuan janaritzen da gorrotoa; hurkoak madarikatzea da bere zeregin bakarra.

Gorrotoaren betera, lagun urkoari oiñazea, ezbeharra, hondamena opa deutsoz. Gorrotoa berez antzua izatez gainera, irteera gabeko bidea, zentzunik gabeko burubide itsua izaten da. Kristautasunaren ukamena.

Gaixo gaizto honen osakaia ebanjelioan aurkitzen dogu. Gorrotoa eta armak bihotz eta eskuetatik jaurti eta anaitasunaren aldeko iraultza orokor bat egin behar genduke ebanjelioaren gurarietara.

Kristauok esaten dogun "gure Aita" otoitzean, Jesusek iragarpen zoragarri hau egin deusku; ezagutzen ez genduan barri bat emon jakitera: Jaungoikoa gizaki guztien Aita dala!

Aita maitekor hutsa. Eta honen ondorioz, gizaki guztiok, mundutar guztiok, neba-arreba lez alkar aitu eta hartu behar dogula. Hauxe da bakerako bide bakarra. Gorrotoaren eta heriotzaren iluntasunak aurrean eroango dituan egun senti gozo, argia. Bihotzetako hotza berotuko dauan sua.

Anaitasun orokor hau da kristautasunaren bizi arna-

sea, bihotza, oinarria. Giltzarri honen gainean zutitzen da kristau herria. Anaitasun horren egile ikusi gura gaitu Jesusek.

Jaungoikoa ezin gurekin pozik egon guk berari Aita deitu eta, gero, geure artean gorrotoan bizi bagara. Senideen zapaltzaile bagara.

Jaungoikoa ez da gurekin pozik egongo guk eskatzen deutsagun eguneroko ogia bere seme-alaba guztien artean zatitzen ez badogu.

Jaungoikoa maite dogunaren ezaugarri hutsezina geure lagunurkoa geure burua lez maitatzean dago. Lagunurkoa, barriz, gugandik hurbil dagoan auzoa da; beharrizanean aurkitzen dan edozein auzo.

Arerioak eurak ere maitatu behar ditugu Jesusen agindu duz. Eta arerioa, egiz eta benetan maitatzen danean, horrek zeruari ikutzen deutso eta, orduan, arerio izatetik geure senide bihurtzen da maitasunak dauan indarrez.

Jesus bera dogu hemen eredurik onena. Kurutzetik: "Aita parkatu egiezue" esan ebanean eta danen erruak bereak eginik azken arnasea emon, orduantxe baketu zituan zeru-lurrak eta gizaki guztien anai-neba bihurtu zan.

Gure kristautasuna berba hutsetan gelditzen da askotan. Sarritan irakurri eta entzun dogu ebanjelioa; askotan hausnartu geure barruan; sarritan agotan erabili, baina gauza bat zor jaku egiazko kristautasunera sartzeko: Ebanjelioa bizitza egitea; egintzetara ekartea. Ebanjelioa, batez ere, biziteko emona jaku, eta ez hitz handi eta ederretan gordeta eukiteko.

Kristau bakotxak geure eguneroko bizitzara eroango bagendu Jesusen ebanjelioa, beste gizarte bat genduke kantari.

Munduko bazterretan ikusten ditugun hainbeste eta

hainbeste zoritxar, hau da, munduko txirotasuna, gosea, ezjakintasuna, ezeukitasuna, gizakiaren menperatze eta zapalketak, gorroto eta borrokaldiak, gizakiaren aurka egiten diran txarkeria eta heriotzak, munduko gatx guztiak eguzkiak iluna uxatzen dauan lez uxatuko litzakez.

Honek esan nahi dau, Jesusen agindu nagusia "alkar maite dagizuela, nik maite izan zaituedanez", agindu hori kristauok eguneroko bizitzara eroan behar dogula. Eguneroko zeregin nagusi bihurtu.

Hortxe ikusiko dau munduak gure kristautasunaren egitasuna.

Jaungoikoa gizakiagan datorkigu gugana, gure bidera. Gizakia maitatzean Jainkoa maitatzen dogu eta bere asmobide guztiak bete. Maitasuna ez da kristau batentzat hartu edo itzi leiken karta bat.

Argi agiri da hau San Mateogan: "Gose izan nintzan eta jaten emon zeusten; arrotz nintzan, eta etxean hartu nenduzuen; gaixorik, eta ikustaldia egin zeusten, eta abar"; hementxe dago gure fedearen egitasuna ziurpetzeko behar dan ikertarria, froga nagusia.

Eta gaur, Jesus mundura barriro baletor, ziur-ziur, gizakien beharrizanen zerrenda hau luzeagoa egingo leuke, eta esan: "Bakarrik egon nintzan uri handi edo herri txikian; lanik gabe nengoan; gogo beheratuta bizitzak emondako kinakada zorrotzakin; nekatuta, lanaren astunak jota; galduta nenbilen erbesteko kaleetan norabiderik gabe erbesteratu nindenean, barrua hutsik nebala bizitzari zentzunik aurkitu ezinean...

Honako beharrizan asko jarriko leukez Jesusek gaurko ebanjelio barrian.

Karidade bihurtzen dan fedea da egizkoa. Egintzarik gabeko fedea ez da ebanjeliotarra.

Kristaua, esan dogu, muga bako gizona da. Munduko biztanleak gara, horregaitik munduan jazoten dan guztiaren ardura hartu behar dogu.

Geure etxeko gauzen ardura hartzen dogun lez, gizarteak beragan dituan arazo handi eta astunak ere geureak balira lez begiratu eta hareen arduran bizi.

Nahiz jakintzaren eta kulturaren bide barriak dirala, nahiz teknika eta bilakuntza eta aurrerapenari aurre bideak aurkitzea dala, edota gosearen kontrako borroka, edota giza eskubideen zapalketa..., kristauak hantxe egon behar dau beti lehenengo tokian.

Guretzat gizon edo emakume arrotzik ez dago danok neba-arrebak gara eta. Beraz, alkarren arteko solidaritza hori, daukagun guztia, neurri baten danena eginaz bizi behar dogu.

Mundua geurea da. Jaungoikoak geure esku itzi deusku. Ezin geinke baztertuta itzi ardurakizun hau. Egunetik egunera, guztion ardura, izerdi eta solidaritzaz, gizaki guztientzat, nor zein eta nongoa dan begiratu gabe, bizitza duin, alai eta oparotsu bat izan dagien arduratu behar dogu.

Munduak dituan arazo handiak, batez ere hirugarren mundukoak gogoan izanik, kristautasunaren deira, holako solidaritza eraginkor eta bizi baten jokerara, euren aurrerakuntza lortzeko bidean datozan herridi guztiai geure eskua emon eta, geurekin batera, aurrerapen tontorrera jaso behar ditugu.

Gizaki eta herrien arteko solidaritza eta anaitasunik eza da gizarteko zoritxar guztien gatxa. Sarritan, teknikak eta aurrerakuntzak lortu ahal ezin daikeana, anaien arteko solidaritzat lortzen dau.

Anaitasuna geure bizitzako odol eta arnasa egiten ez dogun bitartean ez dogu gizarte zoriontsurik izango.

Ez da nahikoa karidadea egitea ere; karidadea ona da, baina aurretiaz zuzentasunaren eskakizun eta betebeharrak hornidu baditugu.

Zuzentasunaren kaltez egindako hutsune eta zuloak ezin daitekez karidadez bete. Karidadea justiziaren koroia da, baina ez justiziaren ordezko betekina. Justizia lehenengo eta gero gerokoak.

Justizia eta karidadea bananduezinak dira kristau batentzat.

Erro batetik datoz biak, hau da, maitasunetik.

Eta maitasunaren lehenengo betebeharra lagun urkoaren eskubide eta duintasuna aintzakotzat hartu eta gizakiari oso-osoan eskeintzea da. Zintzoa dana, ongilea ere izango da, eta ongilea dana, zalantzarik gabe zintzoa. Besotik hartuta doaz beti.

Gosez dagoanari jaten emotea gauza ederra da, baina gosea bera lur gainetik uxatzea, urruntzea oraindik gauza ederragoa.

Eta horretan jarri behar ditugu guk geure asmo eta helburuak. Ez da honen ardura handirik ikusten nazio arteko agintari, handiki eta dirudunen artean. Hitz handi eta ederrak esan bai euren hitzaldietan, baina, azken baten, gauzak lehen egozan lez geratzen dira beti.

Munduko zoritxarra geure senidetasun ezetik dator; beraz, senidetasun hori lortzeko holako iraultza orokor bat egin behar dogu guztion artean.

Horretarako, gizartean sartu ditugun egitura eta erakunde ustel, gaizto, basatiak desegindu arte ezin izango dogu geure borroka hau itzi.

Lehenengo eta behin, gizakiaren bihotzean garbikun-

tza handi bat egin, urrezko zezenaren ordez urrezko bihotz bat jarriaz eta, gero, gizartearen soin atal guztiak, hau da, erakunde, egitura, giza hartu-emon, giza-duintasunaren eta eskubideen zainketa, ondasungintza, honeen zatikuntza eta abar erabarrituz eta ontasunez eta zuzentasunez jantziaz.

Gizarte zuzen eta senideartekoago bat gauzatzeko behar diran erabide eta egokitasun guztiak barruan sartuz.

Gizartea ontasunaren eta zuzentasunaren bideetan jarri. Hauxe da, batez ere, kristauen egitekoa.

Honetarako gauza ez bagara, edo beste bide batetik joten badogu, edota alperkeriko lotan murgiltzen bagara, orduan okerreko bidetik goaz; ez gaitu inok kristautzat ezagutuko.

Geure ingurukoak zoriontsu egitean agortu behar ditugu gure bizitzako egun eta orduak. Besteen zoriona bilatzea, karidadearen gainetik dago; barruragora doa. Besteari emonda egotea da. Loraz eta ederrikusiz betetzea besteen bidea, bihotzez maite ditugulako.

Maitasunean barru-barruraino busti ez dan karidadea, ergela, erkina da. Maitasunaren ordez, beste asmobide batzuk euki leikez.

Goitik behera begiratuz, edo irribarre harroz, edo txalotuak izatearren, edota geure nausitasuna agertzearren egiten badogu, karidade hori ur zikinetan nahastuta doa. Gizakidea beheraturik geratzen da hor.

Karidadea maitasunetik datorren iturri garbia da, horregaitik beti maitasunez egin behar dana.

Edo besteak zoriontsu ikustearren edo besteen beharrizanei aurrea hartuaz, ezerezen trukez, lagunurkoaren onari begira egiten dana, edo besteen ezbeharrak geureak egiten ditugulako edota besteen poza eta zoriona geureanaren aurretik jarri ditugulako, dana dala, karidade egiazkoak beti maitasunaren kutsua eroango dau bere egintza guztietan.

Besteen zoriona eta poza norberen helburu eta bizibide lez egiten dituan gizakia, bera ere esanezinezko zoriontasunean inguraturik aurkituko da. Behar bada ez dau zorion handiagorik bere bizitzaldi guztian aurkituko.

Ama bat noiz da zoriontsuen? Etxekoen zerbitzu bizian diharduenean. Bardin esan geinke besteen alde, honetan edo haretan askotan zerbitzurik neketsuenetan bizia agortzen daben guztien alde ere. Nekearen barruan, zorionik handiena aurkitzen dabe.

Azken baten, zoriontsuena emoten dakiana da, eta ez dana beretzako nahi dauana.

Gizakiaren txarkeria, kirtenkeria, beraren buruzalekerian sortzen dan gatxa da. Norberekeria da pekatu guztien ama.

Pertsonen arteko maitasuna ugaritzen dogun neurrian, gizarte zoriontsuago bat izango dogu. Norberekeria nagusitzen dan neurrian, ostera, gizarte basatiagoa.

Bizitza besteen alde zerbitzuan emoteko da. Hortik, gure bizitza besteen alde eskeintzen dogunean, hurkoari zerbitzurik onena, oparirik ederrana egiten deutsagu.

Geure bizitza da eskeini ahal geinken doarik baliotsuena, batez ere, geugan bizirik daroagun guztia maitasunez eskeintzen dogunean: geure fedea, maitasuna, txukuntasuna, laguntza, poza, zoriona, alaitasuna, bihotzeko beroa...

Holako egintza ederrak gauzatzen ditugunean, geure zorionaz batera, senideen zoriona ere beteagoa, pozgarriagoa egiten dogu.

Ni, bizitzako irakatsirik, bizikerarik garrantzitsuena,

aurrenengo hau berau dala eta nago, eta halan eta guztiz ere, oraindik ikasi gabe edota ahaztuta daukagu.

Gure bizitzaren gailurra, tontorra edozein gizakiri oinak garbitzean dago. Orduantxe sartzen gara geure bizitzaren muinetaraino.

Gizaki guztien alde bere bizia emon eban Jesusen jarraitzaile gara kristauok. Jesus dogu eredu eta gidari. Eta Jesusen goratzarrez hauxe dino ebanjelioak: "on eginez igaro zan mundutik". Gugaitik kurutzean hilteraino heldu zan Jesus.

Azken bardina emon behar geunskio guk ere geure bizitzari: on eginez ibili munduan zehar azken arnasaraino.

Jesusen ondoren, Ama Birjina datorkigu ontasuna erakusten.

"Ama errukiorra", esaten deutsagu Andra Mariari geure otoitzean. "Bihurtu gugana, Ama, zure begi errukitsu horreek".

Jesus mundu honetatik on eginez igaro zala esan dogu; ba, Andra Mariaren alde ere beste hainbeste esan beharko dogu. Errukizko itxasoa dogu Andra Maria.

Kanako ezteguetan emon euskun erruki honen irakaspide ederra.

Ezteguetako jaia onenean egoala, Andra Maria ardaoak huts egiten ebala konturatu zan.

Eta ez zan honi eta hari deika eta esaka hasi. Isil-isilik Jesusen ondora urreratu eta esan eutsan: "ardaorik ez deuke".

Honek esan nahi dau Andra Maria, bere buruaz ahaztuta, han jazotzen zan guztiaren adikor egoala.

Ez ditu ikusi nahi bere adiskide kutun dituan ezkonbarriak ardaorik ezaren lotsaripean.

GOGORKERIARIK EZA

Ebanjelizatze barriaren oinarri bat, gizakia gogorkeriaren menpetik askatzea dala esan dogu. Hori gabe ez egoala ebanjelizatze jatorrik.

Kristau askok, bai abadeak bai laikoak, bakegintza hau gaurko misiolaritza barruan, lehenengo tokian sartzen dabe.

Begi barriz ikusten dabe saio honen garrantzia. Gainetiko balore eta irakatsien artean aurrengotasuna damotse. Ebanjelioan bertan ere berebiziko doinua, arnasea dakar.

Bakerako deia ez dator han aholku edo betegarri antzera. Agindu esanera dator. Munduaren bizitzarako oinarrizko lege gisara. Jesusen agindu barriak daukan indar eta garrantzi berbera ditu, maitasuna eta bakea Jesusen asmoetan bat bera diralako.

Bakea ebanjelio guztiaren bilduma eta gailurra da. Hitz bakotxean zintzilik datorrena. Ez dago beste ebanjeliorik. Kristau izatea bakegile izatea da

Jesusen bakean barren-barreneraino murgildu, bihotzean gozoro gorde, eta beraien adore eta kemenaren betera bakea edonon eta edonora zabaltzen ahalegintzen direnak, Jesusen goralmen hau jasoten dabe ebanjelioan:

"Zorionekoak bakegileak, Jainkoaren seme-alaba deituak izango dira eta".

Jesusen benetako anai-arrebak dira. Bakegintzan dauke jarrita euren zorion guztia, eta Jainkoaren bake hori mundu zabalera eroatearren edozein neke eta ukaldi hartzeko prest dagoz."Horreexena izango da zeruko erreinua".

Bakegileen zoriontasun honegaz loturik datoz, katea eginik, gainetiko zoriontasunak ere. Hobeto esateko, bat bera dira danak.

Onbideratzeak, Jesusen agoan, buru eta bihotzaren aldaketa zintzo eta orokor bat eskatzen deutso gizakiari.

"Zorionekoak gogoz txiro diranak zeruetako erreinua eurena da eta"

Apalak, txikiak, azkenak gertu dagoz erreinurako. Egiazko bakegile diranak, bake sortzaile eta ereileak Jainkoaren aurrean apal, txiki eta azkeneko autortzen dira. Eta Jesus berbiztuaren espirituz beterik, Espiritu Santuaren eraginez, munduko bideak inguratzen ditue bake haziak esku betean aidetara jaurtiaz. Bakea ereinaz.

Jesusen eskolan ikasi dabe pekatupean, guzurrean eta gogorkerian katigu bizi diranak, ez eurekan bakerik ez bakerako gaitasunik ez dabela.

Lagunurkoa maitatzeko gauza ez garan bitartean, ez dago gizartea atontzerik. Norberen probetxu bila gabiltzan neurrian, besteengandik urruntzen gara. Hor ez da bakerako zubirik zabaltzen. Hor geu mamitan bizitea da asmorik kutunena.

Beraz, gizakiari gogorkeriarako dauan narru latz hori landu, buru-bihotzak gizatasun olioz findu, basatizko sentimen eta grina horreek bigundu; maitasunez, ontasunez, errukiz eta parkamenez moldatutako bihotz barri eta indartsu bat jarri barruan, ebanjelioan dotore-dotore jantzita ipini, eta gizaki barri bat eginik aurkeztu behar dogu gizartearen aurrera.

Kristoren antzeko gizaki eredu bat atera mundu erdira.

Ez da, egiz, lan erraza. Zailetan zailena da behar bada, baina ez ezinezkoa.

Kristo beragandik hasita, historian zehar, miloika gizon eta emakume heldu dira tontor horretara. Zenbatuezinak dira Kristoren neurriakin jantzi diran gizakiak.

Zalantzarik gabe, gizadiaren omen, dedu eta aintzagarritasuna dira gizon eta emakume eredugarriok. Tontor horretara onenak bakarrik heldu dira.

Besteok troka barrenetako haize hotzak hartzen ditugu. Hor gabiltzaz sastraka artean urten ezinik. Gorantz gitxi begiratzen dogu. Lurrari josita daroaguz gure ames eta helburuak.

Geure mundu zarratuan bizi gara, urrinetara begiratzeko ahalmenik gabe.

Ez ditugu gizon-emakumeak Jainko begiz ikustatzen. Ez dogu hartzen hareen ardurarik. Geurean eta geurerako bizi gara. Hurko laguna etsai ez, baina aintzakotasun gitxiz hartu eta begiratu bai.

Eta lagunurkoagandik urruntzen garan neurrian, hainbat eta gehiago hurreragotzen gara gogorkeriara.

Gaixo hau gaurko kulturaren ondorio bat dala dakigu. Beraz, ikuspegi horretatik begiratu behar deutsagu eta gibel handiz azterkatu.

Giza baloreak atzekoz aurrera jarri ditugu gaur. Lehenengo tokian, produzioari ondore ona ateratzea ipini dogu; irabazpideetan arrakasta handia izatea; geure izena entzutetsu eta ospetsu egitea; giza mailan eta aginpidean gorengo postuak geureganatzea; ahalbait lasterren aberas-

tea, nahiz eta horretarako gauzarik sagaratuenak azpian sartu; bizitzari darion atsegin iturria, unetik unera, guztiz agortu arte xurgatzea...

Hauxe da gaurko gizakiarentzat lehenengo mandamentua, helburua.

Aburu hau pentsamolde eginik doa gizakiaren muinetan. Ideologia mailara jasorik.

Balore honeetan barrendurik bizi gara. Hemen ez da hurkolaguna ezetarako aitatzen. Bazterturik gelditzen da. Gehien ere, etsaien sailean nahasturik dator.

Ezinezkoa da, beraz, holako bihotz baten Espirituaren fruturik erne eta girotzerik.

Paulok, bere epistolan, honeexek aipatzen ditu: maitasuna, poza, bakea, bihotz handia, bihotz zabala, ontasuna, zintzotasuna, otzantasuna, neurribidea". Gal 5,22.

Jakina, jausita gagozan zulo gaizto horretatik urteteko, eta pentsakera galgarri hau urruntzeko, eta moral ustel hori menperatzeko, eta bihotz gogortasun hau biguntzeko eta barriztatzeko bihotz aldaketa ezinbesteko bat egin behar dogu.

Hau da, guk daukagun guztia gurea ez dala. Jaunagandik hartua dala. Jauna dala gure ongilea. Jaunak jarri dituala ondasun horreek munduko mahaian.

Baina, mahai hori danentzako ipinia dala. Hor ez dagoala ez lehenengorik, ez bigarrenik. Aulki hori ostuezina dala. Inori kentzea, batez ere txikiari, ezinduari, ezeukiari, zuzenbakokeria izugarria dala. Epulonen pekatua.

Hemendik sortzen dira munduko gatx guztiak, gizakumeen arteko hasarrebideak.

Gizakiaren handinahia eta asetuezina neurrigabea da. Hortik datorkio bere zuzenbakokeria guztien sorburua eta harra.

Lehenengo eta behin, bere buru-zalekeriak itsutu egiten dau eta ez dau bera ezik beste inor aurrean ikusten. Grina honek usteltzen deutso bihotza; eskola horretan ikasten dau gaiztoa izaten.

Hortxe hasten dira baita ere bere zoritxar guztiak.

Gaur geroz, edozetarako prest eta zabalik dago gizaki hori.

Nahiz gaizkina, nahiz lapurra, nahiz salataria, nahiz axeria, nahiz azpisugea, nahiz ankerra, nahiz erailea, edozer txarkeria egiteko prest daukazu bere handinahikeria hori asetuta ikustearren. Holakoekin ez fidatu, badago hoberik eta.

Jauntxo horreen erruz dabil mundua horren negargarri. Askoren handinahikeria honek erre ditu, nahigabez eta zoritxarrez lurreko bazterrak. Ipini egizuez hemen erreskadan munduko gatx guztiak.

Kainen odola daroe. Gizarte erdia gosez eta ezbeharrez hilten ikusi arren ez dabe negarrik egingo.

Helburu nagusi lez, gizadia euren zapatapean zapuzturik eukitea da. Handien mailan egoteagaitik edozer.

Eta, jakina, hementxe daukee hasiera gizataldeen arteko ondoezak, hasarreak, gorrotoak, injustiziak, gogorkeriak, heriotzak.

Jokabide honek bihurtzen dau gizartea gerrabide lurrean. Hortixek zabaltzen da gogorkeria bihotzetara.

Eta gogorkeria eta gorrotoa, nahiz eta txikienak izan, ez dira ebanjeliotarrak, lehenbailehen jaurti behar ditugu gugandik.

Zelan, baina?

Borondate oneko pertsonentzat urrezko aholku hau dauko Jesusek: "Inoz hasarrerik balego zuen artean, bidean berbaz-berbaz zoiezela aitu zaiteze".

Horretarako emon jakuz gure zentzuna eta mihina, alkar aitzeko.

Baina, Jesus oraindino ur sakonagoetara sartzen da, eta honako irakatsi zorrotzak damoskuz, gure arteko hasarre eta tira-birak konpondu eta alkarri gure txar egiteak parkatzeko.

"Maite egizuez zuen arerioak, on egiezue gorroto deutsuenai, bedeinkatu egizuez madarikatzen zaituenak... Gizonak zuei egitea nahi dozuenez, egizue holantxe zuek ere... Maite egizuez zuen arerioak. Izan zaiteze errukiorrak. Parkatu egizue eta parkatuak izango zaree" Lk 6,27.

Jesusek, gugaitik kurutzean hilaz parkatu euskuzan guri pekatuak. Gu guztiokaitik esan eutsan Aitari, kurutzetik gora begira: "Aita, parkatu egiozue, zer egiten daben ez daki eta"

Gu ez gara Jesus kurutzera eroan ebenak baino hobeak. Gu ere zelanbaiten han gengozan ordu haretan saltzaileen artean. Judasen mosuaren gainean, gure mosuak dagoz.

Judasek aina maite dogu guk ere diru-zorroa. Eskuetan laztandu eta gurpena damotsagu Jainkoa balitz lez.

Jesusek gogorkeriari kurutzera igonaz eta gorrotoari parkamena emonaz erantzun eutsan. Jesusek jarraitzaile asko izan ditu.

Jesusen gogoko diran gizon eta emakume eredugarriak. Bere antzera, bakezaleak eta bakegileak beti. Gogorkeriaren aurrean parkatzaileak.

Holakoxe gizon eta emakumeak nahi ditu ikusi Jesusek mundu zabalean.

Ildo honi jarraituz, gizaldietan zehar, ebanjelioko harrobitik harri landu hobaezinak atera ditu gizakiak, Jesusek oihukatu eban Erreinu hori munduan jarri eta zabaltzeko. Jesusen asmo eta esanetara egindako mundu bat jasoteko.

Gaurko gizadi hau ere honen beharrean dago, bakezko iraultza handi baten beharrean. Iraultza orokor bat. Goitik beherainokoa. Mundua guztiz aldatuko dauan bakezko iraultza bat.

Erakunde, egitura, gizarte antolaketa, politikagintza, herridi eta nazioen arteko hartu-emonak, lantegi arazoak, araubide sozialak, ohitura eta kultura legeak, hau da, gizarteari, astinaldi izugarri baten bidez onerako aldaketa bete bat emon.

Gogorkeriaren harrak gaixotuta daukan gizarte basati hau, gizarte jator, ongile, bihozbigun eta errukior egin. Hauxe da, gaur eta hemen, kristauen zereginik handiena.

Egintza hau burututeko, barriz, maisu eta gidari ezin hobeak ditugu. Gu baino lehen saiatu da inor arazo honetan. Esaterako: Gandhi da bakezko iraultza honen asmatzailea, eratzailea, gidari eta maisu nagusia.

Iraultza honen aita.

Gandhi indutarra zan erlijioz, baina Jesusen jarraitzaile mina. Ebanjelioa eban bere gogoaren janari. Inor baino sakonago murgildu zan ebanjelio muinean.

Eta hortxe, ebanjelio barruan aurkitu zituan zimintarri bardinbakoak bere bakezko iraultza hori burutu eta egokitzeko.

Gudu sistema bihurtu eban iraultza hori, bere helburu eta asmobideak onez aurrera eroateko.

Berak hain maite eban Indiako bere herria atzerritarren menpean ikusten eban. Herria lurrera eratzita, lapur-

tuta, txirotuta, ez nortasunik, ez eskubiderik, ez duintasunik, atxiloturik atzerritar handikien oinpean.

Eta Gandhik bere herri hori askatzea, jasotzea, jabetzara ekartea zin egiten dau.

Baina, zelan etsaiakin borrokatzeko armarik ez baeukan? Armarik behar ere ez. Bere bakezko iraultza hori guda sistema eginik, Indiako mendiak dardaraka jarteko besteko iraupena jokoan jarriaz, pixkaka-pixkaka, India osoa oinez arakatuz eta bere herritarrak bakezko gerra turutaz zuzpertuz, azken baten, odolik isuri gabe, India guztia sutan jarri eban, eta etsaiak buru makur etxera bialdu.

India odolik isuri barik askatu eban.

Gandhik eroapena eta indarkeria gabeko iraultza aukeratu zituan armabide lez, bere herria askatzeko.

Kristoren maitasunetik datorren indarraz konturatu zan Gandhi, eta indar hori izugarria zala, mundu guztia gainezka jartekoa.

Gogo oneko bihotzak urtutzeko ahalmena eukala, egiaren eta zuzentasunaren sugarra eroiala barruan, mendiak bardintzeko bestekoa zala; ez egoala munduan maitasunari aurre egitekorik.

Eta holantxe maitasuna bidetzat, egia armatzat, zuzentasuna ikurrintzat eta bakea helburu eta jokabidetzat hartu zituan bere etsaiei aurrea emoteko eta herria askatzeko.

Ondo ekian bide hori hartzean kalbario bidea aukeratzen ebala.

Bide hori odol eta arantza zorrotzez beterik aurkituko ebala, eta han goian, tontorrean, mileka gizon eta emakume kurutzetatik dingilizka. Jazartuak, espetxeratuak, txarto erabiliak, hilak izango zirala bere jarraitzaileak.

Nahigabeharen kaliza hondar-hondarreraino edan beharko ebela, Jesusi lagun eginaz.

Baina, baekian baita ere, nekaldiaren ostean, berbizkunde egunsentia agertuko zala. Askatasun eguzkiak argi egingo ebala zeruan, Pazko goizean lez.

Ondo ekian Kristok gizaldia salbatzeko erabilitako bideak zirala, eta Kristo garaile izan zan lez, bera eta beretarrak ere garaipenera helduko zirala azken baten.

Gandhiren beste jarraitzaile eredugarri bat Martin Luther King amerikarra izan dogu.

Baltza zan King. Argia, lider bikaina.

Negargarria eta guztiz lotsagarria zan baltzen egoera eta bizimodua Amerika guztian zehar, garai haretan. Ez gizaki, ez abere zan baltza, hirugarren zerbait baino.

Zurien zerbitzu eta morroitzan bizi zan, abereak baino txarrago erabilia. Ez eukan zuriakana hurreratzerik. Baltzentzat eskolak aparte, autobusak, jatetxeak, ospitaleak, bizileku eta auzuneak, kanposantuak ere aparte; eskubide batxo bat ere ez gizaseme eta gizalaba zapaldu horreentzat.

Jauntxoaren zigorra zan eskubide bakarra. Nortasunik gabe, euren soto zikinetan kurutzaturik bizi ziran, gaur mundu zabalean hainbeste eta hainbeste bizi diran lez, triste, ilun, bihotz nahigabeturik.

Ez eukan auzokoekin alkartzeko baimenik, ezkontza eta hileta egunetan izan ezik.

Esana egiteko mukertasun bat edota kexaren bat nahiko izaten zan soinean mozketa bat egiteko edota heriotza emoteko.

Makilapean isilik sufritzen ikasitako herria. Zuriaren aurrean beti apala, mutua, esanekoa, menpekerian hezita-

koa. Txarrez zirikatua izan arren, ez eutsan sekula irainari ez hitzez, ez egitez erantzungo.

Aberea balitz lez, merkatura eroaten zan sal-erosketarako.

Errukarrietan errukarrienak ziran gizon eta emakume hareek.

Odol bako gizakiak ete ziran ba? Gizatasuna galdutako semeak? Ezta gitxiagorik ere. Zigorraren zigorrak eta bildurraren bildurrak eukazan egoera horretara eratzita. Hazurretaraino euken bildurra sartuta.

Herri zapaldu honen sehaskatxo batetik sortu zan Moises barri bat, Martin Luther King, herria askatuko eban gidari bikaina.

Bete-beteko gizona. Buruz argia eta begiz zorrotza, arrakasta handiko gizona herritarren artean. Lider gidaria izateko jaioa, kristau oso Jaungoikozalea.

Gandhiren irakatsi, jokabide eta iraultza guztia berea egin eban osoan. Herria, nahitaez, egoan morroitza lotsagarri haretatik atera egin behar zan. Baina, ez gogorkeriarik, ez odolik!

Hori arerioentzat gelditzen zan. Iraultza baketsua izango zan herriaren salbabide.

Askatasunaren irrintziak behingo baten zabaldu ziran bazter guztietara. Luther King-en agindu eta ikurburuak argiak ziran:

-Ez inor jo, ez zauritu, ez zapuztu, ez txarrez hartu, ez gogorkeriarik, ez odolik.

-Geure gizatasuna, zentzun ona, dedu eta begiramena izango ditugu ikurrin. Honexeek dira armarik zorrotz eta zuzenenak.

-Zauri barik ebagiten dabe, eta ebagi gabe osatu. Gogoaren indarra, beste indar guztien gainetik dago.

Baina horretarako, gogoak ebanjelioan bateatuta egon behar dau.

Kristoren eskolan ikasia eta hazia izan. Jesus maisuari jarraituz, gizakia maitatzen, errespetatzen, onegiten, errukitzen, parkatzen, senide lez hartzen eta tratatzen jakin.

-Horregaitik zuok ez inor txarrez hartu eta erabili. Poliziak joten bazaitu, zuk ez indarrez erantzun. Zuk honantxe esan: jo nagizu, nahi badozu, horregaitik ez zara ni baino gehiago izango. Lotsagarri eta higuingarri agertuko zara jendaurrean, gizaki bat, errurik gabe, baltza izateagaitik bakarrik jo dozulako.

-Ez erantzun irainari irainez, egurrari egurrez, odolari odolez.

Baltzak moltsoka etorten jakezan poliziei esanez: "Sartu gaizuez gu ere espetxean; espetxeak gainezka, hartu ezinean, jarten dozuezanean, orduantxe konturatuko da mundua gugaz egiten dozuenaz, eta madarikatu egingo zaitue".

-Deadar egin, kaleetan, zerura begira: "Ames egin dot aske ginala; haizeari hegoak eskatu deutsadaz Amerika guztian zehar gure askatasun eguna oihukatzeko.

-Narruaren koloreak ez deutso gizakiari nortasuna emoten, bihotzaren ederrak baino.

Iraultza gogorra izan zan, luzea, bildurgarria. Esanezinezko basatikeriak egin ziran alde guztietan. Ez zan baltz bat zigorrik hartu gabe geratu.

Gorputza menpeturik, baina gogoa zutik, goian. Baekien hainbeste nekeren ondoren, hainbeste nahigaberen ordainez, azken baten, mendien gainetik askatasun

argia agertuko zala. Libre izango zirala; zurien eskubide berberak izango zituela. Amerikako lurra eurena zala.

Luther King tiroka hil eben Gandhi lez, baina bere ekintzaren frutua agerian dago munduaren aurrean, tente, ikurrin lez, bakezko iraultzaren aintzagarri eta eredugarri.

Gu ere hemen gabiltza, aspaldion, bazterrak hilten; ondo letorkigu guri ere honako iraultza baketsu bat herria bere jasokuntzara eroateko.

Gogorkeria, antzua, hilkorra da; bakea, barriz, emonkorra, frutuekarlea... Ebanjelizatzeko, lehenengo, bakearen eta jasokuntzaren aldeko iraultza egin behar dogu.

Gandhi eta Luther King halako gidari asko behar ditugu gaur ere.

Mundua lehen baizen ilun eta triste dago. Goseak daroa hilobira.

Inozkorik errukarrien dago. Kurutze horretatik askatzen ez dogun bitartean, Kristoren itauna zorrotz dator guregana: "Zer egiten dozue kristauok munduan? Zetan zagoze mundu hori aldatzeko? Salakuntza gogorra da Kristok dagiskun hau.

NOR DA NIRE LAGUNURKOA?

Ebanjelizatzearen atal bat lagunurkoarekin, gure ingurukoekin, gure alkar bizitza zelan egin irakastea izango da. Alkar maitatzen irakatsi. Maitasunak kristau bizitzan daukan maila eta berezitasuna agerian jarri.

Kristoren irakatsietan, maitasuna bere jarraitzaileen ezaugarririk ziurrena da; kristauen ikurrina.

Baina, zoritxarrez, izen hau galduta dago gaur; lotsagarriturik darabilgu.

Aurrez aurre aurkitzen ditugu gogorkeria lege eginda daukeen nazio asko. Odol isuritze eta heriotzak egunerako barri eta albiste bihurtu jakuz.

Zigorra eta tratu txarrak eskurik esku dabiltzaz. Era guztietako gizon zapalketak egiten dira munduko lau egaletan.

Txikerragoari lepoa berotzen deutsagu. Behartsuentzat errukirik ez dago; goseak miloikak daroaz. Geuk egindako bideetatik ez dabilena, txartzat joten dogu.

Herrien defentzarako sortu diran nazioarteko erakundeak lurra jota balegoz lez ikusten ditugu, guda gorri edo borroka bizi edo zoritxar handi bat jagi dan tokira berandu ez bada, sekula heltzen ez diralako. Ezetarako ez dirala agertu dabe.

Itsasoak eta lurrak diruz betetzeko besteko lapurretak egiten dira. Justiziaren eskabideak ez ditugu betetzen, eta

gero, karidade batzuk eginaz, kristau maitasunaren beharkizunak horrekin ondo betetzen ditugula uste izaten dogu...

Horregaitik gogoratu deusku Kontzilioak: "Karidadea egitea alperrekoa dala, lehenengo justiziaren eskabideak betetzen ez baditugu".

Edonon eta edonoz, kristauok zerbitzurako gara, eta nahiz gizakiari, nahiz gizarteari zor deutsagun zerbitzu horri muxin eginda, geure nasaitasun eta patxaran burua gordeten dogunean, horrekin gure kristautasuna hutsa eta hila dala erakusten dogu. Antzua dala.

Kristautasunaren ezaugarria, bere eginkortasuna da. Beti eginkor. Beti zerbitzari. Mailu edo untze izateko jaioak gara. Edo geure ekinaren indarrez, gizartea onera ekarri, aldatu edota gizartearen lokatzan galdu, ezertarako baliorik gabe.

Zenbat gizon eta emakume zintzok atsegin ez jakena, gogo-gogotik gorrotatzen dituen gauzak egiten ditue, lagunkideen aurrean gitxiago ez izatearren, ezetz esateko adorerik ez izateagaitik.

Oso gitxi dira siniste beteko, sakon handiko gizonemakumeak. Gehiago dira zeresanaren morroitzan bildurti eta koldar bizi diranak. Asko jausten dira sare honetan.

Eliza bera ere sarritan ibili da ito aginean itxaso nahaspil honetan. Han eta hemen, menderik mende, gizakiakin egin diran zuzenbakokeria eta basatikeria askoren aurrean gaitzespena eta ezetza aurrez eta ozenkiro agertu beharrean, Jesusek irakatsitako jokabideak ahaztuta, horma barruko aterpean babestuta, edo egiteaz edo isilteaz edota baiesteaz bera ere errudun egin da.

Abadeak ere mukertasun honetan erorita ikusten dira.

Mundu barri honek gainetik egin deuskulako edo, bere sena ondo hartu ezin izan dogulako edo, egin dituan aldaketa izugarriai jarraitzeko oinik izan ez dogulako edo, kristaudiak bat-batean itzi gaitualako edo, gure norabidea galdu dogulako edo, gure hitza harri eta arantza artean jausten dalako edo, gure ordeak egiteko abade gazterik agertu ez dalako edo, ezinaren ezinez etsipenduta gagozalako edo, gure izerdi eta ahaleginak arpelean jausten diralako edo, giroa usteldu dalako edo, lurra landu gabe dagoalako edo, gure ekintzari sua eta garra emoteko gauza ez garalako edo, gidari zoli, urten, sinisgarri, karismatikorik ez dogulako edo, nondik norakoa argi ikusten ez dogulako edo..., gure ekintzarik gehienak ustelean jausten dira.

Ez gatzik, ez argirik, ez legaminik... Betiko disko errea eskeintzen jake gure eliztarrei batzarraldirik gehienetan. Gure meza eta ospakizun asko txepelkeria ganorabakoak entzuteko orduak izaten dira.

Beste burpil, saltsa, beste bizi-indar bat emon beharko deutsegu gure meza eta ospakizunai, bestela datozan apurrak ere laster ditugu gogaituta uxatuko.

Sarritan entzuten da kristau talderik onenak gaurkoak ditugula. Horreekan dagoala Elizaren etorkizuna eta itxaropena. Baliteke! Zeruraino poztuko nintzake hori egia balitz, baina, neure eritxi apalean, amesean geratu dan gurari bat dala eta nago.

San Paulok mundu honetako antzik ez hartzeko dirausku. Munduaz kontentagatxak izateko.

Baina, horrez gainera, adimena barriztatuaz gogo aldaketa bat egiteko.

Ez da nahikoa kontentagatxa izatea. Hitz handiz eta

zeinu ikusgarriz agoa betetzea. Gizartean egiten diran hainbeste zuzenbakokeria eta giza-zapalketa ezetsi eta salatuz, eslogan biribil eta durundutsuak kale erdian jaurtitzea.

Hori ondo dago. Egin behar dana da, legezkoa danean. Baina, kontuz. Hor guzur handi bat eskutau daiteke. Gogo makur bat.

Agobero eta nahaspilari agertu jendaurrean eta, gero, lanerako ordua datorrenean, gerria makurtu behar danean, urrinari emon, behar dan orduan kale egin.

Ez da hori kristau jator baten jokoa. Kristau hori azalkerian dabil. Oraindik adimena barriztau barik daroa, gogoa aldatu barik.

Kristauaren egitasuna, esan dogu, egintzetan dagoala. Egintzetan urri gabiltzanean, horrek esan nahi dau gure kristautasuna izenezkoa dala. Hortik gure ebanjelizatze lana tentela, kaxkarra, izango da.

Ez dabe gugan sinestuko.

Kristoren bihotzaz maitatu behar dogu gizakia. Hemen ezin dogu hutsik egin, bestela itsuenak egiten genbiltzakez.

Hain zuzen ere, gure geldokeria itsu hau zigortzen dau Jesusek ebanjelioan. Jesus honetan oso estu eta zehatza da. Ez dabil haizeari adarka.

"Zure lagunurkoa -geidea- zeure burua lez maiteko dozu", dino Jesusek bere arpegiak kurutzan daukan zorroztasunez.

Agindu erraza da ulertzeko. Bakotxak daki bere buruari zer opa deutsan.Zer nahi dogun geuretzat?

Ba, beharrizanean nagoanean inok laguntzea; gaixorik bazagoz, nahigabeturik bazagoz norbaitek eskua luzatzea. Irribarretxo bat, berba gozo bat, ederrikusi bat...

Zer gura dogu geuretzat?

Geu iraindutea, iseka egitea, salatzea, zapaltzea, ezeukian bizitea?

Hainbeste gauza nahi gendukez geuretzat! Horixe da, ba, Jesusek dirauskuna: zeuretzat nahi dozun hori lagunurkoari ere egiozu, eta zeuretzat nahi ez dozuna inori ere ez.

Begi-belarri baginakez gure inguruan bizi diran senideen beharrizanak ikusi eta jasoteko, zenbat zeregin eukiko genduken! Baina, ez da holakorik jazotzen. Geurea bakarrik ikusten dogu. Edota geure odolekoak, eritxikoak, kulturakoak, edo mailakoak. Hortik aurrera lainoa sartzen jaku begietara, eta ez dogu ez inor, ez ezer ikusten.

Agindu ulerterraza izan arren judutarrak ez eben ondo aitzen. Guk ere ez askotan. Uste eben, ba, maitasun hori etxekoakin, edo herritarrakin, edo adiskideakin euki behar zala, baina ez esaterako, arerioakin edo kanpotarrakin edo jentilekin, berba baten, ez gizon-emakume guztiekin.

Hemetik dator Jesusen parabolea.

Legea ondo ezagutzen eban judutar maisu batek itaun hau egin eutsan behin Jesusi: "Zer egin behar dot nik betiko bizitza neureganatzeko?"

Eta Jesusek: "Zer daukazu legean idatzita?"

Orduan harek: "Zeure Jaungoiko Jauna bihotz bihotzez, arima guztiz, zeure indar guztiz eta zeure adimen guztiz maitatuko dozu, eta zeure lagun urkoa zeure burua lez".

Jesusek erantzun eutsan: "Taiuz erantzun dozu; egin horixe, bai, eta biziko zara".

Baiña harek bere burua zuritu nahian badinotso: "Eta zein dot nik lagunurkoa?"

Jesusi ez jakozan atsegin maisukeriak eta erantzuna azalpen baten bidez emoten deutso.

Gizon bat, bidez joiala, lapurren eskuetan jausi zan. Honeek, barriz, zituan guztiak kenduta, gizona astin-astin eginda gero erdi hilik bide bazterrera bota eben.

Eta hara, abade bat suertatu zan bide haretatik behera etortea, eta gizona ikustean kontrako bidetik joan zan.

Handik lasterrera, lebitar bat igaro zan handik; harek ere ikusi eban ikusi zauriturik egoan gizona, baina harek ere aurrera egin eban.

Azkenez, samaritar bat, judutarrakin traturik ez eukan gizon bat agertu zan handik. Ez abade, ez teologo ez zana. Eta harek zer egiten dau?

Ikusi ebanekoxe erruki izan jakon; beragana ondoratu, lehenengo laguntzak emon, eta bere zaldi gainean ostatura eroan eban, ostatulariari ondo zaintzeko agindu eta zorrak aurretiaz ordainduz.

Judutarrentzat euren herritar eta endakoak bakarrik ziran lagunurkoak, geideak. Erbestetarrak ez eben lagunurko izaterik merezi: kutsutuak, izurrituak, jentilen artetik urtenak ziran. Beraz, zalantzan eukitekoak.

Hona hemen endakeriaren -arrazakeriaren- lehenengo aztarnak. Nok esango eban hau. Arrazakeriaren hazia eta sustraiak lehenengoz judutarren artean agertzen dirala. Beste herri batzuetan ere ezagutuko zan hainbaten, baina judutarren artean ziur behintzat.

Zoritxarreko endakeria honek, gaur ere, bizi-bizirik dihardu, lurreko lau alderdietan. Egunero ikusten dogu bere arpegi zantarra, edozein bazterretan.

Endakeria, jakina, aurrez haur, ebanjelioaren kontra doa.

Jesusentzat, guztiok Aita baten seme-alabak izatean,

alkarrekin neba-arreba gara, eta neba-arreba izatean, hurkoak ere bai. Horregaitik Jesusek lagunurkoari -geidearież arpegirik, ez izenik, ez herririk, ez endarik, ez txartelik ez deutso jarten.

Zein da nire hurkoa? Eta Jesusen erantzuna: Ez dakit bere izenik! Zeure ondoan dagoan edozein gizon edo emakume. Bizitzako bide bazterrean, gaur eta hemen, beharrizan baten dagoan edozein pertsona da.

Ez da judutarra, ez jentila, ez europarra, ez amerikarra, ez aprikarra, ez asiarra. Ez baltza, ez zuria. Ez aberatsa, ez txiroa... Gizaki bat da!

Edozein tokitan, beharrizan baten aurkitzen dan gizona nahiz emakumea.

Eta gizon edo emakume honegan ipini behar dogu guk geure ardura eta begirune guztia. Honi lagundu behar deutsagu, samaritar harek egin eban lez. Harek ez eban agoz maitatu, egintzaz baino.

Jesusek egintzak eskatzen ditu beti. Horregaitik goraldu eban eta jarraibidetzat jarri samaritar gizon ongile hau. Danontzat eredugarri!

Jakina da, beti maiteko dogula gehiago etxeko aita edo ama, edo semea edo adiskidea edo herritarra. Berezkoa da hori. Baina, honen gainetik, hemen bihotz txokoan holako maitasun neurri bat, aterpe bat gizon-emakume guztientzat euki behar dogu, nahiz eta geure arerio edo etsai izan.

Baina Jesus aurrerago doa oraindik maitasun bidean eta munduari agur egiteko eskua luzatzen dauan orduan, azken apariko beroan, munduko gizon eta emakume guztiak bere bihotz ondoan besarkaturik eukazan une larri haretan, mundutik on eginez igaro zan Jesusek, gizakio-

kaitik kurutzean bizia emongo eban bezperan, bere testamentu lez, heriotzak daukan seriotasunez, agindu barri hau damosku bere jarraitzaileoi:"Maite egizue alkar, neuk maite izan zaituedan lez"

Eta zelan maite izan gaitu Jesusek? Noraino?

Badakigu. Azken-azkenerainokoa izan da bere maitasuna. Neurribakoa! Ezin gehiagokoa! Heriotzarainokoa!

Eta hau, ordez ezer eskatu gabe. Ez dirurik, ez txalorik, ez goralmenik. Hutsean, egiz eta benetan emoten dan maitasun garbia izan da.

Alderdi hau azterkatu behar genduke sarri askotan kristauok, hementxe egiten ditugu hutsik handienak eta.

Honetan arduratsuagoak eta zintzoagoak baginakez kristauok, beste mundu ederrago bat genduke gaur kantari. Baina honetan alperrak eta itziak garalako, gu munduaren salbabide izate hori askok eta askok ez dabe sinisten. Honen erruz, ez dogu inor Kristoganatzen.

Egia da Kristauen artean ere Kristoren antzeko asko ditugula.

Gaur eta beti egon dira onako gizon eta emakumeak. Gizon eta emakume horreek ahal izan daben guztia egin dabe gizakia miseriapetik, gosepetik, zoritxarpetik, menpetik ateratzeko.

Euren bizia eta bihotza horretan agortu ditue. Honako asko ditugu, zorionez, gaur ere mundu zabalean. Geure inguruan ere ez gitxi.

Besteok ere bide hori hartu beharko dogu, ebanjelizatzeko gauza izango bagara. Bestela, ebanjelizatze hori hitz hila izango da gure agoan.

Maitatzeaz eta onak izateaz gainera, alkarri parkatzen ere ikasi behar dogu, Jesusen aginduz.

Parkamena maitasunaren fruturik gorengoena da; maitasunaren gailura eta osotasuna. Kristauen ikurra.

Jesus bere egikizun guztietan ageri jaku handi, baina bere gorengotasuna kurutzean agertu eban.

Heriotzarik ankerrena Jesusi emon eutsoena izan zan. Gaizkile biren erdian josi eben kurutzean. Errurik gabe kurutzeratu eben. Gizakiei on egitea izan zan bere pekatu bakarra.

Gizon itxura barik, goitik behera odol moltzo bat eginik, lotsaririk gorrienean, jendaurrean bilozik jarri ebenean, azken arnasea emoteko egoala, untze gainetatik zerurantz begira, Aitari deadar dagitso bere hiltzaileen alde parkamena eskatuaz: "Aita, parkatu egiezue, ez dakie egiten diharduena eta".

Berba honeek esatean agertu eban Jesusek Jaungoikoa zala. Jaungoiko batek bakarrik esan leikez hitz honeek. Niretzako Jesus handiena kurutzean dagoanean da eta kurutzean berba honeik esan zituanean.

Esan leikean: "Aita, mendekatu nagizu, zigor ordaina emon egiezu, hondatu egizuz!" Baina, ez zan izan hau Jesusen erantzuna. Parkamena erion bere bihotzari.

Horra hor bateginik Jesusegan esana eta egina.

Guk gizakiok gitxitan alkartzen ditugu ondo esana eta egina; askotan apurtzen dogu guk zubi hori. Gehiegitan. Asko esan eta gitxi egin, hori izaten da gure jokoa. Zatituta gabiltzaz.

Alde batetik, gizalege, helburu eta sentimenik onenak autortu eta aldezten ditugu, eta bestetik, gurari eta egintza horreek bizitzara eroan behar ditugunean porrot egiten dogu, hutsean izten ditugu gure amesok.

Hitzaldi prestuak egiten ditugu giza eskubideen alde eta beti ostikopean darabilguz.

Hitzaldi luzeak demokraziari buruz, eta oraindik zer

danik ere ez dakigu. Bake eske ibili, eta beti gerrarako gertakizunak egiten dihardugu.

Beti justizia gora eta justizia behera, eta bideko hautsa bera baino ere zapalago eginik daroagu geure oin zikinakin. Kristau autortzen gara eta paganu bizi. Gaixo honetatik datoz gure zoritxarrak, gure hutsak.

Jesusen bizitzan, ostera, ez da holakorik ikusten. Ez da inoz lur gainera agertu esana eta egina hain ondo alkartzen ekian gizonik.

Arerioenganako maitasuna eta parkamena Jesusen irakatsietan lehenengo tokian doaz. Bere entzuleen artean, nekez eta minez sartzen zan askoren belarrietara Jesusen irakatsi aurrenengo hau.

Beste irakatsi bat ebilen agintari munduan, Jesus predikatzen hasi aurretik.

Adiskideak maitatzen eta arerioak gorrotatzen irakatsita egozan: "Begia begi ordez eta hagina hagin ordez". Hauxe zan euren usarioa.

Jesusek, ostera, arerioak ere maitatu behar ditugula, eta arerioak maitatzen ez baditugu, zeruko Aitaren semealabak ere ez garala izango dirausku.

Gizartearen bizitzarako, alkarren maitasuna eta parkamena ezinbestekoak dira Jesusen irakatsietan. Hau gabe, gizartea gerra lurra izango litzake beti. Basa-piztien lurra.

Eta ez kaxkarkeriaz parkatu ere, bihotz zabal eta errukitsuz baino. Berak egiten eban lez.

BATASUN BIDEAN

Geratu zaitez gugaz, ilunabarra da
eta eguna ilundu egin da eta.
Lk 24,29.

Aspaldi danik, Jesusen Eliza zatituta dago.

Gizaldietan zehar, Eliza barruan sortu diran eztabaida eta aituezinak, pentsaera eta eritxiak, hasarrekeriak, norgehiagokak, taldeen interesak eta abarrek, ondorio lez, Elizaren zatiketa ekarri dabe.

Gaur, kontzilio ostean, gurari biziz, Eliza banandu hau barriro bat eginda ikusi nahi genduke. Kristoren Eliza bakarra zutik ikusi mundu zabalean.

Ez dakit nik inoz ikusiko dogun Elizaren batasun egun hau. Neure kezkak ditut.

Baina, ezer lortu nahi badogu batasun bide honetan, lehenengo oinarria, guztion aldetik gogo ona ipintea izango da. Bihotzak zabal-zabal egin eta bata besteagana hurreratu.

Bat egiteko, aurretik maitatu egin behar da; eta maitatzeko alkar ezagutu; eta alkar ezagutzeko bata bestearen bila urten.

Ez dogu batasunik lortuko alkarren bila urteten ez dogun bitartean. Alkarren maitasunetik bakarrik etorri daiteke batasunaren mirari hori, behin era negargarriz, gizakiaren trakestasunak hausi eban batasun hori.

Batasun hori ez dogu lortuko bakotxa geure aulkian patxadatsu jesarrita besteak gugana noiz etorriko begira abarotan egonaz. Biderdi egin behar dogu bananduta gagozan anai-arreba guztiok.

Aitaren etxean, Jesusek maitasunez eta txukun gerturiko mahai inguruan batu, maitasunaren beroz batzarlekua gori-goritan jarri, burua eta bihotzak zabal-zabal egin, barruan daroagun guztia argi eta garbi, guzurrik eta ziririk gabe alkarri agertu eta alkarregandik banandu gaituen mamu eta abarrotsak aurkitzen eta desegintzen saiatu behar gara.

Eliza bakotxak bere irakaskintzaren aldetik, nahiz moral edota liturjia aldetik batasunerako bidean jarten dituan oztopo, eragozpen eta burukeriak, berez tamalgarriak eta mingarriak eta Jesusentzat oso iraingarriak izateaz gainera, kristau herri eta gizartearentzat gure banakuntzatik datorren gaizpidea, nabarmenkeria, handiagoa eta kaltegarriagoa dala kontutan izan behar dogu.

Banakuntza bakotxaren oinean, norgehiagokerien eupadea entzuten dogu beti kukurrukuka; teologiako irakatsi bat edo beste izan dira beti hasarreari sua emon deutsenak. Hortik sortu da txinparta.

Gero, hasarreak borobildu eta handitu egin dira eta, azkenean, eztanda egin eta banakuntza ekarri.

Elizako handikiak, teologoak tarteko dirala, izan dira batez ere hasarrearen borrokan leihatu diranak. Eztabaida eta gatazka guztien bultzagileak.

Herri apalaren goratzarrez esango dogu, kristau herritar lauak, soilak aske dagozala pekatu horretatik. Herri soila ez da sartu eztabaida eta gatazka horreetan. Goiko Elizak bultzatuta jausi zan lokatzara.

Indarrez edo aginduz goitik ezarritako irakatsi, lege edota araubideak onartzera beharturik aurkitu zan. Berenez piperrik ere ez eban aitzen holako gaietan. Gaur ere horretan dagoalakoan nago.

Istilu eta nahaste-borraste guztien iturria, oina, gizakiaren adimena heltzen ez dan eta inoz helduko ez dan muinean, hau da, misterioan ezkutaturik dago. Misteriozko egiak, dogmak dagoz eztabaida guztiaren barru aldean. Eta gizakiaren begia ezin da horraino heldu.

Misterioa gizakiaren adimenak bere ahalmenez ulertu ezin dauan egi bat, zerbait da.

Bakotxak geure adimen eta aburuak jarri geinkez hor misterioaren inguruan, baina misterioaren barruko argia, muina ikusi eta ikutu gabe, guretzat hori ezina dalako.

Honen adibide bat gaurko egunetan ikusi dogu.

Esaterako, Anglicanoen Elizak, oraintsu, emakumeei abadetza emon deutse; andrazkoak abade egin ditu. Gaur miletik gora dira ordenatuak.

Baina, Erromako Eliza oso hasarre jarri da andrazkoen abadetza honegatik. Hasarre garratzez erantzun deutse Erromak egin daben hori kristau Elizen alkartasunerako eragozpen handia izan daitekela esanez.

Eta Erromak, bere aldetik, beti-betiko ezinezkoa lez jarri dau andrazkoen abadetza hori, ageri-agerian Jesusen gurarien kontrakoa dala autortuz.

Honakoxe eztabaida eta aituezinak izan dira, batez beste, gizaldien igaroan, Eliza bakarraren batasuna urratu dabenak. Misteriozko egiak. Fedezko egiak. Beraz, gizakiaren ulermenaren gainetik dagozan egiak.

Gizakietan nor da hain ahalmentsua misterioaren barreneraino sartzeko? Oraindik ez da holako gizakirik

sortu. Azalpenak, hurreratasunak, aburu batzuk emon geinkez, baina fedezko egiaren bihotzera heldu ez.

Horregaitik, misterioaren aurrean onena ezer ez dakigula autortu eta ateak zabalik iztea da, eta ez giltzez itxi.

Teologoak eta eliz jauntxoak eginiko opila da, ba, Elizaren zatikuntza hori, baina herriak ez dau eskurik lohitu pastel egintza horretan.

Beraz, ona litzake opil garratz hori eurek euretara jatea, eta harrokeriak, norgehiagokak eta hasarre zaharrak surtara jaurti eta barriro batasunari bideak lehenbailehen zabaltzea.

Teologoen istilu hots hori ez da herrira heltzen. Herriak mugak kentzen dihardu.

Ondo ikusten da hau, esaterako, Taizé aldean. Nahiz kredo batekoak nahiz bestekoak izan, ez deuke ezeren eragozpenik euren fedea batasun estu, maitekorrean biziteko.

Protestanteak, ortodoxoak eta katolikoak Eukaristia bakarra egiten dabe danen artean, eta bakotxaren fedea kezkatu, gitxitu eta moteldu beharrean, aberastuta, sendotuta, zorionduta ikusi dabe eukaristia amaitzean.

Batasunaren poztasunak besarkatu ditu bihotz baten. Eukaristia osoagoa, ederragoa, atsegingarriagoa, beteagoa gertatu jake.

Herriaren esku balegoz gauzak, beste sail askotan ere harrigarriak ikusiko gendukez batasunerako bidean.

Egiaren indarrez irabazi behar jako burua gizakiari eta ez egia aginduz ezarpendu.

Bide hau aukeratu dau beretzat gaurko gizakiak: bere begiz eta kabuz ikusten dauan egia bakarrik onartzen dau, eta ez albotik eta aginduz ezarten jakona.

Hona heldutakoan, gainendu ezinezko mendi tontor bi aurkitzen ditugu batasun bidean.

Alde batetik, Erromako Elizak siniskintzako egiak seilatzeko eskuratu dauan hutsezintasuna. Espiritu santuagandiko hutsezintasunaren laguntza ei deuko siniskintzako egiak erakustean.

Eskeintza edo eskubide honi ez dot uste inoz Erromak uko egingo deutsanik. Zazpi giltzez gordeta zainduko dau bere isileko kutxatxoan.

Beste aldetik, protestanteak datorkiguz dotrina hau ukatuz, eta erlijio guztiaren oinarri lez Idazteuna, liburu santuak jarriaz.

Erromako Elizak liburu santuak bere erara aitu eta azaltzen ditu; protestanteen Elizak ere bere aitumen eta eratara; norberen jakintzan eta buru maisutasunean ikusten dituan lez.

Hortik sortu da Eliza bien arteko ezinbesteko nahaste-borraste hori.

Baina, gaur, bai Eliza katolikuak eta bai gainetikoak hauxe euki behar dabe argi begien aurrean: antxinako kontu zaharrak joanda dagozala. Gaurko jendea beste kultura eta jakintza baten mugitzen dala.

Gaurko kristauak, nahiz kredo batekoak nahiz bestekoak izan, aspaldi danik, fede heldutasunera sartuta aurkitzen dirala.

Beraz, ez dabe onartzen indarrez edota aginduz ezarritako egirik, ez legerik. Egiaren indarra bakarrik onartzen dabe.

Bihotzean ikutzen deutsen egia dabe maite. Egi hori bakarrik da onargarria, ez beste bidetik datorrena.

Zehetasun hau begitan hartzekoa da, bestela agintekeriara jo geinke erraz; hauxe berau jazoten da askotan.

Egiaren argia berez motela, kaskarra, sinisgarritasun gitxikoa danean, batez ere honako edo halako interesak tarteko badagoz, agintaritza dagiana, aginte hutsez egia ezarri nahi izateko tentaldian jausi daiteke. Aginduz sinisterazo.

Bestalde, banatzen gaituen desbardintasunak zauri zaharrak izanez gainera, onduezinak dirala dirudie. Zaharren zaharrez, moldatu eta antolatu ezinak.

Ondorioz, batasun eguna urruneko ilunpean estalirik ageri da.

Batasun osora nekez helduko garan ezkero, ahal danik eta batasunik handiena lortu, eta gainetikoetan ahal danik eta ondoen aitu eta moldatu, alkarren itzal eta anaitasun gozoan, hauxe litzake araurik onena, batasun bide hori bakez egiteko. Hemetik aurrera ez dogu ikusten batasunerako zubigintza luzeagorik.

Dana dala, zoritxarraren nekepean samindurik bizi dan gaurko mundu honetan badago zeregin beharrezkoagorik. Gizadi guztiaren ardurapean dagozan eginbehar alboratu ezinak.

Zerrenda luze-luze bat jarri geinke hemen gizartearen zoritxarrak aipatuz. Nik, neure aldetik, lehenengo lerroan, munduko gosea jarriko neuke. Uste dot hauxe dala gaurko gure arazorik behinena.

Gizarte erdia baino gehiago gosez hilten dagoala dakigu. Ez da gauza erraza gosearen samin gorria norainokoa dan jakitea, norbera nekepe horretan inoz ikusi ez danean.

Guk ere inoz hartu ditugu gosearen haginkada zorrotzak, baina ez gara marka horretaraino heldu.

Dana dala, saiatu gaitezan bere kinakadak ezagutzen, gero ahal dala, geure aldetik behintzat, erantzunik onena eta zabalena emoteko.

Munduan bizi diran biztanle guztietatik %80 hirugarren munduko herrialde pobreetan bizi dira. Beraz, lurreko ondasunetatik %20 bakarrik gozatzen dabe. Gainetiko %80az herri aberatsak baliatzen dira.

Zuzengabekeria hau baltzegia, gordinegia da isilik eukiteko.

Gosearen hil-dantza lotsagarri hau gehiegitan ikusi dogu begien aurrean, guk munduko gose hau txantxetan hartzeko. Nekez jasan leikez bihotzak holako ikuskizun penagarriak negarrari emon gabe. Begi ninia bera erreta izten dabe holako irudiak.

Herridi aberatsak dana edo gehiena deuke, herridi pobreak, ostera, gitxi edo bat ere ez. Batzuek euren gehiegikeriaz zer egin ez dakiela eta besteak handikien mahaietatik jausten diran hondakinak batzeko modurik gabe. Batzuek euren nahikeriak bete ezinik, besteak gosez hilten diran bitartean.

Bihotza dardaraka jarten dau, egunero-egunero, mundu zabalean, 40.000 gizon eta emakume, ume errukarriak tarteko, gosez ilten dirala jakiteak.

Egunero 40.000 hilobi barri goseak eroanak lurperatzeko; 40.000 ama errukarri, bihotza leherturik, besoetan hilik daroen seme-alabatxoari ulu garrazika...

Nok neurtu gosearen oinazea! Ba ete dago martiritza penagarriagorik? Heriotza gogorragorik, mingarriagorik?

Kainen pekatuan luze erorita gagoz; bere akatsa daroagu bekokian; akats horrek salatzen gaitu munduaren aurrean. Esan leike oraindik ebanjelioa entzun gabe gagozala.

Indarkeria aurretik jarrita, haren arrazoira, lapur harrapatari eginik joan gara babesik gabeko herridi baz-

tertu horreetara beraienak ziran ondasun eta aberastasunak, diru gosez lapurtzera, ordez ezer gitxi emonik.

Zeharo murriztuta itzi ditugu. Esaten dan lez, narrugorrian, ezereztasunean zintzilik hilteko zorian. Gaur, txirotasun hutsean bahiturik ditugu. Handikien itxurakeriak egitera joan gara hareen artera.

Ez aurrerapenik, ez jasokuntzarik, ez jakintzarik, ez teknikarik, ez ezer... Txirotasun gordina jaurti deutsegu askara. Txirotasun horren sareetan atrapauta dihardue.

Euren zoritxarraren sakona eta zabala ezeukiaren hesi horretatik, esparrutik urten ezinak markatzen dau.

Ezin dabe ondasunik aurreratu, ez kulturarik gehiagotu, ez teknika bidean gorantzarik egin, ez ezelako aurrerapenik pobreak diralako eta pobretasunean dihardue, deuken guztia oztaz-oztaz bizirik jarraitzeko behar dabelako. Txirotasuna dala eta, aurrerakuntzarik egiteko ahalmenik ezak hondatzen ditu herri pobreok.

Nazio arteko politika jokoak irtenbide bat aurkitu beharko deutso lehenbailehen arazo larri honi, bestela, laster barru, mundu hori, hasarrez, gainera datorkigu.

Gosea giza hiltzaile nagusi bihurturik deukagu gaur. Herri pobreen benetako minbizia da. Gaixorik zitalena.

Bihotzik zikoitzena errukiz dardaraka jarri behar leuke arazo honen eztenak ikutzean. Zenbat gehiago egiazko kristau batena.

Lurrean bakarreko edo taldeko pekaturik badago, bat hauxe dala esan behar. Eta, astunena, gainera. Zuzengabekeria astunegia deritxat norbera ondasunetan larrean ibiltea besteak gosez hilten dagozan bitartean. Kontzientzia bako zeken batek bakarrik egin leike holako doilorkeria.

Norbera bonbonkerian gainezkaturik, egunero, mun-

duan zehar mileka asko gosez hilten diran artean. Gaiztakeria horrek ez deuka izenik. Zeruari zigor eske dago.

Goseak dakarren hilketa hau gelditu daitekena da. Geldigatxa bai, baina, geldiezina ez. Oinaze eta hondamen hori gainditzekoa da; garaigarria.

Argi dinoe hau gaur horretaz egiten diran ikerketa eta azterkuntza guztiak. Lurrak soberan dakar danentzako ondasuna eta jana.

Beraz, ez dago gosea aldendu ezinik. Egin daitekena da. Horretarako nahi izatea da lehenengo harria. Nahi izate horregaz jaubetzen bagara, gainetiko guztia geure esku eukiko dogu.

Baina, hementxe doa gure hutsegitea, gure pekatua: ez dogu benetan hartzen pobreen mundu hori.

Ez deusku zirrara gogorrik egiten hainbeste nebarrebaren oinaze, nekaldi eta heriotzak. Unetxo bateko kilikilia sortzen dau gugan; begia bustitzeko besteko negar tantatxo bat agertuko da gure arpegian, gehien ere; hortik gora, ezer gitxi.

Ezbehar handiren baten ondoren, hirugarren munduko herriren baten holako gosete edo izurrite handiren bat agertu dala entzuten dogunean, orduantxe zabaltzen jakuz begiak zoritxar handi hori begiratzeko.

Egun batzuetan zoritxar horretan jarrita eroango ditugu gure begi-bihotzak, baina, ez da luzarorako izango gure adikortasun hori.

Geuk ahal dogunetik esku bete txanpon emongo ditugu lagungarri lez, eta hor amaituko da gure irrikitasuna, gure gar ongilea.

Eta horretara ezin izango dogu sekula arazo makar hori garaitu, munduko gosea menperatu. Zati zaharrakin

ez da jantzi barririk egiten, ezta munduko gosea, hortik eta hemetik, bazterretan bildutako txatal batzuk jarriaz. Horretara, beti kale egingo dogu.

Beharrenekoz beharrenekora, lerroan jarri behar ditugu gizarteak dituan arazo handiak, eta arazorik handiena gaur, zalantzarik gabe, munduko gosea da.

Lehenengo mailan dago, beraz, gosearen katramil, buruauste hori. Gizartearen buru gainean, ule batetik zintzilizka dagoan ezpata.

Zorrotza dirudi. Erraz eten daiteke ule hori. Eta horrek mundu guztia sutan jarriko leuke. Amaibako borrokak sortuko litzakez munduko lau alderdietan.

Horregaitik, nazio guztietan, gobernuakandik hasita, geldiezinezko, etengabeko erasoaldi, ekinaldi orokor bat hasi beharrean gagoz, gose hori lehenbailehen eta behin betiko menperatzeko.

Mundutar guztiok gara hemen egile eta arduradun. Inok ez deuko baimenik, ez eskubiderik, borrokatik iges egiteko.

Batez ere, handikien gangarrak moztu beharko dira, errukirik gabe, diru eta ondasungintzako legeak barriztatuz eta ondasunen zatikuntza egokituz, lurreko ondasunak gizaki guztien eskuetara bardintasunez eta duintasunez heldu daitezan.

Gizarte osoaren lehenengo zeregina izango da gosearen aurkako borroka hau, gobernuak tarteko diralarik. Hemen norberekeriak, kale egiteak, zapokeriak, isilezko erantzunak ezer gitxi balio dau. Gure gogorik ezaren ezaugarri litzakez.

Burruka honetan kristauok izan behar dogu aitzindari. Geure goiburu egitekoa da gosearen kontrako borroka

hau. Honetan agertuko dogu gure kristautasunaren neurria handia, txikia ala hutsa dan.

Kristaua, Jesusen eredura, besteen zerbitzurako dagoan gizakia da. Besteentzat da.

Jesus munduratu zanean, pobreen askatzaile lez agertu zan. Bera pobre jaio zan Belengo abeletxe baten, pobre bizi beti Nazareteko etxetxoan, eskeko ibili Galilean zehar predikatzen hasi zanean; kurutzean bilozik hil.

Herritar ezeukiak, apalak ziran beragana laguntza eske hurreratzen ziranak. Itsuak, ezindunak, elbarrituak, alderdi txarreko espirituak zirikatuak...

Mundutik on eginez igaro zan gizona dogu Jesus. Gainera, auzi zorrotza deuko iragarrita pobreakaz arduratzen ez diranentzat.

Nigandik alde, madarikatuok, gosez nengoan, ba; jantzirik gabe, etxerik gabe, gaixoan laguntzarik gabe..., eta zuek ez zeusten ezetan ere lagundu. Orain nigandik urrun.

Beharbada, Jesusen agoak esandako hitzik gogorrenak dira eurok.

Ez zan jauntxo izateko etorri, zerbitzeko baino. Ez eban inoz ezetan handikeriarik agertu; apalen artean jarten zan euretariko bat lez.

Ibilbide gatxa erakutsi euskun bere jarraitzaileoi, baina lehenengo berak eginda gero. Bere irakatsiak eta egiteak beti batera joiazan. Hortxe egoan bere nortasunaren indarra eta sinisgarritasuna. Esaten ebana, egin egiten eban.

Bere jokaeraren goiburua esakera honetan jarten eban berak: "Benetan dirautsuet: galgaraua lurrera jausi eta hilten ez bada, bera bakarrik geratzen da; hilten bada, barriz, frutua ugari dakar"(Jn 12,24).

Jesusek bere hitz eta egintzakaz alkarren maitasunera, anaitasunera, zerbitzura bultzatzen gaitu. Horixe da berak guri jarritako bidea.

Horretarako dago baita ere Eliza munduan: Jesusen irakatsi eta egintzak bide dirala, gizartea bere ezbehar eta zoritxarretatik askatzeko.

Gizakien arteko senidetasuna bere egitekotzat hartu; maitasun lokarriak mundutarren artean lotuagoak egin; zuzentasunaren kontrako txarto egite guztiak esku gogorrez zigortu; lurreko ondasunen banakuntza arteza, leiala lehenengo helburutzat jarri; mundu bardinago, zuzenago eta anaikorrago bat, behin edo behin lortzeko.

Horretara zuzendu behar ditu Elizak bere indarrik onenak. Maitasunean, zuzentasunean, bardintasunean oinarritutako mundu barri hori gauzatzeko jarri dau Kristo Jaunak..

Eta munduko gosea, zalantzarik gabe, Jesusen mezu honen kontra egiten dan gaiztakeriarik handiena da.

Gaurko ekumenismoa honetan legoke, hainbaten: Kristau Eliza guztiak, alkar harturik, gosearen kontra holako iraultza bizi, orokor, geldiezin bat eratutean, munduko eliza banangoak barruan dirala.

Kristo Jauna gidaritzat hartu daben fededun guztiak ekintza sozial horri beste guztien gainetik aurrengotasuna emon, geure zeregin berezia balitz lez hartu, geure guraririk gogokoena balitz lez bere alde postura egin.

Igandeetako liturjian munduko kristau guztiok zerbait onik egin behar genduke gosez hilten dagozan gure senideen alde; gosearen erreinu hori menperatzeko zerbait baliotsurik eratu.

Eten gabe itandu geure buruari ia gure senide pobreen alde zer eta zenbat egiten dogun bakotxak.

Eten gabe itandu ia gure norberekoikeriaren kutxan gordeta ditugun txanponai hautsak kentzen ala behartsuen artean zatitzen emoten dogun eguna.

Ezeukiaren gosean bizi diran senideen ardurarik ez deukana ez da kristaua, ezta gizakia ere.

Gizon edo emakume hori senidetasunetik iges eginda dago. Alkartasunaren oinarriak apurtu ditu. Haitz puntan erne dan zuhaizto basatiaren antzekoa da: bakartadeko hotz-beroan biziteko egina.

Gaurko ekumenismo barriaren lehenengo eskakizuna: Eliza guztietako kristau guztiok, alkarri eskuak emonda, munduko gosearen kontra borroka bizian gose hori guztiz azpiratu arte jardutea izango litzake.

ETA ZUK, NOR NAZALA DIÑOZU?

"Eta zuek, nor nazala diñozue?" hauxe itandu eutsoen Jesusek behin bere ikasleei Galileako baztertxo baten. Bi mila urte igaro dira ordutik hona eta oraindik itauna zutik dago.

Gaurko idazle argi batek honako hitz ederrez jantzi dau Jesusen irudi ebanjeliotarra.

Jesus, diño berak, herri-mutil txiro eta apal bat zan. Langilleen artekoa. Ez eukan entzute handirik. Ez zan ikasketa handiak eginiko mutila. Erri-mutil baten antzera jantzita ibilten zan.

Bere adiskideak ere herri-gizon apalak ziran, arrantzaleak, itxasoko haizetan gogortuak. Sareak botatzean ziran trebeak. Ez eskolarik, ez entzuterik, ez dirurik, ez aginterik. Talde gazte bat egiten eben danen artean, eta taldeko buru egiten eban gaztea, barriz, Jesus zan.

Itxura baten, geu lakoxe gizon herritarra da. Geure antzera bizi da. Atsegin jakoz bere adiskide eta herritarrak; pozik bizi da bere herritarren artean.

Maite ditu lurreko gauzak: iturritxoen marmarra, itxasoaren zakarraldiak; gari arlo zabal, emonkorrak; zelaietako lorak, txoritxoen abestiak...

Bihotz biguna da. Dardaraka jarten da bere bihotza aurrekoaren mixeria eta zoritxarra ikustean. Inoz negar

ere egin dau bere herriaren gero iluna, etorkizun baltza gogoratzean.

Adikorra, lagunartean ibilteko egina da, edozeinen laguna.

Bihozbako lapur handi baten etxean sartuko da gaur, Zakeoren etxean; eta Zakeo maltzurra bertatik bildots zuri, maitekor bihurtuko da Jesusen ikutua hartutakoan.

Holako gauzak herriaren begietan txarto ikusiak egozan arren, emakume ezezagun batekin hizketan geratuko da Samariako putzu ondoan. Inoz entzuera txarreko emakumeekin ere nahastauko da.

Herriaz egotea atsegin jako; herriko jaietan parte hartzen dau; han eta hemen, herri askotan egin ditu adiskideak.

Inoz bakartadea ere maite dau eta hara doa barruko isiltasunaren bila, mendi eta eremu artera.

Bere adimena ondorik bakoa da, muga barruan hartuezina; bere agoak diñoan hitz bakotxak harri bitxia dirudi; harrigarritasuna darioko.

Gaur, drakma galdu dauan etxekoandrearen ipuina esango deusku, edota artzain onarena, edota hainbeste negar eraginazo dauan seme galduaren parabola zoragarria...

Parabola txundigarriak, bardinbakoak, beti atseginez gogoratzen ditugunak: samaritar onarena, ezteguak egiten dituan erregearena, mahastira bialdutako langileena...

Noizean behin, bere erasotzaileei adarra joten ere badaki: "Emon Zesarri Zesarrena dana". "Benetan diratsuet: honeek isiltzen badira, harriak egingo dabe deadar". "Aberatsa Jaungoikoaren erreinuan sartzea baino errazago da ganbelua jostorratz-zulotik sartzea". "Benetan esaten deutsuet: publikanu eta emagalduak zuek baino lehenago sartuko dirala Jainkoaren erreinuan".

Asko ziran bideak betean jarraitzen eutsoenak, baina ez beragan sinisten ebelako, egiten zituan mirariak ikustearren baino.

Kurutzean hil ebenean ikusi zan hau argi: bere ama eta beste gitxi batzuk izan ezik, beste guztiak bere kontra jarri edota handik alde egin eben.

Bariku guren arratsalde haretan, gazte haren gorpu hila hilobiko harri handipean gorde ebenean, ez eban inok gazte haregaitik txakur txiki bat emongo.

Inok ez eban uste, amesetan ere, gazte haren entzutea eta sona gizaldirik gizaldi, ekaitzaren indarrez, munduko bazter guztiak jo arteino zabalduko zanik munduan zehar. Uste eben harripe haren isilean, ilunean, betiko ustelduko zala.

Eta, horra miraria! Hogei gizaldi luze igaro dira ordutik hona eta, gaur berton, oraindik ere munduak bere inguruan giraka dihardu.

Gaur berton, munduaren bihotza da. Bere bihotzeko zauritik erlijio barri eta bizi bat sortu da.

Lurbira osoa bere oroimenez eta irudiz beterik ageri da. Zeruko izarrak beste liburu idatzi dira berak esan eta egin ebana aipatuz.

Bere maitasunarren martiritzan odola emon dabenak zenbatuezinak dira. Elizaz eta aldarez beterik dago mundu bazterra. Kultu hunkigarria eskeintzen jako gugaitik kurutzalduari. Zenbatuezinak dira beragan sinisten daben jarraitzaileak.

Hondartzako hareak beste, berbizkundearen itxaropenean bere kurutze santuari mosuka hil diran gizon eta emakumeak. Zenbat jazartu eta espetxeratu, beragan sinistearren bakarrik.

Zenbatuezin beste misiolarik zapaldu ditue munduko bazter guztiak bere izena lurbira osora eroatearren.

Nor da gizartea bere alde edo bere kontra zati bitan jarri dauan gazte hau?

Badakizu zein dan gazte honen izena? Ezagutzen dozu? Aurkitu zara inoz beragaz? Hartu dozu inoz benetan gizon hau? Ezagutzen dituzu bere irakatsiak, Bere egiteak? Nor dan gazte hau?

Itaun honi erantzuten ez badakizu, oraindik guztiz gizon edo emakume egin gabe zagoz. Ez dozu zeure nortasuna lortu; ez dakizu zeure nondik norakoa; ez zeu nor zaran; ez nondik zatozen; ez nora zoazen; ez zetarako zagozan hemen; zeurerik ezer ez dakizu; beharrenak ikasi barik zagoz.

Nahitaez ezagutu behar dozuna da. Zorakeria bat egingo zenduke ez ezagutzeaz.

Jaungoiko autortzen da bera, Jaungoikoaren Seme bakarra. Berarekin ibilitako apostoluak ere Jaungoikotzat autormendu eta Jaungoiko lez agertzen dabe gizakien aurrera. Eta hau sinistekoa da.

Jesusek ez eban inoz guzurrean labanik egin, egi hutsa da. Bere egite guztietan eguzkia baizen argi agertzen zan. Sinisgarritasun osoa irabazi dau gizakien aldetik.

Itandu, bestela, beragaitik hil diranei; miloika eta miloika gizon eta emakumeri; bera ezagutzen emotearren mixiolari doan gizon edo emakume horri.

Beraz, gizon hori Jaungoikoa bada, eta gu salbatzearren gizon egin eta mundura etorri bazan, orduan gizon hori ez da edozein, ezin geinke baztertuta itzi inor ez balitz lez.

Jaungoikoa bada eta gu salbatzearren munduratu bazan, gure bizitzan sartuta dago, gure bizitzari ikutu deutso. Beraz, gure bizitzan norbait izan beharko dau.

Guretariko bakotxari, apostoluei lez, "ni nor nazala dinozu?" itanduten deusku Jesusek. Eta gure erantzunari itxaroten dago.

Jesusek diño beragan sinisten dauana, salbatu egingo dala, sinisten ez dauana, ostera, galdu egingo dala. Eta jarrai dagi: "Neu naz bidea, egia eta bizitza" (Jn 14,6).

Hau holan dala jakinik, Jesus oso-osoan geure bizitzan sartuta dagoan ezkero, bere gidaritzapean jarri behar dogu gauza guztietan gure bizitza.

Ezin geinke bere eskutik igesik egin, hori eginaz, tentelkeriarik handienean jausiko ginakez eta.

Guzti honek Jesus ezagutzera behartzen gaitu; bera nor zan eta zelakoa zan sakonagotik ikustera; bere bizitzako goibehe, sentimentu eta mundu zabal hori geureganatzera; bere ebanjelio eta egintzak aspertu gabe irakurtzera.

Maitemindu diran zintzoak Jesus eurentzat nor izan dan hitz gozoz agertu deuskue. Berari ezarritako ago beteko deiturak gogoratzea nahiko dogu honen argibide lez: etxearen giltzarria, gauza guztien hasiera eta amaiera, munduko argia, zeruko ogia, ur bizia, artzain ona, mahatsondoa; Jainkoaren jakintza, indarra; munduko pekatua kentzen dauan bildotsa; Aitaren irudia; zeruko atea, gizonakaz dagoan Jaungoikoa...

Honako beste mila deitura liluragarri ezarri deutsez Jesusi bere adiskideak.

Zelan zenbatu, gizaldietan zehar Jesusen alde odola emon daben guztiak?

Zelan zenbatu, gizaldietan zehar Jesusen bular gainean azken arnasa emon daben guztiak? Bere jarraitzalleak? Bere misiolariak? Bere teologoak? Olerkariak? Ertilariak? Liburuak? Elizak? Museo, oroigailu, hilarri eta gañetiko agerkari guztiak?

Munduak hartu ezinbeste dira. Honek esan nahi dau Jesus gizakientzat gizon hutsa baino zerbait gehitxoago dala: Jaungoiko Salbatzailea.

Fede honetan bizi izan da gaur arteinoko gizakia eta gaurko hau ere fede horren autorle da, nahiz eta askok fedea galdu.

Sinistuta nago federik gabe bizi dan gizakiak, bere zentzun txoko horretara sartzen dan ordu isiletan, irrika bizian itanduko deutsala bere buruari: mundua eta mundutarrak sutan jarri dituan Jesus hori ameskeria, mamu bat besterik ez al da? Zentzunezkoa ete da honako zerbait burutan hartzea, lepo gainean burua tente daroan gizon edo emakume batentzat?

Zelan aitu, ze arrazoibide aurkitu Jesusek betidanik gizartean sortu dauan harrigarritasuna, ikusgarritasun goitar hori egitasunez, gizatasunez argitu eta aditzera emoteko?

Bihotzik gogorrenean ere ez ahal dau Jesusek noizbaiten kilikilirik biztuten? Peilokeria bat esanez edo pentsatuz baztertu ete daiteke Jesusen mirari edo fenomeno hori?

Ezetzaren erantzuna datorkit niri ezpanera. Hori arlotekeria arinegia iruditzen jat.

Gizakiaren zentzun onak beste bide bat aurkitu behar dau Jesusen miresgarritasun honi erantzun egokia emoteko.

Benetan hartu Jesus hori, bere ezagueran sakondu, bere urrats eta irakatsiak aztertu, berak eginiko guztian burua barruraino sartu eta, gero, gizontasunez erantzun, bideak aurkitu.

Jesusegaz topo egin bizitzan, bestela jakingarrienak ikasi gabe joango gara mundu honetatik.

Gogoa ilunetan eroatea, azken baten, arriskugarria da. Ilunaldi handiak izango dituzu bizitzaldian, har horrek beti hozka, haginka egiten daki eta.

Ilunetan ez da ezer ikusten, argia behar dogu ikusteko. Eta argia hemen Jesus bera da. Ez jaku beste maisurik emon. Hau dala eta, bizitzan argia aurkitu nahi izan daben guztiak Jesusegana jo dabe. Jesusegan aurkitu dabe bidea, egia eta bizitza.

Egon da inor Jesus egiazko gizona ez zala izan esan dauanik ere.

Lehenengo kristauak asmauriko mito edo ameskeria bat besterik ez dala Jesus. Danetarikoak esan dira. Edozein zorokeria.

Baina, mamu bategaitik ez dau inok bere zanetako odolik emoten, ezta zomorro bati, gizaldietan zehar, zenbatuezin beste jendek jarraitu bere atzetik.

Burutik ondo dagoan inok ezin leike Jesusen egia ukatu. Barregarri geldituko litzake, gaur, Jesusen izaera ukatzen dauan pertsona.

Ezin daiteke gaur holakorik esan inoren aurrean.

Jesusen izaeraren inguruan, jakinbide guztiak azken tantaraino agortuta dagoz bere alde; ezbaitasunak ez dau hemen hitz erditxo bat ere merezi.

Ebanjelioak gaur egun, jakinbideak eskatzen dituan eskakizunik zorrotzenak beteten ditu. Hor ez dago zalantzarik. Huskeria edo ezerezkeria batzuk egon daitekez honetan edo haretan, baina, ebanjelioan datozan oinarrizko esaldi, irakatsi eta jazorikoak Jesus berari zor jakon sinisgarritasuna deuke. Horreek ukaezinak dira.

Fedea ez da egi batzuk sinistea, Norbaitegan sinistea baino.

Hain zuzen ere, Jesus Jaungoikoaren Semeagan sinistea.

Jesus da fedearen bihotz ondoa, arnasa, goibehe eta gailurra. Jesus da fedea. Beragan sinistu, bere adiskide

izan, bera maitatu, eta bere esan eta gidaritzara bizi. Jesusegaz maitasun estu bat izan.

Eta hau lortzeko, bide bakarra lez, Jesusen pertsona hori benetan hartu behar dogu, ez hotz eta geldo geratu bere aurrean, ez txakurrenak esan beragaitik, ez umetako ipuin bat lez gogoratu...

Bera bazterturik eukiteak edota ukatzeak, ez uste izan gizakiago egiten gaituanik.

Ezagutu ez doguna, jakinbideratu ez dogun egia ukatzea, ukapen hori, ezezko hori, gizatasun txatxarra, burugabekeria hutsa agertzea da. Jesusen aurrean ardurabakotuta bizitea, gogo gaixoaren ezaugarri bat baino ez da.

Eta, zoritxarrez, holako asko dago gaur. Kale barren baten jarriko bagina eta handik doazen gizon eta emakumeei Jesus beretzat nor dan itandu, gehientsuenak, ziurziur, erantzun hirukoitz hau emongo leuskigue: Belenen jaio zala, kurutzean hil ebela eta batzuek Jaungoikotzat deukeela.

Honetan hilgo litzake erantzuna.

Honez gainera, itauna sakonagora eroanaz, itanduko bagendu: Zer da zuretzat Jaungoiko izatea? Jesus Jaungoikoa izateak badau zerikusirik zure bizitzan? Badagitso ikuturik? Zetan edo hatan, aldakuntzarik eraginazoten deutso zure bizitzari?

Mutututa, albora begira, zeresanik gabe ikusiko genduke jendetza hori. Horretan dago gaurko gizakiaren itsukeria, tentelkeria.

Baina, halan da guzti ere, itauna zutik dago; bazterruezina da. Erantzunaren zain dago, gizakiarentzat oinarrizkoa dalako.

Batzuek zanetako odola isuriaz emon deutse erantzuna. Inok Jesusegan eremuko bakartadean maitezko eztenguak eginaz. Inok komentuko isilean; inok bihotzeko beroaren babesean; inok misiolaritzan; inok abadetzan; inok besteen zerbitzuan; inok parrokiako lanetan; inok kristaubide zuzena eginaz, Kristoren urratsei zintzo eta leial jarraituz.

Aho batez esateko, erantzun bikain, eder, ikusgarriak, ospagarriak izan ditu gizaldietan zehar. Ez dago honen kezkarik.

Ebanjelioa bihotzagaz irakurri behar dogu, ez buruaz, hau da, ez jakintza eta hutsen bila dabilen azterlari baten antzera.

Astiro-astiro, bihotza belauniko dogula, ezti zatia agoan txastatzen dogun lez baino.

Ez da ikasketako liburua; geldi-geldi, baretasunean hausnartzekoa baino. Bihotz txokoan atseden egin dagiala. Ama Birjiñaren antzera, bihotz barruan gorde, hausnartu.

Bihotz lurrean sustraiak bota dagizala, Espiritu Santuaren eraginez. Eta horretara egiteko gauza bagara, ziur baten, Jesus gure bihotzean eta bizitzan sortu eta jaioko da.

Ez da ebanjelioa arin-aringa irakurteko liburua; irakurten dogun bakotxean, Jesusegaz egotaldi, solasaldi bat euki behar dogu.

Beragaz egon, berari entzun, berari hitz egin, beragaz solastu adiskiderik onena lez. Bakotxak daukagu geure modu berezia Jesusegaz aurkitzeko eta egoteko. Baina, Jesusen bila jardute hori guztiok egin behar doguna da, bera dalako gure bide, salbamen eta bizia.

Eta beragana hurreratzea lortzen badogu, eta hau lortu daitekena da, guk ere apostoluen agoz esango deutsagu pozaren pozez: "Zu Kristoa zara, Jaungoiko biziaren Semea". Hiru Erregeen antzera, guk ere bere bila urtengo dogu: "Bere izarra ikusi dogu, eta bera gurtzera gatoz"

Izar hori mundu gainean dago. Danen bistan dago. Gaur, behar bada, inoz baino hurrago ikusten da. Honen antzik emon ez arren, gaurko mundu gaixo hau Jesusen bila dabil. Munduko gaba ilun honetan, mundua berari begira dago, egiazko salbatzaile baten beharrean dagoala konturatu dalako

Hona heldutakoan, gure pozerako, Jesusegana bihurtutako batzuen izenak gogora ekartea ona izango jaku. Esaterako, gure Paulo Tarsotarra.

Gure Paulo ere, gaztetan, okerreko bidetik ebilen; Jesusen etsai amorratua zan; kristauen jazartzaile bildurgarria.

San Esteban, lehenengo martiria, harrika hil ebenean, berak oraindik gazteegia zalako ez eutsan harririk jaurti, baina hantxe egoan zelan hilten eben begira, eta hiltzaileen erropak besoetan zituala.

Saulok Eliza hondatzen eiharduan, eta etxerik etxe sarturik gizon eta emakumeak atara eta espetxean sartzen zituan..

Damaskora bidean joiala, hango kristauak lotuta Jerusalenera ekarteko asmo gaiztoz, Damasko ondora heldu zanean, bat-batean goiko diztira argitsu batek jota lurrera jausi zan.

-"Saulo, Saulo!, zegaitik narabizu aurrean?", entzun eban norbaiten abotsak esaten eutsala.

Eta Saulok: -"Nor zaitut, ba, Jauna?" -"Zuk aurrean narabizun Jesus naz ni", erantzun eutsan Jaunak; -"gogor jatzu akiluari ostikoka ekitea."

Hementxe aurkitu eben alkar Jesusek eta Saulok. Saulok ez dau inoz ahaztuko une aparteko hori. Ordutik aurrera, Jesusek inoz izan dauan apostolurik onena izango da. Gorputz eta arimaz Kristogaz maiteminduta geratu da. Sinistu ezin halako gauza harrigarriak egingo ditu

aurrerantzean Kristoren maitasunagatik. Munduan entzun diran berbarik sutsuenak esango deutsoz Kristori.

Entzun daiguzan Pauloren bihozkadak.

"Niretzat bizitza Kristo da; heriotza, barriz, irabazia. Kristogaz egoteko hil nahi neuke. Nok aldendu gu Kristoren maitasunetik? nahigabeak?, larriak?, goseak?, bilozik egoteak?, arriskuak?, aurrean erabilteak?, ezpatak?"

"Ziur nago ez heriotza, ez bizitza, ez aingeru, ez nagusi, ez oraingo ez geroko ezer, ez indar, ez gorengo, ez beherengo, ez beste izakiren bat, ez dirala gai Jesukristo gure Jaunagan dagoan Jaungoiko maitasunetik gu aldentzeko" (Rom.8,35-39).

"Kristogaz kurutzean nago josita. Harrezkero ez naz bizi ni: Kristo bizi da nigan" (Gal. 2,19).

Paulorentzat Kristo da dana, bere biziaren bizia, bere uste osoa jasoten dauen gizona; gu beragaz bizi gaitezen, gugaitik hil zana; gu bere gorputz atalak gara; Jesukristo Jaunaren ezaguera bikainaren ondoan, gainerakoei simaurra deritxe.

Horra gure Paulo kristau fededunaren eredu bikain eginda bai Jesus ezagutzean, bai maitatzean, bai jarraitzean eta bai Jesusen izena predikatzean.

Hartu daigun Paulo geure eredutzat. Ez dogu damurik izango. Bera beste ez gara izango, baina, gitxienez, zorion betea izango dogu guk ere Kristoren ondoan.

Jesus gure bidea da, galdu barik azken helmugara ziur eta tinko eroango gaituan bidea.

Gure egia da, gure fedeari eta bizitzari ziurtasuna damotson egia. Beragan sinisten dauana salbatuko da, sinisten ez dauana, ostera, ez da salbatuko. Jesus maitatzen ikasi dauanak Jaungoikoa aurkitu dau.

Jesusegan gugaitik kurutzean hil zan Jaungoikoa ikusi

behar dogu bakotxak. Beraz, Jesus neure-neurea da, neure bihotz zati bat, neure maitasunarren hil dan neba-anaia. Hortik neure bizitzako ames, helburu, maisu eta gidari eginik daukat. Bere jarraitzaile apal autortzen dot burua.

Jesus ez dago gugandik urrun. Geugaz bizi da munduko erbeste honetan. Baina, non? Bere Elizan, oraindik erdi eginean daukagun Eliza honetan. Eukaristian ere bizi da ogi eta ardao irudipean; eta bere hitzaren berbotsean; kristauen artean; beragan sinisten dauan bakotxagan.

Jesus aurkitu nahi dodanean neure senideen artean aurkitzen dot solas gozoan.

Berari esker, bere barrua gizakiaren alde oso-osoan hutsitu ebalako, gizaki guztiak maitatzen ikasi dogu, -baltzak, zuriak, aberatsak, txiroak, hemengoak eta hangoak... Eskerrak beti geugaz dagoalako, bestela gizataldea bere hondamendira bidean legoke.

Horregaitik, asko dira gaur ere, zintzo eta leial, Jesusi jarraitzen deutsoenak. Batzuek izen eta entzute handiko gizon eta emakumeak dira; beste batzuek apalagoak, baina, danen artean, izarrak beste dira. Kristoren urratsak zapaldu nahi ditue bizitzan zehar.

Kristoren usain gozoa zabaldu dagozan tokian eta zereginean. Jesusek, geuk nahi ezean, ez gaitu inoiz bakarrik izten; beti daukagu babesa bere hegapean; ez deusku inoz marrorik egiten.

Ez da jaio inon Jesusek baizen ondo hitz egin eta maitatu dauan pertsonarik. Bera da gure bihotzetara bakea, poza, parkamena eta itxaropena dakarkiguna.

Berari esker, edozein unetan, gure bizitzari hasiera barri bat, etorbide barri bat emoteko gauza gara. Nahi izatea behar.

ZURE ETXERA GOAZ, JAUNA!

Gizakia hilteko jaioa da.

Gure bide guztiak heriotzako itsasoan amaitzen dira. Itzalpe bateko lo-amesa gara. Honetara ikusten eben antxinakoak gure bizitza.

"Hauts zara, eta hautsetara joango zara barriro ere", dirausku Idazti Deunak.

"Bedarra lez irauten dabe gizonaren egunak, landako lorea lez loratzen dira; haizeak hari ikututxo bat egin orduko, ezereztu egiten da, egoan tokiak ez dau barriro ikusiko" (Sal 103, 15).

Garizuma bakotxaren hasieran, hauts egunean, bekokian hautsa ezartean, bakotxari esaten jaku: "Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara"

Eguneroko jazokizuna jaku; gurpil horrek, hurrengorik hurrengora, errukirik gabe, danok azpian hartzen gaitu. Ez dago hemen iges egiterik.

Honen jakinean, zer egin?

Heriotzaren turuta soinuak minlarrituta, bakotxa bizitzari probetxurik onena ataratzen ahalegintzen da. Lurreko atseginetan aurkitzen dogu ordain saria, batez ere, heriotza oraindik urruntxo ikusten dogunean. "Jan eta edan daigun" -esaten da bihar hil egingo gara eta.

Baina, heriotzaren oroipen horrek, zelanbaiten, gure bizitzaldiari mingots tanta garratz bat jarten deutso beti

ere. Bizitza hainbat gauzetan, hain polit eta ederra izanik, alderdi alai eta zoragarriak dituelarik, heriotzaren itzalpeak baltzez janzten dau. Heriotzaren arpegi motza beti begi aurrean daroagu, gure gogoaren izotza balitz lez.

Guzti hau holan izanik, hemen dator gizakiak heriotzaren aurrean egiten dauan, edota egin behar leuken galderarik behar-beharrenetakoa: Ba ahal da bizitzarik heriotz ostean? Bai ala ez? Non? Zelakoa? Zelan jakin hori? Nori entzun eta sinistu?

Era guztiriko erantzunak aurkitzen ditugu hemen. Baiezkoak, ezezkoak, ezbaidakoak. Daneriko eritziak saltzen dira gai honetan.

Sinistedunak, heriotz ostean, betiko bizitza bat autortzen dabe, zeruko Aitaren etxean. Bizitza zoriontsu eta pozgarri bat. Sinisgeak, ostera, ez dabe sinisten bizitza barri horretan. hori jakinezina dala diñoe, ez dagoalako bizitza horren aztarrenik, ezta ohargarririk.

Ez da bat bere harritzekoa gizon eta emakume honeen sinisgabekeria.

Erlijio gaietan, euren adimenaren ispiluan ikusten dabena bakarrik sinisten dabe. Euren ustetan, ispilu horretan motatuta agertu behar dau sinisgaiak, bestela ez da izango sinisgarri.

Adimenak barruan hartzen dauana bakarrik da sinistekoa. Hortik kanpo gelditzen dan guztia zentzunezko pertsonak ezetsi egin behar dau, bere duintasunaren ohorez. Hori jazoten da betiko bizitza horrekin ere.

Giza adimenaren mugatik beste aldera, urrunera geratzen dan egia da. Beraz, gure adimenaren indarrez begiztatu ezin daitekena.

Hortik, jakintzaren oinarriak hor huts egiten dabela

eta, betiko bizitza eta giza adimenaren tarteko zulo hori beteezinak dirala eta, oso-osoan ukatua da betiko bizitzaren izaera hori.

Bide horretatik doaz zenbait jakintsu eta sinisge. Gizakiaren agotan dabilen Jaungoiko hori inok ez dauala inon ikusi eta, beste mundu horretatik inor ez dala hona etorri eta, zutoinik gabeko siniskera bat dala eta, gure hilak lurraren sabel ilunean hauts bihurturik aurkitzen ditugula eta, bizitza horren arrastorik inok ez dauala ikusi eta, hemeko bizitza honetan tinkoturik bizi dira gizon eta emakume sinisgabeok.

Hortik, euren helburu gorengoa bizitza honetako atseginetan hondar-hondarreraino sartuta bizitea da. Agortu bizitzaren ezti gozoa.

Gauza baten arrazoi osoa deuke gizon eta emakume sinisgeok. Gure adimenaren indarrez ezin geinkela ikutu zeruaren goi hori.

Goiegi dago guretzat.

Iputargiak lakoxe argi motela emoten dau gure buruak. Geurenez harroputz handiak izan arren, ez gagoz erronka larregirik botatzeko.

Buruz zuhurrenak garala uste arren, ez gara hegada luzeko arranoak mundu zabalean zehar, ezkutuan dagozan harrigarri guztiak susmatzeko.

Benetako jakitun apalaren autorra, azken baten, honako hau izaten da: ezer gitxi dakiala munduatzaz eta gainetiko gauzatzaz. Harroputzak dana dakiala uste dau; apalak, ostera, ezer gitxi.

Gainera, ez dago zetan harrotu ere; sinisgeak ez deuko arrazoibide ziurrik betiko bizitza hori ukatzeko.

Gure adimenak, berenez, ez baietzik ez ezetzik ezin

leike emon hemen, egi hori argitu eta ezagutzeko ahalmenik ez deukalako.

Betiko bizitza horren ezaguera fedearen argi eta esanetik bakarrik datorkigu. Fedetik datorkun siniskera da. Jesus hil eta berbiztuagan deuko oinarria. Jesusen salbamenaren frutu miragarria da. Jesus berbiztuagan dogun fedetik datorren siniskera.

Guk beste mundu horretzaz dakigun guztia Jesusek esanda dakigu. Horretara etorri zan atorri ere Jesus gure artera: hor beste mundu horretan zer dagoan esatera. Berak emonak dira barri guzti honeek. Ebanjelio guztia -lehenengo orritik azkeneraino- mundu horren iragarpena baino ez da. Betiko bizitza hori darabil gaitzat ebanjelioak.

Entzun daigun Jesusek dinoan hau: "Nire Aitaren etxean egonleku asko dagoz. Hara noa zuei leku bat gertatzera, bada, ni nagoan tokian zuek ere hantxe egotea nahi dot eta"

Eta beste hau: "Poztu zaiteze zuen izenak zeruan idatzita dagoz ba". "Han ez dago ilunik, ez negarrik, ez nahigaberik..."Zoriona da hango eguzkia.

Eta jarrai dagi Jesusek: "Ni naz berbizkundea eta bizitza; nigan sinisten dauana hil arren ere biziko da; ez da betiko hilgo".

Begiratu deiogun orain Jesusek kurutzean daukan aurpegiari.

Odol larregi, zauri gehiegi agiri da aurpegi horretan, guk Jesus hori guzurtitzat hartzeko; egi honeek guri erakustean, engainatu egin gaituala esateko. Broma astunegia litzake holako zerbait esatea, edota bururatzea.

Jesusen berbizkundea da, ba, kristau erlijioaren oinarria eta ardatza. Kendu egizue Jesusen berbizkunde hori

gure kredotik eta gure etxea astrapala baten lurrera dator. Kristautasuna osoan lurperatu dogu.

Kristorekin barriro berbiztuko garan itxaropen honeek damotso indarra eta arnasa gure sinismenari.

Apostoluak ere hots handiz iragarri eben Jesusen berbizkunde hori. Esan daigun ezer baino lehen, Jesus berbiztu zan une haretan, ez zala, han bertan, inortxo ere egon Jesusen biztuera hori ikusteko. Ez eban inok ikusi Jesus berbiztuten.

Aingeruak bakarrik egon ziran, antza; guk, ba, aingeruaren esanez ezagutu genduan lehenengoz Jesusen biztuera hori.

Markos deunak honela idatzita deuko:

"Zapatua igarota, Mari Madalenek, Santiagoren Marik eta Salomek usaingarriak erosi ebezan, Jesus hilontzeko asmoz. Eta goizaldean, eguzkia urtetean, hilobira heltzen dira.

Gora begiratu, eta harria hilobitik kenduta egoala ikusten dabe, harria handia zanarren. Hilobian sartu eta gazte bat ikusi eben eskumaldean jezarrita, soineko zuriz jantzita: ikaratu egin ziran.

Harek, ostera, hauxe dirautse: "Ez ikaratu. Gurutzean hil eben Nazareteko Jesusen bila zabize; biztu egin da, ez dago hemen.

Joan zaiteze, barriz, Haren ikasleei eta Pedrori esatera, Galileara zuen aurretik joango dala; hantxe ikusiko dozue, Berak esan eutsuenez" (Mk 16,1).

Behin eta barriro esango dogu Jesusen biztuera honetan dagoala kristau fedearen giltzarria; Jesusen bizitza guztia aditzera emoten deuskun erakusgarri bete-betea.

Jesusek heriotza azpiratu dau. Zeruko Aitak Jesusen salbamen hori garailetasunez txalotuz, onartuz, bedeinka-

tuz, Jesus hilobitik bizirik zutitzean, zeru eta lurretako Jaun eta Jabe bakarra Jesus bera dala iragarri dau berbizkunde horren bidez.

Zeruko Aitak berbiztu dau Jesus, horretara bere egikizunari betekizun osoa emonez.

Salbauta gagoz! Salbatuak izan gara!

Horregaitik jaurtitzen ditugu haizetara sutsu eta bulartsu gure aleluiak, Jesusen berbizkundeak gure barruan esnatu dauan poza eta gozotasuna iragarriaz.

Munduko gizon-emakumerik zoriontsuenak gara Jesus berbiztu hori geurekin bizirik eukitean. Ez dago poz handiagorik. Mundu guztia gitxi litzake gure poz handi hau ordaintzeko. Ez genduke ezergaitik salduko.

Alderantziz, ostera, fededunok gizakirik zorigaiztokoenak ginakez, Jesusen berbizkunde hori guzurrezkoa izan balitz.

Horregaitik, kementsu datorkigu hemen Paulo apostolua. Bizigarria bota nahi deutso, antza, gure fede motelari.

"Errukitan aberatsa dan Jaungoikoak maite-maite izan ginduzan, eta gure gaiztakeriakaitik gu hilda gengozanoi, Kristogaitik bizitza emon euskun -utsean izan zaree salbatuak-, eta gu biztu eta Kristogan zeruan jesarrerazo gaitu: guganako bere graziaren aberastasun ugaria, bere errukiz, geroko gizaldietan erakutsi egian. Izan ere, grazi hutsean izan zaree salbatuak, sinismenaren bidez" (Ef 2,4-6).

Eta Apostoluen Eginetan: "Jesus hau biztu dau barriro Jaungoikoak, eta geu guztiok gara, izan ere, autorle" (Apt, Eg.2,32).

"Israel etxeko guztiak jakin begie benetan, zuek kurutzean josi dozuen Jesus hau, Jaungoikoak Jaun eta Kristo egin dauana" (Ap. Eg. 2,36)

"Bere nekaldi ostean ere, Bere burua bizirik argibide askoz erakutsi eutsen, berrogei egunez harei agertuez eta Jaungoikoaren erreinuari buruz berba eginez" (Ap. Eg. 1,3).

Jesus berbiztuta gero apostoluei agertu jaken behin eta barriro; Berarekin egoteko zoriona izan eben; Berarekin hitz egin; Berarekin jan eta edan; Bere esku eta oinetako zauriak ikusi eta ikutu; Bere saihetseko zuloan atzaparrak sartu..., ziur egozan hiru urteren buruan Galilean zehar eurekin ibilitako Jesus haxe Bera zala.

Egi hau iragarri eta aldeztearren martiritzaraino heldu ziran apostoluak.

Ebanjelioak sendo azpimarratzen ditu Jesusek apostoluei egindako agertaldiok. Pitean-pitean dino honako hau:" Apostoluak poztu egin ziran Jesus ikustean". Poztu Jesus bizirik ikusteagaitik, Berarekin egoteagaitik.

Ez ditugu izan sekula gaur beste ondasun esku artean, baina, era berean, ezta gaur besteko hutsunerik barruan. Barruz hutsik gagoz. Honen ondorioz, gogaikortasuna, asperraldiak, gogaimenak, pot egiteak eta abar eguneroko ogi bihurtu dira gizartean. Gizarteko gaixo ditugu.

Dana daukagu oparoan, beharren doguna, hau da, bizitzari gatza eta piperra emoten deutsan itxaropena izan ezik.

Goitiko itxaropenik gabe gizakiaren gogoa moztuta gelditzen da. Hemen ere Jesusen esana zeharo beterik dator: "Poztu egingo da zuen bihotz hori ni ikustean, eta zuen poz hori inortxok ere ez deutsue kendu ahal izango" (Jn 16,22).

Inortxok ere ez: ez nekeak, ez oinazeak, ez irainak, ez bakartadeak, ez ezek.

Jaunaren maitasunean bizi danak, ezbehar guztien gainetik, poztasunean biziten daki. Jesus berbiztuaren beso indartsuetan aurkitzen da, eta ez dau inoren, ez ezeren bildurrik.

Poztasun benetako eta handi hau Jaungoiko Aita bihotzez maitatzetik eta lagunurkoaren -geidearen- zerbitzuari oso-osoan emonda egotetik dator, hain zuzen ere.

Bizitzako arazo, zeregin eta joan-etorri guztietan Jaunaren begipe ona aurkitu, txar guztitik urruntzen ahalegindu, gure fedea egintza eginik agertu beti; senideekin besarkaturik joan mundu zabaletik zehar, fedea maitasun handiz bete; geurea dogun Jaungoiko seme-alabatasun hori bizitzako motore eginik, txukun, gozo, leial bizi gure bihotz txokoan..., horixe da, ezbairik gabe, mundu honetan benetan zoriontsu izateko biderik onena.

Jainkoaren seme-alaba garala jakiteak gaztetuta izten deusku gogoa.

Atsegin doinua ezarten deutso gure bizitzari. Eta inoz, lapraskada edo labankada txar baten irrist egin eta pekatuaz Jaunagandik urruntzea balitz, larriaren larriz itomenduta, bertatik Aitaren etxerako bidean jarriko ginakez eta, gure etorreran jai eder bat egingo litzake bai zeruan eta bai gure gogoan.

Jaungoikoaren seme-alaba bati dagokion lez, gu gagozan tokian poza eta alaitasuna danen aurrean aitzindari jarri behar ditugu beti. Ez gogo ilunik, ez bekoki tximurrik gu gabiltzen tokian.

Alaitasuna zerura doan bide bat da. Alaitsua danak bere inguruan dabiltzan guztiak zoriontsu egiteko doaia deuka.

Bihotzak barrezka jartea baino karidade hoberik ez dago.

Hau argi ikusten dogu Apostoluen Eginetan: "Begira zelan maite diran kristauak", inoen jentilak, lehenengo kristauak ikustean.

Baina, zeren indarrez maitatzen ziran haretara lehenengo kristauak? Jaungoikoaren seme-alaba eta alkarren artean neba-arreba sentitzen ziralako.

Eta maitasun horretatik dator gero, ondorio lez, alkarren poztasuna, ederrikusia, ondonahia, txukuntasuna, samurtasuna, zorion bete-betea. Alkar maitatuz alkar zoriontsu egitea.

Jentilengan aurkitzen ez zan zerbait ikusten zan kristauengan: bizitza bardin antzeko bat eroanarren, holako alaitasun, alkartasun ikur berezi bat, biziteko modu barri bat nabari zan kristauengan.

Biziteko modu barri hori izan zan jentilak federa ekarteko txartelik onena.

Kristo berbiztuagan eta betiko bizitzan sinisten dauan kristauak holakoxe edertasunez apaindu behar dau bere bizitza: alaitasunaren, poztasunaren, bakearen, anaitasunaren ereile jatorra izan. Holan helburutu bizitzako orratza.

Gaurko kristauok fede bizi horrekin, kemen eta adore sutsu horrekin oihukatu eta iragarri behar gendukez Kristo Jaunaren berbizkundea eta berari esker, betiko bizitza horretan dogun itxaropen suntsituezina. Geure bidez, asko Kristoganatuko litzakez seguru asko.

Hauxe da gure poztasunari babesa emoten deutsan mezua: Kurutzeratua izan zana, gaur, Jaungoikoaren ondoan betiko bizirik dagoala.

Hauxe da gure fedearen giltzarria; bizia emoten deutsan sustraia, zana. Azpi honen gainean dago iraikita kristau etxea. Hitz pozgarriok dira, soinu gozoz belarritik bihotzera sartzen diranak.

Hau esatea erraza da. Baina, nok jakin gauza honeek zelan diran?

Noren erantzunpean sinistu egi honeek?

Apostoluak "Jauna ikusi dogu" esan eutsoenean Tomas apostoluari, honek, bere buru gogorkerian, honako zerbait eskatu eban sinisteko: "Haren eskuetan untzeen zuloa ikusten ez badot, eta nire atzamarra Haren saihetsean sartzen ez badot, ez dot sinistuko" (Jn 20,25).

Guk ere, gehien baten, apostoluen esanetik ezagutzen dogu Jesusen berbizkunde hori. Apostoluak eurak ere ez eben sinisten, Jesus euren aurrean bizirik ikusi eben arte.

Jesusenak egin ebala eta egozan; etsimenean lurra jota. Inor sinisgogorra izatekotan, horreek apostoluak ziran, zinez, Pazko goizean.

Baina, Jesus lehenengoz, egun sentia baizen gazte, argitsu, usaintsu agertu jakenean, harrimenaren harrimenez burua galduta lez eta soina pozaren pozez dardaraka dantzan lez jarri jaken. Ha zan Poza! Jesus bizirik euren aurrean eskuekin ikutzeko eran!

"Ez bildurtu Neu naz!" Mamuak ez deuke gorputzik. Ikusi nire esku eta oinetako untze zuloak, nire saihetzeko zauria, arantzak buruan eginiko irrikatuak. Neu naz, sinistu egizue!"

Eta berrogei egunez, holantxe Jesus apostoluekin ageRraldiko solasean.

Gaur eta hemen, apostoluak hazurretako gunetaraino sinistuta dagoz Jesus bizirik dagoana. Hau ez zan amesa, lausoa, guzurra; hau egi ukaezina zan. Euren begiz ikusitako egia. Euren bihotzetan, aragi eta odol eginik daroen egia.

Eta hemen dator gure itaun apala, baina ezin garrantzitsugoa: apostolu hareek, Jesus zeruratu zanean, egingo

ete zituen egin zituenak Jesus bizirik egoala hazur eta mamiz muinetaraino sinistuta egon ez baziran?

Apostoluak lez egi horregaitik, bizia emoteko prest dagoanak, ez dau hori mozorro bategaitik, edo ameskeria bategaitik, buru gogorkeria bategaitik egiten.

Bizia emoteko prest dagoanak, egi hori bizi-odol eginik daroa barruan.

"Zoaze munduan zehar eta egin ikasleak herrialde guztietatik" esan eutsen Jesusek. Misio ezin gatxagoa eskeinitako hau.

Batez beste, eskolarik gabeko gizonak ziran; herritar apalak; sendiaren ardura euren esku eroienak; etxeko zutoinak; ezer ikusi eta ikasi bakoak; jendaurrean agertzea zer zan ere ezekienak; hitzerditxo bat esateko totel ziranak; Jesusek izendaturiko mundu barri hori zelakoa zan ezekienak; guk esaten dogun lez, gizajo batzuk.

Egia da Espiritu Santuak, mundura urten baino lehen, bere jakituriaz, kemenez eta adorez beteko zituala, baina, halan da guzti ere, gauza asko egozan eurentzat jokoan.

Agindutako misioa neketsua, arriskutsua, ezinbestean gogorra zan. Ez zan bakarrik bihotzak munduan gehien maite dituan gauza guztiak bertan behera itzi eta, itsuitsuan urrinetara joatea. Horrez gainera oztopo asko azpiratu behar ziran.

Jesusen arazoa oraindik gordin-gordinik egoan; gorroto kiratsa hartzen zan inguruan, zauriak barri-barri, bihotzak odoletan Jesusi jazorikoa gogoratuaz batera.

Baekien, Jesusek berak iragarri eutseelako, euren azkena ere Jesusenaren antzekoa izango zala. Kurutze bide gogorra egin ondoren, ezpatapean jausiko zirala.

Paulo deunak azaldu euskun, epistola baten, berak eginiko kurutze bide horren gogorra:

"Judutarrakandik bost aldiz berrogei zigorkadak -bat gitxiago- hartu dodaz; hirutan zigortu nabe makilaka; behin harrika egin eusten; itxasontzia hirutan hondatu jatan; itxaso erdian gabez eta egunez ito zorian egon nintzan.

"Joan etorri askotan egon naz; ibai-arriskutan, lapur arriskutan, herritarren aldetik arriskutan; jentilen aldetik arriskutan, urietan arriskutan, basamortuan arriskutan, guzurrezko senideen artean arriskutan; izerdi eta neketan, lo galdu askotan, gose eta egarritan, barau askotan, hotzez eta jatekorik ez nebala... Jesukristo gure Jaunaren Aitak badaki guzurrik ez diñodana" (2 Kor 11,24).

Beraz, guzti hau jakinean, zek eroan zituen apostoluak Jesusek agindutako zeregin izugarri hori euren gain hartzera; zer ikusi eben apostoluak Jesusegan?

Erantzun bi bakarrik aurkitzen ditugu hemen: edo apostoluak erotuta egozala, eta hori kanpo izten dogu sinestezina dalako, edota apostoluak gorputz eta arimaz Jesus bizirik egoala sinistuta egozala.

Egi honen ziurtasunak, indarrak eraginda hasi eben Jesusek eskaturiko misio-lan izugarri hori. Ez dogu aurkitzen beste arrazoibiderik fenomeno hau argitzeko. Ezbairik gabe, Jesus bizirik egoala jakitean egin zan aldakuntza hori apostoluengan.

Gizakiaren buruak argitu ezin dauan beste koska ilun bat dago hemen oraindik orain.

Zelan egin zan hain arin, bizkor eta sutsu kristau erlijioaren zabalkundea, orduan ezagutzen zan munduan zehar? Hemen dago beste misterio korapilotsu bat.

Nahiko da orduko munduari gainetik begirada bat jaurtitzea hor misterio handi bat ezkutatzen dala konturatzeko.

Judutarren artean, herriko agintarien erabakiz heriotza emoten jakon gizona, Jaunak madarikatutzat joa lez ikusten zan. Hortik, Jesusen izena bera aitatzea ere gaizpidetzat hartzen zan agintarien aginduz kurutzean hila izan zalako.

Pentsaera hau aurretik zala, oso zaila zan judutarren artean Jesusen izenari bidea zabaltzea. Oso gitxik sinistu eben Jesusegan.

Jentil herrietan ere ez zan giro hoberik aurkitzen Kristoren izena oihukatzeko. Gainera, orduan ezagutzen zan mundua, batez beste, Erromatarren menpean egoan. Erroma zan agintari bakarra. Erromako gudarosteak katez eta ezpataz loturik euken orduko mapa osoa.

Honez gainera, Erromak bere jainkoak zituan, bere erlijioa, jainko gurpenak egiteko bere lege bereziak. Grezitarrak bardin.

Han Jesusen izena predikatzea, zorakeria ezeze itsasoari makilaka ekitea lez zan.

Izurrite atsitu bat sortu balitz lez, hasarrez eta gorrotoz hartu zituen, alde guztietan, lehenengo kristauak. Lehenbailehen garbitu behar zan lur gainetik plaga hori.

Erromak bere esku eukazan zigorbide guztiak jarri zituan jokoan erlijio barri hori hondatzeko.

Bat-batean heriotz epaia erabagi zan kristauen kontra, bazter guztietara zabaldutako agirietan. Kristau autortzea, heriotza aukeratzea zan.

Bertatik hasi ziran jazarraldiak, erasoak, salaketak, espetxeratzeak, martiritzak...

Herriaren jolaserako plazara atarata, basapiztien erpa eta hagin artean txiki-txiki eginda erabiliak izango ziran.

Kristoren antzera kurutzetatik eskegita hilak; sinistu ezinbesteko zigorgailurik mingarrienak asmau zituen kristauen gorputz eta gogoak onazkatzeko.

Zenbatuezin beste martirik emon eben odola kristau zirala autortzearren. Izarrak aina martiri!

Agirian ibili ezin, eta oraindik ere ezagutzen diran katakunbetan -lurpeetan- egiten zituen euren zoko, egoitza eta batzar tokiak.

Baina, dana alperrik. Landetako bedarrak bestean ugaritzen ziran kristauak. Kristau hazia lez zan martiren odol hori.

Kristau fedea hartzean heriotzarako bildots bihurtzen zarala jakitea ez da, egiz, opagarririk gozoena kristau fedea eskatzeko; txartelik bitxiena erlijio hori hartzera hurreratzeko.

Zio goitarren batek bultzatu behar gaitu hori egiteko, bestela ulertezina da hori giza jakituriarentzat.

Hona hemen beste misterio bat.

Erromak bere gudarosteen indarrez, garai hatako mundu ezaguna zeharo menperatu eban eta, larehun urtetan zehar su eta gar kristauen kontra ekin eutson arren ezin izan eban kristaudia menperatu.

Laugarren gizaldirako Erroma kristauz beterik aurkitzen zan.

Hau ez da esamesa, historia hutsa baino. Beraz, ba ete da giza bururik misterio hau argitzekorik? Gertakizun honek ba ete deuko arrazoizko azalpenik guretzat?

Uste dot ezinezkoa dala gertakizun honi arrazoizko giltzarria aurkitzea.

Zalantzarik gabe, argi dago hemen Jaungoikoaren esku ahaltsua ibili zala bideak eta eginkizunak zuzentzen eta gidaritzen.

Jaungoikoak egina izan dala mirari hori. Ez dago beste azalpen arrazoizkorik. Jaungoikoaren bitartekotasunez bakarrik egiten dira holako harrigarriak.

Kristau herria bi milagarren urterantz doa. Bertan dogu urteurren hori.

Eta nok esan, bi mila urte honeetan, kristautasunari esker, munduak egin dauan aldakuntza izugarria? Munduko liburutegi guztiak gitxi gendukez munduari ekarri deutson on guztia taiuz azaltzeko.

Baina itzi daigun arlo hori alde batera.

Kontutan izan daiguzan bakar bakarrik, bi mila urte honeetan, Jesusek, mundu zabalean zehar izan dituan jarraitzaileak, ikasleak. Nok zenbatu? Nok jakin zenbat izan diran?

Gaur berton, nok esan, kredo batean edo bestean, dituan jarraitzaile guztiak?

Zer esan nahi dau honek? Itsututa ez dagoanarentzat, Jesus Jaungoikotzat autortzen dauala jendetza horrek. Bizi dala Jesus, bestela ezinezkoa litzakela misterio hori.

Jesusegan jarri dauala uste osoa kristau herriak, eta berari esker betiko bizitza horren itxaropenean bizi dala.

Bizitza barri horretan aurkituko garala, barriz ere, Jesusekin betiko besarkaturik.

Betiko bizitzari ukamena emoten deutsan gizakiak, bere gizatasunari alderik onena kentzen deutso. Oraindik ez dau zorion bidea txastatu.

Ez dakit non, baina nonbaiten bai irakurrita deukat orain esatera noan hau.

Munduko zurrunbilotik igesika, bake eta isiltasunaren bila ebilan gizon jakintsu batek, klausurako moja batzuen komentu ondoan jarri eban bere egoitza.

Hemen, behintzat, isiltasuna izango dot lagun; ez nau inok lanean trabatuko, inoan bere baitan.

Bila ibilitako isiltasun hori komentu inguruan aurkitu

eban. Horraitio, eguneko ordu berezietan, mojen komentuan itzelezko algara eta barre zantzoak entzuten ziran. Beti ordu bardinetan. Solas orduetan, hain zuzen ere.

Zer dala eta poz algara hori? Zer ete dabilde euren artean?

Sor eta lor ebilan gure gizon hau poz-algara horren giltzarria zein izan zeitekean asmau ezinik. Jakituna zan arren ezin eban argitu poz algara horren buruhaustea.

Zelan daiteke hau? Komentu itxian, inoz irten gabe bizi dira; munduaz ez deuke hartu-emonik; ez dira nahastatzen lurreko atseginetan; pobretasun handian bizi dira; legedi estua deuke; bakartadearen isiltasunean murgilduta dagoz... Aituezina da poztasun hori.

Eta honen lehiara, egun baten, komentura hurreratu zan etxeko nagusiarekin hitz egitera.

Jakinminak ekarri nau hona, esan eutsan nagusiari. Zuen solas aldietako poz-algarak entzuten ditut neure lantegitik eta zuen pozaren iturri hori zein izan daitekean jakitera natorkizu. Bizitza hain estua eta holako pozkarioa, zelan daiteke hori?

Ziobide bakarra emon eutsan nagusiak.

-Hara, gu Jesukristoren emaztegaiak gara.

-Baina, bi mila urte dira Jesukristo hil zala!

Eta etxeko nagusiak irribarre gozo bat ezpanetan jarriaz: oker zagoz, jauna, bi mila urte berbiztu zala dira. Jesus bizirik dago. Geurekin bizi da gau eta egun. Horregaitik gabiltzaz gu hain pozik. Gu Jesus berbiztuaren testiguak gara!

Holakoxe poz-algaran bizi behar genduke guk kristauok ere gure fedea.

Jesus bizi dala jakin eta ez poztu, ez hurreratu beragana? Geure adiskidetasuna ukatu? Fede hotz eta motel honetan bizi?

Aituezina da gurea. Hauts artean erdi hilik dagoan txingarra dirudi gure kristautasunak. Geldotasuna, itxitasuna, sugar biziaren ordez.

Gogoa hotz daroagulako, eukaristiak luze eta gogaikarri egiten jakuz; otoitza aspergarri; ebanjelioa etxeko arazan hautsez beterik daroagun apaingarria; Jaungoikoa bere lege gogorrakin, biziteko poza kentzen deuskun Jauna...

Jaungoiko iluna, Kristo iluna, Eliza iluna, kristautasun ilun bat plazaratu dogu gaurko kristauok.

Jesusek, ostera, Jaungoikoaren Erreinua predikatzen ebilanean Berak ipinten eban gogoa, poza, garra, berotasuna eskatzen deusku guri ere gaurko kristau lanetan.

Jesus poztasunaren eta zorionaren oihulari da. Horixe da bere gurari bizia: inguruko jendea pozik eta zoriontsu ikustea, batez ere, bere jarraitzaile diranak.

Jesus ebilan tokian, itxaropenezko haizetxo gozoa hartzen eben bihotzak; poztasuna zan Jesusen ereserkia. Gogoratu daiguzan honako adibide batzuk.

Apostoluak, Jesusek eukan liluramenari buru egin ezinik, dan-dana itzita bere jarraian doaz.

Zakeok, aberatsa izanik, bere diruak pobreen artean zatitzen ditu. Bere entzuleei ogia ugaritzen jake eskuetan; ura ardao bihurtzen da; elbarrituak dantzari zutitzen dira; legendunei haragia barriro gaztetu.

Emakume samaritarrak arimako egarria betiko kentzen deutsan ur bizia aurkitzen dau; Mari Madalenek, Jesusen oinetan, negar zotinez deabrukume guztiak itota itziko ditu, ordez Jesusen samurtasuna txastatzeko.

Bihotzez txiroak diranei, ezbehartuei, nekeminduei ere Jesusek zoriona damotse edateko...

Jesus poztasunaren igarlea da. Poztasun irrintzia jaur-

titzen dau beti haizetara. Entzun daiguzan irrintzi horreen oihartzun batzuk:

"Ez izan bildurrik, artaldetxo horrek", dirautse bere apostoluei.

"Zuen ilunaldi hori poz bihurtuko da" (Jn 16,20).

"Ez zaituet umezurtz itziko; etorriko nakizue barriro" (Jn 16).

"Zuek ere ilun zagoze orain; baina, barriro ikusiko zaituet, eta poztu egingo da zuen bihotza, eta zuen poz hori inortxok ere ez deutsue kendu ahal izango" (Jn 16,22).

"Neure poza damotsuet. Nire poza zuekan egon daiten esan deutsuet hau, eta zuen poza bete-betea izan daiten" (Jn 15,11).

"Bakea izten deutsuet, neure bakea emoten; ez deutsuet munduak emoten dauan lez emoten" (Jn 14,27).

"Ez bildurtu, zuk sinistu bakarrik", diñotso Jesusek laguntza eskatzen deutsan itsuari.

Jesusen garaipen hori geure garaipena ere bada. Jesus berbiztu zan lez, gu ere berbiztuko gara Berarekin heriotza ostean. Berarekin gorputz bakarra egiten dogu. Bera buru eta gu buru horren atalkide. Gorputz osoa berbizten da Kristorekin batera.

Hauxe da kristau batek, kendu barik, begien aurrean eroan beharko leuken gogorapena: Betiko bizitza hori geurea dala, eta bizitza horren ezaugarriak gugan isuri dituala Jaunak.

Jaunak, une guztietan, bere ontasunez eta graziz betetzen gaituala.

Jaunak gurekin izan dauan ontasun hau egunero gogoratu behar genduke guk kristauok.

Lehenengo eta behin, bizitzara ekarri gaitu, bere ontasun hutsez.

Berari zor deutsagu gure bizitzaren mirari hau. Gu jaio baino lehen, maite izan gaitu berak, guk bera maitatuko genduan ala ez jakin aurretik.

Doai hutsez bere seme-alaba egin gaitu federa deituaz. Bateoko egunean hasita, daroagu bekokian Jainko seme-alabatasunaren ezaugarri hori. Aurrerantzean, ez inoz, ez inok ez deusku kenduko.

Seme-alaba onak aita-amak maite izaten dituan lez, maitatu behar genduke guk ere Aita hori: Jesusek egiten eban lez, egunero sarritan hitz egin gure zeruko Aitarekin.

Gure irudimenaren muga guztiak hausi ditu Jaungoikoak gu maitatzean. Bere izatean muga bakoa dan lez, maitasunean ere muga bakoa da.

Honen ezaugarri, bere seme Jesukristo bialdu deusku mundura gu salbatzera.

Maitasun horren goibeheak kurutzean hilaz bete zituan Jesusek.

Oraindik gehiago, hirugarren egunean hilen artetik biztuaz eta biztuera hori guretzat ere irabaziaz. Orain betikoak gara Jesusen biztuera horri esker.

Nekeak, ezbeharrak, gaixoa, zoritxarra datorkuz bizitzaldian; geure kurutze bidea egin beharko dogu guk ere.

Halan da guztiz ere, zoriontsuak gara gure kurutze bide hau berbizkunderako bide dala dakigulako. Jesusen kurutzearen zatiak, odol-tantak dira guk eroan behar ditugun neke oinaze eta kurutzeak.

Jesusenak balira lez hartzen ditu gureak ere zeruko Aitak. Horregaitik santutzaileak eta salbatzaileak dira. Zorionari irribarre zabala egiteko moduan gagoz, Jesus zerura, han guri jarleku bana gertatzera joan dala jakinik. Ez da joan oporrak egitera, gu hemen deslai biderdian itzita. Guretzako tokia egitera joan da.

Bera gure anai-neba egitean, gu ere alkarren nebaarreba egin gaitu. Berari zor deutsagu gure senidetasun hau. Eta gure aldetik, senidetasun hori inoz apurtu ez daigun, emon euskun hain zorrotz alkar maitatzeko agindu hori ere.

Jaungoikoarekin maitasunean bateginik dagoan sendi bat egiten dogu munduko guztiok. Hortik alkar maitatzeko eta zerbitzeko agindua.

Gure pekatu guztiak parkatuko ditu, nahiz eta handiak izan, "maite zaitut, Jauna", esanaz batera, Pedrorekin egin eban lez.

Gure itsukeria ere osatuko dau, Tomas apostoluena osatu eban lez. Gu ere itsu gagoz. Guk ere ez dogu sinisten Jesus berbiztu danik. Gure atzaparrak hartu eta bere saihets zuloan sartuko ditu, sinisteko eskatuz.

Gure izenak zeruko erreinuan idatzita dagoz. Jaunak esana da.

Asko edo gitxi, ondo edo txarto, bera maitatzen ahalegintzen garanon izenak Jaungoikoaren bihotzean idatzita doaz.

Bere berbizkundearen lekuko egin gaitu. Baditugu nahiko ezaugarri eta nahiko ziobide Jesusegan sinisteko, bere ikasle izateko; bere jarraitzalleak, maitaleak izateko.

Jesusena benetan hartu eta berak esana eta irakatsia bihotz guztiz hartu eta geure bizitzara eroateko.

Itxaropenaren besoetan goaz Aitaren etxerantz.

Egunen baten, Aita maitagarri horrekin besartuko gara, amaibako zorionean.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 9

ELIZA GAURKO MUNDUAN 15

- Kristautu nahi dogun mundu hau, gaur eta hemen, zelakoa dan eta nondik nora dabilen begiratu beharra daukagu, beragan oinak jarri aurretik. Ba ete da guri entzuteko gauza? Adi-adi entzun mundu horren taupadak.
- "Aldien ezaugarriak" bilatzen ere ahaleginduko gara. Zeharo aldatuta ageri jaku gizakion bizileku hau; gizakia bera ere bai.
- Fede sailean egin ditu aldakuntzarik handienak. Nondik sartu da ilunaldi hori?
- Mundu horretara sartzeko ateak aurkitu; bideak egin. Jauna deadarka doa gizakien aurretik, ilunak argituz, okerrak zuzenduz, bide zidorrak zabalduz.

TRABAK KENDU 25

- Gaur premiatasun oihuak entzun dira Elizan. Federik eza jabetu da. Erlijio iturriak agortzen dagoz.
- Jainkoari eta Elizari sorbaldak emonda dago gaurko gizakia. Baina, holan ere aurrera jo behar dogu, horretarako eragozpen diran traba guztiak gaindituaz.
- Lehenengo eta behin, Elizak eta munduak alkar baketu beharra daukee, urrundurik bai dagoz. Kezka eta itaun asko dagoz argitasun eske hainbat puntutan.

- Gure eliztarrekin ere hartu-emonak hobetu beharrean gagoz. Jainkoari begiratzeko ere era barriak aurkitu beharko ditugu ebanjelioa oihukatzean. Beste sail eta arazo asko, joanean ikusiko ditugu.

ARTZAINTZA ONA EGIN 33
- Ondo agintzen jakiteko lehenengo eta behin, zerbitzen ikasi behar dogu, jauntxokeriatik urrunduaz.
- Gaur, zorionez, normalagoak dira gure arteko hartuemonak. Artaldea ondo zaintzeko agindua dogu. Kristoren bihotz berberaz maitatu artaldea.
- Bakotxak bere txoko eta bizibidetik, Jainko Herri hori jasotzen agortu behar ditugu gure indarrik onenak.
- Gaur egun, artekotasun barri bat sortu da abade eta laikoen artean. Hurrago, ezagunago, bardinago ikusten ditugu gure buruak.

KONTZILIOA ETA BERE ILUNAK 47
- Kontzilio bat! Baina, zertarako?
- Kristau fedea sendotu, ohiturak barriztatu, Elizan eta munduan batasunaren eta bakearen alde deadar egin, eta eliz-bizitza oraingo aldien bideetara gaurkotu eta egokitzeko.
- Elizaren aro barri bat hasi eban Joan XXIII.ak. Itxaropenezko egunseti bat.
- Kontzilioa ez zan izango egiak markatzeko, dogmak seilatzeko. Eliza aldatu, barritu eta mundu erdian danen jakinean eta ikusian jarteko baino.
- Ageri-agerian, pentsakera desbardin bi ikusten dira Kontzilioaren inguruan: atzerakoia bata eta aurrerakoia bestea. Hortik lehenengo oztopoak, desbardintasunak, ilunak, aitugatxak eta abar... Honen ondorenak.

BERNHARD HÄRING 65
- Aita Häring alemandarra dogu. 1912an jaioa. Hamabi seme-alabetatik hamaikagarrena. "Gurasoen otoitz artean hazia naz ni", diño berak.
- Gaurko moralisten maisu lez ezagutua da Häring. Baina, Erromako teologiatik urrun, beste mundu baten mugitzen da.
- Horregaitik entzun behar izan ditu Dotrinarako Batzordeak eginiko dei eta aholkuak.
- Topaketarik gogorrenak "Humanae Vitae" enziklikaren inguruan izan ditu. Bera ere enziklika honetan parte harturikoa zan, batzordeko lez. Enziklika hori agertu zanean guztiz bihozbeheraturik geratu zan. Ha ez zan Batzordeak gertatutako enziklika! Guztiz aldatuta etorren.
- Honek ekaitz arriskugarri bat sortu eban kristau herrian. Gogoak urduri, ondoezean, galdezka ia gizakientzat hala aingeruentzat egina izan zan enziklika hori.
- Aita Häring-ek baretu eban zerbait txingor zaparrada hori. Vatikanok isilaldia eskatu eutsan.

AITA PEDRO ARRUPE 73
- Gure Aita Arrupe jatorriz mungiarra eta jaiotzez bilbotarra genduan. Zalantzarik gabe, gure egunotako gizonik argitsuenetariko bat.
- Hogeta bost urte luzean Japonian misiolari egona zan. 1945ko abuztuaren 6an, Golgota mendia Hiroshimara aldatu zan. Han hil zan bigarren aldiz Kristo Jauna. Ordutik aurrera, Hiroshima eta Aita Arrupe beti batera joango dira. Ezinezkoak egin zituan leherkaiak txikitutako zauritu eta gaixoen alde.
- Gauzak honela, Lagundiko buruzagitzat aukeratzen dau Aita Arrupe Ordenako Batzar Nagusiak. Goiz

baten Paulo VI.agaz izandako batzar batetik negarrez irten eban Aita Arrupek. Oker handiko zerbait egoan bitarteko.
- Tailandiatik honantzean lurrera jausi zan tronbosis batek jota. Bere burua kurutzapean ezindurik ikusi ebanean, totelka esan eban: "Oraingorako, Amen!, eta gerorako, Aleluia!". Profeta handi baten azkena.

LEKAIME KARMELDARREN OINAZEAK 85
- Lekaime karmeldarrak barrikuntza bidean izandako eragozpen eta atsekabe larriak ditugu hemen gaiburu.

OSCAR ROMERO 95
- Haize hotzak dotorkioz Elizari Amerika aldetik. Kristoren bihotz taupadak entzuten dira han. Ameriketako Elizak "pobreen Eliza" dau izena. Hango ebanjelizatze lanari, barriz, "Askapen Teologia", ekintza horren goiburua gizakiaren jasokuntza orokorra dalako. Horretan sartuta dabil Ameriketako Eliza hori.
- Jenterik gehiena jauntxo handikien morroitzan bizi da, ezetarako eskubiderik gabe. Beste asko teilape bat bagarik, ugerraren janari, txabola antzekoetan, behar gorrian, kale gorrian.
- Beraz, herriaren gogoa zuzpertzeko ordua zan. Mundu zuzenago horren aldeko ekintzan ziharduela jausi ziran odoletan Aita Rutilio, Oscar Romero, Aita Ellakuria eta abar. Ekintza horren hainbat jakingarri aberats aitatuko ditugu.

PEDRO CASALDALIGA 107
- Oso interesgarriak izango jakuz, zalantzarik gabe, Pedro Kasaldaliga gotzain misiolariak Elizari buruz dituan ikusmira, eritxi eta pentsaerak ezagutzea.

- Zelan egiten dauan bere misiolaritza han Brasilgo Mato Grosso zabalean, Sao Felix lurraldean. Zelako Eliza ikusten dauan bere begi-bihotzetan suzko igarle olerkari honek; zeintzuk diran bere ikusmiran, gaurko Elizaren ibilbideak, zelakoa litzaken Eliza hoberen hori.
- Berari entzunaz bakarrik bitsetan jarten gara. Aita Santuari egindako Idazkia ere ez da galduta eukitekoa.

GIZA ESKUBIDEAK ELIZAN 123
- Ahotik kendu barik darabilguz giza eskubide honeek. Ahoko ogia eskatzen dogun lez. eskatzen ditugu, ogia bestean beharrrezko ditugu izan ere biziteko eta. Bideko hautsa lez zapaltzen dira azken aldiotan.
- Eta, Elizan zer? Zelan zaintzen dira? Eztabaidan dagozan talde batzuk aitatuko ditugu hemen. Ez deuke inondik, gaurkoz, konponbide errazik: abade sekularizatuak, bizi-alargunak, ezinduak, homosexualak...

EMAKUMEAREN ABADETZA 143
- Emakumeak abadetza hartu nahi dabe. Geldiezinezko abiadan dator, bideak eginez andrazkoen eskakizun hau.
- Gaztelurik sendoenak lurreratzeko indarra dakar. Auzi honek, oraingoz, ez deuko ageriko konponbiderik. Irtenbidea geroago eta urrunago ikusten da. Arazo korapilatsua da.
- Horregaitik, adikortasun guztia jarri dogu gaian

PARKAMENA GARESTI 173
- Autortzaren inguruan iluna egin da. Igartu dan zugatzaren irudia da gaur.

- Jesusek gure bihotzen poz eta onerako emon euskun sakramentua, hor daukagu guk bazterturik, triste eta ilun.
- Lege eta araudiak ondo dagoz; beharrezkoak dira, baina ez ditugu erabili behar, inoiz ere, Jainkoaren Espiritua amatatzeko edota hutsik izteko eran.
- Garrantzizko gai hau astirotsu eta sakontasunez aztertzeaz gainera, Jesus, "errukiaren" irakasle eta egilearen portaerak ekarri ditugu, guk ere Haregandik ikasteko.

JESUS ERRUKIAREN IRAKASLE TA EGILE 213

EUSKALERRIA IRAINAREN MINEZ 243
- Euskalerria etsimenean minez dakusgu itxaroten ebana ezin lortu ahal izatean. Zertzalada honen tirabirak.

BARRI ONAREN OIHULARI 253
- Barri Onaren oihulari gara; Jesusek bidalduak. Jesus ezagutzera emote hau lehen mailako lana lez ikusten dau gaurko Jainko Herriak.
- Ez da, egiaz, lan erraza. Ardurak eta bildurrak sortzen ditu. Ardurak: mundua, abiadan, Kristogandik urrunduaz doa. Gizakia sekulartuta; herriaren erlijiotasuna hilzorian; gizartea txarraren ilunpean.
- Bestetik, bildurra. Ezinak sortzen dauan bildurra. Ebanjelizatze hori ez ete da gure ahalmenaren gainetik dagoan zerbait?
- Munduak jarten deuskuzan eragozpen, traba, kontrako haize eta ekaitz erasoak zelan menperatu? Lanaren izugarritasunak kikilduta gaukaz! Hor gure gogoeta apala.

GIZARTE BARRIA 289
- Jesusek amestutako sendi bakar hori da gure amesa ere. Baina, maitasunean eraikitako sendi handi bakar hori egiteko, aurretiaz, bihotzen aldakuntza bat eskatzen deusku Jesusek.
- Lortu daitekena ete da bihotzen adakuntza hau mundu harro honetan? Aldatzekoa ete da gizarte hau? Hona hemen gure arazoa; gure egiteko latza.
- Gizartearen mila kolorezko irudia margotuko dogu hemen.

GIZAKI BARRIA 337
- Kristuok, betidanik, gizadia hobetzeko asmotan ibili gara. Asmo eder horren atzetik gabiltzaz gaur ere. Gizarte hobeagoa, zuzenagoa, maitekorragoa, batuagoa, bardinagoa... Horra guk laztan dogun guraria.
- Alde batetik eta bestetik, argiune eta ilunaldiak batera datorkiguz. Gizon eta emakume azkarrik asko erre da bidean, mundu hobeago horren bila, jo eta ke ebizala.
- Sarritan ezinaren sentimena nagusitzen da gugan. Zergaitik ez dogu lortzen mendigaina?
- Geure izate-gunean daroagu harra. Zein da gaixo hau? Horren bila goaz hemen.

BAKEA LURREAN 385
- Bakerik gabe ezin izango dogu gizarte onik lortu. Alkarren aurka egiten ditugun zuzenbakokeria eta maitasunik ezean dago gogorkeria eta gerra guztien iturria.
- Lurreko ondasunak, bai materialak eta bai kulturalak txarrago ezinean dagoz bananduta. Hortik sortuak dira hainbeste tokitan dagoen gosea, pobretasun latza, menpekotasuna, analfabetismoa, etxerik eza, lanik eza eta abar.

- Egoera honetatik sortzen da borroka eta armetarako bidea.

GOGORKERIARIK EZA 403
- Gizakia, gogorkeriaren menpean jarrai dagian artean, ez dago ebanjelioa hartzeko eran. Gogorkeriak gogorkeriara daroa gizakia.
- Beraz, gizakia, gogorkeriarako dauan narru latz hori landu, buru-bihotzak gizatasun olioz findu, basatizko sentimen eta grina horreek bigundu eta ebanjelioan dotore-dotore jantzita, gizaki barri bat eginik aurkeztu behar dogu gizarte aurrera.

NOR DA NIRE LAGUNURKOA? 415
- Ebanjelizatzearen atal bat lagunurkoarekin gure alkarbizitza zelan egin irakastea izango da.
- Kristoren irakatsietan, maitasuna kristauen ikurriña da.
- Baina, zoritxarrez, izen hau galduta dago gaur; lotsagarriturik darabilgu. Hemen ezin dogu hutsik egin, bestela itsuenak egiten genbiltzaz.

BATASUN BIDEAN 425
- Aspalditik, Jesusen Eliza zatiuta dago. Gizaldietan zehar Eliza barruan sortu diran eztabaida eta aituezinak, pentsaera eta eritxiak, taldeen arteko interesak eta abarrek, ondorio lez, Elizaren zatiketa ekarri dabe.
- Gaur, gurari biziz, Eliza banandu hau barriro bat eginik ikusi nahi genduke.

ETA ZUK, NOR NAZALA DIÑOZU? 439
- Bariku Guren arratsalde haretan, Jesusen gorpu hila hilobiko harri handiapean gorde ebenean, ez eban inork gazte haregaitik txakur txiki bat emongo.

- Inork ez eban uste, amesetan ere, gazte haren entzutea eta sona gizaldirik gizaldi, ekaitzaren indarrra hartuz, munduko bazter guztietara zabalduko zanik.
- Inork ez eban uste holakorik. Eta, horra miraria! Hogei gizaldi luze igaro dira ordutik hona eta, gaur berton, oraindik ere munduak bere inguruan giraka dihardu. Gaur berton, munduaren bihotza da!
- Bere bihotzeko zauritik erlijio barri bat sortu da. Lurbira osoa bere oroimenez eta irudiz beterik ageri da. Elizaz eta aldarez baterik dago mundu bazterra. Zenbatuezinak dira, bera maitatzearren, martiritzan odola emon dabenak...
- Gaur, zuri eta niri itaunka daukagu: eta zuk, nor nazala diñozu?

ZURE ETXERA GOAZ, JAUNA! 451
- Gizakia hilteko jaioa da. Gure bide guztiak heriotzako itsasoan amaitzen dira. Ez dago hemen iges egiterik.
- Hau holan izanik, berez-berez dator, nahitaez, gizakiaren galdera latza: Eta gero zer? Ba ete da bizitzarik heriotz ostean? Bai ala ez? Non? Zelakoa? Zelan jakin hori? Nori entzun eta sinestu?
- Era guztiriko erantzunak aurkitzen ditugu hemen. Danetariko eritxiak saltzen dira. Guk Kristoren erantzuna bakarrik onartuko dogu.

LASARTE-ORIA
BIBLIOTEKA - DONOSTIA
Sarr 29 893196
Gaia.
Tokia.

Gizaldietan izan dauan nagusitasun hori galdua dau gaur. Ez datoz bat, mila gauzetan, Eliza ta mundua.

Batez ere, pentsaera, irizpide eta arazoetan dabiltzaz haserratuta. Pentsaera eta irizpide horreek alkartezinak dira hainbat arlotan. Zu hortik eta ni hemetik, inoiz aurkituko ez diran bideetatik doaz. Zidor labana hau aitumen onerako.

Kontzilioaren ames bat Eliza gaurko mundu honekin hartu-emonetan sartzea izan zan.

Eliza gaurkotu, bide barrietan ibiltari jarri, gizadiaren zerbitzurako dan ezkero.

«Elizak, egiaz eta benetan, bere-bereak egiten ditu gizadiaren arazo eta gertakizunak» (GS.1).

Gogo zintzo eta jator hau dago Kontzilioaren oinarrian. Hortik doa bere gogoa. Baita gurea ere.